





PMENDI  
BURU.

OTOTICZ-3.<sup>c</sup>







IESUS EN

AMOR NEQUE

DAGOS TEN

SEMPRE

OTITZGAL

ESSEN COMPANICO

A REALIDAD UNICA

DE LA VIDA

DE LA MENTE

DE LA ALMA

DE LA CARNE

DE LA TIERRA

DE LA LUZ

DE LA VERDAD


DE LA LIBERTAD

DE LA FELICIDAD

DE LA PAZ

DE LA VIDA





✠  
JESVSEN  
AMORE-NEQUEEI  
DAGOTEN,  
CEMBAIT  
OTOITZGAL

JESUSEN COMPAÑIACO  
A. SEBASTIAN MENDIBURUc  
EGUÑAC.

III.



Z.

1760.

---

BEHAR BEZALA.  
Iruñeco Libru-guille JUAN ANTONIO CASTILLA-ren?  
ECHEAN.





# LXI-GARREN OTOITZGAIA.

PILATOSEN SENTENCIATIC GALVARIOCO  
Mendi-rañooca.

§. I.

PILATOSEN GARBIERA CIQUIÑA ; TA JESUSEn  
soñecoen alda-era nequezcoa.

I.

**E**Z du orain-dañoocoan mun-  
du gucian Juezec eman  
izandu , PILATOSec bezain  
gaizqui , sentenciaric. AITOR-  
tzen du bein , PILATOSec,  
aitortzen du berriz , bai ta ar-  
taraco videac dacarren aldi gu-  
cietan ere , ez duela JESUS  
maita-garriac obenic bat-ere ;  
ta ecin eman dequiqueola fen-  
tencia gaistoric JESUS maita-  
garriari ; eta al-ere ematen dio  
PILATOS berac JESUS maita-  
garriari gurutzeco sentencia ,  
edo , eman cequiqueon , fen-  
tenciaric gaiftoena , gogorre-  
na , ta alque-garriena.

Baña hau eman , ta ere ,  
ta PILATOSen hordu-rañoço  
aitormenac afqui ez-pa-lira be-  
zala bere sentenci errebes hau

eman ondoan , garbitzen ditu  
PILATOSec bere escuac , Ju-  
datar gogorrac beguira dagoz-  
quiola ; ta erraten die Juda-  
tar berei : OR compon : egui-  
zue zuec , nai dezutena ; nic  
ez dut artzen nere gain gui-  
zon , obenic ez duen , onen  
odola , ta ERlotza.

BAI : on daguizula ,  
Juez ecin gaiftoagoa ; bai ! ZU  
gatic quentzera doaz Judatar-  
rac Jesus maita-garriari , duen ;  
odola , ta vicitza ; ta , ala ere  
zuc orretan ez dezula , diozu ,  
escustecoric bat ere ?

ZUC orre taraco escu-  
ric Juduei ez ematera , Juda-  
tar gogorrac ez diote JESUSi  
quenduco odol-tantaric ere ,  
ta zure sentencia errebes gaif-  
toz

toz



roz duen , gucia JESUSi quen-  
da ondoan , garbiric guelditu  
nai dezula , diozu zuc , eta  
JESUSen odol tantaric gabe,  
edo gaizquiric orretan zuc egui-  
ten ez dezula ?

EZ , ez orrelacoric ,  
Pilatos Juez ez-zucena, ez! Gaz-  
qui emana da , ta becatu ar-  
ri-garria zure gaurco senten-  
cia ; ta zure gain etorrigo dira,  
sentenci orretatic datocen , ga-  
izquiatic , eta JESUSen odol  
isurtzeac.

AH! ta cembat , eta  
cembat lagun dituen PILA-  
TOS Juez ez-zucenac bere bu-  
ru baguenco sentencian , ta hitz-  
queta ero macur onetan ! Ba-  
da era berean ematen dute be-  
ren sentencia , edo ecin eman  
dezaquen escua anitz GU-  
RASOC , anitz NAGUSIC, eta  
anitz CARGUDunec :

EZ ecusi eguiten dute  
alabaña anitz CARGUDunec  
errico guizon galduen sartu-  
atera gaistoez , emacume-char  
ariñac ematen dituzten , erra-  
tecoez , Hostatu-etaco egote  
luceez , jocatze galgarriez , ta  
jan-edan ofafunen , ta echeen  
naf-garriez ; bai-ta gazteen car-  
ric-etaco , ta plaz-etaco ibille-  
ra liquitfez , ta zoco-etaco ,  
ta bazter-etaco egote , ta lan-  
modu ciquin guciez ere.

\*BERE bat eguiten du-  
te Gurafo-tzar aniztec ere be-  
ren Seme-alau-equin , ta Eche-  
co Andre-Naguliatic beren ogui-  
co-equin ; bada , jai-egunac  
etorri horduco , Gurafo-Nagu-  
fiatic , eta Echandre-Amac ema-  
ten dien , baimena-requin , edo  
escua-requin an daude oriec  
naiteca , edo an dabilta elcar  
artuac mutil-nefcachac , fule-  
co etfai galgarriatic agueru izan-  
da ciezten , dantzetan , ta jof-  
taqueta loi liquitfetac ; ta an  
dabilta etfai galgarriaren go-  
gara , ta beren ibillera char-  
etaco loiqueri-equin JESUS-  
en odol-isurtzea , ta gurutze-  
co eriotza berritzen dutela , S.  
Pabloc dionaz : *Iterum sibi met-*  
*ipsis Filium Dei crucifigentes.*

ETA oriec era orretan  
ibillia gatic , beren GURASO-  
ac , NAGUSIC , eta CAR-  
GUDunac artaraco ematen di-  
en , escua-requin , edo oriec  
ibillera ori oriei debec-eraci ga-  
bez , edo ceren oriec berez-  
ten ez dituzten oriec , oriec  
leguiqueen bezala , oriec be-  
rac diote , PILATOS gaistoa-  
rena : bada diote , daguitela  
gu gatic gure menecoac , be-  
rac nai dutena : beguira beza-  
te berac , nola , edo cer era  
dabiltzan berac beren ibill-  
eretan ; be-rentzat izain dute be-

ren

ren ibillera, zucena izan dedilla hau, edo edocean eratacoa.

MEAchatu ditugu guc, diote, bein baño, guciagoran ere; ta adiraci diegu, bai, berac, onac izateco, egun beharco dutena; ta, eguiten ezpadaute, oriena da, ta ez gurea, orien beren macur-era.

Hau orieci erran ezquero, ufte dute, garbitu dituztela beren buruac, eta ez dutela eguiteroric onen-pecoen becatu ciguin-etan. BAÑA egunen batean ecufico dure Gurafo-Cargudu-Nagusi orieci, orien eraculle gal-garri PILATOsec alpaldi gucian ecusten duena, bada PILATOsec eguin bazuen ere Nagusi-Cargudun-Gurafo orieci adina, ta anitz guciago ere gure JESUS maita-gariaren alde, ceren etzuen eguin, eguin behar zuen gucia, Judatar gogorren lan gaitso hau eragozteco, erretzen dago garur fulecean; ta an bertan, ta era berean egon beharrac dira, Pilatos beraren eran dabilzan, Gurafo, cargudun-Nagusi guciac.

II.

PILATOS gaitsoac eman horduco gure JESUSen gurtzeraco sententia, artu izandu zuten JESUS bere Borrero go-

gorrac, eta atera zuten PILATOS Juez zucen-ezaren aldamen-etic. ETA eraman zuten, hartaraco ona cen, bazterren batera, ta an quenda izandu cioten JESUS maita-gariari soldadu-tzar antoac, iniz epeñi, edo ezarri cioten, oial-tzar gorna, ta onequin guelditu cen JESUS, bat-ere soñecoric gabe, ta guztiz alque-quizun arri garri-andia-requin.

JESUSen alque-quizun andi-arri-garri hau aci-raci-naiez; ta, ezagu cezaten JESUS, ecufften zuten, guciac, ezarri ciozcaten JESUSi Borrero berac bere soñecoac: baña priifaca, guztiz gogorqui, ta beritzen ciozcatela bere oñace-neque guciac, beintzat burucoac: bada bere buruan utzi cioten JESUS maita-gariari bere arantzezco coro izugarria; ta, bere burutic JESUSi fartzean bere soñeco (fartuco cioten bezala, beintzat barreñecoa; oia cen aloña hau, ta, era hartan balic, ecin farcitequen, soñecoa); ta fartzean JESUS maita-gariari bere soñeco hau, fartu cioten, eran Borrero gogorrac, edo lasterca, ta cupide bague, erabillico ciozcaten JESUS maita-gariari, bere buruan aguitz fartz-

tuac ceduzcan, arantza guciac; eta sartuco ciozcaten videnabar, eta berriro beste cembait arantz ere; ta sartuco ciozcaten, norc-nai dacufan, adiña oñace, ta min JESUS minbere-maita-garriari ematen ciozcatela.

ORRA, JESUS maitari on guztiz maita-garria! ta orra gure amoreac gatic, eta gure buu arroeraco antufte eroen, ta oioztapen, ta gogoracio galduen alde, cere buru eder mindere orretan garur zuc daramazuna! EZ al dizut nic bertiz, era bereco nere penfamentu macur-galduequin-vide berric eman behar zuri secula gucian! EZ nuque nai beintzar, nere Jangoico-guizon JESUS maita-garria! Ez arren, ez.

### §. II.

BERE GURUTZEA-REQUIN  
JESUSi JERUSALENen  
guertatua.

JESUSen soñecoen aldatze alquezco, ta lotfa-garri hau egin horduco, atera zuten JESUS Borreroac PILATOS-en eheco atarira.

ARA JESUS atera horduco, an ceducaten eguina, ta prestatua, JESUSec bere bizcarrean, bere eriotza-raco, eraman behar zuen, gurutzea.

BEREN gaista-queriac gatic, eta ecin beste izera doacen, guizonac izutzeu dira, ecusten dutenean beren urcabea, edo, berei vicia-quentzeco den, beste edoccin gauza; ta, hura ez ecuttea gatic, itlutzen dituzte beitan, edo lurrerutzen dituzte beren beguiac: baña gure JESUSec etzuen obenc batere: etzeramaten JESUS, ez, bere gaizqui-ac Galvarioco mendira, ta gurutzeco eriotz gogorren ortz-etara: bere Aita Iternorean amoreac gatic, eta gure oneraco cijoan gure JESUS maita-garria bere gurutzeco eriotz-era; ta etzen itzutu bat ere; ta, izutu lecuan: nai andi bat artu izandu zuen JESUS maita-garriac, bere gurutze latz-andi hau ecultean; ta, hau JESUSec ecusi horduco, errain cion, bai, bihotzez, guero hitzez gurutze bereari S. ANDRES Apostoluac erran, izandu ciona: ONGUI etorri zori oneco nere gurutzemaita! ASPALdico urteetan ongui naituric iduqui nazu zuc ni, ta luzatzen cenuelaco nalgabez ongui betea! NERE Aita maita-garriari esquerrac, orain ba da ere neretzat aguertu zaituenean; ta aguertu zaituen ezquero, bertatic emen,

ta

## *dagozten Oioitz-gaiac.*

II

ta bat ere luzatu bague eman dizut nic nere nai oso garbia-requin ciñezco befarca bat, ar nazazun guero zuc ordañez ni cere befoetan; ta, uste onequin, pozic eguiñen dizut nic apa, edo mun; bada, itze lodi lucez zuri joliric nagoela, eguin behar dut nic nere azquen loa, edo eman behar dut nic munduco gucien oneraco nere odola, ta nere vicitza.

ORRA nolacoac izandu ciran, JESUSen aldi hartaco gogoetac, eta afino-garbiac. JESUSea gogoetac, eta afino guciac beguira ceuden becatari gaiso guci-etara; baita Judatar gogor-etara ere; bada guciac ciran gucien oneraco; ta guci-gucien ona billatzen zuten Jesusen horduco ta guerozco neca-era, naigabe, ta tormentu guciac; munduco gucienac valiatzen ez-padira ere Jesusen horduco nequeez, edo bere neque pena arti-garri-equin JESUSec irabaci izandu cienaz.

ETA nolacoac izandu ote ciran JESUS ona gana hordu bereco Judatar gogorren afmoac, eta lanac?

ECIN gaisoagoac! ECIN gogoragoac! ECIN ase ciran alabaña bein-ere Judatar go-

gor galduac JESUSen nequeez, ta JESUS maita-garriari, berac beren naicz eguiten ciozcaten, vide-gabeez.

II.

BAÑA, cein ere andiac ciran, aldi aitarañocoan gure JESUSec eramán izandu cituen, neque-ofñace vide gabac; eta cein ere izugarriac ciran, JESUSec berac berrico eramán beharco cituenac, edo cein ere neque-alque-garri gogorra cen gurutze pitu batequin, ta horduan JESUSec ceducan ichuran, ta flaquia-requin joan beharia, JERUSALENGO calectan barrera, JESUSi bere eriotzaraco bereci cioten toquiraño, JERUSALENDAR guciac, eta egun hartan an arkitzen ciran, ISRAELDarrac beguira cegozquiola; gutiegui ceizten JESUSen Eñtaiac; eta alqueac alqueen gain JESUS necatu-maita-garriari eman naicz, atera cituzten dembora berean, ta JESUS maita-garria-requin batean, iltzeco sententia-requin pefondeguian arkitzen ciran, bi Lapur; ta atera cituzten orieci ere beren gurutze-equin; ta, orien lagun eguiñic, eramán zuten JESUS bere gurutze pean GALVARIOCO mendiaraño.

B2

CER



*Jesusen amore-nequeci*

CER errain ote zuten JERUSALEN-darrac, eta cer beste Errietaco gendeac, era char hartan, ta onelaco bi laguneu artean ecuti zutenean gure JESUS maita-garria?

ORIEtatic gueienac, edo anitzec beintzat ba-zuten JESUSEn gauzen cerbait berri. Oriec berac ba-cequitzen cembat ecuscari, ta miracullu eguñic cegoen bere demboran gure JESUS maita-garria; ta orain orieci era onen alque-garrian JESUS ecuti ezquero: HAU cer da ( errain zuten, nai, ta ez )? CER eguin izan-du dira, guizon onec eguin oi cituen, gauza andiac, edo cer guertatu ote zaiu gueroztic guizon onñ, era onetan orain hau guelditzeco?

ORIEChau erran hor-duco, aditaco zuten, ojuea cetorren, Pregaria; ta nola cion onec JESUSEn etfaiac nai zutena, edo nola cion: JESUSEc eguñiac ceduzcala onelaco, ta alaco gaistaqueciac (guezurrac guciac); eta orre gatic ceramatela Judatar Jaunac JESUS gurutze pean, gurutzeco eriotzara; ta ara ceramatela, era bereco eriotzara cidoacen, beste bi gaista-guin lapur andien artean.

HAU aditzean, arritu-

ac guelditaco ciran ori-etatic batzuec; eta besteac hitzquiri-oca, ta eun aldiz hita, ta irri eguitenñciotela.

ETA zuc cer ote di-ozu, gure Jesus maita-garria, onembat videgaberren, ta alque-quizunen artean cere burua ecuñten dezun demboran? EZ dezu zuc aditzen orra or dio-tena? EZ dezu zuc ecuñten cein lagun onac eman derez-quitzuten videco nequeraco zure etfai mundu Judatar-go-gorrac?

LAPURrac dira, Gaif-taguiñac dira; ta aguiñan, JERUSALENGo Profondegui gu-cian arquirzen ciran, andienac, Judatar gogorrac zuri euan dizquirzuten videco, ta eiortzeco lagunac!

AHgure JESUS maita-garria! BEGUIratzen ez-paceno orain zuc cere Aita maiteari, ta, zuc gure ona gatic, cere gain artua daducazun eguñitecoari, cer etzen guertatuco gutaz, ta gure vici-tzaz?

MILLEtan bedeica da-quizula, zuri, JESUS maita-garria, gure amorez darama-zun, cere lotfa, ta alqui-quizun guertiz andia gatic!

BAÑA nola doaquizu zuri cere gurutzeca-requin gu-

re JESUS maita-garria? Guri-tze ori guztiz andi astun-pifua da! ZU odol guti-requin arkitzen zara gure, JESUS maita-garria, orrembat neque-requin luzaro irauteco zuc: anitz da alabaña azotez, arantzez, foñeco itlatiac quenduz, ta beste anitz aldetara orain Borrero gogorac, eta soldadutzarrac atera dizutena.

BESTE alde, joan den, gau gucian, ta egungo goiz onetan listuca, osticoca, tiraca, ta ucaldica erdi lertua zaduzquee zu cere etaiac, eta oñen gañean doidoia zaudequeen eran, JESUS maita garria! NOLA daramaquezu, bada, zuc, zu, dagoen, horduraco era orretan arkitzen zarala, orren gurutze arri-garria?

NOLA? BEATZ-topaca belaunequin maiz indarric gabez, lurreratzen dela, ta erdi arrastan bezala; ta darion, odola-requin bazterrac bustitzen dituela!

### III.

ECUSIric hau gucia Judatar gogorac; eta demborara berean, mendira baño, len JESUS necatu maita-garria illen zaielaco beldurra-requin, villatzen diote JESUSi norc lagundu bere gurutze baldan-

tzar anun hau eramaten.

ISRAELdar, ta JUDAtar guci-etatic etzuen batec ere lan hau eguin nai izandu: ain lotfa-garria cen orien artean gurutzea, ta gurutzeco erio-tza. BATzen dute an, ta guel-dirazten dute, bere lanteguitic cetorren, Simon, CIRENE centzan, urrutico erri bateco guizon bat.

GUIZON hau, JESUS-en Leguean ongui vicitu ciran, ALEXANDROren, ta RUFOren Aita cen.

AH, nere JESUS maita-garria, ni an arkitzera aldi hartan, ta arkitzera ni an, orain daquiz-quidan, adiña gauzen berri ona-requin, pozic lagunduco nizun nic, bai, cere lan orren neca-garri orretan; bai-ta beste edoceñetan ere!

ORI da nic horduan, ecin neguiquen, eguitecoa. ORren ordez ni gandic zuc nai dezuna, ta nic orain da-guiquedana da, orrembat neque, ta pera ni gatic zuc eramian cenuelaco damu, ta urriquia-requin nola ere bait nic horduco zure amoiarri erantzutea: ta ori bera da, nic orain, ta beti, vici-nazario eguin nai nuquen, eguitemcoa. ETA eguinen ere dut,

ne-

nere JESUS maita-garria, zuc cerorrec artan lagunczen didazula. Laguin zaquizquit, bada, zuc niri didazun, amore andia gatic, bai arren ,bai.

§. III:

URRICARIZCO NEGARREZ  
cerraizcon, cembait emacumeri JESUSEc adiracia.

I.

**A**MBAT gende gogor galduren artean, ba-ciran cembait emacume, JESUSEn gurutze peco ibillera, ta neque arri-garriez urricalduric, negarrez cerraizconac.

Erdi-illa ba-cirudien ere bere trance gogor necatu hartan, etzitzaion gordetzen ecer JESUS maita-garriari.

BA-cequien, bai, JESUS maita-garriac, an cebiltzan-etatic batzuec berari cerraizquiola, Borreroen lan gogorra eguiteco, edo JESUS bera bere bizcarrean ceraman, gurutze berean iltzez josiric, iltzen uzteco.

BA-cequien, bai, JESUS maita-garriac, an cebiltzan-etatic beste cembait lembait-len JESUS bera, berac ceraman gurutze berean illic ecusi-naiez cijoa-cela; beste cembait, oi den bezala, nola iltzen zuten, ecutea gatic; eta

cembait beste ceren onguinai cioten JESUS maita-garriari; ta orietatic ciran, negarrez JESUS berari, JERUSALENDAR-etatic cerraizquion, cembait emacume.

GAñEraco guciei ez ecufi eguin cien JESUS maita-garriac, ceren cequien, etzedela oriec JESUSEn hitz onac aditzeco; baña iltzuliric, artaraco ceuden, emaztequi negarti-etara, hitz guti-requin adiraci cien oriei, berac, ongui izatecotz, eguin behar zutena, eraten ciela: JERUSALENGO Alavac, ez dira negar zucenac, ez, zuen oraingo negar oriec. NERE gain dira, ta nitaz zuec urricalduric, aldi onetaco zuen negar guciac. NEGAR eguizue zuec; baña, behar den, aldera zucenduz zuec cerē negarrac: edo negar eguizue zuec ceren bu-ruen, ta ceren humeen gain!

Nere gain, edo ni gatic negarrez zaudetze zuec, borchaz, ta ecin-beftetz eriotzara daramaten, guizon baten gain ceundezqueen bezala; ta ala gaizqui: bada ni, neronec nai dudala, noa, ta obenic bat ere gabe, nere gurutzeco eriotzara; ta ara noa ni, nic ongui daquidala, beti-berico hondraz, ta gloriáz beteric

utzi-

utzico nautela ni, oraingo nere alque-quizunac, eta oraingo nere neque guciac, eta lotfazco nere eriotzac.

Zuec, bai, zuec zarazte, ta zuen hume gai.oac dira, anitz negarren beharreaan arquitzen zarazten, gendeac, eta aguitz urricalquiac; bada zuen oben-culpac gatic dira oraingo nere neque-flaquia, odol-ifsurtzea, ta ecin-ibilligu-cia.

CEREN negarrez zuec, eta niri orain dariedan, odola-requin ez garbitzera ceren barrenac, edo ceren animac, ceren oben-culpaz, ta becatuz bete-loituac gueldituco zarazte zuec, orain arquitzen zarazten bezala; ta guztiz arri-garria da, zuec, era orretaco ceren egoera gaitoa gatic ceren gain laster ecufico dezuten, lana, ta nequea. ETA ecufico ere dezute, bai, zuec neque-lan gogor arri-garri hau, ceren etzaudezten orain zuec, eta zuen ERRI-tarrac orrembat negar-etaraco, edo orren negar zucenac ifsurtzeco.

ORREMBat nequezco egunac datoz--quitzu-enean, damuz lertzen daudenen, eran egoin dira (cion JESUS necarra maita-garriac) JERUSALENdarrac; eta ecufiric Andie gaitoac, horduco beren,

ta beren humeen quezca, atlecabea, ta ecin vicia; ZOrionecoac (errain dute), humeric ez duten, ezconduac; eta zori onecoac oraindic jaio bague arquitzen diran, guciac: bada jaio-bagueac ez dituzte uquitzen, orain gu onen gaizgai garabiltzten, gure neque gogorrac; eta, humeric ez dutenac, ecusten ez dute, beren neque utia beste nequeric bat ere: ta guc, guerenaren gain, emen daramagu gure hume gucien neque arri-garria ere; edo gu gueren nequeac ez-ecic, necatzen gaitu, gure humeac gure beguetan ecusten duten neque guciac ere.

ORI errain dute, orain nic diodan, necaldian zuen erri onetan arquituco diranac: baña oriec, horduco beren errateac ez ditu atera-co, ez, beren nequepe-gogor-etatic; eta oriec, orien petic beren buruac atera naiez, afico zaizca diez erioari; ta len baño, len hau etorri daquien, itzulico dira mendi-etara, ta errain die bein, ta berriz, ta gueiagotan ere mendi berei: ATOZte, eguiac, atozte mendiac, atozte lembaitlen, gu zuec ceren azpian arturic, lertuac, eta ortzi-tuac emen uztera.

Hau



## Jesufen amore-nequeci

Hau gucia erran, edo, labirqui bi-cen ere, adiraci cien JESUS maita-garriac negarrez cerraizquin, emiztequi JERUSALENDARREI, negur eraguin naiez oriei beren becatuac gatic, becatuei cegozten, gueroço neque izu-garri-etatic oriecatera naiez.

HAU berau erraten digu Jesús maita-garriac guerozco becatari gacioi ere; bada, negar ez eguitera guc, behar den bezala, edo ciñezco damu bat ez artzera guc gueren orain-dañoço becatu guciez; ta, damu hau guc ez artzera, becatu berrinic ez eguitemo garbia-requiu, egun gogorren beguira gaude gu ere, gu gueroç illac guelditu baño len; ta egun aguitz gogorrangoen beguira ill ondoraco, ta eternidade guciguciraco.

EGUN orieç gu becatuzco era gaisfo galgarri orretan arqutzera, zori gaisfoan jãioac gu, ta beti-ta beti erio gaisforen baten billan ibilli beharrac gu; ta, erio gaisfo hau ecin arqutuz guc, amurraturic beti, eta, gueren buruac urratzen ditugula, fulece arri-garrian ibilli beharrac gu! ZORI gaisfozco ibillera! ECUS etzaitzabela, ez arren nere be-

guiaç egun-ta secular, ez!

### II.

BAI, (erran cien azque-nean gure JESUS maita-garriac) negarrez cerraizcon, Andre JERUSALENDARREI, (ta erraten dit orain niri ere); bai, ezatafun utfa den, egur bat onela erretzen duen, tuac nola erreco ote du, alde gucietatic, eta barreneco bere muñ-etaraño igarturic arqutizen den, egur bat? EDO, obenic ez dudala nic bat ere, era onetan ba-naduca ni nere Aita maitariaren afer-erac, nola iduquico ote ditu, zuç bezalaco, becatariac, edo, becatuz, zuç bezain, igartuac arqutizen diranac?

CERORrec jaquin hau, gure JESUS maita-garria! Eta daquizunac bezala, nitaz urricalduric, eza nazazu ni arren nere damuzco negarrequin, ta, nere amorez datiezun, cere odola requin; emen cerbait erreco ba nazu ere zuc ni, nequez, ta penaz, erre ez nazazun zuc, eternidade gucico cere su, ta gar ar-rigarri-equin!

ONTARTE berri hau ere' zu gantic ufte dut nic gar, nere JESUS maita-garria. INDAZU bada zuc; bai arren, bai.

1.

**SUSCEPERUNT ME SICUT LEO**  
*paratus ad praedam, & sicut*  
*catulus leonis habitans in abdi-*  
*tis. Ps. 16. 12.*

**P**ILATOS gaiftoac utzi-hor-  
 ducio artu zuten gure JE-  
 SUS maita garria bere Borre-  
 ro gogorrac, JESUsec berac  
 DAVIDen ezpañez erranic ce-  
 ducan eran.

**ARTU** ninduten ni,  
 dio DAVIDen ezpañez: artu  
 maduten ni, gofetz erdi-amur-  
 raturic arquitzen den, leoi ba-  
 tec bildots, edo humerri bat  
 bere atzapar-etan artu oi du-  
 en eran; edo artu ninduten  
 ni, bere lecean gofetz dago-  
 en, leoi cumeac bere ortze-  
 tan artu oi duen bezala, eici-  
 tic leoi gurafoac ecartzen di-  
 on, aragui zatia.

Beraz ecin gogorquia-  
 go artu cinduzten zu, gure  
 JESUS maita-garria, cere Bor-  
 rero gogorrac? Beraz erabilli  
 cinduzten oriet zu, batac bate-  
 tic, eta bestetic besteac tira,  
 ta ucaldi; ta an bertan ill, ta  
 urratu behar ba-cinduzten, be-  
 zala?

ETA nola erabilli ote  
 zaitut nic nere egunetan, ne-  
 re JESUS maita garria? OBE-  
 QUI ote, edo aguitz gaiz-  
 quiago? III

ERRAN dezatela orain-  
 dañoco nere ibillerac! ERRAN  
 dezatela nere orain-dañoco la-  
 nac: eta erran dezatela nere  
 orain-dañoco urrats, eta pau-  
 su guciac!

BAÑA cer erran deza-  
 quee oriet guciac?

GER? baicic, zocora  
 tiratzen den, oial-tzar batez  
 baño, caso guciago eguin ez  
 dudala nic, ascotan beintzar,  
 nere JESUS maita-garriaz!

CER? baicic, Jongoi-  
 coric ez pa-liz baño, guciago  
 ez nazala beldurtu ni nere ora-  
 in dañoco aufardietan, ta ne-  
 re lan ciquin galdu galgarriac  
 eguiten nembillenen dembo-  
 ran; ta eguin ditudala nic, ni  
 jaio nintzan, egunetic orain-  
 dañoco nere demboran, nic  
 neronec daquidan, adina be-  
 catu; ta ala ere ni, orrem-  
 bat nere becatu-requin JESUS  
 maita-garriari eguiten nion atfe-  
 cabeac, ecer-ez bat bai-liz  
 baño, guciago beldurtzen  
 ez navela!

Eta ez da hau, Leoi-  
 ac bildotia, ta Leoi-cumeac  
 aragui zatia darabilen, bezain,  
 gaizqui, ta gogorqui nic nere  
 JESUS erabiltzea; ta JESUS nic  
 era onetan erabiltzea, bein, ta  
 berriz, ta ascotan ere?

ETA cer ote da, era

C one-

onetaco nere erabill-era galgariari gueroraco dagocana?

CER? baicic betico fulecea?

UTZICO al dut nic nere erabiller galgari hau fulecean ni ez erortzea gatic, eta nic nere JESUS maita-gariari zor diodan amore andiari erantzuteco. Bai baldin bere, bai.

2.

OMNES NOS QUASI OVES ERRAVIMUS: unusquisque in viam suam declinavit; & posuit Dominus in eo iniquitatem omnium nostrum. Itai. 53. 6.

**G**URUTZE andi-izugarria cen, gure JESUSen fonean onen etfaiac Oñiral Santuz ezarri zutena; baña etzen gurutze hau bacarric, ez, aldi hartan JESUSec bere gain zuen, cargueri gucia, bere gain zuen aldi hartan JESUSec gure becatu gucien cargueria ere; ta cargueri hau, Judatar gogorrac billatu cioten, zurezco gurutzea baño, aguitz astunagoa cen, ta aguitz izugarriagoa, JESUS maita-garriarendaco.

EZ deziu hau zuc sinisten? ADI-zazu bada gauz onen gain JESUSec berac ISAIASez bein efan izandu ciguna: GU gucioc (gure icene-

an hitz-eguiten du aldi onetan): gu gucioc izandu gara; ardi char-errebeft-galduac bezala; bada, gure Jaunaren belarti onac, eta Elizaco Sacramentu-etaco jan edan indarti garbiac utziric, safiz safi ibilli izandu gara gu, ta becatu zorrotzen larrez, ta puntaz odoltuac, eta galduac; eta era orretan ibilli izandu gara gu gure JESUSi neque guciago-ta guciago eman naiez bezala.

EZ guembiltzan gu gucioc, ez safi, ta lar arte batean; nor bere lar-artean guembiltzan gu, ta bacoitza cebillen, bere gogoac ematen cion, videz, ta eran.

CONTA al adina, ta aguitz guciago dira, gueren ibillera orietaco, gure obenac; eta guciac, gurutzeturic bazala, edo elcarri itatsiric, ezarri diozca gaur Aita eternoac bere Seme Jangoico-guizon, JESUS maita-gariari.

ORRA aldi onetan ISAIASec hitz biz, edo bidazguri eñaten, edo adirazten diguna. ETA orra videnabar gure JESUS ongui necatuarentzat, Judatar galduen gurutze astunpitu-gogorra baño, gurutze, ta cargueri aguitz astun-gogorragoa!

AH

AH nere JESUS guztiz maita garria! Ni izan árdi char galdu fulececo otlo-tzar gogorren ortzetan-guelditu beharra; ta, ni ara ez noan Judatar gogorren gurutzea-requin zu, ta nic nere becatu-eguin eguin dizudan; beite astunago bat zuc cere soñean, edo BIHOTZ guztiz maitari orretan dezula, JERUSALENGO calez cale, Borreroen ef-cuetan, jaiqui erori, oñacez beteá, odola ta odola danie-zula, ta cere etñaiac ojua, tiraca, ta ucaldica dagozquit-zula, Galvariaco mendira!

BAÑA nola, cer moduz, edo cer eratan?

ARDI ona Araquin-deguira doan eran, era zure Borrero onec nai duten bezala, jaquific ere zuc daquizun bezala, zuc cere soñ, edo bizcar orretan daramazun, gurutze berean josiric illa, ta odolic gabe, utzi nai zaituz-tela.

HAU ba-daquit nic, nere JESUS maita-garria; eta ez da al ere damuzlertzen nere bihotz char galgarri hau? EZ dizquitzut nic ala ere ematen elquerrac eunca, ta mil-laca, zuc niri didazun cere amoreá gatic? ETA ala ere ez dut artzen nic asmoá, ga-

ur-guero zure icenean, eme-emequi, ta, behar den, eran eramateco nic ere nere gurut-zea, edo edocein naigabe, quezca, ta lan?

NERE eroeguiá! NERE centzu gabea! NERE gal-dua!

3.

*BAILANS SIBI CRUCEM, EXI-vit in eum, qui dicitur Calva-ria locum. Ioan. 9. 17.*

**B**A-doa JESUS necatu-mai-ta-garria bere gurutze astun arri-garria-requin; ba-doa JESUS JERUSALENDic Galvariaco mendira; ta ara doa, an Borreroen ef-cuz illic guel-ditzera.

AH, JERUSALEN-dar-rac; JERUSALEN-darrac; eta ba-ceneque zuec, cein gauz-qui guelditzen zarazten, ce-ren eritic zuec ceren JESUS atera ezquero?

ZUEN arteco guci-eta-tic zuen Erriari gueiena be-guiratu behar liqueenac dira orango aldian gaifloenac! ORIEC dira zuen APEZAC, eta APEZ-arte berean ere ef-curic gueiena duten, guizo-nac. ORIEC dira zuen ESCRI-BAC, zuen JAQUINSUAC, eta CARGUdunac!

ORIEC dira gaifloen-ga-



*Jesusen amore-nequeei*

gaistoac. Eta orieci dira zuen Erritici JESUS aurtiqui, ta bota, ta gurutze batean illeraztea gatic, bazter guciac naften ibilli diran, guizonac.

ERDITSI dute orieci, bai, berac nai zutena; ta ara non doan JESUS bere gurutze pean, JERUSALENGO Erritici aterarici, Galvarioco mendi gañera. LASTER, ta fite utzico dute an JESUS maitagarria, daraman, gurutze berean iltzez jofiric, orretaraco, bera-requin doacen, Borrero gogor-eguiac!

BAÑA zori gaistoan jaioc orieci, orain dauden eran orieci iltzera! bai ta gañeraco, bucaera bera duten, guciac ere!

ORAIN orieci JESUSi eguiten dioten, vide-gabea gatic, anitz luzatu gabe, etorrico dira Erroma-tierrac zuen Erri eder JERUSALEN hau artzera. ARTUco dute, bai, anitz nequeren buruan ba-dere. ILLEN dituzte millaca, ta eun-millaca ere, Erri orretan or arquitzen dituzten-etatic; eta, viciric guelditzen diranac, eramain dituzte preso, edo falduco diezte ecer-ez batean, erofi nai dituztenei: ta arri pilla bat eguific, utzico dute zuen erri-eder-andi-arrigarri hau,

ORRA ceren billan zabilzten, zueci, JERUSALENDARRAC, JESUS, ceren Erritici aterarici, ill-eraci naiez zabilzten aldian!

ETA ceren billan ote zabilta zu, becatari charra, cere bihotz-etic cere Jangoico-maita-garria aurtiquitzen dezuncan? CEREN billan ote zabilta zu, cere gogo gaistoari atseguin eguitea gatic, cere JESUS maita-garria atsecabez betetzen dezun aldian? CEREN billan ote zabilta zu, cere mihari uztea gatic, behar ez diran, hitzac erraten, edo cere escuaren uquitze ciquin bate gatic, aienatzen dezuncan zuc cere Animatic cere Jaunaren gracia, ta adifquide-tafuna?

CEREN billan ote zabilta zu, gorrotu char bat ez utzi naiez, edo gogoeta char bati cere bihotzean toqui eguitea gatic, galtzen dezuncan zuc JESUSEN amore bazterric baguecoa, ta zuri ongui-naia? CEREN billan ibillico naz ni, nere JESUS maita-garria? NERE galtzearen billan! bada ni gandic nic zu atera ezquero, nerequin dira nere becatuac, nerequin dira nere Etsaiac, eta galdua naz ni gueroztic eternidade guciguciraco!

EZ

EZ arren, JESUS maita-garria, ez orrelacoric, ez! ITZULI zaitetz zu; ta bertatic ala ere: nere bihotz onetara, ar-quitzen ba-zara zu, nic emen-dic aterea; ta etzaitecela emen-dic berriz atera. EGUIN uf-

te dut nic hartaraco nere eguin ala. Maitatuco zaitut nic zu ci-ñez vici-nazaño; ta eguia dio-dalaco señaletan, leneco gaiz-queiez ongui damuturic, erra-tera noa: NERE JESU-CHRIS-TO, &c.



# LXII-GARREN OTOITZGAIA.

JESUSEn GALVARIOCO LEMBICICO NEQUEAC, ETA GURUtzeratzea.

§. I.

JESUSI EMAN CIOTEN, EDARI MIÑA; TA SOÑECOAC quentzea,

I.

**G**ALVARIOCO mendira ceneco, quendu cioten JESUS maita-garriari bere bizcarreco, edo soñeco gurutzea; baña, ecin gueiagoraño necatua ba cegoen ere, etzioten eman Borreroac atfedeteco lecuric JESUS maita-garriari. Batzuec asi ciran gurutzea bere toquian prestatzen, lembait-len an jofuric JESUS uzteco; ta besteac an cebiltzan ecin baldanquiago JESUS bera-re-quin.

ORIEC lembicoric

JESUS ona-requin eguin izan-  
du zutena cen, edaten ematea.

ANDIA cen, nai-ta-ez, JESUSEn aldi hartaco egarria; bada neque anitz ecusi zuen JESUS maita-garriac leneco ar-ratletic asi, ta hordu-rañoco dembora gucian; ta anitz cen dembora berean JESUSi atera cioten odola.

JESUSEn egarri andi hau iltzeco, atera cioten JESUS-

SUSI Borrero-tzarrac beren edaria. BAÑA cer edari?

ARDOZ, Mirraz, ta BEAZUnez eguiñ-icacoa! ECUSTen dezu cein goisoa?

ETA aguitz gaifoagoa ote da, zuc eta nic anitz aldiz, edo becatuzten guinan gucietan JESUS berari escañi oi guenion, edaria? CEMbat aldiz escaintzen guenion guc gure JESUS maita-garriari gueren Elizaratzea, gueren an ego-tea, ta an guc eguiten guenu-en, cer, edo cer? BAÑA cer cen hau gucia?

CIRUdienaz, ardo ona, ta edari goisoa: baña, ascotan beintzat, gure asmo, edo gogoeta charraren, edo eguite galduaren beazunez cena mindua, edo ciguindua!

ALDiren batzuetan escañi diozcat nic nere Jangoi-coari nere confessa-comecatzeac, baña ba-ciran nosqui orien artean damu andiric bagueco, ta ontzeco asmorie etzuten confesioneac; eta orieci, eta orien ondoren cetocen, nere comecatzeac cer edariac ote ciran gure JESUS onarendaco?

IZURRIZ beteac; becatuaren beazunez minduac; eta Judatar, gogotren Borreroac Jesufi eman ciotena baño ere,

aguitz gaifoagoac; eta orregatic, ezpañez ere, JESUSec uquitzen etzituemac.

II. ETA cer eguiñ ote zuten JESUS maita-garriac Judatar gogorren Borreroac eman cioten, edari minduaz?

AHOAN artu, ta bota; guri orretan adiraztea gatic, bere naiez ceramatziela JESUS maita-garriac, Judatar gogorren escu-etatic cetozquion, neque guciac; eta etzuela nai, arin cequiozcan bat-ere (nequeac cerbait arintzeco cen edari hura); ta prest cegoela, mintafun gueiago, ta gueiago-requin ere bere neque guciac gure amorez artzeco.

HAU gucia JESUSec orain ni gatic! ETA nic ecer-ez bat ere ez artu nai nere JESUS maita-garriaren icenean; ta onen amore andiari nola ere-bait nic erantzuteco? ETA ni nere Jau-naren iceneco neque, ta nai-gabe gucien igueli?

ESQUERRAren ederra! JESUSi diodan, amorearen andia!

ETA al-ere ez naz alquetzen ni? ETA al-ere, nazan bezain, lotsa-gabea ni nere JESUS ona-requico?

III. Borreroac, beren edari latz hau JESUSi escañi ondoan, quenda, cioten bere fo-

ñeah cecarren, guci-gucia ; ta an mendi aguerian , ta JERUSALENGoac , eta ISRAEL-darretatic , norc daqui , cembat beguira cegozquiola , ar-eraci cioten JESUS maita-garriari , guizonc artu duen , alque-quizunic andiena ; bai-ta oñace , ta miñ anitz ere ; bada bere alcandor-ordea , edo orratzez Amac bere aur-tafunean eguin izandu cion barreneco bere tunica , JESUS maita-garria-requin andituz joan izandu cena , ta egun hartaraño bein-ere JESUSec crauntzi gabea , itzafiric egoin cen JESUSen bizcar , ta gorputz odoltuari ; ta , Borreroac hura JESUSi quentzean , urratuco cioten JESUSi bere aragnia ; utzico zuten JESUS odola ceriola : ta nola osoa cen , alcandor-orde , edo JESUSen barrengo tunica hau , burutic ateratzean ( atera behar cioten bezala ) , nafutuco cen JESUSen buru bereco coroa-requin , ta coro bereco arrantzac erabiltzea-requin , emain cioten Borrero gogorrac JESUS maita-garriari anitz oñace , ta miñ berri.

ONEMBAT oñace-requin bada , gorputz azotetz , ta ualdiz urratua-requin , ango zuloetatic , eta burucotatic odola ceriola , ta soñe-

coric gabe utzi zutenean JESUS maita-garria Borrero-tzar gogorrac ; eta ala uztean JESUS , egunaren erdi-edian , ta ambat beguira cegozquiola , cer lotfac , cer nequeac JESUSen aldi hartaco neque lotfa-garriac ?

Bai ? bada guciac dira , zuc , eta nic JESUSi emanac , gueren lotfagabe-queriarequin , ta gueren burtei guc eman gueniezten , atfeguin-loi-lizunliquits gaitoequin !

EZ dugu guc alqueric bat-ere izandu gueren gauza ciquin-alque-garrietan ! UTZI ditugu guc damuric bat ere bague , bein , ta berriz , ta afcotan ere , gure Jangoicoac guri emanicoac , bere graciaren ioñecoa , ta virtuteen apaindura ederrac !

EGUIN ditugu guc afcotan , eguin behar etziran , lanac , eta gauzac ; eta eguin ditugu aldian , aldian baño ere , charragoac , galduagoac , eta itzusiagoac ! ETA orra non orien alde quentzen diozcaten gaur gure JESUS maita-garriari ( ta quentzen diozcaten , berriz ez emateco ) bere soñeco guciac : eta quentzen diozcate , lenagoco quen-aldietan baño ere , aguitz alquequitzun gueiago-requin , ta ne-

gue-

que andiagoa-requin.

ETA al-ere ez gatzazica urricultzen gu gure JESUS maita-garriari?

AMBAT ango beguiraguin gogorren artean urricaldudu citzaio. norbait JESUS maita-garriari, oial zuriren bat emateco; guerritic hau lotu, ta erdizca ba-cen ere estal cezan JESUSec bere burua, edo bere larru-gorria.

§. II.

ILTZEZ JOSTEN DIOZCATE  
*Borreroac JESUSi bere bi escuac gurutzearen bi befoetan.*

I.

**B**EREN edari miña eman, ta bere soñecoac JESUSi quendu-ondoan, prestatu citoten Borrero gogortac JESUS berari bere gurutzeara.

ILLUNtafunic eracutfi gabe, ta bere nai andia-requin urbildu cen JESUS maita-garria bere gurutze aldera. AN humiltafun andia-requin, ta bihotz esoz escañi cion JESUSec bere Aita eternoari, Aita beraren icenean, ta gure gncien oneraco bere vicirtza, ta, guelditu citzaion, bere odol gucia.

HAU eguin-horduco, itzuli zuen JESUS maita-garriac bizearra gurutzera, ta luzatu ciezten Borrero gogor-

rei bere escuac, gurutze beraren bi befoetan iltzez josteco.

EZARTzen dute Borreroac JESUSen escu bata bere toquian. ARTzen dute iltze lodisco luce bat, an hura josteco. UQUITzen dute iltze--puntaz escu--zabala; ta martillu baten ucaldi andiac andien gain ematen diozcate-la, igarotzen diote JESUSi escu gucia; ta, gurutzeari ongui joliric guelditu dedin JESUSen escu, era onetan zulatu hau, sartzen dute bururano gurutzearen zurezco beloan lendabico beren iltzea.

CER diozu zuc, cere oben--culpequin beren lan gogor hau Borrero oriei eraguin diezun, becatari charra? JESUSec horduan eraman izandu zuen baño, aifago aditzen dezu zuc Borrero orien lan gogor arrigarri hau! ORRATZ batec zu, edo edocein arantz puntac escuan uquitu horduco, AYca zaude, ta gaitz andi bat artu duen, aurraren eran, ta orra gure JESUS maita-garria gueldiric dago, iltze luce lodi bat Borrero gogorrac martil-ucaldica ondotic bururano bere escuan sartu artean!

CER? EZ ote cen, gurea bezalacoa, ta guztiz miñbe-

bera , gure JESUS maita-garriaren escua ? BAI-ta aguitz, eta aguitz mimbereagoa ere!

BADA cembat min, eta cembat oñace ar eracico cion iltze-tzar arri-garriac, Borreroac hura martill-ucaldica escuan JESUSi, fartzean, ala fartu ondoan, ta guero JESUS bera illic guelditu arteco bere dembora gucian?

EZ da erraz, ez hau erdizca, edo laurdenca ere guc adiraztea.

NAI, ta ez urratu zuten iltzeac bere videco aragui gucia, bai ta, an arquitu cituen, zañ, eta gauza mimbere guciac ere: eta JESUSen escu hartaco ezurrac ere utzico cituen iltz-tzarrac, edo erdi autliac, edo beren toquitic aldarataac; eta utzico zuen escua odola, ta odola ceniola.

ETA gucia gatic ere ifillic gure JESUS maita-garria?

BAI: ifillic JESUS, ta hitz bat atera gabe onembat bere escuco urratze, oñace, ta nequeren artean!

NORC eman ote cion JESUSi onembat indar, onembat ifsill-era, ta onembat paciencia, onen neque, ta oñace andien artean?

BERE virtute, andiac, eta JESUsec berac niri didan,

III

ongui-nai amoreac.

VIRTUtearen arrigarria! AMOrearen bazterric gabecoa!

Hau gucia ecusi, edo ezagutu ondoan ez ote dut maitatucoc nic nere Jangoico-guizon, onen maita-garria? EZ ote da orain ba-dere, JESUS maita-garri, ni gatic onembat necatua ganaco urtical-tafinez bereric guelditucoc nere bihotz char galdu, esquer-gabecoa?

ANITZ dela, deritzazu zuc, orain adirazten zaitzun, gauza bata, ta bestea?

BADA, cembat ere den, ez da oraindic, ez, JESUS onac zu gatic eramane behar duenaren laurdena-ere.

II.

ERA onetan, ta onen gogorqui bere escu bata jositondoan, artu cioten JESUSi Borreroac besteac ere. EZARRI cioten hau guruzze beraren bigarren beso gañean.

HAU an ezartzean, ezagutu zuten Borrero gogorrac, escu josiaren iltz-tzara-nequen bildu cirala JESUSen alde araco zañac; eta ecusi zuten, etzetorrela bere toquien, JESUSen, escu josi beharra; ta aratzea gatic, asico ciran Borrero gogorrac JESUSen belonic tira ta tira; orrequin acico ci-

D

ran



an aguitz JESUSEn escu josi-  
co oñace arri-garriac : eta, JE-  
SUSEn befoetaco zañac luzatuz,  
ta aguiñ an bertaco ezur-  
rei ere beren toquia gal-eraz-  
ten ciela, eramain zuten Bor-  
reroac, zulaturic ceducaten gu-  
rutzearen lecura : ta, lembici-  
coa bezain, iltze lodí-luce-go-  
gorra-requin (ta hari baño ere  
martill-ucaldi, ta golpe gucia-  
go ematen ciozcatela, ceren  
ura bezain ongui, ta zucen  
ecin cegoquen iltze hau ; ta or-  
re gatic JESUSEn oñace, ne-  
que ta miñ aguitz guciago-re-  
quin ) utzi zuten Borreroac,  
besteá bezain josi-urratua JE-  
SUSEn escu hau : ta guelditu  
cen JESUS maita-garria, lenen  
gain, oñace berriequin ; JESUS-  
ec len cituen, oñace guciac  
berritzen cituzten oñace-equin ;  
ta orre gatic, lenac baño ere  
oñace aguitz, eta aguitz andia-  
goequin.

ETA, JESUSEn leneco  
oñaceac baldin ba-ciran, ecusi  
dugun bezain arri-garriac, ora-  
ingo oñace guciac, eta lenac  
elcar artzen zutela, nolacoac iza-  
in ote ciran JESUSEn horduco  
oñaceac ?

EZ da erraz, ez, guc  
ori jaquitea, Jesusec berac be-  
re gogargui onez ez adiraztera.

BAÑA guc daquigun,

apur hau ere asqui, ta sobera  
da, guc eguin behar dugun,  
lan ona guñ craguiteco.

BAÑA cer lan ote da  
guc orain eguin behar dugun,  
gueren lan hau ?

CER lan ? GUC gue-  
ren gauzac ongui zaitzea.

CER gatic, uste dezu,  
zuc, dauden bezain zabaldu  
atereac arkitzen dirala gaur  
gure JESUS maita-garri-aren  
bi befoac ?

CEREN zuc cere oriec  
zabaldu izandu cenituen, da-  
quizun, betarac, edo beste  
cembait lan loi-ciquin eguiteco.

AH nonbait orretara  
baño len, igartu-errec gueldi-  
tu behar zuqueen, zure befo  
gaitoac !

CER gatic ote daude  
ain urratuac, eta ain odoltu-  
ac gure JESUS maita-garriaren  
bi eicuac ?

EZ daquizu zuc ceror-  
rec, galdu-char loi ciquin li-  
quitsa ? ETZARA oroitzen zu,  
araco cere uquitze ciquin, ta  
escuca galdu-galgarriez ?

DAMU gaitoan ecusi  
cenuen zuc bein-ere, bein, ta  
berriz, ta ascotan itsatli, ta  
zuc cerorrec daquizun eran,  
erabilli izandu cinduen, guiza-  
qui gaito hura !

CER gatic ala dauden  
gaur

gaur gure JESUS maita-garriaren escuac ?

ETA zuc cere escu oriequin cere bacar--tafunean arturicaco atseguin gaitoac ? ETA zuc, era orretan ceundela, utziricaco fulececo bar-arrastoac ? Eta oriequin berequin zuc len egunicaco artze gaito, ta lapur-eriac ?

ORRA, bada, cer gatic dauden gaur, dauden bezala, gure JESUSEn escuac ? Eta orra, zuc gaur-guero utzi beharco dituzun, lan--guero gaitoac, eguin uste ba-dituzu zuc, cere JESUS maita-garriac agnertzen dizquitzun beste garbiac.

§. III.

OñAC JOSI ONDOAN, UZTEN dute JESUS Borreroac, ecin adiraci aña oñace-requin.

I.

JESUS maita-garriarē escu biac gurutzearen bi besoetan ongü josiac utzi horduco, artu izandu cituzten Borrero gogorac JESUS beraren bi oñac, eta josi cituzten oriec ere gurutze berean, eta josi cituzten, bacoitza bere iltzea-requin, edo iltze batequin biac, JESUS gurutzetuaren aintzura, edo imagen gucienetan ecusi oi dugun bezala.

JESUSEn oin biac

iltze bat-equin josteco, andiacen nai-ta-ez, Borreroac arturicaco, iltze-tzarra: ta iltze-tzar onequin JESUSEn oin batabestearen gain, ta JESUSEn oia biac elcar-equin josteco, anitz izandu ciran, ta andiac Borreroen martill-ucaldiac, edo golpeac.

ETA, escu bacoitza banaca, ta bere iltzea-requin josten ciotela ere, escua izana gatic, oña baño, aguitz meagoa, ain andi-gogor-izugarriac izandu ba-ciran, ta, guc asma-al baño ere, aguitz andiagoac, JESUSEn escu bacoitzeco neque-oñaceac, cer oñaceac, eta cer nequeac ecusi izandu ote cituen JESUS maita-garriac, oin biac bateran, ta iltze-tzar arri-garri batez Borrero gogorac josten, ta urratzen haritu cequiozcan dembora gucian ?

ETA, ecin almatuz ba-gaude gu, nola eraman citzaquen gure JESUS maita-garriac bi escu-etaco oñace-utlac, cer erran dezaquegu guc, ecusten dugunean, neque-oñace arri-garri oriequin batean daramatziela JESUSEc berac bere oñetaco oñace-neque izu-garriac ere; ta guciac daramatziela, ecer ez-pa-lerama bezain ifillic, eta emequi ?

CELR ? JANGOICO-Dz  
gui-

guizonaren eramatea dela, oñace-nequeen eramate guttiz arri-garri oii.

BESTEric ez-pa-dere, ecin jaquin ote guenzaque guc, cer gatic ote diran JESUSen oñen urratze izugani oriec, eta JESUSen oñetaco orrembat neque, ta oñace ?

ORI bai ; ta aisa al-ere.

CER gatic bada ?

NERE ibill-era aringai-istoac gatic ; nere sartu-atera, ta egote, behar ez diranac gatic ; eta ceren ni nembillen, etfaiac niri eracutli-ricaco, nere joitaqueta ciquin-etan ; etfai beraren urrats-etan, ta pausu galgarrietan ; ta Ceruco nere videa, ta Legue guttiz garbia aldebat utziric, etfaiac niri gazqui naiez eguin-icaco vide-etan.

ERA onetaco nere oñen ibiller galduen alde dira, bada, JESUsec bere oñetan gaur ecuf-ten dituen, iltzez-joste, urratze gogor, ta neque, ta oñace guci-guciac.

ZORI onecoac zu, ta ni, guc onela, edo onen necatua gure JESUS ecui ondoan, centzatzen ba-gara gu, gaur bertatic guc uzteco orain-dañoco gueren vide galduac, pausu galgarriac, eta ibillera gaiso-ciquinaac !

## II.

LENago lurrean sarturic ez-pa-ceducaten gure JESUS iltzatuaren gurutze andi hau, sartuco zuten golpez Borrero tzarrac, lenic orretaraco eguinaic idnuico zuten, lurreco zuloen batean.

GOLPE onequin dardaratu cen, nai-ta-ez, gure JESUS maita-garriaren gorputz misiberea : len ceuden baño, anitz urratuagoac gueldituco ciran JESUSen escu-oñac ; eta cargatuco cen JESUSen oñ iltzatu-en gain JESUS beraren gorputz gucia ; ta gueldituco ciran, len arkitzen ciran-etic aguitz atereagoac JESUS maita-garriaren bi befoetaco ezurrac ; eta gueldituco ciran, len baño ere aguitz luzatua-goac.

ETA, cembat JESUS maita-garriaren oñace berri-requin, guertatuco cen hau gucia ? Norc hau adiraci ?

JESUsec berac.

BAÑA nori adiraci naico ote dio hau gucia gure JESUS maita-garriac ?

ORREtaraco prestatzen diran, Anima garbiei.

NAI dezù zuc becatari charra prestatu cere Anima JESUSen aguertze eder orietaraco ? BAI ? QUEn zatzu bada zuc cere beguiac, liluratu oi

zai-

zaituzten, lureco gauz-etatic. UTZI zatzu zuc, cere bihotza trabatzen dizuten, araguiaren naicunde gaiftoac, eta go-goeta lizunac; eta beguiz, ta bihotzez beguira zagozu zuc, eta hasti-hastiro cere JESUS maita-garriari; ta adiracico dizu zuri JESUsec, zucadi-alean, orain berac zu gatic daraman, neque arri-garria.

III EZ dezu ecusten, cein andia den, dembora berean JESUsec daraman,alque-quizuna? LARRU-gorrian daducate guciena, ta listuz, ta ciquin-queriz dena loitua gure JESUS maita-garria! LURRAC ecin ecufi duen, gaiftaguin arri-garriren bat bai-liz bezala, lurretic quenduric daducate gure JESUS maita-garria Judatar gogorren Borrerotzar galduac!

GURE JESUsec escu-on gaiftoac izandu dituela, adiraci naiez, ta lapur andi bat bai-liz bezala, bere oin-escuac josuric daduzca, bere bi bazterretan gurutzetuac daduzcan, Lapur biren eran; ta, ISRA-ELdar gucien arteco gaiftoac centzaraci naiez bezala, edo, horduraño gaiflatu etziranac, gaifta ez ditecen guerozco dembor-etan, era orretan daducate Judatar gogorrac JESUS maita-garria; ta era orretan dadu-

cate, anitz milla guizon beguira beguira dagozquiola bere begui-etara. ECUS ten dezu cer alque-quizuna, bere egoera lotfa-garri onetan JESUS onac daramana? IV.

ETA norañocoa den, nola ere-bait orain zuc hastiz ecusteco, era onetan dagoen, gure JESUS maita-garriaren ne-caera, beguira zagozu JESUS gurutzetuari bere bazter guci-etara, ta bere burutic bere ofietaraco guci-gucian.

ORRA, bere escu-oniac iltzez urratuac daduzca, ta milla onace-requin arquitzen dira, oriec, bere gurutzean JESUS Borreroac josi zutenetic; eta al-ere bere gain duté escu-on oriec gañeraco JESUS beraren ezur-zain, ta gorputz guci-gucia.

BURU gucia arantzez beteric daduca, ta, norc daqui, cembat odolezco iturri-requin gure JESUS maita-garriac; eta orre gatic daduca onacez lertzen, ta erdi bi eguiña bezala.

ERA onetan, daducan; bere buru hau ez du non iduqui JESUS maita-garriac, gurutze gogor berean ez izate-ra: ta burua gurutze-ratzen ba-du, sartuco zaizca, len bano, barrenago, buru berean

daducan , cōro-latzaren aranza zorrotzac ; eta guelditucoda , lengoen gain , oñace berri arrigarri-equin.

BURUAN duena du JESUS maita-garriac bere escu-oñetan , bere bizcarrean , ta bere gorputz guci-gucian : ta JESUS-en gorputz gucia dago zuloz , zauriz , ta oñacez betea.

GUELDIRIC ba-dago bere gurutzean gure JESUS maita-garria , oñace , ta oñace dago , ta atfedeteren pits bat ez duela ; ta , cerbait atfeden najez , nola ere-bait iguitu ez-quiero , edocein iguitzec berri-tzen , ta anditzen diozca JESUSi bere oñace guciac ; eta ez da gure JESUS maita-garria burutic oñetaraño nequea , ta nequea , miña-ta miña , ta oñaceac oñacen gain , befteric.

ETA hau cembat demboraz , uste dezu ?

IRUR horduz!

ETA cer gatic?

NERE atfeguin charren , ta becatu loien alde.

AH nere becatu , ta atfeguin madaricatuac ! ZUEC zarazte , zuec zori guistoan agueru-ric co nere animaren , ta gure JESUSen galgarriac !

ETORquizunac ba-ceundezte zuec , etzenuquee nigan arquituco , ez lecuren pi-

tific ere: bada , orain nic ecusten dudan , eran nere JESUS maita-garria ez ecusteac gatic , ba-neguique nic , bai , ez daquit cer !

ETA gaur-guero ez berritza gatic nic , nere JESUSen neque , orren arri-garriac , eguiñen dut nic , bai , JESUS maita-garriac laguntzen didala , nic eguin ala ; ta ez dut eguiñen , ez gaur-guero becatu berritic bat ere.

I.

LOQUIMINI AD COR JERUSALEM , & advocate eam ; quoniam completa est malitia eius. Itai. 40. 2.

HITZ-eguin bequie JERUSALEN-darrei beren bihotz-etara , erraten digu gaur guri gure Jangoico maita-garriac. DETU bequie orain oriei , ecustera , gaur berac eguin dutena ; bada eguin dute JERUSALEN-goac gaur , eguin cezaqueen , gauzaric gailtoena , edo beren gogo gailto galgarriac eman izandu diena.

BANĀ cer ote da , JERUSALENGo gendeac , eta ISRAELdar galduac eguin dutena?

CEER ? ARACO gurutzetxe hartan guc gaur ecusten duguna.

NOR ote da , gurutzetxe hart-

*dagozten,*

hartan, ain ichura charrean, ta iltzez josiric iltzea dagoen, hurra ?

IDURIZ, edo aintzuraz, lurrean den, guizonic gaitoena.

ETA izatez ?

ETERNIDADE gucian izandu den, Jangoico ecin obea: JAQUIunde utsa den, Jangoico guztiz maita-garria: eguin ditezqueen, gauza guciac, Ceru-lurrac eguin cituen, beza in aisa, edo hitz-batequin eguin ditzaquen, Jaun ecin altuagoa: ta irur heri-requin, irur beatz-equin, edo bere jaquidea-requin, bere ontasuna-requin, ta bere ala-requin, edo escua-requin mundu gucia, berac nai duen eran, daducan, ta darabillen, Jangoico-guizon maita-garria.

HAUise da, bada, hauise, Judatar gogorren, ta gure amoreac gatic guizon eguin cen, Jangoico Semea : ta hauise orain gurutze orretan irur iltzec dindiliric, eta Judatar berac nai duten eran, daducaten.

AH gure JESUS maita-garria ! Judatar gogorrac, eta gure becatuac dira, zu josiric or zaduzcaten, iltze lodien errementariac ; eta, guc eguini-caco, gauzac ecin duquee, zu

*Otoiz-gaia.*

37

or borchaz iduquitzezo diña indar, ta escu !

ILTZE fendor-agoac dira, bai segurqui, zu burdiñezco iltze oriëquin batean, or zaduzcaten, iltzeac : eta iltze oriëc dira zuc GURI ONGUINAIA ; zure Aita maita-garriac diona zuc EGUIN-NAIA ; ta zure Aita berari, zor zaion, hondra eman-naiez, gure obeculpen ZORFAC ZUC ATERA-NAIA.

ESQUERRAC, eta esquerrac zuri guc, gure JESUS maita-garria, cere amoriozco, ta ongui naiezco iltzeder-equin, gure gogor ciquiñequin batean gurutze orretan gu gatic zuc darama-zunaz ; ta nol-ere bait zuri guc ori ermaten laguntzezo, josi gaitzatzu gu zuc or cere amorearequin, ta becatu berriric eguiteco beldur andiaren iltze bortitza-requin. BAIarren, bai.

2.

*USQUE AD INTEROIRA VELAMINIS ... precursor pro nobis introijt JESUS, secundum ordinem Melchisedec PONTIFEX factus in aeternum. Heb. 6. 2.*

G CITI zatzu zuc cere be-  
guiac, eta ecusi zazu,  
nor ote den ; ta cer hari den,  
or gurutze orretan daducazun,  
ORRACO ORI, ORI

## Jesusen amore-nequeei

ORI da, bai, ta or da-  
ducazu zuc, S. PABLOc dion  
bezala, eternidade guciraco  
Apez-NAGUSI, edo AITA  
iantu eguñic arkitzen den,  
JESUS maitagarria. JESUS maita-  
garri Aita iantu, edo Apa-  
iz-Nagusí hau, gurutzeco Alda-  
re orretan or hari da odo-  
lezco sacrificio, ecin andiago  
bat eguiten, edo or hari  
da, mundu galduac orain-dic  
ecusi duen, ta ecusi dezaquen,  
MEZA berric andien andiena  
ematen.

IGAN da JESUS, bere  
odolezco MEZ andi hau emate-  
ra gurutze orretaco Aldarera;  
ta igan da, bere MEZ hau emate-  
teco, behar cituen, soñeco-era,  
ta apaintze guciequin; igan da  
alabaña, buruan daramala bere  
THIARA, edo arantz zorrotz-  
gogorrezco bere COROA. ES-  
CUCO artzai--maquilla, edo  
BACULLOA da, lurrean sarturic  
daducan bere gurutzea; behatz-  
etaco ERAZTUNAC dira, bere  
escu-biac urtutzen diozcaten,  
iltze gogorrac; eta bere burutic  
oñeta-rañoco soñecoa da,  
bere gorputzeco aragui zuria,  
zuloz, urratzez, liltuz,  
ta odolez, ecin-gaiaño-raño  
josi bordatua.

ERA onetan igan da gure  
JESUS maita-garria be-

re gurutzeco Aldarera; ta Alda-  
re orretan JESUS bere Aita  
escaintzen dion, HOSTIA da  
bere burua; ta escaintzen  
dio, duen, odol, ta vicitza  
guci-gucia-requin; ta escaintzen  
dio, Aita beraren, ta gure  
gucion amoreen luz an errenc  
uzteco; ta gure zor guci-gu-  
cien alde.

ECUSI zazu, cein andi  
izu-garriac, diran zure, ta ne-  
re becatu gaistoan zorrac; ba-  
da Aita eternoac artzen du  
orien alde, zuc ecusten de-  
zun, adina valio duen, OFREN-  
DA, ta MEZA, edo Jangoico-  
guizon bat, Aita beraren amo-  
rez gurutze batean illa, ta ur-  
tua.

CER izain cen zutaz,  
ta nitaz, nere eran, ta guztiz  
gaizqui zabiltzan, becatari cha-  
rra, guc bioc gatic, eta mun-  
duco gucien alde JESUS bere  
gurutzean ez ematera bere  
odolezco, ta vicitzazco MEZ-  
andi hau?

GUc gueroc ecusi, edo  
ezagu dezaqueguna?

ETA cer ote da orain-  
go bere MEZA gatic, eta on-  
tarte onen andi baten alde JE-  
SUS onari zor zaiona!

ESQUER garbi-garbiac;  
eta oriec ere guc maiz emate-  
nac. Gure bihotz, JESUS be-  
raren



raren amorez ascotan urtzen den, bat; eta, uts berriren loiric artzen ez duena.

EMAIN ote diozu zuc, nere eraco becatari charra?

NAI nuque beintzat; eta ciñez al ere! JESUSEc berac didala, orretaraco behar den, laguntza, ta gracia; bai arren, bai.

3.

SEDERUNT CUM EO IN TERRA.

*septem di. bus, & septem noctibus, & nemo loquebatur ei verbum; videbant enim, dolorem esse vehementem. Job. 2. 13.*

**A**NITZ humeren gurafoa cen JOB Santua, ta anitz ganaduren, ta ondafun andien jabe aberatla, egun bateraño; baña egun batean galdu cituea JOB Santuac bere ondafunguciac, galdu cituen bere ganadu guciac; bai-ta bere hume guciac ere; ta, gauza oriec guciac galdu, ta laster guelditucen. JOB Santua, burutic oñeta-rañoco zauri arri-garria-roquin, goroz-tegui ciquin bat bere ohatzetaco artzen zuela, obazte berean eri etziñic; eta bere zauri izu-ganitic ceion, materia, ta ustel-tafuna quentzeco, tella zati bat baizic etzuela.

ICASTen ditte, JOBi guerttuaren, berri. uste-cabeco

III.

hau JOB-en irur adifquidec; eta ba-doaz JOB Santua bere eritafunean, ta caltedi arri-garrarian ecustera; ta, era hartan. JOB oriec ecusi horduco, asten dira irurac Ayca, ta negar, ta negar; ta urratzen dituzte, beren naigabe latzac, eta tristurac hartaratzen dituela, beren soñecoac; eta, beren buruac autiez betetzen dituztela, guelditzen dira, arrituen eran, Cerura beguira, ta beren Jangoicorari galdez bezala, nola, edocer gatic daducan JOB Santua, daducan eran, ta ain ichuraurrical-garrarian!

BEITzen dituzte guerro beren beguiac; eta, ecusten dituztenean, aldi hartaco JOBen neque oñaceac, guelditzen dira, arrituen eran, hari beguira, ta hitzic atera gabe, zazpi gau oloz, ta zazpi egunez.

AL hartan hau eguin izandu zuten, guizonac, cer eguiñen ote zuten, JESUS eza-gutzerera, JESUS oriec ecusi ez-queru, orain guc ecusten dugun, ta Judatar gogorrac daducaten eran, edo arantzez guztiz urraturic daducala bere buru gucia; ta arantzac eguiñicaco, zulo-etatic odola, ta odola dariola? Azot-ucaldiz, ta golpez bere bizcar gucia erraitetaraño zulatua: etzin nai ba-

E. du,

da, bizcarrez baicic ecin etzin ditequen eran; ta etziten bada, zur latz gogor batean etzin beharra?

ECUSI ba-lute bada JOB-en irur adifquideac, hau gucia; ta, ecin igui citequen eran, gure JESUS maita-garria; ta ecusi ba-lute gure JESUS maita-garria gurutze batean escu-oñac iltze luce-gogorrez guztiz jofiac, eta odolezco iturri-eguiñac ceduzcala; eta al-ere, nior urbil ez cequion, cerbait laguntzera, an hura zaitzen ceudela, JESUS beraren Borrero gogorrac, eta etsai erdi amurratuac, cer eguiñea ote zuten oriecer berac?

AMBAT arritu ciranac, bada, beren adifquide JOB zauri batequin ecusi zutenean (ecusi ba zuten ere beren Adifquide JOB goroztegui bera batean etziñic, bere escuz valia citequen, bezala), nola arrituco ote ciran, beren Jangoico guizon JESUS maitatia, berac gatic, ichura necatu-izugarri onetan ecusi ezquero?

BERtan nosqui ill otzac guelditzaco eran.


ETA ecusten dut nic gaur, era berean; ta ecusten dut nic bein, ta berriz, ta alcotan ere nere Jangoico-guizon hau; ta nere Jangoico guizon guztiz necatu hau ecusten ezpanu baño, gueiago ez naz ni bihorzez illuntzen!

GALDU ote dut nic nere sinistea? GALDU ote dut nic nere buru hau, edo cer eguin ote zait niri oraingo al-dian?

NIC cer daquit, bada, nere JESUS onegua!

INDAZU arren zuc, orain-dañoaco nere centzagabe-queriaren, ta eguin ditadan, becatu gucien cinenezco damua; orien queac nic nere burutic quendu-ondoan, ecuf dezadan nic, ni gatic zuc or gurutze orretan daramatzuna; ta urric-al naquizun ni zuri orain-dañoacoan ez bezala.

ORI escatzen dizut nic gaur, nere JESUS maita-garria, cin-cinez erraten dudala: NERE JE-CHRISTO JAUNA, &c.





# LXIII-GARREN OTOITZGAIA.

JESUsec GURUTZETIC ECUSI, TA ADITU ZUENA.

§. I.

ECUSTEN DITU JESUsec BERE NEQUE GOGORRETAN  
cembait gauza guztiz neca-garriac.

I.

**A**DIRACI ditugun, guruzeco nequeac asqui ez girala, ba-ditu, bai, JESUsec bere gurutze berean beste anitz neque ere; ta orien artean sar ditezque bere beguietatic, eta beharri-etatic JESUSi sartzen zaizcanac; edo sar ditezque, bere gurutzeco demboran JESUsec izandu cituen, vide-bague, ecuste, ta aditze latz-gogorrac.

BAñA cein ote da lembicoric JESUsec bere guutzetic ecusi zuen, gauza latz-gogorra?

LEMBicoric an JESUsec ecusi zuen ecufari latz-gogorra cen, ango laur soldadu Borreroac eguin zutena.

JESUS gurutzean soldadu oriec seguratu--horduco,

JESUsec an ceramatzien neque-ñace-etara anitz beguiratu bague, artu cituzten berac, JESUSi quendu-ricaco soñecoac; eta alcandor--ordea, edo barreneco tunica oforic utzi, ta gañeracoez eguin cituzten laur zati, ta artu zuen fiterez norc berea.

ALCANDOR--ordearen, edo josteric etzuen, JESUSen barreneco tunicaren gain bota cituzten soldadu-tzar oriec beren bota-erac, edo fucte berriac, eraman cezan oforic, eta urratu bague, bota--eraz, edo fuctez ateratzen zuenac.

AH Borreroac, Borrero gogorrac; baldin ba-cenquite zuec, charichoac diruditen, ta odolez beteac dau-

Ez. den

den, JESUSEn soñeco oriec valio dutena, etzenituquee, ez, darabiltz-quitzen eran erabillico! Orien ertz bat uquitzea alqui cen, bai, oriec berequin JESUSEc cecartzien demboran, edocein eri bertan sendatzeco; ta, orien zuntzetan, edo albiñetan arquitzen den, edocein odol-tantac valio du, Cerulurrac, eta eguin ditezqueen, gauza guciac baño, aguitz, eta aguitz gueiango: odol tant ori alabaña Jangoico guizonaren odola da; ta odol, JESUSEn zañetan ez egona gatic, JESUSEn Jainco-tafunac bere gandic utzi gabea.

BAÑA ez daquizue zuec soldadu-tzarrac orrelacoric. GUIZA char galdu baten odollez ciquindu-ricaco soñecoac dirala, uste dezue zuec, JESUSEn soñeco oriec; eta ecer ez batean daduz-quitzue JESUSEn soñeco orrembat valio dutenac; eta zuec soñeco oriec artzean ere, artzen dituzue, ceren buruac liquisteco, beldur andiarequin.

SOLDADU-tzarren, era onetaco erguel-queriac, eta beraren soñecoz onela oriec jabetzeac, beguitan eman behar cioten, nai-ta-**ez**, JESUS maita-garriari; bada etzen ori, **ez, era orretaco soñeco ba-**

tzuei cegoten, ibill-**era**; eta **be-**re soñecoen erabill-**era** onec gogoraco cion JESUS maita-garriari guero Christio, edo Christau gaisoac beren comunione ciquiñetan beraren odol escu-oñetic, eta gorputzaren asco aldetatic hordu hontan cersionari, ta beraren gorputz-animec, ta Jangoico-tafun-guciari, bein, ta berriz, ta ascotan eman behar cioten, tratu galdu esquer gabecoa.

EMAN ore diozu zuec ere? **ETA** cembat-etan?

II.

ECUSI zuen gure JESUS maita-garriac bigarren lecuac, nola Borreroac eferi, edo jarri citan, bacoitza bere soñeco zatia-requin; ta nola ceuden an JESUS bera zaitzen, JESUSEc bere gurutzean ceraman horduco nequeaz anitz oroitzen etzirala; ta, berena baicic, gogoan etzutela.

ORIEN horduco lan hau ecustean, ecusten zuen gure JESUS maita-garriac gurea ere; edo ecusten zuen, nola vicio guñan gu, gueienoc beintzat, JESUSEn horduco nequeac anitz gogora gabe, izana gatic oriec gure amorez JESUSEc artuac; eta ecufico zuen, JESUSEn neque oriec gogoan guenituela, eraman behar

har guenituqueen goiceco, ar-  
ratfeco , era jaietaco hordu  
zatiac galduco guenituela guc  
berri-quetan, josta-quetan, be-  
har ez bezalaco, jan-edanetan,  
ta anitz ciquin-queritan : ta  
ecufte onec anitz estutu zuen,  
nai-ta--ez , gure JESUSEn BI-  
HOTZ berach maita-garria.

ECUSI zuen JESUSEc  
irur-garren decuan, nola cegoz-  
can berari begnira bere etfaiac;  
eta begnira cegozcala , odo-  
lez afe ondoan ezpañac lami-  
catzen dagoen , zacur baten  
eran , edo ain penaturic, eta  
iltzeco trancera JESUS bera  
ezarri zutelaco atseguin con-  
tentuz beteac.

ECUSI zuen videna-  
bar , beraren horduco nequeez  
valiatu gabez , fulececo cate-  
etara beharco zutela ( ta ori  
oriei gogoratu ere gabe ) JE-  
SUSEn etfai-tzar berac : eta  
dembora berean ecusi zuen,  
hau bera guertatuco citzaiola  
munduco zatiric andienari ; ta  
onembat ecufte galdu illun ma-  
currec gurutzeco bere neque  
guciac baño , gueiago , ta gue-  
iago necatzen cion JESUS mai-  
ta-garriari bere bihotz maita-  
ri urricaltia.

### III.

HAU gucia JESUSEc  
ecuftean , ecusi zuen andic ez

urruti bere Ama maita-garria  
ere ; ta ecusi zuen hau , an,  
JESUS bera cegoen , gurutze  
berean iltzez josiric arquiteu ba-  
liz bezain, nequez , ta naiga-  
bez beteac ; ta ecusi zuen an,  
bere Ama maite hau , mila-  
groz ez izatera , viciric ecin  
iraun cezaquen eran : ambate  
coa cen , horduco Virgin Ama-  
ren bihotzeco illun-tafuna , trif-  
tura , ta damua.

ETA cembatecoa izan-  
du ote cen , aldi onetaco ecuf-  
te onec JESUSEn BIHOTZ mim-  
bere maita-riari ar-eraci cion,  
neque-pena , ta naigabea?

ECIN ezagu dezaque  
hau , ezagutzen ez duenac, cem-  
bat cen JESUSEc bere Amari  
nai ciona.

GUC erran dezaque-  
guna da, JESUS maita-garriari,  
bere Ama maitea era onetan  
ecufteac, gañeraco bere nai-  
gabe, ta neque guciac baño,  
aguitz gueiago illundu , neca-  
tu, ta preñatu ciola bere BI-  
HOTZA ; bada bere BIHO-  
TZaren preñacio, necaera, ta  
illun-tafun hau , bere Amari  
cion , amoreari cegocana cen;  
ta amore hau ecin andiagoa.

JESUSEc ecusi cituen,  
adiraci ditugun , gauzac ez-  
ecic , ongui nai cioten, beste  
cembaiten negarriac ere ; ta

orien artean ecusi cituen, bere Ama-requin an arquitzen ciran, emacume-enac. ETA, nola cen gure JESUSEn BIHOTZA ecin-esquer-dunagoa, ta guztic beracha, urricalduequi en oriei ere, ta orien nequeac ere illundu cioren, ce-goenetic, anitz gueiago bere barren gucia.

ETA, hitz bitan gucia nic orain adirazteco, errandezquet, ecusi cituela JESUS maira garriac, ecusi ditugun, gauzen gain, beraren BIHOTZA illuntzeco onac ciran, beste anitz ere; ta lenac, eta orieci guciac elcar arturic aguitz anditu, ta arri-garritu cituztela, JESUSEn BIHOTZ-eco neque-onaceac.

AH nere JESUS, nigatic onen necatua; ta nic zuri zor dizudan, amorea! ETA noiz ni amore oni nol-ere-bait erantzuten asi! GAUR bertatic nai nuque nic, zuc cerrorec hartan laguntzen didazula.

## §. II.

ECUSI CITUEN JESUSEC BERE tormentuzco Gurutzetic anitz gauza necagarri.

### I.

JESUSEn gu ganaco amore hau obequileago guc eza-

gutzeco, ecusi behar ditugubanaca, orain bateran ecusi ditugun, JESUSEn gurutzeco neque-etatic ere beste cembait. ORI-etatic dira, JESUSEc adituz ecusi, edo izandu cituenac; eta orieci ere, ecusiz izandu cituenen eracoac izandu ciran. ADITU cituen JESUSEc gurutzean joliric egondu cen, demboran gauza guztiz arri-garriac.

ORI-etatic batzuec aditu cituen, videz cidoacen, gen-de-etatic, edo joan-etorri cebiltzan--etatic. ADITU cituen beste cembait, an arquitzen ciran, ESCRIBA-tzar, ta Fariseo-gaisto-etatic.

BESTERen batzuec aditu cituen ISRAELdar-etatic; baita, bere bi aldeetan ceduzcan, gurutze etaco. Lapar-etatic ere.

ADITU cituen, videbagueco gauza orieci guciac, orieci aditzean, guertatzen citzaiola, mundurn den, gaistoenari guerta oi ez zaion, gauz arrigarri bat: bada nor-nai urricaltzen zaio, iltzeco trance gogorrean arquitzen den, edo cein guizoni, guizon hau izanagatic, hordurañoco demboran munduco guizon gaistoenetic bat; eta izanic gure JESUS, cen bezala, obenic ba-

bagueco Jangoico guizon guztiz on maita-garri bat; eta egona gatic aldi hartan, JESUS cegoen bezala, ambat, eta ambat nequeren artean, ta bere etioztzeco hordu aguitz gogorrear, gogortu ciran, beguira cegozanac, ez urricaltzeco, JESUSen egoera mindu guztiz arri-garriaz.

ORRA, JESUsec baicic, ecusten ez duen, guizonen gogor-tafuna! ETA orra JESUSen naigabe-etaraco vide latz guztiz arri-garria!

ETA cer cirala, deritzazu, edo nolacoac, aldi neca-garri hartan JESUsec an aditu cituen, gauzac?

ERA ascotacoac. VIDEZ cidoacencac, edo an guti guelditzen ciranac, ecusten zutenean gure JESUS gurutze batean iltzez josia, beguiratu gabe, an JESUsec ceramatzen, oñace gogor-etara, ta neque, ta tormentu izugarri-etara, ahi izandu ciran histaca, edo burlaz; ta, beren begui zorrotz-equin JESUSi beguiratzen ciotela, ta beren buruac batetic beftera cerabilztela, erran izandu ciozcaten, nai cituzten, gaistaquericac, eta blasfemia guciac; eta besteen artean, AH! zu bai, ah, zu guizona! URRAtuco cenuela zuc,

gure Jangoicoaren Eliz-eder JERUSALENGo hau, eta guero irur egunez eguñen cenuela beruro, ta utzico cenuela ederqui bucatuic!

ORREMBat escu dezua ezquero, valia zaitez zu cere escuz cere oneraco, ta gueldi zazuzuc, al ba-dezu, bucatzera doaquizun, cere vicitza: ta, zuc diozuna, bazara zu, edo zu izatera, diozun bezala, Jangoicoaren Semea, ots laster; utzazu gurutze ori, ta atoz gure ARtera.

VIDEZcoac gara gu, mundu onetan vici garanoc; eta gueren vide hau bucatuco duguc, guri gueren vicitza bucatzen zaicunean. GURI guereu vide hau bucatu horduco, sartuco gara gu, bucatzen ez den, eternidade bateco vicitzan.

GUEROco gure vicitza, oraingo gure ibill-erari dagocan, vici-era da. ONGui, ta zuzen gu ba-gabiltza, vici garaño, zori oneco vicitz atfeguindun on batean sartu beharrac gara gu. BAÑA nequezco vicitza da, ta neque utsez betericaco vicitza gure, beguira dagoen, guerooco vicitza, cmen gu macur, ta ercen eran ibiltzera.

ER O-



*Jesús en amore-nequeci*

EROen eran dabilitza, ISRAELdar JESUSen histari galduen eran dabilitzan, guciac, edo ISRAELdar galduen eran, JESUSen gauzei hista, ta bur-la, edo ez ecusi eguiten die-tenac, eta, beren gogoac eman-ten diezten, gauzac eguiten dabilitzanac.

ETA nolacoac izandu ote dira, nere Anima, orain-daño-co gure ibillerac? ZUCE-NAC? CENTzatuac? BEHAR bezalacoac?

NOLA beguiratu ote diozu zuc, zure amorez gur-utze batean nequez, ta oña-gez itotzen dagoen, cere Jan-go:ico--guizon JESUS maita-garriari? NEgarrez, urriquiz; ta damuz beteric arquitzen za-rala zu.

ERA orretan zuc JE-SUSi beguiratu ba-diozu, vide zucenez zabil-tzan, Anima za-ra zu; ta Cerura zoacen, Ani-ma zara: ta ala ba-zabiltza, zabil-tza zu, zabil-tzan videz, ta vide orietatic oñiz atera ga-be; ta zu azquenean sartuco zara billatzen dezun, cere Ce-ruco toquian-

BAÑA hiftaca ba-zabil-tza zu; edo zu ba-zabiltza, be-har ez diran, gauzac erraten, ta eguiten dituzula, JESUSen hiftaria zara zu, Judatar gais-

toen videa daramazu zue; eta, orain--daño-co cere gaizqueiz ongui damuturic, zuc ez uz-tera cere vide galgarri guciac, fulececo vicitza gogor gais-toan fartzera zoaz zu, ta fartze-ra, eternidade guci-guciraco.

ARAtzen ba-zara zu, zori gais-toan jaioa zu, ta beti, ta beti erretzen egon beharia!

## II.

VIDEzco gais-toen er-ranac baño, atsecabe aguitz-guei-ago ematen cioten JESUS maita-garriari ESCRIBA-tzarret-ta FARISEO gais-toen erranac.

APEZIC andienac, ori-ec, eta JERUSALENGo gui-zon-jauintfu adiñetacoac; JE-SUS gurutzean ecusi-horduco, asi izandu ciran marmarioz elcarren artean, baña JESUS-ec adi citzaquen bezala, ta JE-SUSi atsecabe, ta damu gue-iago baño, guei-ago eman na-iez.

ORRA, cioten oriec, orra; illac viztu ditu len gui-zon gurutzeru onec; erianitzi eman die len beren ofasuna, ta eguin ditu len besteen one-raco gauz on anitz andiac: da-guiela bada orain, al ba-da-erbait on bere oneraco.

EZ cion guizon orrec, ISRAEL-darren, ta gure gu-cien Erregue-taraco jaioac etoz-

ri cen, guizona ceta ori?

ECUS dezagun bada : bada ala izatera , ez da ori orain gurutze orretan illen, ez; jaitico da , bai, ori, viciric ortic. JAIti bedi bada , ta bertatic artuco dugu guc ori gure Erreguetaco.

JANGOICoa bere alde ceducala, cion orrec ; eta ascotan ori guri orrec adiraciric daduca. ALA biz : baña certan ezagutuco dugu guc , orrec guri erran oi ciguna ?

JANGOICoaen Semea dela ere , erran izandu digu guri bein, berriz, ta auitz alditan ere. LENac baño , gueiago da ori ; ta aguitz al ere; ta , ala ba da , aifa ta lafter quen dezaque Aita Jangoicoac, berac orain or daraman neque lotfa-garritic.

ERA onelaco hitzquetagogor gal-garri-equin beguitan ematen cioten guiza-tzar arroac gure JESUS necatu maita-garriari, guizon guezur-tiren bat bai-liz bezala: ta, ez JESUS, berac ciran guizon guezurtiac ; bada guezurra cen, horduan oriec ciotena, ta JESUSen gain hordu-rañoco gucian oriec erran izandu zuten gueiena.

GUEZURrez, furrustadaz, ta meachuz eman-eraci

III

cioten guiza-tzar oriec PILATOSi JESUS maita-garriaren gurutzeco sententia; ta guezur-ti gaitsoac, gurutze berean itzetz jositic, odol-ta odol ceriala, ta erioaren atzaparretan uzteco puntuan ceducaten gure JESUS maita-garria; ta al ere etziran afetzen : ta beguiz, buruz, ta hitzez eguiten ciozcaten, al cituzten, hista guciac.

ODOLEZ afetzen ez diran, zacurrac cituditen guiza-tzar berac; ain gorrotu andia requin beguiratzen cioten JESUS maita-garriari, edo ain amurratuac ceuden JESUS ona gana!

ARRItzen ote zaitu zu, nere Anima, JERUSALENGo Eliza-guizonen, guizon andien, ta Judatar jaquin-tfu orien gogor-tafunac, eta itfuera, onen arrigarriac?

BAY nosqui.

BAI?

ETA izanic, ascotan beintzat, guiza-tzar orieta bezain andiarri-garria, JESUS ona ganaco zure gogor-tafuna, ta itfuera, ez-pa-liz baño, gueiago ez diozu zuc cereari beguiratzen!

ATOZEA zu, becartari char esquer-gabea; ta ez dago, dagoen eran, gure JE-

ESUS

SUS maita-garria, gure becartu lizan-loi-galduac gatic? ETA cembat aldiz zuc JESUSen neque-penac arindu beharrean cere gaizquien cinezco urriquia-rejuin, eguin izandu dituzu hitzez, escuz, gogoz, gorputzez, ta zuc daquzun, eratan, JESUS gurutzeta beraren neque berac berritzeco ciran, gauzac, edo becartuac?

ONGUI da; ta eguin ez dituzu zuc oriec, gure JESUS zuc cere Jancotzat ezagutu ezquero?

ETA garai onetan oriec zac eguita ez ote da Julatar itla-gogorrac baño ere, itlu-gogorragoa izatea zu, JESUS ona-requico? AH cer JESUSen humeac zu, ta ni bioc!

### III.

AZQUEneco cer gutertatu ote citzaten Apezzen, Car-gudunen, ta Jaquintfuen erauliac aditzen cituz-tenei?

OI dena. GUTI cequiten, ISRAELdar gaisoac siñeti zuten, Apezarroac, era gañeraco Andi-mandi guezurtiac ciotena; ta, beren eracusle gaiso-equin batean, erraten cioten oriec ere JESUS maita-garriari, mihira cetorquien, edocein gaisaqueri.

AH gurafoac! AH eche-

co Andre-Nagufiac! AH Car-gu-dunac! ETA cein arrigarriac izan behar duten, zuei ceren Jangoicoac artuco dizquitzuten, contuac, zuac ceren echeoac, ceren humeac, edo ceren peoac ez-ongui acitzera! BADA zuen gain izain dira, bai, zuenac ez ecie, onec, zuac eculiz, zuei adituz, edo zuac gandie icafiz eguiten dituzten, charqueniac, eta becartu guciac!

GUCIAC ecusten ditu gaur gure JESUsec bere gurutze neca-garritic; eta guciac dira, JESUsecBorreroen escutic artzen dituen, neque guciac anditzalleac; eta guciac zuen oben-culpac; dira alabaña edo zuac ceroc eguiñac, edo nol-ere-bait zuac ceroc eraguiñac, edo eguiten urziac.

GAIZquiarena! AN ar-quitzen ciran, ERROMAtar Soldaduac ecusi zuten, ISRAELdar andi-chiquiac JESUSi eguiten ciotena; ta, oriec ere gaitzeraco ISRAELdar-equin bat eguiñic, ari izandu ciran, ISRAEL-darren erar, hiftaca, ta burlaz JESUS onarequin; ta, JESUSen gurutze ondora urbiltzen cirala, erran izandu cioten, era orretacoac orretara ezquero, erran oi dutena; ta gañeraco gauzen

zen artean, erran, izandu cioten: ORI: adi zazu; Judatarren Erreguea baldin bazara zu, certan zaude or, gurutze tzar orretan? JAITSI zaitetz ortic zu; ta artu zatzu zuc, zure Erregue-tafun andiari dagozcan, ichurac, echeac, eta soñecoac. BEGUIra zagozu zuc, cere-buruari, ta ez dezazula ori or zuc utzi galtzera. GAIZqui dirudi, Erregue bat, bere buruaz ecin valiaruz, zu zauden eran, illic GUELDTIZEA.

HAU gucia, ta anitz gneiago adiraci cioten aldi hartan JESUfi Soldadu-tzar arroac. Eta, elcar gana guero itzuliric, asico ciran irriz, ta farraz; ta luzaro egoin ciran, JESUfi, ero bati bezala, hista, ta hista eguiten ciotela.

ECUSI zuen, JESUSen bi faiets-eran gurutzeturic arquitzen ciran lapur-etatic bat, Soldadu-tzar arroac ciarduquetena; bai, ta an ceuden, Apaizac, eta Fariseoac, eta gañeraco ISRAELdar galduac, edo Judu andi-ta chiqui guciac ciotena; ta orrec ere artu izandu zuen orien hitzqueta bera, ta así citzaion JESUS necatu-maita-garriari erriertan, isquirioz, ta hiltaz;

ta beguitan eman cion JESUS maita-garriari, an aditzen ci-tuen, baldan-queri, ta gaizqui guci-equin.

Orra eracufte, ta exemplo gaistoarena! ECHetic badao auzora; auzotic errira; ta erritic alcoran erriz, erri munduco bazterric urrutienera.

AH gaifoac zuec, orretaraco videa ematen dezutenac!

ETA eman ote dut nic ere noiz, edo noiz? AYnere JESUS maita-garria; ta cembatetan!

#### IV.

CER izandu ote zuen bere gogoan JESUS maita-garriac, hau gucia aditzen ce-goen, demboran?

HAU aditzeco demboran, ecufi cituen, bai, gure JESUS maita-garriac, Adanen becatutic así, ta azquen hor durañoco becatu guciac; eta gueroco guizonen becatuac ecufi cituen, Judatarren horduco becatu berriac bezain ongui, ta garbiro. ETA aditze, ta ecufte onec cembat gogortu ote cituen JESUSen hordu hartaco neque arri-garriac?

NEQUE oriec berez ecin arri garriagoac ciran izatez.

tez. BADA orrembat beca-  
turen astuntafuna beren gañera  
citzai-enean, nolacoac gueldi-  
tu ote ciran, edo norañocoac?

ECUSten dezu zuc, JE-  
SUS maita-garriac aldi onetan  
guri aguertzen digun, amoreac?  
BADA gure amorez darama-  
tzi orain? JESUsec orreimbat-  
neque; ta neque, gure beca-  
tuz orrembat astunduac: eta,  
behar ba-liz ori, ni neratu ba-  
carra gatic eramain lituque JE-  
SUSEc neca-guiro oriec guciac  
bein ta berriz ta ascotan ere.

HAU ba-daquit nic; eta  
ez naz al ere ni nere JESUS-  
en amorez zorutzen?

HAU ba-daquit nic; eta  
vici naz ni al-ere, vici nazan  
eran? AH, nere JESUS mai-  
ta-garria! EZ nequien nic hau  
gucia, ez, orain daquidan be-  
zala: ta damuric ez dut nic  
hau gucia jaquin izandu lenda-  
bicitic! Bada hau gucia hordu-  
tic nic jaquitera, hordu bere-  
tic utzico nituen nic nere  
eraqueriac, eta asico nintzan  
ni zu-ciñez maitatzen!

DAQUIdan ezquero,  
nic hau, bertaric nai-dut asi  
nic nere lan onetan, niri gaur-  
danic viciro zuc lagunzen di-  
dazula.

LAGun zaquizquit ba-  
da, nere JESUS maitari mai-

tagarria; bai arren, bai.

1.

*ET SEDENTES SERVABANT EUM.*

Matth. 27. 36.

**E**TZAUDE gaizqui, ez,  
JESUS maita-garria, gaur  
gurutze orretan zu zauden be-  
zala! Zuri dagoquizun, Cata-  
dera, edo Tronua da Ait-eter-  
noaren Tronu, edo Carade-  
ra bera, ta an ere Aita beraren  
escoieco-alde tic egotea; ta or-  
ra non ecusten zaitudan nic  
gaur bi gaistaguin lapurren ar-  
tean, gurutze orretan escu-  
oñac iltzez joliac daduzcatzu-  
la, ta cere buru gucia aran-  
tzazco coro batec urratzen  
dizula!

ZUre Guardiac dira Ceru-  
co AINGUERU, ta CHERU-  
BIN guciac; eta orien orde z  
orra non dituzun or laur Sol-  
dadu-tzar, Borrero eguiñic, gu-  
rutze orretan iltzen zaduzcate-  
nac.

CERUco guciac zutic  
daude beti, edo prest beintzat,  
zuc nai dezun, edocein gau-  
za bertan eguitico: ta Solda-  
du-tzar oriec ez daude ez,  
zuc oriei erraten diezun,  
gauzaric eguitico; ta ori-  
ec orretaraco prest egon le-  
cuan, or dautza lurrean, edo  
jarriric or daude beren gogara!

AY! Ori egoera, JE-  
SUS

## dagozten, Oroitz-gaiac.

49

**SUS** maita-garria, Soldadu orien-  
na; ta ori egoera dembo-  
ra berean zurea! **SOLDADU-**  
**tzar** sendorrac gau gucia, be-  
rac nai zuten, eran eramam du-  
tenac, laur paufu eman, ta  
irur iltze zuri cere escu-oñe-  
tan ceren sartu dizquitzen,  
anitz enoiatuac arquitzen diras;  
ta, zutic ecin egonez bezala,  
eseriric, eta jarriric daude: ta  
zu, gau-goiz, eranman ditez-  
queen, gaisfoenac eramam on-  
doan, azotetz, ucaldiz, ta  
nequez cere etsaiac erdi-illa za-  
duzcatela, zutic zaude cere  
guruzcean!

**OñAC** josten dizqui-  
tzun, iltze baten gañean da-  
ducazu zuc cere gorputz gu-  
cia; ta, cere escuz zu valiatu-  
naia gatic, josi-urratuac da-  
duzcatzitzu biac, eta oñace  
bortitz arrigari-equin oriec ere!

**ORRELA** zaude, zu,  
gure **JESUS** maita-garria hor-  
du batez, hordu bidaz, ta,  
dezun odol gucia cere vicia-  
requin nere amarez eman ar-  
tean!

**NI** gatic, zuc, nere  
**JESUS**, gaur daramazuna! **ETA**  
cer ote da, nic orain-daño-co-  
an, zure amarez eramam izan-  
du dudán, neque, ta naigabe  
gucia?

**BATERE** bezala, edo

eccer-ez bat, ni gatic zuc or  
daramazun orren aldean; bada  
nic zu gurutze orretan eculia  
gatic, Elizan nagoenean ere,  
eguin oi dut Soldadu-tzar go-  
gor oriema, edo jarriric, eta  
aísa ni an egotea, ta zure ne-  
queac anitz ni penatzen ez  
nautela.

**ETA** Elizan nic hau,  
ta zuri ni beguira nagoquizu-  
la, eguiten dudán esquer-ga-  
be charrac, cer eguiten ote  
dut, gañeraco nere gauzetan?

**CEER?** Nere burua  
nic, zure iceneco neque-equin  
escura beharrean, al-ditudan,  
aífac, atetzeac, eta atsegui-  
ñac ematea.

**AH** cer, ni gatic guru-  
tzean dagoen, **JESUS** maita-  
garriaren humea ni?

2.

*OMNĒS VIDENTES ME, DERISE-  
runt me: locuti sunt labijs, &  
moverunt caput. Pl. 21. 8.*

**DAVIDEC** urrutitic ecusi  
zuen, zuc gaur ecuf-  
ten dezuna, gure **JESUS** mai-  
ta-garria; ta, gaur zuri cere  
etsaiac eguiten dizquitzen,  
gauza gogorrac ecustean, zu-  
re icenecan dio, den gucia nai-  
gabez beteric arquitzen dela:  
**ECUSTEN** ninduten, guciac,  
hístaca cegozquidan niri nere  
gu-

III

F

gu-

gurutze neca-garrira ! ARA niri , nitaz nrricaldu lecuan , erran izandu cidaten , gogo gaitoac ematen ciena , ta berac nai zuten , guci gucia : ta , erran alac oniec niri erran ondoan , asi cequizquidan niri , urratu josi-penatuari queñuca beguiz ta baruz ; ta etziran guelditu oriec , ez histaz ta burlaz berac ongui aspertu artean !

BAÑA zuc , gure JESUS maita-garria , cer eguin izandu ote cenuen , orrembat videgabe , ta charqueri ecusten ceunden , demboran ?

BEGUIAC bildu , ta guelditu ifsill-ifsill ; cenequienac bezala , cere gain artuac cenituela zuc gure becatu guciac ; era , oriei cegozten , gauzac cirala , zuc or ecusten , ta aditzen cenituen , gauza guciac .

ETA cer eguiten dezu zuc , nere JESUS maita-garria , gueroztic nic histaz berac beritzen , ta gaitoagoac ere eguiten dizquitzudan , aldietan ?

CER eguiten dezu zuc , nere JESUS maita-garria , niri nere gogoac ematen didan , charqueri hau , edo hura , ta zure Legue onaren urratzeren bat , edo beste eguiten dudan , aldietan .

CER , nic sei-garrene-

co , behar ez diran , hitzac , cantac , laufengac , eleac , edo eraqueriac erraten ditudan , aldietan ?

CER , zuc nere aferera futnuac aditzen dituzun , aldietan ?

ETA cer , nic nere ibiliz , asmatuz , ta queñadaz videgabeac eguiten ditudan , aldietan ?

ISSILLIC guelditu zu , ta hitzic ere atera gabe .

CER gatic , hau onela ?

NIRI zuc eracuftea gatic , nai ez nuquen , gauza-ren bat ecusten dudan , aldietan nic neronec eguin behar dudana .

AH ! icas ba-neza nic orain ba-dere , zuc gaur eracusten didazun hau , nere JESUS maita-garria ! ta urtz bantza nic orain , oraindaño-co nere charqueriac , ta obenculpac !

ORI da , nere JESUS maita-garria , zuc oraingo cere egoera humil-ifsilla-requin escatzen dezuna , ta nic eguin beharra ; izan nai ba-dut nic zure eracoa , ta Ceruraco dau-den , zure hume-etatic bat . ALA guerta dedilla ; bai arren , bai ,





3.

ET LINGVA EORUM GLADIUS  
acutus. Pf. 56. 5.

**N**AI ez luquen , hitz ba-  
tec erdiratzen dio bati  
bere bihotza , aditzen duenean  
hitz ori anitzen artean , bein-  
tzat orieci horduan hura on-  
tzat artu , ta histaz , ta irriz  
abiatzen ba-zaizca.

ETA cer izain lizaque , hitz  
orren aditzalle gueciac elcar ar-  
turic , betetzen ba-lute deni-  
bora berean bera hitz gaistoz,  
naigabe latzez , ta burlaz , ta  
irriz ?

ORRA bada , orra gaur  
gure JESUS maita-garriari guer-  
taturicacoa !

ITSASOAc ur-gaci,  
adiña neque , ta oñace duela  
dago gaur gure JESUS maita-  
garria bere gurutzean ; ta oriez  
urricalduric , negarrez egon  
beharrean , JESUñi beguira da-  
gozcanac , histaca dagozca gu-  
ciac ; eta erraten dioten , hitz  
bacoitza-requiri , ezpata zor-  
rotz batequin bezala , igaro-  
tzen diotela bere BIHOZ guz-  
tiz mimbere maita-garria.

ANDIAC ciran , bai,  
bere ecuste , ta aditze oneta-  
tic JESUS maita-garriari cetoz-  
quion , naigabe nequeac : ba-  
ña aguitz , eta aguitz andiagoac

ciran beste ecuste batetic ce-  
tozquionac.

AN aldacan ceducan  
JESUSec bere AMA maita-  
garria. BERE Ait-eternoac ez-  
pa-cen , etzen arquitzen , JE-  
SUSec Ama hau bezain , mai-  
te zuen , gauzaric bat ere ; eza-  
gutzen zuen JESUS maitagar-  
riac , bere Ama onec an adi-  
tzen cituen , gauzac , ecin gueci-  
goraño minduco ciotela bere  
bihotz mimbere guztiz maita-  
ria : ta bere Amaren miñ arri-  
garri onec , bere miuguciac  
baño , neque , ta oñace gueci-  
go eman izandu cion JESUS-  
en bihotz berach-urricalti-mai-  
ta-garriari ; bada , bere Amari  
cion , amoreac ecin andiangoa cen ;  
ta , Amari cion , amorearen era-  
coac ciran JESUSen neque  
oñaceac ; eta orre gatic ciran ,  
ecin andiangoac.

ETA zuc cer diozu , JE-  
SUSen AMA maitagarria , cere  
Seme Jangoico-guizon-oben-  
bagueco JESUS onembat oña-  
cerequin ecusten dezunean ?  
CER emain cenuque zuc , be-  
re oñace orien zati bat bad-  
ere JESUS necatuari orain zuc  
quentzea gatic ? Emain ote ce-  
nuque zuc cere vicia , dezun  
odol-gucia-requin ?

BAI , ta JESUSen guru-  
tze berean iltze josiric urra-

F2 tzen

48

### Jesusen amore-nequeei

tzen cinduztela , ere !

SINISTEN dut, bai : badaquit alabaña , bai daquizula zuc,nor den JESUS;bai daquizula zuc JESUfi zor diozun, amorea ; ta zure ezagu-er onen era-coa dela, zuc JESUS berari diozun, amorea ; ta zure amore hau dela, Munducoc izan dezaquen , andiena baño, aguitz andiagoa.

ETA nolacoa ote da, nere Anima , zuc JESUS berari , ta onen Amari diozun, amorea?

ECIN charragoa !

ETA ori orrela zuc, Ama Semeac zu gatic daramatena


ecufi ondoan?

BAI bada!

CER gatic ori zuc orrela?

CEREN nere becatuac ur egnific daducaten nere bihotz char galdu hau ; ta artu nai ez duen Ceruco amorearen su hau , era onetan arquitzen den , bihotzac!

URTU zaitetz bada zudamuzco negarrez, idortu daquizun , lembaitlen cere bihotza , guero zu Ama-Semeen amorez erreric, guelditzeco : ta, orretaco, ali zaitetz alic cinquienna orain erraten : NERE JESU-CHRISTO , &c.



# LXIV-GARREN OTOITZGAIA.

JESUSEN GURUTZECO ERACUSTEA.

§. I.

JESUSEN GURUTZECO, HITZ-ALDI, TA ERACUSTE BI.

I.

**G**URE JESUS maita-garria aguertu cen guiz-artean, guizonen MAISU izateco ; ta, bera jaio cenetic ill-arteco dembora gucian , eguin izandu

zuen JESUSEC bere eguiteco hau, ecin obequiago ; bada JESUSEC eguin , ta erran izandu zuena izandu cen eracuste garbi-on-eder-ecin zucenagoa.

## dagozten Oroitz-gaiac?

ADIraci dugu guc orain-dañocoan gañeracoa, aldia aldico cerbait aguertzen dugula. ECUS dezagun orain azquenecoa; ta, iltzeco ce-goela, bere gurutzetic JESUS-ec eracutfi ciguna: ta adi dezagun cer erraten digun bere lembicico bi hitz-aldietan.

ECUSI dezu zuc, nere Anima, cein arrigarriac izandu ciran, ta cein vide-gabecoac, JESUSen gurutzeco nequeac?

ECUSI dezu zuc JESUS-en neque oriec andirazteco, beren beguiz, beren buruz, beren mihiz, escuz, ta alde guciera, beraren etsaiac (eta ambat etsaiac) bere beguieran JESUS maita-garriari eguin izandu ciotena?

ETA ba-daquizu zuc, dembora-berean cer eguin izandu zuen JESUSec bere etsai, orren amurratu-equin, edo orren galdu gaisto-equin; edo ba-daquizu, zuc, oriez urricalduric, bein, ta berriz, ta maiz escatu izandu ciola JESUSec, bere Aita eternoari, oriec eguin izandu ciozcaten, vide gabe gucien barcamen-tua, cer eguiten zuten, etze-quitenen lanac cirala guciac, erraten ciola: *Jesus autem dicebat: Pater dimitte illis, non enim*

*sciunt quid faciunt* (Luc. 23. 34).

ECUS ten dezu? EZ du JESUSec bere burutic oneta-raño, bere etsaiac neque gogorrez, ta onace arrigarriz bete ez dioten, zatiric bat ere.

MIHIA bera, odolic baguez, erdi igartua daduca JESUS maita-garriac; eta, bere etsaiac eman dioten, beazuna-requin guztiz mindua; ta al-ere ba-darabil JESUSec bere mihi bera bein, ta gueiagotan bere etsaien alde, ta erraten dio bere Ait-eternoari: AR-RI garriac dira, nere Aita maita-garria, bai, nere etsai oriec zure semea-requin eguin izandu dituzten gauzac: bafia barcatu behar, dieztezu zuc, bat-ere utzi gabe, guciac arras.

GUEIenac beintzat, ez daquite, cer den, gaur oriec nerequin eguin dutena; ta gueiena daquitenac ere, ez daquite, eguiten duten, gaifta-queriaren erdiric.

ETA, dena dela, nere Aita maita-garria, orain nic zure icenean daramadana gatic, eta ceren zuc niri nai dida-zun, daquizun adiña, eguin behar dezu, orain nic esca-

*zen dizudan, hau; ta barca*

tu behar diezu zuc nere etsai-  
ei, orain oriee nerequin egui-  
ten dutena,

GURE JESUSEn amo-  
rearen bazterric baguecoa ; ta  
JESUS beraren oraingo era-  
cuftearen ederra !

JANgoico-guizon ba-  
tec baicic, ecin eraman leguiz-  
quen, nequez itotzen dadu-  
cate JESUS bere etsai erdi-  
amurratuac ; eta , bereaz az-  
turic , otoica dagoca JESUS  
bere Ait-eternoari , urrical da-  
quiela , era onetan daducaten,  
bere etsai becatariei : ez ditza-  
la gal , erraten dio JESUSEc  
Aita eternoari ; ta , galdu le-  
cuan , atera ditzala beren be-  
catu petic ; eta , graziaz bete-  
ric , utz ditzala Ceruco videan  
ongui sartuac.

AH cer amorea , lan  
hau eguiten duenaren biho-  
tzean arkitzen den , amorea!  
HAU da alabaña , izandu di-  
ran , etsairic andienac maita-  
tzen dituenaren amorea !

ETA ah cer eracuftea!  
bada videnabar eracusten digu  
maitatzalle ecin-andiago onec,  
guri gueren lagunac eguiten  
ba-digute , nai-ez-guenuquen,  
gaizquiren bat , orien gaiz-  
quiari gaizquiz erantzun le-  
cuan , urrical gaguizquiela , be-  
ren Animei oriee orretan,

eguiten dioten , caltea gatic ;  
eta oriei guc beguitarte onic  
galdu gabe , daguegula al-  
eguina , otoitzez , ta beste mo-  
duz beren becatutic lembait-  
len ateraztea gatic.

ECUSten dezu zuc,  
cein ederra den, JESUSEn ora-  
ingo hitzqueta , ta gurutzetic  
ematen digun , lembicico era-  
cufte hau ? ICASI dezu ? BAÑA  
eguiteco ? ALA guerta dedilla ;  
bai arren , bai.

## II.

BERE bi alde-etatic JE-  
SUSEc ceduzcan , lapur-etatic  
batac ezagutu zuen JESUSEn  
otoitz onetan , ta gañeraco  
beraren gauzetan , JESUSEn  
Jangoico-tafuna ; ta eman cion  
lapur onec Jesus maita-gar-  
riari videric aſqui lapur bera-  
ren atſequin andizco hitz ba-  
tzue-taraco.

BESTE laputra gueldi-  
tu cen , Judatar gogortuen  
eran ; ta , bere onace latz-  
gogorrac eftuturic , aſi cen  
JESUSi erraten Judatar galdnei  
aditu ciezteneu , eraco gau-  
zac ; eta beſteen artean : ZU  
ba-zara Chriſto Salvatzallea,  
certan zaude zu or gurutze or-  
retan ? CER gatic ez dituzu  
zuc cete eſcu on-etaco ilrzeac  
ateratzen ? CER gatic etzara  
zu , lendaturic ortic jaiften ?

ETA

**ETA** cer gatic ez gaituzu ateratzen zuc gue-ere onembat gueren nequeren artetic?

**ERRAN** nai cion bere mintzoera onetan lapur-tzar-rac gure **JESUS** maita-garriari: **BAI!** lagun ona-requin etorri gara gu lecu eder onetara, gure Jaunari esquerrac! **GUEZUR**ti baten ondoan gaude gu gaur gueren gurutze-etan ongui jofiac; eta orre gatic gaude gu gaur neque utsez, ta oñacez aguitz itoac. **ZOR**ri gaitoan jaioc zu, ta gu gucioc, onen gaizqui bucatzeco guc gueren egunac!

**ETZION** hitzic erantzun **JESUS** maita-garriac, era onetan mintzatu citzaion, lapur gogortuari: baña erantzun cion lapur beraren lagun onac, haren hitz-queta gaitoari, haren blasfemiari, ta errate eroari cegocan, gauza bat, erraten ciola: **GUI**zona, cer da, zuc orain daraufazuna? **EZ** daquizu zuc, nor zaran zu; ta ez daquizquitzu zuc, zuc cerrorec eguin dituzun, gauzac? **ORREMBAT** zure gauza gaito gatic iltzera zoaz zu. **HORDU** bat baño len, edo anitz gueiago luzatu bague, cere Jaunari zu cere gaizqui gucien contuac eman beharra zara; ta cere Jangoi-

co berari orain zuc damuz barcamentua escatu beatrean, becatu berriac eguiten hari zara zu?

**ZUC**, eta nic ongui irabaciac daduzcagu, bai, orain guc daramazquigun, gueren nequeac; baña oncc (baña **JESUS**ec) ez du gauza gaitoric eguin izandu bein-ere, ta obenicbague darama bere gurutzeco neque hau guci-gucia.

**ERA** onetan hitz-eguin cion **JESUS**en alde lapur onduac, edo ontzen aliac bere lapur lagun gaito gogorrari. **ETA** lapur ondu onen hitz-guitea-requin, ta bere ifsillera guztizcoa-requin eracutsi cigun guri gure **JESUS** maita-gurriac, era bereco aldietan, edo gaizqui cembait guc aditzen duguncan eguin behar duguna: edo eracutsi cigun **JESUS**ec, guri erranac diranean, guc aditzen ditugun, gaizquiac, ez-aditu eguin, ta ifsillic guelditzoa; ta befteri erraten zaizcanean, erralle gaitoa hitz onez, ta vide zucenez guc ifsill-eraztea: eta, hau guri **JESUS**ec eracustean, adiraci cigun, nola nai erranac izan ditecela, guc aditzen ditugun, gauzac, oriec guc eramaten ba-ditugu emequi, ta gure **JESUS**en cran, Jangoico

zucen maita-garriac billatuco duela, gure alde ateraco den, nor edo nor: ta horduan gu aferretu, ta erriertan afitzen ba-guiña baño, aguitz obequi gueldituco garala Jangoico beraren, ta munducoen be-guietan, hitzic atera gabe.

AY ! hau inisturic, eguiten ba-cenu zuc, gure JESUsec orain eracusten digun, eguiteco zucen hau !

## III.

JAUNA, erran cion guero JESUS maita-garriari lapur ontzen asiac berac: Jauna, iltzera zoaz zu; baña, orain nic dacusadanaz, cere Erreinuco Tronu zori onecora zaramatzi zu cere eriozic: eta aratzen zaranean zu, oroï zaitetz arren, cere bazter onetan daducazun, lapur becatari gaifoaz ere.

AITORTzen ditut nic, bai ( ta pozicala ere ), nere vici gucian eguin izandu ditudan, ta zuc daquizquitzun, gaistaqueri guciac; eta aitor-tzen ditut guciac, eguin ditudalaco, ta oriequin zu nic aferretu zaitudalaco damu andia-requin.

ORAIN nic nere gaizqui oriec gatic daramadan, nere gurutzeco neque hau izan de-dilla, oriec gatic nic zuri zor

dudanaren alde; ta barcatuac guerta ditecela bertatic, oriec gatic nic ditudan, zor guciac. BAI arren, bai, ni gatic ez-pa-da ere, orain zuc or daramazquirzun cere nequeac gatic, eta, dariezun, odol-eder-garbi orre gatic !

HAU lapur harc erran horduco, ONGUI da, bai, erantzun cion JESUS maita-garriac; gaur danic egoin zara zu ere, ni arquituco nazan, toquian, ta, ongui illic, Ceruratzeco daudenen artean; ta ni guero Ceruratzzen nazanean, an sartuco Ceruratzzen nazanean, an sartuco zara zu-ere oriequin batean; ta an egoin zara, atsegin ta contentuz beteric eternidade guci-gucian.

ORRA, necaturic arquitzen den, becatariari, becatariac bere becatuac gatic dituela bere nequeac, ezaguturiz, becatu beren alde, ta bere Jaunaren icenean oriec artzen dituenean, JESUS maita-garriac eguin oi diona; bere becatuac becatariac, behar bezala aitor-tzen, edo confesatzzen dituen aldian, barcatu arras guciac; graciaz beteric utzi becataria; ta becatari gaifoari eman Ceruraco escua, indarra, ta laguntza.

CEIN ona gure JESUS maita-garria ! CEIN beracha !  
CEIN

CEIN onguillea ! ta CEIN maita-garria !

ETA al-ere utzi nai dezutu zuec cere JESUS lapur gaisfoac bezala, cere gaisquiac confesari baten onetan ez airtortzea gatic? edo cere vide, urrats, eta paulu gaisfoac ez utzi naiez?

EGUNEN batean damutuco zaitzu, bai, zuri ere, orain lapur gaisfoari damutzen zaion bezala.

§. II.

JESUSEN BESTE BOST hitz-aldi, ta eracuste.

**C**Embat ere necatua ce- goea bere gurutzean gure JESUS maita-garria, etzen Galvario co mendian arkitzea, JESUSec aldi artan ecusten etzuen gauzaric bat ere.

ETzeuden JESUSEn gurutzetic urrun JESUS beraren AMA, ta S. JOAN Evangelarias; ez-eta Maria CLEofe, ta Maria MADALENA ere; ta, bere etsai gogorrac gatic JESUSec otoitz eguin, Lapurrari onrzen lagundu, ta onec JESUSi escatu ciona eman ondoan, beguiratu cion (cer beguiz? NORC hau adiraci!) bere AMA maite-maita-garriari.

III

BERE beguiratze beran bihotzez adira cion, cem- bat atseguin artzen zuen, an hura ecusteaz; hura cen alaba- ña, gañeraco guciac baño, JESUSec maiteago zuen, gauza bat.

DEMBORA berean adiraci cion JESUSec bere AMA maita-garriari, cein penatua ce- goen JESUS bera, ecusnic, ce- culan bezala, beraren urricariz, ta berac mundu gaisfoa gatic ceraman, nequea gatic, bere Amaren bihorza, itfalo gacia ba- ño, gaciagoa, edo, itfaloaren gaci-tafunac baño onace, min, ta neque guciagoz betea.

ETA nol-ere-bait arin- du naiez bere Ama beraren bihotzeco neque min arriga- riac; eta, feme onaren lan, al citzaquen, guciac eguin naiez, hitz-eguin cion, bere Amari; ta erran izandu cion: ORRA zu, nere Ama maita-garria; orra zu laster guelditu beharra, ni bague, ta bacarric mundu char galdu-gal-garri onetan. BAÑA bertatic ematen dizut nic nere orde, cere al- dean daducazun, guizon ori. ORRA non dezun, gaugue- ro errespetuz, ta, behar den, eran beguiratuco dizun, cere femea: *Ecce filius tuus.*

ETA, guciago baño,  
F gue-



guelago orretara guizon hau behartzeco, itzultzen ditu guero JESUS maita-garriac bere bi beguiac jandone JOAN Evangelaria gana; ta erraten dio oni: Orra; beguira, orra non dezun zuc cere Ama. Ba-daquizu zuc noren Ama den, Ama oris; ta Ama orri, bere Ama-tafuna gatic zor zaion, beguitarte, onestea; ta laguntza. EZ da cer ucatu ori gucia zuc orri beinere: ta eman behar diozu zuc ori gucia, bere demboran; ta eman behar diozu zuc, ta behar bezala.

CER cen hau, baicic, JESUS maita-garriac Seme onaren lanac bucatu, ta bere Amari azqueneco ADIO esatea?

HAU bere Seme JESUSen ahoric aditzean, nola guelditu ote cen Amaren bihotz guztiz maitaria? NOLA ez ote cen bertan itoric, edo illic guelditu JESUSen Ama maita-garria?

Jangoicoac ala naiez; ta gure oneraco!

ETA cer erran ote zuen horduan, San JOAN, JESUSen, ta gure Senide maita-garriac?

CER erran cezaquen? HITZIC ere! BADA era orretaraco ontarteac ez dute hitz-eguiteco lecuric erantzen. DAMUAC,

negarrac, eta atseguinac lotuac utizco ciozcan Jandone JUAN Evangelariari bere bihotza, ta mihia; ta, arrituaren eran iduquico zuen, cer erran, edo cer eguin ez cequiena bezala.

ETZION bada deus erantzan hitzez San JOANEC JESUS maita-garriari; baña erantzan cion lanez, ta eguifnez; bada eguin izandu zuen beti zucen-zucen, ta ecin edezquiago, JESUSEC horduan adiracicion, guci-gucia: ta seruitzatu zuen alic onguiena, alic humilquiena, ta al zuen errespetu, ta, amore gucia-requin JESUSen Ama maita-garria, Ama hau, ill ondoan JESUSEC berequin Cerura eraman arteco demboran: ta ori da JESUSen ontarteei erantzuteco videric onena; zucen eguitea, JESUSEC berac manatzen digun guci-gucia.

## II.

NEQUEtan, ta beharrean arkitzen ba-cen ere, bere Ama-requicoa eguin zuenean, itzuli cen JESUS bere Aita gana, ta asi cen erraten; nere Aita maitea, ta nere Jangoicoa, ez dezu zuc ecusten bartanic asi, ta orain arkitzen garan, horduraño nic daramadana, ta gurutze onetan ecusten dudana!

IRUR

IRUR hordura doa, nere etñaiac ni emen naducatelá ; ta ecusten dezu , nola naducaten ni nere etñaiac : eta al ere , ecer nic ezpa-necufa baño , gueiágo urricaltzen etzaquizquidala , dirudi!

HAU nola da , nere Aita maita-garia ?

HAU erran ondoan, errain cion JESUsec bere Aitari bihotzez ; bada etzegoen hitz ánitx aldi batez errateco ; baña ba-daquizu zuc , nere Aita maita-garia , cer gatic nagoen ni , nagoen eran ; ta eguin bedi ni gan, zuc nai dezuna , ta eguin bedi , zuc cerorrec nai dezun artean.

CERbait atseguin , edo cembait indar berri artuco cituen JESUsec bere Aita gándic, bere neque gogorrac eramateco , bere neque gogorrac era onetan Aita berari aguertu ciozcanean ; bada orien esque cen JESUSen aldi artaco bere otoitzá ; ta otoiz ona ez da utfic itzultzen bein-ere gure Jauna gándic.

AGUERIAN , edo adi cezaqueenac ecusten zutela, eguin izandu zuen JESUsec bere otoitz hau , ta era onetan eguin izandu zuen JESUsec bere otoitz eder hau , icasi guenezan guc gucioc otoitz-eguiten gueren neque , ta premia modu

gucietan ; ta icasi guenezan nola guc gueren otoitzac eguin ere ; edo escatuz gure Jaunari bere escu-laguntza, ta guc nai guenuquen , gauza ta ondafuna ; ta ori guc hari elcatu ondoan , erranaz Jaun berari, digula gauz hura , edo haren orde, berac nai duena ; bada hau izain da , aldi artan guri dagoquiguna.

III

**B**A-cequien gure JESUS maita-garriac , neque berri baten beguira cegoela, Salvatzallearen bere lan arrigarri hau bucatzeco.

NEQUE hau ozpiñzecoá cen ; ta hau ere bere gain, beste guciequin batean, artu naiez, bere Aitari, bere otoitz hau eguin ondoan , erran izandu cion, an ceudenac aditzen ciotela: *fitio* : egarriz nago.

HAU aditu zuenean , an ceudenetatic batec, eman izandu cion lastercari : fartu zuen, ozpiña-requin cegoen , ontzi, edo baso batean, itásoaren afar, edo pits arro, espon, edo veloqui zati bat ; eta nol-ere bait hura cañabera puntan ezartzen zuela , eman izandu cion JESUS maita-garriari bere ezpañetara.

HAU harc eguitean, erausiz ceuden gañeracoc, eta eraquerizco hitzac erraten cituztela.

ETA cer ore cen JESUS maíta-garriac aldi hartan eguin izandu zuena ?

HITZ erocz caforic ez; baña, Escriturac ciona, ecin zucenago; edo ezpañac zabaldu: ta, mintafun utfa eramateco behar cen, adina ozpiñ artu; ta guciago ez!

JESUS maíta-garria! nombait andia da gure becatuen zorra, ta zure Aitac gure gan, edo gu baitan duen artzeco; bada gure zorren alde orrembat zuc garutze orretan eramán ondoan, cere egarria iltzeco bezala, ematen zaitzun, edaria ere, ozpiñ utfa da, ta irabaz-gai guztiz neca-garria; ta ori zuc artu demboran eguiten dituzu nequezco irabaci andi berriac.

AL-ere andiagoa da, gure JESUS maíta-garria, gu ganaco zure amore; bada cere Aitaren, ta gure amorez pozic daramazu zuc, lenen gain, edari latz orren azqueneco neque ori ere.

EZ daquit nic cer eguin, nere esquertafuna zuri eraculfiteco, nere JESUS maíta-garria. BESTERIC zuc niri aditaci ar-

tean, nic eguiñen dudana da; alic zucenena nic zure Legueco gauzac eguitea, naiz errazac izan oriec, naiz latzac, naiz miñac, naiz gogorrac, naiz nolacoac-nai., zuc cerorrec niri nere lan onetan laguntzen didazula.

#### IV.

**E**DARI latz onequin bucatu cituen JESUsec bere Aitac, gure gulpen alde, efcatu ciozcan, gauza guciac; eta, oriec bucatu ondoan, erran izandu cion bere Aita berari: ORRA, Aita, orra eguiñic dago zuc niri adiraci cendan, guci-gucia: *Consummatum est.* GUIzon-eguiñic lurrea vicitzen ni asi ezquerozco demboran, eguin dut nic, zuc cerorrec daquizun bezala, aldian aldicoa; ta eguin dut nic hau gucia, zuc nai cenuenean, ta zuc cerorrec nai cenuen bezala; ta ez da eguin bague guelditzen misterio, edo gauz andi, edo chiquiric bat ere. GAÑERACOAC alde bat uzten ditudala, nequezco gauzac ciran guciac, zuc daquizun bezala; ta aguitz arrigarriac, beintzat bart arratfetic orain-dañoacoac.

BAÑA, ciran baño, arrigarri-agoac izandu ba-lira ere, gu-

guciac eguñen nituen nic zure amorez , ta guizonen oneraco ; ta eguñen nituen nic bihotz osoa-requin , ta zuc nai bezala , ta zuc cerorrec adirazten cenituen eran.

CEMBAT atseguin artuco ore zuen Aita eternoac, hau gucia JESUSen ahotic aditu zuenean ? Bada atseguin eguiten dio edocein Guratori bere seme-onaren ibillera zucenaac ; eta ecin aguer diteque, JESUsec berèac baño, zucena-go gauzac eguin izandu dituen, femeric ; ez eta, Aita eternoa bezalaco, Guratoric ere.

BERE Aitari JESUsec atseguin hau eguiteman, eracutsi cigun guri, Aita bera-requin, ta gure Guraso ta Cargu-dunequin guc eguin behar duguna ; edo eracutsi cigun nori bere gauzac zucen eguitea ; ta gueren eguite zucena-requin, ba-coitzari dagocan , atseguin garbi bero bat ematea.

ZORI oneco humeac gu , ori guc eguin ondoan gu ere JESUfen eran iltzera !

NEQUEZco lana da bai batec beti eguitea, Jangoicoac bacarric batzuetan , ta bectetan Jaingoico berac gure Gurasoquin, edo gure Escudū-quin batean nai duena; baño gure neque hau gucia laster bu-

catcen den , neque charra da, ta eternidade bateco atseguin-gloria dacarren, nequea ; ta ofregatic da neque guztiz maitagarria.

V

HITZ hau erran ondoan guertatu citzaion JESUS maitagarriari , berez iltzen den , arguiari guertatu oi zaiona.

ARGUIAC, berez iltzean, botatzen du , len baño ere, garandiagoa ; ta gure JESUS maitagarria illic guelditu cen, iltzean bere Aita eternoari hitzoso indartsu batequin erraten ciola: Aita, zure escuetan uzteridut nic nere anima , edo nere ispiritua. ETA orra azqueneco JESUSen hitzac !

AH! norc, bere iltzeco hordu hartan erran litzaquē hitz-berac!

NORC esan litzaquenoriec , bere bihorzean, JESUsec baño, afaldacio guei ago ez duela, ta bere Anima Aitarē escuetan gueldituco delaco, edo Jauraren gracia-requin ill-ondoan arquituco duelaço , uftean ?

USTE hau horduan nai duenac, artu behar du , JESUS ec orain eracusten digun , vide ; ta vide hau artu , ta ibilli behar du , becuraco macur-tafunac utziric , aldapaz, aldapa, ta nequez neque, gure JESUSen Legue garbiac ori escuetzen duen , aldi oro.

ETA

*Jesusen amore-nequeei*

ETA ale ere gure ne-  
queric andienac ez dira , ez,  
eun legoaz ere, gure JESUSec  
eraman dituen , neque-etara  
urbilduco.

EZURrez , ta araguiz  
jauntzia cegoen gure JESUS,  
gu bezala. GUREA baño , gor-  
putz aguitz mimbereagoa cen  
gure JESUSen gorputza. JESUS-  
ec etzuen obenic bat-ere , ta  
gure amarez eraman cituen  
bere neque guciac.

ETA ceer? GUC gue-  
ren oneraco , ta gueren culpen  
alde ez dugu eraman behar,  
vicitza garbi zucen batec , ef-  
catzen duen, neque zatia ; ta  
neque zati , JESUSen neque  
gogorren aldean, ain arin-char-  
chiuia ?

BAI, nere JESUS mai-  
tea, bai ; ta pozic al-ere , zuri  
beguiratuz , ta zuc niri nere lan  
onetan laguntzen didazula.

I.

CONSUMMATUM EST.

Joan. 19. 30.

**B**UCATu dira beraz, JESUS  
maita-garria , zure aurtu-  
funeco , zure gazte-tafuneco,  
zure guiza demboraco, ta zu-  
re Pasioneco neque guciac?

Bucatu dira beraz zure

BIHOTzeco illun-tafunac , eta  
tristurac , zure odolezco icer-  
diac , eta flaquiad ?

BUCATu dira beraz zu-  
re bi loetaco , ta buru gucico  
arantzen zulatzeac , iltzez ur-  
raturicaco escu-oñen oñaceac,  
eta buruaren erpiñetic behatz  
azquen-eraiñoco neque, ta min  
guciad ?

EGUIN dezu beraz gu-  
re becatuen alde , zure Aitac  
escatzen zuena ; ta guc gue-  
roc nai izatera , izain dugu guc  
orien barcamentua , ta, onac  
izateco , behar dugun, zure la-  
guntza , ta gracia ?

Hordu onez , bada, gu-  
re JESUS maita-garria ; ta eter-  
nidade gucian bedeica zaitzatela  
zu , zure onembat nequez va-  
liatzen diranac ; eta bedeica zai-  
ztatela zu oriec , ni beren ar-  
tean nautela!

ETA zure nequeaz valiatzen  
ez diranac, JESUS maita-garria  
zure Leguea urratuz , ta beren  
gogara dabilzanac, certan guel-  
ditu beharrac ote dira ? NO-  
LA bucatu behar ote dituz-  
te oriec beren eguitecoac , eta  
lanac ?

ORREtan ba-dabilta,  
ecin gaizquiago : bada oriec,  
beren eguiteco oriec bucatu  
horduco , sartuco dira eguite-  
co berri andietan , ta neque go-  
gor-

gorretan ; ta neque , eternidade gucian ere , bucatuco ez diranctan !

NEQUE oriec nere gain artu beharra naz ni , orain nic ez artzera gure JESUSen ice-  
nean , ta nere oneraco neque garbi labor batzuec !

EZ orrelacoric , ez , nere JESUS maita-garria : ez eta mundu gucia gatic ere ! ZUREA nai dut izan nic , vici nazño ; bai ta beti-betico eternidadean ere : ta bertatic nai ditut nic , orretaraco behar diran , neque guciac .

BETÖZ, bada , JESUS maita-garria ; ta befoz zure laguntza requin batean ; bada , nere nequeric luceenac ere laster bucatuco diran , nequeac dira ; ta ez dira bucatzen , oriec dacazten , seculaco atseguin-contentuac ; eta oriec nai ditut nic ; eta , oriec dituen , Cerrura nai dut nic , an izu beti , ta beti maitatzen egoteco , nere iltzean emen ongui erran ondoan : bucatu da : *consummatum est*. Ala guerta dedilla , nere JESUS maita-garria ; bai arren bai .

2.

ECCE IN MANIBUS MEIS DES-  
*cripsi te. Isai. 49. 16.*

EZAGUN zaitzu , bai , gure JESUS maita-garria , ga-

raitu dituzula zuc cere etiaitzarrac , iltzeco zaudela zu orren indartsu arquitzen zaranean , ta orren hitz andi-viciequin Aitari otseguiten diozunean , ar dezala bere escuetan zure vicitza , zure espiritu-tua , edo zure anima : *Et , clamans voce magna , ait , Pater , in manus tuas tuas commendo spiritum meum* : bada , bere etfaiac garaitzen ez dituen , Soldaduac , ez dio escaintzen ecer bere Erregueri , ta lissilic dago , edo aiez , ta negarrez , bere Erreguec , con-tuac artzera , deitzen dionean .

GARAITuac guelditzen dira , bai , zure etfaiac , JESUS maita-garria . BEHAR bezala atera dira , bai zure paufluac , zure hitzac , ta zure ucaldi guciac .

ONGUI necaturic guelditu zara zu , bai ; baña etzaitzu galduco , ez cere neque guci-etatic nequecho bat ere ; neque orien aldeitzulico dizu zuri cere Aita maita-garriac , orain pozic artzen dizun , cere nequezco vicitza ; ta cere vicitza berria-requin batean emain dizu zuri cere Aita eternoac bere escoi-aldea ; ta eternidade gucico gloria .

ONGUI : ta certaco dira , JESUS maita-garria , orain-dañoço zure pelec , eta neque gu-

guciac? EZ dira oriec , garai ez nazaten ni nere etsaiac? ORRE gatic diozu zuc, nerequin diarducazula ISAIAS Profetaz ; ona non zauden zu nere escuetan letra ederrez ezarria , ta escriptua ; ta emen cenduzcandan nic zu, edo nere gogoan ongui farturic ceunden zu nere peleetan, ta nere neque, ta oñace gucietan ; ta nere neque oñace pele guciac ciran zure oneraco.

EGUIA diozu , bai , nere JESUS maita garria; eguia diozu! BAÑA nic ez artu nai izandu nere oneraco zure neque-pele-garraitzalleac! NI orain-dañoco nere demboran , zu utziric , ibilli izandu, nere etsai galgarrien artean, hista , ta irri zure nequeez eguiten nuela , edo becatuz becatu , ta gaizquiz gaizqui!

ETA ez da hau esquer-gabetasun eroegua? ONĒtan irauñ behar ote dut nic nere ill-artean? Ez eta beguiac ifte-idiqitze batez ere ! ta zori gaiftoan egondu naz ni orretan beste ambeste demboraz ere! NIC gaur-guero eguin nai dudana da, nere JESUS maita-garria , nere leneco gaizqui gucien barcametua damuz erdifitea; ta, emendic aitziañaco vicitz on batequin, zure escuetan nere anim hau uztea ; iltzen nazanean ni , eraman nazazun

zuc cere Aitaren escuetara , ta eternidade gucico gloriara.

ORREtaraco dira JESUS maita-garria , zure escuetaco lan , ta neque guciac. VALIA daquiz-quidala bada ; bai arrēn , bai.

3.

ET, INCLINATO CAPITE, TRAdidit Spiritum. Joan. 19. 30.

**G**URUTZEAren ondoan zaude zu, JESUSen Ama maita-garria , ta eculten dezu, nola guelditzen den or zure Se-mea.

BERE Aita eternoari eguin dio, or iltzean, zure Se-me JESUS maita-garriac agur andi bat ; eta dembora berean eguin dizu zuri ere agur bera ; ta izan baguez non utzi bere burua , hau guelditu da, lantzac urratu behar dion , bular aldeari beguira bezala ; ta, gure amorez ill delaco , egoe-rra-requin.

ODOLEZ , ta listuz guztiz berea daduca JESUsec bere buru bera , ta bere aurpegui guci-gucia.

BIHOTzean daducan, odol tanta bat baicic , ez dio- te utzi Borrero gaiftoac , edo gure becatuac JESUS maita-gar-



garriari ; ta ori ere laiter ateraco dio , bai , bihotz beraren erdiraño fartzeco dagoen , lantza gogorrac : eta guelditu da JESUS, illa baño ere , illagoa dirudiela : ta cere Seme JESUS illa garbitu , ta ill-oialez zuc , Ama maitari maitea , estali naia gatic , ez dizute utzico , zaitzen dauden , Soldaduac ; eta lan ori oriec zuri eguiten utzia gatic , ecin eguin cenezaque zuc : bada zutic dago gurutzeta , ta gurutzetan iltze andiz jofia dago JESUS ; ta dago , zuc ecin erditifico dezun , lecuan !

ZUC daguiquezun , gucia da , Ama maita-garria , negar , ta negar , ta , oñacez urturic , JESUSi beguira egotea!

ALA zaude , bai , JESUS-en Ama maita-garria ; ta , naia gatic ere , nola ceneguique ori befteric zuc ? Ill dizute alabaña , Amac izandur duen , Semic onena , maitariena , ta maita-garriena ; ta Seme , gañeraco Ama guciac beren Semeac baño , aguitz , eta aguitz zuc maiteago cenuena : ta ill dizute , obenic bague , ta , oraindic eman den , sentenciatic , eta eriotzic gaiftoen , gogorren , ta galduena-requin !

EGUIZU , bada , negar , ta negar , JESUSen Ama ecin maita-riagoa ; ba-dezu , bai cer

gatic negar eguin ! ta ez dezazula beguiratu , cere Seme JESUSen iltzalle gogor galdue-tara ; galdua naz ni beftela ; bada ni naz , ni , nere becatu-eguin orietatic bat ; eta , behar-bada , gaiftoen-eratic.

EDO beguiratze-cotan zuc orren iltzallei , izan bedi , cere Semearen oroitz beia zuc eguitemeco , ta Aita eternoari zuc erateco : AITA , barca bequie , nere Semearen iltzallei , edo becatari triftsei , orain , ori iltzean , eguin duten , becatu izu-garria.

QUENDU diozcate oriec , bai , zuc cerorrec dacufazun bezala , bere odola , ta vicitza nere Seme JESUS maita-garriari : baña , bere iltzalle beren oneraco , pozic zuri nere Semeac emanac dira oriec . VALIA daquiztela , bada , ta gueldi ditecela onduac , orain dañocoan gaizqui vicitu diranac . INDASU atfeguin ori , onembat nere nai-gaberen artean .

ALA eguinen du , bai , JESUSen Amac , ecusten bagaitu gu gueren gaizquiez ongui damutuac ; eta , gaizqui beriric ez eguitemeco , alimoan , cifez , ta bihotzez erraten diogula , gueren becatuequin ill-eraci diogun , bere Semeari : NERE JESU CHRISTO , &c.



# LXIV-GARREN OTOITZGAIA.

GURUTZEAN CEGOENEAN JESUS, AITA ETERNOAC  
onen alde eguiña.

§. I.

CERUAN AITA ETERNOAC EGUIÑA.

I

**J**ESUSen odol tanta bat, edo  
JESUSen nequeric chiquie-  
na asqui, ta sobera cen man-  
duco becatu gucien alde; cen  
alabaña Jangoico--guizonaren  
gauza; ta orie gatic cea, baz-  
terric bugueco, valioa.

BAÑA nola-ere-bait guri  
adirazteco becatuaren zor itu-  
si-arrigarria, ta gu ganaco JE-  
SUSen amore ecin-andiagoa,  
nai izandu zuen Aita eterno-  
ac, eraman citzan, beraren Se-  
me JESUS maita-garriac, ecu-  
si ditugun, oñace guciac, eta  
gurutzeco eriotza.

ETA videnabar guri  
adiraci naiez, one gatic cela,  
ta ez, ecin-gueiagoraño JE-  
SUSi Aita eternoac nai gabez,  
JESUSec ceramana, ta, hau  
gucia JESUSec ceraman, dem-

boraco Aitaren ifillera, ta be-  
re Seme JESUSen alde gueldi-  
ric bezala egotea; JESUS bera  
bere gurutzean cegoen, dem-  
boran, ta, JESUS an itzewan,  
eguin izandu cituen Aita eter-  
noac cembait gauza, nor cen  
JESUS, ta cembat Aita berac  
JESUSi nai cion, ongui adi-  
razten zutenac.

BORREroac JESUS gu-  
rutzean josi, ta laster, egu-er-  
dia ba-cen ere, ta odeic, eta  
lañoric bagueco egunaren er-  
dia, beltzez bezala jauntzi cen  
Ceru gucia; arguiric bague be-  
zala guelditu cen Eguzquia, ta  
ez-gau-ez-egun eguñic gueldi-  
tu ciran, gañeco aicea, ta az-  
pico lur gucia; alacoa cen egun  
hartaco illun-rafina!

AL-ere ètziran izutu  
APEZ-

**APEZ**-Nagusiac , **ESCRIBA**-gogorrac, **LIGUE** zarreco **ERACUS**leac , **FARISEO**-tzar arroac , eta gañeraco **JESUS**en etfaiac. An egondu ciran guciac **JESUS**i beguira , ta itquinoca , **JESUS** ill arteco dembora gucian , Ceruaren dolura , ta horduco illun--tafunera ohartzen etziraren eran ; ta , behar bada , ohartu ere bague : ain itfutuac cenden oriec , edo ain erre-amurratuac **JESUS** onagana!

**ANDIC** urruti , ta Itafoareen beste aklean arquitzen cen ( ta **Gentil** oraindik , eta **JESUS**en berriric bague ) **DIONISIO AREOPAGITA** deritzan Santua ; ta erran oi da , arrituric guelditu cela guizon andi jaquintsu hau , Eguzquiaren horduco illuntafuna ecutsean ; ta erran izandu zuela : **EDO** nequetan dago gauza gucien Eguillea ; edo maundua bucatzera doa.

**ETA** dembora berean Eguille hau , edo **JESUS** ona nequetan ( ta alaco nequetan ! ) daducaten , **JUDATAR** gogorrac , ez dira ohartzen ere egun hartaco , ta bertan daducaten , illuntafun berera ; ta atsegin andia-requin daude , nequetan dagoen , **JESUS** obenbagueari hiftaca , ta beguira : izana gatic horduco illun-ta-

funa , orien ibillera gaistoc eracaria , ta **JESUS** oben baguearen alde **JESUS**en Aitac bidaldua.

**ILLUN**-tafun hau etzen izandu , ez , orren dembora laburrecoa ; **IRAUN**du zuen **JESUS** ill-artece dembora gucian , edo itur horduz bezala : ta arte gucian egondu cequiozcan **JESUS** maita-garriari irriz , ta hiftaca Judatar gogorrac : era , **JESUS** ill ondoan , ta illun-tafuna quendu , ta ere , lenecoac guelditu ciran , **JESUS** illeraci zuten **Apez-Nagusi** , **Car-gu-dun** , **Fariseo** , ta gañeraco Judatar gaistoc.

**ORRA** cer den pasionatuarena , ta gorrotuan , edo gaizquian gogortuz , ta gogortuz , edo gaizquira oituz , ta oituz dijoanarena ; gaizquitic atera bague guelditzea!

s. II.

**JESUS**EN ALDE AIT-eternoac **Jerusalengo** Elizan eguiña.

**CEUDEN** bezain itfutuac gueldi etzitecen Judatar galduac , edo ezagu cezaten nor cen gure **JESUS** maita-garria , edo **JESUS** cela , gurtze hartan horduan egona gatic , **JUDATAR**ren , **ISRAEL**dar-

ica

ren, ta munduco gucien SAL-  
VAtzallea, eguin zuen gueia-  
go ere Aita eternoac JESUSen  
alde.

JERUSALENGo Elizan  
ba-cen *sancta sanctorum* ceritzan,  
Aldare, ta lecu bereci bat. AN  
ceuden Testamentuco ARCA,  
ta LEGUE zarreco cembait  
gauza.

LECU hau etzen aguer-  
tzen bein ere. CORTIN andi-  
eder batez gorderic cegoen; ta  
aratzen etzen, JUDUen AITA  
fantua baicic; eta ori ere, ur-  
tean bein baicic, etzen aratzen.

JESUS iltzean, urratu-  
cen gain-bera cortin hau gu-  
cia, ta guelditu ciran aguertu-  
ac, eta norc nai ecusi citza-  
quen eran, barrengo gauzac.  
ALDARE onen, ta ango gau-  
zen aguertze, hau gauz arri-  
garria cen JUDAtar, ta ISRAEL-  
dar gucien-daco; cen alabaña  
Jangoicoac adiraztea, bucatu  
cirala LEGUE zarreco cerem-  
niac, eta eguitemo guciac: etzue-  
la gueroztic toqui hartan Jan-  
goicoac jarduiqui nai Judatar-  
ren Apez-Nagusia-requin: ta  
berac ill eraci zuten, JESUS ce-  
la hordu hartatic seculaco  
Apez-Nagusia: JESUSen Eliza  
berrian izain cirala gueroz-  
gueiaco, Jaunac ontzat artu-  
co cituen, Mez-ofrenda-ta Sa-

crificio guciac: Eliz onetari  
aguertuco cituela, JESUSen  
ordez gueldituco cen, Aita  
Santuaren ezpañez, jaquin be-  
har ciran, gauzac; eta gauz  
oriec, eta gañeraco, JESUS-  
en Legue berriac bereisten, di-  
tuenac cirala, Jangoicoac begui  
onez ecufico cituenac; eta oriec  
eguiten ez cituztenac, ecin izan  
citezquela: ABRAnen Isaac-en,  
ta Jacob-en semeac, edo, Ce-  
ruraco diranen, lagunac.

ORRA cein aguertze  
arri-garria, cortin hau urra-  
tzeac etorricen, aguertzea!

LEGUE zarra cen JU-  
DAtar gogorren aitzakia, JE-  
SUSi vicia quen-eratzteco: ta  
JESUS bere gurutzean illic  
guelditzean adirazten die Jan-  
goicoac JUDAtarrei, bucatu  
dela Juduen LEGUE zarra, ta  
ez duela, JESUSen LEGUE  
berria, baicic nai.

EZ-ecusi eguin cioten  
JUDA-tar gogortuac beren  
Jangoicoari, orain ecusten  
dugtin, aguertze arrigarri hau  
ecusi zutenean: baña ecuf-  
eraci cien Jangoicoac, eta aitor-  
eraci egui-hau, emendic atera,  
ta fulecera aurtequi cituenean:  
ta horduco, edo JESUS ill ce-  
neco beren ez-ecufia gatic, eta  
gañeraco beren becatuac gatic,  
an egoin dirat lertzen, ta urra-  
tzen

la , austen ez pacen ere , guel-  
dituco cen, zu zauden, eran cen-  
duzcalaco illun-rafunez , ta da-  
muz ongui-ongui beteal

UTZ dezan, bada orain  
ba-dere , bere gogor-tafuna, ta  
gaista-queria , betor arren gure  
JESUS guztiz necatu-maitea,  
betor-betor, zuri dariezun, odol  
orren cerbait zati : ez da,  
ez alacoric hartaraco , zuc ce-  
rorrec daquizun bezala , gure  
JESUS maita-garria. EZ al di-  
dazu zuc niri gaur hau ucatu-  
co? Ez atren , ez.

3.

*IRRUAT SUPER EOS FORMIDO,  
& pavor in magnitudine brachij  
tui. Exod. 15. 17.*

**N**ERE naicunde macurrac  
dira, nere JESUS maita-  
garria , ta nere pasione futu-  
galgariac , JUDAAtar gogor-  
equin batean zu gurutze orre-  
tan ezarti zaituzten , Borrero  
galduac!

ILL ciran, bai, hor-  
duco JUDAAtar gogorrac. ER-  
RETzen daude, ta egoin ere  
dira , bein ere bucatuco ez  
den , fulececo eternidadean,  
zurequin oriec izandu zuten,  
betico beren gogor-tafuna ga-  
tic : eta orien beren lagun ga-  
isto izan beharra naz ni, nic

III

ez uztera , orain-dañoco deni-  
boran erabilli ditudan , nere  
lan-gai gaistoac !

BAÑA ez nic oriec ut-  
zico , lenic beldurtzen ez-dira-  
la nere pasione afaldatuac, eta,  
macurtafin galduac , edo nere  
ezur zañac , eta bihotz char-  
galgarri han !

BAÑA noiz , edo no-  
la oriec beldurtuco dira; edo  
norc, edo ceinec oriec izu-  
raci ote litzaque?

ZUC zuc , gure JE-  
SUS maita-garria , zuc ; zuc  
nai izatera ; bada , nai duen,  
gucia daguiquen , befoa da,  
zure befo indartfua ; arquitzen  
da alabaña zure befoa , cere-  
quin dezun , Jangoico-tafun  
guciaren indar guci-gucia-re-  
quin.

BAÑA ez, JESUS maita-  
tea, ez ; ez dezu zuc orre-  
taraco bat ere cer igitu. AS-  
qui da, bai, atqui orretaraco  
zure Aita eternoac , cere gu-  
rutzean zuc cere escuac jofiac  
daduzcatzula , lurrean, ta Ce-  
ruan eracutfi , edo agueritu di-  
guna : bada, orri ongui guc,  
edo orri maiz, ta hastiro guc  
beguiratzera , gueren burutic  
gueren onetarañoco guci gu-  
cian beldurtuac guelditucoga-  
ra gu ; ta cifezco damuz, ta  
urriquiz beren bularrac ueal-

I

di-


dicatzen cituztela, beren eche-  
etara joan izandu ciran, IS-  
RAELdar onen eran : bada, ala  
guc beguiratu ezquero, ecufico  
dugu egu-erdi argui batean ba-  
tetan illundua Ceru gucia, ecu-  
fico dugu oini-pean icaratua lur-  
ra ; ta ecufico ditugu, lurra-  
ren icarari-equin idiqui zabal-  
duac illea obiac ; eta, hau gu-  
cia guc ecufitean, ecufi nai ba-  
dugu, guc ecufico, edo eza-  
gutucò dugu, ez-ontzera, quen-  
duco gaituela gu, anitz luzatu  
bague, bere gainetic, icara da-  
billen, lurrac berac ; eta aur-  
tiquico, edo boraco dituela  
gure gorputzac beren obi-eta-  
ra, ta gure anima galduac su-  
lecera ; bada, Eguzquiari ar-  
guia quentzen dion, gure Jan-  
goicoa ez dago, ez, era or-  
retacoei beguitart onac egui-  
teco, edo era orretacoac bere  
Ceruan artzeco.

BEGUIratuco ote dio-  
zu zuc, nere anima, noicean  
bein, edo maiz, oni guciari,  
ta zure amoreac gatic, hordu  
ain gogorrac bere gurutzean  
eraman cituen, gure JESUS  
maita-garriari ?

ORI zuc zucen egui-  
tera, escuraco dituzu, bai, ce-  
re passione afaldatuac. EZ die-  
zu zuc utzico lecuric cere nai-  
cunde gaito galgarriei. ON-  
GUI vicico zara zu, emen vi-  
ci zaraño ; ta begui on-equin  
artuco zaitu zu cere Jangoico  
maita-garriac iltzen zaranean.

EGUIN gogo ote de-  
zu zuc hau gucia ?

BAI, nere JESUS mai-  
ta-garria, bai, zuc niri lagun-  
tzen didazula : ta lenago ni ne-  
re lan onetan haritu gabez, ta  
nere becatu guciez ongui da-  
muturic oraia erratera noa :  
NERE JESU-CHRISTO, &c.





# LXVI-GARREN OTOITZGAIA.

GALVARIOCO MENDIAN JESUSen AMAc  
izandu cituen neque arri-garriac.

§. I.

BERE SEME JESUS GURUTZEAN JOSI CIOTENETIC,  
hau ill arteco-Amarea nequeac.

**E**Z da, erraz adiraztea guc JESUSen Amac bere Se-mearen gurutze bazterrean bein-bein, ta guero bere bacar-tafunean ecusi izandu zuen, neque arrigarria; ez eta guchau jaquitea ere; bada hau guc on-gui jaquiteco, jaquin behar gue-naque, nor den JESUSen Ama, ta norañocoa den, JESUSen Amaren animan arkitzen den, gracia, ta virtutea: ta hau gu-cia daquienic, ongui beintzat, ez da arkitzen gaur, ez mun-du gucian; ez, eta arquitico ere mundua mundu den dem-boran.

GUC daquigun, gucia da, bai zuela, Jangoicoaren Ama Virguñac, Ama Virgen onelacoari cegocan, virtute gra-

cia, ta doai-era gucia; erzuela urfic eguin bein ere, bere vicitza gucian; ta eguin izandu zuela, zuen, gracia requin, ta virtutea-requin, ceguñoen guci-gucia; ta maitatu zuela bere seme JESUS maita-garia ecin gueia-go-raño, edo berac maitatu al-guci gucian; ta, Ceruco, ta lurreco guciac maitatzen zuten baño, obequi, ta aguitz eder-quiago:

ONGUI da: ta egazti charrac, otfo gogorac, eta mendico gaiffa guñenac ecin ecusi ba-dute nequeran faitua beren humè-etatic bat ere; eta ori era orretan oriec ecustean eguiten ba-dute guc gueroac da-quigun adifia, bere neque-petic ori a tera naiez, edo nioie or-



ri gaitzic eguin ez dezoa gaitzen baten beldur diraneansta ori gucia oriec eguiten ba-dute cerea ongui nai dien beren hume-ei, edo cerea cerbait maite dituztea beren humeac, ecin guciago-raño bere seme on JESUS maita-garria maite zuen Ama Virginac cer nai-gabeac ecufico cituen, cer quezcac, eta cer nequeac, gurutze baten ondotic irur horduz beguira cegocala, egondu cen bezala, bere Seme Jesus gurutze beren iltze-tzar andi gogorrez josi-ric arkitzen cenari?

CEIN neque zorrotzac, cein utfac: cein miñac, dembor orretaco Ama onen nequeac! Ecin ceguiquen alabaña, bere Seme JESUS maita-garri necatua-requin, gañeraco Amac, edo Gurafoac, nequetan dau-den, beren hume-eguin eguin oi darena.

EDOCEIN Gurafo, bere hume bat nequetan ecufi-horduco, an da lafterca, hari laguntzera joana; ta bere hume-ari laguntzen diolaco at-seguiña-requin cerbait ba-dere arintzen ditu bere nai-gabeac: baña JESUSen Amac-, neque arri-garrietan ecufia gatic bere Seme maita-garria, ecin lagun cezaqueon bat ere; ta bere Seme maite JESUSi ecin lagundu

onec zorrotzen ciozcan Ama Virginari, ambat nequetan JESUS ecufitretic cetozcan, bere naigabe latzac, eta gañeraco quezcac.

ECUSTEN zuen bere seme JESUS Ama Virginac anitz arantza buruan sartuac ceduzcala, ta ofñacez leitzen: ecufiten bere seme JESUS bera, arantz orietatic bat ecin atera cezoquen, eran; bada ecufiten zuen JESUS bera bi ecufiac iltzez bortizqui josiac ceduzcala; ta ecufiten zuen videnabar, etzuela berac efcuric bat ere, arantz zorrotz oriec JESUSi ateratzeco.

ECUSTEN zuen Ama Virginac berac; bere buruco arantza zuloetatic JESUS maita-garriari cerion, odolac betetzen ciozcala JESUSi bere bi begu-iac, eta aurpegui guci-gucia; ta, bere odol ori JESUSi Amac quendu naia gatic, etzioten ango Borreroac, eta JESUS zaitzen ceuden, Soldaduac JESUS uquitzen iutzico.

ECUSTEN zuen JESUS-en Amac JESUS gueien gueiena larru gorrian, ta otzez icarra; ta etzuen JESUSen Amac, JESUS berotzeco videric, bat ere, ez eta estaltzecoric ere.

EGARRIZ itotzen cegoen JESUS maita-garria; ta, ala cegoen, JESUSi, nola cegoen,  
ce-

tequiela beraren Ama Virginac, ecin eman cezoquen edatera, ur tantaric ere.

URRAtua daduca JESUsec bere bizcar gucia, ta dembora berean, oñacez betea daduca, ta odola dariola; ta al-ere ecin daguioque beraren Ama maitariac deufere, odola gueldi-razteco, edo oñaceac ariintzeco!

GORptuz gucia daduca JESUsec, bere oñetan, ta escuetan sartuac daduzcan, iltzeen gañean; ta JESUSen Amac ecin labur ditzaque, bere egoe-ra arrigarri orretatic JESUsec dituen, neque izugarriac, ez befoetan JESUS artuz, ta ez beste vide batez ere!

ECUSten du JESUSen Amac bere Seme JESUS maita-garria blasfemiaz, hitza gaittez, errate gogorrez, ta eua milla videgabez dena betea; ta hitz bat ecin atera dezaque JESUSen alde, ta JESUSen etsaiac isil-erazteco.

ECUSten du, aituz, ta aituz doala JESUS, ta azquenco bere afnase-etan sartzeco avian: ecusten du, falquiiaz ecin jaso duela JESUsec bere burua; ta al-ere ecin eman diotzaque JESUSen Amac bere escuac, nola ere bait JESUS burua iduquitzeco.

ECUSten du azquenean Ama-Virginac Jangoicoaren, ta bere Seme bacar JESUS bere gurutzean illic, oritua; odolez, ta carcaifez dena betea, ta bere bi faieft-etatic daduzcan, lapurren ichuracoa; ta ecusten du, ez daudela ala ere afeac, JESUS artara duten, etsai gogor-rac.

ETA onembat bere ecuste gogorrec, onembat charqueri galduc onembat nalgabe latzec, eta onembat quezcac certara ote zuten JESUSen Ama maita-garria? NOLA utzi ote cioten bere bihotz mimbere maitaria? ta nola bere barren gucia?

EDOCEIN humetan afsqui lizaque JESUS ec ceraman, neque arri-gariaren laurdena, haren Amari vicia quentzeco: nola bada etzen illic guelditu, Ama guciac beren Semeac baño, milletan bere Seme JESUS maiteago zuen, Ama Virginia, onembat eta onembat JESUSen neque ecusi ezquero?

ALA Jangoicoac naiez, edo milagroz; ez bestela!



## §. II.

JESUS ILL CENETIC GURU-  
tzetic quendu arteco AMA  
Virginaren nequeac.

## I.

**B**UCAtu ote ciran, JESUS-  
en eriotza-requin JESUS-  
en Amaren nequeac?

CER bicatu? Hordu-  
tic anditu ciran, norc daqui,  
cembat-erario; galdu zuen ala-  
baña JESUSen Amac JESUSen  
eriotza-requin ecin-gueiagora-  
ño maite zuen bere Seme ba-  
carra; ta era onetaco galtze-  
ac ez dira, ez, nequeac arin-  
tzeco; nequeac anditzeco, ta  
anditzeco dira.

ETA JESUSen Ama-  
ren nequeen anditze onetara-  
co asqui ez-palira bezala JE-  
SUSen eriotza, ta eriotz-eraco  
gauzac, izandu cituen JESUS-  
en Amac nequeen bertze an-  
ditzalle arri-garriac ere. ETA  
lendabicoa, Soldadu-tzar ba-  
ten escutic artiticoa.

ETZEN atera JUDA-  
tar gogorrac nai bezala, PI-  
LATOSi Judatar berac esca-  
tu ciotena. PILATOSi escatu  
cioten JUDAtar gogorrac, au-  
ts-eraci citzala JESUSen zan-  
coac, edo berneac; lembaitlen  
berac, eta alic gaizquiena JE-  
SUS ill-eracitic, lurpean fartu-  
tic uzteco.

JUDAtarren esca—era  
oni erantzun cion PILATOS-  
ec, eguin cedilla, Judatar go-  
gorrac nai zutena.

BAÑA etzuen JESUSen  
Aita eternoac nai, oriec nai zu-  
tenic; eta etzen eguin, Judatar  
gogorrac escatu zutena.

JESUSen bi alde-etatic ceu-  
den, Lapurren zancoac autli, ta  
lan bera JESUS-equin eguitera  
Soldadu-tzarrac prestatu cirane-  
an, ecusi zuten, illic cegoela  
horduco JESUS maita--garría,  
ta etzela certaco eguin lan hu-  
ra JESUS maita--garría--requin,  
ta guelditu cen eguiteco.

ECUSIric, an ceuden,  
Soldadu-etatic batec, lan har-  
tan cebiltzan, guizonen gueldi-  
era, ta jaquin-naiez bezala, ill  
ote cen, edo ez; gure JESUS  
maita-garría, edo bere gogor-  
tasunac lan hau hari eraguiten  
ciola, fartu izandu cion lan-  
tza bat JESUSi bere bihotzera-  
ño, ta atera cion, an JESUSi  
guelditu citzaion, odol chorta.

LANTZ--aldi onec etzion  
miñic eman izandu JESUS maita-  
garríari, ceren horduraco  
illic arquitzen cen gure JESUS  
maita-garría; baña, erdiratua  
bezala, utzi zuen JESUSen  
Amarena: cen alabaña JESUSi  
eguiñi-caco charquería; ta JE-  
SUSi eguiñ--icaco charque--

riac, berari eguiñac adiña neque, ta pena, gueiago ez-pa-cen ere, ematen cioten JESUSen AMA maitariari.

dan-queria. EZ du, Soldaduc uquituco berriz, ez, ez-eta Borreroc ere, gurutze orretan or ecusten dezun, zure Seme JESUSen gorputza.

II.

NEQUE berri hau ere, neque latza cen, lenen gain, JESUSen Amarentzat; baña etzen izandu, ez, Ostiral Santu arrats-alde hartan azquene-coa.

ORIEquico lan guciac bucatuac daude, gauden, hor-duraco; ta erresetuz, ta, behar bezala, erabillico dute JESUSen gorputza, ori ortic quendu, ta obra, eraman, behar dutenac.

BA-cecufan JESUSen Amac nola cegoen illic JESUS bere gurutzean; baña etze-qui-en, nola andic jaitfico cioten, nol-ere-bait prestatu, ta obiratzeco: ta etzuen obiric ere, norbaitec, urricalduric, ez ematera. SOLDADuac, JESUS bere gurutzetic quentzera, quē-duco zuten, an josi zuren bezain baldanqui, ta beguiratu bague; ta, hau ecustera, cein cen JESUS, ongui cequien JESUS beraren Ama maita-garriac, cer naigabeac, cer oñace berriac artu behar etzituen? GUERTA citequelaco beldur-rac berac ongui naigabeturic iduquico zuen, bai, JESUSen AMA maita-garria.

ORREtaraco baimenaren esque joana da, ta PILATOSi hitz-eguiten dago JOSEPH deritzan, zaldun zucen aberats bat.

ONI bere lan on onetan lagunduco dio, NICODEMUS deritzan, JERUSALEngo guizonic andien-etatic bateg. BATA, ta bestea dira JESUSen escolacoac, eta, beren lotsa, ta beldur guciac alde bat utziric, Jangoico guizon JESUSen gorputzari lan on hau lembait-len eguin naiez daude.

ZAUDE-zaude, JESUS-en Ama; zaude beldurtu gabe: ez da guertatuco, ez, zu beldur zaran; Soldaduen bal-

JESUSen gorputza gurutzetic poliqui quentzeco; ta gorputz berac bere obiraco beharco dituen, oial zuri, mirrha garbi, ta aroma guciac-artutic datoz; ta bien artean eguiñen dute beren eguiteco hau, Jangoico-guizonaren gorputzari dagocan, bezain ongui ez-pa-dere, guizonac daguique-

en

en onguiena. EZ, da bada cer naigabetu, JESUSen Ama maita-garria, ez arren, ez.

AH! baña ez egon garur JESUSen Ama, naigabetu bague egoteco!

DAGOELA JESUS bere gurutzean, edo quen dezatela, bere obira eramateco, gucia da JESUSen Amarentzat naigabe-gaia.

AN ba-dago JESUS, ecuf-ten du an beraren Amac ichura ecin-galduagoan; ta urratzen zaio bere bihotza quezcax, ta urricariz: ta, bere begui-etatic quendu ezquero JESUSen gorputz bera, galdu da JESUSen Amarentzat, ecin maiteago duen, Semearen gorputza; ta guelditzen da gueroz Ama bera bacartafun guztiz arri-garrian!

CER eguin diteque bada, JESUSen Ama maita-garria? JUDUtar gogorrac escarzen diote PILATOSi, quenedilla bere gurutzetic JESUSen gorputz guztiz urratua. ORI bera da, PILATOSec diona; eta ori bera da, Aita eternoac ere nai duena; ta ori nai du Aita eternoac, etorquizun arquizen diran, gauz-etaraco.

ETA cer ote da, JESUSen Ama maita-garria, trantze onetan zuc cerorrec nai dezu-na?

CER naico du, JESUS en Ama maita-garriac, Aiternoac nai duena baicic, an bertan oñacez, ta naigabez itoric gueldituco ba-liz ere!

EZ orrelacoric, ez: Aitac berac lagundeco dio bere Alaua, JESUSen Ama maita-garriari, lenac bezala, emequi eramaten, lan berri onetatic etorrico zaizcan, neque guciac ere.

### III.

JOSEPH onac, eta NICODEMUSEc ( behar bada, edo aguian an ceuden, S. JOAN Evangelariac, Maria MADALENac, eta gañeraco onac laguntzen ciela) quentzen dute JESUSen gorputza bere gurutzetic.

BAÑA nola ote, edo cer moduz, ta cer eran?

ORREtara baño, len lurrean belaunicatzen dirala nosqui; bere oñetan bein, guero bere bular urratuan, ta azquenic bere escuetan apa, ta muñ eguiten diotela; ta dembora berean negar ederrac eguiten dituztela.

JESUSen escu-oñetaco iltzeac iltze-tzar lodi luceac ciran; ta, ondoraño gurutzearen zurean sartuac ceuden, iltzeac; eta orre gatic ciran iltze martil-ucaldica, ta corric-equina atera beharrac. ETA

ETA, alic emequiena beren lan hau eguiña gatic guizon on oriec, oti-andiac eguin behar cituzten, bere iltze-tzarrac JESUfi quentzean; ta ecin quenduco ciozcaten, JESUSEn escu-oñei cerbait eguiten etziela.

ETA bitartean JESUSEn Ama maita-garria?

OñACE berriz, ta quez-caz cena betea: mimbere-mimberea ceducan alabaña JESUSEn Amac bere bihotza; ta ots oriec, eta JESUSEn gorputz iltzari guizon oriec eguiten ciozcaten, ecin bestezco gauzac berritzen ciozcaten Borreroen oti-etatic, eta berariazco min-eguite-etatic artuac ceduzcan, oñaceac, eta nai-gabe gogorrac.

BAÑA gucia darama JESUSEn Ama maitariac bere Seme JESUSEc eramian cituen, neque arrigarrien icenean, ta gure oneraco: bada zorez padigu ere, ongni nai digu becatari tristeoi JESUSEn Ama maita-garriac; eta naiez, gu gal-ez-gaitecen, lenen gain, artzen du JESUSEn Amac neque berri hau ere; ta artzen du, ecin emequiago, ta gure amore anci-requin.

III



§. III.

JESUSEN GORPUTZA GURUTzetic quendu, ta viztu arte-rañoco Amaren neque-penac.

I.

NICODEMUSEc, eta JOSEPH onac bere gurutzetic jaitli zuteneco gure JESUSEn gorputza, an arquiteco cen, horduco belaunicatua JESUS beraren Ama maita-garria.

ARTZEN du lembaitlen bere befoetan bere Seme JESUSEn gorputz illa; ta erraten dio, bihozez beintzat, hordu hartaraco Escriturac dacarrena: MIRRAzco zamacho latza da neretzat nere JESUS maitemaita-garria; al ere artuco dut nic, bai, ta nere nai oloa requin, nere befo-bularren artean.

HAU hari erran bitartean, ta bere befoetan iduqui zuen dembora gucian, beguiratuco cion buutic oñetaraño bere Seme JESUSEn gorputz illari: ta, ecusi zuenean, noraño sartuac ceduzcan bere buruco coroaren arantzac: eta ecusi zuenean JESUS beraren bularrean, ta escu-onetan eguin zutena, alde baretic Soldadutzarraten lantza zortozac, eta bestetic Borrero gogoren iltze-tzarrac; eta, ecusi zuenean guero nola ceducan JESUSEn

K

gor-

gorputzac bere bizcarra, nola bere aurpeguia, nola ille gucia, ta nola gañeracoa, arituric gueldituco cen JESUSen Ama maita-garria; estutuco zuen JESUSen gorputz bera bere gana, al zuen indar gucia-requin; ta, bere aurpeguia JESUSen aurpeguari loturic, egoin cen, orain negarrez urtu beharra, cirudiela, guero arritua bezala, ats, edo asnafe gucia galduric; eta azquenean illaren eran.

ETA ez ote cen illen ere, NICODEMUS onac, eta JOSEPHec (negarrez urtuac nosqui oriec ere), borchaz bezala, Ama penitaren be-artetic ez quentzera bere Seme maita garriaren gorputza; ta lembaitlen unguent-eder, ta aromaz beteric (Erregue-equin, ta guizon andien gorputz-equin eguin oi cen bezala), ta dembora berean ongui bilduric, artaraco JOSEPHec cecarren, oial zurian, ez eramatera bere obra, an estaliric, eta gultzaturic uztera, utzi zuten bezala?

ORIEC beren lan on hau eguin-ondoan, nola guelditu ote cen JESUSen Ama? CEMBAT nai gabe-requin? CEMBAT illuatafun--equin? GEMBAT dama, oñace, ta quezca requin? GUELDIRten cen ala-

baña alargun-duric, eta humeric bague; ta Leoiac ere, iza nic oriec, diran bezain gogorreac, bazterrac orroz urratzen dituzte, beren humeac oriei nor-baitec quentzen diez-tenean!

## II.

ECIN bestez quenduco cen JESUSen obi gañetic, edo obi bazterretic JESUSen Ama penatu maita-garria: ta quenduco cen, leneco arratsean JESUSec afaldu zuen, eche-berean sarturic egoteco, illen artetic viztu, ta aguer cequion artean bere Seme JESUS maita-garria.

CEIN liceac JESUSen Amarentzat hordurañoco, edo andic ari, ta igande goizerañoco hordnac! CEMBAT nai gabez, ta quezca latzez beteac!

MENDitic Echeracoan ecufico zuen Virgen Am-andreac PILATOS-enetic GALVARIO raco videac JESUSen odolez anitz lecutan ongui, edo aguitz buf-tia; bai ta nola JUDAtar gogorrac odol hau, edo cein guizonen odola bai liz bezala, oin-pean cerabilten, ta listuz betetzen zuten ere: ta ecuste onequin berriro adituco ciran Virgen Am-andrearen-nequeac.

VIDE berean, ta videco atarietan adituco ciruen Am-



**Am-andre** penatu berac **JUDA-**tarrac ceraufften, gauzac : urricarizcoac barzuec, eta besteac gogor galduac : eta oriec ere izain ciran Ama beraren nai gabe berrien gaiac : eta, gueienean gogoa, ta bihotza **JESUS-**en obian ceduzcala ; ta non dabilen ez daquienaren eran, sartuco cen **JESUS**en Ama-leneco arratfeco afalteguico echean.

**ECHE**raño lagun eguiñen cioten, **JESUS**en ortiztzean arqutu ciranac ; eta **NICODE-**MUfi, ta **JOSEPH** onari esain cien, hura an utzi, ta andic ataratzean, **DAVID**ec **GALAAD-**coei, **SAUL** ortzitu zutenean, erran cien ; edo ( 2. Reg. 2. 5. ) **JAN**goicoac dizutela, ceren Erreguea-requin, edo **JESUS**en gorputz illa-requin eguin dezutenari dagocan, gucia, ta bere bendicioa : ta ez naz ni, ez aztuic vicico zuen aldi onetaco lan or a 2, egunen batean aguerico den bezala.

III.

**ORIEC** andic joan ondoan, guedituco cen **JESUS**en Ama, bere Seme berri, **SAN JOAN**equin, **MADALENA-**requin, ta berari lagun-eguin cioten, gañeraco-equin.

**SAN** Joan Evangelariac errain ciozcan **JESUS**en Amari, Amac berac ecusi etzituen,

gauzac ; edo **GETSEMAN**ico baratzean, andic **ANAI**en echeraco videan, ta **CAIFAI**en echean **JESUS**ec eguin, ecuti, ta eraman cituenac ; bai, ta bein, ta berriz, ta anitz aldetara **PI-****IATO**fenean eguin ciozcaten, videgabeac ere ; **HERO-****DEI**enecoac, eta beste cequizquienac utzi gabe : ta **JESUS**en Ama maitea, oriec eta berac cequizquienac gogoa cerabiltziela, egonduten gau, ta egun bere guelan sarturic, eta, itlaso guciac gacitahun baño, oñace, illun-tahun, ta nai-gabe gueiaco ceducala bere bihotz guztiz mumbercan.

**SAN** Joan Evangelariac, Santa Maria **MADALE-**nac, eta gañeracoac eguiñen zuten al-zutena, **JESUS**en Amaren penac cerbait arintzea gatic.

**BAÑA** anitz, eta andiac ciran, ta guztiz arnagariac **Vir-**gen Amaren penac, eta guztizcoac ciran Ama-Virginari bere bihotzean, Seme maitearen neque-penac eguin ciozcaten, zauriac, eta llagac ; eta etzen, ez orren aisa arin citequena, oriec cecarten, oñacea.

**OñA**cez beteric, bada, **GALVARIO**co Mendian, oñacez beteric **JERUSALEN**go calcetan, ta oñacez, naigabez,

bez, ta peniaz beteric egondu cen JESUSEn Ama bere becatu-tafunean.

ETA JESUSEu Amaren oñace miñezco bete-tafun gaciac izanda ciran gure becatu ciquin arri-garriac gatic.

AH becatu madaricatuac; eta zori gaistoan aguertunaco becatuac, gure becatu gaistoac! ZUEC izan du zarate, zuec JESUS onaren, ta JESUSEn Ama maita-garriaren Borrero gogorrac, eta nere buruaren galgarriac! EZ al zarazte sartuco berriz nere gogoan, edo nere bihotzean?

EZ arren ez, gure JESUSEn Ama maita-garria, ez. Zuc oraingo egun latzetan ecuf ten dituzin, neque gogor, ta naigabe izu-garriac gatic escatzen dizut onembar ontarte. ZUC niri hau ucatuco ez didazulaco uste osoan guelditzen naz ni gaur. ALA guerta dedilla, JESUSEn Ama maita-garria: bai arren bai!

1.

*H. EC PORTA DOMINI, JUSTI intrabunt in eam. Pl. 117. 20.*

**B**ECATARIEN Ama maita-garria; ta cer ote da, ta cembat, zuc gaur ecusten dezuna JERUSALENGo Galvarioco Mendi orretan?

NEQUEA da, dio; ta neque guztiz andia, nic emen gaur ecusten dudana. NEQUEA da, bai; ta neque guztiz izugurria, neque guztiz icaragarria; ta neque nere bihotz minibere-onen--erdiratzallea; baña e.nengo nere neque gucien artean arritzecoena den, nequea da, emen, illic utzi ondoan, nere Seme JESUti eguin diotena!

CER eguin diote, bada zure Seme JESUti, JESUSEn Ama maita-garria?

LANTZA-tzar batez uratu bere bularra, ta zulatu bihotza.

ZACUR-tzar amurratuac dirudite, lan onetan dabilzan, Soldadu galduac, edo Borreroac; bada berac nai zuten, gucia viciric cegonean, eguin, ta ere, ez dira beren eguiñaz aspertzen; ta illtez josiric illa utzi ondoan eguiten diote nere Seme maiteari lan hau bezain, lan gogor, itfusi, ciquiña!

EGUIA diozu, JESUSEn Ama maitea, bai; baña gure becatuac izandu dira, JESUSEn Borreroen escuac irabilli dituzten languille gaistoac; eta ez dira guelditu oriec, ez, era orretan JESUSEn bihotza utzi artean!

GUC eguin guenituen, gue-

gueren eguiteco gailto, edo becatu oriec anitz aldetara; bada eguin guenituen artuz, erabilliz, uquituz, edo gueren efcuz; eguin guenituen ibilliz, fartuz, jostatze ciquiñez, edo gueren oñequin: eguin guenituen, arin-talunez, ta begui galduz; ta eguin guenituen jan-edan-etaco animalqueriz, araguiaren atleguiñez, edo gueren gorputz gailtoz; eta era orretaco gure becatu oriec gatic da, burutic oñetaraño, ta bere efcuetan JESUsec daraman, aldi oneraco neque gucia.

BAÑA guc eguin izandu ditugu oriec guciac baño, becatu gueiago ere! GUC lecu eguin izandu diegu (ta alcotan al ere) gueren bihotz loietan anitz asmo macurri, anitz gogoeta lizuni, ta naicunde gaistori! ETA gure becatu-era oriec ere efcatzen dute berena!

ORIEC gatic da, bada, JESUSen bihotzac, eta JESUS beraren Amac gaur daramatena. BECATU beren barcamenturaco guerta dedilla, JESUSen gaurco neque gucia; bai ta, JESUS necatuari beguira dago-cala, beraren Ama maita-garriac izandu duen, nai-gabe, oñace, ta neque gucia ere; bai arren, bai.

2.

IN DIE ILLA ERIT FONS PATENS... in allutionem peccatoris.  
Zachar. 13.1.

**C**ER gueiago ecusten dezu zuc gaur becatarien Ama maita-garria, GALVARIOco mendi nequecoan?

ECUSTen dut, dio, nere Seme JESUS gurutze barte-an iltzez jofia. ECUSTen diozcat JESUti iltzez urratu-ac bere bi-efcuac; eta efcusten diozcat oñac ere iltzez lotuac, eta jofiac.

ETA cer eguiten dute zure bihotzean, Ama Virginia, era orretaco efcuste gogor oriec?

URRICariz, ta naigabez beteric urtzen iduqui nere bihotz bera; ta iduqui videnabar ni cer eguin ez dequidala, nere Seme, era onetan dagoenaren, oñace gogor-rac arintzeco.

AH! ni nerau anche nere Seme maitearen gurutze berean josten nindutela badere, quen al-ba-neza nic, dio JESUSen Amac, gurutze hartatic nere Seme maita-garria! edo, an bera-requin josten nindutela, ba-liz ere, arin al ba nitza cerbait JESUSen oñace-neque-arrigarniac; maite dut alabaña nic

ecin

ecin geiago-raño , nere Seme Jangoico-guizon JESUS maita-garria , ta nerëac bai lira baño, gueiago naigabetzen naute ni nere Seme JESUSEn nequeacl

BAÑA ez bata , ta ez bestea erditfi dezaquet ni gaur; ta orain nic daguiquedan , gucia da , itafoaren gaci-tafunac baño , gaci-tafun , min , edo oñace gueiago-requin nere bihotz hau beteric , berari beguira egotea !

DAMU dut , bai , Ama maita-garria , ecusi beharra nic gaur zu , zu gaur arkitzen zaran , eran , ta orrembat naigabe-requin ! ETA, ezaguturic, nere oben-culpac dirala , era orretan JESUS daducatenac; eta zu ere orren naigabetzen zaituzten , neque-gaiac , oben culpa berac nol ere-bait urratu naiez nago , edo garbitu naiez orien loi galdu-etatic nere anima.

ZURE Seme JESUS bere gurutze orretan , ZACHARIAS Profetac egungo eguneraco aguertu ciguna gure gucien iturri ederra da. ITURRI orren ura , da JESUfi or bere escu oñetatic , bere buruco zulo-etatic , eta bere bihotz guttiz maitaritic darion , odol garbia. UR orrequin nic nere anim hau garbitu ezquero , arin-

duco dira cerbait , JESUSEn Ama maita-garria , zure naigabe arri-garriac : era JESUSEn neque andiac. ETA , ala guerta dedin , erditfi behar didazu cere Seme bera gandic, nere garbitze on orretaraco , behar dudan , laguntza , ta gracia. BAI arren, becatarien Ama urricaltia , bai.

3.

*VERE LANGORES NOSTROS IPSE tulit , & dolores nostros ipse portavit : & nos putavimus eum quasi leprosum , & percussum à Deo, & humiliatum. Itai. 53. 4.*

CER ote da , JESUSEn Ama maita-garria, azquenic zue Galvarioco mendilatz orietan ecusi izandu dezuna ; ta andic jaitfi , ta guero cere bacar-tafunean gogoan darabiltzun, gauza ?

NIC, dio , beguiz , ta gogoz gaur ecusten dudana da, gurutze batean ecin gaizquiago Judatar gogorac ezarria nere JESUS maita-garria. OR ecusten dut nic nere Seme Jangoico guizon ori , ichura ecin galduagoan ; ta zauriz , justeltatunez , ta lepraz betea dirudiela ; ta ecusten dut nic ori or, Juez batec , gaistaguin gaistoguciac centzarazte gatic , ecin gueiago-raño galduric daducan, baten eran.

HAU

HAU nic gaur ecusten dudan eran ecusteac ; eta nic hau gogoan gau-egun erabilli dudan eran erabiltzeac ler-eraci lezaque edo cem Amaren bihotza ; ta, viciric ba-nago ni, ez da ez, izan gabez nic, bertan ni illic guelditzeco , behar den , diña naigabe, ta anitz-eta alco gueiago ere. VICIRic nago bada ni , onembat ecuscari gogor ecusi ta ere : ta viciric nago ni , ala naiez nere Seme Jangoicoac , eta beraren Aita eternoac.

EGUIN dedilla , bada , Jangoico berac nai duena ; ta lembaitlen atera dedilla illen artetic , Aita beraren eicoetic egoteco dagoen , nere Seme Jangoico-guizon JESUS maitagarria. ARTEan ecin duque, ez , nere bihotzac , quezca , naigabea , illun-tafuna , ta oñace arri-garria , befteric!

BAÑA Aita eternoa,cer gatic hau onela ? CER gatic dago JESUS, izanic hau , asma ditequen gauzanic ederrena , onen ichura charrean , ta onen ez ecustecoa ?

ETA cer gatic egon behar du naigabez beteric , obenic ez duen , JESUSen Ama maitagarriac ?

EZ daquizu zuc cerorrec , becatari chara , cer gatic

diran , Ama-Semen gatzza arri-garri oriec ? EZ daquizu zuc cerorrec , nola vicitu zaran zu , orain-dañoco cero demboran ? EZ daquizu zuc cer den Aita eternoa-rentzat zure ibillera ciquiña , ta , ta ibiller orri cegocan , feculaco nequea ? Bada ori zuc baldin ba-cenequien certaco da oraingo zure gald-eguitea ?

ARTU cituen , bada , bere gain JESUS maita-garriac , gure becatuei cegozten , eritafunac , naigabeac , eta zor guciac ; eta orien alde da , orain JESUSec daramana.

BIHOTZez , ta amorez bat cen JESUSen Ama bere Seme JESUS maita-garria-requin ; ta Seme berea orretan ecusi ez-quero , ecin cegoquen beraren Ama , ecin guciagoraño naigabetu bague.

ETA orra zu becatari charra ; orra zu azquenean , Ama-Semeen Borrero arri-garria ! ORRA zu , orre gatic , ez daquit , certan guelditu beharra !

ETA ez ote zara gueldituco ere ?

CINTZATzen ez-pazara , co'o ez orgui zu vicitzera , nai-ta-ez !


ETA ez ote zara centzatico zu , qrain ba-dere ? EZ

etc



ote dezu , damuz , ta urriquiz ,  
ta guztiz humilqui escatuz er-  
ditlico , orain-dañoco cere era-  
querien barcamentua , ta on-  
gui , ta zucen gaur-guero vi-

citzezo , gracia? BAI baldin be-  
re ! EGulzu bada cerbait ber-  
tatic orre-taraco ; ta errazu  
hitzez , ta bihotzez : NERE JE-  
SU-CHRISTO, &c.





# BOST-GARREN LIBRUA.

ALDAREAN JESUSEC DIGUN , ONGUI-NAIA,  
ta amorez.

# LXVII-GARREN OTOITZ-GAIA.

EZ GAITU JESUSEC , ILLA GATIC, UTZI : GUREQUIN  
guelditu da viztu ondoan ; ta laguntzen digu anitz  
alderara Elizaco bere Sacramentu-equin.

**H**ITZEZ , lanez , ta bere  
anitz neque-requin eracutit  
cigun guri gure JESUS  
maita-garriac , bera ill arteco  
dembora gucian , Cerura nai  
dutenac , eguin behar dutenas ;  
bai , ta orretaraco eguin videa  
ere.

JESUSEC guri eracutit  
hau atzendu etzequigun , ta  
izan guenezan guc , lan onet-  
tan norc lagundu , adiraci cien  
bere APOSTOLUEI , ta orien  
buruan guri gucioi , etzituela  
utzico lurrecoac , Cerura be-

III

ra joana gatic , lurreco guizon  
guciac bucatu artean : *Ecce ego  
vobiscum sum omnibus diebus usque  
ad consummationem seculi.* Matth.  
28. 20. ; ta , erran bezala ,  
guelditu cen orretaraco , ta  
emen arquirzen da gueroztie  
JESUS maita-garria Aldareco  
bere Sacramentuan.

ANDIAC dira , ta eder-  
rac , bai , Sacramentu onetaco  
JESUSEN eracutiteac , eta la-  
guntzac : baña ez bacarrac : ba-  
dira Elizan onetaraco , JESUS-  
ec utziac , beste sei SACRA-

L men-



mentu ere : ta aldian aldiaco bere SACRAMentuz argui-eguiten die JESUsec , edo laguntzen die , era batean ez izana gatic , beharrean daudenei , edo nai duten , guciei .

NOLA uite dezu?

ECUS dezagun orain hau , irrist-batean ba-dere , obequi guero ecusteco ALDARECO SACRAMentuarena ; ta videnabar orain ecusteco , cein andia den , edocein SACRAMentutan guc JESUfi zor diogun , arguia , ta laguntza ; ta cein bazter baguecoa ALDARECOAN JESUsec guri aguertzen digun , ongui naia , ta amorea .

### §. I.

LEMBICICO BERE IRUR SACRAMentuetan gure Jaunari zor diozcagu anitz laguntza .

#### I.

SACRAMentu gucien asiera , edo lembicico SACRAMentua da BATAIOA .

BATAIOCO SACRAMentuu hau utzi cigun guri gure JESUsec , ADANen jate guistotic datorquigun , zauria fendatzeco , edo becatu etorquieren , edo originalaren atzapar-etatic guc gueren Animac ateratzeco ; bai ta LIMBORA behar-etic ere .

UZTEN du bada BATAIOac ala aterea , becatu etorquia-requin arquitzen den , Anima ; ta uzten du videnabar bere Jangoicoaren gracia-requin guztiz edertua , virtutez aguitz apaindua , ta Jangoico beraren hume maite eguina .

HAU onela , aura aurric bataiatzen denean . BANA anditua ba-da , bataiatzen dena , ta , berac eguini-caco becatuac ere dituen , guizaquia , edo emacumea , becatu oriec ere barcatzen zaizca bere bataioan , bere becatu originala-requin batean ; bai , ta oriei cegoten , fulecera beharra ere ; ta ala aur hura , nola andu hau guelditzen dira ( ez galtzera , oriec , horduan arturicaco , Ceruco gracia ) Ceruraco derechan , edo escua-requin .

HAU gucia gurequin gure Jaunac eguiteco , escatzen duena da , bataiatzen dena gain-bera urez buztitzea ; dembora berean erraten duela , ori eguiten duenac ; *Nic bataiatzen zaitut Aitaren , ta Semearen , ta Espiritu Santuaren icenean* : Ori da alabaña , JESUsec guri gure oneraco utzi izandu cigun , BATAIOA ; ta estutafunecan , edo premian , edoceñec eguin dezaquen , gauza ; ta daquienac

nac, eguin behar duena, BATAIO baguez gal-ez dedin Anima.

GUELDitzen zaicu guri, ongui daquienac lan hau gurequin eguiña gatic, edo gu bataiatuac guelditu ondoan, gaitzeraco gueren macur-tafuna, ta grina, edo guelditzen dira aguitz afaldatuac gure barrene-co pafsionac.

BAÑA gure pafsioenen borhazco afaldacioac, eta, nai ez guenituquen, gaitzeraco gure macurerac, eta grina guciac ez dira becatuac; eta, oniecu gaitzera eraman nai gaituztetenan, eman dizquigu guri gure Jaingoicoac, gaitzaren eza-gu-era, Ceruco bere gracia, ta Ceru bera gaitzeco beldurra, oneraco naicundea, ta bere laguntza; ta gure Jaunaren laguntza onequin batean, ta bataioac ecarri, edo eman izandu cigun, virtutea-requin, ef-cura ditzaquegu guc, guero nai dugula, gueren pafsioe: afaldatuac; quen gaitzeque gu gaitz vide macur-limuri guci-etatic; eta guc ori aldi ori-etan eguiten ba-dugu, gaitso bat eguin lecuan, eguiten ditugu Ceruraco irabaci ondafundunac, edo andiac.

ETA orra JESU Sen Iembicico Sacramentutic, edo BA-

TAIOtic guri datorquiguna; ta, ceren Sacramentu hau JESU-ec urzi cigun, JESUS maira-garriari guc zor diogun, amorea.

II.

**B**Igarren SACRAMentua da CONFIRMACIOA. SACRAMentu hau gure Jaunaren gracia, ta Ceruco virtutean Anima gogortzeco den, SACRAMentua da.

BEREZ Obispo Jaunarena, edo Obispo Juanac ematen duen, sacramentua da CONFIRMACIONEA.

SACRAMentu hau artzen duenac, (ongui artzera) artzen du, lenaren gain, gracia berria, ta virtutea; ta guelditzen da, bere etfaiac garaitzeco, ta bere JAUNAREN LEGUEco gauz onac eguiteco, len-baño indar, ta bihorz gucia-go-requin; ta, behar den, horduraco irabaciac daduzcala, Jaun beraren gogarguiac, eta laguntzac.

ERA onetan guelditzen den, confirmatua gueldizen da, APOSTOLuaren eran, erran dezauen bezala: Norc eragoztzico dit niri, nere Jaunac eguin didanaren alde, nic nere Jaun bera cinez maitatzea? NA Igabez ni betetzen naven, batec, edo bestec? NOLA ni galduco naven, asmatzen da-

I.2. bi-

billen galgarriren batec? NE-RE etlai gailta-guin-aren tentuac, edo nere erioac? ( Ad Rom. 8. 35. ) ESQUER-gabe-egui nintzaque ni, ori nic eguitera, ta guztiz beldurtia!

BELDUR hau guc aisa garaitzeco, ta videnabar garaitzeco guc lotfac, eta alqueac, cembait gauz humill eguin behar diranean, naguiren batzuec, eta gaitoac beguira dagozquigula, olioaco, ta balsamozco crisma--requin eguiten digu Apezpicuac, edo Obispo Jaunac gurutze bat gueren copetan, edo becoquian: ta, harc hau guri eguiteman, ematen digu gure Jangoicoac, EZECHIEL Profetaz adiraci zuen, ez-alquea, erran zuenean: ETZAITecela lotfatu bat ere, nere LECUEco ( edo Evangelio ) gauzac eguiteman; nic emain dizut orre-taraco, zurequin dabilztan, becatarien copeta baño, copet gogorago bat; bai ta, diamantea, ta suarria bezain aurpegui indartsu bat ere. c. 3. 8.

BA-daquizu zuc cer gauzac diran, CONFIRMACIOco indar berria-requin guc eguin behar ditugun, gauzac?

BEinic-bein, gure Jangoicocoac manatzen, dizquitun, guziz andi guciac, bat

bacarric ere utzi gabe; bada, guci-eratic bat, edo edoecin guc berariaz utzi ezquero galitzen dugu, guc genuen, gracia, ta Ceruco videa.

CONFIRMATuric arqui-tzen denac eguin behar duen, bigarren gauza da, becatu chiquiac ere bere al-eguin gucian alde bat uztea; bada, oriec harc era orretan ez uztera, egun oro galduco ditu bere gauz onetáraco guztiz onac diran, gogargui anitz, eta Jangoicoaren laguntza; eta azquenean autsico du bere Jaunaren Leguea.

ESPIRITU Santu berac adiracia da, guc orain ecusten dugun, eguiteman hau.

CONFIRMATuaren irurgarren eguiteman, edo gauza da, JESUS maita-garriac guri eracutsi dizquigun, gauzac, manuzcoac, edo manatuac ez izana gatic, zucen eguitema.

BECATU andi-chiquiac utzi, ta ori eguiten dutenac, beren egoac osoac daduzcaten, edo nai duten, eran egoan dabilztan<sup>1</sup>, egaztiac bezala diras; bada dabilztza, beren Jangoicoa, gogoz, bihotzez, ta al duten, indar gucia-requin maitatzen dutela.

ETA ecusi zazu, anitz den, edo ez guc gure JESUS maita-

**maita-garriari zor diogun, amorea**, lenen gain CONFIRMACION eguiten dizquigun, bere ontart andiac gatic, emen ematen dizquigunean, orrembat gauz on eguiteco, ta, eguiten ditugula, Cerua irabazteco, behar ditugun, laguntzac, eta indarrac!

III.

**JESUSec guri utziricaco irur-garren Sacramentua da CONFESIONEA. SAGRAMentu hau bataiatu ondoco becatuen barcamen-turaco, JESUSec utziricaco, SACRAMentua da.**

**BATAIOAN, ta CONFIRMACION** ematen zaicun, gracia guc ez galtzera, ez lizaque confesio beharric, dio Trentoco Concilioac: baña ceren ongui cequien **JESUS** onac gure char-queria, gure ecer-eza, ta gaitzeraco gure macur-tafuna; ta ceren cequien, bataiatu-ricaco gueienac, aurtan ez iltzera, galduco zutela hor-duco beren gracia, ta eguinen cituztela gaizquiac gaizquien gain, edo becatu aguitz itul-lic, orien eguille gaisoen on-eraco; ta orieci beren beca-tuen azpitic atera citzaten beren buruac, eman izandu cigun irur-garren CONFESIONeco Sacramentu hau.

**BECATu** petic bere bu-

rua confesioenez ateratze hau, becatariari cerbait lan dacarron, eguitecoa da: baña lan errazarin-laburra da, lan onec dacarren, ondafunaren aldean.

**BECATARIEN** eguitecoa, edo becatariac one-taraco eguin behar dutema da, damuz beneric, confeslariari beren becatu guciac aguertzea; edo ongui ecusi ondoan, cembat diran, ta nolacoac, eguin dituzten, becatuac; ongui ecusi ondoan beren becatuac gatic galdu duten, gracia, ta graci-onec ematen cien Ceruraco escua; ta ecusi ondoan, aferretu dutela, ta bat ere videric gabe, alde guci-etara maitatu behar zuten, beren Jangoicoa; ta aferretu dutela, bertatic, edo Jangoico berac nai duenean, fulecera aferretzalle berac botatzeco escua ematen diotela; ta dembora berean arturic, becatu, larriric beintzat, berriz ez eguiteco asmoa, ta eguin cituzten, guciac zucen, ta daquiz-quitzen, erian Confeslariari erratea; escatzen diotela beren Jangoicoari guci-en barcamentua, Confeslariari, dagozten, penitencia, ta absolucio-nea. **ORRA** becatariaren confesio-neco neque, ta eguiteco gucia.

**ETA** eguiteco onca

on-

ondoco absolucioneac . dacaren , ondafuna?

GUZtiz andia ; bere becatuac gatic becatariac galduricaco gracia , ta virtute gucia ; graci-virtute ber-equin eguñicaco irabacia ; ta videnabar becatariaren oraingo nequeari , edo confessatzeari dagocan , graci-virtute zatia . Ori gucia da confesione zuten-etic becatariac atératzen duen , ondafuna .

BAI;ongui confessátzen denari itzultzen diozca gure Jangoico maita-garriac bere gaizqui-equin , edo becatu lizun-equin galduricaco ondafunguaci , eta , bere confesaldian eguiten duena-gatic , ematen dio cerbait gueiago .

ORRE gatic arkitzen da , confessátu ondoan becataria , becatura cenean baño , graci gueiago-requin , ta virtuteen indar berriac arturic ; eta arkitzen da , leneco bere irabaci guciequin , ta oraingo bere confesionean eguiten dituen , irabaci berri-equin .

ETA confesione batetic bestera becatu berriric ez eguñia gatic , berriz , ta berriz lenac confessátzen ba-ditu becatariac , hau eguiten duen , aldi oro eguiten ditu Ceruraco irabaci berriac ; eta gueldituco

da , dembora berean bera , bere etfaiac garaitzeco , len baño , indar aguitz andiago-equin ; ta bere etfai galgarri beren tentaldi-etaraco irabaciac daduzcala bere Jaunaren gogarguiac , bihotz-uquierac , eta laguntzac .

ONDAfunen andiac , SACRAMentu onetan JESUsec ematen dizquigun , ondafunac ! ETA cein merque ematen dizquigun guri onec gure Jangoico maita-garriac ! GÜEren gaiz-quiaren damizco aitortze bate gatic ! GURE JESUSen onguille maita-garriac !

#### §. II.

GAÑERACO SACRAMENTUetan gure Jaunari guc zor diongun , ondafuna .

#### I.

**O**Rain dañocoan baño obsequi ezagutuco dezu zucein onguillea den gure Jangoico maita-garria , ecusten dezunean gurequin bere laugarren Sacramentuan Jangoico berac eguiten duena .

LAUR-garren SACRAMentu hau ( ta irur-garrena , bataiatu ezquero becatu larriric eguiten ez dutenen-daco ) Aldareco Sacramentua da .

ALDARECO SACRAMentu hau , JESUSen bazter bagueteco amoreac baicic , ecin

eta-

## lagoren, Otoiz-gaia.

eraguin cezaquen , SACRAMentua da ; ta SACRAMentu , gure Jangoicoac eguiñicaco gauzaric ecuf-carienen ecuscari-tafuna bere gan bilduric daducana : bada berequin, edo bere baitan gorderic daduca SACRAMentu andi onec (eta , norc daqui , nola ? GUE-ro guc al-eguiñean hau adiracico dugu , gure atseguin oneraco , ta esquer on-etara guc gueren buruac behartzeco ) ogui-ardoen azal-pe labur batean, edo oguiaren , ta ardoaren aintzuran , edo iduripean, ta ogui-ardoen soñecoz, ta accidentez estaliric , gure Jangoico-guizon JESUS maita-garri gucia bere gauza guci-equin.

BAÑA certaco ote?

GUC nai dugun , aldi gucietan gure bihotz-erño fartzeco : arño farturic bere graciaren indar berriac , eta fustentoa guri emateco ; gure animaren virtuteco epel-tafunac quendu , ta anima bera devociozco fuz beroturic iuz-teco ; ibilli dedin guerozco bere demboretan virtutez virtute , ta berari dagozcan , eguiteco , ta lan guciac guztiz garbiro , ta zucen eguiten dituela, edo bere Jaun andia ciñez maitatzen duela , al duen , onguia lagun guciei eguiten diela , ta

videnabar Ceruraco irabaci andiac eguiten dituela.

ONEMbat ondasun , ta gueiago guri eman naiez dago gure JESUS ALDareco bere Sacramentuan gau , ta egun milla , zazpi eun , ta ambat urte dela ; ta SACRAMentu onetan dago , or ez-pa-lego bezala ; ta guifa berean egon beharra da , mundua bucatzen den artean.

CER gatic dela deritzazu zuc , orrembat JESUSen ondasun , ta beraren orrembat orco egote?

GURI guei-egui naiez, edo ceren ecia gueiagoraño maite gaituen gu.

ECUSTen dezu cein onguillea den gure JESUS , ta cein maita-garria?

BAI ? BADA obequi, edo ciñez-ago errain didazu zuc hau , ecusteco zauden, cembait gauza ecusi ondoan.

## II.

BOSTgarren , JESUSec guri utziricaco , Sacramentua da AZQUEN OLIADURA. SACRAMentu hau da , bere vicitzaren azquen aldean , ta eriotzeco horduan bataiatuari laguntzeco.

CEMBait aldiz laguntzen dio azquen oliadur onec erriari bere eritasunac garaitzen,

ta ematen dio leneco bere ofafuna.

ETA, naiz ofafun hau eman, ta naiz ez, becatuan baldin ba-dago, Azquen-oliadur hau artzen duen, eri gaisfoa, ta dembora berean arqiztzen bada ongui damuturic bere becatuez, baña mututua, edo ecin confesa ditequen eran, barcatzen zaizca oliadur hau artzean bere becatu guciac, itzultzen diozca bere Jangoicoac, galduac ceduzcan, ona, ta gracia, ta ematen dio gracia zati berri bat ere.

BARCATuac ba-daude horduraco, eriac len eguin izandu cituen, becatuac, ematen diozca Jangoico berac, len zuenaren gain, gracia zati andiac; barcatzen diozca, dituen becatu chiquiac, oriez damutzē ba-zaioc eri oliatuari; bai-ta, barcatuac dauden becatu andien zortac ere; edo guciac, edo guciatic zati andiac,

ERI gaisfoari bere zor guciac barcatu naiez; ta orre-taraco bere becatu guciac damu andi bat artu-razteco, eraguiten du JESUS maita-garriac Azquen oliadura eri beraren beguetan, beharrietan, sudurrean, ahoan, escuetan, ta oñetan, edo becatu vide gucietan.

DEMBora berean ematen

dio JESUSec eriarri bere oliadura-requin anitz indar, ta laguntza, eritasunac ecarri oi dituen, naigabeac emequi eramateco, ta etsaiaren tentu gaitoac garaitzeco.

ONA non gure JESUS maita-garriac ematen dion ba-coitzari, orain-dañoocoan guceculi ditugun, bere bost SACRAMentuetan Ceruco videan fartzeco, vide berean zucen ibiltzeco, videco bere etsaiac garaitzeco, ta vide hau ongui bucatzeco, behar duena!

ONEMbat, edo erdia ba-dere, eguiten ba-lute lurreco ERREGueac beren Soldadu-equin, Erregueac oriec beren guerra-bidalitzen dituztenean, Soldadu guti liraque, etsaiac garaitu gabe, ERREGueren begui-etara itzulico liranac; eta ala oriec beren ERREGue-etara itzultzera, castigu onac artu beharrac liraque.

ETA cer artuco ote dute, JESUSen aitzine-ratzen diranean, beren etsaiac, eta passione galgarriac garaitzen ez dituzten, Christio gaitoac, edo, lurreco Erregueen Soldaduac baño, laguntz aguitz obeac dituzten, animac?

CER baicic beti-betico fulecea.

CASTIguaren arrigarria!  
BAI,

BAI, baña era orretaco animac ongui irabacia.

III.

VIDEZ dabillenac behar du noizean-bein bere hostatua , ta hostatuan norc eman bere jan edana ; ta onetaraco utzi cigun JESU Sec feigarren Sacramentua.

SACRAMentu hau Ordena da. ORDENac edo SACRAMentu onec ematen diozca bataiatuari bere Apezac.

APEzac dira Ceruco videco, ta gure Jainaren HOS-TALari andiac. VIDE bereco hostatuac dira ELIZAC.

HOSTaturatzen denean bat, baldin ciquinduric, edo loituric aratzen ba-da, lenic ongui garbitzen da, maiean jartzeco : ta ELIZaco maiera nai duenac, becatu larriz loituric, edo chiquien arrautlez beteric arquitzen den, aldi-etaraco ba-du Eliza berean, becatu larrien loa, ta chiquien arrautsa quentzeco, confesioco iturric, ta graciaren ur garbia; ta ur hau harc escatu ezquero, ongui, ta behar den, eran harc hau escatzen duela, emain dio ango Hosta-lariac, edo Apezac bere absolucionean. UR hau Apaizac confessatzen denari eman ondoan, ederqui prestaturic emain dio jan-edan

III

ecin ooe bat ; bada emain dio JESU Sen gorputza, ta odol gucia, bieci dichezcon, gauzequin ; ta, oriec Elizaco maiean harc artzea-requin, artuco ditu graciaren indar andiac, Ceruco videan virtutez virtute arin ibiltzeco.

Bere Hostatu, edo Eliza berec, ara dena, atera baño len, eracutlico diozca Apaiz berac guerozco videac, edo bere videan zucen ibiltzeco, jaquin behar dituen, gauzac; bai, ta vide bereco bere etsaiac garaitzeco, ta eriotz on baten besoetan guelditzeco, jaquin behar dituenac ere. ETA, baldin berac nai ba-du, lagunduco dio bere vide gucian ere; ta, eritzen denean, lagunduco dio Elizaco gauzequin, ta eun hitz on, ta Ceruco gauza-requin.

ORRA non ORDENac guri ematen dizquigun, guc ongui vicitzeco, ta obequi gueren egunac bucatzeco, behar ditugun, ta gueren vicitzan, ta eriotzan efcia ematen diguten, Maltuac, Animaco GURAsorc, SENDATzalleac, JUEzac, eta lagun onac.

ECUSTen dezu cein ederqui beguiratzen digun guri gure JESUS maita-garriac?

ECUSTen dezu cein ederqui artuac daduzcan JESUS

M

be-



berac bere videac, eta neurriac, eman daquigua guri, guc, bataiatzen gaituzten, egun-etic aſi, ta azquen aſnaſe-rañooco gucian beharco dugun, guci-gucia, vicitz on bat guc emen eguin ta eriotz behar bezalaco baten eſcuz igangaitecen guero atſeguin—contentuzco Cerura?

ECIN gueiagoraño ez mitatzera gu gure JESUS mita-garriac, eguin cezaquen gure oneraco onembat gauza, ta laurdenic ere?

ZAUDE, bada, jaquina-ren gañean eſquer-gabe charra, cere Jangoicoa gatic zuec eguin behar dezuna orde z eguiteco.

#### IV.

ONEMbat izanic ere orain guc ecuſten dugun, hau, ez da, ez hau, JESUsec eguiñicaco gucia.

HAU gucia JESUsec eguin zuenean, vici ciranac, ill ciran, bai, anitz luzatu gabe: ta valia citecen onembat ondafunez, horduan vici ciran-etatic nai zutenac, eta guero beſte anitz, utzi zuen JESUsec beſte Sacramentu bat ere.

SACRAMentu hau EZCONTZA da, edo MATRIMonioa: ta da, humez bein

mundua, ta guero Cerura onez, ta Santuz beteric uzteco, JESUsec utziticaco, SACRAMentua. Beren SACRAMentu onetan ba-dute Ezconduac, behar bezala, ongui, ta Ceruraco beren humeac acitzeco behar duten, indarra, laguntza, ta garcia.

Jangoicoareu laguntza, ta gracia-requin batean, ta berac al eguina eguitea dutela, aiſa eramaten dituzte Ezconduac elcarren utſac; laguntzen diote elcarri beren lanetan: bihlutzen dute, beren humeac acitzeco, behar dutena; eracuf ten die hume berei hitzez, ta beren vicitza ona—requinorien humeac jaquin behar dutena; ta ori baño, gueiago jaquin nai ba dute, ematen diezte eracufle onac, edo, behar dituzten, eraco MAIſuac; eta iuzten dituzte Ceruraco videan ongui ſartuac, eta Gurafo-taraco, Apez-taraco, edo Jangoicoac nai duen, edoecin gauz-etaraco ederqui preſtatuac, edo gai-on eguiñac.

ETA, gu guci-etatic batiere, jaquin behar dena, jaquin baguez, gaiſta etzedin, utzi cigun JESUsec bere EVANGELioa; ta EVANGELioan gure LEGUE labur-zucen garbia.

GURE Legue hau gu-

ni adirazteco , utzi cizquigun JESUS maita-garriac ELIZ-Na-gufi zucenac , PREDicari onac, eta Confessariac ; eta oriec, eta era bereco beste guizon jaquin-fluac aguertzen dizquigute hitzez batzuetan , ta ascotan libruz guri gueren LEGUE gar-bian dagozquigun , gauzac.

ORRA nola , ta cem-bat aldetara , bera viztu ondoan laguntzen dien JESUS maita-garriac , mundu onetan vici diranei.

ORRA cein maita-garria gure JESUS , leneco-bere ne-que arri-garri , ta gauz onac gatic ez-ecic , gueroztic eguiten duena gatic ere!

ZORI oneco , hume-ac, JESUSen onembat eracuf-tez , ta ontasunez valiatzen di-ranaç ; bada oriec izan behar dute , izain dutenac emen , vicitz on batec dacarren , atie-guin , ta contentu garbia , ta guero eternidade bateco beren gloria !

VALIATU ote naz ni orain dañocoan JESUSen eracuf-te, ta ontasun oriez? ORAIN bertan ni iltzera , Ceruraco nintzaque ni? ETA Ceruraco ote nintzaque anitz irabaci-requin?

ECUS dezàdan nic gaur hau hastiro ; orain dañoco nere utfac aldebat nic emen

bertatic utziric , asi nadin egui-ten , eguiten dudanean , ta gue-ro eternidade gucian atleguin contentuz beteric iduqui behar navena.

I.

NEMO MUNDUS A SORDE , NEC *infans , cuius est unus dei vita super terram. Job. 14. iuxta 70.*

**E**Z da munduan arquitzen bat , ez ; ez eta orquu-co ere , naiz dela egun bateco aurra , becatu gal-garriaren loi-tasun liquits baguecoric.

AMAREN baitan vici-tzen asi-horduco , berequin du edocein aurrec ADANen beca-tuaren loiqueria , edo bere be-catu originala.

HORDUTic guñan gu gucioc gauz-itsuliac , graciaren loñecoric bague arquitzen gu-ñanac , eta gure Jangoicoaren etia galduac.

JAIO , ta anditua gatic gu , ez guenuen guerez guc efcuric bat-ere , gueren buruac garbitzeco. CIQUIN ill behar-rac guñan gu , ta betico gal-duac , garbi quintzaquena , gu-taz urricalduric , noizbait ez aguertzena.

AGUERtu cen azque-nean urricarizco gure garbiza-llé hau ?

BAI bada ; ta artaraco

M<sub>2</sub> guz-

gutziz egoquia.

NOR ote?

AITA eternoaren Same  
me bakar gutziz maita-garría.

NOLA?

GUIZon eguiñic, edo  
gurearen aintzuraco larru-ara-  
guiz jauntzia.

NON jauntzi izandü  
zuen bere soñeco, orren hu-  
mill ori?

BECAturen pitfic ere  
izandu etzuen, Virgen Ama  
baitan.

ONGUI : baña cer  
eguin zuen Jangoico-guizon  
onec, gu garbituic, eta be-  
catu gabe uzteco?

GURE becatuen alde  
Aitac elcatu ciona; edo fartu  
bein bere burua, ecusi den ba-  
taioric arri-garrienean, edo  
nequez, odolez, icerdiz, urra-  
tzez, iltzez, ta arantzez be-  
tericaco Pafsionean, ta guru-  
tzebateco eriotz izu-garrians ta,  
hau eguin ondoan, eman gu-  
ri bataio erraz bat, edo gra-  
ciaz beteric dagoen, lembici-  
co bere SACRAMentua.

HAU guc artu-hordu-  
co, utzi guenuen gure beca-  
tu etorquiaren itzul-tafuna, ta  
guelditu guiñan gu, Ceruco  
graciaren soñecoa-requin, ta  
virtutez gutziz apainduaç. ETA  
cein aila!

AMBAT eguin centien zuc  
orre-araco JESUS maita-garría!  
ESQUERRAC zuri orrembat  
zure ontarte gatic; eta secula-  
co esquerrac: bada ala ere zu-  
ri guc emain ez deroz-quitzu-  
gu, zure ontarte oni zor zaiz-  
canen laurdenen laurdenac ere!  
AH eman ba-gueniz-quitzu guc  
eman-alac bad-ere!

2.

STATUE TIBI SPECULAM: PO-  
ne tibi amaritudines: dirige cor  
tuum in viam bonam, in qua am-  
bulasti. Jerem. 31. 21.

CER guertatzen ote zaie,  
bataioan garbitu, ta on-  
dalunez beteac guelditzen di-  
ran, Animei, orien gorputzac  
anditzen diranean, ta adiñetan  
fartu, ta lafter, edo anitz-anitz  
luzatu gabe?

GUEienei beintzat, hor-  
duan arturicaco, gracia galdu,  
ta becatu liquitfen loiez ciquin-  
duac guelditzea.

ETZEquien gure JE-  
SUS maita-gartiac guertatzeco  
cegoela hau gucia?

BAI bada; ta orre ga-  
tic utzi cigun CONFESfio  
SACRAMentua: URRiquitu-  
ric len eguiñaz, ta gueren  
gaizquiaz damuturic arquitzen  
guiñanean gu, berriro gueren  
ani-

## *dagozten Oroitz-gaiac!*

TOI

animac garbitzen guri laguntze-  
co; erraten zuela JEREMIAfez:  
Bai; ba-nequien nic, bataiatu-  
ricaco hura, araguz jauntzi-  
ric cegoela, ta gaitzera guztiz  
macurtua; ta ecusi nuenean  
haren becaturatzea, ta orre ga-  
tic galtzea, urricaldunintzaion  
ni, nere Seme indar gutiz-  
coari bezala; ta, eman izandu  
nion, bere burua bigarren al-  
dian garbitzeco, CONFES-  
sio SACRAMentuco graciaren  
ur ederra; hau hari nic emat-  
tean, erraten niola: AH cen-  
tzu gabea! ambat nequezco ne-  
re PASSIOA-requin prestatu ni-  
zun nic zuri BATAio eder-eco ne-  
re SACRAMentua: ango ura-re-  
quin, ta nere gracia-requin, que-  
du nizun nic becatu etorquiarē,  
edo originalaren loi gucia; ta  
ona non berriz ere ecusten zai-  
tudan nic zu loiez, ta beca-  
tuz ciquindua, ta fulecera be-  
harra!

EA: idiqui zatzu zuc,  
orain ba-dere, cere beguiac,  
dio JESUS maita-garriac; be-  
guira zazu cere ispillura, edo  
cere barrenera: ta ecusi zazu,  
nola zauden zu, ta cein ederra!

SASICO basurdeac, eta  
mendico artz-otfoac ez dira  
gaur arquitzan, zu bezain izu-  
garriac, ez.

ECUSTen ba-cenu zuc,

nola daducazun gaur cere Ani-  
ma, bertan ill-otza guelditu  
co cinaque zu.

CERE lan gaitso itufia-  
requin aserre daducazu zuc  
cere Jangoico maita-garria; ta  
cere lan gaitsoaz ongui damu-  
turic, ez escatzera zuc cere  
Jangoico berari orren barca-  
mentua, ta bere gracia; ta  
hari zuc ori ez escatzera, ber-  
riz alacoric ez eguiteco hitz  
otloa-requin, galdua zara zu  
beti betiraco; eta eternidade  
gucian erretzen, ta lertzen  
egon beharra zara zu.

ADITU dezu?

BAI nere JESUS mai-  
tea, bai! ta ni bezain gauza  
char bate gatic, zuc eguitea  
dezunaz guztiz arrituric, adira-  
ci didazun, guci gucia eguin  
naiez nago!

ORAINgo nere nai hau  
ere zuc cerorrec emanicacoa  
da, nere Jangoico maita-gar-  
ria!

HAU bezala, indazu  
zuc onec escatzen duen, gu-  
cia zuc en eguiteco, gracia  
Bai arren, bai

3.

HAURIETIS AQUAS IN GAUDIO  
de fontibus Salvatoris. Isai. 12.3

UR garbi-eder-onac dira,  
BATAioan, ta confes-  
sio-

fioneco iturrian arquitzen diran, graziaren urac.

GUISA bereco urac, eta edariac dira, gañeraco SACramentu-etacoac ere: ta guciac urzi dizquigu guri gure JESUS maita-garriac, gueren egarri guciac iltzeco.

ETA, ORRA, erraten digu ISAIAs Profetac, orra, ceren SALVATzalleac zuei utziricaco, iturri ederrac. EDAN zazue, aldian aldicoti; eta edan dezaquezue aldian, edan al gucia, gaitzic eguiñen dizuelaco, bat ere beldurric gabe.

CEMbat ere gueiago edaten duten Anima garbiac iturri orietan, ambat atfedete, ta atseguin andiago-equin arquitzen dira berac; eta dembora berean arquitzen dira berriz, ta berriz edatera itzuli naciac.

EDATE oro arquitzen dira indar gueiago-requin, Ceruco beren videan viciro ibiltzeco, ta beren Jangoicoaren LEGUEco gauzen uztarria arin eramateco.

ZORI onecoac, ala dabilzan, animac, eta era orretaco ibil-erac elcatzen dituzten, edate on guciac eguiten dituztenac; bada oriet beren videan bucatu ondoan, sartuco dira JESUSen Jaureguian, Ce-

ruco Palacioan, ta eternidade gucico atseguin contentuan.

ORietatic izandu ote zara zu cere orain-dañoco demboran? MAIZ urbiltzen ote ciñan zu JESUSen Iturri eder on orietara? MAIZ confesla-comecatzen ote ciñan zu? ANITZ edaten ote cenuen zuc, aratzen ciñan aldi-oro?

ANDic ateratzean, guelditzen ote ciñan zu, berriz, ta berriz ere ara nai andia-requin? ORI da JESUSen Iturri garbi eder-etatic atseguin andia-requin, ta anitz edatea; ta ori gure JESUS maita-garriac gu gaudiac nai luquena-

AH! baña ez ori bera nic nai izandu gueieneran beintzat! ASCOTan ni berandutic berandura baicic, ez iturri-ratzen! EDO bacan ni confeslatzen; ta horduan ere otztafun andia-requin, ta egarri-ric, edo nai andiric bague comunioratzen ni; ta ez edaten nic, edo nic andic ez ateratzen, atera nezaquen, ura, ta gracia; ta, orre gatic, virtutez virtute nic ibilli beharrean, becatuz becatu, ta otztafunez orz-tafun ibilli izandu!


DAMUturic nago ni, bai (ta ongui ala ere), nere JESUS maita-garria, ta dembora berean barcamentu esque,  
orain

orain dañoco nere eraqueriaz.

tzula lenagoco nere becatu gu-  
cien loiac.

HAU zuc niri barcatu  
ondoan , indazu arren egarri  
andia-requin gaur-guero iturri  
ori-etara ni urbiltzeco gracia,  
lenic zuc quentzen dizquida-

ORI escatzen dizut ga-  
ur nic , hitzez , ta bihotzez  
orain erraten dudala : NERE  
JESU-CHRISTO , &c.



# LXIX-GARREN OTOITZ-GAIA.

CEMBAT DEN , JESUSEC ALDARECO SACRAMENTUAN  
ematen diguna ? NOLA ematen digun ; ta cembat-etan ?

## §. I.

ANITZ DA JESUSEC ALDARECO SACRAMEN-  
tuan ematen diguna.

### I.

CER ematen ote digu gu-  
ri gure JESUS maita-gar-  
riac ALDARECO bere SACra-  
mentuan ?

EZ da erraz nic zuri  
hau hitzez adiraztea : ez eta ,  
bestec zuri hau , behar den,  
eran aguertua gatic , ongui be-  
intzat , zuc ezagutzea ere.

EZAGU dezazun zuc  
hau , al dezun eran ; ta , da-  
guizun guero zuc , gauz onen  
ezagu-erac zuri eraguin behar  
dizuna , adi zazu , hitz bitan

nic orain erantzun dezaque-  
dana.

EMAten dizu zuri gu-  
re JESUSEC ALDARECO bere Sa-  
cramentuan , ta comunioneCO  
bocaduan , gure Jangoico mai-  
ta-garriac eman dezaquen , gu-  
ci-gucia. ADITzen dezu?

HITzaren otfa bai ; ba-  
ña ez nosqui anitz-anitz gue-  
iago.

GURI hau nol-ere-bait  
adiraci naiez , ematen digu Jan-  
goico berac LEGUE zarreCO

BA

BARAZcal-era andi baten cerbait berri. BERRI hau icasi ezquetor, icafico, adituco, edo ezagutuco dezu zuc nol-erebait, niri orain aditu didazun erantzutea.

ASUERO ceritzan, PER, SIACO, ERREgue prestu-andi-aberats batec bereci cien BARAZcaltze bateraco etor-eguna bere IMPERIOco ZALdun, ta PRINcipe guciei, bere eun ta ogeuei ta zazpi PROvincie-taco NAGUfiei, edo GOBERnariet, ta , Soldaduen artean arkitzen ciran, CARGUDun, ta iadartfu guciei.

ORIEquin batean deirtu cituen bere CORteco ANDI, ta CHIQUI guciac; eta guci-guciei eguin cien, zazpi egunez iraundu zuen BARAZcari andi, cegocan, bezalaco, ta, hordurañoco demboran, ta gueroztic-ere pareric gabeco bat.

BARAZcariaren eracoac izandu ciran, BARAZcal-toquia, ta BARAZcari-raco ma-iac.

BARAZcaltzean, nor bere toquian arkitzen cen maians; ta an arkitzen cen ERREgue bera ere bere PRINcipe-en artean; ta arkitzea cen, norc nai ecusi cezaquen, eran.

ORRA, mundu gucia

arritu zuen, ASUERO ERREgueren BARAZcaria. ETA orra, al-ere, comunioneco bocadu baten itzala baicic, ez den gauza, ta BARAZcaria. ECIN hau zuc sinetfi dezu?

BEguira egueizu, bada, bein batari, ta guero besteari, ta ecufico dezu, cen aisa sinifiten dezun zuc, orain zuc niri aditu didazun, hau: edo beguira egueizu zuc orre-taraco lembicico aldian, BARAZcari bata, ta bestea ematen dituzten, ERREgueei. ECUfi, zazu guero, cer nai ote duten, edo cer-taraco ematen dituzten ERREgue oriec beren BARAZcariac. ECUfi zazu, oriec biac ecusi-ondoan, nori ematen diezten ERREgue oriec beren BARAZcari berac. ETA ecusi zazu, cere laur-garren ecus aldian, cer gauzac diran, ERREgue orien barazcari batean, ta bestean arkitzen diran, gauzac.

## II.

ASI zaitez cere lembicico ecustetic; eta ecusi zuzu cer ERREgue diran, BARAZcari andi orien ERREgue emalleac?

ORIEC ciran Perfiacono ERREgue ASUERO bata, ecusi dugun bezala; ta bestea gu-re JESUS maita-garria.

SU-

SUSAN cerintzan Cor-  
teco BARAZcaria eman zuen  
Perfiaco Erregue ASUERO;  
eta Comunione-co bere BA-  
RAZcari andi hau ematen di-  
gu gure JESUS maita-garriac.

ASUERO gure Jan-  
goicoac emanic zuen, PER-  
SIACO bere Errefuma, edo  
Erreinua; ta Erreinu, edo Er-  
refum hau uztera, behartua  
cegoen ASUERO, efcutic lena-  
go norbaitec quentzen ez-pa-  
cion ere, iltzen ceneco: ta hau  
harc ceducan demboran ere,  
erzuen bere ERREFuman Lur-  
reco zati labor bat, baicic.

BAÑA gure JESUS  
maita-garria berez da ERRE-  
gue; ta ERREGue izan behar-  
ra da, mundua mundu den ar-  
tean, ta eternidade guci-gucian;  
ta JESUSEn ERREFumac artzen  
du, ez Lurraren zatiren bat,  
edo beste, baicic mundu guci-  
gucia; bai, ta Ceru gucia ere:  
ta orre gatic JESUS, ERREGue  
ez-ecic, Lurreco ERREGue gu-  
cien ERREGue da, ta dembo-  
ra berean, Ceruco erpiñetic  
afi, ta LURRaren ondoraño  
arquitzen diran, gucien ERRE-  
gue. ECUSTen dezu Comunio-  
co BARAZcaria ematen duen,  
JESUS ERREGueren aldean  
ecer-ez bat bezala dela, beste  
BARAZcariaren emalle ASUE-

III

RO; guizon utfa cen alaba-  
ña ERREGue ASUERO; ta Jan-  
goico-GUIzona da JESUS maita-  
garria.

AH nere JESUS maita-  
garria! ta ezagutu ote zaitut  
nic orain dañocoan zaran-eta-  
co? BELdur naz ezetz! NERE  
beguiac, nere efcu-oñac, ne-  
re bihotzac, eta adimentuac  
ezagu ba-cintzate gaur-danic  
ba-dere bere ERREGuetaco!

EGUIN ba litzate beti  
zucen zuc manatzen dituzun,  
gauzac?

III.

CERTaco egniañac, edo  
emanac ote dira, eculi ditu-  
gun, ERREGue bien BARAZ-  
cariac?

ASUERO ERREGuec  
eman izandu zuen berea, Ef-  
critura Santac dionaz, aguertu  
naiez, cein andiac ciran, harean  
ONDAñunac, eta cein arri-gar-  
riac, edocein gauz-etataco,  
berac cituen, ala, ta efcua: *Ut  
ostenderet divinitas gloria Regni sui,  
ac magnitudinem, atque instantiam  
potentia sua* (Esther 1.4.).

ETA certaco eman due-  
la, deritzazu zuc gure JESUsec  
Comunione-co bere Barazcariac?

GURI aguertzea gatic,  
cein andia den JESUsec berac  
guri digun, ongui-naia, ta  
amorea; bada amore onen al-

N

egui-



eguiñac, aguertzeo da ALDARECO SACRAMENTUA. TRENTOCO CONCILIOAC DIO, orain zuc aditzen dezuna: *In quo* (Eucharistia Sacramento) *divitias divini sui erga homines amoris velut effudit.* (Trid. Iess. 13. c. 2.)

IZANIC, bada, den bezala, bazterric beguecoa gure Jaiuaren ala, efcua, ta amorea, eculi zazu cein andia den, Comunioneco JESUSen BARAZcaria, afaia, edo bocadua: ta cein ecer-eza, oni ongui, beguiratu ezquero, ERREGUE ASUEROrena.

## IV.

NORI emanac ote dira, ASUEROren, ta JESUS maita-gariaren bi barazcariac? edo cein ote ciran, ASUEROren maiera ciran gendeac; eta cein JESUSen maiera behar dutenac?

ASUEROren maiera ciran, anitz behartsuren, ta chiquiren artean, cembait ZALDUN, GOBERNARI, ta PRINCIPE; baña BARAZcari hartaco PRINCIPE, GOBERNARI, ZALDUN, ta andi-chiqui guciac barazcaldu, ta laster ill, ta usteltu beharrac ciran; ta ill-ta usteldu beharrac, ill-ondoraco beren barazcaritic deus bat ateratzen erzutela.

JESUSEC bere maiera

deitzen dituenac dira, bataiatuac; Ceruco gracia-requin arkitzen diranac; emen bertan ere JESUSen senideac, eta Ceruan guero PRINCIPE izan beharrac; *Filij Patris veiri*: ta Comunioneco barazcaritic, araco irabaci andiac atera ditzaquen, PRINCIPEac.

ETA orre-gatic JESUSen maiecoac dira, ERREGUE ASUEROc bere maian izandu cituenac baño, aguitz, eta aguitz andiagoc.

ETA orra non itzabat bezala, den ASUERO ERREGUEREN barazcaria (izanic hau den, bezain andi ederra), JESUSen Comunioneco barazcariaren aldean, naiz beguira daquiela bien BARAZcariac, emalleen aldetic, naiz beren barazcaria-requin emalle biac billatzen zuten-aren aldetic, eta naiz bi-etatic bacoitzac bere maira deitzen dituenen aldetic.

BAI? BADA oraindic obequi hau aguerico da, mai batean, ta bestean arkitzen diran, gauz-etara beguiratu ezquero.

## V.

CER ote ciran, ERREGUE ASUEROc bere maira ater-eraci cituen, gauzac?

EZ du Escritura Santac erraten, baicic platerac plateren ondo atera cituztela, angomai-

maierata ; maiac arquitzen  
 guala janariz , ta jaquiz eder-  
 quiu beteac ; ta, mai-etan ceu-  
 denei , ematen cietela urrezco  
 copetan ardoric on-eneric.

BAñA, on-ena ere, lur-  
 recoa cen, ASUEROren ma-  
 ieco ardoa ; ta angø janaria,  
 egaca dabiltzan-etatic cen, lur-  
 reco gauz-etatic cen, ta ureco-  
 eratic ; eta gucia cen etrea, ego-  
 fia, edo, cegocan, bere saltia-  
 requin maneatua. ETA fafoiric  
 on-enean-ateratzen zuten, gau-  
 za ere, guti bat an oztutzen  
 utzi ezquero; fafoiric bague ar-  
 quitzen cen, gauza cen ; ta  
 gauza, naiz ar cedilla, ta naiz  
 ez, andic laster galdu, ta usteldu  
 beharra.

ETA nolacoac ote di-  
 ra Comunione-co gauzac ?

ECIN obeac ( azal prin-  
 tzac ez-pa-dira ) ; ta bein ere  
 galtzen ez diranac.

CER azal dira Comu-  
 nione-co gauzen azal oriec ?

OGUIAren, ta ardoa-  
 ren azalac, edo accidenteac.

ETA mamiac, edo azal  
 oriec effaltzen dituzten, Co-  
 munione-co gauzac ?

BEINIC-bein JESUen  
 GORPUTZ ederra, ta gorputzac  
 bere zañetan duen, ODOL gu-  
 cia ; ta guero, ceren oriei di-  
 chezconac diran, JESUSen Ani-

ma, JESUSen JANGOICO-  
 taluna ; ta nola JANGOICO-  
 talun hau bera den Aita eter-  
 noarena, ta Espiritu Santuare-  
 na, JESUSen gauzequin batean  
 an arquitzen dira ALDAreco  
 SACRAMentuan Aita, ta Es-  
 piritu Santua ere.

ECUSten dezu, cer  
 gauzac ? ECUSten dezu cer  
 ematen digan JESUsec AL-  
 DAreco bere SACRAMentuan,  
 ta Comunione-co bocadu la-  
 burrean ? BA-dut e cer ecusi Co-  
 munione-co bocadu onequin,  
 ASUERO ERREgueren mairi  
 atera ciran, janari, ta ederi  
 guciac ? EZ du JESUsec emen  
 ematen bere bocadu batean,  
 Jangoico guztiz alfu batec  
 eman dezaquen, gauzoric an-  
 diena ; ta, emen dezaquen, gu-  
 cia ? ematen du alabaña bere  
 GORPUTZ ODOL-eder-equin  
 batean, bere ANIMA, bere  
 Jangoicotafuna, ta Jangoico  
 guci-gucia ; ta badaquizu zuc,  
 ecer ez bat bezala dira, Jangoi-  
 coz offerontzeco gauzac ; edo  
 Jangoico-ren aldean beste gu-  
 ciac ; eta badaquitzu zuc, ora-  
 in aditu-ta badere, beste gau-  
 za guciac ere arquitzen dirala  
 ( ta bere gan baño, aguitz eder-  
 quiagoa ) Jangoico beraren bat-  
 tan !

ATOZ-ea ; ta ez dira,  
 Nz ogui-

ogui-ardoen idurian, edo aintzurari JESUsec guri ematen dizquigun, bere gauza guciac, bein ere galtzen ez dirā, gauzac?

ATOZ-ea; ta ez da oraingo Comunione JESUsec en GORPUTza, milla, ta zazpi-eun urtetaco Comunione gucietan arquitu izandu den, gauza; ta gauza beti osoa; beti vicia; ta beti, ta beti vici beharra?

ATOZ-ea; ta etzaio berbat guertatzen JESUsec odolari, ta Comunione edo cein beste gauzari ere?

ECUsten dezu orain, cembat den, ta nolacoa gure JESUsec ALDARECO bere SACRAMENTUAN ematen digun, jan-edana, edo BARAZCARIA.

BAI, nere JESUS maita-garria, bai; ecusten dut nic hau gucia; ta ez daquit nic, nola arritzen ez naven ni onembat ecustec; eta, zuri onembat lan andi eraguin dizquitzun, zure amoreac!

ONEMBAT ondasun niri zuc, nere JESUS maita-garria! ZUREAC bezain, GORPUTZ-ODOL-ANIMA ederrac, ni bezain gauz-itfusi-ciquin galduari! ETA, ori-equin batean zure Jangoico-tafun gucia, ta zure Aita, ta Espiritu Santua nere ezpañetara, nere

eztarrira, ta nere bihotz ondora, ni comuniatzen nazan aldi oro!

ETA al-ere, ez naz atseguin utsez orain lertzen ni? EZ naz ni emen bertan guelditzen zure amorez urtua, ta iltzeco eran?

EZ daquit nic beraz, horduan niri guertatzen zaidana; edo ez dut orretara beguiratzen nic, zori oneco aldi orietan? AH nere centzu gabea, ta esquerri ez duena!

## §. II.

ALDARECO BERE SACRAMENTUAN JESUsec ematen digun, gucia ematen digu amore andia-requin.

CER eratan, edo nola ematen ote digu JESUsec comunione, bere BARAZCARIAN ematen digun, gucia? PERSIACO Erregue ASUERO bezala?

EZ, baicic denac bezala, ta Jangoicoaren eran.

ERREGUE ASUERO bezala, na-razi zuen bere Imperioco bazter gucietan, eguin nai zuen, gauzaren berria, adiraciric utzi dugun, barazcaria eman zuenean.

DEI-raci cituen bere PROVINCIA guci-etaco ZALDUNAC, GOBERNARIAC, GUIZON

an-

andiac, eta PRINCipe guciac.

PRESta-raci cituen, nori-nai beguiac liluratzeco lecurano, BARAZcal-toquiuc, caderac, eta gañeraco gauzac; era orretan, ta BARAZca-riraco behar ciran, gauzac biltzen, ta billatzen, eguin cituzten ERREgueren pecoa eun, ta laur-oguei egun: ta batzuen ibillera-requin, besteen cart-equin, ta gañeracoen ofarequin iratzarriric ceduzcan ASUEroc, eta guztiz erne, ta, eguitera cijoan, lanari beguira, bere Imperioco gende guciac.

ETA ori cen, ERREgue ASUEroc nai zuena: bazter guciei adiraztea, cein andia cen, zuen, ondafuna; ta cein andia, zuen, escua; beldurturic guciac, eta icara bezala utzi naiez, eraguiteco guero guciei, bere gogoac ematen ciona.

ETA cer eguiten ote du gure JESUS maita-garriac, ALDARECO bere maia prestatzen duenean? ta cer ComunioneCO bere BARAZcarira munduco guciac deitzen ditueanean?

CEER? JANgoicoarena; ta amoriozco lan eder bat.

EMAten digu guri gu

re Jangoicoac, eman ala, ta ecusi dugun, adina, comuniatzten garan aldi oro: baño ematen digu ori gucia, ecer ez bat bezala, ta ogui apur baten eran.

ANITZ maite, gaitu JESUS maita-garriac! GURI ongui naiez gueldituric dago gure JESUS ALDARECO bere Sacramentuan. EMAN naiez dago guri, emen eman-ala; ta, eman-aldia arqunitu ezquero, ematen digu, guc artu dezaquegun, adina; baño ematen digu, deus- ez baten eran, gofenez iltzen dagoenari ecin eman lequiqueon, gauza dirudiela, edo, ogui-miqui baten idurian, bere gorputza, bere odolguacia, bere Anima, ta bere Jangoico-tafun bazterric bagueco guci-gucia.

MANA ceritzan, intza bezalaco, gauza zuri bat ematen len Jangoico berac ISRAEL-darrei, ISRAEL-darrac IGIT-artetic PROMISIOCO bazter onetara eramane cituen demboran.

GOIZ--oro intz, edo man hartatic biltzen zuenac, neurri chiqui bat betetzeco dina, ba-zuen egun guciraco bere janaria. Munduco EGIPTO galgarritic Ceruraco videa daranagun, dembor onetane ere

ere ematen digu guri gure JESU Sec gueren sustentoraco manâ zati, edo neurri, ISRAELdarrena baño, aguitz. chiqui-agoa, edo bocadu chiqui bat baño ere, laburragoa; baña mana zati, edo bocadu labur, behar den, eran artzen duenari, emendic Ceru-raño, ta eternidade gucian ere asquico dituen, indarrac ematen dizozcana: *qui manducat hunc panem vivet in aeternum*: ta al-ere ematen digu gure JESU Sec bocadu ecin indartsuago hau, beren mana ISRAEL-darrei baño, aguitz merqueago; bada ISRAELdarrac, beren mana hau jateco, jaiqui behar zuten guztiz goiz, bildu behar zuten, cetzan lecuari, EGUZquia aguer-tu horduco; ceetu behar zuten guero neque andia-requin, ta maneatu behar zuten bere eran, jatera baño, len: baña gure JESU Sec guri, gu comuni-riatzean, ematen digun, ALdareco SACRAMentuco mana hau artzeco, ez digu guc, edo ecin horduz ALDArera urbiltzea, ta ahoa zabalitza berric behar; eta ematen digu gure JESU Sec guri hau gucia, ecer-ez baten eran, ta bocadu guztiz chiqui batera bildua.

ORAIN ecusten düt nic, bai, nere JESUS maita-garria,

ecin andia den, guc zuri cere emate guztiz andi, onembat zuc: chiquitu onetan zor dizugun, amorea; bada ESCRIturac di-on, gauza bat eguiazcoa bada (den bezala), onec di-onean, guizon maitari bat, bere echean, duen, gucia eman ondoan, deus ez-bat eman duenaren, eran guelditu oi dela (Cant. 87.); cein maitari eguiñic: guelditzen zara zu gure JESUS maita-garria, Ceru-lurrac, eta, aima litezqueen, ondásun guciac baño, gueiago, ta guei-ago valio duen, gauza bat comuniatzen denari zuc eman ondoan, deus bat eman ez-pa-cenio bezala, ta zor-dun guelditzen den, baten eran bezala guelditzen zaranean zu, ta guelditzen zaranean, berriz, ta berriz ere artzallé berari beste ambeste; ta virtute-gai guciac eman naiez?

BEDEica daquiola, onembat-erainoco zure amoreari!!

ETA ah!! ezaguturic hau nol-ere-bait, eguin ba-neza nic, zuc nere comunione--etaco cere emate bazterric bagueco one-quin eraguin nai ceniquedana!!

AH, ahi ba-nendi ni, gueiago luzatu gabe; zuc, nere JESUS emalle maita-garriac nai dituzun, ta nic neronec eguin behar ditudan, gauza gu-

## *lagozten Oitoitz-gaiac.*

III

guciac zucen eguiten ! Eguin ditzaquet, bada ( ta aisa al-ere) comunione-co bocadu laburra- ren indar ona-requin !

§. III.

ALDARECO SACRAMENTU- an JESUsec ematen diguna, ematen digu asco lecutan, ta anitz aldiz.

**C**EIN lecutan , ta cembat aldiz ematen ote digu guri gure JESUsec comunio- neco bere BARAZcari onda- fun-duna ?

ANITZ , eta anitz le- cutan ; eta aldi , anitz gueia- gotan.

BAI: anitz lecutan ema- ten digu guri gure JESUS maita- garriac comunione-co bere BARAZcaria ; anitz dira ala- baña ESPAÑIAN , anitz dira FRANCian , anitz dira ITALian , anitz dira POLONian , anitz di- ra ALEMenian , ta anitz-anitz gañeraco , EUROpac dituen , Erreinetan arkitzen diran, gure Legueco ELIZac.

BESTE amebeste ez izan- arren , anitz dira , AMERICA deritzan , munduaren laur zati- etatic andieneco Elizac ; eta ez dira orren guti , ASIA , ta AFRICA deritzen , Mundu be- raren beste bi zati-etacoac ; eta ELIZ orietan gucietan ematen du JESUS maita-garriac Comu-

mioneco , adiraci dugun, bere BARAZcaria.

ETA , diran baño , anitz eta anitz gueiago ba-lira ere munduco ELIZAC ; eta , Eliza guciac batetan gendez betetzen ba-lira ere , Elizaratzen diran , guciac izain luquee Comunio- neco beren BARAZcaria ; ta , comuniatzen liran-etatic , ba- coitzac artuco luquee , ASUE- ro Erregueren BARAZcari an- dian aguertu cen , gucia baño , anitz eta anitz gueiago ; bada artuco luquee JESUSen GOR- PUTZ gucia , ODOla , ta Ani- ma ; bai-ta JESUS beraren Jan- goico-tafuna ere , JESUS be- raren virtute , ta irabaci guci- guci-equin.

BADA , nor-nai arri- tzecoa ba cen , ( cen bezala) ERREGUE ASUEroc len bate- an cambaiti eman izandu cien , BARAZcaria ; cer barazcari da , onembat lecutan , ta dembo- ra batean nai duten guci-gu- ciei gure JESUS maita-garriac ematen dien , comunione-co bere BARAZcaria ; izanic , JE- SUSen BARAZcari onen bo- cadu bacoitza , ASUEROren zazpi egun-etaco jan--edanaC baño , anitz , eta asco gueia- go valio duena , ta Jangoico- ac berac baicic , ongui bein- tzat , ecin ezagu dezaquena?

BAR



*Jesufen amore-nequeci*

BAI? BA-dezu, bada, oraindic gueiago, ta gueiago ere cer ecusi, ecusi nai ba-dituzu JESUSen barazcari onen eman aldiac.

NOIZ ematen ote du gure JESUS maita-garriac Comunioneco bere BARAZcari ecin andiago hau?

## II.

EUN milla-milloi-etan, ta anitz, eta anitz gueiagotan; bada milla, ta zazpi eun urte, ta gueiago dira, egun oro hau ematen dagoela guere JESUS maita garria: ta gutien-gutiena ematen duen, egunean, ematen du, aspaldi dela beintzat, berreun milletan; ambat, eta gueiago dira alabaña egun oro MEZA eman oi dutenac; eta orietatic bacoitzac ba-du egun oro bere BARAZcaria, edo Comunionea.

GAñeraco bataiatu-etatic, gueiago, ta gueiago dira egun oro batez-beste comuniatzen diranac.

MEZA emalle, ta Comuniatu oi den, bacoitzaren ordezt comuniatzen ba-lira ere egun oro milloica, ta milloica, orobat izain lizaque: bada guci-gucietatic bacoitzac izain luque Comunioneco bere BARAZcari; ta azquenecoac izain luque, lembicicoac bezain BARAZcari

osoa, ta ongui muneatua.

HAU berau eguiñen du gure JESUS maita-garriac emendic aitzina, ta mundua bucatu arteco dembora gucian, edo azquen contuetaco egun-eraino; ta, eguiñen du hau gucia, batere bera necatu gabe; ta eguiñen du, comuniatzen den, bacoitzari emana gatic, aldian harc artu ala, aitu gabe, ta laburtzen ere etzaizcala bere graciaren; bere doaien, ta bere virtuteen ondasunac; eta eguiñen du JESUSec hau gucia guri ongui-naiez, ta gure ona gatic.

ECUS tea dezu zuc gure JESUS onarena! ECUS ten dezu zuc cer den, ta cembatecoa den, gure JESUS maita-garriari zuc, eta nic bioc zordiozun, amorea?

GUrequin arkitzen da gure JESUS, ta gau, ta egun, ta beti gure Eliz-etan dago gure JESUS maita-garria! GUre beguira dago beti gure JESUS maita-garria; ta guri gueren comunione on-etan bere gauza guciac eman-naiez dago gure JESUS maita-garria!

ETA ambat, eta ambat, eta, guc artu ala, guri gueren comunione bacoitzean emana gatic bein, ta berriz, ta berriz ere gure JESUS maita-garriac, berriz ta berriz ere

ere guri eman naiez dago JESUS beste ambeste , ta anitz, eta anitz gueiagol!

HAU gucia nai du gure JESUSec , guri ongui naiez, ta guri zori oneco vicitza bana emen eraguitea gatic.

ATOzea ; ta hau gucia ez-ecic , onen erdia, ta laurdena ere asqui ez da, ta fobera, gu-tatic edoceni JESUSen amorearen luan gañez eraguiteco?

BAI gure JESUS maïta-garria , bai ongui guc hau ezagutzera, ta hastiz , ta contuz guc oni beguiratzen ba-guenio! Baña guztiz esquer-gabeac izan gu! ZUre gauz-etaraco centzu gutirequin arkitzen garan, gendeac izan gu! ta lurreco gauzetan gueiegui sarturic arkitzen garanac!

AH , guc beguira ba-guenezo gaur danic ba-dere ALDareco cere SACRAMentuan zuri zor dizugun, amore bazter-beguecoari, ta SACRAMentuan beretic atera dezaquegun Ceruco ondafunari; onen atera naiac, eta zure amoreari erantzun beharrac eraman guintzan guero gu , gu gandic zuc nai dezuna zucen eguitera! ALA guerta dedilla, nere Jangoico maïta-garria: bai arren, bai.

III

1.

IN EUCHARISTIA IPSE SANC-  
titatis Auctor est. Trid. Sess.

13. cap. 3.

CER ote da ALDareco SACRAMentuan gure beguac ecusten dutena ? CER ?

GURE beguac or ecusten duten , gucia da ogui mee, edo hostia zuri baten iduri, edo aintzura bat.

ETA cer ote da siñiste onac , edo fedeac or guri aguertzen , ta eracusten diguna?

OR guri fedeac , edo siñeste onac aguertzen dizquigu , ecusteco diran , gauzanic andienac ; bada aguertzen dizqugui , JESUSec dituen , gauza ecuste coac , edo JESUSen guiza-tafuna , JESUS beraren Jangoico-tafuna , tafun oriei dagozten , gauza guciac.

CEIN ederrac oriec! CEIN ecuscariac ! ETA cein andiac !

ORiec guciac berequin dituela dator gu gana gure JESUS,guerē comunionean guc gure JESUS artzen dugunean. ETA gucia dacar gure oneraco , ta guti gueren gauz onetan bere escu indartua-requin lagundu naiez.

HAU gucia dacar gure JESUS maïta-garriac , ni ganatzen den , aldi gucietan ? HAU

O

gu-



gucia daducat nic nere bular-rean, ta nere bihotz ondoan, ni comuniatzen nazan aldi oro? ETA al-ere atseguin utfez ez dira lertzen nere bihotz hau, nere erraiac, eta nere bular gucia?

EZAgun du ez dudala anitz beguiratzen nic, aldi orientan nic nerequin daducadana gana!

S. JOAN BAPTISTA, Amaren sabelean arkitzen cen oraindic, JESUS bera bere Ama-requin sartu cenean haréa Aitaren echean; ta al-ere, JESUS haren ondora ceneco, an bertan, bere atseguin pozac ecin garaituz, ati cen saltoca S. JUAN BAPTISTA. ETA Santu beraren Ama Santa ISABEL arriturric guel cen, JESUS bera bere Amarequin eche berean sartu ceneco.

ETA zu, ta ni, becatari char-oc JESUS bera iduquia gatic gac gueren barrenean, comuniatzen garanetan, batera, ta bestera beguira gaude, ta norequin gauden ere beguiratzen ez dugula!

ESQUER gabearen ar-rigarria! ta sinistearen otz illuna gure becatari bion sinistefquerrac!



2.

VERE TU ES DEUS ABSCONDITUS, Deus Israhel Salvator. Itai. 45. 15.

**Z**U, bai, zu zarala gure JESUS maira-garria, ongu gorderic ALDARECO SACRAMENTUAN arkitzen zaran, gure JANGOICOA, ta ISRAELDAR gucien SALVATZALLEA!

GORDE ciñan zu, bai, ta ongui al-ere, cere Amaren baitan, guizon eguñic, guelditu ciñanean: baña zu jio artecoa cen, horduco zure gordera; ta ara cer dembora den, SACRAMENTU andi orretan zu gorderic arkitzen zarala!

LEMBICO cere oguei, ta antar urte-etan etzenen zuc, ez, nor ciñan anitz aguertu izandu; baña horduan ere anitzec ecusten cinduzten zu; ta ba-zuten, zure behar bezalaco, berria zure Ama maiteac, eta Ait-orde, S. JOSEPHEC; bai ta S. JUAN BAPTISTAC ere: baña norc ecusten zañu zu or ALDARECO SACRAMENTUAN?

AZQUENECO cere iururte etan ecusi cenuen zuc, bai, cerorrec daquizon, adina vidgabe, ta charqueri; ecusi cenuen zuc, milla cere nequeren buruan cere burua aranzez urratua; ta ecusi cenuen cere buru bera lapur biren erdian

ii-

iltzez jofia , ta odolez , ta blasfemiez cena beteac ; baña laster aguertu zuten, nor ciñan zu, Cemaac egu-erdico bere illuna-requin, ARRIac beren erdiratzearequin , LURrac bere dardarequin , ta ILLA berac beren vicitza berria-requin. ALDAREco cere SACRAMentuian zaude zu nor zaran zu agueri etzaitzula ; ta era orretan or zaude zu , joan diran , milla ta zazpi eun urtez , ta gueiagotan ere.

BAÑA , cer gatic hau onela , gure JESUS maita-garria ?

GU gana maiz etorri naiez, cere ONDAfinez gu , ta cere maitatzez bete-beteac uztera..

GORDERic ez-pa-ceundè zu or , ta bocadu bat eguinic ALDAREco cere SACRAMentu orretan , ez guñaque trebe gu , zu guc jateco , edo comunione batean artzeco ; ta galduco guenituque guc , zu or artzetic datozquigun, laguntzac , graciac , eta ondasunac ; eta oriec guc gal ez ditzagun, edo oriec guri zuc eman naiez , or zaude zu , ecer-ez baten eran , ta guc zu , alqueric, eta lotfariac bague , ar zaitzaquegun , eran..

ZORI onecoac zure berri hau dutenac ; eta , zuc

nai adin-etan , zuri dagoquizun , beren Animetaco garbitasuna-requin , ta humilqui artzen zaituztenac ; bada oriec dira , artuco dutenac , onac izateco , behar duten , zure laguntza , ta gracia : ta oriec berac , orrembat ontarteren esquerrac emen eman ondoan, Ceruraco diranac , an esquer obeac , eta obequi eteruidadegucian zuri ematera.

NI ere arkitzen baintz gaur , ta beti orien artean ! ARqui naiteque ni , bai, ori nic neronec ciñez nai dudala,

3.

VENITE ; COMEDITE PANEM,  
& bibite vinum , quod miscui  
vobis. Prov. 9. 5..

COMUnione bacar bateco ondasunac gatic ere, pozic it illi behar guenuque guc manduaren bazterric unutzen-eraboa bada ba-dira ( ta aritz al-ere ) guriagoren bilan aratzen diranac ; baba gure JESUS maita-garriac quendu digu guri orrembat neque , ta vide ; ta etorri zaicu , gu gueroe vici garan , toquirac. ERAGuio du or Eliza ; preftaraci du or bere maria ; ta ATOzte, dio, nere oguiardoac artzera ; ATOzte nere

Oz gor-

*Jesusen amore-nequeei*

gorputz-odol-garbien Comunionera ; ATOzte bai ; bada sartu-naiez nago ni zuen bihoiz-  
etaraño : BETE naiez nago ni zuen Animac nere amorez , nere graciaz , nere laguntzaz , ta nere ondafunez !

ATOzte , bada , bein , ta berriz , ta maiz , eta muz : ALdian obequi artuco zaituz-  
ret nic ; ALdian gueiago emain dizuet nic zuei , humilqui ba zatozte zuec , eta , behar den , eran : ATOzte bada , ta ATOzte : ez da , ez naguiz , alquez , edo lotfaz cer guelditu.

ADItzen dezu zuc zure JESUsec gaur zuri erraten dizuna ? USTeco dezu zuc zure beharrez dagoela , cerbait eguiteco , gure JESUS maitagarria ? EZ bada : ez du , ez JESUsec befteren bearric , nai duena , noiz nai , ta bertan eguiteco : ta norbaiten behar izatera gure JESUS maitagarria , milloica ditu JESUsec bere Aingueruac , berac nai duen , edocein gauz-etaraco ; ta queñu bat JESUsec oriei eguin-hor-

duco , an dira guciac , JESUS ec nai duen , toquian ; ta , aditu ; horduco , eguiña daducate JESUsec eraguin nai diena.

DEItzen gaitu , bada gure JESUS maita-garriac , gueren oneraco . DEItzen gaitu , guri ongui naiez , ta gu ongui ondafun-dunac eguiñac uzteco ; ta virtutez virtute garabiltzala , bere Ceruan gu sar-erazteco .


ONGui : ta Comunionera JESUSen dei bacar bat ain on andia ba-da , cer on , ta cer ontarte izain ote da onembat , JESUSen deitze , ta deitze ?

NOLA nic erantzun , JESUSi diodan , onen zor andiari ?

VICItz humil garbia-requin , ta cinqui , ta maiz bera maitat zen dudala .

EGUiteco asmoan ar-quitzen ote naz ni gaur ?

BAI , nere uitez ; ta lenago orretan asi gabeaz , ta asi baguez eguin ditudan , utfen damua--requin , erraten dudala : NERE JESU-CHRISTO &c.



# LXIX-GARREN OTOITZ-GAIA.

JESUSEN CORPUTZAREN ALDARECO EGOERA.

**T**OLEStaturic dagoen, oial ederra bezala, da (ecusi dugun bezala) ALDARECO SACRAMENTUA.

URrez, cillarrez, ta lorez beteric egona gatic oial bat, ongui zabaldu artean, beste edocein oial bezala da, edo beintzat ez da ezagutzen, dagoan eran, ta behar bezala, oial onen valioa.

• ORI bera guertatzen zaio, ALDARECO SACRAMENTUARI, hastiz, ta banaca ez beguiratzera, SACRAMENTU ONEC gordeac daduzcan, gauza guciei; bada gañeraco beguiratzea, nafteca, ta batetan beguiratzea da; ta SACRAMENTUCO gauzac ez ongui, ta ez erdizca ere ecustea.

ASI gaitacen SACRAMENTU ONEN gauzac hastiz, ta banaca ecusten; ta ecus dezagun lembici-lembicicoa, emen arkitzen den, JESUSEN gor-

putz maíta-garria.

§. I.

NOLACOTSUA DEN, JESUSEN Gorputzac ALDARECO SACRAMENTUAN duen, edertafuna.

I.

**C**ONSAgracioco hitzac eraten dute, ta siniste onac eracusten digu, ALDARECO SACRAMENTUAN arkitzen delagure JESUSEN Gorputz maíta-garria.

NOLA, uste dezu?

OBIAN viztu, ta artucituen, edertafun, ta gañeraco bere doai guci-equin.

GURE JESUS maíta-garria, gurutzean ill, ta irurgarren egunean, atera cen LIMBOTIC JESUSEN Anima, an arkitzen ciran, anima on guciac berequin cecazquiela.

ORIEquin batean sartu cen JESUSEN Anima, bere gorputza ortzitu cioten, arrizco obi berrian. IRA-

ERACUTsi cien an , be-  
requin cecartzienei, nola cegoen  
haren gorputza ; ezagu ceza-  
ten , oriec gatic , eta mundu  
gucia gatic , bere gorputz har-  
tan ecusi , edo. eramán izandu  
zuena ; ta , hura. ecuftean, arti-  
tuac gueldituco. ciran LIMboco  
Anima on guciac : alacoa. ce-  
goen. alabaña !

OTE daquizu zuc no-  
lacoa. cegoen horduan. an , gu-  
re JESUS maita-garriaren gor-  
putz hau ?

BURU gucia. ceducan  
azantza. ZULOz berea , ta cer-  
bait ANDitua. AUR peguia ce-  
ducán ill-oria , ta , Borrero go-  
gorrac eman ciozcaten , OCA-  
B:lcac , eta ESCUCaldi gogor-  
rac ongui aguerian. ceduzcala.

BESOeraco ezurrac  
beintzat , tiraca ATereac. BE-  
RE Sorbalda , ta bizcar gucia  
ezur-errai-etarraño. LARrutua,  
ta. URratua.

ESCU-oñac batetic bef-  
tera iltzez. ZULAtuac : eta , bu-  
rutic oñ-etarraño, cen gucia, do-  
lõreeraco. RETABLO bat. egui-  
ña.

ETA an cegoen , edo-  
cein illen gorputza bezalá , edo  
ill-oial zuri batez INGURUtua.

LIMboco Anima onac  
ez-ecic , zu ere , zuc an ecuf-  
tera. gure JESUS maita-garriaren.

GORPUTz hau , oriec aldi har-  
tan ecusi zuten eran , ongui da-  
nauturic , edo naigabe onez on-  
gui beteric gueldituco ciñan, bai-  
ta urricarizco negar onac egui-  
ten cenituela ; ta dembora be-  
rean ezaguturic zuc , cere be-  
catu itzuli. arri-garri-equin , ar-  
eraci ceniozcala. JESUS maita-  
garriari , era hartan cegoen , be-  
re CORPUTzeco. carramistac,  
edo arrastoc adirazten dituz-  
ten, nequeac , eta penac, guel-  
dituco ciñan zu , oriec zuc ar-  
eraci. ceniozcalaco urriqui an-  
dia-requin , eta orretaraco vi-  
de berric ez emateco. asmoan,  
edo berriz becaturic ez egui-  
teco naiez , ta gogoz. ongui  
betea.

BEGUIra zagozu , orain  
ba-dere. siniste onaren begui  
garbiz ; ta eguizu ori bea : ori  
da. orain JESUS maita-garriac  
zu gandic escatzen duen , ur-  
ric-aldia.

CEIN ere urric-al-garriac  
cegoen gure JESUSen Gorputza,  
LIMboco Animac , Animaric  
bagae bere obian ecusi zate-  
nean , GORPUTz berean be-  
re Anima fartu-horduco , guel-  
ditu cen JESUSen. GORPUTza,  
ill-oialic bague , mirra , ta aro-  
ma guciac. aldebat utziric , eta  
ezur bacoitza bere toquian ce-  
ducala.

GUEL-

**GUELDItu** cen , bere Borreroen , ta guizon gaisfoen mcaldi-eratic cituen , uffel-eren , ta andi-tafinen señaie guciac quenduac , zauriac joanac , ezur-arc estaliac , eta gauza guciac , behar cen , eran ceduzcatziela : ta guelditu cen , guc adiraci deza-quegun baño , aguitz , eta aguitz edertafun andiagoo-requin.

**ETA** orra , becatuaren eriotzetic vizten den , Anima baten ispillu-ederra ! **ISPILLU** orretan ongui zuc , eta maiz cere buruari beguiratzera , ecufico , ta ezagutuco dezu , cein itfusia den , becatuan datzan , Anima baten egoera ; ta cein ederra , graciaren viztu-eran sarturic arquitzen denarena.

**BECAtuz** illa datzan , Anima dago , mendico icatz beltz bat baño , aguitz beltzagoa. **ERA** onetan datzan , Animac , beren toqui-eratic aterac daduzca bere adimentuaren , ta nai onaren ezur guciac , edo gauzac ; eta guez on-etaraco , berez , ez-palitz bezala da ; bada hari bere Jangoico maitagarriac ez argui eguitera , illumbean dabill ; ta Jangoico berac bere escua , onez ez ematera , ez da ateraco Anima bere becatuaren loi-petic , eta galdu beharra da eternidade guciraco ,

sulececo beltz guciac bezala.

**BAñA** , bere gaizquiez ongui , ta ciñez urriquituric , elcatzen ba-diozca Anima berac gure Jangoico maitagarriari bere arguia , ta laguntza , emain diozca biac gure Jangoicoac ; eta ateraco du bere becatuaren obi-petic , eta emain diozca bere graciaren vicitza , ta virtuteen edertafuna ; ta utzico du , ecusten duten , Aingueruei atleguin andiac ematen dieztela : ta dembora berean utzico du , gauz onetaraco , behar duen , escu , ta indar gucia-requin.

**ECU**si zazu , dituzun , edo ez vicitza , eder-tafun , escu , ta indar berac ; eta ezpa-dituzu , eguizu lembait-len aleguiña , oriec zuc cere Jauna gandic izateco. **ETA** beguiras ez berriz zuc oriec galdu ; bein irabaci ezquero.

II.

**BAt** diran ezquero , diran bezala , **JESUSen** gorputzac , bere viztean arturicacoa , ta orain duen , eder-tafuna , ecuste-co guc **ALDA**reco bere **SACRAMentuan** **JESUSen** gorputzac duen edertafuna , ecus dezagun , horduan harc artua , ta orain berac bere glorian duena.

**ECUS**-dezagun , dior,  
il-



illum-bean bezala , ta guc emen ecusi , edo ezagu dezaquegun, eran.

JESUSen GORPUTzac bere viztean arturicaco , ta gueroztic bere glorian duen , edertafunac garaitzen du beinic-bein Ceruco edoceinen edertafunic andiena. CEMbat , uste dezu ? EGUZquiaren arguiac crisellu char baten arguia adina , ta anitz gueiago.

BAÑA norañocoa ote da Ceruco baten arguia , ta edertafuna ?

JUicioco eguna joan ondoan , EGUZquiac izan behar duen , arguia bezalacoa: *tunc iusti fulgebunt sicut sol in Regno Patris eorum* (Matth. 13.43.) ta JESUsec dionaz , horduan EGUZquiacizain du , orain baño , zazpi aldiz , edo zazpi bider argui gueiago : *Et lux Solis erit septemplexiter , sicut lux septem dierum.* ( c. 30. 26. )

ECUfi zazu , andia den , edo ez , JESUSen gorputzaren arguia , ta edertafuna.

ETA oraindic hau zuc , obequi ecusi , edo ezagutu nai ba-dezu , adi-zazu S.BERNARDInoc dion , ta gure ecuf-te oni dagocan , gauza bat.

S. BERNARDInoc diona da ( t. 4. *serm. de Assumpt.* ), JESUSen Amaren gorputzac ba-

carric bai duela , Santu , ta Santa gucien gorputzen argui gucia adina argui ; ta argui gueiago ere-

Gauz arri-garria ! Ceruco gorputz bacoitzaren arguia , Eguzquiaren oraingo arguia baño , zazpi aldiz andiagoo ! CERUan arquituco anitz milla-milloi gorputz ; eta gorputz bacoitza orrembat-erainoco arguia-requin : ta al-ere , orien gucien arguia baño , argui andiagoo , JESUSen Amaren gorputzac duen , arguia , ta edertafuna ? BAIEz , dio Santuac.

• ONGUI : ta JESUSen gorputzaren arguia , ta edertafuna ?

CERUco gorputz guciena , ta oriequin batean bere Amaren gorputzarena baño , anitz eta asco bider andiagoo , ta andiagoo ; da alabaña Jangoico-guizonaren gorputzari dagocan , bezalacoasta , gañeracoen gorputzei orrelacoa dagotem guero , ez dagoca harenari , adiraci duguna baño , chiquiagoo , edo laburagoo.

ORRA cembat argui-requin ; orra cembat edertafun-equin arkitzen den , ALDARECO SACRAMentuan , dagoen , gure JESUSen gorputz-tza.

ONEM-



ONEMbat argui , eta eder-tafun-equin an ecultera zuc cere JESUS maita-garria , pozez bertan illic gueldituco cinaque zu , ta asnatelic gabe ; ta ecin comunia cindezquen eran.

EZ dator orretara , ez gure JESUS maita-garria ALDARECO bere SACRAMENTURA : gure bihotz-eraño fartu nalez dator ; ta gu bertan onda finez beteac uztera : ta orre gatic dator , edertafunic,eta arguiric ez-pa-lu bezala , ogui apur baten antzan , aintzurán, edo idurian ; ta aur batec ere ezpañen idec-aldi batez ar dezaquen eran.

ECUSTEN dezu zuc, no-ñaño-coa den, gure JESUS maita-garriac bere Sacramentu onetan aguertzen digun, amoreac? ECUSTEN dezu, cein maita-garria den gure JESUS, gure amorez emen Sacramentatua, edo ain guciz gordea?

§. II.

JESUSEN GORPUTZAREN cembait aldetaco argui bereciac,eta edertafuna.

CEIN ere andia den JESUS-en gorputz gucico arguia, ta eder-tafuna,aguitz andi-eder-ragoa da JESUSEn gorputz be-

III

rari bere escu-oñetan , ta bular-rean agueri zaiona.

GAÑERACO bere arguiaren aldean cer argui, dimidie-la, deritzazu zuc JESUSEn gorputz maita-garriaren escu-one-taco , ta bulareco zulo-lectu-tic agueri zaion , argui andi eder onec?

EGUZqui-ecin-ederragoa bere izar ederren artean.

ARQUITZEN da , bada, gure JESUSEn CORPUTZ-gucia, len guc ecusi dugun, argui, ta edertafun gucia-requin ; ta bere edertafun hau gucia andi da-quinon , beraren leneco neque arri-garrieci dagoten, eran, eman izandu diozca Aita etarnoac bere escu-oñetan , ta bere bular-rean argui aguitz andiagozco bofi EGUZqui bezala ; ta bofi-etatic bacoitzaecin ederragoa.

BERE escu-oñaciltzez, ta bularra lantzaz bezala , zulu-tu cioten Borrero gogorrac JESUS maita-garriari bere burua , arantzezco coro, guztiz arrigari bat-equin ; ta arantz bacoitzac zulatu zuen , toqui-tic aterazen zaio bere buruan, escu-oñetan , ta bularrean bezalaco, argui eder-andiago bat,eta JESUSEn escu-oñ etaco , ta bularreco arguiac gorputz gucico arguia bezala , buruco zulo to-quietaco arguiac ere garai-

P tzeu

*Jesufen amore-nequeei*

izen du buruco beste argui gucia; ta argui onec eguiten du videnabar JESUS maita-garriaren buruaren inguruan, almal ditequen baño ere, Coroi aguitz eder-ta ederrago bat.

VIZtu, ta bere obitic atera ceneangure JESUS maita-garria, aguertu cen, alde gucietatic arguia, ta eder-tafuna ceriola; baña JESUSen gañeraco edertafun gucia garaitzen zuen JESUsec bere buruan cecarren arguizco Coroi ecin-ederragoac.

ERA bereco arguia-requin bere escu-oñac, eta bularra eguzqui eguiñac cecartzien JESUS maita-garriac; eta neca-era bereciren bat izandu zurèn, JESUSen GORPUTZ-eco aldeac, edo bazterrac, bazuten, bai, horduan, ta badaute gaur ere, orien nequeei cegoten, beren eder-tafuna.

GUISA-onetan aguertu cen gure JESUS bere Aita maita-garriaren beguietan, ta an hura aguertu horduco, adiracicion Aita berari, garaituac guelditzen cirala beraren etfaiac, eta ecin zucenago eguiñac Aitac berac eman ciozcan, eguitemco guciac.

CEMBAT atseguin artu ote zuen AITA eternoac, bere Seme guttiz maita-gar-

ria, era onetan ecusi zuenean?

HORDU hartaraco an egoin ciran, Aitac berac bilduac, Ceruco AINGueru, ta CHERUBin guciac; eta guciac bertan belaunicaturic, Limbotic JESUS berac atera cituen Anima guci-equin batean, eguiñen cioten JESUS maita-garriari agur bat ecin-andiagoa; ta errain cioten, atseguin-conrētuz liluratuac arquitzen diran, batzuen eran, ERREGUE SALMARIac, edo DAVIDec aldi hartaraco utziric ceducana, edo: ONA NON aguertu den, gure Jangoicoac eguiñ-icaco bere egun andia! HAU da, bai, hau, CERU-lurrac atseguin andiz bete dizquigun, eguna; ta alpaldi gucian MUNDucoac bere nai andia-requin, ta bere beguira ceduzcana! IZAN dedilla bada, Jangoico--guizon, gure ERREGUE, JESUS, zure gloria-ta gloria gueiagoraco; ta becatari gucien ONERACO.

BERE obitic atera cenean, ceduzcan argui gucia, ta edertafuna daduzca JESUsec, ALDARECO SACRAMENTURATZEN denean, guc oriec gueren gorputzen beguiz ez ecustigatic; eta, bere obitic ateratzean Aingueru--Cherubinac eguin izandu cioten, agur gucia, ta anitz guciago ere zor-

za-

zaio JESUSi bere arguizco ete r-  
tze eder one gatic ; horduan  
alabaña , ala aguertu cen JE-  
SUS, illen artetic ateratzea ga-  
tic , eta bere on-eraco ; baña,  
ALDArera dator-quigun , ald-  
etan gure ona gat.c dator-qui-  
gu , ta gu gucioc bere onda-  
funez , arguiz , ta graciaz be-  
te naiez ; ta gure amorez emen  
illaren eran , egotera.

BAñA eguiten ote du-  
gu guc , Cerutic etorri-ricaco  
Aingueruac , eta Cherubinac  
egun. andu zutenaren laur-  
danic ere ? ANITZ necatzen ote  
gara gu gueren esquerrac ema-  
ten gure JESUS etorri maita-  
garriari , bere onezco etortze  
eder one gatic ? ASCOtan ur-  
biltzen ote gara gu , agur an-  
diac guc emen ALDAreco SA-  
DRAMENTUAN JESUSi eguitera ?

AH, nere JESUS mai-  
ta-garria ! OR zaudenic ere  
etzait niri gogoratzen ( asco-  
tan beintzat ) egun ofoetan !  
Anitz , eta anitz egun joaten  
zaizquit niri , zu gana ni bein  
ba-dere urbildu gabe : ta , noiz-  
bait ni orrara urbildna gatic ,  
zu gandic ongui urrun ibilli  
oi dira horduan ere nere go-  
goa , ta nere asmo guciac !

ORRA , bada , nere  
JESUS maita-garria : orra, zure  
Sacramentura etortze ederraz

nic eguin oi didan casoa , edo  
begurartzea !

ORRA nola errantzun  
oi didan nic, zuc or agueitzen  
didazun , bazterric bagueco zu-  
re amoreari ! BEREbat guerta-  
tucco ote da , datocen dembor-  
etan ere , edo ni vici nazaño ?  
EZ baldin bere ! EZ arren , JE-  
SUS maita-garria , ez.

§. III.

JESUSEN CORPUTZAC AL-  
DARera dacartzien doaiac.

I.

BA-ditu gure JESUSEN GOR-  
PUTZac vizturic milla,  
zazpi eun , ta urte gueiagos ;  
ta al-ere arquitzen da gaur,  
viztu cen egunean bezala ; ta  
guifa berean egon beharra da  
eternidade guci-gucian ere.

EZ du ortzac , ez du  
beroac , ez du eritasunac , ez  
eta zartzeac ere JESUSEN GOR-  
PUTZa-requin ecustecoric.

BETI, ta beti arquitu-  
co da JESUSEN GORPUTZa era  
batean : beti ofasunan , beti at-  
fecaberen pitie gabe ; ta beti-  
beti Jangoico guizonaren gor-  
putzari dagoacan , bezala , arse-  
dete osoa-requin , nequeric ez  
duela , ofeguin contentuz be-  
tea , ta nai duen , eran.

CERUAN dago beti gu-  
re JESUSEN GORPUTZa , AL-  
DAREan egona gatic. AN , ta

Pz emen

emen dago beti bere jangoi-cotafuna-requin; ta an, ta emen dago, ecin aifago, ta ecin obegail.

BUCATU ciran, bai, JESUSEn eriotza-requin, JESUSEn GORPUTzaren iltze, ta neque guciac; eta JESUSEn viztea-requin aif ciran, eternidade gucian irauin behar duten, JESUSEn pozac atfeguin utfac, eta contentuac; eta non-nai, ta nola-nai egona gatic JESUS maita garria, ez du JESUsec galtzen bere zori oneco doai ori-etatic batere; ta beti da bat gure JESUSEn zori oneco gorputza; ta beti galtzeric baguecoa, ta ecin ill diteguena. ORRA, bada, JESUSEn gorputzaren lembicico doaia; ill ez-beharra!

DOAI onequin dator, bada, gure JESUSEn zori oneco gorputza ALDARECO bere SACRAMentura; ta, gu Comuniatzen garan-etan, gure bular-etara.

CER gatic, uste dezu, edo certaraco?

GRACIAren vicitzan gu guztiz fendorturic uzteco, edo becatuaren erio gaitoren atzapar-etatic betico gu atera naiez.

ORREtaraco, gu ara ongui prestatuac ba goaz, atz u-

eguiten dio JESUsec gure adimentuari, ecus ditzan emengo videac, diran bezala; ta, vide gaitoac utziric, ar-ditzan virtutez virtute daramatenac.

ONGUI prestatuac gu Comuniona ba-goaz, berotzen du an JESUsec gure bihotza bere amoriozco sua-requin, eta ematen diozca gure animari indar andiac, vide oneco bere etsaiac, eta tentu guciac garaitzeco; ta ematen dio dembora berean an gure JESUS maita-garriac bere laguzza, ta escua, erori bague dabillen gueroz-gueiago, ta paufu on luceac ematen dituela.

Ay! hau gucia irabaz ba-neza nic nere Comunionetan; ta, hau gucia nic irabazteco, urbiltzen ba-nintz ni nere Comunionera bihotz humill, ta ongui prestatua-requin!

LAGUN zaquizquit arren nere lan onetan ere nere bihotzeco JESUS maita-garria. Efcatzen dizut nic hau cere bihotzeco amore andia gatic.

## II.

ATERA cen bere obitic gure JESUS maita-garria, berriz ez-ill beharra ez-ecic, nequeric, berriz ecin duquen, gorputza-requin.

AR-ezquero fu vicitan tartuco ba-liz ere gure JESUS-  
en

En gorputz hau , ez litzaque erreco bat-ere. EZPAT-ucal-diac , eta futumbaren tiroac, eta balaric andienac ere ez lio-que , aiceco pitlic chiquienac baño , calte guciago eguiñen gure JESUSen gorputz eder ill ez-beharrari. EZPIRitu utf-utfa bezain urrun arquitzen da gaur gaizqui , ta gauza galgarni gu-cietatic gure JESUSen gorputz zori onecoa ; ta era orretanche datorquigu guri gure JESUSen gorputz hau , gu comunia-zen garan aldi oro.

OTE-daquizu zuc cer-tara ?

EGUIten zaizquigun, nai-gabe , ta charqueri guciac, arizcoac ba-guiña bezala , be-raren icenean emequi guc era-mateco , asmoz beteric gu uz-tera.

ORI guc eguitera , ta videnabar artzen ba-ditugu guc, afaldatu gabe, gure LEGUEAC dacartzien , neque ta atsecabe guciac , ba-dute gure Animac, JESUSen GORPUTzaren bi-garren doaiac ALDAreco SA-CRAMentuan eracusten digu-na ; ta gu ill artean , guc hau ez galtzera , eternidade gucian egoim dira gure gorputzac, JE-SUSen zori oneco GORPU-tzaren eran , edo nequeric , eta nai-gabereric ecusten ez dutela.

ETA norc ez du emen artu behar, behar bezala, edo-cein charqueri , nai-gabe , ta neque , eman daquion guero eternidade bateraco , doai hau bezain , doai eder billa-garria?

III.

JESUSen GORPUTzac, obitic ateratzean , zuen, ta AL-DArera dacarren , irur-garren doaia da bere arin-tafuna , ta ibillera vicia.

ECUSTen dezu , lurre-tic cein uruti arquitzen diran, Ceruco izarrac?

BADA emendic izar-rac baño , izar-etatic urrutiago arquitzen da JESUSen GOR-PUTza ; ta al-ere , Apezac con-sagratioco hitzac erran ar-tean , eguiten du JESUsec , andic ALDAreñaoco vide ; ta bere bat eguiñen luque , milla ta milloi bider urrutiago , ta urrutiago ba-lego ere ; bada, San BERNARdoc dionaz, go-goac adiña vide eguin dezaque Cerucoaren gorputzac ; eta ba-daquizu , ez-da-bai-da batean gogoac eguin oi duena , ta arquitzen dela , berac naidue-nean , dembora ber-berean ere, emen , ta Ceruan , ta non-nai gure gogoa.

ERA bereco doaia , ta ibillera , gu ill ondoan , gure gorputzei eman naiez , dator gure

gure JESUS bere GORPUTZ doatua-requin ALDArera, ta ALDAreco bere SACRAMentuan gure barrenera.

EZ dugu gure orretaraco, gure JESUSe bere etortze arin onequin eracusten diguna eguitea, besteric behar.

OTE daquiza zuc cer eguiteco den, gure JESUSe aldi onetan aguertzen digun, eguiteco hau?

HAU da, gure Jangoicoac bere LEGUEan manatzen dizquigun, gauzac zucen eguitea, ta eguitea gure gauza orietatic bacoitza bere aldian laster, ta gog-onarequin.

ERNE egotea gu, gure Jangoicoac Elitzan, videan, predicuan, libruz, edo gueren bacar-tafunean adiraten dizquigun, gauzac ontzat artzeco; ta alic leenena, ta zucen, ta ongui oriet eguiteco.

EGUIN ote dut nic hau orain-dañoco nere demborretan?

EZ beintzat beti. EZ eta erdietan ere! EGUnen batean hau aguerico da.

#### IV.

JESUSen GORPUTZaren ALDAreco laur-garren doaja da GORPUZ beraren meetafuna; ta nondic nai sartu-gaia.

VIZtu cenean, ateracera cen bere obitic gure JESUS maita-garria, GORPUTZic izan ez--pa--lu bezain, aisa, ta gañeco arria quendu ere bague.

NOLA, uste dezu? ARRIc igarotzen ceta JESUSen GORPUTza, EGUZquiaren arguia christal baretic igarotzen den, bezain aisa.

BERE bat ateraco cen gure JESUSen gorputza, arriac baño, aguitz gueiago atera videac quentzen dituen, bronchez ingurutua egona gatic haren obia :gloriaz betea cegoen alabaña, viztu cetic, gure JESUSen GORPUTza, ta orietatic, espiritu utsa bai-liz bezala, cen lan onetaraco JESUSen zori oneco gorputza.

BERE bat gueldituco da gure gorputza ere, lan bereraco, orain gure zucen eguitera, JESUSe bere doai onequin eracusten digun, gauza.

CER gauza ote da, bere ateratze mae onetan gaur guri gure JESUSe aguertzen diguna?

GUEn asmo astun-loi-galgarriguciac gure uztea. ARAGuiaren naicunde ciquinei gueren bihotzetan toquiric gure ez eguitera. ZUREac ez diran, gauzen cargac zuc ez artzea, edo

edo oraingotz artuac ba-dau-  
de, bere lecura oriec zuc itzul-  
tzea; ta cere bihotza orain  
ongui garbituric, amore onaren  
futarequin, lurreco ezatafunic  
bague lembaitlen zuc uztea.

ORRA gorputz doat-  
fu-taraco emen acitzen denaren  
zori oneco egoera. ORRA gu-  
re JESUSen gorputzac, bere  
doai, ta edertafun guciequin  
gure gorputz-entzat billatzen  
duen egoera, zori onecoa.

ETA izanic gorputzen  
ego-era hau, zuc cerorrec ecuf-  
ten dezun, bezain ondafun-  
duna; ta ego-era ondafun-dun,  
eternidade gucian irauin behar-  
ra, ez ote dugu guc irabaci  
behar gure JESUSec ALDA-  
reco bere etortzea-requin era-  
custen dizquigun, gauza chi-  
qui cembait ez eguin naiez?

GUre ero galduac, ori  
guri guertatzera!

1.

EGREDIMINI, ET VIDETE FI-  
lia Sion Regem Salomonem in  
diademate, quo coronavit illum  
mater sua. Cant. 3. 11.

**A**TOZte Animac (erraten  
dizue ESGRItura Santac,  
zuec comuniatzeco zaudezten  
demboran; edo ceren JESUfi  
zuec, ceren agurrac eguitera  
Elizan sartzera zoazten aldian)  
atozte, bada, ta ecufico dezue,

nola arquitzen cen len PILA-  
TOsen echean, ta nola dagoen  
gaur ALDAreco bere SACRA-  
mentuan gure JESUS maita-  
garria.

LEN ezarri cion SINA-  
goga gaistoac, Ugaz-Ama go-  
gorrac bezala, edo ezarri cio-  
ten len LEGUE zarreco IS-  
RAELdargogorrac, arantzaz-  
co coro izugarri bat Erregue  
Salomon, baquezco Erregue,  
JESUS maita-garriari; baña ora-  
in orren ordez, eta orrec ar-  
eraci ciozcan onace, ta neque  
gogorren alde, ezarri dio gure  
Jaunaren jaquiundeac, edo Aita  
eternoac, arguiz, ta izarrez  
eguiña baliz baño, aguitz eder-  
ragoa den, beste bat.

ECUfi zazu orain al  
dezun, eran, edo finiste onez,  
ta Ceruco arguia-requin, ceia  
ederqui dagocan gure JESUS  
maita-garriari bere arguizco  
coro hau.

BFguiz zuc gaur dagoen  
eran, gure JESUS ecuftera, at-  
seguin utsez bertan illa gueldi-  
tuc cinaque.

ILL etzaitecen, bada,  
ta zure irabaciraco, gorderic  
dago gaur gure JESUS maita-  
garria oguiaren aintzuran, edo  
loñeco-pean: baña cein ere  
gorde bildua dagoen or gure  
JESUS maita-garria, adiraci zai-  
tzun



tzun baño ere, aguitz, eta aguitz ederragoa dago : ta dembora berean , urbiltzen zaizcanac ongui artu naiez dago.

ZOAZquo, bada, agur-rac, eta agur on humillac eguitera. ORI, ta anitz, eta anitz gueiago ere zor diozu zuc, or gorderic aguertzen zaitzun, ori: ori da alabaña zure Jangoico onguille maita-garria; ori da zure Salvatzallea; ta ori zure Erreguea: baña ERREGue ecin-obeá, ta ecin-maita-garriagoa; ta ERREGue, zure oneraco, milla nequeren buruan, bere vicia, ta odol gucia emanicoa.

EDERtafunez jauntzic dator gaur, ta gloriazco Coroa-requin zure ERREGue maita-garri ori; ta era orretan dator-quizu, zuri adiratzeco, or bera dela, beraren iceneco nequeen irabacia.

ZOAZquo, bada, bere eracuste andi eder onen esquerrac ematera; ta gaurguero berac nai duena baicic, eguin nai ez dezula, hitzez, edo bihotzez or berari erratera.

2.

ECCE IN MANIBUS MEIS DES-  
*cripsi te. Isai. 49. 16.*

**A**TOzea, dio gure JESUS maita-garriac, atozea; urzi dezaque Ama batec atzen-

tzera bere errai-etaco hume-choa? ECUS dezaque harc bere hume cho hau negarrez itozten, oñacez beteric, edo beste cerbait ichura galgaritan, ezpaliz baño guiago urricaltzen etzaiola!

EZ da erraz arkitzen, ez orrembat gogortafun Ama baten erraietan. Baña arkitzen ba-liz ere gogor-tafun ori haren baitan, ez naz ni, ez, dio JESUS maita-gariac era orretaco-etatic.

AMARI bere humeac baño, anitz neque gueiago zuc niri areraci izandu didazu, bai. NERE PASio gucico, ta nere gurutzeco neque guciac zuc niri ar-eraciac dira, edo nic neronec zure amorez artuac. Eta nic naia gatic ere, ecin atzen zaitzaquedana zara zu: escuetan daducat alabaña nic zure icena; ta maiz beguiratzen dut nic nere bi escu-etara, nere escu ber-etaco zuloen señaleac, edo siñuac nere Aitari nic aguertzeco zure, ta gañeraco becatari gucien alde.

ALDAREAN ni gorderic egona gatic, ez daude, ez neretzat gordeac, dio JESUS maita-garriac, nere escuac; ez eta zure icena ere.

BETI zuade zu nere gogoa; beti zuade zu nere biho-

hotzean ; ta zu ni ganatzen zaran gucietan , edo zuc ni comunione oneco maian artzera , edo zuc niri ALDARECO nere Sacramentuan agur eguitera , atseguin on bat ematen didazu zucniri ; ta guelditzen naz ni , zu beti ta beti nere bihotzeco amorearen suan erre , edo urtu nai andia-requin .

ATOZ bada maiz-maiz atseguin ori niri zuc emen eguitera . EZ dira izain , ez etortze galduac , aldi orietan niri zuc eguiren dizqui-datzun , etortzeac . ORien alde emain dizquitzut nic zuri ( ta pozic al-ere ) , zuc ni maitatzeco , ta cereburua zuc ontzeco , beharco dituzun , gauzac .

JESUS , ta zure oneguia ! ta zure maita garria ! MUNduaren bazterric urrutienan arquitzen ba-ciña ere , ez nuque atsedan behar , zu nic ecusi artean ; ez eta quendu behar ere zure begui-etatic , ecin bestez baicic ; eta , onen alde zaduzcadala , egon behar dut nic , ez-pa ciña baño , gueiago billatzen etzaitudala .

EZ nuque behar , ez , nere JESUS maita-garria ; baña ori da , ascotan beintzat , nic orain dañocoan eguin izandu dudana !

III

BAÑA orain , len nic orren gaizqui eguiñaz ongui damuturic , eta era bereco gaizqui bat berriz , ez eguiteco asmoa arturic , escatzen ditzut nere gaizqui gucien barcamentua , ta oraingo nere asmo zucen garbi on onetan irauteco gracia . INDAZU hau zuc nere JESUS maita-garria : bai arren , bai .

3.

VI DE ARCUM , ET BENEDIC eum , qui fecit illum ; valde speciosus est in splendore suo. Eccli.

43. 12.

ZURE Escrituran esaten zaicu , gure Jangoico maita-garria , Ceruco odei artean aguertzen zaicunean , anitz aintzura , iduri , edo colore dituen , arcu bat , esquerrac esquerraren gain , ta anitz benedicione zuri guc emequi emateco , ceren arcu hau den zure-escuetaco gauza ; ta gauza , den , bezain ederra .

BAÑA ba-dut nic , bai , nere lan on zucen orre-taraco , arcu ederragoric ere ; ta , arcu Ceruco hau baño , maizago niri aguertzen zaidanasta , arcu zure eicu ber-etacoa ; bada ba-dut nic ALDARECO SACRAMentuco odei-pean Jangoico ( zure virtutez ) guizon eguiña ; ta JANGOico-GUIzon

Q

ez

ez ill , ta ez neca ditequena ; JANgoico-GUizon, gogoa bera bezain ibillea ; Jangoico-Guizon Espiritu ut-utfa dirudienas ; ta Jangoico-Guizon anitz-iduriz , arguz , ta eder-tafunez, behar den , eran jauntzia.

ARCU eder one gatic , bai , eman dizquitut nic orain , ta beti , ta eternidadean, alditudan esquer guciac : bada, arcu eder one gatic ez-izatera, itoa nintzaque ni aspaldi gucian nere becatu ciquinen uveldez , ta fulecera beharra nintzaque ni beti , ta betiraco.

ARCU eder onec daduzca , lotuac bezala , zure esfuac , nere Jangoico maitagaria , niri zuc orain-dañoco nere becatuac gatic gaitzic ez eguiteco.

ARCU onec escatzen dizu , aguertuz zuri, zu gatic be- rac eguin , ta eraman izandu duena , ta zuc cerorec orre gatic eman diozun , edertafuna , barca dizqui-datzula orain arteco nere becatu guciac ; ez nazazula utzi , berriz becatu- ratzen , ta didazula zuc niri, orretaraco beharco dudan , zure laguntza , ta gracia ; bai , ta

anitz gueiago ere.

ESQUERRAC , bada , zuri , Aita eternoa, cere odei- etaco arcu ederra gatic , eta, ori ecustean , berritzen dituzun , cere baqueac gatic.

BAÑA esquerrac , eta esquerrac , eta eun milla bider, milloi-etan zuri esquerrac, ALDARECO SACRAMENTUCO odei zuri gorrien artean daducazun, cere ARCU eder , ta ederrago, cere Seme-guizon eguina gatic ; bada onec , odei-etaco beste harc baño , aguitz obequi palacatzen zaitu zu ; ta hau da , hau , nic nere alde , duquedan , Bitartecoric onena.

ZURE Arcu eder , nere Bitarteco ecin obe onen amoreac gatic , bada , ta onec zure icenean eguin duena gatic ; bai ta , hau ecusteac zuri ematen dizun , atseguin andia gatic ere , indazu zuc , nere Jangoico maita-garia , gaurguero becatuz nic zuri atsecaberit ez eguiteco gracia ; ta orain-daño- coan eguin ditudan , gucién barcamentua. Ori escatzen dizut damu on andia-requin , ta cinciñez erraten dizudala : **NERA JESU-CHRISTO, &c.**





# LXX-GARREN OTOITZ-GAIA.

ALDAREAN DAGO JESUSen ODOL GARBI, ANIMEN  
garbitzallea.

**G**URE JESUS guelditzea, guelditu den eran, ALDAREco bere SACRAMentuan, edo guelditzea JESUS or oguiaren idurian, oguiaren soñeco-pean, edo oguiaren aintzuraz, ta accidentez estalia alqui, ta sobera cen, guri gu ganaco bere ongui naia, ta amore andia guztiz edequi adirazteco : baña, guri hau obequi adiraci naiez, guelditu cen JESUS bera ardoaren idurian ere, edo Calizan; ta guelditu cen JESUS jan-edan--gai orien idurian, gure Animen janari, ta edari izateco.

SACRAMentu hau emen JESUSec utzi, ta lembicico dembor-etan comuniatzen ciranac, comuniatzen ciran, Apaizen eran, edo Hostiaren ondoren, ardo confagratutic ere artzen zutela; baña guertatzen ciran JESUSen odolaren isurtzeac, eta

beste gauzac; eta guero quendu cen comunio-era ori; ta ERROMAco eran vici diranetic ez da aspaldian, FRANCesen ERREGuea baicic, orrela comuniatzen denic : gañeraco, Apez ez-diranac, Hostia utsa-requim comuniatzen dira.

BAÑA bi aldiz, lenecoen eran, ez artua gatic, bere bat artzen dute, lenecoac, eta orain onela comuniatzen diranac; bada ez dago CALIZan, HOSTIan dagoena, baicic; bitan dagoena, era batean bietan ez egona gatic; ceren Calizan, JESUSen odolari dichezcola, daude Hostian, JESUS beraren gorputzari dichezcola, dauden, gauzac; eta ez da Hostian, Calizan ez dagoen, gauzaric; ez eta Calizan ere Hostian dagoen, gauza bera baicic.

s. I.

NON, NOLA, TA CERTA-  
co ifluri zuen JESUsec, AL-  
DARECO bere Sacramen-  
tuan ematen digun,  
bere odola?

**O**Rain JESUsec duen, ta  
ALDAREAN guri ematen  
digun bere Odola, anitz aldi-  
tan, ta zatica azquen tantara-  
ño JESUsec ifluri zuen, Odo-  
la da: ta gure amorez ifluri  
zuela, guri adiraztea gatic, if-  
fluriaren eran daduca, edo, za-  
ñeratic aterea ba lego bezala,  
daduca JESUsec Caliz confa-  
gratuan bere Odol hau.

NOIZ, uste dezu, aſi  
cela JESUS gure amorez Odol  
hau iflurtzen?

BERA jaió, ta zortzi-  
garren eguneco.

NOLA ifluri ote zuen  
horduan JESUsec lembicico  
bere Odol zatia?

CIRCUNCISIſOCO cani-  
betat aragui zaticho bat quen-  
tzen ciola, ta oñace andi-equin,  
ta deshondra char ifluria-re-  
quin.

BAI; oñace andi-equin  
ifluri zuen JESUsec bere Cir-  
cuncifiſoco Odol zatia: ba-  
daquizu alabiña, cein mimbrea  
den, adin hartaco, aurcho bat;  
eta cein andia, aurcho mim-  
bere bati, bere, goiputzeco

edocein zatiren quentzeac emã  
oi dion, miña, ta oñacea; ta  
JESUii, bere Circuncifiſoco aldi  
hartan quendu cioten, beſte  
edoceñ aurri bezala, bere ara-  
gui zaticho bat; eta quendu  
cioten hau alde guztiz mimbere-  
retic: eta quendu cioten oñá-  
ce guztiz andiequin; ta dem-  
bora berean guelditu cen JE-  
SUS maita-garria, odola cerio-  
la, ta bere hondra ere illun-  
duric guelditzen citzaiola; ba-  
da quendu cioten bere zaticho  
hau, becatariari bezala, ta beca-  
tariaren arraftoa-requin, edo  
feñalea-requin uzten zutela.  
ETA al-ere pozic eraman izan-  
du zuen gure JESUS maita-gar-  
riac horduco canibet-ucaldia,  
bere Odol iflurtzea, ta def-  
hondra gucia.

BA-daquizu cer gatic?  
CEREN cequien gure JESUS  
maita-garriac, hau cela aldi har-  
tan har gandic haren Aita eter-  
noac nai zuena, ta bere Aita  
aternoari atſeguín hau eguitea  
gatic.

BAÑA certaco nai ote  
zuen horduan Aita eternoac  
hau bere Seme JESUS ona  
gandic?

GUre oneraco, ta gu-  
ri eracutſi naiez, era bereco  
aldietan guc eguin behar du-  
guna; bai ta nola eguten den  
etc.

EOIZ

*dagozten Oioitz-gaiac.*

131

NOIZ ote?

BERE demboran, edo gure Jaunaren Legueac, edo haren ordez dagoen, edoceñec manatzten digunean.

CER ote da, horduan guc eguin behar duguna?

ECER utzi gabe, manatzten, edo aguintzen, zaicun gucia.

BAÑA nola?

LATZA den, gogorra den, oñacezcoa den, edo alque-garria den, edo ez, bequiratu gabe; ta itsu-itñuan bezala, ta gure Jaunari guc atseguin ori eguitea gatic; eta ori guc eguitean, eguiten badigu norbaitec ebaquitzeren bat, edo edocein charqueri, gure Jaunaren icenean hau guc eme-emequi, ta bat ere alaldatu gabe, ontzat artzen dugula.

ONETaraco da, ta lan hau onela eguiten guri eracuf-teco, aldi onetaco JESUSen Odol-issurtze oñacezcoa.

ETA eracufte hau be-  
rau eguiten digu guri gure JESUSec ALDAreco bere SACRAMentutic, horduan issuri zuen, Odola, gañeraco bere Odol gucia-requin batean, emen esqueintzen digunean.

ICASI dezu? EGUiten dituzu zuc zuc-en-zuc-en? eguiten

dituzu zuc guztiz oforo, ta bat ere tricatu, edo guelditu bague, cere Jaunac zuri manatzten dizquitzun, gauza guciac, naiz latzac izan, ta naiz arin-errazac? ETA eguiten dituzu zuc gauz oriec, nai dezula, bilhotz oloz, ta nai gabe-cutsu guciac andic quenduric?

BEREBat guerratzen zaitzu zuri, zuri ez dagoquitzun, edo zuc nai etzenuquen, cerbait eguiten dizuten, aldietan?

ALA ba-da, ba-daquitzu zuc cere JESUS maita-garriac, Circuncisioco bere Odol-issurtzea-requin, ta ALDArean gueroz ematen dizun, Odola-requin adirazten dizun, cere eguitecoa. EGUIZU zuc hau beti, daquitzun bezala; ta ongui eguinen dezu zuc, zuri dagoquitzuna, ta aldi onetan JESUS maita-garriac zu gandic nai duen, lembicico gauza.  
II.

BIgarrena da, bere bigarren Odol issurtzea-requin JESUS maita-garri berac eracuf-ten diguna.

JESUSen bi-garren aldi-co Odol issurtze hau aguitu, edo guertatu cen GETSEmanico baratzean, JESUS bera bere etñajen escu-etara baño, len:

ta

ta aguitu , edo guertatu cen,  
gure JESUS maita-garria , bere  
neque etor-quizun-etaraco be-  
re burua prestatzen cegoela.

BA-cequien , bai ( ta  
ongui al ere ) , gure JESUsec,  
hordu hartatic aſi , ta bera be-  
re gurutzean ill arteco dem-  
boran , eramam beharco zuen,  
nequea, neque guztiz arri-garria  
cela : ta , bere Aitari atleguin  
eguitea gatic , eta gure onera-  
co naia gatic JESUsec ( nai zuen  
bezala), beraren Aitac nai zuen,  
edocein neque , ta gauza ,ba-  
cequien JESUsec cembat nai-  
gabe , cembat oñace , ta ne-  
que ciran JESUSen Aitac nai  
cituenac ; eta orrembat neque-  
ren oroitzapen vicia , ta neque  
oriec guciac JESUsec artu-naia  
pelean bezala ibilli ciran JE-  
SUSen bihotz mimbere maita-  
rian ; ta bere pele onen nequeac  
urzi zuten JESUS, burutic one-  
taraño, icerdi Odolezcoa cerio-  
la : baña azquenean JESUSen nai  
onac garaitu cituen , uſte ci-  
tuen , nequeen naigabeac.

CERTaco ote cen gure  
JESUS maita-garriaren aldi one-  
taco Odol illurtzea , ta bera-  
ren barreneco pelea?

GURi eracusteco , eguin  
behar duguna guc, gure pafio-  
ne vicien naicunde macurrac  
garaitu-naiez dabiltzanean arra-

zoia , edo , eguin behar den,  
nequezco gauzaren ezagu-era.

CER gauza ote da , guc  
eguin behar dugun , nequezco  
gauz ori?

ONGUI beguiratzea  
guc bein eritalunari , videga-  
beari , gabeari , oñaceari , ef-  
quer gaſtoari , edo datorqui-  
quegun , edocein gauzari : ta  
guero ori guc emequi erama-  
teco , gueren Jangoicoa gan-  
dic behar dugun , Jangoico be-  
raren laguntza indartſuari , ta  
graciari ; bai-ta , Jangoicoaren  
laguntz onequin emequi guc ez  
eramatera gueren neque oriec,  
guri dagoquigun , ſulececo  
neque arri-garriari ere : ta ori  
gucia guc ongui eculi-on-  
doan , ez ſuleceratzea gatic  
gu , ta andic igueſ-eguin , ta  
gueren Jaunaren eſcutic dato-  
cen , ondaſunac guc irabazte-  
co , gueren pafioneac guc ef-  
curatzea ; ta era onetaco , edo  
beſte edocein lan , edo neque,  
datorquigunean , ori emequi,  
ta zucen eramateco gueren  
buruac guc ongui prestatzeas  
orretaraco maiz beguiratzen  
zaiola, Odolezco icerdia-requin  
prestatatu cen gure JESUS mai-  
ta-garriari ; ta JESUSen GET-  
SEmanico neque arri-garriari.

ORI gucia guc eguite-  
ra , eguiten dugu JESUSen hor-  
du-



duco Odol issurtzeac eracutsi ciguna, ta gueroztic JESUsec berac bere odol gucia-requin ALDARECO SACRAMENTUAN eracusten dagoquiguna.

BAÑA uti eguin dut nosqui nic (eta ascotan al ere) orain dañoco nere dembora gucian : ta zori onecoa ni, leneco nere utfac ateraric, prefatzen ba-naz ni, usqueta berri-ric ez eguiteco ; ta, usqueta berriac eguin lecuan, eguiten ba-dut nic, nere JESUsec len, ta guero eracusten didan, bigarren gauza hau.

III.

IRURgarrena da, bere irurgarren, ta gañeraco Odol-issurte-equin, ta gueroz ALDAREtic JESUsec guri eracutsia.

BERriz, ta berriz ere issuri zuen JESUsec bere Odola ; bein, ta berriz PILATOlen echean, guero GALVARIOCO videan, ta azquenean GALVARIO berean ; ta GALVARIOan, ill baño, len, ta ill ondoan : ta bazter gucietan issuri zuen JESUsec bere Odol hau anitz neque requin ; bada issuri zuen edo anitz-eta anitz azot-ucaldiz urratzen zutela, edo arantz-zorrotz-gogorezco coroa-requin bere burua zulatzen ciotela, edo beraren gorputz lanutuari itasía cegoen, soñecoa quen-

duz, ta ezarriz, edo era orretan cegoela, gurutze astun lucea-requin jaiqui-erori cerabil-tela ; edo iltzez escu-oñac zulatuz, edo burdiñezco lantza gogorra-requin bular-bihotzac urratzen ciozcatela.

ORRA cembat alditan, (ta aldian cembat neque-requin!) atera cioten JESUS maita-garriari bere zan-etan, ta gorputz gucian, ta bere bihotz maitarian zuen, Odol gucia! ETA orra gure JESUsec ematen digu ALDARECO bere SACRAMENTUAN ongui bildua orrembat alditan gure amorez issuri zuen bere Odol hau gucia.

CERTACO ote?

EZ daquizu? COMU-  
muniatzen garanetan guci-gucia guc edateco ; ta dembora berean ecusiric guc, gure amorez issuri zuela JESUsec bere odol hau gucia ; ta issuri zuela gucien-gueiena etfaien escuz, ta neque arrigarri-equin, ordez escañi dezogun guc JESUS berari, gure zañetan, ta gure bihotzean arquitzen den, gucia ; bai, ta issuri behar ba-guenu ere, den gucia, gure etfaiac nai duter, den guc, ta vide-gabe ; edo ordez escañi dezogun hitzez guc, eta adiraci dezogun bihotzez gure JESUS maita-garriari, artuco dugula guc beraren icenean, ta alic

alic emequiena, edocein nai-gabe, quezca, ta neque; neque, quezca, edo nai-gabe ori guri datorquigunean gueren etsaien escutic, edo beste edocein videz, ta eran.

HAU da, bai, hau len ta guero JESUsec guri eracusten digun irur garren gauza: ta, hau guri eraguin naiez ciran, JESUsec en leneco bere odol-issurtzeac; eta odol-issurtze ain gogor-arri-garriac: eta onetaraco bere-raco dira JESUsec odol beraren SACRAMentuco gu gantzeac.

BAÑA eguin ote dugu guc, gure JESUsec eracusten digun, gauz eder ondafun-dun hau? EGUIN ote dugu guc onen laurdenic ere?

EZ eta gutiago, ta gutiago ere! ETA lan onetan hari beharrean gu, nai ez guenuen, hitz erdi bat guc' aditu horduco, oin-peco fugue bat bezala, guñan gu, edo futuac, eta furrustadaca guembiltzan gu.

ETA bere bat guertatzen cequigun guri, edocein charquen guc ecusi horduco.

BAÑA ezaguturic orain guc, gure JESUS maita-garria, orain-dañoco gueren esquer gabe-queria, ta zure odol-eder-rac lengo bere illutze-equin,

ta ALDARECO oraingo egoerarequin adirazten digun, gucia, eguin nai dugu gaur-guero guc, (eta alic zucen-quiena) hau gucia; zuc cerorrec orretan laguntzen diguzula. LAGUN-egui-guzu bada, daguiquezu-nac bezala: bai arren, Jangoico maita-garria, bai.

### §. II.

ALDARECO BERE ODOLEAN JESUsec aguertzen dizquitgun, ONtasuna, ta AMOrea.

ILLEN artetic vitzuric JESUS ateratzeco, bildu zuten JESUsec berac berez, nai duen, gucia dezaquenac bezala, edo bere Aingueru onac orretaraco bidalduric, illuri zuen, bere Odol gucia.

ODOL hau, anitz lecutan cerzàn, Odola cen; ta baldin bildu ba-zuten, Jangoicoac hartara bidalduricaco Aingueruac, batzuec joan ciran PILATOSen echera, besteac GETSEmanira, besteac JERUSALengo calcetara; besteac GALVARIOCO videra; ta gañeracoac GALVARIO berera; ta ez-da-bai-da batean bildu zuten, cen gucia, tant-erduric ere utzi gabe; ta utzi zuten JESUsec zañetan, ta bere toquian, andic atera cenean bezain, garbi ederra.

EZ

EZ da erraz [adira]ztea guc, cernbat atseguin artu zuen JESUSen Anima maita-garriac, bere Gorputza artu, ta ecusi zuenean, an bildua, issuri zuen, bere Odol gucia: artu zuen alabaña horduan bere Odol hau berriz ez issurtzeco; ta artu zuen, berari SALVATzalleari bezala, cegocan, neque arigurrizco bere lan gucia bucatu ondoan; ta SALVATzallearen lanac escatzen zuen, poz-atseguiua gucia bertatic artzen zuela; ta poz-atseguin bera eternidade gucian beti artzeco.

BADA, andia ba-da Soldaduen poz-atseguiña, Soldadua, beren etfaiac garaitu ondoan, etfaien diru cernbait, arma, ta soñeco elcarren artean zatitzen dutenean, cer nolacoa izain cen, JESUS onac, berac bere pelean issuri zuen, Odol gucia bilduric, eta bere toqui-an ecusi zuen aldian, eta bere Odol-issurtzetic, eta PASSIOneco nequetic cetorquion, gloria artu zuenean, horduan artu zuen bezala, izandu zuen poz-atseguiua? CERUco Santu, ta Santa, ta Aingueru guciac dutena baño, anitz, eta anitz andiagoc: ta orre gatic, guc adiraci dezaqueguna baño, aguitz, eta aguitz andiagoc.

POZ-atseguin bera du

III

gueroztic beti gure JESUS maita-garriac; eta ez du galtzen ez, ALDARECO bere SACRAMentura datorquiguneã ere. EZ: poz-atseguin-contentu ber-berra-requin, ta guci-guciarequin datorquigu SACRAMentu andi onetara; ta SACRAMentu onetara datorquigu, gu ganaco ongui naiez, ta amorez ecin gueiagoraño betea; ta datorquigu, guri emen bere Odolez gracia, ta atseguin andiac ematera.

Noraño coc dirala, uste dezu zuc, guri emen eman nai dizquigon, graci-atseguin-on-dafunac?

GUC artu al guci-guciac. ETA, anitz, eta andi-andiac guc har gandic emen artua gatic, anitz gueiagoc, ta andiagoc ar-ditzagun naia-requin guelditzen da emen gure JESUS maita-garria; ta nai luque JESUSec, urbiltzen ba-guiña gu maiz-maiz; ta aldi oro, lenagoc aldian baño, ontzi andiagoc-equin, edo Anima, ongui baño, obequi prestatu-equin aldian baño, aldian gracia, ta atseguin gueiagoc guri emen bere SACRAMentu andi onetan emateco.

JESUS! ta gure JESUS-en ONtasuna, ta amore buca-eracic baguecoc! AMBAT JE-

R SUS-

SUSen Odol-issurtzeri ain gaiz-  
gai guc, eta becatuz erantzun  
izandi; ta al ere gure JESUS  
bere Odol-gucia berequin due-  
la ALDARECO bere Sacramen-  
tura, or Odol ori gucia, ta,  
orrequin batean, gucar al adi-  
ña gracia, atleguin, ta conten-  
tu guri ematera, guri JESUSec,  
gueren elquer-gabe tasun itfusia  
gatic, eta gañeraco becatu arri-  
garriac gatic guc artu behar  
guenituen, emengo neque an-  
diac, eta gueroco tutecea eman  
lecuan?

EGUIN cezaquen one-  
lactoric gure JESUS maita-gar-  
riac, JESUS ez izatera Jangoi-  
co guizon-ecin-obeia? EZ iza-  
tera gure JESUS gure ecin maita-  
zalleagoa?

ECUSTen dezu, orain  
ba-dere, cein andia den, ta  
cein bazter baguecoa, gure JE-  
SUSec bere Odolaren emaeran  
eracusten digun, ontafuna, ta  
amorea? Ez oraindic behar be-  
zala, ez. Adi zazu oraindic orre-  
taraco cerbait gueiago.

#### IV.

OStegun Santuz, ta gu  
gatic ill baño, len utzi cigun  
guri gure JESUSec ALDARE-  
co bere SACRAMentuan bere  
zañetan, bere bihotzean, ta  
bere barren gucian zuen Odol  
gucia.

HAU guri gure JE-  
SUSec uztean, erran izandu  
cien, hordu hartan berequin  
ceduzcan, bere Apostoluei:  
ona non dezuten CALIZ one-  
tan TESTAMENTU berrico ne-  
re ODOLA; ta Odol, zuec  
gatic, eta maundu guciaren one-  
raco, nic illuri, edo eman be-  
harra; ta becatu gucien barca-  
menturaco nic pozic emain,  
ta illurico dudana.

ETA ala guero, JESUS-  
ec eman ere, ta illuri zuen, guc  
len ecuti dugun bezala.

ECUSTen dezu, cein  
ona den gure JESUS, ta cein  
emallea?

BECATu gucien barca-  
menturaco, ta mundicoen one-  
raco, asqui cen edocein bere  
Odol tanta JESUSec issurtzea;  
bai, ta aguitz, eta aguitz gu-  
tiago ere: ta gure JESUS maita-  
ta-garriac orretaraco issurtzen  
ditu Odol tanta bat ez ecic,  
anitz milla Odol-tanta ere; bada  
issurtzen du, bere gan, edo bere  
baitan zuen Odol guci-gucia.  
ETA, zuena baño, anitz-eta  
anitz gueiago berequin JESUSec  
aldi artan izatera, illurico zuen,  
tantaric guelditu gabe, hordu-  
co guci-gucia ere.

MUNDUCo gucien, ta  
anitz milla milloien oneraco  
illuri zuen aldi hartan Jainco-  
gui-

guizō, JESUS maita-garria, berequin zuen, odol gucia: baña, beraren Aita eternoac ala nai izatera, bere bat eguiñen zuen JESUS maita-garriac edocein guizon bacar-bacarra gatic ere; bai-ta munduan garan gucioc gatic ere, bacoitza gatic bein, eta banaca gitero gañeracoac gatic, edo munduan cembat garan, ambat aldiz ifluri behar izandu ba-lu ere, ta aldian ifluri heharra gatic, len ifluri zuen, adiña neque, ta oñace arrigarri-requin.

ECUSten dezu orain, len baño, obequiseago JESUS-en ontafuna, ta gu ganaco ongui naia, ta amoreac?

V.

BADA ba-dezu oraindic gueiago: cer ecusi JESUSen Odol eder maita-garrian.

JESUSen Odola da, ecusi dezun bezala, TESTAMentu berrico Odola. TESTAMentuan bereiften da ondorengoac, edo herederoa, ta uzten dira cembait manda, edo amoriozco señale; ta eguin zuen JESUSec arrats hartan hau gucia, eguin cezaquen eran, ta eguin zuen, ontafunez, ta amorez beteric arkitzen cen, Jan-goico guizonac bezala.

JESUSen echea Ceru gucia da, ango bere gloria-

requin. CERUco gloria, bazterric bagueco gloria, ta ontafuna da; ta bat ez-ecic, naiduten, guciac baretan, ta eternidad gucian artu, ta alditzaquen, ontafuna, JESUSec bereci zuen bere ondorengoac, edo beraren ondoren an tartu beharra, bera-requin batean beraren gloriaz an jabetzera.

NOR ote da ori, edocein?

JESUSen odol garbian garbitzen den edocein, edo JESUSec nequezco bere Odol-ifsurtzez irabaci cigun, gracia-ren ur ederra-requin BATAioan garbitzen dena, ill artean ciquintzen ez dela; edo, anditu, ta ciquindua gatic, Odol beraren confelsioco, edo ALDAREco, edo beste edocein SACRAMentuco gracia ren iturri-an garbitzen dena; baldin ateratzen ba-da mundutic bere azquen garbiera onarequin.

CER gatic JESUSec guria onembat ontarte?

BERE ontafun utsez, ta bazter bagueco bere amoreac gatic! ECUSten dezu noraño-coac? ADI zazu cerbait oraindic.

CER señalamentuac, eta mandac ote dira, JESUSen Odolezco, edo Odolaren Testamentuco mandac, eta señalamentuac? R2. Aguitz

*Jesufen amore-nequeci*

AGUITZ ederrac , eta andiac. AGUINTzen die gure JESUS maita-garriac, edo señalatzen die becatari char guciei ( artzera prestatzen ) ( aneco ) beren becatuen urratzea , ta becatu beren zor gucien barcamentua

AGUINTzen die , JESUSec , eta señalatzen die becatari berei , ta gañeraco, Cerura nai duten , guciei beren videraco behar duten , gracia- ren ondafuna , ta laguntza gucia : ta , oriei hau gucia JESUSec emiteco , ez die besteric escatzen , baicic , behar dutenean , ta noiz nai humilqui , ta zucen ori bera oniec berati escatzea.

ESCATzen ba-diotte hau oriec Aita eternoari , berac beren comunione aldetan artzen duten , JESUSen Odola aguertzen diotela , ambat obe : hau da alabaña , escatzen den , gloriaren , ta gloriaraco behar diran , gauza guciea gaia , edo prenda.

ECUSTen dezu cer den , gure JESUS maita-garriac , bere ODOLaren TESTAMENTU berrian eguiten , ta aguertzen duena ? CEIN on ! CEIN andia ! CEIN bazter baguecoa , JESUSec emen aguertzen digun , bere ontafuna , ta amoreal

HAU an ecuftea gatic bad-ere , erzara zu maiz Elizaraco ? EZ diozcatzu zuc agurta-agur andiac eguñen JESUS maita garriari , ALDARECO bere SACRAMENTUAN , an aguertzen dizun , bere ongui-nai , ecin andiagoa gatic ?

ETA , ar dezaquezun ezquero cere comunionean , ez dezu artuco zuc bein , ta bereriz , ta duquezun , aldi gucietan , cere JESUSen Odol-eder garbi gucia ; ta , beraren Odol onequin batean , ta bere ontafun , ta amore gucia-requin , cere JESUS gucia ?

ARTU zazu zuc , bai ; ta eguizu zuc hau , alic onguiena , ta aldi oro guztiz ederqui prestatzen zarala.

EGUIZU zuc hau , bai , ta eguizu aldian , al dituzun , Ceruco ondafun guciac artzeco almoa-requin , ta videnabar almo on bat zuc arturic , alic zucenena zu gueroz guciago Ceruco videan ibiltzeco ; ta bertatic esca zagozu zuc , leneco cere utf-eguite gucien barcamentua , ta hau gucia.

1.

SPNNSUS SANGUINUM TU MI-  
*hi es. Exod. 4. 25.*

AH, nere JESUS maita-garria ! erran dezoque gaur JESUgi , ongui nai dion,  
[deco-

edocein Animac. AH nere JESUS maita-garria; ta cein Odoltria zaran neretzat orain, edo gaur zu! JAIO berria zara gaur zu! Zortzi eguneco aurchoa zara zu! ta al-ere odolturic ecuften zaitut nic gaur zu, ta Odolturic ecuften zaitut ni gatic, edo zuc niri ongui naiez!

NOMBait andia da, nere JESUS maita-garria, zure BIHOTZ orretan gaur arquitezen den, ni ganaco zure amorea, ongui-naia, ta sua; zure fu, ongui-nai, edo amore orrec, ni bezain gauza char bate gatic orren goiz, ta lafter ar-erazten dizquitzonean orren neque gogorrac!

DAMUturic ote zaudede zu nere JESUS maita-garria,aldi onetan zuc ni gatic eguiten,ta ecuften dezunaz?EZ dezu ecuften cein ezagumentu charrecoa ni; ta cein esquer-gabea? EZ dezu ecuften, ez dudala nic eguiten orrembat cere Odolifurtze, ta neque-requin zuc niri eracutia? EDO ez dezu ecuften,gure Jangoicoac nai due na, nai duela, daqui-daneco nic eguin beharrean, gauzaren bat, ez horduan, ta ez guero eguin oi dudala nic orrelacoric?

AL-ere etzaitzu zuri,gu-re JESUS maita-garria, aldi hartan zuc eguiñaz bat-ere da-

mutzen? ta zuri damutu lecuan, ALDArean zaudede zu gau, ta egun, ta beti, len Odolez, ta cere neque andia-requin eracutia ceniguna, Odolez berriez emen eracusten; ta bein, edo bein gu centzaraci naiez.

ETA ez ote dugun gure JESUS maita-garria, noizbait, noizbait centzatu behar? EZ ote gara noizbat, noizbat asico gu, zu gandic gure gaur icuften dugun, hau eguiten? CERbait neque char gure gueren gain ez artu naiez, utzico ote ditugu gure gueren Jau-naren gauzac, eta aguintze man-uac?

DATOzen gure dembor-etan ibilli beharrac ote gara gu, orain-dañoco gucian bezala, JESUSen aur-tafuneco Odol-isturtzeari, ta gueroztic beti ALDAretic eguiten digun, Odolezco eracusteari beguiratzen ez diogula?

EZ baldin bere! GALduac gara gu, gu ala izatera; ta galduac gara gu, esquer bagueco guiza char errebesen, erā; ta anitz atsecabe, ta neque gogorren artean guero sartu beharrac! JESUSec berac digula, ez aratzeco, ta, eracusten diguna, zucen eguiteco beharco dugun, beraren laguntza, ta gracia. Bai, arren, bai.



2.

ACCESSISTIS AD... TESTAMEN-  
ti novi MEDIATOREM JESUM, et  
sanguinis aspersorem: melius lo-  
quentem, quam ABEL. Hebr.

12. 24.

**Z**ORI onecoac, JESUSen  
TESTAMentu berri-  
cota funetan, nai adina zati  
dezutenac ( erraten digu S. Pa-  
bloc)! ZORI onecoac JESUS-  
en Odol ederrean sartu, ta gar-  
bi zaitzekeenac; eta zori one-  
coac JESUS ona bezalaco, Bi-  
tarte bat arqutu dezutenac!  
bada Bitarteco on oneco ALDARE-  
co bere SACRAMentuan era-  
custen dio bere Aita eternoari,  
gu gatic isfuri zuen, ta gure  
becatuac atera cioten, bere  
Odola. GUC hau JESUfi atera  
diogu, ABELi berea bere Anai  
gaitto CAInec atera cion be-  
zain, gaizqui, ta videric bague.

BAÑA ez da, ez, JE-  
SUSen Odol isfuria, ABELen  
odola bezalacoa. ABELen odo-  
lac escatu, ta erditfi zuen CAI-  
nen eriorza: ta JESUSen Odolac  
ALDAREtic escatzen dio Aita  
eternoari gure gaizquiaren bar-  
camentua, ta seculaco gure vi-  
citz; ta hau hanc guri erditfi-  
co digu, guc ere Aita eterno  
berari cinez eguitera escaer-be-  
ra, ta otoitz zucen, behar  
den, eracoa.

EZ da, bada, zori one-  
coa, gutatic edocein, guc JE-  
SUSfi eguin ondoan, CAInec  
bere Anaia ABELi eguin izandu-  
cion, lanaren eraco lan gaitto  
bat, arqutzen dugunean guc  
JESUS bera gueren alde, ta gu-  
re Bitarteco eguina?

EZ gara gu zori one-  
coac, arqutzen dugunean guc  
( guc arqutzen dugun bezala  
emen ALDARECO SACRAMen-  
tuan ) gure JESUS, guc guero-  
c isfur-eraci guenion, bere Odol  
gucia-requin gu gana-naiez,  
JESUSen Odol hau aguertuz  
guc palaca dezagun, aserre  
daducagun, gure Jangoicoa,  
ta atera dezagun guc JESUS-  
en Odol beretic gure zorren  
alde guc beharco dugua pagu-  
gucia?

ATOzea; ta ez dugu  
guc, gu ongui prestatu ezque-  
ro, bere SACRAMentu andi-  
onetan JESUS artzera, ta JE-  
SUSec emen emain digun, gra-  
ciaren laguntz ona-requin eme-  
qui eramain, JESUSen Legue ber-  
riac dacarren, cer edo cer ne-  
que?

HAU onela den  
ezquero ( den bezala ) nere JE-  
SUS maita-garria, prestatuco naz  
ni nere al-eguiñean, nere gauz  
eguite hau, ongui, garbiri, ta  
zucen eguitera: ta, eguin de-

za-

zadan nic hau , bein ere utle-  
guin bague ; ta izain nadin ni  
dembora berean , zu ganatzen  
diran , zori oneco orietatic,  
eman behar didazu zuc , nere  
JESUS maita-garrria , cere go-  
gargia , laguntza , ta gracia. Bai,  
arren bai.

3.

TERRA , NON OPERIAS SAN-  
guinem meum , neque inveniat in  
te locum lateri clamor meus.

Job. 16. 19.

COMUniatzen zaran , Ani-  
ma , beguira zazu zuc ,  
eta ongui beguira , cer eguiten  
dezun JESUSen Odol gucia-re-  
quin arquitzen zaran , aldi-etan!  
EZ daducazula zuc or cere bar-  
reanean JESUSen Odol ori , lur  
pean datzan , gorputz baten  
Odola bezala , ta , cer zuri adi-  
raci nai dizun , aditzen ez de-  
zula.

ZURE damuz , ta Con-  
fessariaren absolucioz urratuac  
arquitzen diran , becatuen zor-  
ren barcamentu-esque dagoca  
zure barrenetic JESUSen Odo-  
la Aita eternoari. Zu Comu-  
niatzen zaranean , zure barren  
beretic escatzen dio JESUSen  
Odol berac Aita eterno bera-  
ri , utzi zaitzala zu , hura ortic  
atera gabe , elurra bezain , zuria  
bere beguietan , ta bere virtu-  
tez , ta doaez ongui-ongui,

ta guztiz ederqui-apaindua.

ESCATzen dio dembo-  
ra berean , dizula zuri bere gra-  
ciaren vicitza zati berri-indart-  
tu bat ; eguin ditzatzungueroz  
zuc , len baño , lan anitz obeac,  
eta anitz gueiago ; ta escatzen  
dio , eguin zaitzala zu berequin  
bat , edo dizquitzula , zuri , berac  
dituenen , eraco afmo , ta go-  
go zucenac ; eta , gucia zucen  
eguiteco zuc , beharco dezun,  
beraren laguntza , ta escua.


HAU Aitari escatzen  
dion demboran , escatzen dizu  
zuri ere JESUSen Odol berac,  
daguizula zuc , bat ere nagui-  
tu bague , lan onetaraco zure  
aldetic eguin behar den , guci-  
gucia. ZAUdela zu prest , zu-  
re vicierac , eta urteac dacaz-  
ten , nequeac , JESUSen ice-  
nean vicio zuc , eta arinqui  
eramateco , ta becatu bat ez  
eguitea gatic , zuc cere zañe-  
tan , ta bihotz gucian dezun,  
odola bertan emateco : ta es-  
catzen dizu videnabar , zabilza-  
la zu virtutez virtute , ta , zure  
Jaunac zu gandic nai dituen,  
gauza guciac zucen eguiten di-  
tuzula.

ETA beguira , nere  
Anima : ez da cer cfali , ce-  
re belarriac , JESUSen Odola-  
ren hitz-eguite zucen-eder-ecin-  
obe oriec ez aditzea gatic.

GU-

GUciac dira, zuc cerorrec ecusten dezun bezala, amorez beteac, ontasun utfezcoac, eta zuri dagoz-quitzunac. ETA, oriec orain zuc ez aditzera, ta eguiten ez-pa-dezu zuc, oriec adirazten dizutena, galdua zara zu eternidade guciraco, ta fulecean erretzen egon beharra.

ARA etzoacen zu, ta hitz on oriec adi-ditzazun emequi, contuz, ta behar bezala, garbi zazu zuc gaur cere bihotza, gortzen zaituen, cere becatuaren loietic; eta, becatua eguin cenuelaco damu andiarequin, errazu, orain alic cinquena: *NERE JESU-CHRISTO,*  
*66.*




## LXXI-GARREN OTOITZ-GAIA.

JESUSEN ANIMAREN ALDARECO EGOera.

**V**ICItzaric ez duen, orea dirudi, edo ogui zatichoa, gure beguiac JESUSEN ALDARECO SACRAMentuan ecusten dutena. BAÑA gauza vicia da (ta ongui vicia al-ere), oguiaren idurian, an arquitzen dena, ta guc gueren Comunione-etan artzen duguna: arquitzen da alabaña an, ta artzen dugu guc SACRAMentu ori artzean, gure JESUSEN gorputza, bere Odola-requin, ta gañeraco; Ceruan dituen, bere gauzequin; ta orien artean ar-

quitzen da JESUSEN ANIMA vicia; ta ANIMA JESUSEN gorputz-odolac vizturic, daduzcana.

ECUfi dugu len, nola arquitzen diran ALDARECO SACRAMentuan, ta certaco arquitzen diran an, gure JESUSEN Odol-gorputz viciac. ECUfi behar dugu oraingo aldian JESUS beraren ANIMAREN SACRAMentu bereco egoera, ta certaco-rafuna.



§. I.

JESUSEN ANIMAREN ALDA-  
reco vicitza, ta edertafuna.

I.

CERUan dena da ALDA-  
reco SACRAMentuan  
ere gure JESUSEN ANIma, ta  
an, ta emen da gure Jangoi-  
coaren aintzura, imagina, ef-  
piritu vicia, ta ecin ill ditequen,  
gauza, edo gauz ez illcorra.

BA-ditu gure JESUSEN  
Animac vicitza bat ez-ecic, irur  
ere. BA du JESUSEN Animac  
berez, dagoan, vicitza; ba du  
graciaren vicitza; bai ta, Aita  
eternoaren Semetafunac dacar-  
quion, vicitza ere. AZquen  
vicitz hau da, duen vicitzatic  
andiena. GRACiaren vicitza,  
berez duena baño, vicitz anitz  
obea da; eta berez duena ere  
vicitz-on-andi-lucea.

JESUSEN ANImari be-  
rez dagoan, vicitza, espiritu  
uts garbiaren vicitza da; ta vi-  
citz, Jangoicoa Jangoico den  
artean, edo eternidade gucian  
iraun beharra.

GORPUTZac ez du vi-  
citzatic, Animaric bague: orre-  
gatic guelditu cen illa guru-  
tzean JESUSEN gorputza, onen  
Anima ar gantic atera ceneco.

BAñA ez du gorputz  
beharric Animac, viciric ego-  
teco; ta, len bezain, vicia

III

guelditu cen JESUSEN ANIma,  
gorputza gututzean utziric,  
LIMoora cenean, ta obian ber-  
riz gorputz bera artu arte gu-  
cian: ta bere bat vicico cen,  
bein ere bere gorputz hau ez  
artua gatic; eta vicico cen, emen  
gorputzaren vicitzac dacartzien,  
neque-etatic bat ecusten etzue-  
la; ta Aingueruen, ta Jangoi-  
co beraren vicitzaren eraco vi-  
citzata batean; bada vicico cen,  
oroitzapen ederrezco, ezagu-  
era zucenezco, ta naicunde  
garbizco vicitzan.

ALA vicitu cen JESUS-  
en ANIma, ofstiral Santutic igan-  
de goiz-eraño. GOIZ haitan  
fartu cen JESUSEN ANIma be-  
re gorputzean; ta, bere fartzea-  
requin, quendu ciozcan JESUS-  
en ANImac bere gorputzari le-  
neco bere astun-tafuna, min-  
correria, ta neca-vide gucia; eta  
Anima bera guelditu cen, bere  
bacar-eran izandu zuen, vici-  
tza garbi-eder ecin-obea-requin.  
VICI-era onequin vici da gue-  
roztic JESUSEN ANIma; vici-  
era onequin vicico da eternida-  
de gucian; ta vici-era bera-  
requin dator gure JESUSEN ANI-  
ma ALDAreco bere SACRA-  
mentura.

II.

JESUSEN ANImac, bere  
lembicico asieratic cituén, bef-

S

te

te bi vici-erac, ANImiren berez-  
co vici-era, edo vicitz hau baño,  
aguiz eta aguitz obeac dira: dira  
alabaña Ceruco vicitzac, edo  
vici-erac. ORI-etatic bata da,  
JESUSen ANImari JESUSen  
Jangoico-tafunetic datorquiona;  
ta beitea, Jangoico-tafun onec  
efcatzen zuen, graciarena.

BEre bi vici-era, edo  
vicitz oriec utzi zuten JESUS-  
en Anima, ta JESUSen guiza-  
tafun gucia ecin gueiago-ra-  
ño fant-eguiña; ta utzi zuten,  
Jangoicoaren Animari cegoz-  
can, gauza guciac eguiteco,  
behar zuen, indar, ta lagun-  
tza gucia-requin.

EGUIN cituen, bai, gu-  
ci-guciac beti; ta eguin cituen  
guciac ecin-obequi; ta era be-  
rean eguiñen ditu, eguin-qui-  
zun arquitzen diran, guciac,  
bat bacarric utzi bague.

BERE lan zucen hau  
eguiten hari da JESUSen Ani-  
ma ALDAreco bere SACRA-  
mentuan ere; ta bere eguiteco  
berean harico da beti, bein ere  
guelditu bague, mundua buca-  
tu artean, edo contu andieta-  
co dembora-raño.

VICItzaren ederra! Gau, ta  
egun, ta beti gure JESUS gauz  
onetan, gauza ecin-obeetan, ta  
bein ere utf-eguin bague? ORI  
da JESUSen ANImac lea, ta gue-

ro, ta beti eguiten duena.

ETA ori bera guc ere  
gueren eguin alean eguin be-  
har guenu-quena.

EGUIN ote dut nic  
hau orain dañocoan? ORAIN-  
dañocoan izandu ote dira, zu-  
cen eguiñac nere eguiteco gu-  
ciac? ORAIN dañocoan vicitu  
ote gara gu Ceruco graciaren vi-  
citzan, ta gure Jangoicoac ef-  
catzen duen, eran?

BECUIR-eguienezuc, ce-  
re gazte--tafunari, ta orain  
dañoco cere paufuei, ta ecufi-  
co dezu.

ECUSi dezu? anitz ote,  
dira, or zuc arquitzen dituzun  
utfac; BAI? Atera bada guciac  
damuzco cere confesionean;  
ta beguira zuc beti cere JESUS  
maita garriari, uts berriric zuc  
ez eguiteco. ORI da alabaña  
zu ere JESUSen eran vicitzea.

### III.

VICITzaren eracoa da  
JESUSen ANImaren eder-tafu-  
na; ta orre gatic da ecin an-  
diagoa, ta ecin (behar beza-  
la beintzat) adiraci ditequena.

ECUSI dugu nola-ere-  
bait irur--oguei, ta bederatz-  
garren otoitz-gaiean gure, JE-  
SUSen GORputzac, ogui-idu-  
rian an egona gatic, ALDAre-  
co SACRAMentuan duen, eder-  
tafuna. BADA, cein ere an-  
dia

## *dagozten Oroitz-gaiac.*

145

dia den hau, JESUS beraren ANimaren EDERTafunetic datorren, edertafuna da; ta ANIma beraren edertafunaren aldean, ispillu batean aguertzen den, Eguzquia, Ceruco Eguzquiaren aldean bezala. Eta, dénean, eculi dugun bezalacoa, JESUSen GORputzaren edertafuna, nolacoa ote da, ta norañocoa JESUSen ANImarena? Ote daquite ori, beguira-beguira dagozcan, AIngueruac ere?

Guc daquigun, gucia da, JESUSen ANImac duen, graciaren neurricoa dela, beraren arguia, ta eder-tafuna.

Baña norañocoa ote da Anim-onen gracia?

ORRA, orain guc bilatzen dugun, eder-tafuna bezain, guti daquigun, gauza. GUC orain daquigun, gucia da, JESUSen ANIma dela Aita eternoa-requin bat den, Semieac artu zuen, guiza-ta-funaren, edo, GORputz-ANImazco naturalezaren erdia; ta erdiric onena; ta eman ciola Aita eternoac JESUSen ANIma oni, dagocan, graci-gucigucia. ETA Ceruco Aingueruei, ta Santu, ta fantei badagote, orien eder--tafunac adiratzen duen, gracia, cem bat graci ote dagoca, Jan-

goico-guizon, JESUS maitagarriaren ANImari? GUClei adiaña?

GUEIago, ta gueiago: bada, ori-etatic bacoitzaren lecuac arquitzen ba-lira eun milla milloi, ta orietatic edocein, orain gueiena duenac adiaña gracia luena, ba-du JESUSen ANImac, horduan guci guciac izain luqueen adiaña gracia: bai, ta anitz, eta anitz gueiago-ere: bada conta liteque, edo neurri liteque horduan orien gucien gracia; ta ez du conturic, ez du neurric, JESUSen ANImari Aita eternoac emanico gracia, dio S. JOAN BAUTISTac. Joan. 3. 34.

ECUSTen dezu cein andia den, ta cein ecin-adiracigarria, ALDARECO SACRAMentuan daducagun, gure JESUSen ANImaren edertafuna?

BAI? BADA ez digu oraindic guc, adiraci ditequenaren, erdiric ere adiraci. AL dugun, eran, guc adiraci dugun, edertafuna, JESUSen ANImari, bere gracia gatic dagocan, edertafuna da; ta Jangoico-tafunaren aldetic datorquion, eder-tafuna, beste hau baño, aguitz, eta aguitz andiagoa da.

BA-datorquio, bai JESUS-

S3

SUS-

SUSEN ANImari, Jangoico-tafunaren alderic ere bere edertafuna ; ta bere graciaren alderic datorquiona baño , milletan , ta milletan obequi datorquiona da, alde oneratic datorquiona ; bada , daquizun bezala,graciticandiena ere ecer ez bat bezala da , Jangoico-tafunaren aldean , ta JESUSEN ANImic be-requin du , Ceruco graciarena bezala , Jangoico-tafun beraren vicitza , arguia, ta Santidadea, edo Santotafuna; JESUS onarena da alabana, bere ANima, ta bere guizatafuna ez-ecic, Jangoico-tafuna ere : ta , graciari baño , len dagoca Jangoico-tafunari JESUSEN Animaren vicitza, Santotafuna , ta eder-era.

ONGUI : ta ecin-adiraci-alacoa , baldin ba-da (den bezala) bere graciatic JESUSEN ANImari ematen dion , edertafuna , nolacoa , ta norañocoa ote da JESUSEN Anima berari bere Jangoico-tafunetic datorquiona? Gogozafun-ala ere baño, aguitz , eta aguitz andiagoa.

ECUSten dezu? BADA bere edertafun orrequin guci-gucia requin datorquizu zuri cere JESUSEN ANima ALDARECO bere SACRAMentura, ta guero Comunionean cere,barrenera. ETA or datorquizu , zu-

re animaren ontziac , dauden eran, ar dezaqueen, graci guciac zuri eman naiez, emateco guero zuri bere Ceruan, zure horduco graciari, ta irabaci guciei dagozten , edertafuna, ta glori-gucia.

HAU ote cenequien zuc, ongni beintzat, orain-dañocoan? HAU gucia zuc , orain daquizun bezain garbiro , jaquitera, etzen erraz ez , comuniatuz zaran, bezain bacan, ta otz zu comuniatzea! ETzen erraz, ez, eguiten diozcatzun , bezain eculteguchi cere JESUfi ALDARECO bere SACRAMentuan zuc eguita! ta etzen erraz , ez , ecarri dezun baño , gueiago cere gogora zuc JESUSEN edertafuna ez ecartzea ! GAURguero badere ba-ceneguitza zuc, oraingo zure jaquierac adiratzten dizquitzun, gauzac!

## §. II.

JESUSEN ANIMAREN ADIRACI-mentua , ta ezagu-era

ONGUI-ardo-iduriz estalia egona gatic emen ALDARECO bere SACRAMentuan, ecusten du JESUSEN Animac bere barrengo beguiz , ta adimentuz , beinicbein gure Jangoico onaren izate gucia, Jangoico beraren , edertafuna, ta Jangoicoaren izate-eder, gauza gucien ispillua ; ta ecusten di-



**tu guero**, edo videnabar ispillu ecin-garbi-ederrago onetan, ecusi ditezqueen, beste gauza guciac ere; eta ecusten ditu, Aingueru, ta Chrerubin guciac ecusten dituzten baño, aguitz eta aguitz garbiroago, ta ederquia-go; ta ecusi ditezquen ederquienna: ecusten ditu alabaña, Jangoico Semearen Animari dago-can, eran; ta ez dagoca ecuste laburragoric; ez, eta ez arguagoric-ere, Jangoico guizon baten ANImari.

**EMEN** ni orain ongui vicitzera, ta eguiten ba ditut nic emen, JESUSec niri bere ALDAretic eraguin nai dizquidan, gauzac; eta gauz oriecnic emen eguiten ba ditut gure JESUSec nai bezala, ecufico du egunen batean nere animac ere gure Jaunaren izatea, ta edertafun bera; ta ecufico du videnabar edertafun beraren, ispilluan niri dagoquidana.

**CEIN** poz, eta cein atseguin andia-requin!

**EZ** da lurrean gaur arquitzen; ez eta arquitaco ere, ori, behar den, eran adiraci dezaquenic.

**ONGUI**: ta orrembat poz-atseguin, ta, poz-atseguin ori dacarren, ecuste ederra gatic (JESUSen amorez ez-palizer), ez dut nic eguin, uste,

orain ni gandic JESUSec nai duen, cer edo cer, edo orain nere ongui naiez, ALDAretic JESUS niri eracustea dagoquidana?

**BA**-ditu bada, JESUSen ANImaren ADimeatuac, Jangoicozco, edo Jangoicoarē ispillu eder onetaco ecustetic icaliac, CERuan, LURrean, ITSafoan, ta BAZter gucietan arquitzen diran, gauzen ezaguntzac, edo berriac; ta berri, bestec ez-bezalacoac: bada, JESUSen ANImac duen, berriaren, edo jaquiundoaren aldean, ecer-ez bat bezala da ADAnen, SALOmonen, ta AINGueru gucien jaquiunde, ta gauzen ezaguerera, edo berria.

**EZ**Agu-era onequin, ta bere gauzen berri, ta jaquiunde gucia-requin dator JESUS ALDAreco bere SACRAMentura; ta onara dator, gure MAIfu izatera; gu, gueroc nai badugu, gogargui ederrez betetzera; guri, guc eguin behar ditugun, ta utzi behar diran, gauzac bereistera; ta bera ganaco, edo bera ciñez, garbiro, ta, behar den, eran maitatzeco videa guri gucioi eracustera.

**ETOR**-eraren eder-onguillea, ta ondafun-duna, JESUSen, era onetaco etor-eral BAÑA etor-era, nic beintzat, be-

behar cen eran ez artua ; bada galdu izandu ditut nic , ori ongui artzetic etorri oi diran, anitz ondafun , anitz ontarte , ta gure Jaunaren anitz laguitza , ta graci . ETA galdu izandu ditut nic oriec , aifola-cabean bezala ; ta, olloac, atzaparca aguertzen duen , urreez baño , caso gueiago nic oriez eguiten ez nuela ! EZ da ala ? ERRAzu ezperen : cembat argui , ta cembat ondafun atera dezu zuc , orain-dañoco cere comunione gucietatic ?

ASQUI cen , zuc eguin dituzun, orain-dañoco cere comunione-etatic bat zuc ongui eguitea, becaturaco vide guciac zuri beguitan ar-erazteco ; ta, eguin dituzun , gucien buruan, becatuaren vide galgari ber-etarra zara zu bein , ta berriz , ta gueiagotan ere.

ASQUI cen Comunione, ongui, edo zucen eguin bat, JESUSEn amorez zure bihotza urturic uzteco ; ta, eguin dituzun , guciac eguin ondoan, arquitzen zara nosqui zu, lembician bezain otz , eta gogor, ta galdi.

CER burua zurea ! ta cein guri necitzen zaran zu, gure JESUSEc ALDAreco bere SACRAMentutic eman nai dizquitzun, ondafunac ecusten , bi-

llatzen , ta ateratzen !

ECUSten ditu JESUSEc , emen ALDAreco bere SACRAMentuan gorderic egona gatic, len gertaturicaco , gauza guciac ; ecusten ditu orain guertatzen, ta eguiten diranac ; eta etzaio gordetzen , ez, etorquizun-etatic bat ere.

MUNDura datocen, guciei contuac artzeco dago gure JESUS maita-garria ; ta , hartaratzen den aldian , horduana, ta puntuan aguertzeco dago JESUS nori bere asmoac , bere gogoetac , eta lan onac , eta , gaitso guciac ; eta aguertzeco, aguertuco dituen , gauz-etatic bacoitza bere asiera , barren, gain-azpi , ta faitets guciequin.

ETzaio gordetzen ez JESUS ecusleari gure beguiratzeric ; etzaio gordetzen , ez, gure hitzic ariñena ; ez eta gure azcazal baten ibill-eraric ere.

GOGOan ditu , bai , gure JESUS maita-garriac , gure bihotzean gorderic guelditzen diran , naicunde guciac ; bai ta oroitzapen , ta gogoracio arin-labur enac ere.

ETA, gucia baño , gueiago dena , ba-daqui , gure JESUS ecusle maita-garriac , cer gatic , cer-taraco , ta cerc , edo norc eraguiñac diran , gue eguiten , edo gueren gogoan gorderic-

dagoten,

detzen ditugun , gauz andi , ta  
chiqui guciac.

DENA , den bezala bada ,  
ecusten du JESUsec gure  
gauza bacoitza ; ta ecusten du  
gucia bere adimentuco beguiz ,  
ALDAreco bere SACRAMen-  
tuan , gorderic egona gatic.

AH nic hau jaquin izan-  
du ba-nu , Elizan ni , adiñ-  
etan fartu ezquero , fartzen asi  
nintzanetic ! ETziran izain , ez ,  
izandu diran , eracoac , Elizaco  
nere fartu-aterac , eta egoerac !  
EZ nintzan , ez Elizan fartuco  
ni ; ez nintzan ni , ez Elizatic  
ateraco , fartu , ta atera oi nin-  
tzan eran , edo bazter guciac  
beguiz garbitzen , edo ciquin-  
tzen nituela ! EZ nintzan ni , ez  
Elizatic ateraco , atera oi nin-  
tzan bezain laster , ta utsez be-  
tea ! Elizan egoin nintzan ni ,  
an nengoenean , poz-atseguin  
andia-requin . Elizan egoin nin-  
tzan ni , buru-beguia , edo ne-  
re bihotza ALDAreco SACRA-  
mentutic quentzen ez nuela .  
AN egoin nintzan ni , graciz ,  
gogarguiz , ta Ceruco doaiez  
nere anima betetzen , ta bete-  
tzen ; ta an egoin nintzan ni ,  
an niri beguira cegoquidan , JE-  
SUSen beldur andia-requin !

BAÑA edo ez nequien  
nic , beguira cegoquidala niri ne-  
re JESUS ALDAreco SACRA-

Otoiz-gaia.

149

mentutic , edo ez nintzan ni  
hartara ohartzen ; ta egondu  
naz ni nere JESUSen beguietan ,  
egondu nazan eran ; ta galdu  
dut nic hau gucia !

BERRIZ eguñen ote  
dut nic era onetaco galtzeric ?  
EGUñen ote dut nic berriz ,  
oraindañoco fartu-atera , ta Eli-  
zaco egoera galgarrietatic bat  
ere ?

EZ baldin-bere ! Bada  
era orretaco edocein gauza nic  
eguitera , etzaio gordeco , ez  
JESUSen ANImari ; ez eta Ai-  
ta eternoari ere ; ta galdu nin-  
tzaque ni seculaco !

§. III.

JESUSEN ANIMAREN ALDA-  
reco naia , edo voron-  
datea.

JESUSEN ANImaren ALDA-  
reco ecusteac , ez dira , ez  
ecuste agorrac ; naicunde-on-  
eder ecin-andiangoac daczten ,  
ecusteac dira .

ECUSTen duenean JE-  
SUSEN ANImac bere Aitaren  
bazterric bagueco ontasun mai-  
ta-gatria , ta gure Jangoico mai-  
ta-garriac guri nai diguna , af-  
ten da Jangoico bera maitatzen ,  
berac dituen , indar guciequin ,  
ta alic cincuena : ta dembora  
berean maitatzen gaitu gu ere ;  
ta maitatzen gaitu ecin gueia-  
go-raño .

EZ

EZ ditu quentzen bein ere JESUSen ANIMA berac bere beguiac gure Jaun eder-alfu-andia gandic ; eta ez du uzten bein ere ; ez-eta laburtzen ere , bere Jaunari dion, ta gu ganaco bere maitatze bazterric bagueco hau.

ECUSten ba-cenu zuc gure JESUSen ANImaren vorondatea , edo naimendua , ta gure JESUSen bihotza , futan dagoen , carobi berotu , edo galtzin-tegui bati beguira zaudela , idurico litzaquezu ; ta arituric gueldituco cinaque , nola JESUSen amore andi onen fuac erretzen , ta autf-eguiten ez dituen , Elizaco ALDARE, tellatu , ta bazter guciac : ain andia da , or zuri gordetzen zaitzun JESUSen gu ganaco amorearen fua.

ONGUI : ta ala ere ni, arquitzen nazan bezain , otza ta galdua ? ETA ni , ogui-zaticho baten ondoan arquitzen ba-nintz bezala nago , orrembat amoriozco furen , ta ALdareco SACRAMentuaren bazterrean arquitzen nazanean ere ; bai-ta , niri nere comunioan nere barren-eraño orrembat JESUSen fu , ta amoriozco gar fartua gatic ere!

ARRIZcoa- vide da nere bihotza ; edo, arria baño ere

alcotan gogorragoa ; bada arriac berac , eta gauzaric gogorenac ere beratu oi ditu , urtu oi ditu , ta autf-eguin oi ditu fuac , cerbait hau anditu ezquero ; eta , JESUSen amoriozco fu , orren andi orrec ez ditu berotzen nere barren bihotzac ?

ECUSten dezu , zuc orain , nere Anima , cere egoera ? ECUSten dezu cein char errebes galdua ?

ONEMbat amoriozco fu-requin batean , ba-ditu JESUSen ANImac , guc afim-alfu-adiñ atfeguin , ta anitz-eta anitz gueiago ere ; ba-ditu alabaña bere Jaunaren ecuste ederrari (ta JESUSen Animac duen, bezalaco ecusteari ) dagozcan , poz-atfeguin guciac : eta , Ceruan arquitzen diran , guci-guciac baño , JESUSen ANImac bacarric aguitz gueiago , ta aguitz obequi ecusten du gure Jaunaren izatea , ta edertafuina ; ta orre gatic , Ceruco gucien poz-atfeguinac batetara bildua gatic , JESUSen ANImarena baño , aguitz eta aguitz laburragoac liraque.

CERTara ote dator gure JESUS maita-garria ALDAREco bere Sacramentura, onembat amore dacarrela , ta poz-atfeguin onen andiequin?

BE-

BERE poz-amore-atse-  
guin ber-etatic, gure bihotzac  
artu dezaqueen, gucia guri  
ematera.

CER gatic ori orrela?

CEREN maite gaituen  
gutziz gu, ta guri ongui-naiez.

SINISten dezu? ECIN  
uca ditequen, gauza da, orain  
zuc aditzen dezuna. ETA al  
ere arkitzen zara zu, zauden,  
eran; ta, zauden, bezain al-  
fer, ta nagui comuniatzeco?  
ETA, comuniatzen zaranetan  
ere, comuniatzen zara, hau  
zuc sinisten ez-pa-ceni bezala,  
ta ara zoaz zu, cere comu-  
niora zoacenean, ontziric ba-  
gue, edo cere bihotza lurre-  
co gogoz, asmo ariñez iraba-  
ci char galduz, ta loiqueriz  
betea daduczula?

GALDU dezu zuc ce-  
re burua, edo cer eguiten de-  
zu, orren aisa galtzen dituzu-  
nean zuc, era onetaco iraba-  
ciac? ERA orretan vici uste  
dezu zuc, datocen dembor-  
etan? Vide ona daramazu, bai,  
beti, ta beti galduric zu vici-  
tzeco!

I.

VIDIMUS GLORIAM EIUS, GLO-  
riam quasi Unigeniti à Patre.  
Ioan. I. 14.

O GUI-zatichoa, edo ardo  
tanta dirudien, gauza

III.

bat ecusten dute gure begui-  
ac, ALDareco SACramentura  
beguiratzen duten, aldietan:  
baña iduri, edo aintzura or-  
ren barrenean or arkitzen da,  
San JOAN EVANGELARIac,  
Ceruco arguia-requin, ta ani-  
maren beguiz ecusi zuen, gau-  
za gucia.

CER gauz ote da or  
EVANGELARI orrec ecusi izan-  
du zuen, gauz ori?

AITA ETERnoaren Se-  
me--Jangoico-guizon JESUS  
maita--garria. OR dago, bai,  
or hau, harc ecusi izandu zu-  
en eran, ta or dago hau, be-  
re Anima gucia graciaz bete-  
ric daduczala; ta bere graci an-  
di onetatic, eta Jangoico-tafun  
bazter baguecotic datorquin,  
gloria-requin, or arkitzen da  
JESUSEN ANIma bera ecin eder-  
ragoa, ecin ecustecoagoa, eta  
ecin lilura-garriagoa; or arqui-  
tzen da alabaña, Jangoico-gui-  
zon, Aita eternoaren Seme ba-  
carrari dagocan, ecuscari, eder-  
tasun, ta glori-gucia-requin.

CER gatic zande or  
orrela, gure JESUS maita-  
garria? CER gatic estalizen di-  
tuzu zuc or, ALDareco cere  
SACRAMentuan, zure Jangoico-  
tasunac, eta, zuc dezun, ce-  
re graci gucia: zure ANImari  
ematen dioten edertasun, or-

T ren

ren ecustecoa? CER gatic zau-  
de zu or, ogui zaticho bat  
baicic, ez dirudizula, ta nor  
zaran ere adirazten, ta aguer-  
tzen ez dezula?

CER gatic egoin da?  
GUri ongui-naiez! GU ez  
itzutzea gatic! GURE bihotz-  
eta-raño sartu-naiez! GU gue-  
ren Comunione-etan, ta, egui-  
ten diozcagan, ecufaldi on-  
etan graciaz beteric uzi naiez!  
BERE demboran guero gu glo-  
riaz Ceru berean betetzeco; ta  
eternidade gucian atseguin con-  
tentuz beteric berequin iduqui-  
tzeco,

JESUS! ta JESUSEn  
amorea! ta JESUSEn maita-  
garría! ETA ala ere onen otza  
ni, ta onen esquer--gabea  
nere JESUS, onen onarequi-  
co! NERE ohartu-cabea! NE-  
re ceutzu, ta buru gutizcoa!  
2.

IN QUO (CHRISTO IESU) SUNT  
omnes thesauri sapientia, &  
scientia absconditi. Coloñ. 2. 3.

**A**ITA eternoaren bazterric  
bagueco jaquiunde da  
Jangoico guizon JESUS maita-  
garría. JAQUIunde onaren  
emallea da Jangoico-Seme gu-  
re JESUS jaquiñua; ta eman  
izandu cion bere Animari, Ani-  
ma onecartu ala, ta nai zuena.

JESUSEn ANImaren

jaquiña! ta, nai-ta-ez, zue  
ecusten dezuna! ZURE adi-  
mentuco beguien ecusleac!  
ECER guti da, Ceruco guciac,  
eta lurrecoac ecusten dutena,  
zure adimentuco begui eder-  
rac ecusten dutenaren aldean!

ECUSten dute, bai, zu-  
re begui ecusle eder orieci, be-  
te gucien beguiac ez bezala,  
ta, berac baicic, ecin dezaqueen  
eran, gure Jangoicoaren izate  
bazterric bagueco, ta Cerua-  
ren erpiñetic Lurraren bihotz-  
raño arquitzen den guci-gucia;  
ta etzaie gordetzen, ez, nic  
eguiten, edo asmatzen ditu-  
dan, gauz-etatic bat.

BAI beraz gure JESUS  
maita-garría? Ta ecusten nau-  
te ni ere zure begui ecusle ede-  
rac ALDARECO zure SACRA-  
mentutic? ETA ecusten dituz-  
te nere gauza char chiqui gu-  
ciac ere?

ATSeguin dut, bada;  
ta aguitz al-ere; bada, izanic  
zu nere ecusle eder on ori,  
zaran, bezain on-urricaltia, ba-  
dut ufte, urricalduco zaquiz-  
quidala, ecusi ezquero zue ne-  
re beharra, utsa, ta gabea.

BEHARrean daude, bai,  
nere JESUS maita-garría, ta ut-  
fez beteac, daculazun bezala,  
nere beguiac, nere behariac,  
nere elcu-oñac, nere mihia,

ta

ta nere bihotza. ZUre laguntza behar dute, zure escu indarttua behar dute, ta zure gracia, lenagoco beren uts guciac utzi, ta garbiro; ta zucen beren beharrac, eta lanac eguiteco.

NERE bihotz, begui-beharri, ta escu-onen lan hau eguin ezquero, eguiten dut nic, zuc cerrorrec nai dezuna, ta nic eguin beharra. BEGUI-ra zadazu zuc, amorez betericaco cere begui-equin, nic diodan, hau bertan ecusteco; ta, ecusi ezquero zuc nere premia, indazu aldian, aldiraco nic bearco dudan, zure laguntza, ta gracia. Bai arren, bai, Jangoico mrita-garria, bai.

3.

ASER PINGUIS PANIS EIUS, ET præbebit delicias Regibus.. Genes.

49. 20.

**O**GUIAren iduria baicic, ez dezu zuc ecusten or ALDARECO Sacramentuan, nere anima; baña, iduria baño, izate obea diuen, oguia da, or zure aurpeguico beguiac ecusten ez duten, oguia. Ori da, bai, izan ditequen, oguiric onena, oguiric indartfuenena, ta oguiric gozoena; ta ori da, atseguin-contentuz bere jalea bere dezaquen, oguia; da ala-baña ASER aberats, edo JESUS maite bere amorearen ondafun,

ta atseguin guciequin, bere Sacramentu orretan jañari eguini, dator-quistuna.

BAÑA norentzat ote dira, JESUSEn comunione-co pozatseguin andi oriec?

REGIBUS : ERREgueendaco.

CER Erregue ote dira comunione-co Erregue oriec?

BECATU-era guci eta-tic urrun dabiltzan, animac : Jangoicoaren gracion arkitzen diran, animac; beren naicunde charrac, eta passione futuac, edo afaldatuac ecuratzen dituzten, animac : elcar onguin artzen duten, animac : beren gauzac zucen eguiten dituzten, animac; eta virtutez virtute dabiltzan, animac.

ANIMA oriec dira, comunione-co indarrac, eta pozatseguin andiac izan oi dituzten, ERREgueac. ETA ERregue orien artean arkituco zara zu ere, ecer-ez bat zu mundu onetan izana gatic, zu era orretan emen vicitzera, ta era orretaco vicitza-requin comuniatu behar dezun, aldi-eraraco cere anima zuc prestatzera.

ALA prestatu ote dezu zuc cere anima, orain-dañoco cere comunione aldi-eraraco? Ez?

ORRE gatic arkitzen ciñan zu: cere comunione-eran,

T.


ar-



arquitzen ciñan bezain otz, eta barraiatua. Orre gatic guelditzen ciñan zu, comuniatu ondoan, len ciñana, edo lurrera zu, ta lurreco cere gauz-etara, len adiña, macurtua.

ZUcendu nai ba-dezu zuc cere burua, ta artu nai ba-dituzu zuc Comunione onetaco arteguin-ondafunac, hafiz, ta onguicati beharco dituzu bere ALDArean zu gandic

JESUsec nai dituen, gauza guciac; eta Comunione on-etan artzeco zuc, JESUsec horduan eman nai dizquitzun, arteguin, ta ondafun guciac, prestatu beharco dezu zuc, behar bezala, cere bihotza; ta artaraco, asi zaitez bertatic onguigarbitzen cere bihotz charbera, damuz, ta urriquiz beteric erraten dezula. NERE JESU-CHRISTO, &c.



## LXXII-GARREN OTOITZ-GAIA.

JESUSEN SEMETASUNA; SEME TASUNARI DICHEZCON  
gauzac eta ALDAreara JESUsec dacartzien bere IRAbaci guciac.

**A**NDIac dira, ederrac dira, ta aguitz maitagariac, dira, orain-daño-coan guc ALDAreco SACRAMentuan, ecusi ditugun, gauza guciac; baña gauz andiangoac dira, gauz ederragoac dira, ta gauz aguitz maitagariangoac dira, aldi onetan guc ecusi ufte ditugun, ta orain ecustera goacen, gauzac: eta orre gatic

ez izatera, ez liraque, diran diñacoac, len guc ecusi ditugun, gauzac.

LEN ecusi ditugun, gauzac berac obequi ecusteco, bada; ta ecusteco guc videnabar, JESUsec ALDArean ematen dizquigun, gañeraco gauzac, orain ecusi behar ditugu JESUSEN Semetafuna, ta bere Semetafun onequin bat den,  
be-

beraren Jangoico-tafunasta Jangoico-tafun onequin bat diran, AITAtafuna, ta ESPIRITU-Santu-tafuna; bai ta JESUS beraren irabaci guci-guciac ere.

§. I.

JESUSEN SEMETASUNAREN,  
ta Seme-tafun oni dichezcon,  
ALDAreco gauzen  
egoera.

I.

**A**ITA eternoa eguin cite-  
quen guizon, Semearen  
Iecuan, bai ta Espiritu San-  
tua ere, Jangoicoac ala nai iza-  
tera: baña ez bata eguin cen  
guizon, ta ez bestea; gu gatic  
guizon eguin cena da Seme  
Jangoico maita-garria.

JANGOICO Semeac,  
guizon eguiñic guelditzeco, ar-  
tu izanda cituen, gureen era-  
co gorputz-animac: eta bere  
gorputz onequin arkitzen da  
gure JESUS guerozco dembo-  
ran, ta arkituco da eternida-  
de guci-gucian ere; ta arqui-  
tzen ez paliz ere bazter gucie-  
tan, arkitzen den bezala, gu-  
re Jangoico-Seme maita-garria,  
arkituco lizaque, beraren gor-  
putz hau arkitzen den, to-  
qui gucietan.

ORRE gatic, bada, ore

piscara, edo Mezaco hostira  
datorrenean Jangoico—Seme-  
JESUS maita-garriaren gorputz  
eder hau, an bertan arkitzen  
da, bere gorputz bera-requin,  
bazter guciac betetzen dituen,  
gure Jangoico maita-garriaren  
Seme-tafuna; ta an arkitzen  
da, bestetan ez-bezala; bada  
Jangoico Seme hau berez, be-  
re Ceruan baicic ez-pa-lego  
ere, ALDAReraco lizaque, AL-  
DARE-ratzen diranean Jangoi-  
co Seme JESUS beraren gor-  
putza, ta, oni dichezcon, Odo-  
la, ta Anima; artuac daduz-  
ca alabaña bere gana Jangoi-  
coaren Semetafunac bere gor-  
putz-Odol-Animac, cate mallac  
malla baño, aguitz barrenago,  
ta aguitz obequi; ta, beste ba-  
tean sarturic arkitzen den,  
malla ecin dagoque, daquizon  
bezala, bera bacarric, eta, be-  
requin daducan, beste malla  
bague.

BAÑA ez dago bere guí-  
za-tafun bacarra-requin, ez,  
ALDARECO bere Sacramentuan  
gure JESUSEN Semetafunac: an  
dago, JESUSEN Seme tafun gu-  
cia-requin batean, JESUS bera-  
ren Jangoico-tafun guci-gucia  
ere; bada JESUSEN, edo Jan-  
goicoaren Semetafunac, ta Jan-  
goico Semearen Jangoicotafu-  
na, ez dira ez, gure gorputz-  
ani-

animac bezala , bereis ditez-  
queen, bi gauza ; gauza bacar-  
bacar bat dira JESUSen bi tafun  
orietic ; eta tafun bata dagoen,  
toquian egon beharra da beitea;  
ta JESUSen Semetafuna dagoen,  
toquian dago , nai-ta-ez , JESUS  
beraren Jangoico-tafuna ere.

ETA orra non arqui-  
tzen den ALDARECO SACRA-  
mentuan , JESUSen gorputz-  
Odol , ta guizatafuna gucia-re-  
quin , Jangoico JESUSen Semet-  
afuna ; bai ta Jangoico Semet-  
JESUS guci-gucia ere.

ARQUITZEN ote da cer-  
bait gueiago , ALDARECO SA-  
CRAMENTU andi onetan ?

ARQUITZEN da , bai.  
CER ote ?

AITA-eterno-tafuna , ta  
ESPIRITUtafuna ; bada tafun  
orietic biac , eta JESUSen Semet-  
afuna , irur-tafun izana gatic ;  
eta , tafun irur , elcarren artean  
ongui bereciac ; irurac bat dira  
Jangoico tafunean , te ez dute  
irur Persona-tafunac Jangoico-  
tafun bat bera baicic ; eta , ecin  
dagoque JESUSen Semetafuna  
bere Jangoicotafuna-requin AL-  
DARECO bere SACRAMENTUAN,  
an arquitzen ez dirala AITA-  
tafuna , ta ESPIRITU-tafuna ;  
izanic orietic , diran bezala , JE-  
SUSen SEMetafuna bezain , bat  
JESUS beraren Jangoicotafuna-  
requin.

ARQUITZEN dira bada  
JESUSen ALDARECO SACRA-  
mentuan Jangoico-guizon gu-  
cia-requin batean Aita eternoa,  
ta Espiritu Santua ere , edo ar-  
quitze da SACRAMENTU andi on-  
etan , gure JESUS maita-garria-  
ren gorputz , Odol , ta guiza-  
tafuna-requin batean , gure Jan-  
goicoaren bat-tafuneco IRUR-  
tafuna , edo Jangoicotafun ba-  
teco IRUR PERSONA-tafun  
bereciac.

ADITZEN dezu cembat-  
den hau ? TREBE zara zu , gu-  
ci-guci hau bocadu. bacar ba-  
tean zuc artzeco ?

## II.

ZAUDE cerbaitcho , gu-  
ti bat nic gueifeago bocadu  
onen gauzac , eta egoera aguer-  
tu artean.

OR daude , bai lenago  
adiraci den bezala gure JESUS-  
en gorputza , JESUSen Odola,  
ta JESUS beraren Anima ; ta  
or daude , lenadiraci ditugun ,  
argui , ta edertafun guci-gucia-  
requin.

OR dago , bai , gure  
Jangoico-Semac ; ta or daude  
gure Jangoico-Semac ; guizon-  
eguitean , bereci cituen , gor-  
putz-Odol-Animac.

GURE Jangoico Sem-  
me:

me hau da Jangoicoaren hitza, ta JAQUIunde. HAU da eternidade gucian Aita eternoa gandic datorren, ta etorricoden, JAQUIUNdea; baña Aita eternoaren JAQUIunde, Aita bera-requin bat bera den, Jangoicoa.

JANgoico-Seme hau da, guizon eguñic, emen guizar-tean oguei ta amairur-urtez vicitu cen, gure Jangoicoa; ta hau bera da hitz bi-requin, edo, nai zuen, eran illac vizten cituen, Jangoico-guizona.

HAU bera da, eriac sendatzen cituen, silececoac aienatzen cituen, gaistoac ontzen cituen, onac-ondafunez betetzen cituen, ta nai zuen, gucia eguiten zuen, JAQUIunde Jangoicoa.

ETA hau berau da, ALDARECO bere SACRAMentuan arkitzen den, ta gu comunitatzen garanetan, gure animan, guc behar ditugun, gauzac eguin ditzaquen, ta eguin naiez datorren, JAQUIunde, ta Jangoicoa.

BERE JAQUIunde Jangoico Seme onequin batean arkitzen da emen ALDARECO SACRAMentu berean Aita eternoa ere; ta arkitzen da emen hau ere, gu ganaco amore ecin andiago-requin.

LEN guri ongui naiez,

guizon eguñic eman izandu cigun Aita eternoac, gueren oneraco, bere JAQUINde uts, Aita bera diñaco Jangoico-Seme bacar maita-garria.

BAÑA etzen ase, ez Aita eternoaren amore bazterric baguecoa, bere Seme hau guri bein ematea-requin; ta ematen digu bere Seme bera berriz, ta berriz ere, ta egun oro, ALDARECO gure SACRAMentuan; ta bere bat eguiteco dago, gure mundu onen bucaera datorren arte gucian.

ETA, guti bai-liz-bezala, era onetaco Seme bat, gu bezalaco artzalle charrei bein, ta berriz, ta ascotan ematea, Aita eterno bera ere bere Semea-requin batean emen datorquigu, gueren barrenera, gu comunitatzen garan, aldi gucietan, guc horduan gauden eran, artu-al adiña, on, ta ondafun guri eguitera.

ETA, nola Aita-Seme-requin Jangoico bat bera den, ESPIRITU Santua, hau ere arkitzen da ALDARECO gure SACRAMentuan, ta gu gana dator, gu comunitatzen garan aldi gucietan.

IZANic, bada, den, diñacoa gure Jangoicoa; bai, ta Jangoico beraren IRURtafun hau ere, ALDAREAN dago gu-

cia,

cia, ducufazun bezak; ta AL-DAREAN dago, ecer-ez baten eran, ta ore zati bat, edo oguiapur bat, baicic ez-dirudiela.

BAÑA, behar den, eran comuniatzten den, edociñac laster asqui, edo anitz luzatu bague ezagutzen du, bai, nor den, bere barrenera datorquiona, ta cein eguia zucena den, S. JOAN EVANGELIARIAC diona, erraten digunean (ep. 1. c. 5. 7.) *Iruv dira Ceruam, dena, den bezala, adira ten dutenac; Aira, Semea, ta Espiritu Santua; ta irurac bat dira;* ezagutzen du alabaña ongui comuniatzten denac, cem'bat indar datorquion, comuniatzten den, aldietan, gauza gaitoac eragotzi, ta onac eguitemo, gucia dezaquen, Aira eternoa gandic; ezagutzen du cein andi onac diran Seme-Jaquindearen, comunione oneco eracuste ederrac, eta gogarguiac; bai ta cein leun maita-garria den ere, Espiritu Santuac berati an ematen dion, obetu-ta-obetu naia.

ZORI oneco, humeac, comuniatzten diran, aldietan hau gucia ezagutzen dutenac; bada ezagun zaie, ongui prefatuac comuniatzten dirala, ta atleguin andi bat eguiten diotela beren Jangoicoari, beren barreneratzen duten, aldi orietan.

ETZAIT, ez niri orrelacoric guertatu izandu; ta orrelacoric nabill ni, nere comunione guciac eguin, ta ere, nabillen eran, ta onen nagui!

ARTZEN dut nic bein; artzen dut nic berriz; eta artzen dut nic ascotan, ta ascotan ere, ta comuniatzten nazan gucietan nere Jangoico guci-gucia; eta ala ere, bein ere deus bat artu ez-pa-nu, bezain indar guti-requin arquitzen naz ni, azquenean, nere etsaiac garaitzeco, nere afaldacio viciac itozzeco, ta, eguin behar ditudan, nere gauz onac eguitemo!

CER esca-erac, egunen batean nere Jangoicoac niri eguin behar dizquidanac, onembat nere artzeren, ta bere artzecoren alde!

EZ, ez, nere JESUS maita-garria, ez orrelacoric, ez! ORI datorren baño, len eman uste dizut nic zuri, zor dudan, guci-gucia. EZ dut nic orretaraco besteric behar, baicic, vicitz on garbi bat artu, ta, comuniatzten nazan, aldietan orien pagamentua nic cerorri etcatzea; bada on-eguia zara zu, era orretaco horduetan zuri escatzen zaitzuna zuc ucatzeco; ta ba-dezu zuc niri emateco, nere zor guciac es-

ca-

catzen dutena diña ondafun, bai ta anitz, eta anitz gueiango ere; ta nic ongui elcatzen dizudan, gucia niri eman naiez zaude zu or ALDAreco cere SACRAMentuan.

§. II.

JESUSEC GURETACO ALDArera dacartzien, irabaci andiac.

**E**Z dator nola-nai, ez, bere ALDArera, ta guero, gu comuniatzen garan-etan, gure baitara gure JESUS maitagarria; bere irabaci, edo merrecimentu, ta ondafun guci-guciequin dator bátera, ta bestera; ta guci-guciac dacartzi, andic eman-naiez, urbiltzen zaizcan guciei, oriec aldian artu ar-ala.

ANITZ dira, ta andiac, bai segurqui gure JESUSen irabaci, edo merrecimentuac.

ANITZ dira lembicico lecúan, bai, gure JESUS maita-gariaren irabaci, edo merrecimentuac; bada irabazten, ta irabazten egondu cen gure JESUS maita-garria, bere Anima gorputzera cequion, puntutic, bere gorputza gürutzean illic utziric, LIMboraco

III

videa artu arteco dembora gucian; bitarte orretan irabazten haritu cen alabaña gure JESUS maita-garria, bere irabaztetico instante bat-ere guelditu bague.

ETA, anitz ez-ecic, andiac ere dira gure JESUSen irabaci; bada JESUSen irabaci bacoitza, Jangoico-guizon baten irabacia da; ta orre gatic da irabaci ecin-obe-andiagoa.

CEMBAtecoac izain dira, bada JESUS onaren irabaci guciac, edo merrecimentuac?

ECIN adiraci ditezqueen diñacoac. ORlec gatic du gure JESUSEC, eta izain ere du eternidade, edo secula gucian, afm-al adña baño, atseguin, contentu, ta glori-gueiago, ta gueiago.

AITA eternoaren Semebacar gure JESUS maitagarriac bere baitara artu horduco bere guizatafuna, ecusi zuen bere Animaren beguiz, edo adimentuz etorquizuna, edo guizon galduen alde JESUSEC berac bere vicitzan eguinta eraman beharra.

HORdu berean ecusi zuen guizon gucien galdu era. Eecusicituen guizon guciac bein Adanen becatua gatic ongui loituac; eta guero, berac eguinicacoz guztiz beteac; eta, beren bi becatu-era oriec dacazten, zor-

V

rac

rac gatic, Ceritic er berbanac; eta dembora berean ecusi zuen, guizon berac, beren gauzac zucentzeco, edo beren zor oriec ateratzeco, behar zuten, adiña indar erzutela.

HAU ecusitan, ecusi cituen, orien alde JESUsec berac irabaz citzaqueen, graci eder indartua, laguntza gucia, ta pagamentua; bai, ta nola oriec guciac JESUsec irabaci ere; bada ecusi zuen, irabaz citzaquela, berac bere vicitza gucian arta cituen, nai-gabe, quezca, neque, azot-ucaldi, ille-tira, odol-iffurtze, escu-õnac iltzez urratze, ta gurutzeco bere eriotz arrigarri--equin: ta laguntza ori, ta gracia guretzat irabaztea gatic, erran cion hordu berean JESUsec Aita eternoati; artzen cituela bere gain neque oriec guciac; eta prest cegoela gueiago, ta gueiago ere, harc ala nai zuela, bere gain artzeco: ta bere errate, ta cinezco nai onequin irabaci cituen JESUS maita-garriac, izandu diran, diran, ta etortzeco dauden, guizon guciac behar ditazten, gracia, ta laguntza guciac; eta, orain arteco demboran etorri diranac, eta etortzeco dauden, guciac etorri ondoan, etortzen ba-lira, oriec guciac bai, gurelago, ta

gurelago, ta, ecin cont-al, adiña guizon, ta emacume, izain luquec oriec guciac ere, beharco luqueen, gracia, ta laguntza gucia. Ain andia da JESUSen horduco irabacia, ta merecimentua.

EZAGu dezazun zuc, nere anima, hordu hartatic guc becatari gucioc gure JESUS maita-garriari zor diogun, ontarte bazter baguecoa, ecusi bear dugu gaur, cer eranizandu cen gure JESUSen ecuste izugarri, ta cinezco nai andi hau.

ECUSI cituen, bada, aldi hartan gure JESUS maita-garriac munduco guizon guci-guciac; eta ecusi cituen, ez naspilla batean, edo nafteca, ta illumbean bezala, baicic garbi-garbiro, ta banaca, edo ecusi zuen guci-gucien artean edo-cin guizon, hura bera baicic izandu ez-pa-liz bezala; ta guci-cien artean ecusi cinduen zu ere: ta ecusi cinduen, besteric bat-ere izandu ez-pa-cen, bezain ongui, ta zucen; ta ecusi cinduen cere ibillera, cere asmo, cere neque, ta gauza guci-guciequin.

ECUSI cituen, bada, gure JESUS maita-garriac zure charqueri guciac, eta, charqueri oriec dacazten, zorrac. ECU-

SI



SI cituen zure beharrac , zure eror-vidiac , eta zure macurerac ; bai ta zuc , ortic aterra , ta zucen ibilceco , behar-co cenituen , Ceruco indarrac , eta laguntza guciac ere ; eta laguntz-indar oriec guciac , eta anitz , eta anitz gueiago ere irabaci cituen zureztat , gure JESUsec , horduco bere nai-on-zucena-requin.

BAÑA etzuen JESUsec hau gucia zureztat irabaci , borchaz zuri bere irabacia ar-eraz-reco. IRABACI zuen , zuc ce-rorrec nai cenuela , ta , behar cen , eran efcatzen ceniola , zuri emateco ; ta era orretan zuc efcatu ezquero , noiz-nai gure JESUsec emain dizu bere laguntza , bere gracia , ta animaco cere zorren pagu-gaia ; edo berac zure-taco irabaciric daducan , edocain gauza ; bada , JESUSen irabaciari aguitzea , edo guertatzen zaio , ISRAELgo Andre ALARgun baten OLIOari lea guertatua.

ESTUTzen zuten Andre ALARgua hau , artzeco zutenac , bere zorren gain ; ta , ez jaquiñez cer eguin , urbildu cen bein ELISEO Profeta gana , ta aguertu cion oni bere beharra , ta premia ; ta efcatu cion videren bat , bere burua bere lan-gai gaitto hartatic ongui ateratzeco.

CER dezu cere echean ? erraten dio Profetac , Andre behartfu ALARgun escaleari ?

EZ dut , Jauna , nic erantzuten dio , olio guti bat baicic.

ASQUI da ori , erraten dio Profetac. ZOAZ , al dituzun , onci en billara ; ta , cere echean farturic guero , arquitzun dituzun , onci guciequin , ta cere Semeac an laguntzen ditutela , bota zazu onci orieta-rra cere olioa , ta ez da cer guel-ditu , onci guciac bere artean.

EGUITEN du Andre ALARgunac Profetarèn errana. ARTZEN du bere efcuetan bere oli-ontzi chiquia. ECARTZEN diozcate bere Semeac ontziac ontzien ondoren. Betetzen ditu onci guciac ; eta ez da guel-ditzen olioa , ontzi urs guciac bucatu , edo bereric guelditu artean. ETA , bere ichean zuen , olio tantatic ateratzen du Andre ALARgunac , bere zorrac ateratzeco , ta bererzat , eta bere humeen daco behar zuen , ondafin gucin.

OGUI naticho bat dirudi gure JESUS maita-garriac ALDARECO bere SACRAMENTUAN ; baña nai duenac oitic ateraco du , bere zorrac ateratzeco , ta bere Anima , ta Animaren lagunac , edo potenciac fendortzeco , behar duen gai,

indar, laguntza, ta gracia.

EZ du, nai duenac, orretaraco, bere ontziac prestatu, ta comuniatzen dela, bere Jangoicoa-requin bere baitan ongui gorderic, hau gucia Jangoico-guizon-JESUS maita-garriari escatzea, befteric behar.

ARQUITzen zara zu, comuniatzen zaran, aldietan ongui confeslatuas; baña cere confeslonean Jangoicoac barcatu cizquitzun, cere becatu larrien cembait zorrequin? ETzara faiatzen zu, PURGAtoriora bague, cere zor oriec emen hilduraz, baruz, felicioz, ta cere gorputzaren nequez ateratzera? BELDURtzen zara zu, cere zor oriec ateratzeco dezun, PURGUratorioro suaz oroitzen zaranean? ESCA zagozu, bada, (ta esca zagozu alic humilquiena) cere comunioneco demboran, cerequin dezun, JESUS urrical-tiari, orretaraco dituen, bere irabacietatic zatiren bat.

BERRIZ, ta berriz ere, ta comuniatzen zaran, aldi gucietan, eguizu escaera ori beras; bai ta zuc cere Meza ematen dezunean, edo eatzuten dezun, demboran ere, ta zuc ateraco dezu gure JESUS maita-garria gandic, zure becatu barcatuen, zor guciac escatzen dutena.

ARQUITzen zara zu, comuniatzen zaran, aldietan, cere JESUS maita-garriaren gracia, bai, baña becatuarena eri--tafuneric atera berria bezala, indar guti--requin? ARQUITzen zara bihotz, gaitz-aldera aguitz macurturic arquitzen den, bat-equin, ta cere adimentua, behar ez diran, oroitzapen galduz, ta asmo lizunez befteric daducazula?

ESCA zagozu, bada, cere JESUS maita-garriari, bere gogargui ederren zati on bat, gauz onen asmoz cere gogoa befteric erabiltzeco.

ESCA zagozu beraren esc-ucaldi, edo, eman oi duen, barreneco uquiera bortiz on bat, zure bihotzari bertatic areratzeco bere beldur ona, ta cinezco amorea; ta dembora berean esca zagozu zuc amore-beldur oriec escatzen dituzten, gauz on guciac zuc en eguiteco, beharco dezun, beraren laguntza, ta gracia. IZAIN dezu zuc, bai, hau gucia, gucia zuc JESUS maita-garriari, behar den, eran escatzera.

BAI: orretaraco dator gu gana gure JESUS maita-garria, bere ondafun, ta irabaci guciequin, gu ganatzen den, aldi oro gure comunione-etan. ETA artzen ez-pa-de-

zu

zu zuc ori gucia, ta anitz gue-  
iago, comuniatzen zaran, ce-  
re aldietan, hartaraco zuc ce-  
re ontziac prestatu baguez,  
izaten da, ta ceren zuc aldi  
orietan eguiten ez dezun, eguin  
behar cenuquena. EGUIZU  
ezperen; ta ecufico dezu.

§. III

JESUSEC, ALDARECO SACRA-  
mentuan guelditzea gatic,  
eguin cituen, iraba-  
ciac.

**G**UIZON eguin cenean,  
ecusi zuen gure JESUS  
maita-garriac, gure salvacioco  
lan gogorra bucatu, ta Cerura  
bera igana gatic, gueldi cite-  
quela dembora berean gure  
anari eguiniac emen gure ar-  
tean; ta, hau ecustean, ecusi  
cituen gure JESUSEC, beraren  
emengo guelditze onetatic ce-  
tozqui-quegun, ondafun gu-  
ciac ere.

BAÑA hau gucia JE-  
SUSEC ecustean, ecusi cituen  
videnabar beraren emengo  
guelditze oni cerraizcon, vi-  
degabe lizunac, eta guizonen  
charqueri arrigarriac ere; ta  
ecusi cituen, anitz aldetaraco  
charqueriac; bada ecusi cituen  
JUDATAR gogorren charque-

riac, HEREGE gaistoen char-  
queriac, eta APEZ, ta guizon  
esquer-gabecoen charqueriac.

ECUSI zuen JESUSEC  
horduco bere ecuf-aldian, guel-  
ditzen ba-cen gurequin emen,  
edo ALDARECO bere SAGRA-  
mentuan, hista, ta irria, baicic  
eguiñen etziotela JUDATAR gal-  
duac; eta errain zutela au-  
fardi andia-requin oriec, ez de-  
la Jangoicoric ALDARECO gure  
SACRAMENTUAN, edo ez dela  
ALDAREAN, ecer-ezetaco den,  
ore zaticho bat baicic; eta, era  
orretan oriec esaten zutena ala  
bai-liz bezala, erabillico zute-  
la gure JESUSEN ALDARECO SA-  
CRAMENTUAN andi hau, noiz-bait,  
edo hordu gaistoren batean  
orien escu-etaratzan cenean.

ECUSI zuen JESUSEC HE-  
REGE gaistoac, guienac beintzat,  
berebat errain zutela; ta orietat-  
tic cembaitac artuco zutela SA-  
CRAMENTUAN bera, edo artuco  
citzutela Hostia, ta Forma Con-  
sagratuac, beren zacurrei, ta  
zaldiei emateco, iraquiten ce-  
ducaten, urean sartzeco, ta egos-  
teco, ezpatez, ta canibetaz eba-  
quitzeco, edo hurcabeaen iltzez  
josinic uzteco. ETA, era orre-  
taco aldiren batean oriec ecusia  
gatic hostia, edo forma bera  
odola ceriola, zacur batena ba-  
cen baño, gueiango etziotela

beguiratuko, orri cerion odolari, ta Sacramentuko miraculluari.

DEMBora berean ecufi zuen gure JESUS maita-garriac Apez cembaiten, ta guizon-andre gaitoen aldetic ecufi beharco zuena, SACRAMentu onetan emen bera guelditzera; edo ecufi zuen nola anitz alditz, ta ascotan, ta ascotan botaco zuten oriec beren barren-etara, aur bat bota litequen bezala, apoz, fugez, ta llerpez beteric dagoen, lece batera: edo botaco zutela JESUS Sacramentatua, oitura guiftoz, becatu larriz, ta ciquinqueteri alque-garriiz betericaco beren barren-etara. ETA ecufi zuen bidenabar gañeraco gucien SACRAMenturaco otzafuna, ta oarcabea.

HAU gucia, ta anitz, eta anitz gueiago ere ecufi zuen gure JESUS maita-garriac bere lembicico ecuf-aldian; ta al-ere, atera cezaten ongui vici naico zutenac, nai adina, ondafun, ta graci, artu zuen gure JESUS-ec emen ALDARECO SACRAMentuan gurequin guelditzeco afmoa; ta iltzera cijoanean, edo Oitegun Santu arratfez guelditucen JESUS bere SACRAMentu onetan; ta hordu berean bere ecufuz eman izanda cien bere

Apostoluei lembicico comunionea.

ERA onetan guelditzeco, bere afmo hau artzean, izandu cituen nai-ta-ez, gure JESUS maita garriac bere bihotzeco illuntafun andiac, eta tristurac. ECIN ceguiqueen besteric JESUSEn hordu hartaco ambat ecufte icara garric!

BAÑA gucia artu zuen JESUSEc bere Aita maita-garriaren icenean, ta gure ona gatic; eta bere artze maita-garri onetan eguin cituen JESUSEc irabaci berri andiac; eta oriec ere ALDAREra dacartzi, Sacramentura datorren gucietan, len adiraci ditugun-eguin batean; ta guciac dacazqui gure utfen alde, ta, uts berrinc ez daguigun, guri anitz gogargui, ta indar omc emateco.

ECUSTen dezuzuc orain, cein, edo nor den ALDARECO SACRAMentu andira datorquituzuna? ECUSTen dezuzuc nola datorquituzun, ta cein aberats-emullei, orrara datorquituzuna? NOLA eramain ore dezuzuc orain-daño-coman cere bihotza, comaniatu zaran aldietan?

UTFEZ, ta becatuz ongui-ongui nifua, edo utfic, edo becatunic bat ere bagie? GRACIAZ bere-nai-andi bero batean . be-

besoetan ; ta escaera humil anitz-andiac eguiten cenituela?

AH nere JESUS maitagarria ! ORI cen , bai , ori nic aldi orietan eguin beharra ! BAFIA ez dut nic , ez , eguin izandu , ori ez-ecic , orren laurdenic ere , ta orre gatic nago ni gaur , nagoen , eran , ta damu arri-garri bat-eraco videz , ta gaiez guztiz betea !

DAMUtu ba-lequit , bada , behar den , eran nere orain-dañoco urrats , paufu , ta ibill era macur guciez ; guciac nic bertatic urratu ondoan , vici-era berri on bat artzeco , hordu batez ere luzatu bague . ALA eguia uste dut nic , zuc cere gracia-requin fendorqui laguntzen didazula , nere JESUS naitagarria . Lagun zaquitquit , bada , ALDAre orretara dacartzun , cere amore ondafun-dun bazter baguecoa gatic . Bai arren , bai .

1.

EN IPSE STAT POST PARIETEM nostrum , respiciens per fenestras , prospiciens per Cancellas . Can. 2. 9 .

**N**OR ote da , nor ALDAreco SACRAMentu andi orretan gorderic or arquitzen den , ori ? NOR ote da , or guc oguiaren aintzuran , edo

idurian ecusten dugun , ori ? NOR izain da ? JESUSen gorputza , ta gure JESUS guci-gucia ! JESUSen Jangoico-tafuna , ta Jangoico-tafun onequin bat diran , Aita eternoa , ta Espiritu Santua .

ORRA non dituzun or , orra Aita-Semeac , eta Espiritu Santua ; ta orra , or dezu , Aita eternoaren SEME maitagarriac bereturic daducan , bere guiza-tafuna ere .

GUC ez dugu ecusten hau ez ALDAreco SACRAMentu andira beguira egona gatic ; bada or hau gucia gorderic dago , oguiaren aintzurazco , edo accidentezco paretaren araco aldetic . EZ du leioric , ez du zuloric , ez eta cirrituric ere oguiaren paret orrec , edo hostia confagratuac , guc andic ecusteco , barrendic gordeac daduzcan bere gauz andiac .

BAÑA hostia bera leio , edo ecuf-videtfa da gure Jangoicoa-rentzat ; eta andic ecustē gaitu harc gu , berac nai bezala , ta beguira beguira dagoquigu , non gabiltzan gu , ta certan gabiltzan , ecin obequi ecusten duela .

CERtaco ote dira , gure JESUS ; certaco ote dira gure Jangoico maita garria , or , reibat zure beguiratze , ta begui-

guiratzegarbi-eder betico oriec  
 GU ongui ecusi naiez,  
 nere Anima! GU bere gana  
 emequi, ta zucen eramatea ga-  
 tic; an gu ondafunez, gogar-  
 guiz, ta doaiez beteac berac  
 uzteco.

ETA al-ere, nagui gu,  
 nere Anima; ta JESUSEn igue-  
 si bezala gu, gueienetan bein-  
 tzat? ETA al-ere, ohartzen  
 ez garala gu, beguita dago-  
 quigunic ere gure Jangoico  
 maita-gartia?

EZ dugu gaurguero,  
 ez era onetan vici behar guc,  
 nere anima. ELIZARA behar du-  
 gu guc, eta maiz al-ere; ta  
 aratzen garan aldi oro, an  
 egoin behar dugu guc, guci-  
 gucia daculan, Erregue Jangoi-  
 co altfu-maita-garriaren begui-  
 etan daudenac, egon behar du-  
 ten, eran, edo guttiz humil-  
 qui, ta gueren gogoz, hitzez,  
 ta bihotzez eunca, ta eun milla-  
 ca esquerrac emate diozcagula;  
 gueren, beguiac an, Jangoico be-  
 rari beguirtzeco baicic jafotzen  
 ez ditugula; al-eguin gucian guc  
 bera maitatzen dugula, zor za-  
 ion bezala; ta, aratzen garan,  
 urrengo aldian lan hau, hor-  
 duan baño, aguitz obequi egui-  
 teco, indarrac, eta laguntzac  
 emain dizquigulaco ustean.  
 ALA guerta dedilla, nere Jan-

goico maita-gartia: Bai affen,  
 bai.

2-

INGREDIENS IN NUNDUM DE-  
 cit; hostiam, & oblationem no-  
 luisti: corpus autem aptasti mihi...  
 Ecce venio... ut faciam, Deus,  
 voluntatem tuam. Hebr. 10. 5.

ORRA, Jauna, erraten dio  
 bere Aita eternoari gure  
 JESUS maita-garriac, guizon  
 eguiniac guelditu horduco; or-  
 ra, Jauna, ecusten dut orain  
 nic, ongui aspertua arquitzen  
 zarala zu, cere Legue zarre-  
 co olatez, ta hostiez; ta hau  
 ecuste berean, ecusten dut nic,  
 bein ere aspertuco erzaituen,  
 hosti bat gurutzeco ALDare  
 gañean ecusi naiez zaudela zu.

ORRE-taraco eman di-  
 dazu niri zuc, onaco nere  
 gorputz mimbere artu--berri  
 hau. ZUC, hau niri ematean,  
 nai izandu dezuna da, nic ne-  
 re gain artzea munduco gu-  
 cien becatu guciac; eta nic,  
 nere VICITza gucico naigabe  
 andi-equin, nere PASSIO-  
 ne arrigarrico tormentu latz-  
 equin, ta Gurutze gogor ba-  
 teco neque guciequin irabaz-  
 tea, becatu oriec itotzeco, ta  
 anima gaifoac graci ederrez,  
 ta Ceruco indarrez beteric uz-  
 teco.

ta Ceruco indarrez beteric uzteco, behar den, gucia, ta anitz, eta anitz gueiago.

ONA, bada, ni bertatic prest, ori gucia, ta, gñeraco zuc nai dezuna, zuc nai dezunean, ta zuc nai dezun, eran eguitemo.

ARTU dut, bai, nere Aita eternoa, artu dut nic gaur danic betico nere videa; ta ez naz gueldituco, ez, ez-da baida batean ere, hau guci-gucia nic eguin, ta ni nerau gurutze batean zure hosti eguñic guelditu artean. ALA nai dut nic, bai, nere Aita eternoa; ta ala izain ere da, zuri nic dizudan, amorea gatic, eta ceren urricari ditudan nic munduco becatari gaifoac.

ORRA horduan JESUsec bere Ait eternoari erran izandua: ta orra, horduan erran bezain, zucen bere horduan JESUsec eguin izandu zuena.

HORDU beretic irabaci zuen gure JESUsec, becatari gucioc beharco guenuen diña; bai ta anitz, eta anitz gueiago ere.

HORDU bereco irabaci bezain, irabaci andiac eguin izandu cituen gure JESUsec infante oro, ill arteco bere dembora gucian: ta gueroco, ta horduco bere irabaci guciequin

III.

datorquigu gure JESUS maitagarria ALDARECO bere SACRAMENTURA; ta bere SACRAMENTU onetara datorquigu, guc nai dugun, gñicia guri emen ematera; ta ez du escatzen bere emate andi orretaraco, behar bezalaco, escaera garbi humil bat baicic.

ECUSTEN dezu cer etorera, ta cein aberafia, ALDARERACO JESUSEN etorer-hau.

ECUSTEN dezu cein emalle maitagarria datorquigun bere SACRAMENTU onetara gure JESUS maitagarria?

CER ongui etorriac eguin uste diozcatzu zuc, Elizaratzen zaran aldietan? ETzara zu lembait-lea, ori eguinaiez Elizaraco? ETzara zu guerozco demboretan, alic maizen maizena ELIZA beraraco, an zuc cere JESUS maitagarria ecustera; an zuc JESUS berari cere agur andiac eguitera; ta, zor diozun, amorearen esquerac ematera? EGUIZU zuc hau gucia; bai arren, bai, eguizuz; ta ecusico dezu, cembat ondafun ateratzen dezun zuc cere eguitemo esquerdun on orietatic.



X

DE-



3.

DESIDERIO DESIDERAVI HOC  
Pascha manducare vobiscum, ante  
quam patiar. Luc. 22. 15.

**B**ERE ANImaren afiera ber-  
eric, ba-cegnizquien ga-  
re JESUS maita-garriac, AL-  
Dareco SACRAMentuan ani-  
tzece eguñen ciozcaten, gauz  
arrigarri-ciquin-gaistoac; eta al-  
ere or bere SACRAMentuan  
gurequin guelditu naiez - ta na-  
iez egondu cen bere vicitza gu-  
ci-gucian: ta, azquenean, or  
guelditzean, erran, edo adira-  
ci izandu cien bere Apofstolu-  
ei; NAI andia-requin naizand-  
du dut nic nere azquen afari  
hau zuequin eguitea. NI, zú-  
en amorez, ta manduco guci-  
en oneraco, milla, ta milla  
nequeren artean, nere vici hau  
uztera noa; ta, befteric ez-  
pa-dere, nerequin daramat,  
orain nic, nere hordu hau etor-  
ri delaco, ta zu-equin, ta moun-  
duco guci-equin SACRAMen-  
tu onetan guelditzen nazalaco  
atsegin andi bat.

EZ du gauguero be-  
re ELIZan ecusi nai nere Aita  
eternoac, orain-dañoocoac be-  
zalaco, cecenen, bildotfen, ta  
era orretaco gauzen odol-if-  
furtzeric, edo aragui erreric.

EGUN-oro, ta beti ELIZa be-  
rean nere Aitac ecumi nai du-  
en, ARAGui-ODOla da, ne-  
re Sacramentu onetan nic utzi-  
co dudan, nere GORputzare-  
na.

HAU ematen zaionean  
edo MEZacoan, edo comu-  
nionen on-etan (naiz eman da-  
quiola becatu barcatuen alde,  
edo orien zorrac ateratzeco,  
naiz bera gandic erditteco Ce-  
rucõ ondatunac, eta ontarte  
berriac), pozic artuco du beti ne-  
re Aita eternoac; eta erditfi  
ditzatzuen zuec bi gauz-era ori-  
ec, orra or guelditzen da AL-  
Dareco nere SACRAMentuan  
nere Gorputz hau bere Odol,  
ta ARAGui gucia-requin; ta  
guelditzen da or, or nic iutzi-  
nic; eta nic or uzten dizuet hau  
gucia, ongui-ongui daquidala,  
GENTilac, HEREgeac, TUR-  
coac, eta CHRISTau gaistoac  
or niri eguinen dizquidatela  
anitz videgabe, anitz hista, char-  
queri, ta gauza lizun jzu-gar-  
ri.

ETA or bertan uzten  
dut nic gaur, nere jaquite, edo  
ecuste latz onetatic orain niri  
datorquidan, naigabe andia,  
edo nere naigabe onequin ora-  
in nic irabazten dudan, guci-  
gucia ere. ORAIN danic uz-  
ten dut nic or ori gucia, zuen

gu-

gucien oneraco ; ta uzten dut ori gucia nic or , nere atleguin-contentu guztiz andia-requin.

ORRA horduan JESU-ec bere APOStolu maiteci , ta orien buruan guri adiracia ; ta orra gueroztic beri JESUsec gu-requin eguiten duena.


HAU gucia ba-daquigu guc , zuc eta nic bioc ; eta ez gara orre gatic urtzen gu gure JESUSen amorez , edo JESUSi guc ongui naiez ? Eta ez gara gu gure JESUS maita-garria gana urbiltzen , urbiltzen garan bezain bacan , edo bana-quetan baicic ? ETA urbiltzen garanetan ere , certara urbiltzen ote

gaquozca gu JESUS maita-garriari ? CEMbat esquer ematera ? CEMbat agur eguitera ? ETA cembat horduz an JESUS maita-garria-requin amoriozco hitz-quetan egotera ?

GUre esquer-gabeac ! GUre centzuric-ezecoac ! ETA guc orretan galdu oi duguna !

ERA berecoac izain ote gara gu emendic aitzina ?

EZ baldin bere ! UTZ ditzagun , bada , guc emen bertatic leneco gure vide gal-garriac , artu behar dugun , on bat artzeco ; ta asi gaitecen orain , cinez erratetic : NERE JESU-CHRISTO , &c.



## LXXIII-GARREN OTOITZ-GAIA.

JESUSen ALDARERATZEA ; TA BERAREN ALDARECO Eche-guelac , eta soñecoa.

§. I.

JESUSen ALDARERATZEA.

I.

JESUS bera berez , edo berac confagracioco hitzaç er-raten cituela , jarri cen lembicico aldian Oftegun Santuz AL-DA-

X2

DA-

DARECO SACRAMentu onetan. JARRI cen emen, nai-gaberit bat ere bague; ta jarr cen emen, emen egoteco ogui--ardoen azalac, foñecoac, aintzurac, iduriac, edo accidenteac bucatu artean; ta egondu ere cen, hau an guertatu arteco dembora gucian.

HORDU berean, bada, edo JESUsec bere lan andi hau eguin izandu zuen, demboran, eman izandu cien bere APOSToluei, ta gañeraco APEZ guciei, lan andi berau eguiteco, behar zuten, escu gucia; ta hordu hartatic behartua guelditu cen, edo bere hitza emanic gure JESUS maita-garria, berac bere confagracion esan cituen, hitz berac orie erran-horduco, eguiñen zuela, APOSTolu berac horduan ecusi zutena; ta eguiñen zuela, horduan bezala.

ORRE gatic bada, ta ceren den, den bezalacoa, gure JESUS maita-garria, APEzac confagracion hitzac erran-horduco, ALDArean arquitezen da JESUS, ta an arquitezen da SACRAMentatua, edo ogui-ardoen iduriz, aintzuraz, edo accidenteaz estalia: ta, emen SACRAMentatua arquitezen den, dembora berean arquitezen da bere Aita eternoaren escoietic bere Ceruan.

ORRA cein laster eguiten duen gure JESUsec Cerutic ALDArerañoco bere vide luce hau! HITZ bi APEzac erran bitartean.

BEREBat eguiñen luque gure JESUS maita-garriac urrutiago, ta urrutiago arquitezen baliz-ere, Apez berac bere hitz biac erraten dituen demboran; utfic eguiten ez duena da alabaña gure Jesus maita-garria, ta ez len, ta ez orain eguin dezaquena; ta aldi hartan ori ez eguitea, daguiquen bezala, utfeguitea lizaque; ta utf-eguite guztiz arri-garria.

ONGUI: ta eguiten ote dezuzuc nere Anima, ori bera, edo zuc daguiquezuna, ta aldian, aldiaco zure hitzac escatzen dutena? CEMbat hitz eman ote dituzu zuc, zu bataiatu cinduzten hordutic egungo egun--eraño? EMAN cenuen zuc hordutic hitza (ecin uca dezaquezu), etziñala naf-tuco bein-ere zu mundu arroaren eguiteco galdu, edo galgarri-etan; etzenuela eguiñen zuc bein ere, Satanas gaitoac eraguin oi dituen, gauza gaito-etatic bat ere; ta garaituco cenituela zuc cere aragiaren naicunde macur-lizun-guciac.

HORduco cere hitz ori asqui ez irizitac bezala, hor-  
du

du berean eman cenuen zuc, JESUSen eran, beti zu vicitzeco hitza; bai ta aldian aldiaco gauz on guciac zucen eguiteco, ta cere neque gucién guratzearequin virtutez virtute JESUSen ondoren ibiltzeco hitz oso bat ere. BAÑA eguin izandu dezun beti zuc, zure hitz on oriec dioten, guci-gucia?

EZ nosqui, ta laurdenetan ere; ta orre gatic arqizten zara zu gaur, gaur zuc ditatzun, adina becatu-requin; ta, behar cenituquen virtuteatic bat ere bague.

BEGUIra nora zoacen zu, gaur-guero zu orrela bazabiltza. EZ da ori, ez, gaur zuri gure JESUSec eracusten dizun lana, ta eguitecoa. Eguizu bada zuc cere eguiteco hau; ta eguizu beti, gure JESUS maita-garriac bezala, edo lenbaitlen, ta alic zucenen-zunene-na: zaduzcan guero zu berequin beti bere Ceruan gure JESUS maita-garriac.

II.

NOLA eguiten ote du JESUSec, APAIzaren hitzac aditu-horduco, ALDAREco bere SACRAMentuan arqizte hau?

BAT ere beguiratu bague nor den, edo nolacoa den, conflagratioco hitzac erraten

dituen, APEza. BAT ere beguiratu bague, cer daducan bere gogoan APEzac, bere Meza ematen duen demboran; edo certaco den APAiz beraren MEZA ematea. BAT ere beguiratu bague, nolacoac diran, APEzac ALDAREra daramatzien, soñecoac, edo nolacoa den ALDARE bera, edo MEZ-eman toquia.

NAIZ ona dela, bada, ta naiz galdu-galgarri ciquina, MEZ-ematen dagoen APEza, an arqizten da gure JESUS maita-garria, APEz beraren escuetan APAIzac escuetan duen, ore, edo hosti gañean, edo Calizari beguira dagoela, conflagratioco hitzac erran-horduco.

EMAN dezala APEzac bere MEZA, bere Jaunari atseguin eguin naiez, edo eman dezala, bere gogo gaistoren bati atseguin eguitea gatic, ez du JESUSec orretara beguiratzen, ALDAREra etortzeco; beguiratzen dio, orre-taraco eman daducan, bere hitzari; ta APAIzaren conflagratioco hitzequin batean, an da CALIZan, ta an OREan, edo HOSTian gure JESUS maita-garria.

BEREBat guerttazen zazio gañeracoan gure JESUS-maita-garriari; bada, naiz zarra dela APEza, ta naiz gaztea; naiz eder-

ederra dela , ta naiz itñña ; naiz urgon-maingua , ta naiz zucena ; naiz elbarri , erdi eri bat dela , naiz indartñu fendorra , ez du orretara bat ere beguiratzen gure JESUS maita-garriac.

NOLACoa--nai dela , bada , MEZ--ematen dagoen Apeza , JESUS beraren icena efcua , ta lecua daduzca , ta JESUS beraren icenean erraten ditu confagracioco bere hitzac ; eta orrec oriec erran-hor-duco , eguiñic guelditzen da , orren hitzac diotena ; ta an dago bertan JESUS ALDARECO BEIE SACRAMENTUAN.

III. ETA gauz orietara beguiratzen ez duen , JESUS maita-garriac , anitz beguiratuco duela , deritzazu , gañeraco gauz-etara ; edo beguiratuco dinela , deritzazu MEZ emateco den ALDARECO , ecusteco , garbia dagoen , edo ciquiña ; gauz-oiial eder-meez , edo zar zatar-ciquinfcotez estalia dagoen ALDARECO , berari dagoan , eran ez-pa-dago , ara ez etortzeco?

NOLA nai egon dedilla MEZACO maia , edo ALDARECO , an arkitzen da JESUS maita-garria Apaizaren confagracioco hitz-eguin batean.

ETA orra guc ere , gueren eran eguin behar guentuen gauza , edo eguitecoa ;

baña eguiteco , edo gauza , ascotan , ta ascotan guc eguiten ez duguna.

EZ da zure gurafoa , edo zure Aita , edo Aima , zuc nai bezalacoa ; molda-caitz mintzatzen zaitzu , cerbait zuri manatzen dizunean ; ta naguitzen zara zu haren erranac eguiteco.

NAI cenuque zuc leguizqueen zure fenide zarragoac , zuri cere echecoac eraguiten dizquitzen , gauzac ; eta zu , cere fenide beren hitz bat aditu-hor-duco , minduric guelditzen zara ori-etara ; ta , erraten dizquitzen , gauzac eguin beharrean , erriertan , ta furrufadaca.

OZpin tanta batequin igortzi-hor-duco zuri cere Confessariac , edo Predicatzalleac cere Animaco zauriac , edo aztura gaiftoac , edo cere oneraco zuri oriec , edo befteren batzuec hitz ez-leun bi erraten ba dizquitzute , erretzen zaitzu cere bihotz barren gucia , ta guelditzen zara zu oin-pean erdi lertu duten , fugue char bar bezala ; guelditzen zara zu ongui futua , zaran gucia , ta izuriz , ta vendecuz bete.

ORRA zuc ascotan , ta ascotan eguin oi dezuna . ETA orra JESUS maita-garriac gaur

era-

eracusten dignaren videtic urri dabilen, eguitecoa! ETZenuque zuc, ez, era orretaco gauzaric eguñen bein ere, baldin zuc beguiratzen ba-cenu, lendabicitic zuc, edo cere bataiotic cere Jangoico onguilleari emanico, cere hitzetara.

ETZenuque zuc eguñen, ez, era orretaco charqueritic, zu ongui ohartzera, behartua zaudela zu, (zauden bezala) cere Christio, edo Christau-tafuna gatic, zucen, ta fite, edo lafter eguitera, zure Jangoicoac aldi-orietan, ta era orretaco, beste edocein-etan zu gantic nai duena; ta behartua zaudela zu, ori eguitera eme-emequi, ta afaldatu bague; ta behartua zaudela ori zuc eguitera, naiz datorquizula cere gauz orren eguin videa Girafó moldacaitz-etatic, aurride, fenide, edo ascaci muquer-etatic, auzoco gaisto-etatic, edo edocein beste saiets, edo alde on, edo gaistoratic.

ETZenuque zuc eguñen, ez, era orretaco gauz-etatic bat ere, beguiratzen ba-cenio zuc gure JESUSEn, orain ecusi dugun, Cerutic ALDArera etortze zucen bere-berealacoari.

BAÑA ez dezu zuc eguiten, ez ascotan beintzat, iur beguir-era orietatic bat ere;

ta cer da guero zuc eguiten dezuna?

CEER? Ceruraco anitz-eta anitz cere irabaci galtzea: cere anima gaifoa oben-culpen loi ciquiñez galduric uztea; zurretzat zure Jangoicoac ceducan, anitz laguntza galtzea; zuc onetli behar cenituquen, cere ichecoequin, cere zarragoquin, ta zurequin jarduqui oi duten-etatic cembait-equin, edo beintzat batzu-equin zu gaizqui guelditzea. EZ da ori, ez, gure JESUSEc bere-berealaco bere ALDArera-tzearequina eracusten dizun, bi-gairen gauza.

#### IV.

JESUSEc era onetaco bere ALDAreratzearequin eguiten duen, beste gauza da ALDAreratzea, behar den, demborra gucian, afaldatu gabe, ta issil-issilic alogoteco.

BEIN SACRAMentura ezquero, ez da, ez JESUS maita-garría andic ateratzen, ustelduac, edo galduac guelditu artean, an bera estaltzen duten, ogui-ardoen soñecoac, aintzuraiduriac, edo accidenteac.

ETA soñeco oriec eun urtez, edo gueiagogz irautera (iraun duten bezala, ALCALan, JESUSEn Compañiaco ELIZan

gor-



gordeac dauden , Forma chiqui confagratu batzuenac), oriez gorderic an egoin da JESUS dembora orretan gucian , ta oriec irauten duteño : ta egoin da , hitzic atera bague ; ta ara cenean, bezain gu ganaco amore andia-requin.

EGOeraren ederra ! ta orrec guri eracusten diguna!

CER ote da , JESUS-ec bere SACRAMentuco egoera orrequin guri eracusten digun hau ?

GU gauden , toquian, eman diguten , lanean, edo gueren eguitecoan, dacargun, vicitzan , ta beste edocein gueren gauzetan , afaldatu bague, ta naigaberit artzen ez dugula, guc irautea , gure Jaunac guri , edo Jaun-ordecoac besteric eraguin artean.

AISA , ta erraz orre-taraco gara gu , guc ezagutu ez-queru , ori dela aldi hartan gure Jangoicoac gu gandic nai duena.

ETA ezaguturic vici zaitezque , bai , ori dela , zure Jangoicoac nai duena , zuri eguin-quizunen bat datorquizean , ori zuri etorria gatic, cere gurafoen , edo zu beren escupean zaduzcatenen aitola-caberit dato-rela, dirudiela; bada orien uti-etatic ere zure ona

nai du atera zure Jangoico maita-garriac.

AH nic hau eguin izan-  
du ba-nu era orretaco aldi  
orietan ! IZAIN ez nituen nic,  
ez , izandu ditudan, adina , ne-  
re barreneco erretze , ta quez-  
ca ; ta eguinen nituen nic ira-  
baci andiac ; eta gaur behartua  
bezala neducan nic nere Jan-  
goicoa , urrengo aldietan la-  
guntza obeac , eta obeac niri  
emateco.

HAU nic orain daño-  
coan eguin bagueaz ongui da-  
muturic, artzen dut orain, guar-  
guero beti beti nic hau egui-  
teco asmoa.

INDAzu zuc nere JE-  
SUS maita-garria , cere ALDA-  
reraco etorrera ederra-requin  
eracusten didazun , guci hau,  
behar den , eran , ta guzritz  
zucen eguitero, cere, lagunza, ta  
ta gucia. Bai arren, bai.

## §. II.

JESUSEC ALDARERATZEN  
denetan izan oi dituen, ECHE-  
ac, Echeen Apaintzac , eta  
GUELAC.

### I.

**B**A-ditu JESUSEc, bai, mun-  
du onetaco laur zatietan;  
bai-ta mundu beraren zati ba-  
coitzeco anitz , eta anitz erri-  
tan ere bere Echeac , edo be-



re ELIZac ; eta bere ELIZ , edo Eche orietara dator JESUS maita-garria, bere SACRAMentura datorren aldi guci-etan.

BAÑA nola egon oi dira , gure JESUS orrara datorreneco , ta JESUS or arquitzen den , demboran, beraren Eche, ta Eliz orieç ?

ERRI andietaco cembait obequiseago maneatuac , edo apainduac ; baña orieç ere, ez, behar bezala , ta, JESUS maita-garriari dagocan , eran. EZ liraque , JESUSi dagocan , eran beraren Eche-Eliz orieç apaintzeco d.ña , edo asqui , mundu gucian arquitzen diran , urrecillarrac , itfako guci-etaco perlac , lur-peco , ta mendietaco DIAMante , TOPAcio , ta gañeraco ARRI eder guciac ; ez eta bazter gucietaco loreac , eta Ceru bereco izar argui-guilleac ere ; naiz letocela izar orieç beren Eguzquia-requin , eta lur-reco loreac , eta beste gauza guciac , orain dañoco gucian izandu dutena baño , mill-etan, ta mill-etan eder-tafun andia-goia-requin : JESUS da alabaña ERREGue gucien ERREGuea ; Ceruan , ta LURrean arquitzen diran , gauza gucien JAUna, ta JAbea ; ta gure Jangoico-guizon andi-maita-garria ; ta ecer-

III

ez-bat bezala da , ERREGue-Jaun-Jangoico-guizon andi oni dagocanaren aldean , Ceru-lur-rac , eta itfafoco bazterracc eman dezaqueen , guci-gucia ere.

ONGUI : ta onembat gauza , ta era onetaco gauzac ecer-ez bat bezala ba-dera JESUS maita-garriaren ECHEari , JAUreguiari , edo ELIZari dagocanaren aldean , orain gure dembor-etan ezartzen zaizcan, gauzac , naiz dela mundu gucian den , ELIZaric onenean ere , cer gauzac izain dira ; edo cer izan diteque gure Jangoico-guizon JESUS maitearentzat ELIZaric onena , ta onguien-onguien apaindua ere ? ETA cer izain dira gañeraco ELIZa chiqui , moldacaitz , gaizqui apainduac , edo apaindu ba-gueac ?

II.

MUNduco ELIZaric gucienac Erri char-chiquietan arquitzen diran , ELIZac dira, ta Errien beren eran egon oi dira Elizac berac ere. NOLA egoin dira bada orieç guciac gure JESUS-Jaun-on-andiaren daco , Erriric andienetaco Eliz-eder-galantac ez-pa-daude , Jaun on maita-garri gure JESUSi dagozcan eran ?

Y ZO-

ZOAZ, nai ba-dezu, zu cerori cembait Erri chiquitara, ta an zuc cere beguiz ecufico dezu. ZOAZ, bada, ta far zaitez an, erri char bacoitzeco Eliza chiquian, ta beguira zazu bazter gucietara.

LURretic alten ba-dezu zuc cere lan hau, edo angocere beguiratzea, emen ecufico dezu ooi char itusi moldacaitz bat, an ta emen lur ez-berdiña, edo aldapaz, ta mendiz eguiña dirudiena; emen ta an ecufico dituzu zuc illen ezurac. BAZterren batean, edo Elizaren erdian ecufico dituzu alqui char baldanac, eta oialtzar beltz erdi urratuac, eta autsez, arguizaguiz, ta lurrez diranac beteac; eta ecufico dituzu an gauzatic gucienac, beren rojutit, edo lecutic, atereac; eta guciac ecufico dituzu, behar ez bezalacoac, edo behar ez den, lecuac utziac.

LURretic guero zuc cere beguizac jasotzean, ecufico dituzu ELIZaco paretac gaizqui eguiñac, leuadu bagueac, belztuac, eta, beren tellatutic sartzen zaien, ura-requin, an ta emen, ta cembait aldetan guztiz ciquinduac.

ECUFico dezu guero, cembait Elizec beiptzat ez dutela gañean lata, ta tell ut-

sa beste estal-quiric; eta hau ere erdi urratua, ta zuloz beteac daducatela.

ORien guisacoac dira ELiza berarean COrua, CONFessateguiac, eta gañeraco gauzac.

BEGUIra zazu guero ELiza bereco ALDAre-ctaras; ta ecufico dezu cer eran arquitzen diran oriec, eta ELiza baten cein apain garri charrac diran guciac! ALDAre nagusia onena; ta hura ere erdieroria, edo erdi-usteldua, edo laur ardit edo corradu valio ez dituenac.

AN ALDAre orretan ecufico dituzu Santuen, JESUS maia-garriaren, edo onen Ama ederraren cembait aintzura, edo imagina, Inau-terietaco mozorroen, edo irriz jauntzitic dabilzan, guiza-charren aintzurac, edo imaginac diruditenac,

GAñEraco ALDAreac (bat baicic an arquitzera), ALDAre nagusiaren eracoac. Orientatic batean, edo nombait an ecufico dezu Virgin Ama Solidade-coaren, edo nequez, ta nai-gabez beteri-cacoaren aintzura, edo imagina; ta hura ere gañeraco gucien laguna, ETA, arquitzen ba-dezu nombait an GURUtzeco gure Jaunarena, ecufico dezu, ez due-

la,

ta, ez, gure JESUS maita-garriaren antz andiric; eta beguiratzen dionaren devocionea vizteco baño, beguira-tzallearen devocio gucia gal-erazteco, ohea dirudiela.

GULLa onetacoac, eta era onetan apainduac, edo, ecusi ditugunac bezain apain-garriric baguecoac dira, anitz, eta anitz erritan JESUS SACRAMentatuac izan oi dituen, Jaureguiac, edo Elizac; cembait Neeazaric erri beretan dituzten, echeac baño, chiquiagoc, laburragoc, eta molda-caitzagoc.

ECUSI zazu cer-nolacoac, Jangoico-guizon Erregue andiaren-daco, era orretaco Elizac, edo echeac.

### III.

ETA bere eche orietan gure JESUSi prestatzen zaizcan, GUELAC?

ECHEn beren eracoac! CHORI-caiola diñaco presondeguiac, edo Sagrariac!

ETA oriee ere certazcoac?!

ZUR-puscaz, edo olez eguiñac; eta, gueien gueiencan urre apur batez, edo cillarrez estaliac.

ETA ez dira aguitz obeac, ez; ez eta lasaiagoc ere erri andi-

etaco ELIza-nagufietan JESUS SACRAMentatuari berezten zaizcan, guelac.

ORRA non dagoen gaurta egun, negu, ta uda, ta urte guci-gucian; bai ta joan diran, milla-zazpi eun, ta ambat urte-etan ere, gure JESUS maita-gari, gure amorez SACRAMentatua! ORRA cer eche-guelac, gure JESUSec, SACRAMentura datorren aldi gucie-tan arquitu oi dituenac!

ETA eche ber-etaco gure JESUSen ZALdunac!

ARRAC, choriac, faguac, olloac, eta catuac; bai, gueiencan, edo beintzat anitz alditan; bada, MEZACO demboran ez izatera, errico gucie-tatic milagroaz urbiltzen da bat, gure JESUS maita-garria an ecutera; ta, anitz erritan beintzat, ez da MEZARic ematen haste oso-etan.

JAIO cenean ere, jaioa gatic (jaio cen bezala gure JESUS maita-garria) ichola char erdi urrattu batean, etzuen JESUSec ecusi, emen ecusten due-na bezalaco bacar-tasunic; bada, jaio-ceneco, an zwen JESUS jaio berriac Ceruco bere musica; an cituen mendico ARTZAIac; etzuten luzatu urrutico ERREguac; eta, beste-ric izan ez-pa-luere, anzuen

Yz.

beti.

beti berequin, gañeraco guciac baño, milletan, ta milletan gueiago valio zuen, bere Ama maita-garria.

HAU cer ote da gure JESUS maita-garria? CERU-co cere JAUREgui zabal eder-rean arkitzen zara zu, illen artetic viztu, ta ondoan ara ciñanetic! OR ba dituzu zuc milloica, ta milloica ZALdunic andienac, edo SERAfin, ta CHERUbin guciac, eta gañeraco AINGUERuac, orco SANTu, ta SANTA guciequin! CERTara zatoz, bada, zu gure artera, gure JESUS maita-garria, onembat bacartafun emē ecuftera, ta onen Eche guela, edo Eliza, ta Sagrari chiqui-charretan gau, ta egun, ta beti egotera?

GU ongui doatfuac, edo zori onean jaioc gu, guc eguitera gure JESUSen etor-aldi, ta betico ego era luce-tan eguin behar duguna! BADA ori guc zucen eguitera, erditico ditugu guc gure JESUSec dacazquigun, ondafun andietatic anitz zati: bai; JESUSec dacazquigun, ondafun andietatic; bada ondafunez beteric, eta gure amorez dator JESUS ALDARECO bere SACRAMentura.

HAU onela izan (den bezala), nere JESUS maita-gar-

ria, ta ni, alacoric ez-pa-liz baño, gueiago zutaz oroitzen ere ez nazala? CENZuric baguea naz ni, edo hihotzic ez dadanal edo ez daquit nic, cer nazan ni!

### §. III.

JESUSEN ALDARECO SOÑECOAC.

**N**OLA arkitzen ote da gure JESUS maita-garria Elizaco bere guelan, edo SAGRARIAN?

OGUI-ardoen aintzurrez, edo accidenteen estalquiz jauntzia, edo ogui zaticho, edo ardo chorta bat bai-liz bezala.

ECUSTen dezu cein laburra, gure JESUSEn orco soñeco? ORE zati, edo hosti chiqui-biribil bat diñacoa; ta arere laburragoa; bada gure JESUS Jango-co-guizon gucia jauntziric dago, hosti gucian ez-ecic, hostiaren edocein zatitan ere; ta JESUSEn orco soñeco da, hostiaren edocein apur bezain laburra.

EGUN jaioricaco aurri eguin lequioque, Jangoico guizon gure JESUSEn soñeco chiqui labur hau baño, laburragoric?

CER laburragoric? Aurric chiquienaren soñeco labur-

ra-requin eguin litezque Jangoico-guizon JESUsec bere SACRAMentu onetan duena bezalaco, berreun soñeco ere.

CHIquia, bezain segalla, ta ecer-eza da gure JESUSen ALDAreco soñeco hau. JESUSen SACRAMentu onetaco soñecoaren gaia bezain gai circillezco soñecoric, ez-litque eguinen Amaric errumesenac, edo behartfuenac ere bere hume behartfuari. UR chorta bat asqui, ta sobera da JESUSen ALDAreco soñeco hau galduric utzeco: ta, gueldiric dagoela ere, dagoen bezala emen gure JESUS maita-garria, ill-bat bete-horduco aitu da JESUSen emengo soñeco gucia; da alabaña gure JESUSen soñeco hau oguiaren zuritasuna, ta aintzura edo iduria, baña iduri, aintzura, ta zuri-tasun oguiaren izateric baguecoa, edo ardoaren aintzura, ta iduri utf-utfa, ta ardoric gabeco iduri-aintzura.

ORRA cer soñecoa, gure JESUsec ALDAreco bere SACRAMentuan duen, soñeco gucia.

ETA, non dic duela, gure JESUsec uste dezu zuc, emengo bere soñeco onen circizill hau?

ESQUEan bezala bildua, ta APEzac emana, dio

TERTULIANOC. BAI, APEzac ematen dio JESUS maita-garriari bere consagracioco hitzequin ALDAreco SACRAMentuco bere soñeco circizill hau.

BERE hitz oriec APEzac erran artean, ez du JESUsec SACRAMentuco soñecoric.

APAIZaren consagracioneco hitz oriequin galtzen dira MEZACO ogui-ardoac, eta guelditzen dira ogui-ardoen aintzurac, edo iduri utfasc; eta ogui-ardo iduri, edo aintzura orien pean guelditzen dira, JESUSen GORpitz-ODOLac, eta gañeraco GAUZac: *etiam in SACRAMentis propriis egens mendicitatibus creatis.* lb. 1. contra Marc. c. 4.

GAUZ-arrigarria; ta, Fe-deac, edo siniste onac guri ez eracustera, ecin sinies litequen, gauza! ECUsi dugun, bez in soñeco labur, segall, ecer-ez batequin, ta soñeco, bestec emanicoa-requin ALDAreco bere Sacramentuan gure JESUS maita-garria, izanic JESUS (den bezala) Jangoico altsu, lurreco bazterrac lore ederrez, munduco lurra lorez, mendiac belar egoquiz, aritzac, eta gañeraco zur-adarrac ostoz, ta azalez, ta Ceru gucia izarrez, behar den, eran estaltzen, eta ja-

untzen dituen! :

ERA onetaco. soñeco-  
equin, gure JESUS, izanic JE-  
SUS, bazter guciac bere Iza-  
te andia-requin ecin--gueiago-  
raño betetzen dituen, AITA  
eternoaren Seme-Jangoico-gui-  
zon eguiña ; edo Hosti chiqui-  
baten iduri pean gordea, baz-  
ter guciac betetzen dituen, Ai-  
ta eternoa diñaco gure JESUS  
maita-garria !

ETA izanic JESUSec  
( dituen bezala ) ALDAREco  
bere SACRAMentuan guizo-  
naren escu oin-begui ederrac ,  
eta gañeraco gorputz galanta-  
ren gauza guciac , guciac or-  
ogui ardo iduriz estaliac , eta  
ecer-ez bat-erà bezala bilduac !

CER gatic hau onela gu-  
re JESUS maita-garria , edo ce-  
ri dagocala !

GURI ongui naiez , bai,  
gure JESUS maita-garria ; ta gu-  
ri zuc cere ALDARE orretan  
eracuftea gatic , zu jaio ciñan-  
etic ill-arteco cere dembora gu-  
cian cere hitzez , ta eguiñez  
zuc guri eracuti izandu cen-  
guna !

BAÑA cer ote da , len,  
ta guero zuc guri eguiten di-  
guzun, eracufte hau ?

HAU da zuc guri atfe-  
guin char loien , ondasun gal-  
garrien , ta arro-tafunen nai-

cunde macurrac zucentzen, edo  
garaitzen eracuftea.

NON guc orre-taraco  
arqui guenezaque , era oneta-  
co eracufteric ?

ORRA cein humil , ce-  
in ecer-ez dirndiela dagoen or,  
ERREguen ERREgue, ta aguin-  
tzen dutenen manatzalle alfu-  
andi gure Jangoico maita-gar-  
ria !

ORRA cein segalla , ta  
cein ecer-ezezcoa , orec or gu-  
re amorez artzen duen , soñe-  
coa ; ogui-ardoen iduri, edo ain-  
tzura utfezcoa! ETA orra cein la-  
sai-tafunic baguecoa , gure JE-  
SUSec or bere SACRAMentu-  
andi orretan arturic daducan ,  
toquichoa ! BOCADu batena ba-  
ño ere aguitz laburragoa !

ECUSTen dezu? ETA  
ala ere ibillico zara zu , cere:  
animaren galgarri eguiñic , at-  
seguin char galduen , lurreco  
gauza lizunen , ta , antufte ar-  
ro eroac escatzen dituen , gau-  
zen ondoren ?

EZ arren , ez , gure  
JESUSzue zor diozun , amo-  
re , bazterric ez duena gatic ,  
eta gal' etzaitezen zu fecula gu-  
ciraco ez berriz orrelacoric, ez..



DES-

II..

DESCENDI DE CÆLO, NON UT  
faciam voluntatem meam. Joan.  
6. 38.

**E**Z nintzan ni etorri, ez, cion  
len batean gure JESUS  
maita-garriac, nere gogoac  
emiten didana, emen eguite-  
ra: ni nere Cerutic etorria naz,  
nere Aita maita-gariac nai due-  
na emen eguitera; ta nic ne-  
re Aita berari atseguin ori egui-  
teco, eguiten dudan, gucia  
eguitera, Aitac berac nai duen,  
garai onean, edo demboran,  
ta berac nai duen bezala.

ALA eguin izandu ni-  
tuen nic nere gauza guciac; eta  
gaci-guciac eguin izandu nituen  
nic garai onean, behar cen eran,  
ta bein ere utf-eguin bague.  
Orra horduan JESUsec ciona.

ETA egungo egunean  
ere erran dezaque, era bere-  
co cerbait gauz on; bada erran  
dezaque, ona ni, nere Aitac  
nai zuen eguiteco andia bucatu  
ba-nuen ere gurutzeco nere  
eriotza requin, ona non nator-  
ren nere Aita berari atseguin  
eguitea gatic, eta munduco gai-  
soen on-eraco ALDAreco ne-  
re SACRAMentura milla zazpi  
eun ta ambaturtez: ta onara  
nator ni, nere Apezac nai du-

ten, aldi gucietan; ta egun oro  
nator eun milla bider, ta anitz,  
eta anitz gueiagotan, ta nator  
beti, Apez berac nai duten le-  
cura; ta nitaz nai dutena egui-  
ten uztera.

ORIEC ni nere AL-  
DArean uzten ba naute, ez naz  
ni andic iguitzen. BECAraren  
baten ezpañ-etara eramaten ba-  
naute, edo eri errumes baten  
ohatzera, ara noa ni, oien janari  
izatera; ta, orien barrenan nic  
SACRAMentuco nere soñeco  
hau, edo ogui-iduria galdu ar-  
tean, an egoin naz ni, andic  
aldatu gabe.

ORRA, bada, gure JE-  
SUsec len, ta guero eguiten  
duena, bere Aitari atseguin  
eguitea gatic, eta gure oneraco!

ETA cer ore da orain  
guc eguin beharra gure JESUS-  
en icenean, ta gueren ona gatic?

ONGUI prestatu gueren  
buruac, gure Jangoico maita-  
garriac nai duena, naiz latza  
izan, ta naiz leun-erraza, beti  
ta bertan, edo bere aldian egui-  
teco. ONGUI prestatu gueren  
bihotzac, gauz on guciar in  
eguiteco, beharco dugun, bi-  
gu-in tafuna-requin.

GUEn bi prestatze  
oriec guc mug-onean, edo ga-  
rai onez eguitera, eguiten dugu  
guri gure JESUsec eracusia; ta  
egui-



eguiten dugu guc, JESUS be-  
ra gu ganatzen den, aldiertan  
atseguin andi bat eguiñen dion,  
gauza bat.

EZ ote diot nic orrem-  
bat zor nere JESUS maita-  
garriari.

BAI ta anitz, eta anitz  
gueiago ere.

ETA ez dut eguin uste  
nic nere zorandien alde, al de-  
zaquedana?

BAI ta pozic ere JESUS  
maita-garri berac orretan niri  
fendorqui laguntzen didala, ta  
nere eguin alean.

ALA guerta dedilla, ba-  
da, nere JESUS maita-garria;  
bai arren, bai.

## 2.

ECCE TU PULCHER ES, DILEC-  
te mi, & decorus. Lectulus nos-  
ter floridus; tigna domorum nos-  
trarum cedrina, laquearia nostra  
cypresina. Cant. I. 17.

**G**UZtitz ederra zara zu, gure  
Jangoico-guizon JESUS  
maita garria (erran dezaquet ni  
gaur, ANIMA Santaren eran).  
GUZtitz ederra zara, bai, ta  
ecin ecustecoagoa, ALDAreco  
cere SACRAMentura zatocen,  
nere JESUS maita-garria.

BAÑA erran ote deza-

quezu zuc, nere guifaco be-  
catari charra, aldi hartan ANI-  
ma Santa berac esan izandu  
zuen, gañeraco gucia ere?

ZORI oneco anima zu  
zuc eguia-requin ori gucia esan  
al-ba-dezaquezu!

CER cen bada, aldi hartan  
Anima orrec erran izandu zue-  
na?

ALDI hartan anima orrec  
esan izandu zúen: LOREZ  
ederqui apainduric daducat ora-  
in nic nere ohatzea; ta nere iche-  
co barren guciac cedro ederrez,  
ta Cypreiez eguiñac arqui-  
tzen dira; edo zu ni ganatzen  
zaraneco, nere Jangoico mai-  
ta-garria virtute-ederen lorez,  
ta lorez ederqui apaindua da-  
ducat nic nere bihotz hau gu-  
ci-gucia; ta dembora berean,  
arric, edo arrotafunic bague-  
co gogoracioz, ta oroitzapen  
garbiz beteric daducat nic nere  
adimentua; ta nere naimentua,  
edo nere vorondatea asmo zu-  
cen bilduz, ta naicunde garbiz  
ongui EDERtua. HAU cen harc  
aldi hartan esan izandu zuena;  
ta hau bera da, zuc eguiac er-  
ratera, asquico dena, zuc Eliz  
eder bat cere animan, ta gue-  
la guztiz apaindu bat cere bi-  
hotz orretan JESUfi prestatzea,  
comuniatzen zaran aldi-etaraco.

ALA da eguia! baña no  
la

la nic erran dezaquet (dionu) orren erdiric ere? NERE anima char galdu gaifo hau, gueien-gueienaz, izandu da orain dañocoan, Erri char bateco Eliza chiqui auti-dun moldacaitz erdi-erori bat bezala. NERE begai-etatic, nere beharrietatic, eta nere mihi char onetatic fartu oi ciran nere animan, norc daqui, cembat ur gaifo, tentu, ta ciquinqueri; ta oriec nic artzean, artu izandu ditudan, eran, ciquitzen citzaidan niri nere barren hau gucia, ta gueldi-era gaifo onen beldurrez, cerbait nic eguiña gatic, oriequentzeco, ez nuen eguiten nic, eguin al gucia, ta orretan nembillen demboran, cufatzen nintzan ni, edo ciquintzen nintzan cer, edo cer.

GUEROZTIC ere comuniatzetan, eraman oi ditut nic nere gogo char galgari onetan anitz eguiteco, ta nere bihotz berean, behar ez liraquen, cembait naicunde macur, ta asmo galgari: ta ez diot ni ematen nere JESUS maita-garriari, guela char, zartarrez erdi betericaco bat baicic.

CER erran dezaque, bada, nere JESUsec, or fartzetan denean? CER, ni era orretan ecusten navenean? ANITZ gauza, bai; baña guciac neretzat

III

gutziz alque-garriac!

NAI ez pa-ditut nic oriec aditu, asi beharco dut nic nere barren hau ongui garbitzen, ta virtutez, ta virtutez apaintzen. ORI da, orain, ta beti ni gandic nere JESUsec ecutzen duena; ta ori bera, ongui izateco, nic eguin beharra. Ba-negui, bada, emendic aitzina ba-dere! EGUIN ufte dut, bai, nere JESUsec orretan niri laguntzen didala. LAGUN zaquitzquit, bada, nere JESUS maita-garria: bai arren, bai.

3.

*FILI HOMINIS, OSTENDE DOMUI ISRAËL TEMPLUM, & CONFUNDANTUR AB INIQUITATIBUS SUIIS. Ezech. 43. 10.*

NOR nai arrituric uztecoa den, gauza da, JESUsec ALDARECO bere SACRAMENTUAN eguiten, ta eracusten diguna.

JESUSEN guiza tafuna, Jangoico-tafun gucia bere baitan daducan, Eliz andi-ederra da, dio S. PABLOC: *in ipso inhabitat omnis plenitudo divinitatis corporaliter*; ta ala ere, ecer-ebaten eran, arquitzen da or ALDARECO bere SACRAMENTUAN andi orretan, tafun andi oriecbiac dituen, gure JESUS maita-garria.

Z

ZAL-

ZALdun abetats, on-  
dafun guciac bere etcan di-  
tuen, Jangoico guizona da,  
APEzaren confagracioco hitzac  
aditu hortuco, or sarturic ar-  
quitzen den, gure JESUS mai-  
ta-garria; ta or arkitzen da,  
gure JESUS maita-garri ori, lur-  
reco guizonic errumesenac ere  
artuco ez lituqueen, soñeco-  
equin, ta ogui zaticho bat di-  
rudiela!

ERREgeuen ERRE-  
guea da gure JESUS maita-gar-  
ria. Aita eternoaren Seme ba-  
carra da; ta Aita bera diña-  
co Jangoico-guizona gure JE-  
SUS maita-garria; ta orra non  
arquitzen den or JESUS mai-  
ta-garri Jangoico-guizon ori,  
ecer ecin dagui-quen, janari  
bocadu baten eran, ta ezpa-  
ñetaco aice batec batetic beite-  
ra datamaquen bezala! ORRA  
nola arkitzen den ALDAre-  
co bere SACRAMentuan gu-  
re JESUS maita-garria!

ETA zu, becatari char-  
ra, nola arkitzen ote zara ce-  
re vicitzan, cere ibilleran, ta  
cere almo-gogoetan? AY ene!  
ecin gaizquiago, ta arri-garriz-  
co vide galgari-etan! BADA  
izanic ni (nazan bezala) ecin-  
ecer-ezagoa, ta lurpeco ar char  
ustel baten eraco humea, ibilli  
oi naz ni, gueiencan beintzat,

artotalunez, ta antustez guttiz  
betea, ta, ematen didaten, nai-  
gabe char bat ere ecin eramian  
dudala! bada izanic ni (nazan  
bezala), Ceruraco jaioa, ta an-  
go ondafun andien billan ibi-  
lli beharra; ibilli oi naz ni eme-  
go gauza char cirtzillen onde-  
ren; ta ibilli oi naz ni viden-  
bar, nere anima anitz alde-tara,  
ta guttiz lazqui ciquintzen du-  
dala! ta izanic ni (nazan be-  
zala) errumes char larru gor-  
rian jaioa, ta, ecer ez bague,  
mandutic atera beharra, ibilli  
oi naz ni, onguijuuntziric, er-  
raz, aisa, nere gogara, ta ara-  
guiaren atseguia charrez bete-  
ric, eta laur urtetaco aur char  
batec baño, centzu gueiago  
aguertzen ez dudala! ta orre-  
gatic, norc daqui, cembat be-  
catu-requin!

NERE galdu-eguia, ta  
nere betico galdu beharra, ora-  
in-dañoco nere almo arro-  
lizun-diruzcoac ez uztera nic,  
orien ordez nic artzeco, gure  
JESUsec dituenen, eraco almo  
garbiac! ORREtaraco garbi di-  
tzagun beinic-bein gueren bi-  
hotzac, leneco gure utf-gucien  
damu andi bat orain guc ar-  
tzen dugula; ta erran dezagun  
hitzez, ta bihotzez: NERE JE-  
SU-CHRISTO, &c.



# LXXIV-GARREN OTOITZGAIA.

JESUSEc, ONGUI COMUNIATZEN DENAREN ALDE  
eguin oi dituen , cembait gauza.

**A**LDAREco, bere SACRAMentura dator gure JESUS maita-garria , ecusi ditugun escu-indar, irabaci, ta amore gucia-requin ; ta Sacramentu onetara dator guc beharco ditugun , gauza guciac ( oriec guc hari , behar den , eran escatu ezquero)emen berac guri ematera ; ta dembora berean dator, guri gueren lanetan lagun eguitera ; edo guri lagun-eguitera , campoco gueren atfaiac aienatzen , ta orien lan-gai gaiftoac , eta vide macurrac urratzen ; ta guri lagun-eguitera gueren barrengo etfaiac escuratzensbar ta virtutez virtute ibiltzen ere.

NOLA eguiten ote du gure JESUSEc ori gu cia ? ORI da guc orain gutica gutica ecui uste duguna , JESUS-en esquerdan eguina c guelditzeco gu ; ta guelditzeco vide-

nabar gu maiz maiz , ta aldi-oro beroquiago , ta obequicomuniatzeco nai andia-requin. ASico gara guri gueren etfaiac aien-erazteco , gure JESUSEc ALDAREco bere SACRAMentuan eguiten duen, ecustecotic.

## §. I.

AIENATZEN DU JESUSEC  
fulececoa, ongui comuniatzen dena gandic.

**A**IENAtico zuela JESUSEc fulececoa , ongui comuniatzen cena gandic , adiraci zuen gure Jangoico maita-garriac bere Escritura Santan , JangoicoSemea guizon eguin baño, anitz urtez lenagotic,edo ISRA-Eldarrac EGYPTotic atera cituen demboratic ; eta adiraci zuen hau gure Jangoicoac , aldi hartan an ISRAEldarren alde eguin zuen

Zz

zuen

zuen , gauza batequin, ill eraz-  
ten diela orretaraco eche bacoit-  
zecoeci beren humerria, edo  
bildots bana.

ORRA , zuec orain  
emendic atera beharrac ( erran  
izanda cion Jangoicoac EGYPTon  
MOYfeti, berelSRAEdlar gu  
ciequin batean andic avian beza-  
la arqitzen cenean ). ORRA;  
zuec orain PROMISIoco ceren  
bazter ederrez jabetu naiac, eta  
emendic araco avian. Baña  
oraindic IGYto gaistoac, beren  
NAGUfi gogor ERREgue FA-  
RAOnequin , zuen gain aguitz  
gogortuac daude, ta zuec emen  
beren pean betiraco gueldiraci  
naiac. BA-daquizu zuc MOY-  
fes , bai , IGYto gogor oriec  
centzaraci naiez , ta zuen alde,  
oraindañocoan nic eguin izan-  
du dudana ( eguin cituen gure  
Jangoicoac EGYPTon hordura-  
co anitz gauz-arrigarri, ta mi-  
lagro ); ta IGYto-tzar gogor  
oriec ez ecusi eguin didatela.  
UTZazu, bada, MOYfes, utza-  
zu : ez da bere bat guertatuco,  
ez , orain nic eguin-gogo du-  
dan, gauza bat eguin ondoan;  
ta eguinen dut hau nic, bai,  
anitz luzatu bague.

ORAIN arqitzen za-  
razte zuec urtearen lembico  
illean; bada ill onen amalaur-  
garren gau-erdian illac gueldi-

tuco dira, zuec ecusico dezu-  
ten bezala, IGYto-guizonen, ta  
orien gauadu gucien arteco  
lembici jaioc. ETZAIo barca-  
tuc , ez, ERREgueren Seme  
andienari; etzaio barcatuco, ez,  
preson-deguian arqitzen den,  
Andre errumesa-renari; ez eta  
Asta-cume charrari ere.

ZUEN arteco humeei,  
edo ISRAEdarren lembici jioeci  
berebat guerta ez daquien, eguin  
behar dezue zuec , orain ni  
erratera noana.

ARRATS artaraco, pres-  
tatuco du eche bacoitzac ill-  
onen amar--garren egunetic,  
urte beteco bere humerria , edo  
bildotsa ; baña bildots man-  
charic baguecoa.

ILLEN dute illaren ama-  
laur garren arrats-aldean; ta illen  
dute, oi den bezala.

QUENDuco diote bere  
odol gucia, ta artuco dute odol  
hau artaraco ona den, ontziren  
batean.

JAITSico dira humerri  
odol bera-requin beren echeco  
atarira ; ta, berequin daramaten,  
odola-requin bustico dute eche  
bacoitzecoac beren ate-marco  
gucia ; ta, utzico dute hau bil-  
dotf-odolez den gucia busti-be-  
te-gorritua.

ERREco dute guero  
beren humerria ; ta echeco gu-  
cien

cien artean jan behar dute , den guciac , hartatic utzi bague deusere , urrengo eguneraco.

ADiraci cien MOYfesc ISRAEldar guciei,beren Jangoicoac manaturicaco hau guciac; ta guciac eguin zuten Jangoicoac manatu cienac.

ETA cer aguitu , edo cer guertatu ote cen guero?

GURE Jangoico maitagarriac MOYfesi erranicaco gucia.

ILL beraren amalaurgarren gau-erdian afitzen da, gure Jangoicoac artaraco bereci zuen , Iltzallea , iltzen ; ta iltzen ditu gau hartan berean ( ta anitz luzatu bague ) FARAon ERREGueren lembicico Semea , ta gañeraco IGYto gucién hume , edo Seme lembicijaio guciac ; baña urbildu bague , atariac , bildots odolez beteac , ceduzcaten , echeetar; ta viciric uzten cituela ISRAELdarren hume , ta lembicijaio guciac.

ILTZAllearen lan izugarri hau ecusi zutenean , arri tuac guelditu ciran ERREGue FARAon , ta gañeraco ICYto guciac ; eta gau berean , ta bat ere luzatu gabe , eman izandu cien MOYfesi , ta ISRAEldar guciei , berac nai zuten roquirra joateco , ta berequin batean ,

beren gauza guciac eramateco, beren baimena , ta licenci ofofoa ; ta , lembaitlen atera cirecen MOYfes , ta ISRAEldar guciac EGYptotic , eman cieztén IGYtar gogorrac , ISRAELdarrac escatu cieztén , urre , ta cillar guciac , eta , norc daqui, cembat oial, ta soñeco. Genef. 12. á v. 1.

ECUSten dezu zuc hau! ECUSten dezu zuc , ISRAELdar gaifoén alde humerri baten odola-requin Jangoico maitagarriac eguin izandu-xicacoa ?

BAI ?

BADA orain zuc ecuf ten dezun , hau gucia da , gure JESUS ALDArean guelditu cenic , emengo gure comunione-eran ( gu nor , edo behar dugunac izatera ) guertatzea denaren itzala , ta iduria : ISRAELdarren horduco humerria , edo bildotfa da alabaña , ALDAreco SACRAMentu andian arquitzen den , gure JESUSen aintzura , ta imagina bada JESUS ere bere eran , Escritura fantac dionaz , BILDotfa da ; ta bildots , comuniatzen diranen janari eguiña .

BILDotfa da , bai , gure JESUS maitagarria ; ta gure Jangoico maitagarriaren BILDotfa. ORI da len , guiz-ar-

te

tean vici cenean, S. JOAN BAPTISTAC Jesus maita-garriari eman izandu cion, icena; bada S. JOANEC JESUS ecusi izandu zuen batean, ARA, erran cien berequin ceduzcan, gendeei; ara Jangoicoaren BILDORS, becatuen quentzallea.

BILDOTSAREN icen hau berau ematen dio ELIZA guciac ere, comuniatu behar dutenei forma confagratua aguertzen dienetic; erraten diela; *Ecce agnus Dei; ecce qui tollit peccata mundi*: ona non dezuten, ona ceren Jangoicoaren BILDOTSA; ona non dezuen, becatuac quentzen dituen.

ETA ez da ez, nola nai bildotfa ALDARECO bere SACRAMENTUAN gure JESUS maita-garria; bildots gure janari eguiña da, berac bere Evangelioan, erraten digun bezala; bada efaten digu: *qui manducat meam carnem &c*, edo NEREC gorputz-odolac jaten dituen, nerequin dago, ta bere barrenan naduca NI.

BILDOTS GURE janari eguiña da, bada, gure JESUS maita-garria, edo mairagarriaren gorputza; ta gure JANARI, bere PASIONE fantaco neque, ta tormentu gucien suan, ta gurutze batean gucia sarturic, edo iltze fendor-

rez jofuric errea; ta da janari, edo bildots erre, comuniatzten den edocoin andic, eta chiquic oso-osofofic jaten duena; bada edocenec, comuniatzten den, aldi oro, jaten du JESUS maita-garriareu gorputz guci-gucia, berari dichezcon, gauza guci-equin batean, lenago guc ecusi dugun bezala.

ORRA bada non, comuniatzten diranac, jaten duten BILDOTS, ISRAELDARRAC jan zuten, bildotfa baño, aguitz, eta aguitz obeagoa, aguitz, eta aguitz eguiñagoa, ta, ISRAELDARREN bildotfa baño, aguitz obequi errea; bada jaten dute, Jangoico guizon JESUS onaren gorputza: jaten dute gorputz, oguei, ta amirur urteren buruan illa; ta gorputz, OSTEGUN fantuco, ta OSTILARECO neque gucien suarequin illa, errea, ta maneatua.

ETA orra non guelditzen den, gure JESUS maitagarri, BILDOTS onen odol gucia-requin busti-betea comuniatzten den, guizaquia, edo emacumea; bada JESUSEN gorputza jatean, edo, comuniatzten den aldi-oro, edaten du JESUSEN gorputz beraren odol guci-gucia, tantaric ere galdu bague. ON-



ONGUI : baña cer datorquio ongui comunitatzen den edoceñi , BILDots eder, JESUS maita-garriaren aragui, edo GORputz-ODOLac jaten dituen , edo comunitatzen den aldi orietan ?

ZUC diozun , eran , edo ongui comunitatzen dela, ISRAELdarrac EGYPTon beren bildotsfaren odoletic atera cituzten , ondasunac baño, ondasun aguitz andiagoac ; ta, orien artean , bere aldetic fulececo gaistoa aienatzea.

BAI , dio S. JOAN CHRISOstomoc ; bai , bildots ar JESUS onaren odolac urrantzen , ta aienatzen ditu, ongui comunitatzen denaren bazter-etatic , fulececo etsai gaistoac : *hic sanguis arcet Demones, & procul esse facit.*

ONETan berean cegoen, AUXENCIO ceritzan , Abade andi bat-ere ; ta , ecusiric bein Abade onec, etciotela baquetan iuzten fulececoac , beraren escolaco BASILIO ANAcoretari , ta bein ill-tzear zutela ; erran izandu cion , hura ala ecustean , comunia cedilla bere bereala , ta alic onguiena ; ta cegoela guero bat ere beldurric bague ; etzirala bereriz , ez , ar ganaco fulececo tentalariac ; eta ala guertatu

ere cen ; bada hura comuniatu ezquero etzequiozcan urbildu berriz bein ere bere etsai gaistoac. *Flor. exempl. v. Eu.h. tit. 9. ex. 9.*

HAU beste onic ez-palecar-ere Jangoicoaren bildots eder hau jateac , edo comunitatzeac , etzenuque zuc saiatu bear ongui , ta ardura, edo maiz-maiz comunitatzera ?

CER eguinen etzenuque zuc , cere aldetic aienatzeco , zure ondoren dabilen , zacur amurratua ? ETA ez daquizu zuc , ez dela , fulececo gaistoa bezain , zacur amurraturic , eta fulececo zacur onen amurracio gucia dela zure gain , edo contra , ta zu cere becatuaren izurrizco ozca-requin ill otza , edo cere animan guztiz galdua utzinaiez ?

BADA comunioneco JESUSeu odola ba da ( den bezala ) zacur hau , edo fulececo etsai gaistoa aienatzeco , nola ez dezu maiz-maiz , garbigarbiro , ta humill-humilqui billatzen , ta jaten ?

NERE eraqueriz , JESUS maita-garria , ta centzurric gabez , edo ceren ez nequien , nic zure ODOL eder-maita-garriac duen , indar andi hau , comunio-nean artzen

zaituena gandic aienatzeco su-  
lececo gure etsaiac ; eta ceren  
ez nequien nic fulececo gaiftoac  
nere ondoan cebilzanic ere !

BAÑA orain bata , ta  
beste daquizquidan ezquero,  
nic iguef-eguiñen dut nere al-  
eguiñean etsai orien atzapar  
lizun beltz-galgarri-etatic ; eta  
orretaraco urbilduco naz ni,  
orain dañocoan ez bezala, ta  
len urbiltzen nintzanetan baño,  
obequi prestaturic , comunia-  
tzera , ta zure odol-eder-indar-  
tuaz , nere JESUS maita-garria,  
ongui-ongui bustiric , edo be-  
teric guelditzera , zuc cerorrec  
hau nai dezula , ta ala presta-  
tzen ni zuc laguntzen ba-dida-  
zu. LAGUN zaquizquit bada,  
nere JESUS maita-garria ; bai  
arren bai.

## §. II.

ATERATZEN DU JESUsec,  
ongui comuniatzen dena,  
MUNDU gaiftoaren  
atzapar-etatic.

**G**URE Jangoicoac eguiñi-  
caco , MUNDU onetan ,  
edo Jangoico beraren ef-  
cu-etatic atera cen , lur onen  
gañean ba-da beste mundu char-  
bat ere. GUTtiz ona da , gu-  
re Jangoicoac eguiñicaco. lur,

edo Mundu hau ; baña Mun-  
du guztiz gaiftoa da , lur oneta-  
co , edo gure Jangoicoaren  
munduco beste mundu hau.

Eta Jangoicoaren mundu onetan  
arquitzen den , mundu hau  
da gure anima gaifoen irur et-  
sai-etatic bata ; ta hau da , Jan-  
goicoaren munduan vici diran  
gaifto gucien falla , edo pillas ;  
ta pill , edo fall guztiz arri-  
garría.

GAISToac dira GENTI-  
lac , gaiftoac dira TURcoac,  
eta gaiftoac JUDA-tar gogor-  
rac ; eta irur gaifto-er oriec di-  
ra mundu gaiftoaren zatiric an-  
diena ; bada oriec dira lurreco  
guci-etatic guejen-gueienac.

BAÑA ez dira oriec , ez,  
euscaldunen errietaco animen  
etsai tentatzalleac ; ez da ala-  
baña euscaldunen erri,gure-etan  
beintzat , eta orretaco genda-  
guiroric.

GURE erri-etaco , ta  
gure animen etsaiac , edo gu-  
re-alde-etaco mundu gaiftoa  
da , beren batato ondoan gaif-  
taturic arquitzen diranen gen-  
de-falla ; oriec dira alabaña ba-  
taiatu bague vici diran , TUR-  
coen , GENTilen , ta JUDAtar  
gogorren eran vici diran , gaif-  
toac , eta emengo gure mun-  
du gaiftoare n zatiac.

GURE arteco , ta baz-  
ter

rer gacietaco mundu gaistoac ba-du bere Buru-zaguia , edo manatzallea ; ta manatzalle hau da fulececo gure etlai galgaria.

BURU-zagui manatzalle gaisto-hau garaitzera , ta onen pean dabilzan , gaisto-etatic naiduten guciac bereztera etorri cen len gure JESUS maita-garria ; ta lan berera etorria dago guerozco demboretan or ALDARECO bere SACRAMentuan : *nunc Princeps huius mundi eijcietur foras* (Joan. 12. 31.)

BURU-zagui, edo PRINcipe gaisto onec eraguiten diezte bere munducoei, edo gaisto galdu guciei, al dituen, lan eiquin errebes guciac: eta guciac dira, S. Joanec bereiften dituen, iur videetatic batez dabilzanac; edo dira ARAGUILizunaren NATcunde loiac; bihotz diru-zale baten nai errebefac, edo, antustez beteric dabilen, buru artoaren gura galgarriac: *Omne, quod est in mundo, concupiscentia carnis est, & concupiscentia oculorum, & superbia vita.* Joan. 2. 16.

BEREN gogo gaistoac escatzen diena da, gaistoei fulececoac eraguiten diena; ta orre gatic arquitzen ditu fulececo eraguille gaistoac anitz eguille, ta bere munduco gende,

III

MUNdu gaistoco gaistoac beren gaizquien eguin-al-di-etan gaizqui eguin oi die ongui vici diranei; ta orre gatic dira mundu gaistoco gaistoac, ongui vici diranen galgarri gaistoac.

MUNdu gaistoco gaistoac eguin oi die onei beren gaizqui hau, edo beren lan gaistoequin lan gaistoac eguiten eraculiz; edo lan gaistoac onei eraguiten diezte.

MUNduco gaistoac eguiten die onei beren gaizquia, beinic-bein eman ez oriei beren gauza gaisto-equin gaista-videa: bada, ecufiz icasi oi dira, beste gauzac bezala, gaizquiac ere; gaizquiac eguiten ecufiz galtzen da, gaizquiac eguiteco, beldurra; ta ez da erraz, ez, gaiquiguilleci beguira vicitzea, ta gaizquiric ez eguitea: ta Espiritu Santu berac erraten digu, gaistoa-requin ba-zabiltza, gaistatuco zara; ta, cembat ere, zu-requin dabilen, gaistoa gaistoago den, ambat gaistoago zure animaren daco, edo ambat lasterrago gaistatuco zaitu fiarc zu. GAISToac era onetan onari gaistaqueria eraculstea baño ere, gaistoago da, gaistoac onari gaistaqueri bera eraguitea.

BERE gaista-queri hau eraguin dezoque gaistoac onari

Aa

ri

ri hondraco gaucetan, ondafun-gaucetan, edo bere animaco gauzeran.

BERE animaco gauzetan, gaizquiac eraguiten diozca gaisfoac onari, harc oni eraguiten diozcanean, behar ez diran, loiqueriac, ebaiteac, edo bertze gauza gaisfoac.

ONDafun gauz-etan gaizquiac eraguiten diozca gaisfoac onari, onac gaisfoaren erranac gatic norbaiti quentzen ba-diozca bere gauzac, edo ematen ez-pa-diozca, hari dagozcanac.

ETA hondran gaizquiac eraguiten diozca gaisfoac on gaisfo berari, gaisfoac onari afma-razten diozcanean, ez diran, gauzac, aguer-erazten diozcanean, gorderic egon behar luqueen, gauzac, edo erran-erazten diozcanean erran behar etziran, gauzac, edo, erran behar ez ciran, eran-erran-erazten diozcanean.

ETA cembat, eta cembat arquiteco dituzu zuc mundu galgarri onetaco gaisfoen artean, beren manatze, beren adirazte, edo hitzezco, edo lan macurrezco beren eracuste gaisfo-equin, ongui vici diran, gaisfoei gaizquiren bat, edo beste eraguiten ez dienac?

LAN-guiro gaisfo hau

eraguiten dutenac dira, mundu gaisfoac gendeac. ORIEC berac dira fulececoaren lagun tentatzalleac, eta gure bigarren etiai gaisfoac. ETA orien atzapar-etatic ere, fulececoa-ren-etatic bezala, gure animac ateratzeco da, gure JESUS maitagarriaren ALDAreco SACRAMentua.

HAU ere adiraci digu gure Jangoico maita gattiac, bere Eicenturaz ez-ecic, gure JESUsec berac eguificaco, gauza batequin ere.

Gure JESUfi, JERUSalengo ELIZan, JESUS, an arquitezen ciran, guciei eracusten ce goen batean, ecarri izandu cioten Andre bat, angó ESCRIBac, edo FARISEotzar cembaittec, erraten ciotela: Ona, Jaina, aragiaren loiquerietan, ta ezcontzac ciquintzen dituen, becatuan arquite dugu guc Andre char ciquin hau. ERA onetaco emaztequiac arrica ill beharrac dira, MOYSEfec dionaz; ta emen dacargu hau guc, gu gueren lan onetara baño, len, cer diozun zuc, ecusi naiez.

ESAN ba-liote, bezain ongui cequien gure JESUS maita garriac guiza-tzar oriec beren gogoan cecartena; ta, hitzic oriei erantzun bague, macur-tzen da JESUS an bertan bere-  
be-

bereala, ta asten da lurrean bere heria-requin, edo behatza-requin escribitzen.

ALA JESUS JUDAtar oriec ecusia gatic, etziran ifsildu bat ere; ta, orien gogoco berric etzuelaco uttean, galdetzen diote berriz, ta berriz ere gure JESUS maita-gariari, cer erantzuten duen, ecarri dioten, eguitecoan ?

ZUCENTzen da noiz-bait gure JESUS maita-garias beguiratzen die ESCRIBA-tzar, edo FARISEO acufatzalceci. NOLA uste dezu? BEREN bihoz-etarañoco gucia ecusten dien, Jangoicoaren beguequin; ta erraten die berari cegocan, mintzo-era zucen indarttua-requin: ZUEN arteco guizon, becatu-ric ez duenac, tira bezo Andre becatari orri bere lembico ARRIA. ETA, hau JESUSec oriei erran horduco macurtzen da berriz, ta asten da lurrean escribitzen, len bezala.

ERA hartaco bere hitz-eguite zorrotza-requin gogora ciozcan JESUSec FARISEO tzar, ta ESCRIBA bacoitzari bere becatu guciac; eta utzi cituen ESCRIBA-FARISEO guciac alquez beteac; eta berriz hitz bat atera bague, joan izandu ciran guciac bata bestearen atzetic, an uzten zutela Andre obendun

becataria gure JESUS maita-garria-requin.

ZUCENTzen da horduan berriz gure JESUS maita-garria; ta, non dira, erraten dio Andre, bere becatuaren damuz, ta alque andiz beteric an arquitzen cenari: non dira, onara zu ecarri-zituzten, guizonac ?

ETZAITu zu, ecarri zaituzten, guci-etatic batec ere condanatu ?

BATEC ere, Jauna, erantzuten dio Andre becatariac.

EZ eta nic ere, erraten dio horduan gure JESUSec; eta bidaltzen du andic, edo igortzen du, esaten diola: ea, zoaz: ta ez berriz cere vician becatu berric zuc eguin. Joan. 8. 3. &c.

ORRA horduan gure JESUSec eguin zuena! ETA orra horduco bere urricarizcolan eder onequin JESUSec guiri adirazten diguna!

CER ote ?

JESUS ona ganatzen dena; JESUSen ondora humilqui doana; gañeraco guciac gure JESUS utzia gatic, JESUS maita-garria-requin guelditzen dena; ta maiz-maiz, ta ongui comuniatzen dena, utzi oi dutela munduco gaistoac bere JE-

Aaz

SUS

SUS maita-garria-requin, ta ez dutela gueroz gaitzeraco billatzen; ta alitzen ba-dira noiz-edo noiz histaz, ta marmonoz, JESUS ona-requin guelditzen, edo ongui vici den, ta maiz comuniatzten den, onen gauzen gain, billatzen duela JESUS maita-garriac note orieciñsill-eraci; edo ematen diela JESUSEc berac beguietan beren gauza ciquin gaito equin; ta uzten dituela barrendic ongui alquetuac, beren eraufi, ta lan char gucien artean, edo orien ondotic.

**GURE** Jangoico-guizon JESUS, ta zure on-onguille-maita-garria! BECAFari char gaito-equin era onetacoa zaranean zu, nolacoa ote zara zu cere maitari garbi on-equin?

**ORAIN**go eberaticizan nai nuque nic ere. ERA orretaco-etatic izan nadin ni, ta zuri, nere JESUS maita-garria, atfe-cabe berriric ez eguitea gatic; eta dembora berean izan naiez zure bihotzeco maitari zori on-eco-etatic, vici uste dut nic nere azquen afnase-ranño, oben berriric eguiten ez dudala.

**AH** nic erditsi ba-neza zu gantic, nere JESUS maita-garria, ta bat ere luzatu bague,

nere eguiteco onec escatzen duen, zure laguntza ta gracia! **INDA**zu lendanic, orain danñoco nere utfi guci-gucien barcamentu osoa; ta, uts berriric eguin bague, ta orain diodan, gracia zucen eguiteco, escatzen dizudan, zure laguntza-gracia. Bai arren, bai.

### §. III.

**ATERATZEN DU JESUSEC** araguiaren atzapar-etatic, ongui comuniatzten -denaren anima.

**GUE**-requin dacargu, naita-ez guc gueren irurgarren etsaia; ta orre-gatic da gure irurgarren etsai hau gure etsairic gaitoena.

**ETSAI** gucien artean gaitoena den, gure etsai hau da gure gorputz atfeguin-zalea.

**GURE** etsai gure gorputz hau da, bere jan-edanez, bere lo lucez, asetze beroz, ta poz-atfeguin-contentuz garaitu oi gaituen, gure etsairic gaitoena. **GURE** etsai onen naitcunde galduac, eta gof-egarri ciquinac garaitzeco guc, eta araguiaren atzapar, ta becatu gucietatic igues-eguiteco, ez dugu gure JESUS ona-gana, edo comunione-co maira

onr

ongui, ta maiz urbiltzea bezalacoric. ADI zazu ez-peren gazte loi galdu bati bein gertatua.

ESCATzen dio gazte baret bein bere Aitari, bere eche-ric berari catorquiona. EMAten dio bere Aitac hau gucia: ta mutil-tzar arroac hau artu horduco, artzen du, andic urrutiraco bere videa.

AITZEN zaio laster an, an harc artu izandu zuen, vici-era ciquin galgarri batean, ta aragiaren loiquerietan, bere Aitari gaizqui quenduric, ara eramán izandu zuen, bere on-dafun gucia.

BERE behatrac, edo bere gabeac artaratzen zuela, asten da mutil-tzara, animalia beltzac zaitzen, eta, besteric izan gabez, asten da orien beren bazcatic jaten; ta al ere beti gofeac dabil; bada ecin zuen bazca ciquin hartatic ere, berac nai adina.

ETA ecufiric bere gofea, ta vicitza loi lizuna; ta, oroituric dembora berean bere Aitaren eheco ogui zuri onez asetzen ciran, lan-guilleez artzen du ara itzultzeo almoa.

BA-doa, bada, bere Aitari erratera: Aita zure Seme gaitoa naz ni, bai; ta aguitz ala ere, zuc cerorec dacusa-

zun bezala; ta ori bera ba-da-quite CERU guciac, eta lur-reco anitzec ere. ONGUI damuturic nator ni, bai, nere Aita on-egua, orain-dafoco nere eraqueri, ta ibill-era galdu galgarriez! GUCIEN barcamentua humilqui nic zuri escatzera nator. ESCATzen dizut, bada, emen bertatic; eta escatzen dizut videnabar, Seme-tzat ez-pa-da ere, ar nazazula zuc cere icheco languilleen artean.

BERE Aitari hau gucia errateco almoan artzen du mutil harc Aita bera ganaco videa. BERE Aitaren echera baño, len ochartzen zaio urrutitic Aita bera, ta bertan ateratzen zaio bere videra: ta, ar gana horduco, ematen dioz-ca Aitac berac bere Semeari bere apa-befarcac. ETA Seme berac bere Aitari errana gatic, Aitari efateco cecarren gucia, ez dio Aitac ateratzen leneco contu zare-tatic bat ere. UZTEN ditu Aitac alde bat, edo ez-pa-lira bezala, bere Semearen gaita-queri eroac.

ETA guti bai-liz bezala, era onetan oniec bere Seme gaitoari Aitac barcatzea, erraten die Aitac berac bere ichecoeis aguertu da, galduric cebillen, nere Seme hau; vizturic dator,



nererzat, illa bezala, cen, nere Seme maite hau; ta ill behar dezue cecor gucien arteco cecor, edo arece guicen bat, barazaltzera, edo jatera emateco, aguertu zaicun, nere Seme maite oni. ETA zu-etatic batzuec onen barazcaria, edo jatecoa prestatu artean, besteoc eman eguiozue bere lembicico soñeco ederra, bere escuco eraztuna, bai-ta bere oñetaco ederrac ere. ETA, hau gucia oriec eguin ondoan, ematen zaio Seme galdu eror-berriari bere barazcaria, ta musica ederra.

ECUSten dezue? BADA mutil onen Aita da gure Jangoico maita-garria: ta mutil bera, bataiatuic arkitzen den, edocein Christio; bada, bataoan artzen duen, Ceruco gracia-requin, eguioic guelditzen da edocein Jangoico beraren hume.

BAÑA guero becatuaztzen baba bataiatua, galtzen du bere becatua-requin Jangoicoac emanicaco gracia ren bere soñeco ederra; galtzen du caridadearen eraztuna, bai-ta Ceruco laguntzaren oñ-etacoa ere. ETA becatuz becatu dabillen, demboran, bere pafsione ciguioic bazcatzen dabill, ta onen beren bazca, baicic jaten ez due-

la; ta orre gatic dabill anima-co gofiez iltzen beri.

BALdin, ecufiric azque-nean bere eraqueria, ta bere vicitza galdua, ta, eguioiaz, behar den, eran urriquituric artzen ba du, bere Aita Jangoico maita-garriaren echera itzultze-co asmoa, ateratzen zaio videra Aita Jangoico bera. EMATEN dio confefsione humil on bateco bere apa, edo besarca. ITZULTZEN dio gracia ren soñeco ederra, ta bere adisquidetafuna; itzultzen dio caridadearen eraztuna; ta, zucen, ta aisa ibilli dedin, bere laguntzata azquenean ematen dio comunione oneco bere barazcaria.

ECUSten dezue, nola ongui comuniatzen dena gaudic aienatzen dituen JESUS maita-garriac ( bacoitza bere eran ) fulececoa, mundu galdua, ta aragui galgarria?

ETA ecusten dezue, cembat zure etfai oriec zu gaudic urrunago, ambat aifago zu vici zaitezquela cere Jaunaren gracia n, ongui, ta behar den, eran?

HAU baicic eguiten ez-palu ere gure JESUSEC ALDARECO bere SACRAMentuan ( anitz, eta anitz guciago ere eguiten du, urengo oroitz-gaieran aguer-

LUCO

tuco dugun bezala ); cer zorco ez guenioque gure gure JESUS amaita-garriari?

AL diran, esquerric, eta amaitatzeric andienac.

ASI gaitecen, bada, orretaraco, mutil galduaren eran, damuz beteric barcamentua escaitzen; ta esca dezogun, al dugun, cin guci-gucia-requin eraten diogula: nere JESU-CHRISTO JAUNA, &c.

I.

*CORDIS EIUS PARTICULAM SI super carbones ponas, fumus eius extricat omne genus Dæmonum. Tob. 6. 8.*

**T**OBIAS gaztea videz cijoan bein, bere lagun on, San RAFAEL AINGuerua-requin. VIDEco beroac hartara behar-turic, edo bere oñac an garbitu naiez, jaisten da Tobias, Tigris ceritzan, Ivai-ugaldera. AGUERtzen zaio arrai andi bat an, bere oñetan. ARTzen du TOBIASec, eta ateratzen du arrai-tzar hau, bere lagun AINGueru San RAFAELec adiracion eran.

ORRA (herduan erraten dio TOBIASI AINGueru lagunac); orra gure vide guciraco janaria: ta, videraco ja-

narria ez-ecic, orra or besteric ere: bada, zuc or atera dezun, arrai orren bihotzac eguiten duen, queac, icatz gañean erretzen denean, aienatzen ditu, fulececo galgarri gaiftoac. BEharco dezu zuc, egunen batez, bai, bihotz ori orretaraco; ta, ongui gorderic, contuz, ta galdu bague, eramanzu zuc cerequin ori ere arraiaren aragui ori bezala.

ERAmaten du TOBIASec; eta guerratezinda gucia San RAFAELec erran bezala; ta bihotz errearen queac aienatu zuen, TOBIAS guizon gaztea gandic fulececo gaifto, TOBIAS bezalaco zazpi guizon lenito cituen, bat; eta fulececo? TOBIAS ere, besteen eran, ito naiez arquitzen cen, gaiftoa.

ONGUI: ta arrai-tar baten bihotz erreac aiena badezaque fulececo gure etfaigaito amurratua, ALDAREco SACRAMentuan gure amarez erretzen dagoen, JESUSen BIHOTzac, eta JESUS guciac ez du aienatuco, behar bezala comuniatzen dena gandic fulececo gaifto amurratu bera?

CEER? ICATZ gaine-co arrai-tzar baten bihotzac adina, ecin daguique Jangoicoguizon-gure JESUSen BIHOTzac, comuniatzen denaren bi-

ho-

hotzeraño JESUS bera sartua gatic, eta comunitatzen den, berraren amorez ecin gueiagoraño futurid daducala. JESUsec bere bihotza?

BAI fegurqui, ta milla, ta milloi bider gueiago, ta gueiago ere.

BAÑA eguin oi du orrembat ere zurequin gure JESUSen bihotzac, eta JESUS guciac ere, zu comunitatzen zaran aldietan?

EGUITen ez-pa-du, zureac dira obenac; eta ori aguitzen, edo guertatzen da, ceren zuc aldi onietan prestatzen ez dezun cere bihotza, JESUSen BIHOTzeco amorearen fuz ongui beroturid guelditzeco. Prefata zazu ezperen humil-tafunez, Cernuco virtutez ta comunione garbi zucenez, ta ecufico dezu.

ONGUI da ori, nere JESUS maita-garia; baña behar nic orretaraco zure laguntza, ta gracia! INDAzu hau zuc niri deza-quezunac bezala; ta pozic nic eguinen dut ori gucia, zuc horduan aiena dezazun ni gaudic. fulececo nere etsai amurratua; ta maita zaitzadan nic zu nere al-eguindean. INDAzu, bada; bai arren, bai.



ET *MUNDUS TRANSIT*, ET *concupiscentia eius*; qui autem *facit voluntatem Dei*, manet *in aeternum*. I. Joan. 2. 17.

**A**ZQUEnean cer eguin oi dira, gure Jangoicoac eguin-icaco mundu onetan arquitzen diran, mundu tzar eroa, ta mundu onetaco gaistoen afmoac? CERTan guelditu oi dira mundu bereco antuste galduac, eta arro-tafunac? CERTan mundu tzar bereco gaistoen gueiago, ta gueiago izan naiac, gueiago, ta gueiago igan-naiac; eta gueiago, ta gueiago manatu naiac?

AICETan, edo ecer-ezean, quea guelditu oi den, bezala; ta ala guelditu oi dira alcotan beintzat, quea bezain laster, bai-ta lasterrago ere. AIN laster bucatzen diranac dira cembait gaistoren gogoetac, eta vici-era galduac.

ETA era orretan ibilli diran, ero-galduac berac certan guelditzen diranac ote dira, beren vicia bucatu ondoan?

BEREN Jaunaren betico etsai eguinac: fulececo putzu izu-garrietan ongui sartuac; eta eternidade gucico neque-pena gogorren atzapar-etan, ill baguc,

gue, lertuac! ZORI gaistoan jaioc  
neca-guiro arri-garri orietan  
berariaz beren buruac sartzen  
dituztenac! ETA berariaz an be-  
ren buruac sartzen dituztenac  
dira, fuleceratzen diran, guciac.

ETA noratzen ote dira,  
beren Jaunac nai duena egui-  
ten dutenac; ongui vici dira-  
nac, eta behar den eran, ta  
maiz comuniatzten diranac?

NORAtzen ote dira  
mundu-tzar-ero-arroaren igue-  
si ta itzurca dabiltzanac? NO-  
RAtzen ote dira JESUSen on-  
doren, ta beren JESUS maiz  
ALDAreco beraren SACRA-  
mentuan, ta comunione zu-  
cen-on-garbietan billatzen dute-  
nac? NORAtzen ote dira vir-  
tutez virtute, ta munduco vi-  
detic ecin-urrutiago dabiltzanac?

ETA certan guelditzen  
ote dira era orretan dabiltzanac?

NORAc ote dira orieac, edo  
certan gueldituco dira? BETI  
betico, ta zori oneco vicitzan:  
Ceru ederreco betico glorian;  
ta eternidade gucico atfegu-  
contentu-eran.

ZORI onecoac, bada,  
araco videan dabiltzanac! ZO-  
RI onecoac, ongui, maiz, ta  
era orretan comuniatzten dira-  
nac; eta beren comunione ba-  
coitzean beren bazter-etatic  
mundo eroa gueiago, ta gucia-

III

go urruntzen dutenac!

NI ere eguin ba-nendi  
orietatic bat!

NERE escuan dago  
hau, nere JESUsec niri lagun-  
tzen didala; ta lagunduco dit,  
nic ori nere JESUsi escatu ez-  
quero. EGUIN nai dut, bada,  
nere JESUS maita-garria, ta la-  
gun zaquizquit, cere escu indar-  
tiu boititza-requin: Bai arren,  
bai.

3.

*INFELIX EGO HOMO ! QUIS ME  
liberabit de corpore mortis huius?  
Gratia Dei per Iesum Christum  
Dominum nostrum. Rom. 7. 24.*

**E**DERqui deritzat nic (erran  
dezaquezu zuc ere, San  
PABloc bezala); ederqui de-  
ritzat nic, nere Jangoico maita-  
garria, ni gandic nai dezun, ta  
niri maatzten didazun, guci  
guciar; gucia da alabaña gauza  
garbi-on ecin zucenagoa.

EGUIN nai nuque nic,  
nere Jangoico maita-garriac nai  
dituen, gauza guci-etatic aldi-  
an aldiacoa, ta beti nai nuque  
nic, nere Jangoico maiteac nai  
duena.

BAÑA ez ori nai nere  
aragui loi erdi-galduac! ONEC  
atfeguín ciquinac nai, ta bere  
gogo gaistoac, eman oi diona!

Bb

ONEC

ONEC aisa beti vici nai, ta atecabecho bat ere eguiten etzaiola! ONEC vide zabalez ibilli nai, ta JESUSen nequezcotic guztiz urruti!

NORC atera nintzaque ni onen etfai-lein-galgarriaren atzapar-etatic, ibilli behar den videz, ta zucen ibiltzeco guero ni; ta ibiltzeco JESUSen ondoren dabiltzanac daramatzen, nequezco nere gurutzearrequin?


NORC? NERE JESUS maita-garriac, bere gracia-requin bortizqui niri, ta emen bertatic laguntzen didala. NERE JESUS maita-garriac, ni comuniatzan nazanetan, ta, niri lagun-du naiez, nere bihotzeco echerano fartzan zaidanetan, nic ala nai dudala; bada, nic ala nai dudala, emain dit aldi orietan JESUSec niri, nere araguiaren ibillera macurrac zucentzeco, ta eguin behar duena zucen eraguiteco, behar den, indar, ta

efcu gucia.

BAI beraz JESUS maita-garria? ETA orretara zatoz zu, ALDARECO cere SACRAMENTURA, ta guero gure bularretara?

ONGUI-ctorri, bada, ta milletan, ta milletan ongui-ctorri: ta atoz arren maiz, alcotan, ta aldi bacoitzean, niri dagoquidan, era onean! Bai arren, nere JESUS maita-garria.

EAÑA ez da cer beguiratu ez, cere etor-aldietan, orain arteco nere ibill-er galduei, nere vide-bague galgarriei, ta nere zu ganaco orz-tafun arri-garriei. ORAIN arteco nere utf-eguite guciez ongui urrituric arquitzen naz ni gaur; ta dembora berean arquitzen naz ni ondu nai vici-ten dor garbiz ongui bete; ta orretan nagoela orain nic adirazteco, erratera noa, alic cinquiena: NERE JESU-CHRISTO JAUNA, &c.



# LXXIV-GARREN OTOITZGAIA.

BECATURACO BERE BELDURRA REQUIN UZTEN  
du. JESUsec, ongui comuniatzen dena.

**B**ECaturatzen den, anima gaisoa ez lizaque becatu-raco, cer diran becatua, ta becatuari dagozcan, neque gogor-rac, ongui ecustera. Ez du orretara beguiratu nai bat-ere becatariac, ez du aditu nai ere becatariac; becatu videtic bera quen eraci-naiez erraten diotena; ta, becatuaren atseguin-charrac liluratzen dutela ere, becatuaren atseguin char beren ondoren dabil bat-ere tricatatu gabe: ta, becatu-etara oitu ezquero becataria, guelditzen da bere animaco goreria-requin, ta itsu-mutua, ta erdi gogortua bezala.

ETA, beste anitz calteren artean, calte orieci ere anima gaisotic quentzeco da gure JESUcen Aldare-ratzea, ta gure comunionea, prain guc ecusi behar dugun bezala.

§. I.

ONGUI COMUNIATZEN DENA beldur-erazteco, adirazten diozca comuniatzen denari gure JESUsec bere hitzac.

**G**Aitzera oitzen den, becataria gortzen da bere animan; ta ez du aditu nai ontzeco diña, edo aditu nai ez du orretaraco aditu, behar den, eran, edo behar bezala. POZIC aditzen ditu becatariac, eta hitz bat ba-dere galtzen ez dutela, ecer-taco ez diran, eleac, berriquetac, eta ataguiari, edo gogo galduari atseguin eguiten dioten, gauzac: baña, gorturic arkitzen dela, dirudi, era orretaco becataria, beraren onerato diran, JESUcen hitzac aditzeco: ta orrequin ez du eguiten gaitzera oitu den, becataria

Bbz                    nac

riac , berac eguin beharra , ta gure Jangoico maita-garriac nai duena.

ETA confessatzen denean , era orretaco becataria , edo ez du eguiten, bere becatuen barcameturaco, behar den, adina , edo, eguina gatic harc, orien barca-mentua erditseco, behar den, adina , etzaio guztiz fendatzen bere gorrieri hau confessariaren oñetan : berequin etaman oi du , gueiena beintzat , bere comunioneo maira.

BAÑA comunioratzen bada ori bera ongui , ta maiz, quendu oi dio bere gorrieri galgarri hau gucia gure JESUS maita-garriac. ETA ori da, gor-mutu batequico JESUSen lan batec guri ederqui adirazten, digun gauza.

ERAMAN cioten bein gure JESUS maita-garriari , gorrieria-requin , ta mututuric arquitzen cen , guizon bat; escatzen ciotela , ezar citzala bere escuac haren buru gañean, edo quen cezola bere gaitza, ta min , edo lan neca-garria. EGUITen du JESUSec escatzen diotena ; ta uzten du guizon hau bat ere gaitzic bague.

NOLA , uste dezu ?

ESCUtic artu , ta ateratzen du JESUSec gend-artetic gor-mutu hau.

ERAMaten du bazter batera. SARTzen diozca JESUSec , ara-horduco behari gorretan bere bi etiac , edo behatzac.

JESUSec hau eguitean, zabaltzen du gor mutuac bere ahoa. BUSTitzen dio horduan JESUSec bere listua-requin mutuari bere mihia. BEGUIratzen du guero JESUSec Cerura. Eguiten du suspirio , ta negar. ERRATEN dio; IDIQUI-ADI; ta bertan guelditzen dira idiquiac gorriaren beharriac , eta guelditzen da, trabaric bague , mutuaeren mihia.

ADITzen du gorrac , erraten diotena ; ta erraten du nai duena , len mututuric , eta hitzic bague arquitzen cen, guizon ber-berac. Marc. 7. 32.

ORRA horduan gure JESUSec guizon gor onequin eguin izandua : ta orra , ongui, ta maiz comuniatzen den , becatari gorlcotearen animan JESUSec berac eguiten duenaren aintzura , itzal-iduria , ta figura , edo imagina. ANITZ dira, viciric animan , edo becaturic bague , ta Jangoicoaren gracion , ta adisquide-tafunean comuniatua gatic , Ceruco gauzac aditzeco gorrieriz beteac arquitzen diranac.

ORIEN buruan bada;  
bur-



burdin-ola batean adina, aice, ta soñu. BEREquin eraman oi dituzte oriec beren comuni-oneco maira, echeco eguitecoen, zorrac atera beharraren, era onetaco, ta hartaco irabaz videaren, ezcontza contuaren jan-edanen, joco jostaqueten, ta era orretaco milla aurqueriren efcambillac; era beren efcambilla, edo arazo-era ori-quin gortuac arquitzen dira oriec, Ceruco hitz eder meemeac aditzeco; ta beren gorreria-requin ateraco dira oriec beren comunione-etatic, JESUS-quin oriec ez eguitera, gor-mutu fondatu onec eguin izandu zuena.

CER izandu ote cen, gor onec, bere gorreria uzteco, aldi artan JESUS maitagarria-requin eguin izandu zuena?

JESUSen ondoren atera gend-artetic, JESUSec eraguin nai cion gucia eguiteco almonan; ta orretaraco an egotea, JESUS ona gandic bere beguiac bat-ere quendu bague.

ERA orretan egoten bazara zu, garbiro, ongui, ta contuz comunitatzen zaranetan: edo joaten bazara zu, comunitatu-horduco 'baztercho batera; edo, zauden lecuan, guelditzen bazara zu, cere begui-

ac ongui bilduac daduzcatzula, ta, lureco asmo galduac, eta gogoeta arin char guciac aldebat utziric, naiez, ta gogoz cere JESUSi beguira-beguira; ta dembora berean oroitzen bazara zu JESUS beraren PASIONE Santaco suspirio, ta negar guciez, quenduco dizu, bai, JESUS maitagarriac cere gorreria, ta adiracico dizquitzu, aldi hartan zuri dagozquitzun, gauzac, eta ar-eracico dizquitzu, berriz becatutzeco beldur on eder-Ceruco bat, eta becatu berritic ez eguiteco, asmo, ta neurri zucenac.

BAI, dio gure Jangoico maitagarriac; bai; ecutic artuco dut nic, nere hitz eme onac aditu-naiez arquitzen den, anima. ERAMain dut nic hau baztercho bacar batera; ta, an bioc bacarric arquitzen garanean, quenduco diot nic anima gorrari bere gorreria, ta adiracico diozcat nic, jaquin behar dituen, ta ongui dagozcan, gauzac; eta adiracico diot nic hau gucia guztiz emequi, ta amoriozco hitz-quin: *ducam eam in solitudinem, & loquar ad cor eius.* (Ofec. 1. 14.)

ETA ecusten dezu, ez duela JESUSec bere hitz-eguite meconetaraco, comunioneco hordua bezalaco, hordu-aldiric; bada

da zure barrenean arquitzen da horduan JESUS maita-garria, ta bioc arquitzen zarazte bihotzez bihotz hitz-eguin dezaquezen eran.

ANITZ hitz-eguite zuten eguin izandu dezu zuc, cere hitz-eguin aldi orietan, cere JESUS maita-garria-requin? ER-RAN izandu ote diozu zuc JESUSi, cere hitz-eguin aldi orietan SAMUEL Profetac bere Jaunari bein erran izandu ciona?

HITZ-eguizu (erran izandu cion bere Jaunari aldi hartan Profetac); hitz-eguizu zuc, nere Jangoico maita-garria; ta hitz-eguizu, zuc cerorrec nai dezuna; bada erne arquitzen naz ni gaur, ta guztiz icafi-naia cer ote den, ni gandic zuc gaurguero naico dezuna: *loquere Domine, quia audit ser vus tuus.* (1. Reg. 3. 10.)

SAMUELe aditu zuen aldi hartan Jangoicoaren hitz guztiz icara-garri bat; eta, zuc eguitera, comunio-neco-cere aldi on orietan, SAMUEL gazteac bere aldi hartan eguin izandu zuena, adiracico dizu zuri ere, bai, cere Jangoico maita-garriac, zu beldur onez beteric uzteco, guztiz ona den, bere hitza, ta mintzoa; bai ta behar den, beste edosein gauza ere.

EZ dezu zuc cere Jangoicoaren era orretaco hitz-quetaric, eta mintzo ederric aditzen, comuniatzen zaran cere aldietan? COMUniatzen zaran, adiuntzan bezain mutu, ta motel gueldicen zara zu, comuniatu ondoan? LEN adina naspilla ba darabiltzu zuc cere gogoan, ta alimoan, Elizatic echeracoan, cere eche berean, ta zu zabilizan bazter-etan?

ETZARA beraz baztertu zu cere JESUS onarequin, comuniatu zaran aldietan? BE-RAz bazter-etara beguira egondu zara zu, ta cere gogucia Elizatic urruti ceneducala, zure JESUS ona zurequin zuc ceneducan demboran?

ETZENuen eguinen zuc, ez, era orretaco char-queric Españiaco ERREguea-requin, Erregue hau zure barren orretan, edo echean fartzera, comunione eran barrenbarren--eraño fartzen zaitzun bezala cere JESUS maita-garria.

ESPAIN-darren ER-REgue hau zure echean arquitzen cen, demboran, an egoin cianan zu, arriu bat bezala, ta Erregueri arseguin eguitea garic, cer eguin etzenequiela, ta Erregue orrec horduan ateratzen cituen, hitz-

gu-

gucietatic bat zuc galtzen et-  
zenuela , harc zuri adirazten  
cizquitzun , gauzac an bertatic,  
eta guztiz zucen zuc eguiteco.

HAU gucia eguiben ce-  
nuque zuc (eta poziz al-ere)  
lurreco ERREgue orrequin,  
edo era bereco beste edoceñe-  
quin; ta egonic zu (zauden  
bezala) comuniatzen zaran, al-  
di oro, cere barrenean dadu-  
cazula, Erregue gucien Erre-  
gue gure JESUS Jangoico gui-  
zon andi maita-garria, zu zau-  
de, zauden eran, edo ogui  
pusca bat baicic cerequin ez-  
pa-ceneduca bezala, ta hitz  
on bat erraten ez diozula zuc,  
eta beracerran nai dizquitzun-  
etara ohartzen etzarala? AH  
zure gor-mutu centzu gabea!

ALA da, nere JESUS  
maita-garria! EGUIA diozu;  
bai, barcatu behar didazu zuc  
orain-dañooco nere molda-ca-  
itz-queria, ta aisola cabea. Bes-  
teric izain da, bai, gaur gue-  
rocoan, JESUS, nere ERRE-  
gue, ta Jangoico ecin andia-  
goa! GAUR-guero ni, comu-  
niatzen nazan, aldietan, egoin  
naz, bai fegurqui, orain-da-  
ñoocoan ez bezala. NI egoin  
naz, bai, nere gorputzeco  
beharriac ongui estaliac, edo  
guztiz bilduac daduzcadala, ta  
nere animacoac zu gandic que-

tzen ez ditudala, obequi nic  
aditzea gatic, zure hitz mee-  
onguill-ederrac diotena. IN-  
dazu zuc, hau nic eguiteco,  
ta zure hitz guciac nic, bate-  
re galtzen ez dudala, contuz  
aditzeco gracia. BAI arren, JE-  
SUS maitea, bai.

§. II.

ONGUI COMUNIATZEN DE-  
nari eracusten diozca JESUS-  
ec anitz gauza izugarri.

**E**CI bagueco, zaldi bero-  
vici bat bezala da, gaiz-  
quiz gaizqui dabillen, becata-  
ria. LOTzen, edo itlasten ba-  
zaizca zaldi bero eci-gabeari  
cembait mand-euli, edo ecuf-  
ten ba-ditu bera atzitu, edo ar-  
rapatu naiez dabilizan, guizo-  
nen batzuec, ematen dio ber-  
tatic lasterrari, ta irriatziari;  
fartzen da lembait len bere  
lar-artean; fartzen da erreque-  
tan, fartzen da urean, edo  
guizon orien escu-etatic, edo  
eulien ortz---etatic libratzeco,  
ona dela deritzan, edocain zo-  
cotan, edo toquitan; ta gui-  
zon orien escu-etatic igues egui-  
tea gatic, ez du beguiratzen  
malcor-teguira, ez du begui-  
ratzen ito-toquira, edo ezur-  
ren autf-vide-etara: ta, naiz  
au-

autsi, ta naiz ez aldi orietan, bere belo-zancoac, iguesia, ta iguesia, baicic ez du gogoan zaldi-ero eci bagneac.

GUIsa berean, bada, ibilli oi da, gaizqui oitua dagoen, ta becatuz becatu ibilli oiden, becataria, beraren oneraco artu nai dutenen, escuetan ez guelditzea gatic.

EMAten ba-dio era oneraco becatariari bere barreneco naigaberen batec, edo becatuaren quezcac; ecuten ba-ditu becatari modu onec, bere ondoren bere atzetic darraizquiola, edo billatzen dutela bere Confessariac, edo Predicariac, edo ongui nai dioten, besteren batzuec, orien escuratze-co beldurrez, edo ar-eraci ez dezoten oriec, berac artu nai ez duen, Ceruco pausua, ta virtutezco ibillera, ematen diobertatic ignesiari, bere atleguin charrac ez utzi maiez; ta ba-dabill malcorrez malcor, amill-toquiz toqui, ta ascotan erortzen ere da becatu berrien lece izu-garran, ta loi gaisfoan: ta ala-ere, ori dela, deritza, munduco ibilleraric onema.

AIN andia da, gaizqui oiturric dagoen, anima gaisfoaren begniac duten, itfu-tafuna!

ERA onetaco anima itsuac, berea itfu-tafun galgar-

ri onetaz cinez damuturric, ongui confessatzen ba-dituzte, len eguñicaco beren oben-culpa guciac, eta guero humilqui ba-doaz beren comunionera, itfu bat bein JESUS ona gana cen bezala, aguertuco diezte JESUSec gauza izugarriac; argueguñien die guero, gauz oniec berac ecutec; ta utzico ditu guztiz beldurtuac, eta Ceruco videan ongui sartuac.

BA-daquizu cer izanduz cen, guizon itfuac gure JESUS ona-requin eguin izandua? ADI zazu orain: nic errain dizut.

JERICO ceritzan, erri baretic atera, ta cijoan bein gure JESUS maita-garria: ta cijoan anitz lagunen artean.

JESUSec ceraman, vide berean arquntzen cen hordur hartan itfu errumes escari bat: eta, an cetorrela JESUS, itfu onec, aditu-horduco, asi cen ojuca, ta erraten; DAVIDen echeco Semea (ta Aita eternoaren Seme JESUS ongui-guillea), urrical zaquizquit arren niri ere!

HAU haren ahotic aditu-horduco, asten zaizca itfu gaisfoari erriertan JESUS equin cidoacencac, eta erraten diote: ago isillic, eta ez dezaela hitzic atera.

BAÑA ez-aditu eguiten die

die itfua bere ojulariei; ta be-  
ra ifildu lecuan, aviutzen da  
lembician baño, oju andiogo-  
equin; ta erraten dio berriz;  
ta berriz ere gure JESUS mai-  
ta-garriari: DAVIden etheco  
JESUS, urricai zaquizquit ar-  
ren; ta ez nazazula utzi, na-  
goen eran.

GUELditzen da JESUS  
maita-garria itfuari beguiratzen.  
ECAR-erazten du itfua, bera  
dagoen, toqura. BA-doa it-  
fua lafterca, ta gañeco bere  
foñecoac an utziric. ERRATEN  
dio JESUSEc itfuari, cer nai de-  
zu zuc orain nic daguidan zu-  
requin?

ERAntzuten dio itfu  
gaifoac; JAUna niri zuc emen  
bertan ecul-eraztea.

ONGUI da, erraten  
dio JESUSEc itfuari: oraingo  
zure finiste, ta ni gango uste  
ona gatic ematen dizut nic ef-  
catzen didazun, cere eculstea.

ETA JESUSEc hau hari  
erran-horduco, guelditzen da  
itfua itfu-tafunic bague, ta eculste  
oso onarequin. Marc. 10. 46.

ORRA horduan gui-  
zon itfu onec eguin izandua: ta  
orra zuc ere, comuniatzen za-  
ran, cere aldietan eguin behar-  
ra, nai izatera zuc, dizun zu-  
ri gure JESUSEc cere animaco  
eculste garbi on eder bat.

III.

BECATari gaifoac ez da-  
quizqui oforo, edo eculsi nai  
ez ditu, behar bezala, beintzat;  
jaquin, ta eculsi behar lituquen;  
gauza guciac; laño-pean beza-  
la dabil alabaña era orretan da-  
billen demboran, ta becatuen  
queez itfutu-galdua.

GORdetzen zaizca  
bere Jangoicoaren izate andia,  
Jangoico beraren eculste garbia,  
ta ontasuna.

EZ die, becatu-erara oi-  
turicaco, animac beguiratzen,  
ongui vici diranei gure Jangoi-  
coac eman uste diezten, secu-  
laco atfeguinei, ta Ceruco glo-  
riari; ez eta gaifoac beren gain  
attu beharco dituzten, fulece-  
co neque-tormentu arri-garriei  
ere; ta, emen beti vici beharra  
bai-liz bezala, emengo gauza  
char galgarri loiei beguira lilu-  
ratua dago, ta itfuaren eran.

ERA orretaco-anima  
becatari itfu-etatic ote zara zu  
ere? EGUIzu bada, itfuarena.  
ADITU-horduco zuc, edo PRE-  
dicaria gandic, edo libritic, edo  
lagun ona gandic; edo nondic  
nai JESUSEn hitza, ta dei leun  
mea, utzazu lembaitlen con-  
fessari onaren onetan cere be-  
catuen foñeco-tzar ciquiña; ta  
zoaz humilqui, zoaz viciro, ta  
nai garbi on andia-requin co-  
munioco maira, ta JESUS ona  
gana.

CC.

ETA.

ETA comuniatu, bezain laster aſi zaquiozca hitzquetan, itſuaren eran, erraten diozula; nere JESUS maita-garria, badaquizquit nic, bai behartſu anitzi zuc eguiñicaco ontarteac. NI baño, behartſu-agoric non arquituco dezu zuc mundu gucian ere?

ITSUturic arkitzen naz ni nere animaco gauzeran; eta nere paſſione gaiſtoac narabilte ni, berac nai duten, videz, ta eran, edo berac nai bezala; edo becatuz becatu, ta erortzez erortze.

ECUSten dezu zuc, nere JESUS maita-garria, ala dela, nic orain diodan, hau gucia! URRical zaquizquit, bada, niri ere; ta quen zadazu nere animaco itſu-taſuna, bere begui-etacoa leneco itſuari quendu cenion bezala.

LURREco zure aſinoac, zure oroitzapen galduac, eta zure eguiteco char galgarriac aſten ba-dira zure buruan, becataria, ojuz bezala, ta cere comunione oneco otoitzac zuri eragotzi-naiez, eguizu zuc al-eguiña, bertatic guciac iſſil-eraztea gatic; edo eguizu zuc, oriec atzen-eraztera; ta eguizu guero alic bortiz-quienna cere otoitza, ta eſcaera: ta aguertuco dizquitzu zuri ce-

re JESUS maita-garria gaiſtoen ibillerac, gaiſtoen perillac, malcorrac, amil-teguiac, eta eternidade guciraco ſuac, eta nequeac: bai ta on-vidaeac ere; ta ongui vici diranen betico atſeguín-contentuac.

BAI dio DAVIdEC, zoazte zuec era orretan ceren Jangoicoa gana, ta arguiz, ta jaquitez Jangoico berac beteco zaituzte zuec: *Accedite ad Deum, & illuminamini.* Pf. 3. 36.

EZ dituzu izaten zuc cere comunione-etan era orretaco arguiac, eta orrelaco ecuitac? UZten diozu beraz zuc cere JESUS maita-garriari zu gantic joaten, zuc hari deitu gabe, zuc hari hitz-eguín bague, ta JESUsec berac ſendatu zuen itſuac eguín izandu zuen, lan ona eguiten ez dezula. EZ da ala?

BAI JESUS maita-garria; bai, ala da! NIC nerequin iduqui oi zaitudan, comunioneo nere aldietan egon oi naz ni ez daquit nola; edo centuzric ez duen, ero char baten eran! NERE beharraz ere oroitzen ez naz ni nere aldi on orietan, zuri nic cerbait eſcatzeco, ta zuri cere izate andia gatic, eta ALDAreraco cere etortze amorezcoaren alde zor zaizquitzun, agur humi-


Ilac, eta ongui-etornac egui-eco, dagozquitzun, esquer-rac zuri nic emateco, ta zurequin ni bihotzez bihotz, ta amoriozco hizquetan egoteco.

NERE echera etorri oi den, char-ena-requin ez naz ni, nere JESUS maita-garria, zurequin bezain labur guelditzen!

NERE comunio-etan nic zuri eguiten dizudan, begui-tartea baño, begui-tarte obea eguiten diot nic edocein aurri, aurra mandatuz, edo cerbaiten esque nere echera etorri oi den, aldietan: ta orre gatic atera oi naz ni nere comunione-etatic, ara nintzanean, bezain gor-itlu-gogorra.

JESUS! ta nere galdu galgarria! EZ al da berriz one-lacorric guertatuco? EGUIñen al-ditut nic gaur-guero comuniatzen nazan, aldi gucietan, JESUSen escutic bere ecuti-era artu izandu zuen, itluac eracutli dizquidan, gauzac.

EGUIten ba-ditut nic oriec guciac, quenduco dit niri JESUS maita garriac nere animaco itlu-tafuna; ta eguiñic utzico dit beldur-tafun one-raco vide-zabal-zucena. ALA guerra dedilla! Bai arren, bai.



BELDURTZEN DU JESUS-ec ongui comuniatzen denaren bihotza.

**O**NGUI comuniatzen den, becatariaren bihotzari guertatu oi zaio, ISRAELdarren bihotzei guertatu-ricacoa, ISRAELdarrac aditu zutenean, Jangoicoac Aingueruz aguertucien, bere Leguea.

BERE Legue hau orieci ematera igorri, edo bidaldu cien Jangoico maita-garriac Ceruco bere Aingueru-etatic bar.

ETORRI cen Cerutic Aingueru hau, SINAI ceritzan mendi batera; ta etorri cen Aingueru hau, odei guztiz ar-rigarri batean fartua, edo jar-ria. Aingueru onec cecarren, odei oni ceriozcan aditu diran, otfic, edo trumoic andienac, eta, ecusi diran, chimistaric, eta lu-gar, ta queric izugarrienac.

ORI gucia ceriola, ta era arri-garri onetan egondu cen odei hau, Jangoicoaren Aingueruac Legueco hitz guciac ISRAELdarrei adiraci ar-tean; ta adiraci cituen, trom-pet, aditzen zuenaren behar-riac erdirazteco eguiña ciru-dien, batequin.

ISRAELdarrac beldur-  
Ccz rez



rez, ta icaraz iltzar ciran mendico ecufeari arri-garri-equin, ta menditic cetorren hitz, ots, eta soñu izu-garria-requin: ta erran izandu cioten MOYSE-si (MOYSES cen ISRAELdaren, ta orien jaunaren arteco guizona): hitz-eguiguzu zuc, eta adiraci zaguzu, gure Jangoicoac, gu gandic nai duena; ta gucia zucen guc eguiñen, dugu; bada cerbait lizatzerá, guc orain mendi orreran ecuf-ten, ta aditzen dugunac, illac gueldituco gara gu, emen ar-quitzen garan gucioac; ain andia da oraingo gure icareria, ta gure beldurra. Exod. 9. v. 18. & c. 20. v. 18.

ONGUI comuniátzen den, animari eracusten diozca gure JESUS maita-garriac, edo adirazten diozca becatuaren quea, ta itfuf-tafuna, bai ta becatu berari dagozcan, feculaco suac, feculaco garrac, feculaco orroac, feculaco auncac, feculaco carraisiac, eta feculaco nequeac ere: eta garrai, edo aduintz berean erraten dio Jangoico berac, baña eme-emequi, bihotzez, ta amoriozco hitz-equin: ORRA nora beharra ciñan zu, ni zutaz ez urricaltzera! ZUTAZ urricald-ñic, lagunda dizut nic zuri orain-dañoco demboretan, ta

atera zaitut nic (eta ascotan ala ere) cere becatu-petic.

BAÑA noic erran dizu zuri berebat eguiñen dudala nic, zu berriz ere becatu-ratzera?

NORC erran dizu zuri, etzaitudala horduan aurri-quico nic zu, zure eraqueria-ri dagocan, toquirá, ta fule-cera? BEGUISa, bada; ta ez niri berriz eguin era orreraco char-queriñic.

HAU adiraztean, adirazten dio Jangoico berac, ongui, ta zucen comuniátzen den, animari: nola vici, cer eguin, ta nondic artu, zucen ibiltzeco.

HAU adirazte berean, uquitzen dio bihotza Jangoico maita-garriac bere gracia malluz, edo oneraco naicun-dez, gaitzeraco beldurrez, ta bera ganaco amorioz.

ETA, ecufñic horduan, anima gaifoac bere ecer-eza, bere gaitzeraco macur-tafuna, ta bere etfaien indar-arrigarria, beldurtzen da gucia burutic oñetaraño: itzultzen da bere JESUS ona gana; escatzen dio lenen barcamentua, ta becatu berric ez eguiteco, bere gracia, ta bere laguntza.


ETA gucia gatic, edo ala-ere guelditzen da becatari gaifoa bere quezca-requin, ta

leneco bere vide galgarietan  
fartzeco beldur icaraz betea.

ETA orra non , ongui  
comuniatzen den , becataria,  
guelditzen den berriz becatu-  
ratzeco beldur andia-requin.

ZORI onecoac, orrem-  
bat ondafun beren comunione  
on-etatic atera oi duten , be-  
catariac ! BAÑA ez dira orie-  
tatic , ez , comuniatu ondoan,  
len bezain aisa , ta arin vici  
diranac , leneco jostaqueta , ta  
fartu-artera galgarnac uzten ez  
dituztenac ; malcorrez malcor,  
ta eror-videz-vide dabilzanac.

ERA orretaco becata-  
riac berriz , ta berriz ere beca-  
turatzen dira , ta izan ez oi  
dituzte, adiraci ditugun , adi-  
tze , ta ecuste on-etatic , ez  
beintzat, ongui, ta contuz vi-  
ci diranac izain oi dituztenen  
eracoac. CER gatic, uste de-  
zu ? BEREN oben-culpa gal-  
garri , ta vicitza gaisfoa gatic.  
ONGUI vici diran-etatic ote  
zara zu , edo beste gaisfo ori-  
etatic ? GAIsto-etatic ? AH gaisfoa !  
URR Icarari zaitut nic zu , zu bal-  
din ba-zara , gaizqui-vici diran,  
ta gaizquiago comuniatzen di-  
ran , becatari itfu-galdu gal-  
garri ori etatic !



1:

VIVUS EST SERMO DEI, ET EF-  
ficax, & penetrabilior omni gla-  
dio ancipiti, & pertingens usque  
ad divisionem anima, & spiri-  
tus. Hebr. 4. 12.

**A**Ditzen ez duten , gorrei  
ez diegu guc hitzic egui-  
ten ; alferric da alabaña era  
orretaco gendeci hitz bat ere  
eguitea.

BAÑA gure JESUS ona-  
rentzat ez da gorric guiz-ar-  
rean , edo mundu guci-gucian.  
MUNDUCO guciei adirazten  
die gure JESUS maita-garriac,  
berac nai duena , ta berac nai  
duen bezala-

EZ pat-zorrotz bat ba-  
ño , barrenago sartzen dena  
da gure JESUSEn edocein hitz  
eta barreneco gure anima be-  
rean eguiten du JESUSEn hi-  
tzac , JESUSEc nai duena.

QUEN adi , JESUSEc  
erran-horduco mundu gucian  
arquitzen den, gorrenaren gor-  
erari , gor-tafunic bague archi-  
tuc da munduco gor-ena ; ta  
bertatic gueroz adituc du, adi-  
raci nai zaiona.

ALA guertatu citzaion,  
Evangelioco, ecusi dugun, gor-  
rari : ta horduan bere gor-eria  
orri quentzeco zuen, escu bera  
du

du gaur ere gure Jangoico guizon, JESUS maita-garriac. ES-cu bera-réquin datorquigu egun oro bere ALDArera; ta onara datorquigu gure JESUS maita-gar-ria, nai duten, gor-gucien animaco gor-eria quentzera.

AH! ta cembat atse-quin artzen dudan nic hau gu-cia orain jaquiteaz, daquidan bezala, nere JESUS maita-gar-ria; bada gor arquitzen naz ni ere, baldin gorric ba-da mun-du gucian; ta arquitzen naz ni dembora berean Ceruco zure berriac, eta gauz onac aditu nai guztiz andia-requin.

NI, nere JESUS maita-garria, ni gaur-guero urbildu-co naz maiz-maiz comunione-co zure maira. NIC, an zu artzen zaitudanean, escatuco dizut zuri aditze on vici bat; eta escatuco dizut videnabar, didazula zuc, dezaquezunac bezala, nic gueroz-gueiago eguin behar dudanaren, ta, eguin behar ez den, guci-gu-ciaren berria, edo adiera.

ORREtara zatoz zu, gure JESUS maita-garria, edo ori guri adiraztera zatoz zu, comunione oneco maian, zu gu gana zatotzen, aldi guci-etan: eta ez didazu zuc, ez hau niri ucatu behar cere etor-aldietan. ZURE berri on one-

quin eguinen dut nic, eguin ala, orain dañocoan ez-bezala, nere gauzac eguitera; tu eguinen dizut nic orretan zuri al-du-quadan, atsequin contentu gu-cia. ALA guerta dedilla, bada, nere JESUS maita-garria: bai arren, bai.

2.

JONATHAS... CONVERTIT MA-num suam (cum melle) ad os suum, & illuminati sunt oculi eius. Reg. 14. 27.

ERREgue SAUlen Seme JONATHAsec ill cituen egun batez, norc daqui, cembat bere, ta bere Jangoicoaren etsai FILISTEO. PELEan ibillien oriequin cembait demboraz ERREgue Seme JONATHAS; eta azquen-eraco flaquiaz erdi-illundiac ceduzcan JONATHAsec bere be-guiac.

ETZUEN berequin, ecer, cerbait artu naia gatic. ECUSTen du nombait an ezti zaticho bat; eta artzen du hartatic cerbait, bere Jangoicoaren etsajac iltzeco, escuan cerabillen, lanzaren burdin puntan.

BA-DARama bere ezti zatia bere ezpañ-etara; ta, harç hura

hura jan-horduco, arquitzen da dena indarrez betea, ta bere begui-etaco ecufte guztiz garbia-requin.

CER ezti dela deritza-zu zuc, SAULEn seme-JONATHASen horduco ezti hau?

EZTIZco atteguin andiac dacazquien, JESUSen ALDARECO SACRAMentuaren aintzura, edo imagina bat; bada gure JESUSen SACRAMentu onec ematen ditu, gorputzaren indar-ecufteac baño, aguitz guciago valio duten, indar-ecufteac; bada ematen ditu animaco indar ecufteac.

NORI, uste dezun, edo ceñi ematen diozcala JESUSec ALDARECO bere SACRAMentuan indar-ecufte andi oriec?

JONATHASec bere lantzaz bezala, damuz, ta mihiz confeisioanean bere etsaiac, edo becatu gaiftoac iltzen dituen, anima comuniatzalleari, ta bere becatuac era orretan ill, edo urratu ondoan, nai on-andia-requin, ta bere beguiac, eta asmo gucia Ceruan ongui firtuac daduzcala, comuniatzen den, animari.

ALA zu ere beti comuniatu izandu ote zara? COMUNIATU izandu ote zara zu beti-beti, ongui ezaguturic, certara cindoacen, comuniatzera

zu urbiltzen ciñan, aldietan; ta ongui ongui ecufiric, nor ciñan zu; ta nor den, ta cein andia den, zuc cere comunione-etan aitu uste cenuen, cere Jangoico guizon JESUS maitagarria? COMUNIATzen ciñan beti zu, cere comunione-etan JESESen ezti-taluna, ta laguntzac artu-naiez? COMUNIATzen ciñan zu, JONATHASec, ez-tia jatean, zuen asmoaren eraco asmoa-requin, edo Ceruco andar andiac erditfi naiez, indarrac artu, ta cere etsaien ondoren aitu ibiltzeco, guciac arras bucatu, edo cere escura ecarti artean? ALA izandu bada, ongui comuniatzen ciñan zu; ta era berean beti zu comuniatzen ba-zara, vici zaraño, JESUSec zuri guztiz ederqui argui eguiñen dizu, cere lan on oriec elcatzen duen, vide gucian, ta videnabar eman dizquitzu, cere lan bera eguitemco, beharco dituzun, indar guciac.

AH! baña ni orain-daño-coan era orretan ez comuniatu izandu? ORAIN daño-coan ni comuniatua gatic, comuniatu nazan adin-etan, nic ez erdi garaitu ere nere etsaitzar galgariac! EDO nere alque galdua, becatu nereac garbiro, ta zucen elateco, gauz,

on-

on-etaraco nere nagui-tafuna, ta gauza gaisto-etaraco nere macur-era!

ORRE gatic galdu ditut ni orain dañoco nere comunione-etan, comunione on-etaco ezti-tafuna, arguia, ta indarrac; eta arkitzen naz ni gaur ambat aldiz comuniatu ondoan, len bezain berri nere utsetan, len bezain sartua nere illumbean, ta len bezain indar guti-requin, nere etfaiac garaitzeco!

AY, hau eraqueria! AY, hau galtzea! EZ dut berriz, ez, orrelacoric eguin uste! EZ, ez; beste guifoz comuniatu behar dut nic emendic aitzina, ta vici nazaño! ALA guerta dedilla, nere JESUS maita gattia: bai arren, bai.

3:

QUI AUTEM JUDICAT ME DOMINUS est. 1. Cor. 4. 4.

COMUniatzen zaranetan, arkitzen zara zu, daquizun bezala, cere Jangoico maita-garria, ta cere ebaraquitzailea cerequin dezula. ON-etatic baldin ba-zara zu, edo vicitza garbi-on bat dacarten-etatic, eta amoriozco comunio-neac eguiten dituzten-etatic, at-

seguin andizco arguiac izain dituzu zuc, comuniatzen zara aldietan, Ceruco indarrez beteric ateraco zara zu cere comunione on-etatic; eta, obequi baño, obequi cere gauzac eguitemo asmo zucena-requir.

ZORI oneco animac, guif-onetan comuniatzen diran animac! ORIEC dira, beren artean atseguin andiarequin JESUS maita-garria darducaten animac; eta oriec be-riac eternidade guci-gucian beren JESUS maita-garri-bera-requin Ceruan egoin diranac.

BAÑA bereciac dira, ta ongui contatuac, orren edequi comuniatzen diran, animac; bada gaizqui, edo guztiz lafai comuniatzen dira gueienac.

NOLA bada? CEREN batzuec comuniatzen diran bihotz loi luzun equin?

CER gatic ote? CEREN, confesiatzera joan oi diran, aldietan, behar den, eran aguertzen ez dituzten beren obenac, beren becatuac, edo culpac, edo ceren artzen ez duten gueienac, behar den, eran, aguertzen dituzten, obenac barcamentuac esatzen duen, cihiezco maia, ta becatu berric, ez eguitemo asmo ofoa; edo ceren indar gutico maia, ta asmo.

afinoa den , orretaraco oriec dutena , ta jaiqui-erori , ta becatuz becatu dabiltzan beren vicitza gueienean ; edo ceren, oben andiric ez izana gatic bertze anitzec , anitz uts, eta becatu chiqui-requin, comunitatzen diran beti, edo beintzat gueien gueienetan.

ERA orietan comunitatzen diranac , berequin dute norc beguitan eman beren utsequin , ta ibillera charra-requin; bada berequin dute beren JESUS maita-garri , charqueri gucien ecusle ecin zuce-nagoa.

COMUNiatzen diranen utfic chiquienac ere, uts izugarriac dirudite , JESUsec ongui aguertzen dituenean ; ta orre gatic dira , nor-nai arrituric

uzteco , alqui , ta sobera diran, utlac.

CERE beguiac ongui zuc idiquitzera , comunitatzen zaran aldietan , ta zuc ongui beguiratzen ba diezu , eguiten dituzun cere urtei , ecusico dezu , cein itfusiac diran oriec, eta cein izugarriac; eta gutziz beldurturic gueldituco zara zu, berriz alacoric ez eguiteco.

IDIqui zatzu , bada, orain-dañocoan baño , obequi zuc animaco cere beguiac; eguin nai ba-dituzu zuc ongui vici diranen eraco comunione garbi argui-guilleac; eta lenagotic orretan ez aliaz , ta cere becatu guciez damuturic , errazu orain hitzez , ta bihotzez: NERE JESU-CHRISTO , &c.



## LXXV. OTOITZ-GAIA.

ONGUI COMUNIATZEN DENARI LAGUNTZEN  
dio JESUsec barrengo bere etfaiac garaitzen.

**B**ECAtari gaifoac ba-ditu, aragui galdua , mundu eroa , ta fulececo gaiftoa ezecic, beste cembait etfai ereta , oriec harc ez garaitzera gañeraco bertze irurac garaitzen dituen demboran , galdu-

III

co da azquenean , ta nequetan vici beharia da beti, ta secula guci gucian.

BECAtariaten gañeraco etfai oriec beraren barreneco etfaiac dira , ta orre gatic dira etfai guztiz gaifoac.

Dd

ET-

ETSAI oriec dira becatu originalac, edo etorquiac, afaldatu ciz juigun, pafsioneac; eta pafsione, gueroz gueroz-tic gueren becatuz ongui baz-catuac.

EZ dira etsai--era oriec guciac, ez era batecoac: beldurtiac dira batzuec; futuac besteac, eta beste cembait, at-seguin galduen ondoren dabil-tzan, etsaiac dira.

ETSAI--era oriec guciac ere garaitezeco da, behar bezalaco comunionea. GOA-zen ecutera.

§. I.

BERE PASSIONE BELDUR-tiac escuratzen laguntzen dio JESUsec, ongui comunia-tzen den, edoceñi.

I.

**G**U ongui-ongui prestatuac comuniatzera, emain li-guque guri gure JESUS maita-garriac lembicico gure comu-nionean, gueren pafsione guci-ac guc escuratzeco beharco gue-nuen, escua, ta laguntza; bai-ta anitz, eta anitz gueiago ere.

ETA orren ongui-on-gui gu ez comuniatua gatic, baldin comuniatzen ba-gara gu, becatu larric bague, ematen di-gu guri aldi artaco gure pre-fa-erac escaten duen, escu-la-guntza gucia, ta baldin guc

gueren Jangoicoaren escu-l-gantz onequin escuratzen ez-pa-ditugu gueren pafsioneac, era berean ba-dere, edo be-catu larric bague comuniatzen bagara gu berriz, ta berriz ere, izain dugu, bai, orretaraco gac beharco dugun, guci-guci; ta lembicico lecuain izain dugu-guc, gueren pafsione beldurtiac escuratzeco, beharco dugun, es-cu-laguntza.

BA-dira comuniatzen diranen artean cembait anima gueiegui beldurtzen diranac, oriei cerbait guertatzen zaie-nean, edo bat ere guertatu ba-gue; baña ez dira guciac, ez, era bateco beldurtiac, anima beldurti oriec.

ANIMA ori-etatic batzuec beldurtzen dira beren barren-go quezquequin, edo leneco beren becatuac ematen diez-ten, quezcac gatic: bada ibilli oi dira era orretaco animac leneco beren becatuac bein-ere gogotic ecin quendu dituztela.

ANIM oriec batzuetan uste dute, ez daudela, behar den, eran aguertuac orien con-fessione-etan, len berac eguin cituzten, becatuac; eta orre-gatic arquitzen dirala orien be-catu berac gure Jangoicoac bar-catu bagueac.

BESTE batzuetan iduritzen



zaie anime berei, ut-eguiten dutela beren gauza gucietan, ta becatu bertiac dirala, oriec eguiten dituzten, gauza guciac; eta orre gatic arquitzen dira, beren Jaunaren gracion ez daudelaco gogamber arri garría-requin ta azquenean fulecra beharco dutelaco izualdi-equin.

BA-dira beste cembait anima beldurti, hist-erdi, edo hitz bat aditu-horduco guciac alquerzen, edo lotfätzen diranac, eta bere alque-lötsa gatic utzi oi dituztenac, beren devocione-etatic gueienac, edo cembait beintzat.

BA-dira cembait anima comunitzalle beldurti, beren gain guezurrezco afinacio bat aditzen ba-dute, tristuraz betetzen diranac.

BEREbat guertatzen zaie beste anitz beldurtiri ere, baldin oriec galfzen ba-dute beren hondra, uste zuten, ezcontza, ondasuna, irabaz-vida, edo edocin beste gauza; ta orietatic cembait, cembait aldiz, itotzear dira quezcaz, ta nügabez, ta arquitzen dira aldi orietan orien barrenac, itafoco ura bezain, gaci-min-duac.

CER eguin dezaquee oriec hordü-orietan, an bertan itoric ez guelditzeco?

APSTOLu onac bein beren JESUS ona-requin eguin zutena.

SARTzen dira arratsf-alde batez. APOSTOLu onac itafio zati bat igarozceco, edo passatzeco, itafio bazterrean arquitzen duten, batel batean, edo chalupan: ta sartzen dira an, an berequin dutela gure JESUS maita-garría.

BA-dabilitza itafoz guciac cembait demboraz; ta itafioan ongui barrenatuac cebiltzanean, afaldatzen dira aiceac, eta aice-equin batean afaldaten da itafio guciac.

BA-dabilitza batetic bestera itafococ vagac vaguen gain. SARTzen dira cembait vaga, ta ur zati chalupan, ta ondartzear dira beren chalupa-requin batean, chalupan arquitzen ciran, APOSTOLuac.

ICARATzen dira guciac. IRATzartzen dute JESUS, ta erraten diote: JAUNA, galduac gara, zuc emen bertan orain guri ez laguntzera.

JAlquitzen da, cegoen, lecutic gure JESUS maita-garría; ta esaten die; zuen beldurtiac! MANAtzen die aice-itafocoi, daudela gueldiric, eta bertan guciac guelditzen dira; ta guelditzen dira videnabar beldurric bague, ta fofegu andia-

Dd2. re-

requin APOSTOLU onac. Matth.  
8. 23.

ECUSten dezu ? NAI dezu zuc , daguien zurequin ere , edo zure animan gure JESUS maita-garriac , aldi onetan bere APOSTOLU on-equin eguin izandu ziena? ESCURA nai dituzu zuc , anima beldurtia, cere barreneco icar-eriac, eta pasione afaldatuac ? Zoaz bada, maiz-maiz , ta beti ongui prestaturic comuniatzera, ta esca zagozu JESUfi cere araldietan isill-eraci ditzala escrupulozco , illun-tafunetzco, ta quezcaczo zure aice-vaga guciac , eta dizula zuri cere pasione beldurtiac escurazeco, gracia ; bai-ta quezcaric bague zuc , eta fofegu andia-requin Jangoico bera ciñez servitzatze co , ta garbiro bera , ta zucen maitatzeco, beharco dezun, graci-gucia ere.

ZUC ori ongui eguitera , eguiñen du zu--requin, bai, gure JESUS maita-garriac, zuc nai dezuna , edo aldi hartan zuri dago quizuna; ta etzaitu JESUsec utzico , ez , itozten or, cere beldurrezco vagnen itfaso illunean ; ta gutiago utzico zaitu galtzen zu beti-betiraco : bada bere APOSTOLU on-equico izandu zuen, escu-amore bera du gaur ere

gure JESUS maita-garriac; eta escu-amore bera izain du beti-beti , ta eternidade guci-gucian ere.

AH , ta cein on-maita-garria zaran zu , gure Jangoico-guizon JESUS guztiz maitaria ! NI zuri escatzeco baño ere aguitz preftago arquitzen zara zu , nere pasione beldurtiac escuratzen niri laguntzeco! NOIZ ezagutuco ote dut nic nol-ere-bait , zuri zor dizidan, bazterric bagueco amore onguinaia !

ETA noiz asico ote naz ni amorez nere zor andiac ateratzen , ta zuri erantzuten ?

BERTan , edo gaur be-rean da berandu : bada ori d, nic aspaldi gucian eguin behar izandu nuñen, lana , ta eguiteco zucena. BA-negui , bada, gaur danic ba-dere, ta gueia-go fuzatu bague !

#### §. II.

LAGUNTZEN DU JESUSEC comuniean pasione futuac escuratzen.

#### I.

PASIONE beldurtiac escuratzen laguntzeco, diña escu-requin arquitzen da gaur gure JESUS maita-garria , pasione futuac escuratzen gurlaguntzeco.

BA- i

BA-dira cembait gure artean , ecer-ez baten gañean sutzen , ta erretzen diranac. NAI ez duten , hitz bat oriec aditu horduco , iraquiten dago , ta erretzen orien barren-odol gucia.

ADitzen duten , gaiz-quia etzaie gogotic joaten dem-bora luce-etan ere ; ta hura-oriec gogoan duteño , icatz suttua-requin arquitzen da orien ira , edo pasione beroa , ta vendecuzco queac artuac daduzca orien buruac.

BEREBat guertatzen zaie guiza-guiro oriei , oña norbaitac aitzinatzen dienean ; edo beste norbaiti ematen ba-die , oriec beretzat , edo bere-taco nai zuten , eguitecoa , irabacia , ezcontza , edo hondra. BAI ta beren echocoac , edo beste edoceñec ematen dienean ere naigaberen bat , edo beste , ufte cabean emana denean ere , oriei ematen zaien , nai-gabea edo illun-videa.

BEREBat guertatzen zaie , eguiten etzaienean , ufte zuten horduan , beren hondra , edo eguiten ez pa-zaizte , berac nai bezain agur andiac.

ALDI orietan , ta era orretaco beste edocein-etan iraquiten die oriei beren odolac , ecin-gueiago-raño ; sutzen zaie

beren pasione berotua , ta guelditzen dira vendecuzco afmoz beteac , eta , norc daqui , cer gauza macurrac eguiteco gogo-requin.

ONEtara nai ez duen , animac , eta lembaitlen bere escura nai dituenac , afaldarzen ali-horduco , bere pasione suncorrac , ecin ar dezaque , ongui , ta maiz comunitatzea bezalaco , videric bat ere.

LEGUE zarrean guertatu cen bein , hau guri ederqui adirazten digun , gauzacho bat ; eta , gauza bera guri adirazteco , eguin zuen guero-gure JESUS maita-garriac beste bat.

LEGUE zarreco gauza , DANIEL Profetari guertatua da ; ta gure JESUsec eguin-icacoa , fulececo galgarri-equin arquitzen cen , guizon bati guertatua. ECUS dezagun bein Legue zarrecoa.

BABILONIA ceritzan , Erri , ta ERREgüeen Corte andi batean ba-cen , oi den bezala , leoiez beteric arquitzen cen , lece izugarri bat.

LEOien egun oroco bazca cen bigorputz , eta bi ardi.

BABILONIAco cembait guizon gañtuc , nai-ta-ez quendu cioten beren ERREgüer DANIEL , Profeta ; ta aurtiqui zuten DANIEL , ango leoien

artera ; ta, gosez amurraturic  
ba-cen ere, ill, ta jan cezaten.  
DANIEL Profeta, etzien zaz-  
pi egunez bazcaric eman izan-  
du ango leioiei.

Hau an guertatzen cen dem-  
boran andic urruti arquitzen  
cen, HABACUC ceritzan, gu-  
re Jangoicoaren beste Profeta  
bat ; bada arquitzen cen, JU-  
DEA deitzen cen, Errefuman.  
ATERatzen da beim bere iche-  
tic bere Iguitarien barazcaria-  
requin HABACUC Profeta ; ta  
AENgueru batec bere ille-eta-  
tic, edo bere billotic artzen.  
duela, eramaten du ez-da bai-  
da batean, DANIELI baratzcal-  
tzen emajera.

JATEN du DANIElec  
HABACUC Profetac emanicaco  
ogua, ta gañeracoa ; ta an  
daude, BABILONIACO leoiac.  
DANIElen inguruan zazpi egu-  
nez, zazpi egun-etan deus bat  
jaten ezdutela ; ta ala ere DA-  
NIEL Profetari gaitzic eguiten  
ez diotela. Dan. 14. á v. 28.

NOR ote da adiraztez  
DANIEL Profeta, leoi situ-go-  
fecorrez ingurutua ?

ONGUI comuniatzen  
den edocein Anima.

NOR ote dira DANI-  
EL oni, edo ongui comunia-  
tzen den, animari gaizqui nai  
dioten guizonac ?

ANIMA comunia-tzalle:  
beraren etsai galgarriac.

CER ote dira anim ori-  
en, edo DANIElen leoiac ?

ETSAI oriec futzen di-  
tuzten passione futu, anima  
beraren afaldariac.

ETA cer da, BABILO-  
niaco lecean DANIElec jan-  
izandu zuen, Judaco ogua ?

JUDA berean guizon egui-  
ñic jaio cen gure Jangoicoaren,  
ta ALDARECO SACRAMentuan  
arquitzen denaren itzala, aintzu-  
ra, edo figura.

ORRA, bada, cein eder-  
qui adirazten digun gui gure  
Jangoico maita-garriac hordu-  
an DANIEL Profetaren alde  
eguin zuena-requin gure JESUS-  
ec comunionean, ongui comu-  
niatzen diran, animarequin eguin  
oi duena.

ETA ecusten dezu,  
ogui-zati batec, leoi gofetic  
gueldiric iduquitzecco baño,  
Jangoico guizon JESUS maita-  
garriac ALDARECO bere SA-  
CRAMENTUAN gure passione  
charrac ifsill-eraztecco, indar  
gueiago, ta gueiago duela.

NAI ba dezu, bada, on-  
gui, ta maitz zu comuniatzen  
zarala, aisa efcuraco dituzu zuc  
cere passione fucorrac, edo  
viciac.

II.

HAU berau adirazten digu, ta, Legue zarrean DANIEL-equin Jangoicoac eguinicaco gauz onec bezain ongui, JESUsec eguin izandu zuen, beste gauza batec ere.

ATERATzen zaio JESUfi bere videra, fulececo cembait berequin cituen, guizon ongui necatu bar. SULEceco galgariac eraguiten cioten guizon oní, berac nai zutena.

BERE soñecoac urrazten ciozcaten, gogoac ematen cienean; bai, ta bere cateac ere, oriequin norbaitec lotzen zuenean; ta gau, ta egun cerabilten beti bere buruaren urratzen, ta bazter guciac orroz icaratzen cituela.

URRICALtzen da gure JESUS maita-garria, era onetan arquitzen cen, guizon gaisoaz. ERRAten die fulecoei; utzazue guizon ori, ta zoazte ortic hordu gaisoan: *Ite*, ta uzten dute bertan estai galgariac, eta guelditzen da guizona sofegu andia requin, JESUS-en aldamenean, edo onetan, ta esquerrac esquerren gain JESUS maita-garriari ematen diozcala. Luc. 8. á v. 27.

ECUfi zazu zuc, era onetaco guizon bat-equin hau eguiten duen, Jangoicoac, es-

cura dirzaquen, edo ez, ongui comuniatzendenaen passioneac, passione oriec afaldatzentzen cerbait ahi horduco!

BAI nere JESUS maita-garria, bai; ta aisa al-ere: ta, escuratzen ez pa-ditut nic nereac, orretan zuc niri laguntzen didazula, edo eme emequi ez pa-daramatxit nic, eta zure icenean, niri gaur-guero eguiten zaizquidan, videgabeac, charqueriac, eta gauza gaisoac, izain da, edo ceren billatzen ez ditudan nic nere maizco comunione onean zure laguntza, ta gracia, edo ceren artu nai ez ditudan nic zure laguntza bera, ta gracia.

GAUZA bara, ta bestea dira eraqueri guztiz arrigariac. ONGUI damuturic nago ni, bai, oriei len nere baitan nic lecu eguinaz, ta orrelacoric berriz ez eguiteco asmoan nago ni, ta comunieneco zure laguntzaz valiatzen nazala, nere passione vici-fucorrac nere escupean beti iduquitzecco, asmoan. INDAzu arren, oraingo nere asmo hati galdu bague, nere egunac nic bucatzecco gracia. Bai arren, bai.



## §. III.

LAGUNTZEN DU JESUS-  
ec comunionean pafsione  
char loiac efcuara-  
tzen.

## I.

**G**AÑER Acoac bezain paf-  
sione galgariac dira (gal-  
gariagoac ez-pa-dira), aragui-  
co atseguin char loien ondoren  
dabiltzan, gure pafsioneac. Paf-  
sione oriec aragui gucia, edo  
gure gorputza dute beren berico  
bazcatzalle.

BAZcatzen ditu gure  
gorputzac pafsione gureac anitz  
aldetara; bada baz-catzen ditu  
batzuetan bere beguiratze arin  
lizunequin, edo, beguiac ecfu-  
ten dituzten, edertafun-equin,  
oriequico gauza debecatuen  
zaletzen dituztela.

BESTE batzuetan baz-  
catzen ditu bere baharri-equin  
gure pafsione berac; bada gor-  
putzeco beharri-etatic sartzen  
diran, lausengac, eta amorioz-  
co hitzac, cantac, eta soñuac,  
gure pafsione berac nai dituz-  
ten, bazcac dira.

BAZCA ber-etatic dira,  
pafsione berei efcucac, ezpain-  
cac, eta araguiaren hitzquetac  
ar-erazten derozten, atsegui-  
nac, ta naicunde eiquinac.

ETA ez da gorputz gu-  
cian zatiric bat ere, nola, edo

nola gure pafsione loiei efcua-  
ecin eman dezoquenic.

ETA, nola pafsione  
oriec nai dituzten, gauzac at-  
seguin eguiten dioten gure gor-  
putz berari, gure gorputza  
gutziz macurtua dago gure paf-  
sione berac nai dureneraco.  
ETA orre gatic ez da guiz-ar-  
tean, gure gorputzari atseguin  
eguiten dioten, gauzez baz-  
catzen diran, pafsioneac adina  
gaizqui, ta becatu eraguiten  
duen, pafsioneric.

ETA cer vide artu ote-  
diteque, era orretaco pafsione  
oriec ere, besteac bezala batec  
bere efcuratze, edo batec ga-  
raitze.

EZ da orre-taraco vi-  
deric bat ere, len gucaguer-  
tu duguna bezalacoric.

NAI dituzu, bada, zuc  
errazqui, ta aisa ito aragui-  
ren naicunde eiquinac? NAI  
dituzu zuc guttiz emendatu,  
edo itzali cere pafsione quetfu-  
loi eiquinen tu guciac, edo ga-  
raitu nai dituzu zuc cere paf-  
sione atseguin-zale berac?

ZOAZ, bada, comu-  
nioneco graciaren ur-efque. Sar-  
tu zazu zuc cere JESUS maita-  
garia Ceruco bere ur, intz-  
aice gucia-requin cere barre-  
nean, ta izain dezu zuc ori  
guci-gucia. ADI zazu ezperen,  
len

Ien gertaturicaco , gauz aditzeco bat.

urtuac , eta auf-eguin beharrac cirala.

II.

NABUCo-donosor ceritzan , BABILONIACO ERREGue batec eraguin zuen bein urrezco IDOLO andi bat. Ezarri zuen bere IDOLO hau, hartaraco eraguin zuen , Mai batean ; ta ezarri, edo epeñi zuen, DURA ceritzan , BABILONIACO Provincia , edo bazter bateco toqui-gutziz egoquian.

BA-daguiquezu zuc, ERREGue NABUCO , cerorrec nai dezuna (erantzun cioten ISRAELdar onac ERREGueri); baña guc ez dugu nai, gueren Jangoicoa , beste Jangoicoric; ez , eta behar ere ; bada gu gueren Jangoicoac atera gaitzaque berac nai duen , eran, berac nai duen adiñetan , ta berac nai bezala , futarte guci-etic, edo edocein neque-petic, bat ere gueren gaitzic baguc.

DEITU cituen guero bazter gucietaco Zaldun-Gobernari, ta Cargudun guciac; eta , ara eramanic , manatu cien guciei , orretaraco ERREGue berac eraguin beharzuen , soñu bat aditu horduco, belaunica citecela guciac , eta eguin cezotela agur, ta adoracione, beren Jangoicoari bezala , an ecusten zuten, urrezco Idoloari.

ASERRETzen da , ecin gueiagoraño NABUCO-donosor , ISRAELdar etatic hau aditu horduco. ERAguiten du, eraguin cezaquen , luric andiena. GARRAC gainez eguiten dio labeari, edo carobiari. Cembat uste dezu? BERROguei , ta bederatzi befoz.

EGUIN eraci zuen ERREGuec bere soñua ; ta soñu hau aditze berean eguin izandu zuten , ERREGuec nai zueña , irur ISRAELdarrec ez, beste guciac.

ETA , oñac loturic, igui etzitecen , bot-eratzten ditu ERREGue NABUCoc fu andi arrigarri haren erdian irur ISRAELdarrac.

DEItzen ditu bertatic Erreguec irur ISRAELdarrac, eta erraten die , ez eguitera oriec ere , gañeracoac an eguin izandu zutena , an orretaraco erretzen ceducan , LABE, edo carobi arrigarri batean erreac,

BAña cer guertatzen da? ISRAELdar orien botartzalleac an erre-illac guelditzea, labetic ateratzen cen , garraquin ; ta irur ISRAELdarrac dembora berrean locarric bague futan beren buruac arquitzea: ta fu-erdi andi berean ibilt-

III.

Ec tzen



tzen afitzea, lecu zelai, edo  
soto batean ba-lebiltza bezala,  
ta berea Jangoicoari elquerrac  
ematen cioztela.

ECUSten du hau ER-  
REgue NABUCO-donosorrec,  
eta arritzen da den gucia. UR-  
BILTzen da ango labera, ta ecuf-  
ten du an dabilela, an harc bo-  
taraci cituen, ISRAELdar-eguin  
batean laugarren bat, Jangoi-  
coaren Seme maita-garria ci-  
rudiena; ta laugarren onec,  
bazterturic labe hartaco gar gu-  
ciac, eguiten diela irur ISRA-  
ELdarrei aice, behar bezalaco,  
ece bat.

DEtzen die, an ala ce-  
biltzan, ISRAELdarrei ERRE-  
guc. ATERAtzen dira irurac;  
eta arkitzen ditu guciac, berac  
an bot-eraci cituenean bezala, ta  
erretzeric, quisquitzeric, eta su  
cutsuric bat ere bague. Dan.c. 3.

ECUSten dezu gure Jan-  
goico altsu maita-garriac eguin  
dezaquena? BADA sua-requin  
eguiten duena eguin dezaque  
edocein gure pafsione-requin  
ere, naiz dela, sua bera bezain,  
erretzallea, gure pafsionea. Eta  
ori da, gure Jangoicoac guri  
adirazten diguna, aldi onetan  
berac ISRAELdarren alde BA-  
BILONian eguin izandu zuena-  
requin.

ERRAzu ezperen, cer

dela, usfe dezu zuec, BABILonia?

BABILonia da animu ci-  
quin, loiez-loi dabilen, baten  
imagina, edo ichura.

NOR ote da BABILonia  
onetaco ERREgue NABUCO-  
donosor hau? EDO cein ote  
da anima ciquin batean, gueie-  
na manatzen duen, NAGUia?

ASMOdeco deritzan, su-  
lececo etfai loi-lizuna.

CER labe da, cer gal-  
tzintegui, edo cer carobi, ca-  
robi galtzin-tegui, edo labe  
izugarri hau?

HAU da gure gorputza;  
ta gorputz, ezur-araguiz, ta  
zañez, ta larruz eguiñ-icacoa.

ETA labe onetaco suac,  
eta garrac?

ORIEC dira odolaren  
iraquiteac, araguiaren tirrica-  
cioac, atleguin charren tiracac,  
eta pafsione lizunen afaldacio-  
ac, eta osticoac.

NOR ote dira su orre-  
tan, eta orrembat tent-artetan  
anima gaisoa aurtiquitzen du-  
tenac?

ORIEC dira beguiratze  
lizunac, aditze loi-amorizcoac,  
uquitze itusiac, dantza-char-  
rac, jan-edan beroac, eta era  
orretaco gauzac.

ETA ba-dagoque ani-  
ma bat, erre bague, or ero-  
ria gatic?

BOR-

BORchaz aratzen bada, ta an ba dabil, ISRAELdarren eran, bai.

NOLA ibilli izandu ote ciran an ISRAELdarrac?

*LAUdantes Deum, & benedicentes Domino* : beren Jaunarequin batean, ta hura bezala ( v. 92. ); Jangoicoa gandic beren gogoa, ta bihotzac quendu baguesta Jangoico berari efluerrac ematen ciozcatela, ceñe futan ceducan, erretzen etzirala.

BAI ; bere comunione-erara ongui prestaturic urbiltzen denari, ta, comuniatu ondoan, ibiltzen denari, Jangoico-Seme-JESUS maita-garriaren eran, ta JESUS maita-garriac eracutli-ricaco. Leguez, ta videz ; bai bere vide-eran, JESUS ona lagun arturic, eta JESUS ona gandic gogoa quentzen ez duela, da-billenari ; ta da-billenari, JESUS berari efcatzan diola bere laguntza, ta efcua, emengo vide limurrietan, ta perillezco patufuetan ez eroitzece, atseguin charrari lecuric ez eguiteco, ta garbiro bera, ta cñez maitazeco, ematen dio JESUsec bere graciaren intza, ta aice ecea.

EZ du, ez, era onetan dabilena erreco, berac irzali, edo emendatu nai luquen, araguiaren suac ; eta efcuraco

ditu azquenean onela dabilenac, becauaren loieran, edo atseguin galgarri ciquñaren befoeran eratzon nai luqueen, bere patsioneac.

BAI : dio S. CIRILOC, bai : gure JESUsec ( gñc gueren JESUS guerequin daducaguneñ ) palacatzan ditu gure araguiaren naicunde bero limurtiac, eta tirricacio-afaldariac : eta italtzen ditu, ta emendatzan animaco suac, quezcac, eta beldurrac : *Sedat cum in nobis manet Christus, sapientem membrorum legem; perturbationes animi extinguit* ( l. 4. in Joan. c. 17. ).

NOLA uste dezu ?

COMUnioneco iturriac ematen duen, ur andia-requin, dio S. JUAN CHRISOstomoc : *A mensa hac procedit fons, qui fluxivos spirituales diffundit.* EZ dezu siñisten ?

BAI nere JESUS maita-garria, siñisten dut, bai, ta bat ere tricatu bague ! GUIzon eguin cñanean zu, etzenuen galdu zuc cere Jangoico-ta-luna ; ta Jangocoac ba-daguique, nai duen, edoecin gatiza ; ta ba daguique, berac nai duen, gucia non-nai, noiz-nai, ta berac nai bezala.

BAñA ez dezu zuc eguin oi gure JESUS maita-garria, era orretaco gauz-etat-

tic bat ere , guc gueroac nai ez dugula , ta guc gueren animic prestata artean orrenbat ontart-etara , edo era orretaco ondafun-etara : eta prestatze hau ere ecin daguiquegu guc , zuc cerorrec orretan laguntzen ez diguzula.

ARTU naiez nago, bada , nere JESUS maita-garria , zure ontart ondafun-dun oriec , eta egun-oroco zure laguntzac , eta graciac ; eta , graci , ta laguntza ori-equin batean escura naiez nago , orain-dañoocoan ni , daquizun bezain aisa , ta erraz garaitu nauten , nere pasione loi atseguin-dunac.

LAGUN zaquizquit , bada zu , beinic-bein nere prestatze on onetan ; ta indazu guero nere comunione garbi-onetan , pasione gucien belduirrac , suac , eta naicunde lizunac garaitzeco , ta nere pasione berac beti nic nere escupean iduquitzeco , beharco dudan , cere laguntza , ta gracia. BAI arren , JESUS maita-garria , cere bihotzeco amore sutua gatic , bai.

1.

OMNEM TRIBULATIONEM PASSI sumus : foris pugna , inus timores. 2. Cor. 7. 5.

ECUSTen dezu zuc , nere JESUS maita-garria ( erran

dezaquezu zuc S. PABLOten eran , cere pasioneen afaldacioac gatic naigabeturic arquitzzen zaran , aldietan ) : ecusten dezu zuc , orain nic nere baitan dacusadana ! NERE beharac batetic , nere gabeac bestetic , eta aqitz nere nequec andic , eta emendic ongui quezcaturac narabilte ni , orain zuc ecusten dezun bezala.

ECUSTen dezu ! ASMATu didate niri , orain zuc daquizun , bezain guezur andi arrigarria.

MACURTzen . dituzte , niri gaizqui nai didatenac , nere gauza guciac , eta ez dute artzen guci-etatic bat , behar den , eran. BEHAR ez den , aldetic beguiratzen die guciei ; ta gaistoac dira gaistoen beguie-tan , ta asmo cimurrez galdunac , nere gauzaric onenac ere.

BEGUIarte on guti ecusten dut nic emen guiz-artean. EZ didate niri gueienac beguiratzen ere ; ta , beguiratzen didaten , gueienac , begui zorrotzez beguiratzen didate , ta saiesca bezala.

ETA ez dut ecusten nic , ascotan beintzat , hista , ta bur-la , nequezco gogor-tafuna , ta esquer gaistoa , besteric munduco gueien-etatic. ECUSTen dezu zuc , gure JESUS maita-garria,

ria,

ria, cer naigabeac, ortic bati datozquionac!

ETA ecusten dezu videnabar, ez dirala oriec, ez bacarric, nic ascotan, nere baitatic atera bague ecusi oititudan, ez ecultecoac; edo naigabezco gauzac; bada ecustien dezu, cembat aldiz datozquidan niri, ni, zu galduric, fulecera beharra nazalaco quezcac, eta beldurrac; eta beldur oriequin batean izan oi ditudala nic, nere eritafunetic, nere loric ecin eguifunetic, edo cer eguin ez jaquinetic datozquidan, naigabeac, eta illuntatunac.

ALDI orietan nic nere nequeac cerbait arintzeco, ta, tristuraz betetzen nauten, nere pafsione afaldatuac escuratzeco, cer ote da, nere JESUS maitagarria, nic eguin behar dudana?

CER, baicic len adiraci duguna, JESUS bera bere SACRAMentuan, ta nere comunionean nic ongui, ta maizmaiz billatzea: gure JESUS da ala-baña, bera ganatzen diran, humillac atfeguinoez betetzen dituen, Jangoico-guizonan: *qui consolatur humiles.* (v.6.)

ALA eguin uste dut nic, nere JESUS maitagarria, zuc cerorrec nere lan on one-

tan laguntzen didazula. LANGunzaquizquit bada; bai arren, bai.

2.

SALVUM FACIET IGINUM A gladio oris eorum, & de manu violenti pauperem. Job. 5. 15.

ASI ditezque, nai ba-dute gure pafsione guciac zaur amurratuen, eran batetic bestera: ba-dabiltzque, bai, berac nai ba-dute, ortz, Soldaduen ezpatac baño, zorrotzagoac aguertzen dituztela, ta gure anima gaisoac erdi bi eguitemeco almoan, edo guztiz gualeraci naiez; ar ditzaquee gure pafsione berac, berac nai dituzten, suac, eta garrac, iraz, ta vendecuz gure anima gaisoac erreac utzi naiez; baño gure Animac berac ba-doaz, joan behar dutena gana, ta elcatzen ba-diote, gure JESUS maitagarriari bere laguntza, ez diete eguifun, ez gaitzic bat ere, ta ifsill-eracico ditu gure JESUSec guciac. ORREtaraco dago JESUS ALDAREco bere SACRAMentuan; ta orretara dator gure JESUS behartu humill-etaça, edo humill-humilqui beren comunioneetan billatzen duten, anim-etaça.

AH! zori oneco Animac, era orretan comuniatzen di-

diranen Animac; eta zuec aldi orietan ceren JESUSen escutic artuco dituzuen, ondasimac, eta Ceruco graci-laguntzac!

AH! ta gure zoratu, centzu gabeac! BADA ori gucia guc erditfi guenezaquela, comuniatzen garan aldietan, humilqui gu, contuz gu, ta garbi-garbiro ta behar den, eran gu comuniatzen guñala, ez dugu erdisten guc gueren aifola cabez, ta gueren vicitza char loi, otz, edo epela gatic!

ORRE gatic gabiltza gu, gabiltzan eran: ta pasione futu-galgarien atzapar-eran; ta gabiltza, utfez uts, ta gaizquitic gaizquira!

HAU da JESUSen hume maiteen ibillera? HAU da, ALDARECO SACRAMENTUA cer den, daquitenen ibillera? ETA hau, gu bezala, bein, ta berriz, ta ascotan comuniatzen diranen ibill-era?

NOR ill da oraindic gofez, ongui nai dion, bere Aitari oguia ez escatzea gatic? ETA norc galtzen du bere burua etfai gaistoen atzaparretan, lagundu nai dion ongaitte bati hitz bi ez erran naiez?

ZU bezain gaizqui dabilenac, orren charqui comuniatzen zaran, anima! ba-

da ambat cere comunioren buruan arquitzen zara zu, zauden eran, ta pasione futuz, ta afaldacioz orren betea, behar bezala, escatu baguez zuc, cere Aira maitari, ta laguntzalle on JESUS maita-garriari bere laguntza, ta gracia!

OROBat eguin uste dezuz, urrengo cere comunione-etan? EZ arren ez!

3.

SI PRÆSTES ANIMÆ TUÆ  
concupiscentias eius, faciet te in  
gaudium inimicis tuis. - Eccli.  
18. 31.

GOGO gaistoac ecartzen ditu baten burura, norc daqui, cembat atseguin-vide, ta naicunde lizun galgarri. BAÑA, beguira, dio Elpirtu Santuac; beguira, ez da cer ibilli orien ondoren; ez da cer oriei lecuric eguin ceren anim-etan, ceren naimenduan, edo vorondatean. Lecu ori oriei zuec eguitera, atseguin char labur bat eguinen diozue zuec ceren gogoeta galgarriari; baña atseguin char, atsecabez, ta lotfaz betericacoa.

ORI zuec orri eguin horduco damuturic arquituco zarazte zuec; eta, eguin dezu-

te-

relaco berria bana deam, bel-  
durrez beteac; bada banatzen  
ba da, icaften dutenen artean  
irrigari eguñic gueldituco za-  
razte zuec, eta hondriac ez  
dezutela,

ETA zuen lan charra,  
gogozcoa izan arren, edo **ORC**  
ecua baguea, ori zuec egui-  
tean, eguiten dezue, zuen pas-  
sione loi char ciquiñac, nai du-  
tena. **NAICUN**de char ciquin  
oniec garaitzen zaituzte zuec,  
eta guelditzen zarazte orien  
servitzari char lizun eguiñac;  
eta guero fulececo gucien hif-  
tac, eta irri-oijuac eramian be-  
harrac.

**HAU** gucia artu nai de-  
zute zuec ceren gain, guti bat  
emen ceren buruac ez necatzea  
gatic, eta cèren passione galgar-  
rici atsegin labur bat eguitea  
gatic? Zuen ero-galdu-eguiac!

**ALA** da, nere **JESUS**  
maita-garria, bai, ala da! **ERO-**  
egui-galduac, eta buruic ez  
duten, barzuec baicic, ecin ce-  
guiqueen, guc orain dañocuan,  
edo noizbait beintzat eguin


izanau duguna, edo guc baz-  
catu ditugun, etan gueren pas-  
sione galgari-ciquiñac bazca-  
tzea; ta, orain gu alquetzen  
gaituzten, ambat lan loi-itfusi  
eguitea!


ETA non dic hau gu-  
cia guti, era onetan, edo onela?

**GU** ez comuniatzetic,  
comuniatu behar guenuen,aldi  
gucietan, edo ceien comuni-  
tzen ez guñan gu zucen, gar-  
biro, humilqui, ta behar cen,  
eran, ta behar bezala.

**BERE**bat guertatuco  
ote da berriz ere, edo emen-  
dic aitzina?

**EZ** nuque nic beintzat  
nai ori niri aguitzea, edo guert-  
tatzea. **ETA** ez da guerta-  
tuco ere, zuc niri, nere **JE-**  
**SUS** maita-garriac, eman ez-  
quero, ongui ni comuniatze-  
co, ta nere etfai lizun gal-  
gari guciac escuratzeco, be-  
harco dudan, cere laguntza,  
ta gracia. **INDA**zu, bada, bat  
ere luzatu bague, ta lagun  
zaquizquit orain cinez erraten:  
**NERE JESU-CHRISTO, &c.**





# LXXVI. OTOITZ-GAIA.

ONGUI COMUNIATZEN DENARI LAGUNTZEN DIO JESU Sec bere ETSAien lan gaitsoac utratzen.

**A**NIMA batec becatu larri bat eguin ezquero galdu du Ceruco gracia , Ceruco vicitza , ta bere Jangoicoaren adifquide-tafuna. ETA baldin fulececo bere etsaiac eraguiten ba-diozcate anima berari becatu berriac , becatu berri-etara oit-erazten dutela, eguiten diozcate , gaitz orren gain, beste irur lan gaitso , edo gaitz ere ; oriec dira anima bereco zauri itzufiac , ezcabi izugarriac , eta flaqui andiac.

ETA guero anima bera bere confesionean Ceruco graciaren vicitzara , ta bere Jangoicoaren adifquide tafunera itzulia gatic , ez da bertan sendatzen , ongui beintzat , irur bere gaitz, edo eritatun izugarri ori-etatic; guelditzen zaio guere JESUS maita-garriari eguiteco hau ere , becatari , Jangoicoaren gracira itzuli dena comuniatzen den , aldi-etaraco.

BAÑA comuniatzen bada era onetaco becataria , guttizco bere sendatze hau çinez

nai duela , ematen dio ( ta anitz luzatu bague ) bere animaren guttizco ofafuna JESUS maitagarriac. Nola ufte dezu ? GOACen ecustera-

§. I.

ONGUI COMUNIATZEN DENARI LAGUNTZEN DIO JESU Sec becatuaren zauriac sendatzen.

**G**AITZERA cembait dembo-raz oituric vicitu den, becataria , guelditu oi da , ongui guero confessatua gatic, bere gorputzeco ezurrac aufiric , edo zauriz , ta zuloz betteric gueditu den, guizon erdi-ill baten eran. ERA onetan guelditzen den , guizon hau, iguitzen ba-da , dagoen , toquitic , arrastan dabil , ta neque andia-requin, dabilen , vide pisca ere : baña gueienean , ecufiric bere ecer-eza, ta iguitzeric datorquiona , neque ta oñace gutiago-requin egon naiez, gueldi-gueldiric egon oi da, bere gaitso-guin gogorrac iutzi zuten , toquian : ta norbaitec



rec lafter an hari ez laguntze-  
na, an berran iltzean da.

ERA berecoa da anima  
becatari confeslätu---berriari  
guertatu oi zaion, lembico  
lana, ta neque izu-garria.

BECAtuz becatu ibilli  
izandu den, ta gaizkira gaiz-  
qui oituriq arquitzen den, ani-  
ma egon oi da bere adimentua,  
ta bere nai-vidca, edo voron-  
datea beren eraco zauriz aguitz  
beteac daduzcala, edo egon  
oi da gauz onac ecusteco, Jan-  
goicoac entanic duen, bere bu-  
rua, bere adimentua, ta ezagu-  
era, lañotan bezala daduzca-  
la, ta, ecusi behar lituqten,  
gauzei gutitan, ta guti begui-  
ratzen diela.

ETA cer dela, uste de-  
zu zuc, anima gaizqui oitua-  
ri ortic, datorquiona?

CEER? ANIma bera-  
ren nai-vidca, naimendua, edo  
vorondatea gauz onetaraco lo-  
tan guelditzea; ecin billa deza-  
que alabaña, ezagutzen ez due-  
na; ta ez du ezagutzen, bere  
adimentuac aguertzen ez dio-  
nic.

HAU guertatzen zaion,  
demboran erraz, aisa, ta arin  
joaten zaio anima gaifoari be-  
re gogoa, behar ez diran, lane-  
tara; ta, aisa guelditzen da ani-  
ma lan char orien artean, nor-

III.

baitec ez iratzartzera, edo cem-  
bait izu-aldi-requin, edo be-  
re Jangoicoaren maita-garri-ta-  
funa garbiro aguertzen diola.

BAÑA nor, edo cem-  
izan oi da, era urtical garri  
onetan arquitzen den, anima-  
ren iratzar-tzallea?

GURE Jangoico maita-  
ta-garria, libruz batzueran, Pre-  
dicariz, ta Confeslärac beste-  
eran, ta bertze cembait-etan  
illez, viciz, edo, berac obe-  
qui daquien eran: ta, cembait  
aldiz beintzat, anima beraren  
comunione ondoan.

GARAI, edo adiuntz  
hau da alabaña, orretaco, ta ani-  
ma gaifoaren zauriac sendatze-  
co, garai guztic egoquia. HAU  
da guti gure JESUSeC bere pa-  
rabola batean adirazren digun,  
eguia.

GUIZon bat cijoan bein  
(dio JESUS maita garriac be-  
re parabolac) JERUSALEN-  
darren artenc, JERICO ceri-  
tzan, erri batera. LAPur cem-  
baitec, bere vidca ateranic, utzi  
zuten guizon hau erdi illa, ta  
zuloz, zauriz, heridaz, ta odo-  
lez guztiz berea; ta utzi zuten,  
berequin ceraman, gucia quen-  
tzen ciotela.

UCALdicatu zuten, la-  
purrac utzi zuten, toqui berean,  
ta lapur berac iutzi zuten eran

ff egon -

egondu cen bere zauri, zulo, ta oñace guci-equin, SAMAritar urricaltibat an aguerthu arte-an, APEZ, edo Sacerdote barec lenago ecufi ba-zuen ere. SAMArittarrac, era hartan hura ecufi zuenean, hartaz urricalduric, eguin izandu cion, al zuen on gucia. Gueldiraci zuen, ceriõ, odola; garbitu ciozcan bere zauri, ta zulo, edo herida guciac, eta lotu izandu ciozcan behar cen eran, edo bere oliaa-requin, ta ardo chorta-requin.

ERAMan zuen guero hostatu batera bere asto gahëan; maneatu zuen an, alic onguëna, ta iutzi zuen an, urrengo bere etor-aldiraño, bere jan-edan-etaraco, ta fenda-gaieraco beharco zuena ematen ciola.

ECUSten dezu? ORRA bada, gure JESUS maita-garriac, oagui comunitatzen den, anima becataria-requin eguin oi duena.

JERUfalen da anima obenic baguea, edo becatu larrien loiric bague, ta Ceruco graciaren ofafuna-requin dabilena

JERICO da becaturatzen diranen lecua, edo toquia. VIDEco lapurrac dira, anima beraren irur etfaiac, eta

pafsione galgarriac. PASSione etfaiac behar ez den, videren batean artzen ba-dute, videz dabilen, anima, betetzen dute becatuaren zauriz, ta zuloz; ta galeratzen diozcate, cituen, bere Jangoicoaren gracia, ESPIRITU SANTuaren zazpi doaiac, virtuteen ondafunac, eta Ceruco indar guëienac, eta bere irabaci, edo mercedimentu guciac.

VIZturic, era viciric, edo Ceruco gracia-requin utziagatic guero Apezac andic igarotzean, edo confessatzen due-nean anima becatari hau, ez diozca quentzen, guztiz beintzat, becatuen zauri-zuloac, edo barreneco bere eri-tafunac.

ORREtara datorquio ALDAreco bere SACRAMentuan SAMAritar bat, edo norc-zaitu ez dutenen zaitzallea (ori da hitz orrec erran nai duena); edo datorquio Aita eternoaren Seme-Jangoico guizon gure JESUS maita-garria: eta, SAMAritar onec, edo gure JESUS maita-garriac ecufsten dituenean, comunitatzen denaren animari bere etfaiac, videra ateraric, eguin izandu diozcaten, becatuen zulo, ta zauri ari-garriac urricaltzen zaio, dena bezala, ta Jangoicoari dagocan eran.

EMAten dio JESUSec, era

era orretan dagoen, aminari bere olioac; edo adirazten diozcalen berac berari eguñicaco on-tarteac, eta horduan berriro eguiten diona bere etortzea-requin, dato: quion bezala, ALDARECO bere SACRAMentuan.

ADIRAZTEN diozca JESUS maita-garriac gure Jangoicoaren Izate andia, Eſcu, ta Jaquiunde ecin andiagoa, ta beraren maita-garri-taſua, ecufte leun-eder onen arguia-requin aiena ditzā animac bere buruco lañoac, eta lilaracioac, eta iguiraci dezan bere bihorza, bere Jaun andi-eder-on altſu hau maitatzen haritzeco.

DEMBORA berean eman ten dio gure JESUS maita-garriac, ongui, contuz, ta, behar den, eran comunitatzen den, anima, len becatu-etara oituari bere ardoa, ta oñace vidade, edo aguertzen diozca berac len eguñicaco, becatuari cegozcan, nequeac, eternidade gucico ſuac, eta garrac, eta ſuleco urratze, min, ta quez-ca arri-garriac; nol-ere-bait videnabar erraten diola; AH zu cere buruaren galgari gaifto, anima-centzu gabea! ORRANORA beharra ciñan zu, ni zutaz urricalku nazan, eran ez urricaltzera!

CER gatic utzi cenuen

zuc cere Jeruſalen, edo nere gracia, ta aditquide-tatuna? CER gatic joan izandu ciñan zu JERICO-videtz, edo becatuz becatu, ta gaizquiz gaizqui! CER gatic eguiten cenuen zuc, cere etſai amurruac, eta zure paſione futu-lizunac naituzena?

ORRA ortic zuc atera dezun ondafun andia! ORRANOLA zauden zu, ta cembat zauri izu garri-requin, onata zu, edo comunionera urbiltzen zaranean.

BALDIN iſſilchoric egoten ba-da comunitatzen den, bere aldi-etan, len gaizqui vicitu cen, anima, ecufico du, noja JESUS maita garriac maneatuco diozcan bere adimentuco, ta nai-videco zauriac ard-oliozco emplaſto guztiz ego-qua-requin, edo ecufi ditugun, on-ezco, ta beldurrezco gauzen Ceruco berri ona-requin; eta, baldin anima berac berariac becatuz berritzen ez paditu bere zauri berac, anitz luzatu bague, ſendatuco dira guciac, eta, eritu ez-paliz bezain ongui gueldituco da anima, dio San Cyriloc: *Cum in nobis manet Chriſtus, agrotos curat, collifos reintegrat* (lib. 4. in Ioan. cap. 17.).

ORRA JESUSi, ongui

ff co-

*Jesusen amore-nequeci*

comuniatzen den anima becatariac zor dion, lembicico senda-era. ETA orra, orre gatic, JESUS maita-garriari anima be-rac zor diona ! ZORRAren at-feguiñezcoa ! ZORRAren on andi maita-garria !

ASCOTan artu ote dezu zuc , hau aditzen dezun , ani-ma , gure JESUSen ontarte , ta senda-gai on eder hau ? BAR? EZ dezu beraz utzi zuc cere JERUSAlen , edo cere Jauna-ren gracia , ta Ceruco derecha, beintzat zure sendatze onetan gure JESUSec bere escu leu-nac erabilli izandu cituen , zu-re comunione alditic. EZ de-zu beraz gueroztic zuc eguin becatu berritic bat-ere, larrie-tatic beintzat ?

BAI ? EGUIN dituzu zuc , ar , ezquero ere cembait becatu berri , oben , ta culpa; BELdur naz, bada, comunia-tu ciñala zu cere Jangoicoa-ren graciaren vicitzatic bague; edo comuniatu ondoan egon-du ciñala zu bazterrei beguira, edo JESUSec adiraci nai ci-zunic aditzen etzenuela ; ta Elitzatic atera ciñala guero zu, cere adimentuco , ta nai-vid-e-co , edo bihotzeco zauriac on-gui lotu bague , ta odola ceri-ezula, edo aho begui-beharriac lurreco gauz-etara macurtuac

cenera-matziela , edo cene-cartziela.

ALA da eguia , nere JESUS on maitea ! COMU-niatu ondoan, egon oi naz, gue-ienetan beintzat, ni, nere afmo, ta gogo gucia barraiaturic da-ducadala , ta certan nagoen ere , ohartzten ez nazala ; ta ateratzen naz ni Elizatic, zure hitzcho bat ere aditu bague, ta , Elizan sartu nintzanean , be-zain otz-galdua.

ORREquin guero nere begui-adimentuac joan oi dira lurreco gauzen ondoren , ta guelditzen naz ni , len bezain, lañope izu-garrian , Ceruco zu-re gauzac ecuffeco , ta zu nic ciñez emen maitatzeco.

BELdur naz, hau be-rau guerra daquidan urrengo nere comunione-etan ere , zuc, nere JESUS maita-garria , ne-re zauriei ez ematera anitz oz-pin-ardo-requin, edo izu-aldi, ta beldur vici-equin. EGUizu zuc orain hau , nere JESUS maita-garria, ala ba-dere sen-da ditecen becatuaren nere zauriac ; bai arren , bai.



§. II.

**BECATARIAREN EZCAI**  
izugarria fendatzeco da on-  
gui, ta maiz comu-  
niatzea.

I.

**G**AITz gaiſtoac ecarri oi da  
gaiſtoagoa ; ta aguitz  
gaitzago da, dacuſazuñ beza-  
la , gaitz bata , ta beſtea ditue-  
na ongui fendatzea : ta ori da,  
becatuz becatu ibilli den, anima-  
ren neque , ta lan izu-garria.

**GAIZQU**itic gaiſqui-  
ra dabillen , animac leneco  
bere zauriac fendatu beharre-  
an , berritzen ditu , zauri be-  
rac , berriro beçaturatzen den  
aldi-etan ; ta becataria maiz or-  
retaratzen dela , ta bere zau-  
rien orrembat berritze-requin ,  
aguer-erazten du , ezcabiaren  
icena eman daquiqueon , gaitz  
izugarri guztiz ciquin bat ; eta,  
quentzea aguitz gaitz den , ga-  
itza , edo eritaſuna.

**CER** gaitz , edo cer  
eritaſun dela , uſte dezu zuc,  
eritaſun gaiſto, becatariari onen  
bortizqui itfaſten zaion , erita-  
ſun , edo gaitz-era hau ?

**HAU** da gaitz-eráco  
grña macur-bat, eta oitura, edo  
coſtumbre gaiſtoa ; ta coſtum-  
bre , picura , edo gaitzeraco  
grña macur , gure gogo gal-  
duac guztiz nai duena ; ta orre

gatic da gaitzeraco grña , ma-  
cur-era , edo oicura , beçatua-  
ren zauria baño , aguitz izu-  
garria-goa , ta quentzeco aguitz  
gaiſtoagoa.

**GAITZ**era gu guerez  
macurtuac gara gueren gazte-  
tafunetic ; eta gaitzeraco gue-  
ren grña gaiſtoa-requin arqui-  
tzen gara , zacur iſteria eicira-  
co bezala.

**EICIR**aco diran zacur-  
rac , edo zacur iſteriac, gutiren  
bat azcartzen aſi-horduco , ei-  
cira naiez daude , ta , artaraco  
videa duten , gucietan arraſto-  
an dabilta.

**LEND**Abicitic eragoz-  
ten ba zaie zacur iſteriei beren  
eici-videa , ta nai duten , beren  
In ori, edo cigorra-requin, edo  
catez ongui loturic eche zai-  
tzan beti iduquitzea-requin, edo  
era bereco ceibait beſte guifa-  
tara , ez dira guero ambat ei-  
ci-zaletzen , edo aifa uzten du-  
te beren eici gucia. **BAÑA** ei-  
cira bein ongui zacur oriec oi-  
tu ezquero , etzaie quentzen  
bein ere beren eicira-naia , ta  
araco beren macurrera , edo  
grña.

**ALA** gu-ere : gueren  
gazte-taſunetic oitzen ba gara  
gaitzetic **UR**run vicitzera , **ELI**-  
za zaitzera , edo Elizaco , ta  
devociozco gauz **ON**etara, aifa

zu-

zuentzen degu guç gaitzeraco guen on gueren macur-era ; ta joaten zaizquigu guri gaitzera bague, urteac , eta urteac , eta bacan gueroz gaitzeratzen gara , edo bein-ere ez.

BAÑA lendabicitic, edo gueroiseago oitzen ba-gara gu gauza gaisfo-etara , edo oben culp etara , anditzen zaicu guri gaitzeraco gueren griña , ta macur-era , ta itfasten zaicu andic laster oicura gaisfoaren ezcabia ; ta guztiz gaitz da gueroz gueiago onera guc gueren bihotzac zuentzea , ta gueren adimentu-bihotz-animac behar den , eran fendatzea , edo gaitzac , eta becatuac behar bezala guc gueroz uztea.

BERE becatuac , eta gaitz-era guciac ciñez iutzi nai dituenai agaitz laguntzen dio gure JESUS maita-garriac , ongui comunitatzen den , bere aldi-etan ; ta , era orretan orrec ori maiz eguitera , quenduco dio , bai , gure JESUS maita-garri berac bere ezcabi-izugarria , ta becatuaco bere aztura gaisfoa.

BAÑA orretaraco eguin beharco du becatariac , JERICOCO videan gaitzeco cegoenari SAMARitarrac eraguin izandu ciona ; edo bere gorputzaren oin gaitzean ( hau da,

zentzu bagueco , gure astoa ) eramian beharco du bere anima oftatu on batera ; edo , becatuaco bere vide gaisfo macurrac utziric , artu beharco du Elizaracoa , toqui or-etaracoa , ta , lagun gaisfoic ez den , bazter etaracoa.

ETA guero vici beharco du bere toqui on , edo ezciquin-garri ori-etan gure JESUSec nai dituen , gauza lendatzalleac , edo bere anima eriararen fenda-gaiac , edo erremedioac zucen-zucen eguiten dituela.

HAU eguiten ba-du , gaitzqui oituric dagoen , becatariac , oituco da , guerozco bere aldietan eguin beharco dituen , gauz on-etara . ERA orretan erdisten duen , becatariaren oicura onac garaituco ditu becatari beraren aztura gaisfoac , eta gueldituco da becatari len gaizqui oituaren anima , len cituen , ezcabi izugarriac , edo oicura gaisfoac bague.

## II.

ERA onetaco becatariaren lembicio comunionean quen lezaque gure JESUS maita-garriac bere becu-etatic becatariari guelditu zaion , ezcabi lizun , edo oitura gaisfo hau ta utz lezaque becatari beraren anima on aldera guztiz itzulia.

ALA

ALA eguin izandu zu-  
en len gure JESUS maita-garri  
berac S. PABLO Apostolua-re-  
quin ; ta ala eguin izandu du  
gueroztic beste cembait-equin  
ere : ta orain ere ori bera eguin  
dezaquela guri adirazteco da,  
JESUsec berac guiz artean vici  
cen demboran, eguin izandu  
zuen, gauza bat.

ANITZ gende-requin ar-  
quitzen cen batean, atera ce-  
quien gure JESUS maita-gar-  
riari bere videra, ezcabi ciqui-  
ñez, edo lepraz beteric arqui-  
tzen cen, guizon bat ; eta, be-  
launicaturic, eta bere burua-re-  
quin lurra uquitu arterañooco  
agur andi bat eguiten ciola, er-  
ran izandu cion ; JAUNA, zuc  
cere escuan daducazu, nagoen,  
eran ni orain egona gatic, gaur  
bertan zuc ni fendatzea, edo gar-  
biric uztea.

URRICaltzen zaio eria-  
ri JESUS maita-garria ; luza-  
tzen dio bere escua ; ta uqui-  
tzean, erraten dio ; garbi zai-  
tez bada, ta hau JESUsec hari er-  
ran-horduco, guelditzen da ez-  
cabi-dun gaisoa, bat-ere ezcabi-  
ric bague, ta ofafun ofo-oloa-  
requin.

BEREBat eguin lezaque  
noiz-nai gure JESUS maita-gar-  
riac becatariaren animaco ez-  
cabi-requin ere ; baña ez du

JESUsec, ez, beti ori eguin oi-  
CER gatic uste dezu ?

CEREN becatari, ani-  
maco ezcabi-dunac, cembait al-  
diz comuniatzera joana gatic,  
joaten ez diran, beren fenda-  
era orretaraco JESUsec efca-  
tzen duen preffa era-requin : ta  
ceren nai duen gure JESUS  
maita-garriac fenda ditecen, era  
orretaco becatari ezcabi-dunac,  
berac beren buruei laguntzen  
diela, lagundu cion bezala,  
orain ecufi dugun, gañeco be-  
re ezcabi-requin arquitzen cen,  
guizonac.

HAU bera eguin zuten  
beste batean beste amar ezcabi-  
dunec ere.

AMAR ezcabi--dunec  
efcatu cioten aldi batez bate-  
tan gure JESUS maita-garria-  
ri, urtical cequiela arren, ta  
fenda citzala guciac : baña ur-  
rutitic efcatu cioten hau, ta  
ojuca ; ta etzituen hordu be-  
rean an oriec fendatu. CIJO-  
cela erran izandu cien, beren  
ofafunaren esque Apez-etara,  
edo Sacerdot-etara.

ARTU zuten amar ez-  
cabi-dunac, JESUsec, beren  
ofafuna--raco bereci cien, vi-  
dea ; ta oriec ori beren alde-  
tic eguiteman, ta beren videan  
cebiltzala, guelditu ciran ezca-  
biric bague guciac ( Luc. 17.  
12. ).

ZA-



ZABILtza, bada, zu ere. JESUSec zuri eracutiricaco videdez, ta virtutez virtute; ta bertan, edo bere-bereala ez izana gatic, gal eracico dizquitzu, bai, azquen-eraco cere aztura gaistoac, eta gueldituco zara zu, bat-ere gaitzic bague.

POZIC ibillico naz ni, nere JESUS maita-garria, zuec nai dezun, eran, didazun guero zuc, deritazunean, orain nic billatzen dudan, ofafuna: ta ibillico naz ni, alic onguien-onguiena, ta oraindañoço nere paufu galgariac negarrez urratzen ditudala, ta zuc nai dezun, gucia zucen-zucen eguiten dudala.

ZORI onecoa ni, ala bad-ere (ta naiz dela anitz nere comunio-neren buruan) erditzen ba-dut nic, nere animan ezcabi gaistoric, edo aztura macurric bague guelditzea: bada ori nic, beranduifeago badere erditfi ezquero, erditfico dut nere Jangoicoaren gracia-ren ofafuna; erditfico dut ongui fendorturic guelditzea, ta, guerozco demboretan gauz on anitz eguiteco videa.

NERE aldetic ez-pa-da utseguitec nere JESUSec ni gandic nai dituen, gautzetan, erditfico dut nic hau guci-gucia; bada prest zaude zu nere

JESUS maita-garria, nic nere comunio-etan, ta beste horduetan ere, behar bezala escatzen dizudan; aldi-oro zuc niri emateco, orretaraco beharço dudan zure laguntza, ta gracia.

EGUIñen ote ditut nic gaur-guero, orain-dañoçoan bezala, utf eguite berriac?

BELdur naz, baieç nere ondoren ez ibiltzera zu, nere JESUS maita-garria, cere gogargui-equin, ta bihotz ucaldi-equin maiz-maiz ematen didazula. URRical zaquizquit, bada, ta zabilta era orretan; bai arren, bai.

### 9. III.

ONGUI COMUNIATZEN DENAREN flaquiaco quentzera dator JESUS ALDareco bere SACRAMentura.

GAIZqura, edo vici-eragaistora oitzen den, becataria, guelditu oi da, elbarri baten eran, guaz-onetaraco, edo guelditu oi da flaqui-andiarequin, ta laa on-etaraco orrembat gogo, edo gogoric bat ere ez duela.

ONGUI comuniatzen denetan, bere JESUSen escuetan dago becataria; ta bere escu-eraco becatari hau maneatzen du JESUS maita-garriac, SAMARitarrac, ofatura era-

man

man zuen , bere eria bezala ; ta SAMARitarrac ofitalariari bezala ematen dio JESUS maita-garriac , ongui comuniatzen cien , becatariari , urrengo etor-aldiraño , edo lembxico bere comunione-iaño ( baldin luzatzen ez-pa-du gueiegui beraren lembicico , edo urrengo comunioneac ) beharco duena , edo ematen dio JESUSEC , bere gauzac zucen , ta behar bezala eguiteco , beharco duen , bere laguntza , ta gracia.

ETA bitarte hartan irauten ez-pa-du becatariac bere lan onetan , edo bere gauz on-etan , ez da flaquiaz izain , ez , baicic beraren nagui-tafunez , beraren alferqueriz , edo beraren berriz bere gaitzera naiez : ta JESUSEC , bere comunione onean eman cion , laguntza-requin eguiten ez-pa-ditu , eguin behar diran , gauzac , edo , JESUSEN laguntz hau aldebat utzirik , eguiten ba-ditu , eguin behar ez diranac , esquer gabe gaisto bat izain da , ambat JESUSi zor dion , becatari char eri hau ; ta , JESUS beraren parabola bateco , necazari batzuec bezain galgari gaistoa.

BERE masti , edo ardantze berri baten jabeac eman izandu cien hau cembait urte-

III

taraco necazari batzuei. BERE demboran jabeac igorri cituen necazari orietara , fari-esque , bere mutilac ; eta igorri cituen , bein ez-ecic berriz , ta berriz , ta gueiagotan ere : bafia ardantzea zuten , necazanac esquer-gaistoa-requin itzultzen diozcaten jabeari bere mutilac ; eta azqueneco aldian illac utzi cituzten jabearen matill eteale guciac.

ALA ere etzien jabeac necazari borrhero , edo iltzalle gaistoei gaitzic eguin izanduta , prefonteguiaren batean oitac far-eraci , ta , ureabeen itoac utz-eraci lecuan , igorri cien necazari zordun berei bere Semea , hau obequi artuco zutelaco ustean.

BAÑA guiza char gaistoac , beren Nagufiaren , edo ardantze-jabearen seme hau urrutitic ecusi horduco , ara , erran izandu zuten ; ara bere Aitaren ondoren ardantze onetaz jabetu beharra. OTS , bada , ill dezagun hura , ta gurea da gueroztic haren mastia , edo haren ardantzea.

EGUITEN dute beren erran galgari hau ; ta , videra ateratic , iltzen dute beren Jai-naren Seme-maitea.

OKRA cein esquer ga-beac aldi hartaco necazari ori-

Gg

ccI

ec ! ETA orra , (ongui ohar-tzen ba-zara ) orietatic bat zu cerori ere ! BADA JESUSen parabolaco masti , edo ardatze ori zure anima da ; ta zure anima orren Jabea , Aita eternoa .

EMAN cizun zuri cere Jangoicoac cere animaco ardatze , edo masti ori , zuc ongui maneatzan cenuela , ecarri ciztan mat'ongui humotuac , eta edari onac Jangoico beraren mairaco , edo anitz irabaci on , ta merecimentu Ceruraco .

BIDALdu , edo igorri ditu gure Jangoicoac ) eta anitz aldiz ala ere ) jaqui , ta edari on , edo irabaci , ta merecimentu orien esque , batzuetan bere Predicariac , eta beste-etan zure Confessariac , eta Cargu-dunac : baña esquer gaitoa , gogor-tafuna , ta alienacioa baicic eraman ez dute zuo gandic batrac , eta besteac .

IGORRI cizun Jangoico berac zuri len , guizon eguñic , eta gueroztic cere comunionean , bere Seme Jangoico JESUS , maita-garria ; ta , zuc ori ongui artu lecuan , eman izandu cenion len cere becatuz gurutzeco eriotza , ta gueroz , S. PABLOc dionaz , gurutze-ratzen dezu Jangoico Seme JESUS bera , gaizqui zu comuniatzen zaran , aldi gucietan .

GAUZA guztiz arrigarrria ! ZUC cere gauz onetaraco dituzun , flaquiac zuri quendu naiez etortzen zu gana zure JESUS maita-garria , zu comuniatzen zaran , aldi gucietan ; ta bein ere zuc utzi nai ez gauz on ori-etaraco cere flaquiac !

ZURI cere lan onetan laguntzera eldu zure JESUS maita-garria , zu ganatzen den , aldi orietan ; ta zuc , cere JESUS maita-garriaren laguntz indartsu ona artu beharean , artzen JESUS bera , cere animaco gurutze gogorrean , cere becatuen iltzez josiric uzteco ! HAU ez da esquer gabe gaitoaren lan guztiz itfusi arrigarrria ?

ECUSTen du orain Aita eternoac zure lan gogor gaito galgarri hau ; ta ecuzen ditu videnabar , edo zure languiro errebes onequin batean , len zuc eguin izandu dituzun era bereco beste guciac ere : ta hau gucia bateran Aita eternoac ecusi , ta ere , ifsil-ifsillic dago Aita eternoa , ta ematen ez dizula zuri dagoquizun , ta ongui-ongui irabacia daducazun , beti-betico fulecea .

BAÑA ematen ba-dizu zuri hau , lembicico becatu-ratzen zaranean , baldin artaratzten ba-zara zu ? GAL-

GALdua ni eternidade guriraco ! EZ Aita eterno maita-garria, ez arren orrelacoric, ez ! EZ dut berriiz nic eguiñen seculā era orretaco videgaberic, ez. ARTUco dut nic, bai, ta pozic al-ere nere JESUSen laguntzac. EGUIñen ditut nic, eta zucen ala ere, eguin behar diran, gauza guciac ; eta igorric dizquitzut nic JESUS beraren escuz guci-guciac. BARcatu arren orain-dañocoa, nere Jan-goico maita-garria ; bai arren, bai.

I.

OMNE CAPUT LANGUIDUM,  
*omne cor merens... valens, & livor, plaga tumens: non est circumligata, nec curata medicamine, neque fota oleo.* Joan. 1. 5.

**A**Y anima gaifo becataria ! AH becatuz beteric arquitzen zaran, nere anima ! Nic ez daquit, nola zauden zu, zauden bezain aifola cabean, ta beldur guciago ez dezula ! EZ dezu zuc cere burutic oñetaraño-coan, ongui nai dizun, zatiric bat ere : ez dezu zuc, ez, eri, ta gaizqui ez daducazuric erdi bat ere.

ZAURiz, ta zuloz be-teac arquitzen dira diranac; eta, gañeracoac baño ere, aguitz

gaizquiago arquitzen dira zure buru-bihotzac, edo zure adimentua, ta zure nai-videa, edo vorondatea ; bada argui guti du zure adimentuac, eta erdi itsutura arquitzen da, bere Jan-naren gahzac ecusteco ; illum-betan bezala dabill, ta beti macur zure nai-videa, edo nai-mentua, zure bihotza, ta vorondatea ; ta alacoac dira zure asmoac, eta gauza guciac : guciac galduac, eta galgariac !

EZ dio niore ere bere zaurietan oloz eman nai zure animari ; edo ez du zure animac berac nai eman dezoin iñore oloz, arguiz, edo senda-gaiez, bere beguac sendatze-co ; eta artaraco zure JESUS zu gara uildua gatic, zu comuniatzten zaran, cere aldietan, cere burua gyratzen diozu zuc beste gauz-etara, ta ez diozu beguiratu nai zuc, JESUS maita-garriac eman nai dizun, argui ederrari ez eta, bere gogarguiz aguertuco hzquitzun, gauzei ere ; ta guelditzen zara azquenean zu cere illumbean, ta cere gor-tafunean.

ORREquin eguiten dute zutaz zure etfaiac, berac nai dutenas ta, zure barren guciac jabeturic, ateratzen dituzte, zure anima gaifoan arquitzen dituzten, ondafunac; eta uzten

Ggz. dute

dute hau bere Jericoraco vidadean, edo fuleceracoan ecer-ez bague, ta zauriz dena, ta zauriz bete galdua.

ORRA cein ederqui ar-quitzen zaran zu, nere anima gildu-egua! ETA era orretan arkitzen zara zu, ceren zuc berariaz uzten dezun, cere Jerusalengo toqui garbia, ta artzen dezun cere gal-videa, edo, behar ez den, jostaqueta, hitz-eguitea, jan edana, jocoa, edo lagun galgarria.

CERE ibill-era galgari, ta la gun oriec zuc ez uztera, ez dira fendatuco, ez, zure zauriac; eta galduco zara zu eternidade guci-guciraco.

EZ arren, nere JESUS maita-garria, ez! UTZI nai ditut arras guciac, nere lan onetan niri zuc laguntzen didazula.

ATOZ, bada, ni ganas; atoz, nere SAMARitar, edo lagun-tzalle on eguiñic ALDARECO cere SACRAMentuan, ta nere comunionean; ta atera nazazu zuc, zuc cerorrec nai dezun, toquira. EGUIN nai dut nic gaur-danic zuc cerorrec nai dezuna, ala ba-dere ni fendaturic guelditzeco, ta zauriric bague; ta guero zure ondoren arin, ta zucen-zucen ibiltzeco. ATOZ, bada, atoz JESUS maita-garria; bai arren, bai.

*V. A VOBIS... QUIA MUNDATIS quod desoris est Calicis... istus autem pleni estis rapina; & inmunditia. Matth. 23. 25.*

**A**H! ta combat sartzen diran Elizetan, ta combat, eta combat dabiltzan gendartean, ederqui jauntziac, bai, ta garbiro apainduac, baña dembora berean barrendie utelduac, eta ciquindu-galduac!

IDURI onecoac dira oriec emengo guizonen beguetan; baña Ceruco AINGUERNAC beguiratu ere nai ez die era orretaco gendeei, ta gende bèrac JESUSEC beguiran artuac daduzca; ain beltz-itxusi ciquiñac arkitzen dira oriec beren adimenturic vorondate-rañoco bazterretan, ta beren anima guci-gucian!

EZcabi eguiñac dirudite genda-guiro oriec, burutic oñetarañoco beren gauza gucietan. GAITZERA guztiz ma-curtuac arkitzen dira genda-guiro berac, eta aztura gaitoz guztiz lizunduac; eta norc, nai dezu zuc, artu dezan, era orretaco ontzi batean ematen zaion, edaria, edo, guita orretan arkitzen denac eguiten duen, gauza, naiz dela aintzu-

tzura , edo iduri guztiz eder-recoa.

ERA orretan arquitzen ote zara zu ere ! ALA ba da, züre urrical-garria ! ZOAZ zu lembait-len, zoaz cere confes-fioco iturria. ZOAZ zu ; ba-ña zoaz damu ederrez jauntzi-ric , eta becatuaren loiqueri gucia confessari on baten oñe-tan uztera ; ta zoaz guero , hu-milqui cere comunioean JE-SUSñi escatzera , garbi zaitzala cere becatu guciē loi-etatic, eta, otiec berac zure adimentuan, ta nai-vidéan , edo voronda-tean utzi dizquitzuten , aztura gaitso-etatic , eta orien farna itfusi , ta ezcabi izu-garri-eta-tic.

BAÑA artuco ote nau ni nere JESUS Jangoico-gui-zon maita-garriac , ambat al-diz nic hura aferretu dudan be-zala , aferretu ondoan ?

BAI , ta gueiagotan , ta gueiagotan aferretu ba cenu ere humilqui ba-zoazquio zu , ta berriz era orretaco afer-videric berari ez emateco asmoan.

GURE JESUSEn one-guia ! Pozic joain naz, bada, ni, ta alic lasterrena , orrembat on , ta garbitasun eder nic ne-re anima gaisoari ematea ga-tic.

IZAN ba-ledi oraingo

nere garbiera , bein ere berriz ez galtzeco , vicico nazan , ne-re dembora gucian ! Ala guer-ta dedilla nere JESUS maita-garria ; bai arren , bai.

3.

APPREHENDE ARMA, ET SCU-tum. Exurge in adiutorium mi-hi... dic anima mea; salus tua ego sum. Psal. 34. 2.

**O**RRRA nere JESUS maita-garria ; orra nola nago-en ni, nere etsai amurratu gal-duac ni galdu ninduten ezque-ro ; ta nic neronec becatu li-zunac becatuen gain eguiten nituela , aztura gaitsoz beteric, eta indarric bague bezala guel-ditu nintzanetic !

MALcorrac dira , eror-toquiuc dira , ta gal-vidéac non nai nic mundu onetan arquitu oi ditudanac ; eta emengo to-qui guciac arquitzen ditut nic, etsai indartsuz guztiz beteac.

CER daguiquet , bada, nic , ni orien escu-etara ezque-ro , bacarric ba-noa ni ara , ta lagunic bague ?

ILLA guelditu, edo be-catu berrien zauriz, len baño ere, aguitz beteagoa, ta urren-go aldietan cer eguinen ote du-dan, ez daquidala!

HAU


HAU guerta ez daquidan niri, nere JESUS maita-garria, urricari nauzun ez-juero, nauzan bezala, artu zazu zuc orain bertatic ni ganaco videa; ta atoz laster, niri nere etsaiac garaitzen laguntzera; ta atoz orretaraco comunione on garbi batean nere baitara, nere ecer-eza, ta gabea alderagotic zuc ecustean laguntz-endarfuago bat niri ematera.

ZU nerequin, ta nere alde ecusi ezquero, ez da etsairic, iguesiari emain ez dionic; ez da etsairic, nere indargabeari, ta flaquuari beguiratuc dionic; ba-daquite:alabaña, nere etsai amurratu gaisfoac zuc ongui, ta, dezaquezun, eran niri laguntzera, noiz nai nic berac fite ta aisa garai ditzaquedala.


ANITZ da, bai, nere JESUS maita-garria, nic orain zuri, escatzen dizudan, eran

cere laguntz indartsu hau cinez escatzea; ta ez nintzaque trebe ni nere esca-er andi onetaraco, nic, daquidan, bezain ongui ez-pa-nequi, cein emalle luce ona zaran zu, naiz dela, len aferreturic iduqui zaituztendaco; bada den gaisfo-enari ere, bere gaisquiaz cinez damutzen zaionean, zuri harc ori escatu ezquero, bertatic zuc barcatzen diozcatzu bere obenac, bere charqueriac, eta becatu guciac; eta ematen diozu, bere gauz-etaraco beharco duen, cere laguntza; ta gracia.

ORI bera da; nic orain zuri escatzen dizudana, ta escatzen dizut, erditico dudalaco. uste osoa-requin; bada escatzen dizut, beguitan arturic nere orain-dañoco becatu guciac; eta alic cinezena erraten dizudala: NERE JESU-CHRISTO JAUNA: &c.







# LXXVII. OTTOITZ-GAIA.

ONGUI COMUNIATZEN DENARI LAGUNTZEN DIO  
JESUSeC virtuteac irabazten.

**A** Nima becatariac bere et-  
faiac aienatzea, anima be-  
rac bere passione galgariac ef-  
curatzea, bere zauriac fenda-  
tzea, ta flaquiac uztea, bere  
gauzac guero behar den eran  
eguiteco, vide onean anima  
faiatzea da: baña, ecer-ez bat  
bezala da, hau gucia, ez-pa-  
da ibiltzen guero Anima, ibi-  
lli behar den, eran, ta bere  
videz, edo bere gauzac ongui,  
ta zucen eguiten dituela: bada  
gañeraco gucia lizaque, AN-  
DALuciaco zaldi galant bat  
ederqui prestatuac videra ate-  
ratzea bezala, an gueldi-guel-  
dia, ta arri baten, eran idu-  
quitzeo.

ZALdia videz ibiltze-  
co da; ta Anima ibilli-era onez  
virtute eder anitz irabazteco,  
ta orien lorez bere burua on-  
gui apaintzeo. ANImac ori  
ez eguitera, nai dituen, beste  
gauza guciac eguina gatic, gal-  
dua da Anima.

,BERE eguiteco hau  
eguin nai ba-du Animac, har-

taraco beharco dituen, indar  
guciac emain diozca gure JE-  
SUS maita-gariac, animari,  
anima bera ongui comuniatzen  
den, aldi gucietan.

§. I.

LIRIO ZURI--EDERRAREN  
eraco virtutea irabazten, la-  
guntzen dio JESUSeC, on-  
gui comuniatzen den,  
Animari.

I.

**G**URE virtute guciac guz-  
tiz ederrac dira gure JE-  
SUSen beguieran; ta, edocein  
gure virtute JESUSeC ecusi hor-  
duco, eguiten diozca JESUSeC  
gure animari bere amoriozco  
beguiratzeac; eta bere virtu-  
teac anima virtute-dunac ez  
galtzera, ez ditu JESUSeC ar-  
gandic quenduco bein ere be-  
re begui-gogo asmoac.

ALA ere ba-dira, gu-  
cien artean, cembait virtute,  
begui obe-eguin gure JESUSeC  
ani-

anima virtute-dunetan ecusi oi dituenac ; eta orietatic da LI-RIO zuri ederraren AINtzura duen bat.

VIRtute hau da , feigarren mandamentuac escatzen duen , GARbiera , edo CAS-tidadea : ta CASTidadea-requin, edo garbiera eder onequin ar-quitzen diran , Animen artean egon oi da gure JESUS maita-garria naiez gogoz , ta bihotzez , ta egon oi da beti ganiez , ta egunez , edo anima garbi--eder orieci bere Ceruan tar-eraci artean. ORI da anima Santac , edo onen icenean Es-piritu Santuac esaten , edo adirazten digun , eguia : *dilectus meus... pascitur inter lilia , donec aspirat dies.* Cant. 2. 16.

ORRE gatic , beste cembait virtute irabazten baño, nai--iduri andiago batequin laguntzen dio JESUS maita-garriac animari , virtute zuri eder hau irabazten , anima bera ongui comuniatzten den aldietan , ta beste edoccin-etan , anima berac JESUS hartara ezquero , edo JESUfi bere laguntza escatzen dionaldietan. HAU gu-ri adiraci cigun nola erebait ZACHarias Profetac , erran cigunean , Jangoicoaren gauz on-ederra dela , Jangoi-coac beretaco artuac daduzca-

nen , oguia , ta ongui comu-niatzen diranen animac araguia-ren loi-pitfic bague , ta , Ain-gueru beren gatbi tafuna diru-dien , garbi-tafun batequin utzen dituen , ardoa : *Frustrum electorum , & vinum germinans vir-gines.* Cap. 9. v. 17.

ETA nola befteric eguin cezaquen gure JESUS maita-garriac : JESUS denean ( den bezala ) JANgoico-GUI-zon ecin GARbi-EDERragoas ; ta norc--nai nai ditu beraren eracoac bere guciac ; eta ez di-ra ecin garbi-ederragoaren era-coac , al-duten garbi-tafun eder-ra-requin arquitzen ez diran , animac.

BAÑA nola laguntzen ote dio JESUsec ongui co-muniatzten den , animari li-riozco garbitafun hau , edo be-re castidadea irabazten.

JESUsec berac bere SA-CRAMentuan eguiten duena , edo an harc eguiten dituenen eraco gauzaren batzuec egui-teco , behar duen , laguntza , ta gracia anima berari ematen dio-la. BAÑA cer ote da gure JE-SUsec ALDAreco bere SACRA-mentuan eguiten duen , gauza zuden hau ?

BEInic-bein gogamber-ric , edo sosphecharaco videric ematen ez duela , an egorea , edo

edo behar bezalaco toqui ba-  
tean, arin-querinic bague, ta  
Aingueruz inguruturic egotea.

ETA orra gure JESUS  
maita-garriac bere ALDAreco  
egoera-requin bere eraco ani-  
ma garbiei beren comunionean  
eracusten dien, lembicico gau-  
za; otz-charreco eche, ta le-  
cu-etatic urrun vicitzea; josta-  
queta ariñetan ez fartzea; ta  
Aingueruen eraco lagun-equin,  
edo lagun vittute-dun on gar-  
biequin ibiltzea. Eracusten dien,  
gauz eder garbi onetaraco, ematen  
die JESUSec anima berei be-  
ren comunionean, gauz hau er-  
razqui eguñteco, beharco du-  
ten, Ceruco gogarguia, bi-  
hotz-uquiera, ta bere gracia-  
ren laguntza; ta ematen die  
ori gucia, hordu berean, edo  
bere horduraco.

ZORI onecoa ni, baldin  
nic, nere JESUSen gauz  
oricz ongui valiaturic, egui-  
ten ba-dut, JESUSec berac egui-  
ten duena-requin eracutsi di-  
dan, ta guztiz ederqui dirudien,  
gauza eder garbi hau.

II.

BI garten gauza, gure  
JESUSec ALDAreco bere SA-  
CRAMENTUAN eguiten duena,  
ta guri, gu ongui, ta garbi-

III.

ro vicitzeco, eraguin nai di-  
guna, da soñecoari dagocana.

NOLA jauncin arqui-  
tzen ote da gure JESUS maita-  
garria ALDAreco bere SACRA-  
mentuan?

SOñEcocho garbi guz-  
tiz merque batequin; ta ongui-  
ongui estalia.

ETA nola nai du JESUS  
maita-garriac ibilli ditecen, on-  
gui comuniatzen diran, ani-  
mac?

NOR bere eraco, edo  
berari dagocan, soñeco-equin,  
ta garetia-goric, edo obenic  
egun batez ere, jaunzten ez  
duela; ta dembora berean  
aguertze ciquiñac, edo ecusten  
duten, animen ciquin-garriac  
aldebat uzten dirueta; bai ta,  
ez dagozcan, cinta, ta arro-  
tafuneco apaintze guciac ere.

HAU ez eguitera, ez  
dio JESUSi atsegin eguiten be-  
re comunione-etan, JESUS bera  
artzen duen, animac; guizonei,  
edo ecusten duten begui ariñei  
atsegin eguiten dio, era oneta-  
co comunia-tzalleac.

BEGUIra eguiozu zuc  
leneco cere ibillerari; ta begui-  
ra etoiquizunari; ta beguira  
otre-taraco, ALDArean JESUS-  
ec daducan, ego-erari, ta soñe-  
coari.

III.

CER ote da, gure JE-  
Hh SUS

SUS maita-garriac ALDARECO bere SACRAMentuan eguiten duen , ta guri eraguin nai digan , irur-garren gauza , harc guri orregatic emateco , animaco lirio eder-castidadearen loreac elcatzen duen, laguntza?

BERE beguiac ; bere beharriac , bere mihia , ta bere gorputz gucia ongui-ongui gorderic iduquitzea da JESUS-ec ALDARECO bere SACRAMē-tuan eguiten duen , ta guri eracustea digun, irrurgarren gauza.

EZ dezu ecusten cein gordeac daduzcan gure JESUS-ec bere gauza orieci guciac ? EZ diozu ecusten zuc , ez ; ez eta eculico ere bere gorputzeco gauzaric chiquiena , orretaraco gau , ta egun zu beraren SACRAMenta orretara beguira-beguira egona gatic.

AH, baña gu ecin gaudetzeque guña orretan , eguinen ba-ditugu guc , gure contura dauden , gueren gauzac !

ALA da : baña ba-daguiquegu guc , gure JESUSec guri bere eracuf-aldi onetan elcatzen diguna. CER ore da, diozu , JESUSec guri bere egoera estali onequin elcatzen diguna ?

EZ beguiratzea guc,edo beintzat beguira ez egotea gu, gogoracio charrac ,edo oroi-

tzapen lizunac ecarri oi dituzten, gauz-etara ; ta ara beguiac itzurtzen diran-etan , lembaitlen begui berac andic quentzea, ta dembora berean animaren beguiac , edo buru-bihotzac, Jangoico emalle ona gana,beraren laguntza onaren, ta Ceruco graciaren esque igortzea , edo bidaltzea , ohartu cabeco , edo berariazco beguiratze arin-etatic datocen, oroitzapen lizunac bertan aienatzeco.

CER gueiago elcatzen ote digu gure JESUSec guri,aldi onetaco bere eracuste estali gordea-requin ?

GUC gueren beharriac ongui zaitzea ; adi ez ditza-ten orieci-sonu-char galgarriac, canta lizun ariñac , aragui-cutfuzco hitzac , eta laufengac ; lagun-urcoari ez dagozcan , hitzquetac , eta marmariac : eta, ecin bestez aditzen ba-ditugu guc , era orretaco cembait ele, ta gauza , ez aditu guc eguita, ta bertatic , eta batere guc gueren gogoan lecuric eguin bague , guciac aienatzea.

ORI gucia guc eguitera , ez dira ciquinduco, ez gure beharriac ; ez , eta gure animac ere,alde on-etatic beintzat ; edo gordeco ditugu guc gueren beharriac JESUSen eran , ta gure JESUSec nai bezala.

GUE

GUeren mihia , edo mingaña ere gorde beharco duguc, begui-beharriac bezala, ongui comuniatzan garala , guc gueren commiione on-etan gure JESUS maita-garria gandic erdisteco , animaco virtute zurri garbiac , edo castidadeac elcatzen duen, laguntza, ta gracia.

BAÑA nola gordetzen ote da, JESUsec gordetzen duen, erā, gure mihi, edo mingain hau?

ISSILlic iduquitzen dela , hitz-eguin behar ez den demboretan ; ta bein ere uzten etzaiola , ongui ez dirudien, hitzic eguiten ; ta , alic onguie-na isil-erazten duela , gaizqui, ta ez garbiro darausa-narena.

ORI eguiten duenaren mihira , edo mingañera pozic doa, bai, beraren comuniorean gure JESUS maita-garria ; ta ematen diozca hitz onac , behar den, horduraco, edo laguntzen dio poz andia-requin JESUsec oriec erraten.

#### IV.

BAÑA ez da asqui , ez, hau gucia , JESUS mata-garriac guri ar-eraci nai digun , garbitafun-eraco , edo liriozco virtute eder-eraco. HAU irabacico duen, comunia-tzalleac gorde beharco ditu garbi-garbiro

bere gorputza , ta bere buru gucia ere ; edo ez dio eman beharco bere buruari , cillegui ez diran , atleguin char-loietatic bat ere : ez du eguin behar bein ere , ongui ez dirudien , ibilleranic , egoteric , edo uquitzeric ; eta ez dio, munduan deni utzi behar , era orretaco gauzaric eguiten ; ez eta eguiteco videratzen ere ; ta orre-taraco iguel-eguin behar du bere al-eguin gucian , ganz ori-erara litezqueen begui-etatic ; bada San GREGORIOc dionaz , beguiratzez ere ciquin diteque-anima garbia : *etiam aspectu violatur Sancta virginitas.*

HAU eguiten dutenac, len erran ditugun , beste gauzequin batean , gordetzen dituzte beren animen host ate-leioac , edo campoco sentiduac. ETA barreneco-beren leio-eguin berebat eguiten dutela , ba-dituzte, lirio eder-virtute garbi onen sei ostozuriac ( ez ditu gueiango lirioric andienac ere ) ; eta iduquico dute atleguin andia-requin JESUS oriec beguina.

CEIN ote dira barren-go gure leoi oriec ?

ORIEC dira oroitzapena , adimentua , ta nai-vida , edo vorondatea.

AL-baz ez dezuzc oroitu behar araguicontuz, edo,

araguiaren lizun-queri-etaraco diran , gogoracioz.

ERA oneraco oroitzapenic ez datorquizon , edo, etortzen ba-dira , guciac arras zuc , eta lembaitlen aienatze-co , adimentuco beguiz zuc beguiratuco diezu cere Jangoico maita-garriaren edertafunari, cere becatu lizunen itxuf-tafunari , ta, cere becatu berei darraizten, fulececo neque arrigarriei; cere neque-becatuac beguitan cinez arturic , asi zaitecen zu natez, ta bihotzez cere Jauna billatzen ; ta , cere Jaun hau zuc cinez maitatzen dezula, erditxi dezazun cere comunione-eran, ta beste cembait aldiz, garbi-garbiro vicitze-co, behar-co dezun , JESUSEn laguntza, ta gracia.

HAU ez da , ez, gure gogo gaifoac, eta loiezco gorputzac nai dutena : baña hau da , hau , gure JESUS garbi--garbi--maita--garriac nai duena : hau da , hau , gure JESUSEn pozezco laguntzac bere alde dituen , gauza ; ta , hau, guri onguen-onguien dagoqui-guna , ta eternidade guci-gucian gu , gure JESUS gurequin dugula, atseguin contentuz beneric iduqui gaiztaquen , gauza.

ETA ez naz ni , gucia gatic ere , artara saiatuco ?

BAI , ta nere lan orretan gucian gure JESUxi atseguin eguitea, beste ondafunic ez-pa-nu ere : bada , ori gucia , ta eun milla-milloi-vider gueiago, ta gueiago ere zor diot nic nete JESUS maita-garriari, ALDArean berac eracusten didan, bere ongui-naia gatic, eta ecin cont-al adina bere beste ontarte gatic ere.

JESUSEc berac lagun diezadala , gucia zucen , ta garbiro beti nic eguiten. Bai arren bai.

#### §. II.

ARROSA--GORRI-EDERRAren eraco virtutea, ta gañeracoac irabazten laguntzen dio JESUEc, ongui comuniatzen den, Animari.

#### I.

**A**NITZ nai dio gure JESUSec, ecusi dugun bezala, liriozco virtutea-requin , edo castidade garbiarequin arquitzen den , animari ; ta gure JESUSEc oni ambat ez nai izatera , ez lizaque vico JESUS gogoz , ta bihotzez, vici den eran, era orretaco animen artean.

BAÑA baldin bere virtute zuri eder orrequin batean, ba-du anima berac , arrosa-gorri--ederraren iduricoa , edo CARIdadea deitzen zaion, gure Jan-

Jangoicoaren amoriozco virtutea, aguitz, eta aguitz maitago du JESUsec anima: virtute hau da alabaña, virtute gucien Erreguñia bezala, ta gañeraco virtute guciac berequin dacartzien, virtutea. Eta orre gatic JESUsec bere poz andia-requin, laguntzen dio, ongui comunitatzen den, animari, amoriozco virtute gorri eder hau irabazten.

ARROfazco virtute eder hau, edo caridadea da gure Jangoico maita-garriari guc ongui nai izatea, ta gure Jangoico bera bihotzez guc cinqui, ta guztiz maitatzea; ta era orretan guc gueren Jangoico bera maitatzea, ceren den, den bezalacoa; edo ceren den ecin-obeo, ecin-onguilleagoa, ecin-andiagoa, ecin-ederragoa, ecin-jaquintsuagoa, ta (hitz bian erran dezagun, erran-al-gucigucia), ceren den ecin-maita-garriagoa; ta guc gueren Jangoico ecin maita garriago hau maitatzea, atseguin andi bat artzen dugula, ceren bere baitan, ta beretzat dituen gure Jangoico guztiz maita-garri onec, izan ditezqueen, gauz on, ta ondafun guci-guciac: eta maitatzea guc gueren Jangoico onen maita-garri hau, gueren buruac ederqui neçatzen ditugula, gu-

re maitatze onec, edo gure Jangoicoaren amoreac eraguiten dituen, nequezco lan-equin.

IZAN ote dezu zuc oramdañocoan amoriozco virtute gorri eder hau? MAITAtu izandu ote dezu zuc cere Jangoico maita-garria, maita-era eder-garbi-zucen onetaz? Eguin izandu ote dituzu zuc orretaraco diran, ta maitatze orretatic datocen, virtutezco cere gauzac?

EGUIN ez-pa-dituzu, ez da izandu, ez, orretan zuri JESUsec ez lagundu naiez; bada guztiz prest-arquitzen da beti gure JESUS maita garria, ongui comunitatzen den, animari, orretan laguntzeco, ta anima berac nai duela, lagunduco dio, nai, ta atseguin andia-requin; nai du alabaña, ta atsegun andia du gure JESUS maita garriac gu ecustean gure Jangoicoaren gauza zucen ederetan.

CER gauz ote dira gure Jangoicoaren maitatze ederrac eraguin oi dituen, nequezco gure gauz oriec? Jangoico berari dagozcanac batzuec; eta gañeracoac lagun-urcoarenac. ECUS ditzagun bein Jangoicoari dagozcanac.

II.

GURE Jangoicoaren mai-



maitatze ederrac elcatzen dituen, ta gure Jangoicoari dagozcan, gauzac dira, Jangoico beraren amoreari amorez erantzutea, ta, Jangoicoaren amore onec elcatzen dituen, gauzac eguitea.

CER gauza ote dira gure Jangoicoaren amore onec elcatzen dituen, gauz oriec?

IGANdean Igandecoac, hastean hastecoac, horduan horduacoac, eta aldian aldicoac.

GUCIac zucen eguiteco, ba-ditu CARIdadeac virtute lagunac; eta virtute bacoitza, bere gauz etaraco, behar bezalacoa. LEMbicoa da fedea, edo sinistea.

EGUIN nai ba-dituzu zuc, zure CARIdadeac, edo cere Jangoicoaren amoreac elcatzen ditue, gauza guciac, gogotan erabili beharco dezu zuc gucienean, edo beintzat ascotan, ta maiz cere Jaun onguille-maitari andia, Ceruco arguirequin ecusteco zuc Jaun onizor diozuna, ta, zor diozunari erantzuteco, eguin beharco dezuna.

.CERE Jaunaren zure gogoratze hau, zure gogoratzoni, darraicon, Ceruco arguiz beste gauzac ecustea, siniste onaren, edo fedearen lanac dira: ta orre gatic Ceru-

co siniste on hau, edo sinisteco virtutea, edo Fedea da CARIdadearen aldetic bein ere, lurrean deño, quentzen ez den, lembico virtute laguna.

FEDE berac, edo Ceruco siniste onec aguertzen du, bertze gauzen artean, CARIdadeac elcatzen dituen, gauzac eguiteco, beharco dugula guc gueren Jaunaren laguntza, ta gracia; baina Jaunac berac emain dizquigula noiz ere-nai oriec humilqui guc, eta, behar den, eran elcatu ezquero.

ALA guertatuco delaco ustea, CARIdadearen bi-garren virtute-lagun-esperantzaren eguitecoa da.

Siniste onen, ta uftearen ondoren datoz bertze eguiteco, ta nequezco lan, CARIdadeac elcatzen dituenac. Orietic dira jai-oroco, ta igande-etaco MEZAC, eta eguin ori-etaco gañeraco gauz onac, aldian aldiazco confessa-comecatzeac, eta etfaiaren tent-al dietan eguin behar diran, gauzac, aldi orietan behar ez den, gauzaric ez eguiteco.

CARIdade berac elcatzen dituen, nequezco gauzetatic dira goiz-etic arratí-erario contuz, ta devotqui vicitzea; ta vicitzea gueren asnogogoracio, ta gañeraco gueren

## dagozten, Oroitz-gaiac.

**ren** gauza guciac gure Jangoico maita-garria gana zucentzen ditugula, ta gure Jangoico beraren Legueac efcatzzen dituen, guci-etatic bat-ere uzten ez dugula.

**HAU** gucia, ta beste anitz gauza ere eguin beharco ditu, bere Jangoicoari diozcan, zorrac ateraco dituenac, edo bere Jangoico bera behar bezala, ta beste gauza guciac, baño, maitetago duenac.

**ETA** ecusten dezu cembat diran, edo guztiz andiac dirala, hau eguiteac berac efcatzzen dituen, nequeac; bada efcatzzen ditu, besteen artean, anitz paciencia, anitz hildura, ta mortificacione; anitz damu, ta urriqui, anitz otoitz, eta devocione.

**ORIEC** eguiten ez dituenac, eguiten ez ditu, bere Jangoico maita-garria ciñez, ta behar bezala, maitatzeco, eguin behar dituen, nequezco lanac: eta, eguiten dituenac ere, eguiten ditu, orretaraco diran, ta **CAR**idadea-requin dabilzcan, virtuteez, ta graciaren efcu-ofiac bezala diran, lagunez valiatzen dela.

**CAR**idadeari, bada, ta caridadearen virtute lagun guciaci beren anditzea, ta indar berriac ematera dator **JESUS**

maita-garria **ALD**Areco bere **SACR**Amentuan comunitatzer dena gana.

**BAI** (dio Concilio Trentocoac): bai, or arquitzen da gure Jangoico virtute gucién emallea: *in Euchariff ipse Sanctitatis auctor... est* (Ieff. 13 cap. 3.); ta orrara dator onaratzzen diran guciaci anditze, ta indar andiac eman natez: ta arkitzen ez-pa-dituzu zuc zu comunitatzen zaran-aldietan, zu prestatu baguez izanen da; ta orregatic zuc cerorrec nai dezula.

**ECU**sten dezu cein andia den gure eraqueria! **GURI** **JESU**sec lagundu nai guri gueren bihotzac apaintzen bere caridade ederrez, ta virtute gucién, soñecoz, ta guc ez na gure **JESU**Sen laguntza, ta virtuteen apaintza!

**EZ** nai guc, ez; bada guc ori nai izatera, naico gu neque, guere naldetic, orretaraco, efcatzzen zaicun, lanac ta neque gucia; edo contuz ta zucén vicitzea, eme-emequi, ta, behar den, era emengo quezcoac, eta guere barreneco nai gabe guciac eramatea; devorqui, ongüi, mugaz, edo garai onez gu gueren gauzac eguitea; ede qui prestatunic, eta maiz, edusu-

ufu-ufu gu comuniatzea ; ta guc gueren gauza bacoitza bere adiuntzan , bere horduan, ta zucen-zucen eguitca.

BAÑA ori da , oñoro beintzat guc bein ere , edo anitz alditan nai izandu ez duguna : ta orre gatic ez dugu guc bitarte orretan ciñez nai izandu arrosaren antzaco , edo aintzuraco virtute gorri eder Caridadea , edo gauza gucien gatic guc gueren Jangoico maitagarria maitatzea : virtute eder hau alabaña neque lan oriē artean arkitzen da, arrof-gorria arantz - artean bezala.

IRAUN behar ote du emendic arziña , orain-dañoconere eraqueriac ?

EZ baldin-bere ! EZ arren , nere JESUS maitagarria! NIC gaur danic artu uste dut, orain-dañocon ez bezala, zure escu-laguntza , ta gracia. NIC gaur danic eguin uste dut ( dena dela), zuc ni gandic nai dezuna: ta ori nic gaur danic zucē eguitera , irabacico ditut nic nere Jangoico-maitagarria cinqui , ta behar den , eran maitatzea , ta nere Jangoicoaren maitatze oni dagoan , virtute-falla. BAI ta guciago , ta guciago ere. ALA guerta dedilla , bai arren, bai.

III.

BAÑA cer ote da guc

gueren Jangoicoa era onetari maitatze onequin , ta maitatze oni dagozan , virtute-equin batean , irabaz dezaqueguna?

ORI da guc elcar maitatzea , JESUsec gu maitatu guinducen eran ; ta ori da guc gueren Jangoicoa ciñez , ta behar den , eran maitatze orretatic guri datorquiguna.

BEREN Jangoicoa ciñez , ta behar bezala maite du-tenac , maite dute , Jangoico bera gatic , eta ceren ala nai duen, gure Jangoico maitatuac , lagun urcoa ere , edo beste edocin , dena dela hau , ta maiz dela maitatzalle beraren etsaia ; bada gu gueren etsaiac ere maitatzera behartuac gaudere gure JESUS maitagarriaren Leguez , ta manuz (*hoc est preceptum meum, ut diligatis invicem... Diligite inimicos vestros*) ; ta bere Jangoicoa maite duenac , eguiten ditu Jangoico beraren manu, Legue, ta aguintze guciac.

GUC, JESUsec gu maitatu gaituen, eran elcar maitatzecco , aguertu beharcco ditugu , videac dacarren aldietan, elcar ganaco ongui naia , ta amoreca.

NOLA ote, cer videz, edo cer eran?

EGUIñaz guc elcarri beguitarte on-garbiac : lagun-  
duz

duz guc elcarri bein beren animaco gauzetan , ta guero lur-reco-etan, orien beharrac , edo premiãc ori gu gaudiãc escatzen duenean.

LAGUNtzen zaio bati bere animaco gauzetan , ater-eraciz bere vide gaitotic hau, an dabillenean , edo an sarturic arkitzen denean. BERari eracutiãz harc horduan jaquin behar dituen gauzac ; eta hari berari eraguiten zaizcala, harc berac bere al-eguinean , eguin beharrac diran , gauzac.

ETA lur-reco gauzetan laguntzen zaio , lagun-urco berari , edo proximoari, ari emanaz , beraren gabeac , edo premiãc escatzen duen , gauza, edo gauzaren irabaz---videã ; emalle onac orre gatic ecusi beharco ba-lu-ere cerbait uts, quezca , ta neque ; bai, ta es-quer gaitoac , eta furrustadac ar gaudiãc artuco dituela, ba-le-qui ere.

BADA ori gucia , ta anitz gueiãgo eguin izandu zuen gure JESUS maita-garriac gure amorioz , ta guri elcar onesten eracutiãnaiez : eraman cituen alabaña gure JESUS maita-garriac , guc gueroc daqui-gun , adiña neque , ta tormen-tu ; ta eraman cituen bere ne-que-tormentu guciãc , guc da-

III

quigun bezain emequi ; ta be-re neque-tormentu gucien buruan eman izandu zuen , gurutze batean iltzez josinic, bere vici gucia, gure gucien , ta gañeraco bere etlaien oneraco.

ERA onetan elcar guc oneste onec neque andiãc dacartzi. ALA da ; baña andiãgoac dira , dacartzien irabaciãc ; bada dacartzi eternidade gucico atseguin-contentuac , eta animaren virtute , ta apañdura ederrac.

ANDIScoteac izana gatic, bada , gure elcar oneste, edo maitatze onen nequeac, neque JESUsec arinduco dizqui-gunac dira , guc gueren comunione-etan JESUñi escatu ezque-ro orretaraco behar den lagun-tza, ta gracia ; bada ba-du gure JESUS maita-garriãc orretaraco , len adiraci ditugun , gauz-eraraco duen, escu ber-bera ; bai ta guri lagundu nai andi bat ere.

ZOAZquio , bada, maizcho ; ta zoaz beti alic on-guena. EGUIzu zuc cere comunione-etan, aldi ori-etaraco zuri ádiraci zaitzuna : ta guel-dituco da zure anima , liriõz, arrosez, ta lor-aldi guciz beteric arkitzen den , baratze baten-eran , virtutez, ta virtutez apañ-dua , ta JESUSen nai , ta amo-re guciez jabetua. ALA guer-

II

ta

ta dedilla , nere JESUS maita-garria : bai arren , bai.

## I.

INFELIX EGO HOMO , QUIS ME liberabit de corpore mortis huius ( Interl. de dominio carnis, in qua mors )? gratia Dei per Iesum Christum Dominum nostrum. Rom. 7.

**N**OR nai arrituric uzteco, alqui den , gauza da , aldi onetan guc San Pablo gaudic icasten duguna ! San Pablo gure Jangoico maita-garriaren Apostolua cen. GRACIAZ beteric arkitzen cen , guizona cen San PABLO. GURE Jangoico guztiz andi emalle onaren icena ta Legue garbia bazter gucietan banatzen hari cen , guizona cen San PABLO , ta orre-taraco JESUsec berac bereci-ricaco guizon andia. IRURgarren Ceruraño igan cen , ta an ango berriz , ta jaquiundez beteric guelditu cen , guizona San PABLO ; ta anitz gauz arrigarri bere Jaunaren icenean eguñicaco , ta egun oro , edo , behar cen aldi gucietan eguiten cituen , guizona cen San PABLO ; ta ala ere ara cer dion, bere barrengo neque , ta araguiaren tentuez mintzo den batrean : GJIZONAREN triste-

urrical-garria ni ! ETA nic nere araguiaren aldetic dacusa-dana ! NORC ni ateraco nau nere aragui onen , atzapar ciquingalgarnetatic , edo onen tentu, tirnicacio , ta naicunde lizunetic ? NORC, ez pa-da nere JESUS maita-garriac bere graciaren laguntza garbia-requin?

ECUSten dezu , cein laguntzalle ona den , gure JESUS maita-garria , araguiaren gogoeta galdu , afimo lizun , ta lan loi galgarriac gal-erazteco?

ECUSten dézu , cein ederqui laguntzen dion gure JESUS maita-garriac edocein animari , beretzat irabazten , lirio zuri ederraren aintzura duen , virture , gorputz-animen garbietzalle , CASTIdadea?

ECUSten dezu , cein ecer-ezac garan gu , guc irabazteco , norbaitec laguntzen ez digula , era orretaco virtute zuri CASTIdadea : bada ez gara gu orretaraco anitz legoaz ere, San PABLO diñacoac; eta San PABLO cen , berac dionaz , virtute ori erdisteco ain ecer-eza , ta indarric baguea?

CER da , bada , guc orain virtute beraren irabazte eder bera gatic eguin dezaqueguna ? CER, baicic San PABLOrena ; edo iguef-eguitea guc, San PABLOren eran , gueren bu-

burua gaudic JESUS onaren on-  
etara: COMUniatu gu alic mai-  
zena, ta aldian, aldian baño,  
humilquiago, ta aguitz obequi;  
ta elcatu guero guc gure JE-  
SUS maita garrari bere lagun-  
tza, ta gracia.

ERO-egua ni, nic hau  
ez eguitera; ta ero-egui, ne-  
re buruaren galgari bururic ba-  
guea!

2.

*QUI HABET MANDATA MEA, ET  
servat ea, ille est, qui diligit me.*

Joan. 24. 21.

**C**ER dela deritzazu zuc gu-  
re animaco arrol-eder,  
amoriozco virtutea, edo guc  
ciñez, eta gauza gucien gañe-  
tic gueren Jangoicoa oneltea,  
ta maitatzea? CER? Gu, gueren  
bihotz beguiac negarrez urtuac  
daduzca-gula, guelditzea?

EZ, ez; bada ori gucia  
eguiten dute, beren Senarra, be-  
ren humea, edo maite duten,  
beste beren gauzaren bat galdu  
ondoan, batere Jauna maite ez  
dutenac ere.

CER bada?

GURE JESUsec diona,  
edo gure Jaunaren Legueco  
gauzetan gu, bat ere utseguin  
bague, zuc ibiltzea; edo guc  
gueren Jaunari zor diogun,  
agur, humillera, ta servitzu  
guacia zuc en eguita.

NORC daqui, cemeac  
otz-bero, quezca, ta naigabe,  
alque-quizun, esquer gaitso, ta  
neque gogor ecarri oi dituen  
gure Legueco eguitero onec!

GUClac guc zuc en  
eguitera, edo eguiten ba-ditu-  
gu, irabacico ditugu, gueren  
Jaunaren maitatze ederra-re-  
quin batean, bertze anitz, eta  
anitz virtute-ere, ta guelditu-  
co da gure Jaunaren beguie-  
tan ongui edertua gure anima.

Zori onecoac, orreta-  
raco behar den, gucia zuc en  
eguiten duten, animac! ZORI  
onecoac, era orretan virtutez  
apainduric arquitzen diranac!

ARQUItuco ote naz ni  
ere orien eran egunen batean?

BELdur naz ezetz, ora-  
in-dañocean baño, contuzago  
ez eguitera nic nere Legueco  
gauzac.

BAÑA ecin eguin di-  
tzaquet nic nere gauza oric  
ongui, contuz, ta behar be-  
zala, nic neronec nai-dudala,  
ta nere JESUS maita-garri-  
aren laguntza-requin batean?

ORI ecin uca diteque.

ONGUI da, bada: eguita  
nai ditut nic guci-guciac, nere  
JESUS maita-garriac nere lan  
onetan niri laguntzen dudala.

BAI nere Jangoico mai-  
tea, bai: BESTeric izain da,  
liz bai,

bai, datocen demboretan. EZ dut nic galduco, ez orain-daño bezala, on-eraco falsoia, ta dembora. NERE neque gucia nai dut nic eramán, zu beti nic maite zaitu-dala, ta nere gauza guciac eguin nai ditut nic zure Legue garbi zucenac escatzen dituen eran. ORI da, bai, zuec orain ni gandic nai dezuna; ta ori bera orain niri dago quidana. INDAzu orain niri zuec cerorrec, orretaraco beharco dudán, zure lagun-tza ta gracia: bai arren, bai.

## 3.

IN HOC COGNOSCENT OMNES,  
*quia discipuli mei estis, si dilec-  
tionem habueritis ad invicem.*  
Joan. 13. 35.

**N**AI dezue zuec, dio gure JESUS maita-garriac; nai dezue, ezagu zaitzaten zuec, zuec ecusten zaituzten, gen-deac? NAI dezue zuec, ezagu dezaten, ecusten zaituzten, guciac, nereac zarazte-la zuec, eta nere Leguecoac, eta nere hume, nic ongui maite ditudanac?

EZ dezue, bada, zuec orre-taraco behar, elcar maitatzea baicic. ZUEN elcar maitatze ori ecusi ezquero, ecus-

ten zaituzten, guciac bertan errain dute, nereac zaraztela zuec, eta nere Leguecoac; bada, nere Leguecoena da, nic zuec maitatu zaituztedan bezala, ta era orretan zuec elcar maitatzea; edo elcar maitatzea zuec, bat ere beguiratu bague, batec besteari eguin diozcatzuen, charqueri-etara, ta jasotzen ez dituzue-la, ceren gain, edo contra aditu dituzuen, hitz dollor-aringaizqui erranac; eta, al dezuten, ona, ceren behar-aldietan elcarri eguiten diozuela; ori da alabaña, nic nere etsai gogor-equin, ta mundu gucia-requin len eguin izandu nuena; ta ori, nic len eguin izandua, jaio nintzanetic ni, nere etsaiac gurutze batean illic utzi ninduten artean.

ECUSTen dezue, ta aditzen, guri gucioi gure JESUS maita-garriac aldi onetan erraten, edo lanez, ta hitzez eracusten diguna?

ONGUI; ta norenac, izan nai ote dezue zuec? Maite dituzue zuec, edo ongui nai diezue zuec ceren Jangoicoaren icenean, ta Ceruco amore garbiz munduco guciei? BAI, ta, beguitan arturic zaduzcaten, ceren auzocoei ere? CHARqueri cembait, eta vi-  
de



kie gabe andiac eguin izandu dizquitutenei? HITZ onic erraten ez dizuten, ceren lenideci, aurrideci, ta lagun-qui-deci? EZ dena asmatu dizuten, ta, billatzen cenuzten, ez-contza, irabaz-vidca, edo cerbait ondafun gal-eraci dizutenei; eta andic, edo emendic nai-gaberen bat, edo beste eman izandu dizutenei ere?

ALA izatera, JESUSEn hume maite on CARIDAde-dun-etatic zarazte zuec, eta beraren Legue garbi-ederre-coac.

BAÑA, ori zuec eguin beharrean, zaputz guelditzen ba-zarazte, nai etzenuzten, hitz bat aditu-horduco; esquer gabez erantzuten ba-diozue zuec, gaizquiren bat eguin

izandu, edo asmatu cizutenei; etzarazte zuec, ceren JESUSEn hume on, maite ori-etatic, ez. ETZARAZte zuec ez, JESUS beraren laguntzaz valia-tzen dirala, virtute ederrac irabazten dituzten, anim-etatic; eta etzarazte zuec, Ceruco videa zucen daramatan, CARIDAde-dun-on-etatic, ez.

UTZAZue, bada zuec, orain ba-dere, gaizqui daramazutena; ta, Ceruco vidade zucenez eguizue, JESUSEn hume onac eguiten-dutena, ta esca zagozue zuec ceren JESUS maita garriari lenago ez eguiñaz, ta len eguiñicaco uts gucien barcamentua, cinez erraten diozutela: NERE JESU-CHRISTO JAUNA, &c.



## LXXVIII OTOITZ-GAIA

JESUSEC ALDARERATZEAN, GURI ONGUI-NAIEZ,  
eguiten duena.

**O**NGUI nai dizula norbaitec zuri errana gatic, ez diozu zuc siñisten, baldin harc, ori eguin dezaquela, laguntzen ez-pa-dizu zuri, videa c dacarreñcan, ta zure pre-

mietan. BAÑA ori harc horduan, ta era bereco beste aldictan zurequin eguitera, bertan siñisten dezu zuc, ongui nai dizula zuri, hitzic harc ez aterea gatic, zuri berac nai,

edo

edo ez naiaren gañean.

HAU onela den ez-  
quero (den bezala), ez dezu  
zuc, gure JESUSen ALDE-  
ratzean, gu gatic JESUsec egui-  
ten dituen, gauz-etara begui-  
ratzea baicic, JESUSen gu ga-  
naco nai andia, ta amore baz-  
terric baguecoa zuc ezagutze-  
co. GOAcen onetaraco, JE-  
SUSen gauz ori-etatic cembait  
ba-dere ecufiera.

#### §. I.

LAUR GAUZ ON ARRIGARri,  
JESUsec, ALDAreratzean, gure  
oneraco eguiten dituenac.

#### I.

DAVIDec bein, ALDA-  
reco SACRAMentuari  
urrutitic beguira cegocala; ARA  
cion, ARA JANARIA, JAN-  
goicoac bere beldurti-entzat,  
eta Anima garbien-daco Eli-  
zan utzia; ARA gure Jaun  
gutziz urtical-tiaren gauz arri-  
garriz, ecufcariz, edo mila-  
groz beteric arquitzen den, ja-  
naria: *memoriam fecit mirabilium  
suorum misericors, & miserator Do-  
minus* (Pl. 110. 4.)

EGUIA den, edo ez,  
DAVIDec aldi onetan diona,  
zuc cerorrec errain didazu,  
harc or adirazten dituen, mi-  
lagro orietatic cembait ecufi  
ondoan.

ETA ecufi zazu lem-  
bico lecuari ALDAreco SA-  
CRAMENTUco JANARI hau  
bera. EZ dute orrelacoric egui-  
ten, ez zure fucaldariac, eta  
barazcal-guiñac.

CER janari dela, de-  
ritzazu zuc, ore zatichoa,  
edo ogui pisca dirudien, AL-  
DAreco gure janari ori?

ORI da, bada, IDU-  
riz ogui-apur mee bitibil bat;  
baña IZATEZ Aita Eternoaren  
Seme-Jangoico, GUIzon egui-  
ña.

APEZAC confagracio-  
co bere hitzac eran-horduco,  
or arquitzen da ALDAreco  
SACRAMentuan, cein ere an-  
dia den, gure JESUS maita-  
garriaren gorputza; ta arqui-  
tzen da, gure amorez berac  
len iffuri zuen, odol gucia be-  
re zañetan daducala.

OR arquitzen da hor-  
du beretic ALDAreco SACRA-  
mentu berean, Jangoico-gui-  
zon JESUS beraren anima; ta  
anima, gure Jaun gutziz al-  
tñuaren escnac eguin izandu  
duten, gauzatic ederrena; ta  
arquitzen da or gure JESUen  
anima eder hau graciaz, vir-  
tutez, ta Ceruco doaez ecin-  
gueiagoraño apaindua.

OR beitan ALDAreco  
SACRAMentuan arquitzen da  
Jan-

Jangoicoaren SEMetafuna , ta or videnabar arquitzen da Semetafun onequin bat den, Jangoico-tafuna ; bai ta, Jangoico-tafuna-requin bat di an , AITAtafuna, ta ESPIRITUtafuna ere; edo ( hitz bitara gucia bil deza-dan ) or ALDAreco SACRAMentuan arquitzen dira, oguiduri , edo aintzur chiqui-pean gure JESUSen gorpuz--odolac, JESUS beraren guizatafuna , ta ta gure Jangoico guci-gucia.

ECUfi dezu zuc , edo ecufi diteque , era onetaco JANArriac , eta onembat indar, ta izate , edo fustancia duen, bocaduric ? MAnea cezaquen gure Jaunari andi hau , gucia dezaquen, gure Jangoico berac baicic ? EZ da ALDAreco gure janari hau guztiz arrigarrizco ECUScariac ? EZ da hau milagro ecin andiagoa ; ta milagro , ez guizonac , eta ez Aingueruac asma cezaquena ?

ALA da, bai : baña ecin jaquin guenezaque guc certaco ore den ogui-idunaren , edo ogui-aintzu-raren , ta Jangoico guizonaren elcar ganatze ari-garrizco, ta janari andi ori?

BAI : Ori da gu-gana gure JESUS etortzeco , ta gure barrenera gure ! JESUS sartzea gatic , emen bertatic guri laguntzera, edo emen bertan gu-

ri ematera , guc gueren etfac garaitzeco , gueren pafsi-one galgariac etcuratzeco , virtute guciac guc irabazteco, gueren Animac guc apaintzeco ; ta videnabar gloria, ta gloria irabazteco , beharco ditugun , beraren escu , graci , ta lagunzta guciac.

ANDIA da , gure JESUS maita garria , ecin uca diteque , cere etor-er onetan, zuc aguertzen dezun , gu ganaco ongui-naia , ta amoreac ! EZ dut orre-tara nic orain-dañoocan , behar bezala beintzat , beguiratu !

BEIN , ta berriz , ta ascotan ere ecufi behar dut oiri nic , eta aldi-oro contuzago, ta hastiroago , zuri orretan nic zor dizudan , cere ni ganaco amorearen anditafuna nola-ere-bait ezagutzeco ; ta zure amore andi oni al dudan , eran erantzuteco.

ZORI onecoa ni , nic hau zucen eguitera ! ETA eguiten ba-dut hau ala nic , nic ecufico ditur , bai beste arri-garrizco ECUScariac , eta zure milagroac ere.

## II.

ALDAreco SACRAMentu bereco bigarren ecufca-

ri arrigarria, edo milagroa da, confagracioco hitzequin, Apezaren elcuetaco oguia gure JESUSen gorputz eguiñic guelditzea, oguitic ogui-aintzura, ta iduria besteric guelditzen ez zaiola.

ORI da, paretac, eta arrimoac erori ondoan, tellatu utfa, ezeti, edo deufa lotu bague, ta niore ez daducala, bere toquian, edo aice gañean guelditzea bezala.

TELLatuaren era onetaco gueldiera hau gure Jangoicoaren milagroa lizaque, bada lan hau Jangoico berac baicic, ecin daguquen, lana da, ta guifa bereco lana da, ta milagro arri-garria oguiaren zuri-rafuna, ta gañeraco ogui-iduri, edo aintzura utfa ALDARECO SACRAMentuan, bat ere ogui cutsuric bague guelditzea.

CERTaco ote da gure Jangoicoac ALDARECO bere SACRAMentu onetan eguiten duen, arri-garrizco bi-garren ECUScari, ta miraculu hau?

ORI da (baldin zuc ezpa-daquizu) guri gueren comunione-etaraco beldur gucia quendu naiez, edo, cer eguiten dagun, ez-paguenequi bezala, ar dezagun guc ahoaren idic-aldi batean gure Jangoico-

guizon-JESUS maita-garri gucia.

ORREtaraco gordezten da gure JESUS gucia ogui-iduri pean, edo ogui apur baten aintzuran, ta sartzen da gure barrenean gure Jangoico-guizon JESUS bera ogui-bocadu baten eran.

ETA, ala ez etortzerara gure Jangoico guizon JESUS maita-garria, nor trebe izain lizaque, comunione batean gure JESUSen aragui-odol, ta gorputz gucia, ta orrequin batean beraren Anima, ta oni dichezcon Jangoico-tafuna, ta Jangoico guci-gucia batetan artzeco?

ECUSTen dezu ecufcari cein andi-eder arri-garia den, gure JESUS maita-garriac bere gordeera onetan eguiten duen, miraculua, edo milagroa! ECUSTen dezu certacoden, gure JESUSen lan berri, JESUSec berac baicic, ecin ceuguiken hau; edo ecusten dezu gure oneraco dela hau gucia, ta JESUSec, gu onduric utzi naiez, edo gu bere virtutez guztiz apainduric iuzteco!

ETA videnabar ecusten dezu zuc, gure JESUSen lan andi onec zu gandic escatzen duen, esquer-aldia, edo viciera. CEIN garbi-ona hau, ta

ccin

cein humil-virtutetua, al-dezun eran zuc erantzun behar ba-diozu, befteri ez-pa-liz ere, aldi onetan JESUsec eguin dizun ecufcari, ta milagro ontartetuari, edo Ceruco ondafunen ecarleari!

ERANTzun izandu ote diozu zuc oni orain-dañocoan, al bezain ongui, behar cen eran, zuc-en-zuc-en, ta guztiz garbiro?

AH nere JESUS maिता-garria! EZ, eta behar cen laurdenaren lardenic ere: ta ornic eguin beharrean, eguin izandu ditut, ni comuniatzen asinintzan, egunetic egungo egun-eraño, zuc cerorrec daquizun, adina gaitaqueri, ta becatu! ORRA cein gualdwaac orain-dañoco nere ibillerac! ORRA cein esquer-gabe-charrac!

### III.

IRURgarren gauz ecufcari, ta JESUSen ALDAREco miraculoa, edo milagroa da, gu comuniatzen garan aldietan gurequin JESUsec eguiten duen, gaitza bat. CER ote?

OGUIAren iduri, edo aintzura utsi-requin gure gorputzari JESUsec ematea, oguiac eman behar ciozcan, indar guciac:bada comunione-co. Copoi

III

andi betean dauden, hosti confagratu guciac batec jana gatic, ez luque janen ogui-apur bat-ere; ez da an alabaina ogu-iric batere, linitiez daquigen, ta ecusi dugun bezala; ta al-ere, gofea quentzeco, ta gorputzac indarrac artzeco, bere-bat lizaque oriec guc jatea, edo jatea guc bertze ambeste ogui zati, edo hosti confagra-tzaque, edo confagratu gabe.

CERTaco ote da gure JESUSen oraingo miraculu, edo gauz arri-gari hau?

GURI JESUsec adirazteco, ez dugula guc cer izutu, ecusia gatic guc, gauz on-etaraco gure ecer-eza, ta gabea: eta videnabar guri adirazteco, gaitz-aldera gueien-gueiena macurturic arquitzen denac, becaturic gueiena eguin oi dituenac, eta norc-nai, ongui, ta maiz comuniatzen dela, izain duela JESUS ona gandic, gaitzeraco bere gof-egarriac iltzeco, ta eguin behar ditue, bere gauz on guciac eguiteco, beharco duen, Ceruco jan-edana, laguntza, ta gracia: bada gure JESUS onarentzat ori, ogu-iric bague, oguiaren lanac eguitea, ta indarrac ematea, bezain lan errazada, ta ori bera da, guc nai dugula, gure JESUsec pozic, eta pozic eguinen duen,

Kk

lana,

lana, ta ecuscaria; ta ori, ta era orretaco gauzac eguitera dator, ALDAreco bere SACRAMentura datorren, aldi-etan gure JESUS maita-garria.

NERE Anima charra, certan zaude, bada, zu, zauden bezala, orrembat cere utfoben-ta becaturen artean? NATUral gaistoa, edo griñ errebelá dezula diozu zuc, eta ecin zucendu dezula gaitzeraco cere macur-era, ta oitura gaistoa.

BACArrić eguin behar ba-cenu zuc cere lan ori gucia, eguia cenioque zuc, ori zuc diozunean: baña zuri cere lan orretan laguntzeco dago, ta zure beguira zure JESUS maita-garria ALDAreco bere SACRAMentuan.

ZUC an JESUS artzera, baldin zuc cere JESUS humilqui,garbi-garbiro, ta behar den, eran artzeq ba-dezu, emain dizu zuri cere JESUsec, bai, cere lan orre-taraco zuc behar-co dezun, guci-gucia; bai ta gueiago, ta gueiago ère; bada, zu artzalle baño, emalle obea da gure JESUS maita-garria, ta eman dezaque gure JESUSmaita garriac, munduco guciac artu ala, ta gueiago, ta gueiago ere.

ETA artzen ez-pa-dezu zuc, zu comuniatu baguez,

izain da, edo ceren etzaran zu comuniatzten, behar bezala. ETA, ala izatera, zure galdu galgarria!

## IV.

## GURE Jangoicoac

ALDAreco bere SACRAMentuan eguiten duen, laurgarren ecuscaria,edo gauz on andi arri-garria da Jangoico-guizon-JESUS egotea, ALDareco hosti chiqui batean ez ecic, hosti bacoitzaren zatiric chiquienean ere. ORRE gatic Apezac erdiratzen duenean MEZAcó hostia, edo comunionecoa, ez da erdiratzen, ez gure JESUS maita-garria; oso-osoñic arquitzen da JESUS maita-garri bera hosti beraren erdi, edo zati bacoitzean; ta, hosti-erdia artzen duenac, artzen du, hosti oso oso bat artzen duenac adiña: hostiaren zati bacoitzean arquitzen da alabaña gure JESUS maita-garria, zure hitza arquitzen den bezala, zu aditzen zaituztenen, beharrietan; ta orre gatic oso-osofo; bada zure ondoan dauden, guciac aditzen dute, zuc hitz-eguiten dezunean, zure hitz gucia; ta, aditzen zaituen, bacoitzac aditzen du zure hitza, hura bera bacarric ba-le-go, bezain ongui, ta osofo; ta zure hitz berbera, ta hitz osofo da, zure aldamenean dagoen, ba-

bacoitzac , eta an arquitzen diran , guciac aditzen dutena.

ERA berean, bada, JESUS berbera da bacoitzac artzen duena bere comunionean , naiz ar dezala karc berac bacarric hosti osoa , naiz laguna-requin, ta erdiratua , edo hosti erdia; JESUS guci-gucia arquitzen da alabaña hosti consagratu gucian ; ta JESUS guzi-gucia hosti beraren zati gucietan.

ORRA , bada , lan bat, gure Jangoico altfu maita garric baicic , ecin daguiquenas; gauz andi bat chiquitza , edo chiqui baten diñaco toquian bilduric uztea , baña gauz andiac bere anditafuna galdu bague; ta gauz andi, era onetan chiquitu, edo bildu bera dembora batean anitz lecutan arquitza, ta bere lecu , ta toqui gucietan oso-ohoro arquitza.

NORbaitec eguin dezaque gauza gutian , edo gai chiquiren bat-equin gauz andi baten aintzuraco gauzaren bat, edo beste ; ta THEODO:O ceritzan , Mañu batec eguin izandu zuen , euli baten ega pean gordetzen cen , brontzezco Carroza bat ; eta Carroza , berari cegozcan , laur Zaldic tiratzen zutena : baña THEODO:O roren Carroza-Zaldiac , eta era bereco beste gauza chiquiac,

chiquiac dira beti , ta aldian toqui labor char bat , baicie betetzen ez dutenac.

GURE JESUS maitagarria da bacar bacarric , den, diñaco Jangoico-guizona dela, hostiaren edocem zatichotan arquitzen dena ; ta , arquitzen dena , hosti bacoitza arquitzen den , toquian , naiz arqui dice-cela hostiac emen, ta INDIE-tan , ta AFRICan ; ta toqui bacoitzean arquitzen da , beste toquitan arquitzen ez-pa-liz, bezain oso-ohoro.

CERTaco hau onela gure JESUS on maita-garria ?

Allago guc arqui dezagun comuniatzeco gueren derecha, ta gure JESUSen laguntza, ta gracia ; ta videnabar JESUSec guri eracusteco gueren humil-vida, edo, non-nai gu, ta nolai egona gatic , content egoteco vida.

NOLA erditu dezaquegu guc , zori oneco gueren vide hau ?

GUC gueren gogoan darabil-guia gure JESUSen ALDARECO egoera , ta guc gueren becatuac gatic iulecean egon beharra.

GAUza oriec biac guc maiz gueren gogoratzer a , edo gogoratzen ba ditugu ; guretzac gure-egunico toquia idu-



rico zaicu gueren etkaien oinpea ere; ta ar-ezquero guc pozic eramain ditugu, orien elcutic datozquigun, nequeac: bada, ori guc eguin ezquero, jaquinen dugu, guciac daramatzigula gure JESUSEn icenean, ta eremidade guciraco Ceruco lecu zabal-eder-andiac irabaztea gatic.

BA-negui, bada, gaurdanic bad-ere nic hau, JESUSEn ALDARECO ego-era onen alde, ta nere ona gatic! BADagaiquet nic, bai, nai izatera, ta nere JESUSEc nirilaguntzen didala; ta niri lagundu naiez da JESUSEn bere SACRAMentuco bilduera, ta gordetze gucia.

## §. II.

SACRAMENTU BERE CO BES-  
te bi gauz andi, ta milagro.

## I.

**A**LDARECO SACRAMentuco bostgarren gauz on arri-garria da, dagoen eran, JESUS or egotea.

NOLA dagoela, uste dezu zuc ALDARECO bere SACRAMentuan gure JESUS maita-garria?

ILL baten eran, ta vicitzaric ez-pa-lu bezala. OR ditu JESUSEc, bai, ALDARECO bere SACRAMentuan be-

re bi beguiac; baña oguiaren iduri-pean daduzca, edo SACRAMentuco. estalquiz gordeac.

OR daduzca bere SACRAMentuan berean bere bi oñac, bai, baña lotuac bezela, ta ez iguitzeco eran. OR daduzca bere bi elcuac, bai, baña gueldiric daduzca biac, eta iguitzen ez dirala.

OR bertan daduca JESUSEc bere mihia ere; baña ez-pa-leduca bezala da; bada ez du or JESUSEc hitzic aterratzen. GAU, ta egun, ta haste gucian egona gatic JESUS (dagoen bezala) ALDARECO bere profondegui guztiz chiquian, edo SAGRARIAN, ifill-ifillitic dago beri, ta afnase bat ere ematen ez duela.

ANDIC ateratzen badute, urbiltzen diranen comunione-etaraco, ez du JESUSEc, an idanqui dutelaco, naigaberice eracusten, ez.

NAIZ onac dirala, ta naiz gaitoac, aldi orietan comuniatzen diranac, guifa berean doa or bere SACRAMentuan gure JESUS maita-garria, edo ifill-ifillitic doa gucien bular-etara, edo bihotz-aldera.

NAIZ dela gau-erdia, naiz goiz otza, naiz arratfa, eriren bati Elizaco gauzac eman hor-

hordua , ez du Apezac , ALDAReratzea , befteric behar , JESUS artu , ta ara eramateco ; eri gaisoaren echeraco da JESUS , Apezac nai duen , edocein hordutan , ta Apezac naiduen eran. EZ dio galdetuco JESUsec APAizari , ez , nora daraman , edo noren gana. DELA ABERatfa eri gaisoa , dela BEHARTfua , dela ERREGuea , dela NECAzaria , dela ZALduna , dela AGOra , dela ZARra , dela GAZtea , edo dela edocein era-racoa , berebat da JESUS maita-garriarendaco ; ta , deus bat erratan ez duela , joain da , bai , gure JESUS maita-garria , Apaiz daramanaren escuetan , comuniatu nai duen , eria gana ; ta eri gaisoa fucarrez errerzen , erdi usteldua , edo iltzeco avian egona gatic , sartuco da JESUS SACRAMentatua eri beraren ahoan , ta estomaca loi carcaifez berean ; ta an bertan egoin da JESUS SACRAMentatua , SACRAMentua bucatu artean , edo oguiaren iduria , ta aintzura galduric guelditu arteraño : ta pozic egoin da an , baldin iltzen dagoena , edo comuniatu den , eri gaisoa JESUS beraren gracion arkitzen ba da.

ORI baño ere , aguitz ,

eta aguitz gueiago da , cembait aldiz gure JESUS maita-garriari emen ALDAREco bere SACRAMentuan aguitzen , edo guertaizen zaiona.

LAPUrreren batzuec ebatfi izandu dituzte cembait aldiz Eliz--etaco SAGRARI-etatic , ango urrea , edo cillarra izan naiez , comunionecco Copac ; eta , beren lapur-eria estali naiez , Copa ber-etan arkitzen cituzten , hosti fantac bera izandu dituzte , batzuec ez-caratz-etan , besteac gorozte-gui-etan , eta besteac edocein zocotan , edo toquitan ; ta aldi orietan gure JESUS maita-garria an egondu da gueldi-gueldia , ta hitzic atera bague , norbaitec jaso artean , edo oguiduria , ta aintzura , edo SACRAMentuco accidente guciac aitu arteraño.

BESTE cembait aldiz eguin dituzte JUDATAR gogorac , eta HEREge gaisoac gauza gaisoagoac ere ALDARECO SACRAMentu bera-requin , ta gure JESUS maita-garria--requin ; bada batzuetan aurtiqui dute oriec gure JESUS SACRAMentatua , fu gañean irakuten cegoen , urera ; besteetan nastu dute garagarra-requin , mandoen zaldale eguiteco ; ta cembait-etan josi dute mai-gañean

cani-

canibetez, edo hurbecan il-  
tzez. ETA ala ere ifsillic egondu  
da, ta hitzic atera bague, gu-  
re JESUS SACRAMentatua.

CER bada? EZ ote da-  
qui gure JESUsec, aldi orietan  
berari guertatzen zaiona?

BAI; ta ederqui al ere:  
ez da alabaña gure JESUSen  
Animaco beguientzat estalqui-  
ric; eta gucia dacufa or JESUS-  
ec, zuc egu-erdian, escuetan da-  
ducazuñ, gauza baño, eder-  
quiago.

NOLA, bada, ez di-  
tu gure JESUS Sacramentatuac  
auti-eguiñac iuzten, orren  
gauz itfusi-arri-garriac berari  
eguiten diozcaten, guiza char  
oric?

GURI ongui naiez, ta  
guri eracustea gatic, gueren al-  
dietan guc ere eguin behar du-  
guna.

NOIZ ote?

NAI ez guenuquen,  
cerbait eguiten diguten-etan.

CER ote da, guc gue-  
ren aldi orietan eguin behar  
duguna.

EZ-pa-liz baño, gucia-  
go ar gatic gu ez afaldatzea, ta  
gure JESUSen icnean guc, egui-  
ten zaicua, vide--gabe gucia  
ifsillichoric artzea.

ORI guri eracusteco,  
ori guri eraguitea gatic, eta,

orrequin irabazten diran, Ce-  
ruco ondafun andiac guri eman  
naiez, da, illarena dirudien, gu-  
re JESUSen ALDAreco egoera.

ECUSten dezu cer ego-  
era gure JESUSen ALDAreco  
egoer on arri-garri hau? BA-  
da ba-du oraindic gueiago  
ere cer ecusi JESUSen emengo  
egoer on eracustle onec.

CER, uste dezu? San  
JOAN EVANGelariac ecusi  
izandu zuen bat?

CER eran, edo nola  
ecusi zuela, deritzazu zuc, San  
JOAN EVANGelariac gure JE-  
SUS ALDAreco bere SACRA-  
mentuan?

BILDots ill baten eran;  
baña zutic: *vici ag um flantem,  
tanquam occisum* (Apoc. 5.6.)

CER erran nai ote du  
era orretaco gure JESUSen zu-  
ticaco egoerac?

ILLAren eran egona ga-  
tic, eguiten zaizcan, charque-  
ri-eraraco, preit dagoela or gu-  
re JESUS maita-garria, ongui  
comuniatzen diñanei laguntze-  
co, beren charquetiac, neque-  
ac, eta nai-gabe guciac eme-  
emequi eramaten: *quasi parv-  
tus javare certantes* (Carthuf. hic).

ECUñ dezu, hau ba-  
ño, egote, ta eguite ederrago-  
ric? EZ?

BADA oraindic ba-da  
beste-

besteric ere JESUSen ALDA-reco SACRAMentuan: ta da feigarren, ta azquenic ecusi behar dugun, JESUSen gauza ecuscaria, edo miraculoa. CER? DEMbora bereco beste egoeria bat.

II.

ALDAreco bere SACRAMentura etorria gatic gure JESUS maita-garria, MEZA ematen den demboran, ez du JESUSec uzten, ez, Ceruco bere toquia. ALDArean dagoen, dembora berean, batetic bestera Apezac daramatenean, ta, comuniatzen diraequin, arkitzen den, demboran, bere Ceruan arkitzen da gure JESUS maita-garria; ta an arkitzen da bere AITA eternoaren escoi aldetic: eta an arkitzen da JESUS maita-garria, bere Sacramentura etortzen ez-paliz, arquituco lizaquen eran.

CER gatic hau onela?

ANDic, eta EMENDic, edo Cerutic, eta emen bertan lurrean ere guri lagundu naiez. CERUtic, an Aitari escatzen diola, guc emen behar dugun, gracia, ahla, ta escua; ta emen, emanaz guri bere escu bera, bere laguntza, ta gracia.

ORREtaraco da, bada, JESUSen an, ta emen batetan

arquitze on arrigarri, edo oratingo milagro hau, ta JESUSen egoera, onen arrigarri-eder ecustecoa.

ECUS ten dezu zuc orain ba-dere, edo ongui-ongui ezagutzen dezu, gure oneraco gure JESUS maita-garriac ALDAreco bere SACRAMentuan eguiten duena.

ECUS ten dezu cemibat gauz on arrigarri, ta cemibat milagro eguiten dituen gure JESUS maita-garriac, comunione bacoitzean gure barrenera etortzea gatic, eta gure Animei alde onetatic eguin naiez, ar dezaqueen, on gucia?

ON onen laurden bat eguiten ba-lizu zuri cere ERREguc, etzenuque eguinen zuc cere bi belaunac lurrean ceneduzcala, ta berac nai bezala, harc zuri manatzen lizuquena? ETA zu gatic zure JESUS ERRE-gueen ERREguc Jangoico-guizon maita-garriac eguinicaco orrembat gauzaren buruan, eguin izandu dezu zuc, zure JESUSec nai zuena, gucia izan arren, errazqui, ta aisa zuc eguin cenezaquena?

AH, nere JESUS maita-garria; ez eta erdien laurdeneran ere! BAÑA, nic gauzac ongui ezagutu baguez, izandu da, orain-dañoco nere

ef-

esquer-gabe-tafun onen gaisto hau ; edo izandu da , ceren ohartzen ez pintzan ni gure oneraco zuc or ALDAreco cere SACRAMentuan eguiten dituzun , gauz on arrigari , ta milagro-etara : eta , oriec nic ezagutu ezquero , orain eza-gutzen ditudan , bezala , nai dut izan zurequico esquerdun ona ; ta eguin nai dut nic , zure laguntza ona-requin batean , zuc nai dezun , ta , niri da-goquidan , vicitza , gaur-gue-ro ongui , ta maiz , ni comuniatzen nazala .

NERE vici-er on hau bertatic artzen afitzeco , orain damuz nazan hau beteric erratera noa : NERE JESU-CHRISTO JAUNA, &c.

## I.

SEMETIPSUM EXINANIUIT, FORMAM servi accipiens , in similitudinem hominum factus. Philip. 2. 7.

**N**ORNAI arritzecoa den , gauza da , gure Jangoico maita-garriaren jaquiun-dea , ta beraren gu ganaco ongui-naia , ta amorea !

ORRA , erraten digu San PABLOc , orra gure Jangoicoac gure oneraco arqituden , videca , ta , eguin duen ,

gauz arrigarria ! GALduac ecusi si guinduen gu gure Jangoicoac gueren becatu loi-ciquin-gal-garriac gatic ; eta gueren becatu--pe liquits izu-garritic gu ateratzeco , cer vide artu zuela , uste dezu zuc , edo cer eguiteco ? JANGOico berac baicic ecin afimatu , ta ez arru cezaquen , bar : IRURtafun andico , edo Trinitateco Jangoico Semea , guizon eguiniac , guizonen artean aguertzea .

OTZAC , beróac , eta eguraldi era guciac eguin izandu cituen , gure Jangoico maita-garriac : eta , oriec eguin izandu cituén , gure Jangoico bera , guizon eguiniac , vicituz cen , ognei-ta amairur urtez , otzac , beroac , eta beste eguraldi-guiro gaistoac , beste edocein guizon bezain galanqui necatzen zutela .

DEMBOR orretan beren ecusi zuen gure Jangoico-guizon onec , beste edocein guizonec ecuti cezaquen , adiña neque , ta lan ; ta , guri gaifoeci , guc jaquin behar dugun , gucia eracuti , ta Cerruraco behar duguna bere Elizan utzi ondoan , ill cen bera gurutze bateco milla nequeren artean .

ORRA certaraño beittu , edo macurtu cen gure  
ona

ona gatic , gure Jangoico andi maita-garria ! ORRA cembat , eta cembat laburtu cen , bazterric ez duen , gure Jangoicoaren IZATE eder-andi-arri-garria : befteren peço guizonaren iduriraño !

BAÑA cein ere andi-arri-garria den , gure Jangoico maita-garriaren horduco beittize , macurtze , ta laburtze hau , aguitz-eta aguitz andi-go da beraren ALDareco beittize , macurtze-biltze-laburtzea ; bada bera guizon eguitcenean , ba-zuen gure Jangoico maita-garriac guizonaren aintzura ba-cen ere ; bai , ta bere guiza-tafuna ere ; baña Aldareco bere SACRAMentu one-tan ez du gure Jangoico-guizon onec , ogui-mee cirtzill-baten aintzura , ta iduri utfa befteric.

HORduan etzuen aguertzen gure JESUSen gorputzac , orain Ceruan aguertzen duen , bere edertafun , ta glori arri-garria , eta horduan JESUSen gorputz berac berez zuena , ta gueroztic aguertzen duen , bere edertafun guci-gucia , ta Jangoico-guizonaren izatea , onra non arkitzen den ALDareco SACRAMentu orretan } ogui aintzuraz , ta accidentez jauntzi estalia , ta ogui-

III

apur bat bai-liz bezala.

NI gatic izan gure JESUS maita-garriaren ALDareco macurtze , biltze , ta laburtze ecin andi-go , ta arri-garri hau , ta ala ere nic ez eniaten gure JESUS maita-garriari , eman oi diozcadanac baño , efquer guciago , ta efquer obeac !

NI gatic izan gure JESUSen emengo humill-era guztizco guciac ; eta al-ere , humiltzen nazan baño , guciago ez humiltzen ni , ALDareco nere JESUS beraren beguietan !

NERE amarez izan gure JESUSen ALDareco lan andi , ta miraculozco biltze guci-guciac ; eta al-ere nic ez maitatzen nere JESUS maita-garria , maitatzen dudan , baño , cerbait obequi , edo obequi-seago !

EZ da hau nornai arri-rzeco den , gauza char itfufibat !

ALA da , bai , nere JESUS maita-garria , ta ala da ! ETA alquez gaur ez daquit nic cer erran zuri , edo cer adiracil !

BARCATu arren , nere JESUS maita-garria , nere orain-dañoco efquer-gabe-tafuna ; ta lagundu arren zue cerorrec niri gaur danic asi , ta ni ill artean , beste guifaz nere gauzac eguiten ! Bai arren , bai .

LI

2

2.

DISCITE A ME ; QUIA MITIS  
sum, & humilis corde. Matth.

II. 29.

**C**ERTaco gorde ote zara zu orrenbat or ALDARECO cere SACRAMentuan , gure JESUS maita-garria? EZ dezu ecusten zUC , zu or orrela ecusten zaituzten , gaitoac , ez dutela caloric eguinen zure Legueaz ez eta zutaz ere? EZ dezu ecusten zUC HEREge gaitoac , eta JUDArar cembaitec zutaz or eguinen dutena ?

LURRECO ERREGUEac , hurcabez , Soldaduz , ezpatez ta sutumbez betetzen dituzte bazterrac , nori-nai , nai dutena eraguiteco ; ta , ala ez izatera , eriotzez , lapurre-riz , gaizquiz , ta becatuz bazterrac beteac leudezque , ta ERREGUEac berac ohoreric bague.

EGUIN daquizun , bada , lurreco gucien aldetic , zuri zor zaitzun , agur andi , ta beguiratze guztiz humill bat ; eta eguin dezaten oriec zure ohoretan , zure icenean , ta beren oneraco , eguin behar duten , gucia , edo berac al dutena , ez dezazula zuc , gure JESUS maita-garria , era orretan gorde cere escua , ce-

re ahala , ta cere izatea.

BAÑA cer ote da , nere JESUS maita-garria , nic nere aldi onetan daraufadan hau? HITZ-eguin ote dut nic , ero bateg bezala , ta zu ezagutzen etzaituenaren eran ?

BAI ; nere JESUS maita-garria , bai ; bada zuc , len artzen ba-cenuen ere Exercituetaco Jaun izugarriaren icen andia , guizon eguin cihan-etic amorezco gure ERREGUE zara zu ; ta amorez , edo onez eraguin nai diguzu , guri , gu gantic zuc nai duzun , gucia ; eta noizbait zuc orain ere gu izutzen ba-gaituzu su-lecea-requin , ta ara dataman , erio gaitoa-requin , izu-vide galgarri ori-etatic gu atera naiez da , ta amoriozco cere vide zuce-nean gu far-eraztea gatic , or guero guri zuc cerorrec eracusteco , cerorrec eguin cenuen vicitza , ta cere humill-era , ta manso-tasuna ; humilqui , ta alaldatu bague artuz guc , eta eramanez , gueroz guri , eguiten zaizquigun , charqueriac , edo guri datozquigun , nequeac , eta nai-gabe guciac , gabiltzan gu zure ondoren , ta , zuc laguntzen diguzula , virtutez virtute , Ceruan guc zu , cere SACRAMenuco estalquiric bague , ta edertasun utfez jaun-tzia



tzia ecusten, ta ecusten eternidade gucian egoteco.

AH nere JESUS maita-garria; eguizu zuc nitaz nai dezuna; ta iguzu guri gucioi, zuc daquizun eran, ta zucen vicitzeco behar den, zure laguntza, ta gracia. Baiarren, bai-

3.

*EGO DISPONO VOBIS... REGnum, ut edatis, & bibatis super mensam meam in regno meo.*  
Luc. 22. 30.

**C**ERUco bere maian darduzca gure JESUS maita-garriac ango Zaldunac (Zaldunac dira ango guciac). EZ da bucatzen, ez, JESUSEn Ceruco maia. AN Certuan baidute, aratzen diranac, artu aladiña, atleguin, ta contentu; eta contentu-atleguin ecin garbiagoac.

CERUcoac bezala, JESUS onarenac dira lurreco guciac ere: guciac gatic illuria da alabaña JESUSEc zuen, odol gucia; ta, guciac ara eramanaiezdago beti ALDareco bere SACRAMentuan; ta guciei etnan naiez beren videraco beharco duten, bere laguntza, ta gracia.

BERE laguntz hau oriei

ematea gatic, eri errumelenac elcartzen ba--dute ALDareco beraren SACRAMentua, naiez esca dezatela beren ofasunan, ta naiez eritasunean, an doa JESUS bere SACRAMentuan ori-etara, orien beren janari izatera: ta, milla lecutatic deitzen ba-diotere dembora ber-berean, dembora berean ara doa JESUS maita-garria, Apezen efcuz, lan berbera ango guciequin eguitera, naiez aberatsac izan oriec, naiez errumefac, eta naiez zarrac izan, naiez gazteac; eta era onetan emen dabillen, dembora berean dago JESUS maita-garria Ceruco bere toquian, an angoac zaitzen bezala, ta an, lurrecoac behar dutena bere Aita maita-garriari efcutzen diola; ta emen lurrean hari da, ongui comuniatzen diranei, ta efcatzē dioten, guciei laguntzen.

LURreco bere lan hau eguitea gatic, ecusten ditu gure JESUS maita-garriac, norc daqui, cembat charqueri, ta comunione gaito: ta, al ere, nai dutenei lagundu naiez, ta ongui vici diranen amoreac gatic, gucia darania JESUSEc ifill-ifsillic, eta hitzic arera bague.

ECUSTen dezu zuc, cein andiac diran, bere gu ganaco ongui-naiac gure JESUfi ALDareco bere SACRAMentuan

Liz era-

eraguiten diozcan, miraculuac, eta gauz on-andi ecuscariac?

ORIEC guc ecusi ondoan, egon ditezque gure bihotzac, dauden bezain otzac, eta JESUS ona ganaco amore bagueac? BURdiñezcoac bide dira ( baldin ala ba-daude ), edo arria baño, aguitz gogorragoac; edo ez daquit cer erran!

NERE becatu gaitsoac

dira, nere JESUS maita-garria; niri nere lan esquer-gabe galdu hau eraguin izandu didatenac! URRA ba-neza nic hau damuz, ta urriquiz, ta almo berriz, amorez guero nic zure amoreari nola-ere-bait erantzuten asteco. ASI nadiu orretaraco al-gucia-requin orain erraten: NERE JESU-CHRISTO JAUNA,  
*Et.*



## LXXIX.OTOITZ-GAIA.

ALDARECO BERE SACRAMENTUAN JESUSeC  
aguertzen digun, ongui-naia.

**H**Itzez ez digu deus guti gure JESUSeC aguertzen ALDARECO bere SACRAMENTUAN; baña SACRAMENTU beraz, ta SACRAMENTUTIC, eta SACRAMENTUAN eguiten duena-requin adirazten digu, andia dela, gu ri digun, ongui-naia, ta amorea. ORI da aldi onetan guc ecusi behar duguna, ecusteco guc, edo ezagutzeco, gure JESUS maita-garriari bere Aldareratzea gatic, Aldareratzen den, eran, ta Aldarean eguiten duena gatic, zor diogun amorea.

§. I.

ALDARECO SACRAMENTU berac aguertzen digu ongui aſqui, andia dela JESUfi guc emen zor diogun, ongui-naia, ta amorea.

I.

**G**URE JESUS maita-garria; ren atseguin contentu-poz andiac dira gurequin emen egotea; baña emen gu-requin egotea, ez nola nai, edo Elizan JESUS, eta gu gueren gauzetan, baicic guraſo on bat bere hume on-equin egon oi den eran; eta, batzuetan bein-

tzat

izat gurafo bera bere humeac equin baño , aguitz gure alderago.

GURAso on bat , eta gurafo onaren eraco beraren humeac , al dutenean, elca-requin daude , elcarri beren barrenac , eta gogoac aguer-tzen diezela , elcarri lagun-tzen diotela , ta elcar maita-tzen dutela.

ETA ori da, beinic-bein gure gurafo on JESUS maita-garriac gurequin eguin nai due-na : nai du alabaña , goazquion gu , bera guc noicean bein , edo lecuca , hafia , ta derecha du-gun , gucietan , Elizan ecufte-ra ; an, hari , guc diogun, mai-tatafuna aguertzera ; ta aguer-tzera guc hari videnabar gue-ren quezcac , eta beharrac ; ef-catzeco guero guc berari , gue-ren quezca, ta behar orieci ongui eramateco , ta bera maitatze-co , beharco dugun , bere la-guntza , ta gracia.

ORI gucia ez-ecic , nai du gu gandic gueiago ere gure JESUS maita-garriac , bada nai du , ar dezagun guc bera , cem-bait aldiz beintzat , eta alic maizena , gueren comunione-tan ; gure bihotzaren aldame-netic guri horduan berac gue-ren gauzac adi-razteco ; an be-rac bere ongui-nai andia gu-

ri aguertze-co , ta bertan guri an berac bere efcua , laguntza, ta gracia guri emateco.

BERE nai bata , ta beste hau aguertzen dizquigu guri gure JESUSec irur eratarac ; ta lembicico lecuca , bera dago-en , bere ALDAreco SACRA-mentuz.

CER guifatan , edo no-la eguiten ote du gure JESUS maita-garriac bere aguer-era hau ?

SACRAMentu hau gu-ri aguertuz , ta , SACRAMen-tu beraz guri adi-raciz , JESUS-ec berac guri eracutsi nai di-guna.

BAÑA cer ote da , AL-DAreco bere SACRAMentu onéz JESUSec guri eracutsi nai diguna?

JESUSec berac gu gatic len eguin izandu zuena , ta emen gure oneraco dacarrea gucia.

CER ote da , gure JE-SUSec len eguin izadua, ta orain or ALDArera berequin dacar-ren , ori gucia ?

ORI da gure JESUS-ec , bera guizon eguin cene-tic ill-arteco bere dembora gucic an gu gatic ecufi zuena , ta bere Palsioneco tormentu gucia ; ta orrequin gucia-requin gure on-eraco JESUSec berac irabacia.

LORI

ORI gucia dacar, bada, gure JESUsec, ALDArera datorren aldi gucietan ; ta ori gucigucia dacar JESUsec gure oneraco.

BAÑA nola adirazten digu guri ori gucia gure JESUsec ALDAreco bere SACRAMentuz ?

ALDAreco SACRAMentu bera guri aguertuz. OHAR zaitez ezperen, ta ecufico dezu.

ATOzea ; MEZA zuç enzutean , ez dezu ecufiten, aguertzen dizula zuri MEZemalleac bein hosti confagratua ; ta , hau utzi , ta guero Caliza ?

ONGUI da, ta cer arquitzen ote da MEZAcO hosti confagratuan ?

OR arquitzen da , daquiztu bezala , gure JESUsec gorpuzta , JESUsec gorpuzari dichezcon ; bere gauz-equin.

ETA MEZAcO confagratio ondoan cer arquitzen ote da MEZA bereco Calizan ?

CALIZ orretan or arquitzen da JESUS beraren odol gucia, odol oni dichezcon, gauza guciequin.

ETA certaco ote da era orretan bein bata , ta bein bestea MEZAcO Apezaren escuz JESUsec guri aguertzea ?

ORI da beinic-bein JE-

SUsec guri adirazi-naiez bere milla, ta milla neque-toimenturen buruan , atera ciotela JESUfi Borrero gogorac , bere zañetan zuen , odol gucia , ta utzi zutela gururze batean odolic bague , ta gure oneraco illori--otza.

ETA , nola orain arquitzen den Calizan JESUsec odol hau, JESUS beraren gorpuz-anim-equin , ta bere Jangoico-tafun gucia-requin ; ta arquitzen den hostian JESUsec gorpuzta bere odola-requin , bere anima-requin , ta bere Jangoico--tafun bera--requin ; edo nola batean , ta bestean arquitzen den viciric , eta bere Ceruan arquitzen den , eran gure JESUS maita-garria , ta orre gatic bere irabaci guciequin , Hostia , ta Caliza aguertzen zaizquigun-etan , adirazten digu gure JESUS maitagarriac , or datorquigula , len berac gu gatic eguin izandu zuenaren berri ona guri ematera , ta horduac berac irabaci zuenetic , behar dugur , gucia guri eman naiez.

ETA orra non bere SACRAMentu beraz aguertzen digun guri gure JESUS maitagarriac bere SACRAMentuan guri digun , ongui nai-andia , ta amore bazterric baguecoa.

II.

II.

HAU berau aguertzen digu guri gure JESUS maitagarriac SACRAMentu beraz beste aldetara ere.

ATOzea : cer gogoratzen zaitzu zuri , JESUSen SACRAMentuco hosti hau ecufren dezun , aldi-etan ? EZ ote zaitzu gogoratzen zuri cer gaiez eguina ote den hosti ori bera ? OTE daquizu cer gaiez ?

GARIZ , bada , edo anitz alez , edo granoz.

BAÑA nola ote , edo cer eran ?

JOTzen da errotan garia , edo arri-tartean lertzen , ta urratzen dira gari aleac , auts , edo irin eguin arteraño . IRAL-quitzen da iriña bahi mee batean , ta quentzen zaio zai gucia . EGUÏten da guero hurarequin irin gucia bat , eta erretzen da bi burdin goriren , edo ongui beroturen artean .

ETA cer gatic artu ote du gure JESUS maitagarriac SACRAMentu andi on-etaraco oguizco hostia , ta ez beste gaiezcoa ?

ORI guc ecuftean , gogora cequigun , gure JESUS maitagarriac gure amorez eraman zuen , neque arri-garria .

QUENDU cioten gure JESUS bere Borrero gogor-

rac bere soñecoa , iriñari iral-uilleac bere zaia bezala .

LERTU bezala zuten JESUS bere Borrero berac ofticoca , ocabilca , ille-tiraca , ta , norc daqui , cembat aldetara . URRATu zuten gure JESUS maitagarria azotez , ta arantzaz Borrero berac ; eta azque- nic gurutze batean burnizco iltzez josten zutela , iutziizandu zuten gure JESUS maitagarria , milla nequeren , ta oñaceren artean errea bezala .

ORI gucia eraman izandu zuen gure amorez gure JESUS maitagarriac ; eta ez du gueroztic galdu gure JESUSec gu ganaco bere amore andi hau .

ETA orra non , horduco bere neque-equin batean , aguertzen digun guri gure JESUSec , Mezaco hosti hau guri aguertzean , hordu hartan izandu cigun , ta gueroztic ere beti digun , amore ecia andiagoa .

ETA MEZA bereco CALIza aguertzean ? GOAcen ecuftera .

CER arquitzen ote da , Calizeco consagracion ezquero , Caliz berean ?

ARAIStian guc adiraci dugun , gucia ; ta beinic-bein gure JESUSen odol garbi-ecin-eder-

ederragoa, ardoaren idurian, edo ardoaren aintzura-requin.

CER gaiez, edo certaz eguiten ote da MEZACO ardoa?

MATS-alez.

BAÑA nola ote?

MATfac oinpean lertuz, ta dolareetaco ardatz-pera ardalariac biltzen dituztela; ta, ardazpe berean ongui-ongui estuturic, duten, eza-tafun gucia matf-ale guciei quentzen diela.

SARTzen dute guero ardalari berac beren cupel-etan, mats-aleac zuten, ezatafuna, ta edar-gaia: egosten da an bere beroa-requin, edar-gai hau; ta guelditzen da, behar bezalaco ardo, ta edari eguiña.

ETA orra gure JESUS maita-garriari guertatuaren itzal, bera diñacoa, edo aintzura, ta imagen zucena.

ERRAZu ezperen: cer izandu cen gure JESUS GETsemanico bere baratzean?

MATS-ale, zure, ta nere oben culpa gogorren oinpean lertu bat bezala; bada ba-daquizu, horduan oriec JESUSi eman-eraci cioten, odollezco icerdia.

ETA cer ote ciran, PILATOSen echecho bost mila,

ta ambat odolezco azot-ucaldi, ta golpe? CER JESUSen buruco arantza zorrotz gogorac? ETA cer, JESUS beraren elcu-oñac gurutze batean joliric iutzi cituzten iltze burdinezcoac?

CER, baicic beste ameste bere Pafsione santaren dolareco ardatz-astun-estutzaile arrigarri? Bada, ecin erran ala estutzeren, ta nequeren artean atera cioten guciac JESUSi, bere zañetan, ta bere bihotzean zuen odol, ta ezatafuna gucia.

NORA cen guero, edo cer eguin ote cen gure JESUSen odol issuri hau?

IFZULI berriz JESUS beraren zañetara, ta bihotz berera. BAI, gure JESUSen zañetan, ta beraren bihotzean ar-quitzen da, andic len gure oneraco-atera cen, gure JESUSen odol gucia, ta an bertan ar-quitzen da, gure amarez iraquiten bezala: ta, ongui comuniatzen garan aldietan, ta gure gure JESUSen gorpatza artzen dagunetan, an datorquigur, lurreco gauza charren, ta araguiaren gure egarri loiac quentzeco, gure JESUS maita-garriaren odola.

ETA ori da, ohartzen dirancei, MEZACO Caliza-requin.

quin JESUsec adirazten dienas bere leneco odol-issurtze-etan izandu zuen, nequea, ta nequea, ta horduco, ta orain or SACRAMentu orretan duen, bere gu ganaco ongui-naia, ta amorea.

**BAÑA** certaco ore dira, JESUSen eriotzaren, ta bere eriotza baño, len JESUsec izandu cituen, neque arri-garrien, ta len, ta guero JESUsec berac duen, gu ganaco ongui nai andiaren orrembat aguertze?

**GURI**, gueren oneraco, JESUS maita-garriac eraguin-naiez, beraren neque-amore oriec adiraztea digutena.

**CER** ote da gure JESUSen bi gauza-era oriec adirazten digutena?

**LEMBICICO** lecuan, damuz, ta urriquiz guc gueren bihotzac betetzea, ceren gure vicitza gaitso, galdua gatic ar-eraci guenerozcan gure JESUS maita-garriari orrembat neque, ta nai gabe, ta odol-issurtze.

**BIGARRENA**, guri beguitan ar-eraztea becatu berri-etaraco vide guciac, eta becatu berri-etaraco gu illen eran uztea.

**IRURGARRENA** eme-emequi guc, eta gure Jangoi-

coaren icencan eramatea gueren eritafinac, barrengo gueren quezcac, gure lagunen charqueriac, eta nondic nai guri etortzen zaizquigun, neque guciac.

**ETA** laur-garrena maiz guc gueren gogoan artzea gure JESUSi guc ALDARECO bere SACRAMentuan zor diogun, ongui-nai-amorea; ta ori guc gueren gogoan maiz artzea, artu-aldi bacoitzean guc amoriozco etquerrac JESUSi emateco, al dugun, gucietan JESUS bera bere ALDAREAN ecuf-tera joateco, eta noizean-bein, ta ez bacan gu guero comuniatzeco.

**ALA** eguin izandu ote dezu zuc orain dañocoan?

**AH** nere JESUS maita-garria! EZ eta ohartu ere ni, zure Caliz-ederrac, eta hosti confagratuac adirazten dituzten, zure neque eriotz, eta amore bazter gabecora!

**CENTZURIC** gabecoguita-cha bat bezala comunitatu izandu naz ni, ta vicitu orain-ñañoco nere demboretan! COMUNITAZERA nindoan ni (artaratzen nintzan, aldietan) certara ninjoan, jaquin izandu ezpa-nu bezala, ta, zu nic, nere JESUS maita-garria, artu ondoan, guelditzen nintzan ni,



ogui zati bat jan izandu ba-nu bezala, ta len bezain otz, eta devocioneric bague.

ECIN guerta citequen, hau baicic; ez nuen alabaña nic ezagutzen ere zure amore andia, ta nic zuri ordez, ta anitz aldetara zor nizuna! BAÑA jaquiñaren gain vicico naz ni gaur-guerocoan, ta beste eran nic nere gauzac eguiten ditudala.

## §. II.

BERE SACRAMENTUTIC JESUsec eguiten duenac aguertzen digu, guztiz andia dela, emen berac guri digun, amoreia.

JANGOICOAREN jaquiundeac (dio SALOMonec *Proy.* 9. 1.) edo Aita eternoaren Semeguizon eguiñac, eguin izandu zuen ECHE berri eder bat, eta fendortu zuen bere eche hau zazpi pillare-requin. EMANCIOZCAN emen bere eche galant fendortu onetan bere Aitari, Aitac berac guciena naicituen OFRENDac.

PRESTATU zuen emen, onara cetocentzat bere Maia: ta, etorri citecen, alqueric batere bague, igorri cituen, edo bidaldu, cetozquen en esque bere NESCAmeac, edo SER-

vitzariac; eta orien ezpañez banatu zuen onaco berri on hau: GENEde gazteric bada, edo aur chiquiric, betoz guztiac nere maira; eta, ez daquitenei, erraten die, jan zazue zuec ere nere oguitic, zuec jan ala, ta ale-arteraño; ta edan zazue, orrequin batean, or nic emanico dezuten, ceren ardoa.

ORRA SALOMonec, edo SALOMonen ezpañez, Espiritu Santuac gaur diona: ta orra gure JESUS maitagarriac ALDARECO bere SACRAMENTUTIC eguiten duena, guri bere bazter bagueco bere amorea, ta ongui naia aguertu naiez; bada Jangoicoaren jaquiundearen, edo gure JESUS maitagarriaren eche berri hau da, JESUsec berac guizon eguiñic ecarri cigun, bere Legue zucen-garbia; ta Legue Elizaz betea.

JESUSEN Legue berri, eche galant, edo Elizonen zazpi pillareac dira gure zazpi SACRAMENTUAC.

AITA eternoari JESUsec emen emanico ofrenda da JESUS bera, Aita bera gatic, eta gure becatuen alde gurutzate batean ill izandua. OGUIar-doequin emen arkitzen den, maia da JESUS beraren gor-  
pu-

putz-odol gucia daducan , AL-  
dareco beraren SACRAMentua.

BARAZcaltzera deiez  
dabilztan , Nescameac dira , co-  
munionera gende onac zucen-  
erazten dituztenac. Eta , baraz-  
caltzera deituac diran , aurrac,  
eta jaquiunde baguecoac dira,  
comuniatzen diran , gende hu-  
mill-tolesturic bagueac.

ETA orra cein andia,  
gure JESUsec orretan aguer-  
tzen digun, bere amorea ?

GOAcen , guc hau  
ecusi dugun baño , obequifea-  
go orain ecustera , ta orre-ta-  
raco bere cembait tolestu JE-  
SUSen ALDARECO SACRA-  
mentu oni quentzera.

GURE JESUS maita-  
garria ALDARECO bere SACRA-  
mentuan dago gau , ta egun,  
ta urte gucian guri ongui ta-  
ongui naiez ; ta or dago , edo  
or arkitzen da JESUS beti be-  
re BIHOtza gure amorez ur-  
tzen daducala.

ERA orretan or dadu-  
ca gure JESUsec bere BIHO-  
tza , bere amorez gu erre-ur-  
tuac utzi naiez , ta , obequi ba-  
ño , obequingo gu ecustea ga-  
tic. ORREtaraco gure barre-  
nera , behar bezalaco comu-  
nioneretan , maiz-maiz sartu  
naiez dago gure JESUS maita-  
garria.

BAÑA hura gu gana  
amoretu bezain , amoretza-  
queac , edo amore bagueac  
izan , gu gucienoc beintzat , gu-  
re JESUS bera ganaco ! ta ez  
gu comuniatzen ere , ez-pa-da  
bacanca , edo berandutic be-  
randura ; ta horduan ere , gu-  
re Jangoicoac daquien bezala!

ORRE gatic , berande-  
tsuric bezala , gure naguitafu-  
naz JESUsec , edo , ecin buru-  
tuz bezala , bere gu ganaco  
amore bazter baguecoa-requin,  
igortzen dizquigu comuniora-  
co deitzalle onac ; batzuetan be-  
re Predicariac , beste-etan gu-  
re Confessariac , alcotan libru-  
ac , cembait aldiz gueren gu-  
rafoac , gueren echecoac , edo  
ongui nai diguten , beste cem-  
bait ; eta , gueren barren-  
etara maiz asqui sartzen zaiz-  
quigun , gogarguiac , eta bi-  
horzen uquierac.

DEITZALLE on ori-etatic  
bacoitzac eguiten du bere al-  
detic al-eguiña , guri adiraztea  
gatic JESUS ona ganaco gure  
esquer-gabetafuna ; bai ta maiz  
comuniari baguez (maiz co-  
muniatzen ez-pa gara)guc gue-  
rocizan oi dugun , Cerucogofe-  
a , ta graci-beharrac ; ta gue-  
ro gose-behar onec ar-erazten  
dugun , becatu-raco vide loi ci-  
quin galgarria ere.

Mm2

ETA

*Jesusen amore-nequeei*

ETA, maiz comuniatua gatic gu, gu arkitzen bagara guero, gutitan, edo bacan, ta gaizqui comuniatzen diranac, bezain gofeti, ta egartfu, edo comuniatzen ez diranac, bezain Ceruco graciric bague, ta becatuz loituac, vide beraz aguertzen digu JESUsec guri, nondic datorren horduco gure beharra, ta gabea: edo aguertzen digu, ori gucia datorquigula guri gueren arrotasun, ta antuste galgarritic, edo guc ez ongui ecustetic, gueren aurqueria, ta ecer-eza, gauz onac guc eguiteco; ta gueren becatu gal-garrien, ta gure araguia- ren atleguin lizunen erreca- co, ta olin arri-garriraco gure macur-era, ta limur-tafuna; bada gauza bata, ta bestea ongui-ongui guc, ezagutzera, guc gueroz billatuco genuque gueren laguntzallea, ta billatuco guenuque guc hau humill-humilqui, ta behar den eran: edo, ori gucia guc ongui eza- gutzera, joain guinaque gu maiz maiz, ta, becaturaco bel- durrez bereac, gueren comu- nionera: aguertuco guenioz- que guc gueren JESUii gueren beharrac, ta premi guciac; eta elcatuco guenioque guero guc gure Jangoico maita-garriari bere laguntza, ta gracia; ta

ibillico guinaque gueroz gucia- go gueren Legueco vitez, ta becaturaco vide galgarrien igue- ta ignefi.

HAU gucia guri era- guin naiez da ALDARECO or- rembat JESUSEn egote. HAU gucia guri eraguin-naiez dira JESUSEn ambat mandatari, ta comunioraco deitzalle on. ETA ez du JESUsec bere lan hau urzico, ez, mundua bucatu ateco demboran, edo ALDA- reco bere SACRAMENTUAN ar- quitzen den, dembora gucian.

ECUSTEN dezu, cer amorea, gure JESUS maita- garriac guri bere lan eder on- tan ALDAREtic eracusten, edo aguertzen diguna?

EZ du JESUS maitagar- riac, ez zuc cerorrec daqui- zun bezala, gure beharriac bat ere; eta gure behar-behar ba- liz ere, ecin leguique, egui- ten duena baño, guciago gu- re oneraco.

EFA ez da hau gure JESUsec guri ALDARECO bere SACRAMENTU orretan aguer- tzea, ecin-andiagoa dela, guri digun, bere amorea?

ETA nolacoa ote da JESUS maite bera ganaco gure amorea?

GUtatic anitzena bein- tzat, ecin-laburragoa, ecin otza- goa

goa, edo bat ere ez: bada ala ez izatera, nola guenbilzque gu, gabiltzan, bezain esquer-gabeac gure JESUS ona-requico, edo nola guenbilzque gu, gabiltzan eran, ta gueren comunionetic, eta JESUSen ALDARECO SACRAMentutic iguesca, ta iguesca? EDO nola urbil guindezque gu, urbiltzen garan, bezain ciquin-otzac, edo epelac gure JESUSen ALDARECO maira, comunionera, edo Elizan guc gure JESUS ecustera?

ECUS ten dezu? EGUI-zu, bada, gaur-danic ba-da ere JESUSec bere ALDAREtic eracusten dizun, amore bazterric bagueac escatzen dizuna.

s. III.

ALDARECO BERE SACRAMentuan JESUSec eguiten duenac aguerzen digu, guztiz andia dela, berac guri digun, amore ondafunduna.

ALDARECO bere SACRAMentuan JESUSec guri agueritu digun, eran aguertzea, ta SACRAMentu ber-etic eguiten dituen, gauzac eguita, guri gure JESUSec aguertzea da, or guri berac digun, bere ongui-naia, ta amore andia.

BERE gu ganaco on-

gui nai emore hau bera, alde onetatic bezain ongui(eta aguitz obequi) aguerzen digu-guri gure JESUS maita-garniac beste alde batetic, eta beste videz ere. JESUSen beste vide hau gure barren bereco videc da; ta vide, JESUSec bere aguer-era orretaraco, gu ongui comuniatzen garan, aldietan artu oi duena.

GU ongui comuniatzen garan, aldietan eguiten du gurequin gure JESUS maita-garniac, len ez bezala, gu ganaco bere amore andiaren agueritze on hau, eguiten du orretaraco, ardi errebelatuen, edo galduric cebiltzan, ardien ondoren necaturic ibilli den, Arzai onac, noizbait oriec arquitu, ta salitic atera ondoan, ardi-ber-equin eguin oi duena.

ARTZai onac erabilli oi ditu, nequez bildu-ricaco, bere ardiac eme-emequicho, ta bat ere afaldatu bague. ERAMaten ditu bein alde ba-tera, ta bein bestera; ta aldi oro eramaten ditu eraman behar diran, toquira.

BERE ardi-equin dabilen, aldi guci-etan berequin du beti Arzai onac bere zacur sangaria, edo sangacaria.

OTE daquizu zuc certaraco?

OTSO

OTSO gaisfoac aienatzeco , ta orien ortz odoltietatic bere ardiac gordetzeco.

GOIzeco intzac , eguraldi gaisfoac,edo neguco otzac gaitzic eguin ez dezoten , ez ditu Artzai onac bere ardiac Echetic , Bordatic , eta beren corral-etic bere horduraño ateratzen. ETA , eguraldi onadenean ere , beroac cerbait efitutzen ari horduco , eramten ditu Artzai onac beren itzalpera.

ARTzai onac ez ditu fartzen bein ere belar gaisfoetan bere ardiac. UDan belar batzuetan erabilli oi ditu Artzai onac bere ardiac , eta neguan besteetan ; ta aldiñ aldiartaraco obeac dirala , deritzan , belar-etan.

ELBARritzen ba zaio bere ardi-etatic bat , lotzen dit bertan , berac daquien bezala ; ta ala ere ecin ibilli ba-da berez , edo bere oñez , artendu Artzai onac bere lepoan , ta ala darama bere toquiru. ORRA lurreco Artzai onarena.

ETA orra JESUsec bere ardi on-eguin , edo , ongui comunitatzen diran , bere Anime equin eguin oi duenaren itzala , aintzura , edo imagina.

BEREquin dutenean beren JESUS maita-garria , devot-

qui comunitatzen diran , animae baldin oriecaldi orietan ba-dau-de , JESUSen barreneco hitzmeac aditzen dituztela , adirazten die beren JESUS maita-garriac , leneco beren ibillera char galduen itzul-tafuna ; ta adirazten die beren becatuen fasi galgarritic ateratzea-requin eguin izandu dien , ontarte andi , ta favore guztiz ecustecoa.

HAU oriei adirazte berean , aguertzen die gure JESUS maita-garriac , cein andia den , ta cein bazter-baguecoa , JESUsec berac bere bihotzean daducan , oriequico ongui naria , ta amore garbi ondafunduna ; bai , ta cembat-eraino behartuac arquitzen diran ere , alic onguien-onguiena beren amorez amore oni berac erantzutera.

ETA horduan ongui comunitatua gatic , arquitzen bada anima oriecal , leneco beren becatuac gatic , eibarri bezala , ematen die videnabar gure JESUS maita-garriac , ongui sendatzeco , beharco dutena , ta orrequin batean aintz gracia , indar , ta laguntza.

OREmbat adirazte garbi , senda-gai sendor , ta ondafun Ceruco ematen dien dembora berean , ematen die JESUS maita-garriac ongui co-

mu-

inuniatzen diran, anima berei beren-poz atlequin-aldi, ta ongui ongui vici-nai andi bat ere; *omnis saporis suavitatem* (sap. 16. 20.); ta, ala vicitzeco, eracufiten die JESUsec anime berei cer belar utzi, ta cer artu, edo nondic igues eguin, ta cer gauzac eguin.

ERA orretaco comunioneac eguiten dituzten, animac, JESUsec noiz bait utzia gatic, edo anima berac, beren comunionea bucatu ondoan, ez dira, ez bacarric guelditzen; guelditzen dira beren Aingueru zaitzalle ona-requin; ta guelditzen dira, JESUSen BI-hotzeco amore zoragarria, ta JESUSen etor-aldi hartan berac icala, ta artu dutena gogoaren ondoraño sarturic guelditzen zaiela: *memoriam abundantiae suavitatis eructabant*: Eta orrequin aisa daramazte gueroCO demboretan beren neque, quez-ca, ta nai-gabe guciac; eguiten dituzte zucen, ongui, ta behar den bezala, beren gauza guciac; eta hordu beretic prestatzen dira urrengo beren comunionean ondafun berriac beren JESUS ona gandic artzeCO; ta, horduan, ta guero artzen dutena-requin doaz virtutez vitzute, ta Ceruraco irabaciac irabacien gain eguiten dituztela.

ECUgi zazu orain zuc, andia den, edo ez gure JESUS maita-garriac, ongui comuniatzen diranei aguertzen dien amoreac; ta ori oniei aguertzean eguiten dien ontarte ondafunduna?

EZ dizu nosqui oraindañocoan zuri aguertu izandu JESUS maita-garriac, orrembat ondafun ecarri dizquitzun, bere amorearen berri andiric?

CER gatic ote? NOLA izain oi cen zure comuniatzea? NOLACoa, comuniatu ondaco JESUsequin zure ego-tea? ETA nolacoa, gueroCO zure ibillera?

OTZ-otzá, ta araguiaren, edo lurreco ezatafinez cere barrena zuc beteric ceneducala eguin izandua? JESUS maita-garria-requin ez-pa-cunden bezala, egoten ote cihan cu cere comunione ondoan? COMUniatu ondoan lembaitlen Elizatic igues-eguiten ote cenuen zuc; eta igues-eguiten ote cenuen zuc, gogotic utziric cere JESUS maita-garria, ta gueroz gueiago JESUS ez ez oroitzeco?

CER nai cenuen, bada, guerta cequizun zuri cere comunione-etan? VICI zaitez con-tuz, ta behar den bezala zu, datozen, demboretan. ZOAZ behar

har den, eran, ta maiz-maiz comuniatzera zu, ta besteric izain da dembor orietan.

ETA orain esca zazu, orretan lenago ez afiaz, ta beste cere becatu gucien barcamentua, ciñez erraten dezula: NERE JESU CHISTO VAUNA, &c.

1.

SENTITE IN VOBIS, QUOD IN Christo Jesu. Philip. 2.

**G**UIZON bate gatic beste batec daraman, nequeac adirazten omen du, guizon onec hari nai diona. ANDIA da beraz, ta ecin andiagoa gure JESUS maita-garriari zor diogun ongüi naia, ta amoreac bada andiac izandu ciran, ta ecin andiagoc gure JESUsec gu gatic eraman cituen, neque-termentuac, edo bere barreneco nai-gabeac, eta gorputzeco ofiaceac.

JESUS maita-garriaren barreneco neque arri-garriac aü izandu ciran JESUS beraren vicitza-requin, ta etziran bucatu beraren erioz-eraño : ta guziac izandu ciran beti guztiz andiac, eta batzueran beintzat ecin-andiagoc, eta odolzeco icerditan guelditzen ciranac.

**G**Ure JESUSen gorputzeco nequeac izandu ciran,

JESUsec berac barrendic izain du cituen, neque beren eracoac; eta orre gatic aguitz izugariac. **O**ROI zaitez ezperen arantzez, azot-ucaldiz, ta iltze gogorrez bere erlaiac JESUS maita-garriari bere gorputzean, eman ciozcatenez.

**E**Z dezu ecusten cein andiac, cein arri-garriac, eta cein pareric baguecoac?

**O**RIEC diranac, bada, ta bere barrendic JESUsec izain du cituen, neca-guiro gogor guciac dira, JESUsec berac **ALD**Areco bere **SACRAM**entuz, edo ogui-ardoac eraman oi dituzten, lertzez, ta urratzez, erretzez, ta egostez adirazten dizquigun, neque--tormentuac!

ETA hau dela (den bezala) gure JESUsec zuri agueitzen dizun, vide Cerniracoa, cer ote da, gaur-guero zue eguin nite dezuna? **CERE** gogo galduac ematen dizun, betteren bat artu, ta aisa vici? **CER**? eta era orretan igan nai dezu zue gure JESUSen Erresumara?

**E**RAqueria! **AN**, JESUSen erroiuan sartzen ez da, JESUSen vitez ez dabillen, andi-chiquiric. **A**RAco ba-zara zu, eraman beharce dituzu zue cere quezcac, cere nai-gabeac, eta cere



cere neque moduac; era eraman beharco dituzu, bere neque-ronmentuac, JESUsec eraman izandu cituen eran, edo gure Jangoico maita-garriaren ice-nean eme-emequicho, ta behar bezala.

ORI da gure JESUS maita-garriac zuri adiraci nai dizuna, beraren ALDARECO SACRAMENTURA zuc beguiratzen dezun, aldi gucietan.

ADitzen dezu? EGUIN izandu dezu zuc orain-daño-co demboran, orain zuri adiraci zaitzuna? EZ? ETZ. Ara beraz zu gure JESUSen hime on-etatic. ETZ. Ara berez zu Ceruraco dauden, anima garbi bereci-etatic.

EZ segurqui, ez, beste videric zuc gaur danic, edo garai onèz ez artzera. ARTU zazu, bada, zuc hau lembait-len; ta artu zazu gure JESUS-ec len artu izandu zuen, eran, argatic zuc cembait neque artuco ba-dezu ere. CERbait zu orretan necatzen ba-zara ere, etzara necatuco, ez, gure JESUS adifia. ETA, necatuco zaran baño, gueiago, ta gueiago necatuco ba-zifiaque ere, bucatuco dira laster zure neque guciac, JESUS maita-garriarenac len bucatu ciran bezala; ta ez dira bucatuco secular zu-

III

re atieguin gloriac.

SAIA zaitex, bada, JESUSen ondoren, ta haren eran ibiltzera; bai arren, bai.

2.

RELINQUITE INFANTIAM, ET vivite, & ambulate per vias prudentia. Prov. 9.6.

CERTaco da gaur orrembat aurqueri (erraten digu gungure JESUS maita-garriac ALDARECO bere SACRAMENTUTIC)? Edo certaco da gauz char galgari cembaiten ondoren, on-andiac, alde bat utzitic, zuc zabilzten, eran ibiltzea.

ANTUste galtoz beteric arquitzen zarazte zuc alpaldi gucian, ta aice utfa da, dembor orretan gucian zuen janaria, ta zuen edari gucias; aice utfa da alabaña, zuc billatzen dezuten, emengo lecua, emengo efua, ta emengo manu gucia; ta manu elcu-lecu orren billan zarabilzte zuc ceren arrotafunac, era aicezco antuifeac.

ORREIacoric ez denean zuen buruetan, aragui eiquifnac zaramazte zuc ceren efutic bezala, efutic aur bat eraman oi den, eran; ta zaramazte loiez loi, quezcoz quezca, ta nai-gabez nai-gabe; bada orretan guelditzen dira, ez beste

Nn

to-

toquitan, araguiaren poz-atfe-  
guin loi lizunac, eta ibillera  
macur-lorla-garriac.

ERA orretan zuec za-  
biltzanean, ateratzen zaizqui-  
tzue ceren vide-etara, mundu  
eroa, ta mundaco lagun cen-  
tzu baguac, edo gaizqui da-  
biltzanac: eta aguertzen diz-  
quitzue beren legue, ta vide  
gaistoc, vide ber-etan zuec  
lar-etaci nitez; ta sartzen ere  
zarazte zuec, orien beren la-  
gun eroac izatera.

NOIZ artean, bada,  
zuec era orretan ibilli behar-  
rac ote zarazte, dio gure JE-  
SUS maita-garriac, edo noiz  
artean idu juico nazue, ni zuec,  
nagoen eran, emen nere SA-  
CRAMENTUAN zuen beguira?

UTZA zue zuec; utza-  
zue (ta bertatic ala ere) ceren  
aurqueri ero eguia. IGUES egui-  
zue zuec ceren lagun gaistoen  
artetic. EGUlozue zuec ez ecu-  
fi mundu galgariari, edo mun-  
duco gaistoc eracusten dizu-  
tenari. BEGUIra zagozue zuec  
ceren lurrezco izateari, ta ce-  
ren laster, ta fite ill beharrari.  
ETA ez da zuec cer eman, ez,  
ceren araguiari atsegun debe-  
caturic, joan nai ez-pa-dezue  
zuec betico fulecera, an quis-  
quiltzen, erretzen, ta lertzen

zuec eternidade guci-gucian  
egotera.

UTZI zatzue, bada, zuec,  
dio gure JESUS maita-garriac,  
ceren aurqueri oniec. ATOzte  
zuec onara ni gana. ATOZ-  
te zuec ni emen ALDAREAN ne-  
re SACRAMENTU onetan ecu-  
tera, ta ceren comunione on-  
etan ni artzera.

ORI gucia zuec zucen  
eguitera, nie emain dizuet zuei  
emen, vici-era garbi on bana  
zuec eguiteco, beharco dezute-  
na; ta guero feculaco gloria.

EZ dezue zuec ala ere  
ni gana nai?

BAI gure JESUS maitea,  
bai; ta pozic ala ere! ta zori  
gaitoan ibilli gara gu orain-da-  
ñoocan ere zure iguefi, ta gue-  
ren aurqueri eroetan! BUCA-  
tu dira guretzat, bai, oriec ez-  
ecic, era berecoac, eta beste  
guciac ere. Bai, gure JESUS mai-  
ta-garria, bai, fendorqui zuc, eta-  
beti guri laguntzen diguzula.  
EGUIzu, bada; bai arren, bai.

3.

*IMPLEBIT SPLENDORIBUS ANI-  
mam tuam... & eris quasi hor-  
tus irriguus, & sicut fons aqua-  
rum, cuius non deficient aqua.*  
Isai, 58. 11.

**A**NDIA da, bai fegurqui,  
gure JESUS maita-garria-

ri zor diogun , ontate-favora ,  
ceren ALDARECO bere SACRZ-  
mentua guri agueratz , adi-  
razten dizquigun guri bere ne-  
que-penac , eta bere BIHOTze-  
co nai-gabe , ta amore andiac.  
ANDIA da, bai fegurqui JESUS  
berari guc zor diogun , ontar-  
tea ceren beren SACRAMentu  
beretic , berez batzuetan , ta  
beste anitz aldiz anitz aldetara  
deiez dago quigun , an bera guc  
artzen duguncan ongui animac  
onguien gain guri eguin naiez:  
baña aguitz , eta aguitz andiagoa  
da an bertan guc JESUti zor dio-  
guna ; an alabaña bere eman  
naiac agueru ez-ecic , emate  
berac ere eguiten dizquigu ; ta  
emate , guc artzalle guero ar-  
tu al adiñacoac .

ARA, dio ISAIASPro-  
fetac ; ara gure JESUsec , on-  
gui comantatzen diranei , egui-  
ten dieña : betetzen diezte Ce-  
ruco bere arguiz , ta edertali-  
nez beren animac . ANIMA era  
orretan JESUsec beteac ba-du-  
te , ERREGueren lorezco ba-  
ratz ederrac ur adiña , Cera-  
cograci , ondafun , ta doai ; ta  
orien doai-ondafun-graciac di-  
ra , izan dezaten animac beren  
virtuteac , behar duten , eza-  
tasuna , ta aci-vida ; bada be-  
requin dute izatez beren comu-  
nionean ; ta guero naiez , ta

laguntzez beren JESUS maita-  
garia ; ta JESUS maita-garia  
da , aitzen ez den iturria , edo ,  
eternidade gucian irauñ behar  
duen , graciaren emallea .

GURE JESUS ona ; ta  
zure maita-garia ! CEKI da-  
gocala , guri zuc onembat on-  
tarte , onembat andafun , ta la-  
guntza ? CER eguin dugu guc  
bein ere zure alde , zu onela  
gure ondoren ibiltzeco ? ZUC  
cere gana gu , onembat alde-  
tara deitzeco ; ta , cerequin zuc  
gaduzcatzuncan , zuc guri-  
onembat beguitarte on egui-  
teco ?

EZAgun da , bai , baz-  
terric baguecoa dela , zure bi-  
hotzac guri digun , ongui-naia,  
ta amorea ; bada , ez dezu zuc  
gure beharren pitlic ere ; gu gan-  
dic artu dauzu zuc , ez daqui-  
gu , cembat laburratun , ta  
charqueri : ta , gurequin egui-  
ten dezuna zuc , zure on-tatu-  
netic , eta zure bihotzeco amo-  
re bazterric baguecotic dator-  
quigun , ontartea da .

Alnguere guciac zu ,  
ta Ceru-lurrac bedecia zaitza-  
tela , gure JESUS maita-garia,  
guri zuc eguiten diguzun , ona  
gatic , eta ALDARE orretan  
eracusten diguzun cere amorea  
gatic . ETA , nola ere-bait oni  
guc erantzuten affeco , iguzu

**z**aic, orain-dañoco gure char- cere gracia ere, orain guc ci-  
 queri gucien damu andi bat, ñez errateco : **NERE JESU**,  
 eta urriqui bortitza ; bai ta, **CHRISTO JAUNA**, &c.



## LXXX.OTOITZ-GAIA.

**CER GATIC EZ DUTEN ANITZEC ATERATZEN**  
 beren comunione-etatic, atera lezaquenaren  
 laurdenic ere ?

**L**ENAgoco otoitz--gaitan  
 ecusi dugu guc , certara  
 datorquigun guri gueren co-  
 munioean gure JESUS maita-  
 garria ; edo ecusi dugu , JE-  
 SUS datorquigula , SULceco-  
 ac gu gandic aienatzera , Mun-  
 duco arqueri eroac beguitan  
 guri ar-eraztera , ARAguiaren  
 naicunde loiac utz--eraztera,  
 gueren AZTUra gaitoac ur-  
 ratzen , ta gueren PASsione  
 galgarriac escuratzen guri la-  
 gantzera ; ta JESUS datorqui-  
 gula , gure adimentu , ta NAI-  
 vide , edo vorondate elbarriac  
 fendatuac , eta fendortuac gu-  
 ri uztera ; ta gu gueroc uzte-  
 ra , GRACiaz , VIRtutez , ta  
 Cerniraco IRABaci ederrez be-  
 teac ; eta dembora berean, poz-  
 atseguin andiequin gu gueroc  
 uztera.

**BAÑA** artzen ote dute

hai gucia , comuniatzen di-  
 ran, guciac?

**EZ** nosqui, ta laurde-  
 nac ere , oforo beintzat , eta  
 behar bezala.

**CER** gatic ote?

**ORI** da guc gaurco  
 gueren otoitzean hasi-ro , con-  
 tutuz , ta ongui-ongui ecusi be-  
 har duguna , orrembat onda-  
 sun gal--erazten dizquiguten,  
 gauzac gueren baitatic lembait-  
 len guc aienatzeco.

### §. I.

**BACAN** COMUNIATZEN **DI**  
 ranac , galdu oi dituzte comu-  
 nioneco ondasun guciac , edo  
 beintzat anitz.

**A**TOZte ni gana (dio gu-  
 re JESUSec ALDAre-  
 co bere SACramentutic *Math.*  
 11. 28.) ; **ATOZTE** , neque-  
 tan zabilzten, ta carga pean ar-  
 qui-

quitzen zarazten, gucioc; eta nic emain dizuet zuei comunione oneco ceren bocaduaz; ta nere bocadu orrequin zuec artuco dezue, ceren lanean zuec, edo ceren videan irauteco, beharco dezuten, indarra, ta laguntza.

CEIN ote dira gure JESUSec billatzen dituen, zori oneco languille, ta vidari oriec?

ADIN-etara diran, bataiatu guciac.

CER neque ote dira, languille, ta vidari oriec dituzten, nequeac?

SULEcecoen aldetic, LURrecoen aldetic; eta beren GORputzen aldetic etorri oi zaiztenac batzuec, eta besteac beren Oltura gaisfoen, ta PASione afaldatuen aldetic izan oi dituztenac; eta, guciac dira, alcar artzen durenean beintzar, guztiz izu-garriac.

NECatzen du fulececoac bataiatu gaisfoa, andic, edo emendic, eta, berac daquien, eran eguin oi diozcan, bere tent-aldi equin.

SULEecco amurratua-ren tenta-erac dira tusturaz bata; ta itañez, ta fuz, edo naicunde macurrez bestea betteric uztea. BATA, ta bestea aguitz necatzen dira, fulececoaren tenta-er oriec bere gan-

dic quendu naiez dabillen demboran.

ETA, fulececoaren tenta-erac guti bai-lira bezala, tentatzen dute bataiatu bera lur-reco gaisfoac ere: tentatzen dute bere lagunac, eta arrotz galgarriac; eta tentatzen dute orri oriec, batzuetan beren erriert-equin, ta beren hitz videgabeco-equin; ta beste--etan guezurrezco almacio-equin, edo cembait beste charqueri-requin: ta hau gucia eme-emequi, ta gure Jangoicoaren icenean bataiatu berac eramane beharra, neque andizco eguitemo gogorra da.

BESTE tentatzalleric ez dueneau ere, berequin du bataiatu gaisfoac bere burua, edo bere araguaia.

BATAiatu beraren aragui hau aguitz macurtua dago beti atsegin char galgarrien loi-etara; ta, ara ez dedin bataiatu gucia, bere araguaia-requin beti tiraca ibilli beharra, lan, edo eguitemo ongui neca-garria da.

BEREN eguitemo gogor onen gain ba-dute betteric ere, len gaizqui vicitu izandu diran, bataiatuac; ba-dituzte alabaña leneco beren becatuac utzi ciezten, zauriac, aztura gaisfoac, eta passione afaldatuac;

tua; eta orieci guciac beti jurtzen dira, bataiatu beraren etsaien alde, ta lagua.

CER ecuiten ez dute, bada, bataiatu gaifoac beren zauriac fendatzen, beren azturac urratzen, ta, guztiz afaldatuac arquitzen diran, beren pafione lutuac eicurutzen hari diranean.

ORIEC orretan hari diranean, an bertan dira azturra goiftoen, ta pafione galgarrien alde erorriac, fulececo etsai amurratuac: eta guciac elcar artu ezquero, an orieci hordu hartan artzen duten bezala, norci daqui cembateguiteco, ta neque eman oi dieten bataiatu berei?

ECUSten dituzu bataiatu gaifoen neque gogorac.

II.

ETA cer cargueri oteda, bataiatu beren hordico cargueria?

GURE Jangoicoiren UZTARria; ta, Jangoico beraren Legueac dicarren, neque gucia; ta beren Jangoico berá bataiatu berac guiza gucién gain, edo beste guiza guciac baño, guciago, ta garbi-garbiro MAltan beharraberen emango etsai berei ere beguitarte on oihotzezco bat eguin beharra: ta dembora berean

orieci berac beren beguiei, beren beharrei, ta beren mihari, ta gorputz-animi guci-guciari, nai ez luqueen, auitz gauzi eragun beharra: nori berea, ta, behar den, horduz, eman beharra; betteri eguin bague bein ere, ori-eratic batec ere bereztat naico ez luquen, gauzaric chiquiena: ez daquiénari aldutem eracuti beharra: behar-rean arquitzen denari lagunadu beharra; ta, behar ditán, beste gauz auitz goizetic arrafetaño egun beharra. ORI gucia da bataiatu onac eramán behar duten Ceruco carga.

ATOzea: ta guci len adiraci dugun, adiñ necatzen dena, ta era oneraco carga-requin dabilen bataiatua, ez da guizon oigui urricagarria? EZ da noiztan-bein atfeden beharra; botañ onac artuz, indar berriac artzeco? HAU harc migaz, ta gurai onean ez eguitera, ez di lertaco laster, ta illa guelditico bere carga pean, edo bere becatuaren atzaparretan?

ORI gucra ez dequion, da gure JESUS mana gurriaren laia, ta comuñoneco maia elenqui prestatuoric JESUS-ec iduquitzen?

ARA behar da, bada, aña, ta muez, bere neque etan  
ta

ta Jangoicoren Legueco bere uztar-pean illic eten, ta beca-tuaren loiean guelditu nai ez duen, barajatuac.

HAU gucia guri gure Jangoicoac ederqui aduazten digu, ELIAS ceitzan Profeta-tari bein guertatu-ricaco gau-za batequin.

JEZABEL ceritzan IS-RAELco ERREguin gaitlo ba-tec ecin ecusi zuen ELIAS Profeta.

CER gatic uste dezu?

CEREN gure Jangoi-coaren gauzetan igutziz zor-rotz-zucena cen ELIAS, ta JE-ZABEL gaitoac ecin eraman zuen haren zucena-tafuna, ta zelo garbia.

GAZTIgutzen dio bein JEZABelec Profetari, ez diola ematen egun bateco vicia baicic

HAU harc aditu-horduco, ematen dio bere iguesiari; far-tzen da bacarric baso batean, ta ba-dabil an, bat ere guel-ditu bague egun bateco vide gucian.

NEQUEZ, ta quezcaz cena beteric guelditzen da gue-ro arbola baten ondoan ELIAS Profeta. ESCATzen dio an bere Jangoicoari, atera dezala lem-baitlen emendic: aspertu dela vicitzez, ta eraman dezala ber-tatic, edo gueiago luzatu ba-

gue, beste mundura

IERE oroitz hau Jan-goico maita-garriai eguin on-doan, cecaren bere nequeac garaitzen duela, guelditzen da lo ELIAS Profeta,

HURA an loac aitu, ta laster agueitzen zaio ELIAS Cerico Aingueru bat. IRA-tzaitzen du Aingueru onec ELIAS, ta erraten dio: ORRA oguia bere ura-requin, ta jan zazu orain zuc.

ECUSTen du ELIAS Pro-fetac bere aldamenecan opilau-ti-pean erre bat, eta taza bat ur: eta hura jan-edan ondoan etziten da berriz lo.

AGUERTzen zaio ber-riz Aingueru bera; ta, len be-zala, berriz ere iratzarriic, errate dio ELIASI: EA: certan zaude zu or? JAIqui zaitez laster, ta fite, ta jan zazu berriz ere; bada vide lucea da, zuc dara-mazun, videa; ta orre gatic da indar andiac efcatzen dituen, vi-dea.

JATEN, ta edaten du berriz ELIAS Profetac: artzen du videa, ta ba dabil hordu-co bere jan-edanac eman-ica-co indarra--requin berrogeui gaeuz, ta berrogeui egunez, bat ere guelditu bague, HO-REB ceritzan, Jangoicoaren-mendira igan artean. 3.Reg.19.



ECUsten dezu? ORKA bada, gure eguetañ guertarzen--denaren aintzura, edo itzal eder bat.

NOREN aintzura, noren itzala, edo noren imajina dela, deritzazu zuec, ELIAS Profeta?

ONGUI vici den, ta obequi comuniatzen den, anima bataiatuarena.

CER ote da, JEZABEL deritzan Erreguin hau? GURE ARAGUI gaiftoa, bere pafsione, ta lagun galgarri guciequin.

CER ogui ote da ogui autf-pean erre hau?

ALDARECO gure SACRAMentu.

ETA ELIASec artu zuten, taz ura?

ALDARECO gure SACRAMentu berac dacarren, gracia.

HOREB deritzan, Jau-naren mendia?

ONGUI comuniatzen diranac erdisten duten, Ceruco gloria.

CER guertatzen ote zaito emengo bataiatuari?

GAIZQUI vici bada, baque gaiftoan vicitzea JEZABELEquin, edo bere aragui gaiftoa-requin, ta, onen alde diran, pafsione afaldatu-equin, fulececo galgarri--equin, ta

emengo mundu galdin-requin.

ZORI gaiztoco ongui-etortzea da, era oneraco onen ongui etortze ori; bada fulecera zuzen zuzen dariman, ongui etortzea da, onen ongui etor-er gaifto ori!

BAAA ongui vici bada, bataiatua, gaizqui dator munduco, fulececo, ta bere baitaco, edo barreneco etfai gaifto-equin; ta etfai oriec dabil-tza beri nondic gal-eracico duten, edo nola erabilico duten becatuz becatu bataiatu gaifoa.

ORREtaraco eguin oi diozcate oriec anitz charqueri, ta beren charqueri-equin eman oi diozcate anitz neque, ta nai-gabe.

ORREquin aguitz astuzen zaito bataiatuari bere Legueco uztarria, ta atfecabe minnez betezen zaito bere vicitza.

ZAITZEN zaituen cere Aingueruac, zure Confessariac, edo ongui nai dizun, befteren batec adirazten dizu zuri cere nequezco aldi orietan ELIAS Profetarena, edo jan dezazula zuec cere comunione-co maian bein ta berriz, ta maiz; ta, cere jate on orretatic ateratzen dituzun, indar-equin ibilli zaittecela gau, ta egun becatuaren loian bein ere guelditu ba-gue. ZUC eguitera, oriec zu

ri adirazten dizutena , igain zara zu , bai , azquen-eraco HORREB mendira , edo cere Jangoicoaren ERRESumara.

III.

BAÑA zuc ori eguin lecuau , bacan ba-zoaz zu cere comunioera,guertatuco zaizu zuri ELIAS Profetari guertatu beharra, eguin ez-palu Profetac , bere Jangoicoac Aingueruz adiraci izandua.

CER guertatuco ote citzaion ELIASI , hanc ez eguitera , bere Jangoicoac hari adiracia?

ILL galdua basoan guesditzea : bada , ori baicic , ecin guerta cequiqueon , baso eremu batean nequez , ta flaquiuz beteric cetzan , ELIASI, jan ez-palu bein,ta berriz , ta , behar cituen , indar guciae artu arte-raño, Jangoicoaren Aingueru onac ecarri ciona.

ECUSTen dezu , cer gatic ez dabilzan Ceruco videan, ta cer gatic becuraturatzen diran bataiatu anitz?

CEREN berandutic berandura , ta bacan-egui artzen duten oriec comunioeco beren janaria ; ta ceren beren etsaiaren nequeac , eta beren Legueco cargac , edo utztarriac arkitzen dituen oriec indar gutirequin , ta flaquiuz , ta nai-

III

gabez ongui beteac.

EZ da ala , becatuz becatu zabilzan , Anima? EZ dezu zuc cerorrec ecusi izandu, maiz comuniatzen cisan, demiboretan aisago garaitzen ceni-tuela zuc cere etsaiac , eta neque andiric bague eraman oi ceniuela zuc cere Legueco uz-tarria , ta errazqui eguiten ceni-tuela zuc , zuri cegozquitzun, lanac ?

ORRA bada nondic datorten zure caltea , ta JESUS-ec bere Aldarean , edo comunioean eman oi dituen , ondafunac zuc ez artzea.

ZORI onecoa zu , orain ezaguturic zuc cere gal-videa, uzten ba-dezu bertatic , emen zuc bertan artzeco beste ondafunduna ; edo , utziric zuc , orain dañoco cere nagui-tafuna , jaiquitzen ba zara zu , gueroz gueiago , naguitafunean loric ez eguiteco asmoan ; ta jaten ba-dezu zuc , cere Jangoicoac vidaltzen dizun , comunioeco oguia ; ta jaten ba-dezu , cere etsaiac garaitzeco , ta Ceruco videz zuc enibilzeco, beharco dezun , adinetan , ta jan behar den eran.



Oo

§. II.

## §. II.

BEHAR DEN, ERAN EGUITEN ez diran, comunione-  
etatic datocen cal-  
teac.

**B**I aldetara ciquin dezaque batec bere bihotza, edo bere anima : ciquin dezaque becatu larriz, ta ciquin dezaque becatu arin chiquiz.

LEMBicico bere ciquitze galgarri hau quendu bague, comuniatzten den, animac galtzen ditu comunione-co ondasun guciac.

CIQUIñ-er hau bere baitatic anima berac quendua gatic, quentzen ez-paditu bigarren ciquin-erac, edo becatu larrien arrautsac, galduco ditu, guciac ez, bafia bai, comunione bereco ondasun zati anitz, eta andiac. ORI da orain guc hastiro ecusi behar dugun gauza, comunione-co ondasun guciac irabaz-vidac zucen artzeco. I.

BAI, galduco ditugu guc gueren comunione-co ondasun guciac, becatu larricquin guc gueren comunionean JESUS artzera.

CER gatic uste dezu?

CEREN eguiten diogun guc orretan gure Jangoico-guizon JESUS maita-garriari, eguin daquiqueon, vide-

gaberac, eta charqueriric andiena; sartzen dugu alabaña guc becatu ciquin izugarriac bereturic daducan, gueren guclan, edo barranean: ta ez diogu guc emen ematengure JESUS maita-garriari, roquiric charren charrena, ta becatuaren oin-pea baicic.

ETA nola, nai dezu zuc, eman daquigun guri lecu char, itfusi, ciquin one gatic comunione oneco ondasun-etatic bat-ere?

GURI oriec aldi orietan JESUsec ematea lizaque, JESUsec berac bein adiraci zuen bezala, gauza guztiz itfusi bat eguitea; bada lizaque ezcurra, ta bazca ciquina baicic, nai ez duen, cherriari perlac, eta margarit ederrac ematea: ta ori, dacufazun bezala, eroaren lana da, ez, jaquiunde beteric dagoen, JESUS onarena.

ERREGue batec deitu cituen bein bere Semearen ezteietara, Errian arquitzen ciranac, eta ara joan nai izandu zuten, guciac. SARTU ciranac an, laster, ta fite bete zuten ezteietaco maia.

SARTzen da guero ERREGue ezteilca, ezteietacocer eran an arquitzen ciran ecustera. ECUSTen du an bat,

eztei-etaco soñocoric bague. URBILTzen zaio, dagoen, to- quira, ta erraten dio: ATO- zea; ta nola sartu zara zu, ez- tei-etaco barazcal-regui oneta- ra, onaraco behar cen soñeco- ric billatu bague?

MUTUtu cen guizajoas; ta guelditu cen, ERREgue gald- eguillcari cer erantzun etzu- ela.

ITZULden da horduan ERREgue bera bere-etara, ta erraten die: ORIE, escu-oñac loturic, bota zazue alquegabe- tzar ori araco urruti artaco il- lumbera, izan dezan an beti- co negarra, ta berico bere or- tzen carrafcada amurratua.

HAU gucia gure JESUS- en parabola da ( Matth. 22. ); baña parabola, orain guc dio- gun, hau ederqui guri adiraz- ten diguna.

ERREgue andi eztei- emallea hau Aita eternoa da. ONEN Semearen--ezteiac co- munioneco jan-edangutziz goi- so ondafun-duna. ONARA dei- turicaco gendeac; ELIZan vici diran bataiatu gucia dira. EZTEI-etara, eztei-taco soñeco- ric bague, doana, gure Jauna- ren graciatic bague aratzen den, edocin da, edo becatu larriz- ciquinduric arquitzen den ani- ma.

ETZAIo ecer, edo deus ematen, era onetan aratzen den, animari. ANDIC ateratzen da anima errumes behartfu hau, Ceruco bocadu- ric, edo Sacramentuco onda- fun bat artzen ez duela. ETA era orretan, orrela comunia- tzen den, anima mundu one- tatic ateratzera, eternida- de guci-gucico fulecera bota beharra da.

ETA orra non, bere comunionetic ondafun andiac atera beharrean, ateratzen di- ruen izurri gaisfo bat, eta be- re eriotza, gaizqui comuniatzen den, edocin ec, edo becatu lar- ria-requin comuniatzen den, animac.

HAU guri adirazten di- gu gure Jangoigoico maita-gar- niac, bere Seme JESUSen Ez- tei-equin, ez-ecic, ISRAEL- darrei, Jen guertatu-ncaco, beste gauza batequin ere.

BA zuten ISRAELdar- rac, TESTAMENTUCO ANCA deitzen cioren, cuchiatic bat. EMEN beren cuchi onetan ce- ducaren ISRAELdarrec MANA zati-bat. MANA cen, ALDA- reco SACRAMentuaren itzal- bat bezala. CUCH hau bere- quin zutenean, garaitu oi ci- tuzten ISRAELdarrec beren et- saiac; eta artzen eruzten deni-

bora berean ISRAELdar berac ondafun andiac beren Jangoicoaren escu-etatic, baldin ongui ba-ceuden beren Jangoico bera-requin.

ERAMAN izandu zuten, beren Jangoico bera—requin ongui arquitzen ez ciran batean, Testamentuco CUCHA, edo ARCA hau beren exercitura.

ASITzen dira pelean beren cucha hau berequin dute-la;baña horduan ISRAELDarrac beren etsaiac, garaitu lecuan etsai beren escuz illac guelditzen dira ISRAELdar ber-etatic, oguei, ta amar milla beintzat; eta gañeraco guciac igues-eguiten dute, al-duten alde-etara; ta orien TESTAMENTUCO ARCA, edo CUCHACHOA guelditzen da orien beren etsaien escueran. 1.Reg.4.

ERA berean guelditzen dira gaizqui comuniatzen diranac ere; bada beren comunione-etatic oriec ateratzen dutena da becatu berri baten animaco eriorza, beren pasione galgarrien, ta gañeraco beren etsaien atzapar gogor-etan sarturic guelditzea.

ONGUI da : ta cer eratan eguiñac izan oi dira zure comunioric gueienac? CEre gaizqui eguiñaz damuric bague-

co, ta becatu berri-etaraco videac uzteco asmorie ez duten, confesione macurren ondoren eguiñac? BAI?

GUZtitz urrical-garria beraz zu : bada, era orretan zu confeslatzen zaran aldi-etan gaizqui confeslatzen zara; ta, zu gaizqui confeslatu ondoco zure comunionea zure animaren izurri gaistoa da, ta fuleceraco vide galgarri zucen-zucena. ZURE urrical-garria, bada, berriz, ta berriz ere, era onetan comuniatzen zaran, anima.

## II.

BECATu larrinac bague, comuniatzen denac, artzen du beti bere ondafuna, baña ez du artzen, artuco luquen, ondafun gucia, cembait becatu chiqui-requin, ba-doa bere comunionera.

ERA orretan doaz beren comunione-etara begui arriñac diruztenac, aguertzen diran, gauza guciac ecusteco, gauza gaistoric oriec ez ecusia gatic. ERA orretan doaz, hitzontzi-querietan egon oi diran, berritsuac, calte andiric ez eguiña gatic oriec beren hitzequin. ERA orretan doaz joco, ta jostatze luceac eguin oi diruztenac, joco-jostatze oriec berez gaistoc ez jtzan-arren-

ERA

ERA orretan doaz molda-caitzac, eta echeocoac, lagunac, edo oriequin diarducatenac cerbait minduric utzi oi dituztenac. ERA orretan doaz, etiaia icendatzen dutenac. ERA orretan maiz afaldatzen diranac, afaldacio andiric aldian ez artua gatic. ERA berean doaz beren comunione-etara alferrac, naguiac, eta beren loari, edo janari, ta edanari, behar baño, elcu gueifeago ematen diotenenac.

ERA berean doaz beren comunione ber-etara, befteren gauzei, edo bereei behar bezala beguiratzen ez dienac; bai ta guezurtiac, eta beste edocein uts chiquitara oituac daudden, guciac ere.

ORIEC guciac bada, becatu larriric beren comunio-nera ez eramana gatic, artzen ez dituzte, ongui comuniatzera, artuco lituzqueen, anitz, eta anitz Ceruco ondafun zati.

CER gatic ote?

CEREN ez daramaten ondafun orien diña ontzi, ta toqui; ta orre gatic guertatzen zaien oriei, eri bati bere janari indartfua-requin aguitu, edo guertatu, oi zaiona.

JAN dezatela EPER baina, ofafun ona duen, batec, eta eri arquitzen den, beste

edoceneç. CER guertatuco da?

EPERRAC on, eta atseguin andi bat eguitea, ta indar andiac ematea ofafuna ona duen, edocein jaleri; ta dembora berean bere burua-requin ecin burutuz erabiltzea eri gaisoa, onec jan-icaco bere eper-rac; eta eriar bere eperrac, indarrac eman lecuac, indarrac quentzea.

NOLA, bada? ETZEN eper bata, bezain ona bestea?

BAI; baño ez izan, ofafuna duenac, bezain barren garbia, erisco dabillen, beste eper jaleac; eta orre gatic ecia artu-al eriac, besteac ar ditzaquen, atseguin-indarrac.

ERA bereco gauza da guertatzen zaiena, era batean comuniatzen ez diran, biri, biac comuniatua gatic beren Jangoicoaren gracion, ta adifquide-rasunean; bada bat, eta besteac izana gatic beren Jangoicoaren graci, ta adifquide-rasun hau, comuniatzen da bata anima garbi-garbia-requin, ta bestea bere becatu chiqui cembaiten cerbait aurs, edo pits duela: ta horduco bere comunionean artu oi ditu lembici coac anitz graci, anitz gogargui, anitz atseguin, ta ontze-co anitz naicunde: eta comu-nia:

niatzen den, besteac, artua gatic cerbait indar, ta graci, gal-tzen ditu comunione on-on garbiaren gañeraco ondafunac, edo beintzat cembait, edo anitz.

ETA hau da noisqui orain dañocoan zuri guertatu izandu zaitzuna? NORÉnac dira utfac? CER gatic ez dezu zuc ongui garbitzen cere anima? CER gatic ez dituzu lenic uzten zuc cere aurqueriac, eta becatu chiquiac, ara zu urbiltzen zara-neco..

### III.

BA-dira comuniatzen diran, anim-eratic beste cembait ere, comuniatu ondoan, calte-berarequin arkitzen diranac.

CEIN ote dira calteri urric-al-garri oriec?

ORIEC dira, comu-niatu--horduco beren gogoac barraiatzen dutenac. EZ diote oriec bat ere beguiratzen, berequin daducanten, beren JESUS maita-garriari. HAU an beren barrenac bacarric uzten dute-la, ba-doaz oriec, norc daqui, nora, ta beren gogoz, ta af-moz dabilitza, gogoac ematen dien, toqui-ran, ta bazter galduetan; ta ez diote hitz bat elaten bitartean beren JESUS maita-garriari: ta orien comu-nionean JESUS etorria gatic,

oriec ondafunecz betetzera, bere ondafun bereciac berequin guelditzen zaizca JESUS maita-garriari, escatzalleric baguez; ta SACRAMentua bucatzen den demboran uzten du JESUSEc, comuniatu den, anima, eman nai ciozcan, bere ondafun ederren laurdenic ere ematen ez diola.

ATOzea; ta ez da gauza guztiz negar garria, zuri guertatzen zaitzuna, zuri ere hau gnertatzen ba-zaitzu, comuniatzen zatan cere aldietan? GURE JESUS maita-garria zure echean; zurequin zure JESUS bera zu comuniatzē zarā egun-etan; ta zurequin zure JESUS arkitzen den, hordu berean ere, ez-pa-liz baño, guciago, zu cere JESUSEz oioitzen etzarala?

ZURI cere bihotzera hitz-eguin naiez zure JESUS; eta zu cere JESUSEn hitzic ez aditzeco, gogoz, ta bihotzez; norc daqui, non?

ZU bere ondafunecz beste-naiez zure JESUS maita-garria? ZU bere ondafun on etaraco ongui prestaturic ecusi-naiez zure JESUS maita-garria; ta zu cere prestatzeric gogoa ez dezula, ta dembora berean zu lurreco afmo-char cirtzillez cere burua ongui nafuric daducazula?

ER-



ERREAL biren ultieta bazuenu zuc cere JESUS ona gaudic, etziñaque egoin zu, ez, orren zentzu gabea, ta orren cere galgarria; bada, cere comec-aldi bacoitzean ar-ditza-quetzula zuc cere JESUS onaren escutic, Indietaco urre-cillar guciac baño, aguitz guei-ago valio duten, ondafunac, galtzen dituzu zuc, deus-ezbat bai-lira bezala, ta, norequin zauden zu cere aldi on orietan ohartu gabez.

NON dezu, bada, zuc cere burua, edo certan zabilza zu, era orretan zabilzan demboran?

EZ ongui, ez nere JESUS maita-garria! INDAzu arren zuc oraindañoco nere utfen barcamentua, ta, uts beriric ez eguiteco, gracia; baita, comunione bacoitzean anitz ondafun artzeco, beharco dudan zure laguntza, ta gracia ere. Bai arren, bai.

I.

ERO EIS QUASI EXALTANS IUGUM super maxillas eorum, & declinavi ad eum, ut resceretur.

Olee II. 4.

CER, nai dezu zuc, daguidan nic zurequin, eguin dudana baño, gueiago, dio gure JESUS maita-garriac, ALDareco bere SACRAMentutic

deiez dagoquigula? ONGUIZ, ondafunec, ta zuri nic ederqui lagunduz, zu neretu naiez nabil ni, dio, ambat-egunez, ambat illez, ta demboraz: baño neretu zara zu orre gatic? NI gana zara zu ala ere?

ARA, urrutitic ecufi cindudan nic zu cere uzta-pear, edo cere Legueco carga-requin erdi-lertua bezala, edo ecufi cindudan nic zu guztiz necatua; ta fulececo otlo gaistoen, edo cere becatu arrigarrien atzaparretan illic gueldi etzindecen zu, etorri nintzan ni, zuri lagundu-naiez, nere ALDareco SACRAMentura, ta ona non nagoen ni, Itzaiac idi necatua-requin eguin oi due-na, zurequin eguiteco asmoan, edo zuri cere uztarriaren astun-tafuna aintzeco, ta Ceruco nere Aingueruen ogui, edo nere gorpuz-odolez zu ongui aferic, eta indarrez beteric uzteco. ATotzea, bada; ta eguin nezaquen nic zure oneraco, ta za gal etzindecen, eguin dudan hau baño, gauz obeagoric?

AH! baño, ez zuc eguin nai izandu, cere oneraco nic nai nuen, gauzaric bat ere! Zuc ez etorri nai izandu ni-gana, nere akdera, edo nere escura, ta nere maira, emen comu-

nia-

piatzera: *noluerunt converti* (ibi v. 5.)! IGUESI ibilli oi zu maiz comuniatzetic! SARTu oi zu anitz cere gal-videtan! ERORI oi zu bein becatuaren loi itsufian; bein gaitzeraco-fa-si-zuloetan, ta alcotan-ta alcotan oben-culpen ofin-arrigarri-etan!

ETA noiz-edo bein zu comuniatua gatic, komunitzen zu, leneco cere ibillera galduac utzi, ta Ceruco cere videan zuzen ibiltzeco, asmo-ric bague; ta zu comuniatu ondoan, len bezala ibilli oi zu, ta cere becatu berriz Anima cerea loitzen, ta loitzen cenuela!

ETA cer da hau gucia?

CER izain da, baicic nic nere buruaren galgari gaifoac, ni gatic zuc, nere JESUS maita-garriac eguiten dezunari, ta nere burnari ez beguiratzea!

NIC ez daquit, nere JESUS maita-garria, nola dezun zuc nerequin onembat ontasun, ichedate, ta paciencia! EZ al-dizut gaur-gueiago eguinen nic era onetaco charqueriric! UR-BILduco al naz ni gaur-guero maiz-maiz, ongui, ta garbi-garbiro ALDareco-SACRamen-tura, or niri zuc eman-icaco Indarra-requin zuzen, ta becatu-ara bague nere lanac bucarze-co! ALA guerta dedilla, ne-

re JESUS maita-garria; bai are ren, bai.

2.

CAPITE NOBIS VULPES PARVULAS, qua demoluntur vineas: quia vinea nostra floruit. Cantic. 2. 15.

LOR Eran dagoen, mastia da gure Jangoicoaren graciari arkitzen den, anima ANIMA onec ez galtzera, bere Jangoicoac emanico graciaren lore-eder hau, ecarrico-ditu mats onac, eta ardogoifoaac, edo eguinen ditu bere demboran, Jangoico berari atseguin eguinen dioten, gauzac, eta Ceruraco irabaciac.

BAÑA beguira; odei beltzaren arriac, goiz ortzeco itzotzac, edo becatu gaifoac igartzen dituzte Ceruco graciaren loreac, eta quendu oi dituzte mats ardo guciac, edo virtutezco gauz onac; eta uzten dute, becatu-ara den, Animaren Mastia, edo ardantzea, ecin beguira daguecoan, eran ta guttiz galdu-ara fatua. ETA beguira; ba-dira maisti onen, edo Anima gaifoaren beste galgariac ere!

CEIN ote dira anima onen etsai galgari oniec?

AISeri-cumeac, edo becatu chiquiac. ORIECaifa gordetzen dira non-bai; ta guti-

ca

ca gutica urratzen ditazte gauz  
onen sustraiac; gal erazten di-  
tuzte gogarguizco, ta defeoz-  
co ur ederrac, eta, becatu lar-  
riaren agorra-requin igartzen  
dituzte, edo gal-erazten gra-  
ciaren lore ederrac.

CER gatic, uste dezu,  
galdu dela, ta becatuz ciquin-  
du, len ederqui vici cen, Ani-  
ma?

CEREN eguin cen be-  
re burua apaintzera, lagun ar-  
tera, ta elquer-gabeco hitz-  
quetara. CEREN eguin cen,  
aditu behar etziran, gauzac  
aditzera, ecusi, edo uqutu be-  
har etziran gauzac, ecustera,  
ta uqutzera; ta ceren gutica  
gutica fartu cen, arrai eroa  
hamuan, edo farean bezala,  
atseguin loiaren trabetan, edo  
becatu galgarriaren atzapar-  
etan.

CERE becatu chiquiez  
caforic ez eguitera zuc, zuc  
azquenean galduco dezu, bai,  
comunioneo graciaren lore  
ederra; ta, cere aiferi-cume  
char, cere becatu chiqui oriec  
cere bihotzean, ez dezu zuc  
foseguzco comunioneo egui-  
ñien bein ere; ta galduco dituz-  
zu zuc, zuc oriec iltzera, iza-  
in cenituqueen, anitz atseguin,  
JESUen ondafun, ta Ceruco  
cere irabaci.

III

GAUZA char oriec zu  
garaitzen ote zaituzte? ZUC  
oriec ez garaitzea gatic, guel-  
ditu nai ote dezu orrembat  
ondafun bague? NON dezu  
zuc cere centzua? NON bu-  
rria?

3.

QUANDO SEDEBIS, UT COME-  
das cum Principe... statue caltrum  
in guture tuo; &... ne deside-  
res de cibis eius, in quo est pa-  
nis mendacij. Prov. 23. 1.

CERE ERREgue-requin zu  
barazcaltzen ba--ceunde,  
nola, ta cer eran egoiti ote  
cifaque zu? CERE ERREgue-  
ri beguiratzen etzeniola? CER  
jaten hari cifaan ohartu bague?  
eta andic urruti, ta gauza cir-  
cilletan cere gogo gucia ce-  
neducala?

ORI ERREguec zuri  
ecnstera, cer eguñien ote li-  
quezu! EZ ote cin-duzque zu  
harc hordu gaistoan andic aie-  
natuco? EZ ote cin-duzque  
harc zu galera batera, edo  
pofondegui gogor illunen ba-  
tera igorrico, edo vidaldu-  
co? ORI cen beintzat gutiencan  
zurequin horduan harc eguin  
behar zuquena.

ONGUI: ta norequin  
barazcaltzen ote dezu zuc, zu  
comuniatzen zaran aldietan?  
CER Janari ote da, or zuri ema-

Pp ren

ten zaitzun , Janaria ? ÉTA no-  
la ote zaude zu cere maian?  
ECUsten dezu ?

ATOzea : ez zaude zu  
ERREgueen ERREgüe--cere  
Jangoico altfuaren muan , co-  
muniatzen ziran , aldietan ?  
ATOzea , ez da gure Jangoi-  
co-gaizoa , ogui-idurian zu-  
ri an emiten zaitzun , janaria ?  
BAÑA certan zaude zu cere go-  
goz , ta añaöz , comuniatzen  
ziran demboran , ta zu comu-  
niatu ondoan ? OHAR zaitez  
ongui ; ta ecusio dezu .

AN zaude nosqui zu ,  
edocein cere lagun-eguin ba-  
razcaltzen ba-ceunde baño ,  
aguitz charquiago ; bada zuc  
edocein cere laguni hordu har-  
tā hitz-eguin en cenioque , anitz  
ifsildu bague ; ta zuc cere co-  
munionen aldietan ez diozu hitz  
eguiten anitz cere JESUS mai-  
ta-garriari ; ta batzuetan ez-pa-  
liz baño , gueiago , etzara hartaz  
oritzen ere .

CER nai dezu , bada ,  
daguizun zuri zure JESUS  
maita-garriac era orretaco co-  
munionen-etan ? CERI dagoca-  
la , eman behar dizquizu zuri  
zure JESUS maita-garriac , on-  
gui , garbiro , ta contuz comu-  
niatzen diranei eman oi diez-  
ten , bere ondafun zati ederrac ?

ORIEC zuc ciñez nai

ba-dituzu , zu comuniatzen za-  
ran , aldietan ezari zazu can-  
bet bat cere eztarnan , edo  
eguitu contu , izan direquela  
zure azquen comunionea , zuc  
aldi hartan eguiten dezun , hu-  
ra . OHAR zaitez zu aldi har-  
tan zuc eguiten dezun , cere  
eguitecora ; ta ecusi zazu , nor  
ote den , hordu hartan zu be-  
re maian zaduzcan , ta an zu-  
re janari eguiñic , zure barre-  
neraño sartzen den , zure Jaun  
andia ?

AH ! ori zuc aldi har-  
tan contuz , ta zuc en eguite-  
ra , etzenique quenduco , ez ,  
cere Jauna gandic , quendu oi  
dezun , bezain aisa , cere gogoa ,  
cere bihotza , edo cere añaoa !  
ZU egoin cinaque , bai , ar-  
ritu baten eran , ta cere Jan-  
goicoari , eguin dizquitzun , be-  
re ontarte gucien alde milla .  
ta milla esquer ematen cenioz-  
cala ; ta dembora berean ef-  
catzen ceniozcala , bera servi-  
tztazeco , ta ciñez maitatzeco ,  
beharco dezun , laguntza , ta  
gracia ; bai ta , lenago zuc or-  
retan asi baguearen , ta asi ga-  
bez , eguiñicaco cere uts , eta  
becatu gucien barcamentua ere .  
EGUizu hau emen bertatic , eta  
errazu alic cinquiēna . NERE  
JESU-CHRISTO , &c .



# LXXXIIOTOITZ-GAIA.

COMUNIONECO ONDASUN ANDIEN IRABAZ-VIDEA.

**E**CUñi-dugu, cer-gatic gal- co, comuniatzera baño , len tzen dirützen batzucc com- eguin beharco duguna; eguin unioneco ondafun guciac, baguez guc , eguin dezaquegu- eta besteac ondafun bere-etatic na, gal ez ditzagun , orrembat zati andiac ; eta orain eculi be- valio duten ,gauzac. har dugu', oriec guc irabazte-

§. I.

COMUNIORACO PRESTATZEAC ESCATZEN DUEN,  
lembicico gauza da Animaren garbitafuna.

**M**ANA ceritzan , Ceruco Janari bat dembora lue- can vidaldu cien gau oro gu- re Jangoico maita-garriac IS- RAELdarrei. ISRAELdaren ja- nari hau-cen , gañetic cetorren, gauza ce-ce zuri bat ; eta cen ALDARECO SACRAMentuaren itzala , aintzura , edo imagina.

LURrera cètorren IS- RAELdaren janari hau , baña ez , hau artzeco , lurra presta- tu artean.

NOLA niste dezu , egui- ten cela MANAren lurreco pref- tacio hau ?

CERUCO intz garbi eder batequin. INTZ onec lur gucia estali artean , etzetorren lurrera Ceruco MANA : ta, lur-

rera cetorreanean , etzuen lur- ric uquitzen bein ere : gucia guelditzen cen intz gañean , ta garbi garbia. (Num. 11. 9.)

CER gatic ore ?

GURI adiraztea gatic guc eguin beharra , ongui eguñteco guc gueren comunioneac , edo guri adirazteco , nola presta- tu behar dugun guc gueren bihotzen lur hau, gure Jauna- ren MANA eder-AL DARECO gu- re SACRAMentua guc artu uf- te dugunean.

CER ore da , orretara- co guc eguin beharco dugun, lembicico gauza ?

GRACIAREN intzez on- gui-ongui guc gueren animac estaltzea ; edo becatunic bat ere

Pp2 ba-

bague guc oriec iduquitzea.

BAI, dio San PABLOC: ecus beza comuniatzeco da- goen, edoceñec, nola daducan harc bere Anima. BEGUIra be- za bere bihotzeco bazter, ta zoco gucietara; edo ecus be- za, bere eticuz, bere beguiz, bere nihiz, bere beharriz, go- goz, edo edocein beste videz utsegin ore duen noizbait be- re Jaunaren LEGUECO gauze- tan, ta bere ecus-aldietan ar- quitzen dituen, utf-queta gu- ciac utz bitza bere confessaria- ren oñetan: baña larriac be- intzat, ez fugeac bere izur- ria, edo pozoia bezala.

SUGUEac, egarrituric edatera doanean, uzten du ugaldean izurria, edo bere po- zoia, San EPIFANIOC dionaz (hæresi 37.); baña uzten du, bere ur-aldia edan artean: ta, ongui comuniatico denac, eta bere pafsionen egarria, gracia- ren urez, ill nai duenac, utzi behar ditu gogoz, ta bihotzez beti betico bere uts, andiac be- intzat, eta bere becatuac: eta oriec harc ala ez uztera, ar- tzen du, dio San PABLOC, comunionean bere gal-gaia, edo bere condena-garria: *Iu- dicitum sibi manducat, & bibit.* I. Cor. 11. 29.

BERE galgai, edo con-

dena-garri hau ez artzeco; ti orren ordez artzeco bere comu- nionean cebait Ceruco graci, ta ondafun eder, alqui du be- catariac, hitzez, ta gogoz con- fessariaren oñetan bere becatu larriac uztea.

BAÑA, artu nai ba-du anitz comunione oneco graci, ta beste anitz ondafun, utzi beharco ditu, bere becatu larri- equin batean, bere oben chi- quiac ere; eta, oriec baicic ez dituen, anima garbiac, bere oben, edo culpa chiqui-berac.

LEN ecusi-dugun, AL- DARECO SACRAMentuaren itzal, edo MANA hura cen, az-azia, edo azaren bihia baño, gauza chiquiago, edo ceago bat, edo beguien ninien eracoa: *erat an- tem MANA, quasi semen coriandri* (Græc.) *quasi pupilla oculi.* Num. 11. 7. Eta ba-daquizu, edocein pitfec min ematen diola gure beguico niniani.

BADA,gure beguico ni- niac pitfa baño, beguitan ar- tuagoa daduca gure JESUS mai- ta garriac, den oben-culparic chiquiena ere. Eta, bere JESUS ona-gandic anitz nai duenac, ez du al-baz eraman behar, JESUÏ beguitan eman dezoquen, gau- zanic chiquiena ere, comunio- neco maïra urbiltzen den, al- dietan.

OJA-

**OJALA**, dio, **NIREM-BERG** deritzan, guizon virtuterfiac : ojala, garbitzen ba-lira comuniatzeco dauden, gure Animac Purgatorioco Iuan, Ceruan sartzeco daudenac, garbitzen dirap eran !

**ECU**sten dezu ? **ALA** garbitu izandu ote dezu zuc cere ori, zu comuniatzen ciñan, aldi gucietan ? **LEM**bicico aldian comuniatzeco zu prestatu ciñan hordutic beguitan artuac ote daduzcatzu zuc cere becatu larri guciac ? **EZ** ote diozu gueroz zuc ori-etatic bati ere lecuric eguin cere bihotz char loi orretan ?

**ANDIAC** ez-ecic, becatu chiquiac ere utzi oi dituzu zuc gogoz, ta bihotzez comuniatzeco zu confesarzen, zaran aldietan ? **ALA** ba-da, zori oneco **JESUS**en humea zu, ta, cere comunione-etatic ondafun andiac atera oi dituzun, anima zu ! **ZABI**ltza beti zu guifa berean, ta zuc ateraco dituzu cere comunione-etatic, zuc uste dezun baño, ondafun andiagoc.

**AH** ! baño ni ez izan, era orretan comuniatzen diran, anima, pietatu garbi-garbi-etatic ! Nic, nere comunione batetic comunione bestera, eguin oi, leneco nere utlac baño, uts

ititziagoc ereseta, ascotan beintzat, leneco nere utlac baño ere, uts andiagoc, baita batzuetan lamieticac ere !

**NOLA**coac izandu ote dira, bada, nere **JESUS** gutiz maita-garria, orain-dañoco nere comunioneac ? **ARTU** izandu ote dut nic nere comunione orietan zure ondafun ori-etatic cerbat ba-da ere ?

**EZ**, anitz beintzat, nere vici-erac gaurdionaz ! **BADA**, nic horduan ori-etatic anitz artzera, ez nuen ain aifa galduco, ez, ta ez nintzan itzulico ni, ez, itzuli nazan, bezain laster, ta fite nere leneco utsetara !

**BARCA**tu behar didazu zuc nere **JESUS** maita-garria, oraindañoco nere ibillera char hau, ta comuniatze, behar ez-bezalacoa. **BES**teric izain da, bai, emendic aitzinaoan, zuc cerorrec orretan niri laguntzen didazula. **NIC** gaurguero billatnco dut, bai, zu gana ni urbiltzen nazan, aldietaraco, al dudan, garbi-eratic andien-andiena.

**ONGUI** eguiñen dezu orretan zuc, bai ; bada orain **JESUS** maita-garriac nai duena da, len beti nai izandu zuena ; ta len beti bere gauza guciac nai izandu cituen zuu gabiac.

**LAIN-**



AINgueru , ta SERA-  
fin guciac baño , aguiz garbia-  
goa cen , gure JESUsec bere-  
zat billatu zuen , AMA Virgi-  
na. JESUSen APOStolu gucién  
artean garbiena San JUAN  
EVANgelaria cen ; ta gucién  
artean oni aguertu ciozcan  
gure JESUS maita-garriac be-  
re ongui-nairic andienac.

EZCABituac , eta be-  
catariac garbitzen cituen gure  
JESUsec oriec bere aldean , edo  
bere gana artzeco ; ta garbitu  
nai izandu etzuten , FARiseo  
tzarrari , ta onen eracoei go-  
gor beti beguiratu izandu cien  
gure JESUS maita-garriac.

BERE vicitzan ez-ecic,  
bera ill ondoan ere gure JE-  
SUS maita-garriac nai izandu  
cituen oial zuri , erosi-berriac,  
eta obi garbi , gorputz illec  
uqitu baguecoa.

ECUSI zazu , bada ,  
naico duen , edo ez gure JE-  
SUS maita-garriac , bere gor-  
putz-animac , ongui garbiac  
iduquitzea edoecin comunia-  
tzaltec , comunionean beraren  
barrenera datorreneco JESUS  
maita garria.

BAÑA cer izan oi da,  
zuc eguin oi dezuna , garbi gar-  
bian zu , ta zure JESUsec nai  
duen , eran ta ongui comunia-  
tzeco , ta zuc cere comunione-

tic ondasun andiac ateratzeco?  
EZ daquizu nolqui zuc cer  
eguin ere. NIC orain adiraci-  
co dizut gauz hatuzuri.

### §. II.

COMUNIORACO PRE STA-  
tzeac escatzen duen , bi-gar-  
ren gauza da gure Jangoicoa-  
ren beldur andi bat.

O HAR zaitetz ongui zu ,  
dio S. BERNARDoc  
(term. 1. de Nariv. ) , eta be-  
guira zazu , comunioraco zu  
preitatzén zaran aldietan , cer  
janari ote den , horduan zu  
artzera zoacen , janaria : bada,  
zuc ori ongui ezagutu ezque-  
ro , guertarico zaitzu zuri , len  
Patriarca JACOB! guertarica-  
co gauza bat , eta guelditico  
zara horduan zu , bere aldi-  
an hura , bezain beldurtua.

BERE Aitac aguintu-  
ricaco gauza bat eguitera ci-  
joala , etzin cen JACOB Pa-  
triarca , gauac artu zuen , lecu,  
edo toqui agueri batean.

AN lo cerzala JACOB  
han , ecusi zuen onec berac  
lurretic Ceruññoco escal-era  
luce bat. ECUSI zuen , escal-  
er onetan jatiñ gan cebiltzala  
gure Jangoicoaren Aingueru-  
ac ; eta escal biru berean ecu-  
si zuen , bere Aingueruen , ta  
gure gucién Jangoico maita-  
garria : eta aditu zuen , nola  
Jan-

Jangoico berac berari eiraten eion beste gauzen aitean: NI naz , ni, ongui vicitu ciran, ABRAN, ta ISAC , zure atzinecoen Jauna , ta Jabea. NIC emain dizquizut zuri onembar , ta ambat gauza. NIC lagunduco dizut zuri cere videan , ta nic ecarrico zaitut zu safoi onean , ta cere ofatunarequin cere bazterrera , edo toquira.

HAU gucia, ta era bereco beste gauzac aditu ondoan esnatzen-da , edo iratzartenda JACOB ; ta AY ! dio, ONA , ona gure Jangoicoaren toquia : ta ez nintzan ni artara bat ere-ohartzen ! eta cen gucia guztiz icaraturic : AR-RIGArria da , dio, lecu hau! EMEN ez da, gure Jangoicoaren ECHEA , ta CERUCO-ATEA , edo SARVIDEA , beste gauzaric bat ere ! ORRA JACOBI aldi , edo arrats hartan guertatu-ricacoa. Genf. 28. á v. 11.

AITA eternoac bereci dizu zuri gure JESUSen Legueco vide garbia , Cerura zu zucen igateco. CERE videan zu zabilizan demboran , zure atsedan hordua etorri horduco , edo zure comunioneco dembora urbiltzen denean, aldebat utziric , zuc , luxreco

cere gauzac , beguira eguizu, bere Ainguetuz ALDAre berean ingurutic arquitzen den, JESUS maita-gamari ; ta , ara baño, len adizazu zuc , zure Jangoico maita-garriac adiriainai dizuna. CER ote?

OR SACRAMentu orretan , or arquitzen dela , gure amorez guizon eguic cen JESUS maita-garria. ORI bera dela , ogeui ta amairur urtez zugatic, noic daqui,cembar eguic, ta eraman izandu zuen, gure Jangoico--guizona. ORI bera dela , bere Palsione Santaconeque tormentu izugarrien artean , zuén odola , ta vicia , zure oneraco eman izandu zuen, Aita eternoaren Seme maita-garria. ETA ori bera milla, zazpi eun , ta ambat urretan ALDArera datorren , JESUS maita-garria.

CERTara dator-quigula, zuc uste dezu?

ZURE animaco janari on indartsu izatera. ZURE anima bera Ceruco ondafunez betetzera. ZURI cere lan on gucietan bere escua ematera ; ta zu berequin Cerura eraman, ta eternidade gucian atseguin contentuz beteric an iduquitzera.

ZUC hau cere Jangoicoari aditzera , edo zuc hau  
Eli-

Elizaratzen zaran, aldietan, hastiz, ta contuz ecuten bace-nu, comuniatzeco aña arzen dezunetic, ez ote ciñaque zu ongui, ta galanqui bel-durtuco? JOAIN ote ciñaque zu guero comuniatzera, joan oi zaran, adiña aufardi-requin? ETA egoin ote ciñaque zu comuniatu ondoan, egoten zaran, bezain otz, epel, edo aisfolacabe?

EZ--dut uste. EZ eta terorrec ere. EZ Agutzen dezu, bai, zuc ere, zuc ori gucia cere gogoan ongui fartzera, icarra gueldituco ciñaquela zu, ta ecin urbilduz bezala, ambat zor diozun, ta ain bazter baguecoa den, SACRAMentu orretaco cere Jangoico maitagari altua zuc cere baitan orartzera. ETA, urbiltzecotan ere, urbilduco ciñaque zu, nola zaudē ecutteco, lenago zuc cere buruari ongui-ongui beguiraturic, eta animaco uts, eta pits. guciac lenago quentzen centuela.

ERA onetan nai du gurre JESUS maita-garriac goazquinon gu comunione-co maira; ta artu behar dugu guc, gu ara baño len, orretaraco behar den, hastia, ta toquia.

HAU gucia guztiz ederqui adirazten digu guri gure Jangoico maita-garriac bereLe-

gue zarreco gauza batequin.

ISRAELdar bat eñcon-tzen cenean, bere erriz, ta bazterrez campoco emacumearequin, artu behar zuē ill-bete bat emaztequi onec, artara bera prestatzeco. QUENDu behar ci-tuen bere buruco illea, edo billoa, ta bere azcazal guciac, bai, ta leneco bere soñecoac ere; eta soñeco berria-requin egon behar zuen doluz, ta negarrez bere gurafoen gain dembor orretan gucian: ta, ori gucia harceguin aitean, etzen urbiltzen bere fenar ISRAEL-darra gana.

ATOzea, bat-egunic guelditu nai dezu zuc cere JESUS maita-garria--requin, ceie comunionean zuc hau artzen dezun aldietan?

ONGUI: baña nongoa ote zara zu, edo cer eran ar-quitzen zaran, anima? ZU ez zara, beren becatu ciquiñe-quin gure JESUS ken ill izandu zuten-etatic bat? HACI ote dira zure buruco illeac, edo zure gogoeta arro ain loi gal-garriac? ACI ote dira zure pas-sioneen azcazalac, edo zure utfac, eta zure becatuac?

ZARTu ote da zure so-ñecoa, edo galdu ote dezu zuc cere Jangoicoaren gracia, edo gauz en-etaraco cere naia, ta gogoa? BA-

BA-dezu beraz zuc on-  
gui cer eguin , comuniatzera  
zu urbildu baño len.

CER ore ?

CERE soñeco zatarrac  
utzi , ta graciaz , ta devocio-  
cione zuri Ceruco lore dunez  
zuc cere Anima ederqui Ja-  
unztea ; cere buruco ille gais-  
toac , edo , zuc en ez dabilizan ,  
zure oroitzapen , ta gogoracio  
guciac ebaquitzea ; bai ta cere  
pafsioneen azcazal guciac , edo  
orietatic datocen , becatuac ere ;  
eta , zu confessatu baño , len  
hastiz , ta galanqui zuc negar  
eguitea cere vicitza gaisfoaren ,  
ta zure Aita maita-garri JE-  
SUS<sup>u</sup> zuc emanicaco atsecabe-  
en gain.

ORRA gure Jangoico-  
aren Legne zarreco gauzac  
zuri adirazten dizutena : ta or-  
ra , zuc contuz eguitera , on-  
gui zu beldurtuco zaituzten gau-  
zac. BADA zuc ala oriec egui-  
tera , gogoraco zaitzu ascotan  
zuri , zure JESUS maita-garria  
zutaz ez urricaltzera , galdua  
ciñala zu cere becatuac-gatic  
eternidade guciraco : gogora-  
co zaitzu zuri dembora bere-  
an cere becatuen itxus-tafuna ;  
ta gueldituco zara zu alquez ,  
ta lotiaz ongui betea : gogora-  
co zaitzu zuri cere etxai amur-  
ratuen indar arrigarria , zure

III,

pafsioneen sua ; ta quea , ta  
gaitzeraco zure cerorren ma-  
cur-era : eta hau gucia zuri go-  
goratzean , gogoraco zaitzu ce-  
re Jaunari zuc cere becatu-  
equin eman izandu diozun ,  
ASSER-videa : ta orrembat or-  
relaco gogoratzeac belaurituco  
du , bai , zure bihotza : ta ce-  
re beldur onec , eta zuc cere  
Jauna gandic arturicaco , on-  
dafunei gaizqui erantzun die-  
zulaco , damuac eraguiñen dizu  
zuri contuzco cere confessio-  
nea , ta anitz-anitz lagunduco  
dizu cere Anima garbi-  
ez ori ongui garbitzen.

ZORI onecoa zu , era  
orretan beldurturic ba-da ere,  
uzten ba-dituzu zuc , cere JE-  
SUS SACRAMENTATUA artzera  
urbildu baño , len cere lene-  
co soñeco zatarrac , azcazal-  
billo-ciquiñac , edo cere oben  
culpa andi , ta chiqui guciac ;  
bada horduan zuc cere comu-  
nioneco maian artuco dituzu  
cere JESUS ona gandic Ceru-  
co anitz ondafun , ta doai-era.

§. III.

COMUNIONECO P R E S T A -  
tzeac escatzen duen , irugarren  
gauza : batec bere burua  
escuratzea.

**B**ERE burua batec bere ef-  
curatzea , Ceruco bere  
Qq vide-

videan zuten ibiltzea da; ta era orretan or ibiltzea da, gure Jangoicoari beti atseguin eguitea, begui arñac bilduz, mihi hitz-ontzia isil eraciz, sartu-atera galgariac utziz, lagun gaito-etatic igues-eguiñez, ta gorputz atseguin-zale naguiari ucatuz, nai lituquen, cenbait gauza; ta eraguiten zaizcala, nai ez lituqueen, barurac, beharrac, eta beste nequeac.

ORIEC arantzac dira, ta arantz, gure araguiaren go-goeta gaitoari miñ anitz ematen diotenac; baña arantz zorroztz orien artean arquitzen dira, gure JESUS maíta-garriac ongui nai dien, lirio zuriac, edo Anima garbiac. *sicut lilium inter spinas, sic amica mea inter filias.* Cant. 2. 2.

HAU ez da, ez, gaur arratscan zuc comuniatzeco asnoa artu, ta bigar comuniatzera joatea; lenagotic ari, ta contuz eguiten den, lana da gauz hau gucia zuc eguitea!

ALA hau eguiten gure Jangoicoac guri eracutsi naiez, eraguin oi zuen leugauz oni dagocan, beste gauz eder bat.

LEGUE zarrean ere ba-ciran, orain bezala, gure

Jangoicoaren Bazcoac. HORduco BAZco ori-etatic batean ba-zuten ISRAeldarrac, oratingo gure comunionearen aintzura zuen, JATE bat. BILDots jatea cen ISRAel-darren horduco jatea.

BAZcoz jaten zuten, beren bildots hau eramán behar zuten ISRAeldarrac berac, bost egunez lenagotic beren eche-etara.

BA-daquizu certaraco? BEInic-bein ongui prefaturic, eta behar bezala, jan cezaten hura ISRAeldarrac; eta guri guero gure Jangoico maíta-garriac adiratzeco, NAZianzoco S. GREGORio dion gauza bat?

CER gauza dela hau, zuc uste dezu?

EZ dugula guc comuniatu behar, gueren Animaren bost leioac ongui garbitu artean.

CER leio ote dira gure Animaren leio oriec?

ORIEC dira bere beguiac batec, bere beharriac, bere sudur-ahoac, eta atseguin charren bat ar dezaquén, gorputz guciaren edocein zatis bada, or dira gure ecusteac, or dira gnre aditzeac, gure usai-eguiteac, gure jan--edan--hitzac, eta uquitzeac; eta or le-

io orietan arquitzen dira, edo leio orietatic datoz gure becatuac: *ut sensus expurget, à quibus peccatum oritur, & circa quos bellum committitur.* Orat. 42. n.27.

NOLA garbitzen dira gure leio oriec?

DAMUZco gure confesioaren ur ederra-requin; ta gure animaren ciquin-videtatic aldatuz guc oriec, edo behar den, garaiez quenduz.

ORI gucia zuc eguñic, comuniatu izandu ote zara beti zu?

EZetz dio, zu comuniatu ondoco zure vici-erac.

ECUGi zazu, bada, nola urratzen diran lenagoco zure utiac, eta becatu guciac: eta, ezaguturic, urratzen dirala oriec confesione general batean, edo becatu guciac zure confesioanean, asi zaitez artara prestatzen, ongui comuniatzen guero asteco zu.

II.

ERA onetan guc gueren animac prestatze hau, comunione oneraco, adiraci cigun gure Jangoico maita-garriac, bildotsfaren BAZcoz eraguiten cituen, beste cembait gauza-requin ere.

ETzen cillegui BAZco onen atzeco zazpi egunetan, legamia, edo orantza zuen, oguieric jatea.

EGUN orien buruan, beren bildotia jatera baño, len lotu behar zuten ISRAELdar jaleac beren guerria, ta soñecoac, videren bat aitzeaco avian ba-ceuden bezala. ARTU behar cituzten beren onetacoac; bai, ta beren maquilla, edo eticuco baculua eres; ta, era hartan, ta zutic ceudela, jan behar zuten ISRAELdarrac beren bildotsa; ta jan behar zuten hau, ez gordiña, edo egotia, baicic ongui errea; ta jan behar zuten, orantziac, edo legamiric etzuen oguia-requin, ta lechuga miñequin. ORRA, horduco bildotsa jateco, Jangoicoac ISRAELdarrei ecatzen ciena. Exod. 12.

ETA nola nai ote du gure Jangoicoac, guc jan dezagun, edo guc gure comunione-etan ar dezagun gueren bildots-eder-becatuac quentzalle JESUS maita-garria?

ISRAELdarren horduco bildots jateac adirazten digun eran.

CER edirazten digu orantziac bagueco oguia zazpi egunez jate onec?

GUGi ren becatuen damuz, ta cifezco urriquiric ongui guc gueren bihotzac afezten ditugula comunionera urbiltzea.

Qq2

CER

CER adirazten ote digute ISRAELdarren oñetacoac?

ANImaco gracia , ta gure Jangoico maita-garriac nai duen , videz ibiltzeco asmoa.

CER oriec berac beren guerriac , edo guerrintziac lotzeac?

BARUZ , hilduraz , nequez , ta jan-edana laburtuz guc gueren gorputzei , beren astura galstoac quentzea.

CER oriec beren soñe-coac , videraco eran , ezartzeac?

LOIEZco vide galgarni , edo ocalione , ta lagun char , ta toqui ciquin-etatic guc iguef-eguitea.

ETA cer adirazten ote zuten bildots beraren erretzeac , eta ISRAELdarren escuco baculuac , edo artzai-maquillac?

ONGUI comuniatu nai duenac , beguiratu behar die-la , lenic , eta hastiz al ere , JESUSen neque-tormentu gucieis bai , ta beraren gurutzeco odol isurtzeari , ta eriotzari ere.

ORRA , bada , nola ptefatu behar duten beren comunioneraco , beren comunio-netic ondafun andiac atera nai dituzten , animac . IBILLI behar dute anima oriec guztiz con-tuz , ta viciro , ta beren beca-tuen , alde beren buruac nola-erebait necatzen dituztela . IBI-lli behar dute , lenagoco beren

ibillera galduac uztèn dituztela , ta , al dituzten , gauz onac egui-ten dituztela ; oben culpa gu-cien loiac , edo arrautfac con-feisioneco iturri garbiant ongui quentzen dituztela : JESU-en vide-gabeco nequeen , edo gu-gatic gure JESUsec eraman izandu cituen , tormentu arri-garrien urical tafinez , ta JESUfi berari bere amoreac-gatic , zor diogun , amorez beren biho-tzac betezen dituztela ; bai , ta gogoz , ta asmoz ere , JESUS beraren ondoren Ceruco videan zuden ibiltzeco , JESUsec be-rac bereiften digun , gurutzea-requin , ta berac nai duen eran .

HAU eguiten duten animac , edo comuniatzalleac escuratze dituzte laster beren buruac .

HAU eguiten duten ani-mac beren Jangoicoaren go-gàra dabilta , ta ateraco di-tuzte ondafun andiac , eta Ce-ruco laguntzac beren comunio-ne-etatic .


ATERA oi dituzu zuc ondafun oriec cere-etatic ? EZ ? BAÑA eguiten ote cenituen zuc orretaraco , gure Jangoicoac nai dituen , gauzac ? ESCUratzen ote cenuen zuc hartaraco cere bu-rua , edo cere barren gucia ?

ANITZ necatzen cenu-en zuc cere gorputza , cere Animaço loiac , eta loi pitfac ere

ere quentzen cembiltzala? Anitz necatzen ciñan zu , cere begui-beharriac, eta cere animaren gañeraco leioac zaitzen, ori-eratic far etzequizun zuri etñai ciquin-garriric?

ERAguiten ote ceniozcan zuc cere gorputzari, cere becatuen alde, ta zure Jangoico maita--gariaren icenean cembait baru, edo cembait, miñ ematea cioten, gauza, ta hildura, edo mortificacione? Hordu-erdi cembait eguin oi cenituen zuc, zu gatic len zure JESUSeC eguin izandu cituen, gauzac, eta orain zuc or bere ALDArean zor diozun, amorrea gogoan arturic ceundela? Ez? CER, bada? AISA vici? GOGO charrari arfegnin eguin? IBIlli zu zure gogoac nai zuen eran, ta otz otzcan guero comuniatu? ETA era orretan nai cenituen zuc comunione-one-taco ondafun andiac?

EROAren asinoz! ORIEC artuco dituen, animac artu beharco ditu, bai, beste-presta-erac; eta, cembait ere haren presta--er oriec obeac, ambat andiagoac, hanc andic ateraco dituen, ondafunac.



I..

ABFICIENTES OMNEM IMMUNITIAM, & abundantiam malitia in mansuetudine suscipite insitum verbum: quod salvare potest Animam. Jacob. I. 21.

**E**GUN bero-erre bat asqui da, loreric ederrena igarturic uzteco; bai ta gorputze-co fucar, edo calentura vici bat ere, nori nai bere vicia quentzeco. HAU ba-daquizu zuc nere anima; ta ala ere ciquintzen dezu zuc cere naiezco becatuz cere barrena? TA ala ere eguiten diozu zuc cere buru gaitoari, behar ez den, atfeguin charra?

BEGUIra zazu zuc, certara zoazen, cere comunionean gure JESUS maita-garria artzera urbiltzen zaranean. URBILTzen zara zu, orretaratzen zaran aldietan, CHERTO guttiz eder bat cere animari zuc ematera, erraten dizu SANTIAGOC; bada ematen diozu zuc horduan cere animari Jangoico Seme guizon eguiña: Ori da alabaña ALDARECO gure Sacramentan arkitzen den, CHERtoa.

NOR ba zara zu, cere CHERto onec ecar-eracico dizquitzu fruta on-goiso galantac, edo Ceruraco irabaci ederrac: eta oriec guero zuc ez galtzera, oriec, eta zu gucioc sartu-

CO



co zarazte guero, gure JESUS, bera dagoen, toquirá, ta eternidade guico gloriara.

BAI: baña ez da arazteric, ez da irabaciric, eta ez dacar gauz onic Animac, cherto hau bere-gana artua-gatic, nsteldua ba-dago anima bera, edo becatuz loitu-galdua.

ETA nola arquitzen ote da gaur nere anima? ARA-guiaren naicundeen, loiquerien, ta aśmo charren ondoren cebillela, erdi necatua, ta Ceru-raco guztiz igartua, edo gra-ciaren ezatafunic bague?

CEIN era galdu galgaria ego-era ori, comunioneco cherto ederra nere animac bere ganatzeco!

ETA cer ote negnique nic behar den, eran, edo alic onguiena nere ganatzeco comunione oneco nere cherto eder ondasun-dan hau!

SANTIAGO APOSTOLU berac diona; aragui-queriac, eta becatuaren loitafun guciac aldebat uztea, ta bihotz, eta gogo garbi humil batequin ni nere comunionera beti urbiltzea.

HAU eguiten ez duen anima ez dago, ez bere comunioraco, behar bezala, prefatua; ta, era orretan ori comuniatarua-gatic, izain da, cher-

tatu ondoan chertoa igartzen utzi, ta leneco adar gaitoac botacen dituen, lasi-sagarra bezala; ta, furaco baicic, valio-co ez duen, anima.

EZ AL naz ni era orretaco anima comuniarzalle gaito-etic? ZUre vicitzac ori adiratzico du; ta, ori zuc ezagutzeco, ez dezu oni beguiratzea baicic. EZ dezadala nic nere baitan ecusi, nere JESUS maita-garria, comunione aguitz ondasun-duna, ta ondasun-duna baicic! Ez arren, ez.

2.

*ABSCONDIR MOTSES FACIEM SUAM: non enim audebat aspicere contra Deum. Exod. 3. 6.*

BALdin ba---cinequi zuc gaur, norañocoa den, ta nolacoa, ALDare orretan or arquitzen den, gure Jangoico guizona, icara gueldituco cinaque zu, ta non zauden zu ez-pa-cenequi bezala, zu Elizaren zarañ aldietan.

GORDERIC dago, bai, or, ta ogui-idurian gure Jangoico guizonas ta orrequin, or ez pa lego bezala da, zu bezalaco centzu bague, edo finist erdi illarequin arquitzen diran, gucientzat.

OHAR zaitez, bada, ongui-ongui, ta beguira eguitzu lĩĩĩte onezco beguigarbi-equins

equin; ta guertatuco zaitzu zurri, orain nic dio-Jan, hau, ta prefatuco zara—zu ongui comuniatzera. EZ nazu liñetli nai zuc ni? ADI zazu, MOYSEsi bein guertatua.

ARDIac zaitzen cebillen MOYSES, HOREB ceritzan, Jaunaren mendian. ECUSTen du MOYSEsec an lar bat, den gucia lu, ta gar eguiña; ta al ere etzela larra autf-eguiten, ez eta, furic ez—palu baño, gueiago igarrzen ere.

GAUZaren ecustecoa! erraten du MOYSEsec, gauza ecuscari hau harc an ecustean; eta nola guertatzen ote cen, icali naiez, ba-doa MOYSES, alderagotic lar lutu hau ecustera.

BAÑA, ibiltzen asten deneco, beguira MOYSES, beguira, erraten dio, erretzen cegoen, lar berean arqitzen, Jaunac; beguira, ez urbildu zu, ta quendu zuc or bertan cere on eta-coac: EMEN. arqitzen da alabaña, zure aitzinecoen, ta zure Jangoicoa.

HAU aditu zueneco icaratu cen MOYSES; estali zuen bere arpegui gucia; ta etzen trebe izandu bere beguiac lurretic ja'otzera. Exod. 3.

ECUSTen dezu! BADA etzen Jangoico bera, baicic Ce-

rucó Aingueru bat, an arqitzen cen, Jaun hura.

ETA nor arqitzen da ALDAREco gure SACRAMentuan?

JANGOico guizon gure JESUS maíta-garria?

BAÑA nola?

BERE gorputzeco Larra, edo Bihotza gure amorezco lu-gar eguiñic daducala: ta gueiago, ta gueiago gu maítatu naiez, bein ere urtzen, edo aitzen etzaiola.

ETA zuc artu nai ote dezu, comunionean era onetan arqitzen den, Jangoico guizon hau? ETA etzara icaraz erdi illa guelditzen? EZ daquizu beraz zuc, ongui bein-zat, nor den, ta nolacoa ALDARE orretan arqitzen den, gure Jangoico guizon ori? ICASi zazu, bada, ara baño len; ta etzaitecela zu berriz urbildu comunioneco maira, cere onetacoac, edo lurreco gauzen cere naicunde galduac utziartean; ta ez-pada, beldur, ta icara andi-andia-requin. EZ arren, ez. 3.

SURREXI, UT APERIREM dilecto meo, manus mea stillaverunt myrrham, & digiti mei pleni myrrha probatissima. Cant. 5.5.

ERRAn ote dezaquezu zuc, comunioraco prestatzen

zaran

zaran aldietan, Anima Santac bein erran izandu zuena, etan zuenean : „ Jaiqui nintzan ni, „ nere Jangoico maita-garria- „ ri ateac idiquitzera ; ta nere „ escu guciac myrraz beteac ar- „ quitu nituen nic, eta nere „ eriac, edo behatzac, myr- „ ederrena-requin.

BAÑA cer erran nai izandu ote zuen Anima Santac bere hitzqueta illun onequin ?

ERRAN nai izandu zuen, atleguin eguin natez Anima Santac bere Jangoicoari bere aguer-aldietan, garbitu zuela anitz bere neque-requin bere barren gucia, ta necatu ci-tueta orretaraco bere beguiac, eta bere gorputzaren gañeraco ate leio guciac ; eta bere biho-zetic asi, ta azcazal báteraño-co gucia ceducala myrraz, ta nequez guztiz betea.


ADItzen dezu ? ER-RAN dezaquezu zuc beste or-rembeste, comuniean zu, cere JESUS artzeco ahoa idi-quitzera zoazenean ? DAMUZ, ta urriquiz ongui, garbitua da-

ramazu zuc beti ara cere bi-hotza ? MYRRAZ beteac dau-de zure beguiac, zure behar-riac, eta zure escu-oñac ? edo anitz necatzen dituzu zuc ce-re betazalac, ecusi ez dezaten beguiac, ecusi behar ez duten gauzaric ?

ANITZ necaten dituzu zuc cere oñac, cere etai ga-istoen, ta gaitz videen igne-si, ta Elizaz Eliza, ta vide-onez-on zabilzala gauz ori anitz eguiteco ?

ALA ba-da, MYR-ederra-requin arquitzen zara zu, edo ongui prestatua, gure JE-SUSi zuc comuniean cere ezpañac, eta bihotza idiquit-zeco ; ta zuc cere comunio-ne-etan artuco dituzu onda-fun andiac.

BAÑA, ala arquitzen ez-pazara zu, asi zaitez bertatic artara prestatzen ; ta artu zazu, ori zuc eguin baguez, galdu dezunaren danua : bai ta gal-tze ori eraguin dizuten beca-tuena ere ; ta errazu ciñez: NE-RE JESU-CHRISTO, &c.





## LXXXIII. OTOITZ-GAIA.

COMUNIONECO ONDASUNAC ESCATZEN DITUZTEN,  
Animaco apaintzac, eta esquerrac.

**L**ENAgoco aldian guc ecusi dugun, presta-era, Anima becatuen loietic garbitzea da; ta, berriz loiera ez dedin, loi vide galgari-etatic urrun-eraztea.

**HAU** gucia eguin ondoan, bere comunionetic ondafun andiac atera nai dituenac, apaindu behar du virtutez bere anima.

**ECHE** bat, den onguina garbitua egona gatic, ez dago ERREgue artzeco eran, paretac aguerian, ta guelac utfac ba-daduzca. **APA**indu behar dira, dagozten, eran eche-

co bazter guztiac, atseguin eguiâen ba-zaio, an sartzeco dagoen, ERREgueri.

**BA**-daquizu zuc, ez dela, **JESUS** diñaco Erregueric nion ere: ta sartzen dela **JESUS** Erregue andi hau, zu comuniatzen zaran, aldian zure eche barrenera, ta bihotz ondoraño. **ECU**si zazu, bada, cein ederqui apainduac egon behar duten, zure gauzac, **JESUS**Si zuc, zu gana sartzean, atseguin eguiteco, ta cere comunionean zuc **JESUS**en ondafun andiac irabazteco.

## §. I.

COMUNIONECO ONDASUNAC ESCATZEN DUTE  
adimentu argui ònez betericaco bat.

**G**UELA-bat, izana-gatic den ederrena, ta egona gatic guela bera gauz ederrez ongui beteac, lece bat bezala da, ilumbean ba-dago, ta arguiric bague guela; ta, ala dagoeño guela, ez da arquitzen,

III

guel artan sartu, ta an egon nai duenic.

**AN**imaren guela bat bezala da gure adimentua; ta animaco gure guela onetan, eta anima gucico echean, behar den, bere argui berria, ta

Rr            onda

ondafun gucia uztera dator gure JESUS gure comunionean ; *cibavit illum pane vita , & intellectus* ( Eccli. 15. 3. ): ta ecin datorque gu gana , gure JESUS maíta-garria atseguin andiarequia , ta ondafun anitz uztera , gure guela , edo adimentua , ta anima gucia illumbe beltzean , edo , behar ez den , eran arquitzen diranean.

ILLUMbe beltzean dagoen , anima jaquiunderic ez duen , anima da , edo , ecusi behar dituen , gauzac adimentuzco arguiz , ta beguiz ecusten ez dituen , anima : ta , era orretan arquitzen den , anima , ez da arquitzen , ez comunioneo ondafunac escatzen duten , eran.

HAU guri gure JESUS-ec adirazteco da EGYPTOco , PERSIACO , ta BABILONIACO ERREgueac eguiten zuten , gauzacho bat.

BILLAtzen cituzten ERREgue oriec beren Mairaco , ta beren alderaco , EUNUCOac deitzen ciran , guizon gazteac.

NOLACOac , uste dezu ?

IDURI onecoac , dio Escriptura Santac , eta utsic gabecoac ; *pueros , in quibus nulla esset macula , decòros forma.*

BAÑA billatu ondoan ,

egon behar zuten guizaqui gazte oriec irur urtez beren ERREgueren beguietara bague. AMBatez egondu ciran beintzac , NABUCO-DONOSOR ceritzan , BABILONIaco Erreguerenac : *ut enutriti tribus annis , postea starent in conspectu Regis.* Dan. c. 1.

CERtaraco ematen ote cian ERREgue oriec orrembat dembora beren gazte fervitzalteei ?

ICAScezaten beren Erregueren beguietara baño , len , an ibillico ciranac , jaquin behar zutena ; ta beren ERREguec , oriec haren begui-etan aguertzen ciranean , arqui citzan jaquiundez beteac , nola an haren beguietan ibilli , ta nola beren gauzac eguin ongui cequitenac , eta , goizetic arratserañoco gucia , ecin obequi eguiten zutenac : *eruditos omni sapientia , cautos scientia , & doctos disciplina.* ERA orretan an aguertzen ciranac beren ohorez , ta ondafunez , betetzen cituzten guero ERREgue berac ; eta , ceren era orretaco-etatic atera izandu cen , DANIEL ceritzan , Jangoicoaren Profeta , artu cituen NABUCOdonosor ERREgue gandic , eta onen ondo-rengo ERREgueten escu-etatic , ERREgue-etatic guizonac at-

di-

dirzaquen , gauzaric andienac.  
(*ibid. & seq.*)

*habentes maculam , mente subimes,  
hilarem habentes anima oculum , &  
acutè videntem.*

BAÑA hartaraco ongui prestatzen etziranaç, eta guero beren eguïteco etan urs eguïten zutenac preñon--deguian guelditzen cïran , edo urcabeañ: ori eguïn zuen , beintzat FARACION ceritzan , EGYPTO-COREGuec bere biEunuco-requin. Genef. 11.

BAÑA cer ote da , comuniatzera doan , animac lenic icafi behar duena ?

ETA cer , uste dezu , eguïten zutela ERREGuieren maian EUNUCO , edo guizon gazte , hartaraco prestatu orieç?

ICASI behar du anima onec cer den ERREGue guicien ERREGuieren mairatzea ; eta mairatzea , ez ERREGue andi oni comunia-tzalleac an jaten emateco , baicic ERREGuieren maian berac jateco , ta jateco berac an , ez ERREGuieren janari eder goi-foren bat , baicic ERREGue bera , jale beraren animaco janari eguïña.

JAN-edana ara poliqui eramam.

GAUZAREN andi arrigarria !

ETA orretaraco orrembat icaste , ta jaquiunde ?

BAI , bada !

CER gatic ote ?

GURI adirazteco , nola urbildu gu comunioneço guere ERREGue andi JESUSEN maïra.

ERREGue batec deitzen ba-cinduzu zu , bera -requin beraren maian zuc barazcaltzera , poz andi bat artuco cenduque zuc batetic , eta beste alde gueldituco ciñaque , cer guertarzen zaitzun , ez pa-ce-nequi beza-la , eta ERREGuec zu deitzen cinduenetic , ERREGuieren aldera zu joan arte gucian , egoin ciñaque zu , ERREGuieren ontart , edo favore andi hura cere gogotic ecin utzi cenuelas ta egoin ciñaque , ango gauzac nola eguïn , icasten , batean ere ez urs eguïtea gatic , eta atfecaberic ERREGueri ez eman naiez.

NOLA , bada ?

ANIMAN oben-pitfic ez dugula , ta guztiz garbi-ederac , eta Ceruco arguiz , ta ecufitez adimentua bereric daducagula : GUC an eguïn behar ditugun , gauza guciac ederqui daquizquigulasta guztiaç an gueren poz-atleguim andia-requin eguïten ditugula : ala adiratzten digu S.JOAN CHRISOStomoc. *Eunuchos Regi decet asisifere... , nullam*

ONGUI : ERREgueren ERREgue Jangoico-guizon JESUS maita-garriac deitzen zaitu zu comunioneco bere maira? ZUC an barazcaltzean , an egon behar du zurequin zure ERREgue andi onec ; eta , an egon ez-ecic, zure barrenera fartuco da , zure janari eguiñic, ALDAreco bere SACRAMentuan ? ETA ez dezu zuc , zu a.a baño, len ongui-ongui icasi behar , cer lan ote den zu eguitera zoacen , ango zure lan hau ? EZ dezu zuc ecusi behar , nor ote den , zu deitzen zaituen , ta zure barreneraño fartzeco dagoen , zure Jangoico-guizon ERREgue andi hau?

ETA ala ez-pazoaz zu, edo zuc ez-pa-daquizu , certara zoazen zu ara , edo , ez-pacenequi , bezain ohartu cabean ba-zoaz zu cere comunionera , joain zara zu ara , comunione oneco ondafunac efcutzen duten , eran ?

OHAR—cabe orretan joan izandu ote zara zu , oraindañoco cere comunione-etara?

BELdur naz , baietz: bada zuc cerorrec daquizu, cein berandu artu oi cenuen zuc aratzeco asmoa : ta , comuniatzeco asmoa gogoan zuc artua gatic , etziñala zu beldurtzen bat-ere ; etzenuela zuc be-

guiratzen nor ciñan zu , ta nor, bere maira , ta barazcari ecin andiagora deitzen cinduen, Jangoico guizona.

ORREquin jaiquitzen ciñan zu cere comunioneco egunean , beste , edocein egunetan bezala. URBIltzen ciñan zu cere comunioneco Elizara otz-otzean. ERA berean eguiten cenuen zuc an cere aitormena , edo cere confesio-nea: ba cindoacen andic zu lembaitlen cere comunioneco maira. ARTzen cenuen zuc , ozca iduri batean cere Jangoico guizon gucia : ta artzen cenuen ogui zati-bar artzen ba-cenu bezala; ta guelditzen ciñan guero zu , cere Jaun andi onequin ez-pa-ceunde , bezain gogo baraiatua-requin.

HAU da , comunione-co ondafun andiac efcutzen duten , zure animaco apaintza? ONEMbat illumbetan arquitzen den, adimentuco zure guelin fartuco dela , deritzazu zuc, bere poz--atseguin andiarequin gure JESUS maita-garria. ERA orretan arquitzen den , animari utzico diozca gure JESUS maita-garriac, bere ondafun andiac?

ORRA , bada, cer gatic galtzen dituzun oriec zuc cere comunione-eran! BERRIZ zuc era bereco galtzeric eguin

pai

ñai ez-pa-dezu, ohar zaitez, certara zoacen comunitzera zoazen, cere aldiatan. ECUfi zazuz horduan zuc, alic onguiena cere ecer-eza, ta, artzera zoacen, cere Jaun andiaren izate bazterric baguecoa; ta zu joain zara, joan behar den eran, ta cere adimentua argui onez, behar den, eran ederturic daramazula; ta joain zara, JESUSen ondafun andiac artzeco, onguingui prestatua.

§. II.

COMUNIONECO ONDASUnac efcutzen dute bihotz, amore garbiz betericaco bat.

**E**RREgue SALOMonec eguin izandu zuen, bere gogara ibiltzeco, Carroz ederbat. CARroz onen olac, LIBANO menditic ecarriac ciran, edo ufeltzen ez diran CEDROLac. GORRI ederrez, edo purpuraz estalia cen CARroz onen igan-vidca, edo efcala. CILlarrezcoac ciran onen pillareac: bñña urrezcoa cen CARrozaren barrengo Jar-toquia. (Cantic. 3. 9.

CER gatic hau gucia?

GURI adirazteco, nola guc artu gure JESUS maitagarria gueren communionetan, edo nola prestatu guc artaraco gueren gauzac, eta beste gucien artean gueren bihotzac,

NOR da ezperen SALOMon baqueti ERREgue andi hau?

ALDAreco SACRAMē-tuan arqitzen den gure JESUS maita-garriaren aintzura, edo imagina.

ETA SALOMon ERREgue andi onen CARroza?

COMUniatzen den edoccein guizon, edo emaztequis bada comunitzen den, edocēnec darama batetic bestera bere JESUS maita-garria, bere CARrozac SALOMon ceraman bezala.

ETA mendi LIBANOCO CARrozaren olac?

ORIEC [dira, ufelt-tafunic bagueco asmoac: edo, bein ere becatura bague, gauz onetan beti, ta beren Jaunarean fcrvitzoan iraun ufte dutenen naia, ta gogoa.

CARROzaren cillarezco pillareac?

GAñEraco virtute guciei efcua ematen dien, laur virtute andiac. ORIEC dira PRUDENCIA, edo noiz, ta nola gauzac eguin, eracusten duen, virtutea. JUSTICIA, edo zucentafuna, ta Jangoicoa ganaco, ta lagun urcoei, edo proximoei dagozten gauzac zucentzen dituen, virtutea. FORTALEZA, edo indardia, ta gure efciaic,

eta



eta tentuac garaitzen , ta , gueren Legueco nequeen gurutzeta aisa eramaten laguntzen digun, virtutea. **ETA** **TEMPLANZA**, edo jan edanean , ta gañeraco gueren gauzetan vide-erdiz garamatzien virtutea.

**ETA** cer da **SALOMONEN** **CARROZAREN** igan videco purpura gorri ederra ?

**BATEC** bere becatuen alde , ta bere Jaunaren icenean artzen duen , edo daraman, hildura , ta nequea.

**ETA** **SALOMONEN**, edo gure **JESUS** maita---garriaren egon toquico urrea ?

**ORI** da **JESUS** bera ganaco gure bihotzen amore garbia: amorea da alabaña virtuten artean , metalen artean urrea bezala , edo onena , ta gueiena valio duen , virtutea.

**ECUSTEN** dezu nola egon beharra zaran zu , zu comunitatzen zaran , aldietan comunioneco ondafun eder andiac zuc irabazteco ? **JESUSEN** **CARROZ**-eder bat bezala, edo cere anima ongui-ongui garbituric daducazula , cere becatu-vidе-gaisto-etatic oñez , ta gogoz quenduric vici zarala, ta gauz-on-anitz eguin-naiez guttiz betea , cere Jaunari ateguin andi bat , eta nori-nai dagocan, gucia zucен-zucen egui-

teco alimoan , zuc eguin behar dituzun, cere gauza guciac zucен eguitemo prest , eta dembora berean leneco cere gaizquien damuz , ta , **JESUS**i areraci-ceniozcan, neque-tormentu , ta vide-gabe guciac-gatic urricariz , ta naigabez zarana betea.

**ORI** gucia zure Animaren, ta zure bihotzaren prefta-era , edo apaintz-ederra da comunione oneraco ; baña behar du oraindic zure animac comunione orretaraco zure preftaer orrequin batean, bere bihotzaren beste apaingarri batre.

**CER** ote ?

**GURE** **JESUS** maita-garria ganaco, al-den , amoreric andiena.

**BAÑA** non arquitzen ote da amore andi eder ori ?

**OTOITZ** onaren fiteguian. **CON**teffatu ondoan zoz zu baztercho batea , ta ecufi zazu hastiz , ta contuz zuc an, cer eguitera zoacen zu; ta zaudе zu an gucidi-gueldichoа hau gucia zuc an ongui ecufi artean.

**BEGUI**te erffiric an zu zaudela, errazu bihotzez: **ONGUI**: ta certara goaz gu orain, nere anima ? **COMUN**iatzera. **CER** da comunitatea ? Jangoico guizon bat , bocadu baten

er-

eran guc an artzea.

EZ da gure Jangoico-guizon ori Aita eterno-aren Semea, bere Jangoico-tafuna-gatic, Aita bera, beza-in bazter baguecoa; asieraric baguecoa, ta bucaeratic ecin duquena?

EZ da gure Jangoico guizon Sacramentatu ori Jaquiunde, ontafun, ta indardi urs, gauza gucien eguillea?

EZ da ori AITA eternoa-requin, ta ESPIRITU Santua-requin Jangoico bat; eta Jangoico, Ceru--Lurrac bete ondoan, asin-al, adiña Cerulur eguiten balitu ere, gucien bete-garria, ta gueiago, ta gueiagocoa?

EZ da gure Jangoico guizon Sacramentatu ori ni gatic guizon eguin cen, Jangoicoa? NI gatic ogei, ta amarur urtez ambat, eta ambat eramán, ta eculi izandu zuen, Jangoico--guizona? NI gatic ambat milla neque, tormentu, ta oñace-requin, ta bi lapurren artean gurutze batean jofiric cegoela, illic guelditu cen, Jangoico guizona?

ETA ori bera da, ta ori guci-gucia, orain nere barren char onetan sartzeco dagoena?

ONGUI: ta certara

etorri nai ote du Jaun onen andi onec, nere barrera beza-in, toqui circill loi char batera?

NI bere onguiz, ta doaiez ongui beteric uztera. Siniñstucocentuen? BAÑA ichozu.

ETZuen izandu becauric bat-ere JESUSen Amac. BETI-ta-beti vicitu cen Jangoicoaren graciz, ta Ceruco doaiez guztiz edertua. AMA onen baitan Jangoico Semea guizon eguitera cijoanean, presfatu zuen Espiritu SantuacAmaren Anima, lenaren gain ecin ederquiago; eta ala ere arrituric arquitzen da Eliza Santa, nola etzen gure JESUS maitagarria icaraturic arquitzen bere Ama onen sabelean arquitzen cencan: *Non horrkiji Virginis uterum.* ETA ara cen gure Jangoico maitagarria mundu guciaren oneraco.

BADA orrebat oneraco cela gure Jaunaren horduco Virgin Ama ganatzea, ta izanic Ama Virgina, cen bezelacoa, gauza orren arritze-coa ba-cen gure Jaunaren ar ganatze hau, Jaun beraren ni ganatzea, nere on utfa gatic; eta izanic ni, nazan bezelacoa, nor ez da bertan arritua, ta erd-illa gueldituco?

HAU zuc, eta era  
onc-

onetaco beste gauzaren batzuec hastiz, ta contuz cere go-goan erabiltzera; ta ezagutu ezquero zuc, al-ere zu gana naiez dagoela zure JESUS maita-garria, arrizcoa ez-pa-da zure bihotza, alico da maitatzen ta maitatzen bere Jangoico-guizon Sacramentatu onea maita-garria: ta urbilduco zara zu cere comunione-co maira, humil-tafunez, ta icaraz ongui bete; ta urbilduco zara zu cere beguiac lurretic ecin jaso dituzula, ta ala ere, urbilduco zara, onembat maite zaituen, JESUS maita-garria ceretu naiez, JESUS beraren Bihotzeco suarequin cere bihotz char orri suz emateco, ta cere JESUSEn amorez urturicaco, bihotz batequin JESUS maitatzeco gogoz bete.

ERA orretan urbiltzera zu cere comunione-co maira, zuc cere JESUSi, bere Sacramentuan zuc hau ecusi horduco, eguiñen diozu buruz, ta bihotzez, al-dezun, agurric oberena. CERE mihirutzen zaitzuncan guero JESUS bera, eguiñen diozu zuc amoriozco man eder bat: eta eramain dezu, cere atseguin andia-requin cere barreneco-guelara, ta bihotzaren aldamenera, ta guero an eguiñen dezu, gueroi-

leago guc adiracico dugun.

ERA onetan comuniatzen den, animac artzen du bere JESUS maita-garria Carroz eder batean, ta bihotz amore garbiz betericaco batequin; ta, ala hura artzen duen, animac eguiten dio bere JESUS maita-garriari atseguin aguitz andi bat. Eta irabazten ditu bere JESUSEn ongui-naia, ta Ceruco ondasun andiac.

AH! Baña ez nic orrela artu oi gure JESUS maita-garria nere comunione-etan! ORre gatic galtzen ditut nic Ceruco anitz ondasun, ta nere Jaunaren laguntza; ta arqurizen naz gaur ni, arqurizen nazan eran, ta anitz uftez, ta becatuz bete. BESTEric izain al da etorquizunean? BAI oraingo nere uftez, ta nere Jangoico maita-garriac bortizqui niri laguntzen didala. ALA guerta dedilla, bada, bai arren, bai.

### §. III.

COMUNIONE-CON ONDASUNAC ESCATZEN DATE BIHOTZ ESCAQUERDUN ESCALE BAT.

**I**SRAEldarren manac escatzen zuten (len guc ecusi dugun bezala) ez ciquintzeagatic, lurraren, ta bere arteracoinz garbi bat; eta deimborra berean escatzen zuten bere gañe-

gafieraco , ciquin-tafin bera eragozteco ona cen, efsalqui, izo tzaren aintzuraco bat : eta gure ALDARECO Manac , edo gure JESUS SACRAMENTATUAC efcatzan du , bein bihotz CERUCO graciz , ta amorez ongui efsali bat ; eta guero comunitatu ondoan bihotz efsquerdun-efcale bat.

ZUC cere JESUS SACRAMENTATUA , len eculi dugun , eran artu horduco , baztertucoco zara , artaco ona den , toquiren batera , ta , an zu behaunicaturic , eguiñen diozu zuc cere JESUS maita-garriari , ERREGUE bati Echa--Jaun batec , hura onen echeratzen denean , eguin oi diona ; edo eguiñen diozu , berac zui eguin dizun , comunionecco ontarte andia gatic agur humil efsquerdun bat.

CEIN andia dela , deritazazu zuc , cere comunionean , ta bere etortze amorezcoan eguiten dizun ontarte hau ?

SANTA ISABELen onen Seme S. JOAN BAUTISTAC , eta San PEDROC adiracico dizute zuri hau. Santa ISABEL , arritua bezala , gulditu cen , JESUSEn Ama ber-echean eculi izanduzuen aldi batean , ta bere arri era-requin efsan izanduzuen : „ ay-ene ! ta nondic niri onem- „ bat ontarte , ta favore ? NE-

III

„ RE Jaunaren Ama nere „ echera ?

SAN JOAN BAUTISTAC , JESUS eculi zuen beste aldi batean ; ARA (erran izandu zuen) : „ ARA Jangoicoaren bildots , (edo Seme) „ becatuen quen- „ tzallea : ni ez naz , ez haren „ on etaco-locarieran efcuac era- „ biltzeco diña.

ETA San PEDROC , JESUSEc onac oni garbitu nai izandu ciozcan batean ; JAUNA (erran izandu cion , gucia icaraz afsaldaturic , eta , non arqutizen cen , erzequienaren eran) : „ JAUNA zuc niri onac garbi- „ tu ? EZ Jauna , ez ; ez-eta fe- „ cula gucian ere !

ECUSTEN dezu ?

BADA , irur oriei campotic gure JESUS maita garriarequin guertatua orren ontart andia ba-da , cer ontart izain oteda JESUS bera zuc cere barre- nean , comunitatzen zaran-etan daducazun eran iduquitzea ; gogoz , ta bihotzez zuc an berari , nai adiña agur , ta adoracione eguiteco , nai dituzun efsquerrac emateco , ta , behar-co dituzun , beraren efcu-laguntzac efcatzeco ?

ORRA , orain era orretan zu gana etorri naiez , bere ALDARE orretan or egondu da gure JESUS maita-gar-

Ss. tia,

ria , joan diran , milla-zazpi-eun , ta ambat urtez , bitarte orretan ecusten dituela Christio , edo CHRIStau gaisto-etatic , eta HEREge , ta JUDU gogor-etatic , ecin erran al adiña , sacrilegio , gaizqui , ta vide-bague : ta , zuri dizun , amorea igatic , gucia eraman du or JESUS maita-garriac , hitzic atera bague , ta illi-illilean. ILLAren eran dago gau , ta egun , ta bacarric gueienetan , or ALDArean orrembat demboraz : ta zuri ongui naiez da orren orco egotea.

CER zor ez diozu , bada , zuc , zu-gatic or orrembat eguiten duen , ta orain zuc artu al adiña , ondafun eguin naiez , cere comunione-etan zuc cerequin daducazun , cere JESUS maita-garriari ?

ZU etzara bacarric , ez , orrembat ontarteri esquerrez erantzuteco , ta dei-eguietu , orretan zuri laguntzera , mundu gucian arquitzen diran , gauza guciei ; ta esca zaiezu cinez , eguin dezotela , zurequin batean , cerequin daducazun , cere JESUS maita---garriari , al duten , agur , ta beguitarte on gucia : *adorent eum omnes fines terras* ; ta eman dezotela , beren icenean , te zure ordez esquerrac esquerren gain ,

o a n z i-re juin batean ez-ecic , gaero teclagucian ere. ETA zuc ere , cere aldetic orain , ori-equin batean al-dituzun guciac emana gatic , ez dezazula galdu guetoco cere aldia.

NOLA arquitzen ote zara zu oraingo aldian ? ERIF-cote ?

ORRA , bada , or dezuc , ALDareco cere SACramentuan , gure JESUS , den fenda-tzallenc onena. ESCA zagozu , behar ez diran , gauzetan cere etcuac ez erabiltzeco , ecuste , ta aditze char-etatic cere beharri-beguiac quentzeco , ta cere mihiani , hitz ariñic erraten , ez uzteco , behar dezun , Ceruco laguntza , ta gracia : bai ta , cere gogoracio galgarriac , eta naicunde macurrac aienatzeco , behar-co dezun gucia ere.

ESCAzén ba diozu oñi zuc ongui-ongui , ta ondu nai bero andia-requin , emain dizu zuri cere JESUS maita-garriac , bat-ere luzatu bague.

AGUER--eguiozcatzu zuc cere JESUS berari cere eguitercoac , eta cere ibill-er guciac. GALD-eguiozu zuc , nai duen berac , utz ditzazun zuc onelaco lagunac , alaco sartu-aterac , eta , cerorrec daquizquitzun , hitzquetac , jan-edanac ,

eta

eta jostatze ariñac: eta eguztu guero zue, JESUsec zuri aldi hartan aditazten dizun, edo cem gauza.

EGUsten ba-dezu zue hau gucia, eguñen diozu zue JESUS maita-garriari atseguin andi bat; bai ta, norc daqui, cembar on cere Animari-ere.

DEMBora berean esca zagozu zue JESUS maita garriari, adiraci daguizula, nondic artuco dezun, nola ibillizaitzeten, ta cer eguin dezaquezun, behar den, eran eguiteco zue cere gauzac. HUMilqui zue hau JESUSi esca-tzera, etzaitu, ez illumbetan: utzico zu JESUS maita-garriac, eta aguertuco dizu JESUsec zuri, horduan zue jaquin behar dezuna.

LEN guc adiraci dugun, eran prestätzen den, animac, eta era onetan etquerrac ematen dituen, escalleac ondafun andiac ateraco ditur, bai, bere comunio-etatic; eta zue aterarzen ez-pa-dituzu cere-eratic, zuteac dira obenac; bada guci-guciei nai die ongui gure JESUS maita garriac, eta nori nai betetzen dio JESUsec, ongui prestaturic daraman; ontzia.

AH nere JESUS maita-garria! eta nic, hau lenago jaquin baguez, galdu ditudan,

ondafunac! DAQUI dan ezque-ro nic hau oram daquidan bezala, prestaturico ditur nic nere Anima, nere adumentua, ta nere bihorz hau, comunitatzen nazan, alaitan zure elcunc artzeco nic aintz graci, aintz gogargui, ta aintz amore.

DAMU dut nic orain, nic hau lenagotic ez eguñaz; bai ta, ori eguñtea eragotzi didaten, nere becatuez ere; ta escatzen dizur nic gaur onen gucien barcamentua, ta beriz beriz ez eguñteco gracia.

I.

VENERUNT AARON, ET OMNES seniores israel, ut comederent panem... coram Domino. Exod. 18.

12.

NOLA joaten ote zara zu, cere comunionera urbiltzen zaran aldietan. AURren eran, edo buruzco guizonac bezala!

CERTara zoacen zu, horduan zue ongui-ongui ez beguiratzera, aurren eran zoaz zu cere comunionera; bada aurac dira, era orretan dabilzatan, edo aurac eguin oi dituzte: beren gauzac, certan dabilzan aintz ohartu bague.

ETA era orretan ba-zoaz zu comunitatzera, gracion zu ara joana gatic, irabacico dezu cerbait, bai; baña ez irabacico

baci cenezaqueen gucia; ez nosqui, ta laurdenic ere.

AY ene! ANITZ galdu dut beraz nic orain-daño-co nere comunione-etan; bada era orretan comuniatu naz ni nere dembora gucian! ORre-gatic cen nosqui, ni comuniatu ondoan, lenago nintzan eran izatea.

CER eguin nezaque nic gaur-guero ongui comuniatzeco, ta irabaci andiac nere comunione bacoitzean nic eguitemo?

BURUZco ISRAeldarrac jate bat eguin zuten eran, nic nere comunioneac eguitemo?

NOLA eguin ote zuten oriec beren jate ori?

BEREN Jaunaren beguietan, ta errespetu andiarequin.

OHAR zaitetz ongui zu, comuniatu naiez zauden demboran, nora zoacen zu, ta cer eratan; edo ecusi zazu ongui zuc, zu cere comunionean artzera zoacena, zure Jangoico ber-bera dela, ta Jangoico gauza gucien contu-artzalle guztiz zucen zucena; ta ecusi zazu guero, nola zoacen zu, cere Jangoicoa zuc an artzera, edo ecusi zazu, zuc cere mihiz, cere ez-tarriz, ta cere bi-hotzez eguin izandu dezuna.

NOLA erabilli ote deazu zuc cere demboran cere mihi ori? ERRAN ote dituzu zuc, ez errateco obeac ciran, cembait hitz, ele, ta berri; CERE jan-edanez eguin ote dituzu zuc cembait uts, edo cere animaren cembait ciquintze? CER asmoac izandu ote dira, cer gogoquetac, eta cer naicundeac cere bihotz orretan zuc orain-daño-coan izandu dituzunac? ZUCenac guciac, guciac garbiac, edo, behar cen eracoac?

EZ-daquizu zuc, cere mihiz uquitzen dezula lenenic, cere JESUS SACRAMentatua? EZ daquizu zuc cere aho-ez-tarriz daramazula cere JESUS SACRAMentatu bera cere bihotzaren aldamene-raño, eta orre gatic guztiz garbiac egon behar dutela zure zati oriec guciac, eta zure animac?

BAÑA, obenic zuc, edo becaturen pitfic ez-pa-zenu ere, nor zara zu, orren Jaun andi bat cere baitan artzeco?

ARTZera ba-zoaz, bada, joan zaitetz, ederqui prefaturic, joan zaitetz alic onguiena; ta, zu horduan eguitera zoazen, lanac escatzen duen, beldur guciarequin, atzera nai ba-dituzu zuc cere comunionetic, atera ditzaquetzun, ondafun guciac.

2.

**QUEMADMODUM DESIDERAT**  
*cervus ad fontes aquarum, ita,*  
*desiderat anima mea, ad te Deus.*

Psalm. 41. 1.

**B**ASOco ganaduric ariñenac ez du, egarriz dagoenenan, iturriraco, gure JESUS maita-garria maite duenac comunioraco adina, nai, ta gogo. GOGOratzen zaionean, JESUS-en maita-tzalleari, bere JESUS maitearen on-tafuna, bere JESUSen ongui-naia, ta JESUS beraren eman-ala, ta eman gogo, ecin egonez bezala dago, bere JESUS maita-garria gana naiez; ain maita-garria da gure JESUS, ongui ezagutzen dutenentzat.

ONGUI JESUS ezagutzen dutenac, egon nai luquee beti, ta beti beren JESUS maita-garri maitea-requin, beraren BIHOTzeco amore ecin-andiagori amorez, al-eguin gucian, eranzuten diotela.

EZER-**ez** bat deritzate gure JESUS maite dutenac, berac bacarric JESUS maitatzea; ta nai luquee, maita lezaten; munduco beste guci-guciac ere, guciac atera lezaten JESUSen maitatze garbi-eder orretatic, eta ALDARECO beraren SACRAMentatic, atera dezaqueen on, ta ondalua guci-gucia.

AH, gure JESUS maita-garria, erran oi dute maiz eta comuniatzeco dauden aldietan nioiz ere baño cinquiago: AH gure JESUS maita-garria, non-nai, ta cere gauza gucietan zara zu guztiz maita-garria, baña gurezat beintzat, ez nion ere, ALDARECO cere SACRAMentuan adina. GURE amorez or zu arquitzzen zara ecer-**ez** bat dirudizula, ta or arquitzén zara zugu gau ta egun preso, ta gu gana naiez, gu cere onez, ta ondafunez beteac uzteco!

GUC hau gucia ongui ezagutzen ba-guentu, nola gucundeque gu gauden, bezain otzac, gauden bezain galduac, eta gu gauden eran?

GAÑERACO guci-gucietatic bacar bat zu ganatzen ez-pa-liz ere, zu ganaco nintzaque ni, nere JESUS maita-garria; ta zu ganaco nintzaque alic, eta maiz-ena; maite zaitut, alabaña, emen zue aguertzen didazun, cere amore-gatic; eta, zu ganaco nere amore hau, al dudan, eran nic zuri aguertzeco, urbiduco naz gaur-guero ni, orain-dañocean baño, aguitz maizago comunioneco zure maira, ta eramain zaitut nic zu nere barreneraño, an zuri nic nere bi-



bihotzeco amore hau eracul-  
tera, ta zuc cerotrec didazun  
cere BIHOTzecotic fu zati an-  
di bat, gaur guero guciago, ta  
guciago nic zu maitatzeco.

ZORI onecoa ni, zu-  
re amorearen su--onec auts-  
eguiten ba-lu nere bihotz hau!

ORRA gure JESUS mai-  
te durenen, hitzqueta. ICAS  
ba-neza nic ere! NERE JE-  
SUS maita-garriac didala nere  
comunioneetan, orretaraco be-  
har den, arguia, ta laguntza:  
bai arren, bai.

3.

BENEDIC ANIMA MEA DOMI-  
no, & omnia que intra me sunt  
nomini sancto eius. Pf. 102. 1.

**E**SQUERRac dira, emalle  
onari dagozcan, gauzac.  
BAÑA cer esquerrac gure JE-  
SUSi dagozcanac comunione-  
co-aldian?

ECIN garbiagoac; ecin  
andiagoac: bada beti da gure  
JESUS emalle; baña comunio-  
neco-aldian, beste alditan ba-  
ña agutz da emalleago; emal-  
ten diu alabaña bere eman al-  
di artan bere buru Jangoico-  
guizon guci-gucia, ta comuni-  
niarzen denaren apaintzac era-  
mian ala.

NI ez naz, ez, era or-  
retaco esquerrac emateco diñ:  
baña ditaco: ditat orretaraco:

nic bein nere gauzac, eta gue-  
ro al ditudan, beste guciac.

ATOZte, bada, JE-  
SUSi orain ederqui esquerrac  
ematera, comunione onetan  
eguin dizquidan, ontart andi-  
ac gatic. ATOZte, nere be-  
guiac; atozte nere beharriac,  
eta atozte nere ezpain--mih-  
ahoac; eta atozte ceren Jau-  
nari agur andi-bat, eta apa-  
muñac eguitera.

ATOZte, nere esfuac,  
atozte nere ezur-zañac, eta atoz-  
zu ere, nere zañetaco odol gu-  
ci gucia, eta betor bacoitza,  
bere eran gure Jaunari esquer-  
rac ematera..

Atoz atoz zu ere, ne-  
re adimentua, nere JESUSi  
nic orain zor d'odan, gucia ni-  
ri zuc eracultera, ta cere era-  
cufte ederonequin nere bihotz:  
hau ongui berotzera, guero  
nic, al dadan, amoretic an-  
dienarequin, maita dezadan ne-  
re Jaun, onen on emalle mai-  
ta guri hau..

ATOZte zuc ere, Ce-  
ruco ANgueru gubiac; atoz-  
te CHerubin jaq matñac, atoz-  
te SERAñ maitaric; eta egui-  
zue zuc ere: ceren esquer-  
ematera..

BAÑA ez gara orretara-  
co zuc, eta ni bacaric aspis:  
ta betoz-gueren lan berean:  
guri:

guri laguntzera , Ceruan arqui-  
tzen diran , PATRIarcac , eta  
PROFETac , ango SANTu San-  
ta guciac ; eta , guciequin batean ,  
gucien ERREguin , ta  
JESUSen Ama Virginia ; bai ta  
Ceruço eguzqui-izarrac ere,  
lurreco lore-belar , itlafoco ar-  
rai , Ceru-lur-aice , ta gauza  
guci guciequin batean.

GUCI guciac , bada,  
bedeica zaitzatela zu , gure  
JESUS maita-garria , nerequin  
batean , ceren ni gana etorri  
nai izandu dezun , etorri zaran

bezala , ta cere etor-aldi onetan  
eguin didazun , ontartea-gatic.

HAU gucia gogoan idu-  
quico dut nic , bai , vici naza-  
ño ; ta gaur-guero vicico naz  
ni , ni gandic ez-pa--cindo-  
az bezala , ta zurequin diar-  
ducadala gogoz , ta bihotzez.

LENago nere lan hau  
ez eguiñaz dut damu ; bai , ta  
hau eguitea eragotzi didaten,  
nere becatuez ere : ta damu  
onec idaroquitzen derezquit  
orain niri , erratera non hitzac :  
NERE JESU-CHRISTO , &c.



## LXXXIV. OTOITZ-GAIA.

### NOLA EGUIN BEHAR DEN AZQUEN COMUNIONEA.

**A**ZQUEN comunionea da,  
bere vicitza onetatic be-  
teraco avian dagoenean , batec  
eguiten duena.

COMUnione guciac ef-  
catzen dute comunia-tzallearen  
animan , adiraci digun , garbie-  
ra , prestatzea , ta apanitza ; ba-  
ña azquenecoac efcatzen du  
hau gucia ; ta efcatzen du , al  
den contuz--ena eguiñaca ;

bada ez dira urrengo comunio-  
nean ateraco , horducoan egui-  
ten diran , utfac ; ez du alabaña  
azquenecoac , urrengoric , eta  
lenecoac atera ditezque beste  
aldiren batean , edo azquene-  
coan.

Utific horduan ez da-  
guigun , goacen orain hordu-  
co lanac ecustera , ta , nola egui-  
ten diran , icastera

## §. I.

AZQUEN ALDIAN COMUNIA-  
tzeco dagoenac, utzi behar di-  
tu gogoz, ta bihotzez  
lurreco gauzac, eta  
a'moac.

**L**URreco gauz anitz ba-  
gue, vici dira anitz emen  
lurrean. GAUZaric ez dutenei  
escarzen die gure Jangoicoac  
azquen comunioraco, gauzen-  
naia, ta gauzetatic etorti oi  
diran atseguin charrac beren  
gogotic uztea.

ONDAfundunac, edo  
lurreco gauz-eguin arquitzen  
diranac, eguin behar dute ori  
gucia? BAI ta gueiago ere.

CER bada?

BEREac ez pa-dira, di-  
tuen, gauza guciac, nori bereac  
ematea; ta gañeracoac, da-  
gozcanari, edo berac ongui deri-  
tzanati.

BAI ondafun-dunac, ill ba-  
ño len, al ba-du, atera behar  
ditu bere zorrac; eta ecin duc-  
nean, eguin behar du bere al  
eguiña, lembait-len oriee atera  
ditzan bere on dorengoac.

ORI harc eguin ondo-  
an, utzico die gañeracoa, utzi-  
behar dienei; ta utzico die, utzi  
behar dien eran, biztu ez de-  
din auciric, edo nai--gaberie  
artzeco-dunen artean. ETA, no-  
ri utzi ez pa-du, eriac, edo bal-

din ba-du cer utzi bere gogara,  
utzico du vide onez, ta bere  
Jaunari atseguin eguiñen dion,  
eran.

HAU zuc eguin ondoan,  
quenduco dezu cere gogo gu-  
cia lurreco gauz-etatic, eta gal-  
vide guci-etatic; eta alico zara-  
zu cere animaco gauzac zu-  
centzen, cere Jauna-requin zu-  
cere eriotzan ongui gueldi-  
tzeco.

BURUac hordu hartan  
laguntzen ba-dizu, ta artaraco  
zaudela zu, gogoraco dituzu  
zuc cere vicico charqueri, ta  
oben culpa guciac, edo al di-  
tuzunac. Ecañico dezu guero  
oriei cegoten seculaco fu-lecea.  
ECUlico dezu, zure Jangoi-  
coa zutaz ez urricaltzera, ara-  
beharrac cñalá zu, ta an-quis-  
quiltzen, ta errerzen beti, ta  
beti egon beharra. ECUlico de-  
zu cem-andia den zure Jangoi-  
co maita-garriaren ontafuna, ta,  
ceren ecin-obeá den zure Jan-  
goico maita-garria, ematen di-  
zula zuri hasi hau gucia, cere  
damuz, cere confelsionez, ta  
Jangoico beraren gracia-requin  
cere oben-culpa guciac urra-  
tzeco.

IZUturic guero zu ce-  
re becatuen itxustafunaz, oriee  
dagozten, neque-vici arrigarriez,  
ta zuc cere Jaunari cere oben-  
cul-

**T**ulpequin enian izandu diozun, aser videaz, jarrico zara naiez, ta gogoz, cere **JESU**Sen oñetan, ta efcaruco diozu cere **Jangoico** berari, bera guizon eguin cenic, ill-arteco dem-bora gucian eraman izandu cituen, neque tormentuac gatic, eta bere ontasun emalle andia gatic, urrical daquizula zuri hordu hartan, ta dizula hordurañoco cere uts gucien **barcanentua**, ta berritic eguin **bague**, iltzeco gracia.

**ERRAIN** diozcatzu **guero** cere confesariari alic zuzenena cere uts, eta culpaguciac; eta emain diozu confesari berari erraten dizun, gucia zucen, eguitemo hitza; ta emain diozu cere hitz hau, etfai galgarriaren tenta-erac, eta araguiaren naicunde macur **guciac** garaitzeco asmoan.

**HAU** gucia, bere aintz neque **bague**, eguiten du hordu hartan, len maiz confesatzaera oitua dagoen eriac; len bere confesione generala bein, ta berriz eguina daducan, eriac; leneco vicitza charra utzitic, contuz bere gauzac eguin oi cituen, eriac; eta calteric eguin **bague** bati ere, nori berea ematen ciola, ta hitzez, ta lanez, behatzean arquitzen, ciranci lagundu izandu dien, eriac.

III

**ERA** onetan vici ez den becataria, anitz nequetan arquitzen da, dio **San AGUSTINEC** (term. 48. ad Fratr.) azque-neco- bere eritasunean. **SUCARREZ**, ta oñazez daduca gaisoac bere gorpurza. **QUEZCAC** quezquequin, ta tristurac, tristuren gain doazquo horduan bere bihotz erd-illera.

**ERIOAREN** oroitzapenac nasten dio horduan eri gaisoari barren gucia. **ECHECO** gucia, gau illum-bat baño, illunagoac arquitzen dira eri beraren beguietan; ta, cembait beintzat, beren negarra ongui dariela horduan an arquitzen dira.

**BECATARI** bera vici-naiez dago; ta, ez duela cer beldurru, etfaten diote bere laufengariac. **EDARIZ**, odolifurtzez, ta eguiten diozcaren, gaitcequin, fendatu uste du, ta vici, len, bezala eri galduac. **BAÑA** dem-bora berean iltzeco beldur andiac ditu; ta, illondoan, fuleceta beharco due-laco gogamber arrigariac; eta orrembat quezcaren artean, ez du eguiten eri illunduac ongui beintzat, beharren dena, edo eriotz on bateraco bere gauzac prestatzea.

**AH** cer quezcac, eta cer damuac, horduan orrela da-

Tt go-

goen eriac izain oi dituenac!  
 Damuz dago hordu hartan eria,  
 lenagotic ez eguiñaz, eguin  
 behar zuquena, edo lenagotic  
 ez aliaz bere Jannaren Legue-  
 co gauzac zuten eguiten: lena-  
 gotic ez eguiñaz, horduan at-  
 leguin eguinen cioten, gauzac;  
 eta lenagotic ez ferveitatu-mai-  
 tatuaz, ferveitatu-maitatu behar  
 zuen, eran bere Jangoico mai-  
 ta-garria.

ETORtzen zaio noiz-  
 bait eri gaisoari, hau eguiten,  
 aſi nai iduri bat; baña illun-  
 tzen diote bihorza leneco bere  
 becatuac, eta bere etſai gais-  
 toac.

ADIRAZten diote, be-  
 re etſai oriec, berandu dela or-  
 retaraco, ez dela orretaraco  
 faſoi ona eritafu-necoa; fenda-  
 tzen denean, aſico dela bere lan  
 on orietan. ETA orretan doa-  
 quio dembora, eguin behar due-  
 nic, eguiten ez duela, beintzat  
 behar den eran; ta, norc daqui,  
 nola bucatzen duen bere vi-  
 ci-era.

GAIZqui buca ez de-  
 zazun zuc cerea, ta utz ditza-  
 tzun zuc cere azquen eritafu-  
 nean lurreco cere gauzac, era  
 aſino char galgari guciac, egui-  
 zu gaurdanic zuc, cere JESUS  
 maita-garriac orretaco gucioi  
 eracusten diguna

CER ote?

IRUR gauza. Lemb'a  
 cicoa da ongui loturic gu gue-  
 roc ibiltzea: *sunt lumbi vestri pra-*  
*cinti*: edo guc gueren behar-  
 riac adimentu-bihorzac, eta  
 gorputz-animac vide galgari-  
 etatic mugaz, ta lembait-len  
 quentzeasta vide onez, ta virtu-  
 tez oriec berac guc erabiltzea,  
 nai duten, gauza gaitoric beia  
 ere uzten ez zaiela gure aztu-  
 ra, ta pafione ci-juin-garrieis;  
 ta videnabar eme-emequi, ta  
 gure Jaunaren icenean erama-  
 ten ditugula gueren gurutzea,  
 ta gueren neque guciac.

Bigarren lecuan, guc,  
 eriotz on bana erdisteco, eguin  
 behar dugun, gauza da gue-  
 ren arguia guc escuan dugula,  
 ibiltzea: *& lucerna ardentes in*  
*manibus vestris*: edo maiz guc  
 gueren gogora ecartzea, ez di-  
 tuela gure Jaunac bein ere gu  
 gandic quentzen amoriozco be-  
 re beguiac, beguita dago-quizu-  
 la beri, hordua datorrenean,  
 guri gueren gauzac aguertzeco;  
 ta, ori-eraraco beharco dugun,  
 beraren laguntza, guc nai du-  
 gula, berac guri emateco: fu-  
 lececo nequeen beldurrac, eta  
 gure Cerura naiac eraman gai-  
 tzaten gu, gueren gauzac zu-  
 cen eguitera, ta gure Jangoico  
 maita-garria cinez maitatzera,

ETA

ETA AZQUIneco le-  
cuan guc orretaraco eguin be-  
har dugun , gauza da , urte  
gucian , egun-oro , ta eguna-  
ren hordu bacoitzean gogoan  
guc erabiltzea gure ill-beharra ;  
ta gure eriotzari darraicon  
contu izu-garria ; ori guc gaiz-  
qui emateco , beldurac era-  
man gaitzan gu gueren gau-  
zac zucen eguitera ; edo egui-  
tera , gueren eriotzeco horduan  
guc naico dugun bezala , ta  
gueren erioac , ohaitu cabean  
bezala gu bucatua-garic , on-  
gui prestatuac arqui gaitzaquen  
eran : *Et vos similes hominibus ex-  
pectantibus Dominum suum.* Luc.  
12. 35.

IRUR gauz oriee zuc  
garai onez eguitera , ez dira  
anitz sartuco , ez , lureco gau-  
za galgarietan zure gogo-af-  
moac ; eta aisa zuc andic quen-  
duco dituzu azqueneco cere  
eri-tafunean , horduan zuc cere  
bihotza ongui prestatzeco az-  
quen cere comunionera.

AH cer atleguin con-  
tentua , cere lan onetan mugaz  
afiaz , zuc hordu hartan artu-  
co dezuna ! ETA ah cer atfe-  
cabea , horduan zuc artu be-  
harra , garai onez zu ez aste-  
ra orain ecusten dugun , zure  
presta-eran !

ATSEcabe hau nai dezu.

zuc , edo atleguin-contentu  
hura cere azquen hordu ar-  
taraco ? ZURE escuan arqui-  
tzen dira bata , ta bestea : ta,  
hordu hartaco atleguin aldera  
zu itzulzera , prest arquitzen da  
gure JESUS maita-garria , har-  
taraco videan , edo , hura ecar-  
ri oi duten , gauz onetan zuri  
laguntzeco.

ALDE onetara itzulico  
zara zu , bai , zuc centzuric  
izatera : ta zori onecoa zu , ala  
zuc eguitera , irauten ba dezu  
orretan zuc cere ill-arteco dem-  
boran ; bada onac izain dira  
horduan , ta zure Jaunaren be-  
guietan guztiz ederrac , hor-  
duco zure comunionea , ta  
zure eriotza.

§. II.

AZQUEN ALDIAN COMU-  
niatzeco dagoenac eguin  
behar dituen , gaitera-  
co gauzac.

LURreco gogo afmoac alde  
bat utzi , ta damuzco-  
confessione garbi on bat eguin  
ondoan , itzeco dagoen , eriac  
itzuli behar ditu animaco bere  
beguiac bere JESUS maita-gar-  
ri SACRAMentatua gana , Eli-  
zatic hau datorquioneco , al  
duen , onguiena bere gauzac  
prestatzeco :

ERI gaisoac ecusten du  
bere burua hordu hartaraco

Tt2 len

lea cenetic dena mudatua , ta lurrez , ta loiez beteric arquitzzen den , zacu baten eran.

ECIN iguitu da gueroz batetic bestera eri gaiso hau, ez-pa-da bésteren baten escuz, edo bere neque andia-requin.

BURUco miñez dago beti , ta bere beguiac ecin jaso dituela. ERRAiac fucarrez erretzen daduzca ; ta bular gucia carcaisez betea. ERDI-illa dirudi bere burutic oñetaraño, ta aur batec adiña indar ez daducala dago. ECIN valiatu da bere escuz, nai bezala, beintzat; eta Jangoico berac daqui, nola dabillen horduco haren garbi-tatuna.

ERI gueienen echeac charrac dira : orien guelac echeen eracoac ; eta guelataco gauzac , eta ohatzea ez aguitz obeac.

ONA nola , ta non arquite oi diran eric gueienac, beren Jaun andia azquenic artu behar duten demboran !

BERE Jaun andi hau artzeco dagoen eriac , ecusi behar du hau gucia , aisa aldaratu nai ba-du bere gogo lurreco gauza chat guci-etatic, eta , hau harc eguin ondoan , itzuli behar ditu bere gogo-bihotzac, ar gana datorren, bere Jaun andia gana , ta cebait hasti-requin oni

harc beguiratzera, gueldituco da eri gaisoa arrituaren eran : ta erraten duela : GAUZAREN arigarria ! JANGOICO guizon bat or ALDARECO gure SACRAMENTUAN ; eta or hura ni gana etortzeco ! HURA ; ta ni gana ? CERUCO pillare , ta Aingueru guciac errespetuz icarra daduzca , SACRAMENTU orretan arquitzzen den , nere Jaun andi orrec ; eta ala ere ni gana etortzeco dago orain Jaun andi hau ?

ECER ez bat bezala izan ni nere Jaun andi onen aldean ; ta orain ecer-ezagoa nere eritafuna-requin , ta ni na goen , ustel videan ; ta ala ere ni ganaco avian Jaun andi hau ALDARECO bere SACRAMENTUAN ?

ETZENEQUIEN zuc , nere JESUS maita-garria ( erran dezaque eriac guero), nor nintzan ni, ta nolacoa nere demboran ? EZ daquizu zuc cembat aldiz ci-quindu dudan nic nere bihotz hau nere oben culpequin , ta ambat nere uts-becatu arrigarriri-requin ?

NERE becatu bacoitza-ri cegocana cen feculaco fulecea ; ta gucientzat ceuden an, norc-daqui, cembat neque-urratze , ta tormentu !

EZ daquit oraindic ni eguin-

eguin-oté dudan, edo ez, zu  
gandic nic nere becatu orien  
barcamentua erdisteco, diña; ta,  
eguin ba-dut ere, zure etfai go-  
gor gaitso bat izandua naz ni,  
ta zure ontart andi hau ecia ira-  
baz nezaquena !

AH! baña ez eldu zu ni  
gana nere JESUS maita garria,  
cere artzecoac artzera! ELDU  
zu cere ontasun--andiac ni  
gana zacartziela, ta nitzaz zu on-  
gui, ta guztiz urricalduric! El-  
du ni gana zu, niri nere ne-  
queac arintzera, edo nere ne-  
que oriec arinquigo eramaten,  
niri laguntzera! ELDU zu, ce-  
re Cerura ni gaur zucendu na-  
iez, ta ni gandic zuc nere et-  
faiac aienatzea gatic! ELDU  
zu, cere graciaz nere Anima,  
ta cere amorez nere bihotza,  
nic nai dudala, bete-beteac uz-  
tera! ELDU zu ni gana gaur,  
nere beharric bat ere bague,  
ta nere beharrac, edo gabeac  
zacartziela; bada ni, anitz gau-  
za gabe, ta zure behar andia-  
requin arquitzen naz gaur; eta  
ceren gueiegui zuc niri nai di-  
dazun, da gaurco zure ni gana  
naia!

ZORI oneco humea,  
bada, ni, nic gaur ateratze-  
ra amoriozco, zure etorze one-  
tatic, atera dezaquedana; bada  
ateraco dut nic, nere etfaiac

garaitzeco, nere pasioneac,  
eta nere naicunde guciac ef-  
curatzeco, Ceruraco irabaci  
andiac nic eguitemo, ta eriotz  
on bateraco, beharco dudan,  
guci-gucia.

EZ daquit nic, nere  
JESUS maita-garria, cer eguin  
gaur, zu ni ganatzen zarane-  
an, zuri eguitemo nic al du-  
quedan, ongui etorric one-  
na? ICHUra charrean naduca  
ni gaur orretaraco nere erita-  
funac; ez daude gaur, ez, ne-  
re bihotz hau, ta nere adi-  
mentua, ez eta nere indarrac  
ere, beste cembatec hordu  
onetan eguin cituzten, gauzac  
eguitemo!

CER, uste dezu zuc,  
anitzec eguin zutela gure JE-  
SUS SACRAMentatua-requin,  
beren azqueneco comuione-  
raco JESUS SACRAMentatua  
uste zutenean? San GEROni-  
moc artu izandu zuen hordu  
hartaraco doluzco soñeco bat;  
eta lurrean guero belaunicatu-  
ric, eguin cituen negar andi-  
ac, eta damuzco ofcucaldica  
ongui necatu zuen bere bu-  
larra, bere azquen comuio-  
nea artu baño len.

TOSCANaco Duque  
LORENZO MEDICis, bere so-  
ñecoac arturic, ateta citzaion  
videra, bere echera ceterquion,  
gure



gure JESUS maita-garriari. Eman ciozcan an elquer humil-ederac bere amonozco etorrera gatic ; escatu izandu cion bere uts andi-chiqui gucien barcamuntua ; ta guztiz devotqui comuniatu ondoan , itzuli cen bere ohatzera : an , Santu baten baquea-requin , bere vicia JESUS beraren escuetan uztera.

GUEiago da , lembicigo DAVID ESCOciaco ERREGUEC hordu hartan eguin izandu zuena ; bada , bi Apaitzec laguntzen ciotela , bere oñez joan izandu cen ELizara , an animaren videraco bere jatea , edo azquen comunionea artzera ; ta artu izandu zuen , anitz gauz oa eguin , ta erran ondoan. ETA guero bere eche- ra itzuliric , eta , bere Jauregui-tarrei an , cegozten , gauzac erraten cieztela , ill-cen eme-emequi bere ohatzean..

ETA HUNIADES ceritzan , HUNGariaco guizoa andi bat joan cen hordu hartan ELizara , DAVID onen eran , ta eguin izandu zuen , DAVID onec baño , cerbait guciago ; bada , DAVIDec bezala bere Jauna an artu ez- edic , an bertan guelditu cen APEZ-artean , bere eriotzaren begaira ; ta an bertan ill-ere cen , Apezac otoitz , ta otoitz

ta erregu bere alde ceduzca- tziela.

CEMbat ere den , hau- gucia , etzuten eguin guizon- oriec , gure JESUSi ez dago- can , gauzaric bat-ere. ALA- ere , ez digu hordu orretara- co orrembat escatzen guri gu- re JESUS maita-garriac : hor- duraco guri gure JESUsec es- catzen diguna da , orienaren- eraco devocione batequin , ta , al dugun , humil-tafuna-requin- gueren ohatzean guc hura az- quen comunionean artzea , le- nic escatzen zaiola gure vici- tza gucico utfen barcamentua , ta gu ill artean uts berriric ez- eguiteco gracia. ONEtaraco- prestatuco zara zu horduanalic- onguiena : ta , Elizatic dacar- tenean gure JESUS SACRA- mentatua , ateraco zatzaizca vi- dera zu cere naiez , ta gogoz- JESUS maita-garriari ; ta egui- ñen diozu agur , ta agur ; ta emain diozcatzu bihotz ofoz , ta amore andia-requin cere es- querrac esquerren g- in.

HAU beratu eguiñen- dezu zuc cere JESUS bera ce- re guelan sartzean : ta , nioz- ere baño , cinquiago cere co- munionean cere ahoratzen , ta bularreratzen zaitzunean

HAU gucia zuc era- onetan eguitera , eguiñen dezu ,

ez-gaizqui horduco cere eguiterco hau ; ta anitz irabacico dezu hordu berean , ta eternidade guciraco cere azquen comunionean.

BA-daquizu zuc , nola hau icasi dezaquezun hordu artaraco?

GAUR danichorduraño ongui , ta maiz zu comuniatzten zarala ; ta zu comuniatu aldian , horduco cere comunionea , azquen comunionea bai-liz bezala , zuc eguiten dezula.

ZUC hau ala eguitera, prestatuz prestatu ibillico zazu , aldi hartaco comunioraco , ta aisa zuc , indar guti-requin horduan zu egona gatic , bucatuco dezu comunione hartaraco cere prestaera.

ECUSten dezu zuc , cere gauz hau era onetan zuc eguiteric zuri datorqui-quezun ondafuna ; ta ori zuc ez eguiteric , izan dezaquezun , teculaco caltea.

ARTU , bada , zuc emen bertatic , artaraco cere neurriac , hordu hartan naico dezun bezala : ta ez zuc cere beguiei liluratzten iutzi lurreco gauza char , ta atseguin eroen artean. Ez arren , ez.

\* \* \* \* \*  
\* \* \* \* \*

§. III.

ILTZEN DAGOENAREN COMUNIONE ondoco esquer-rac.

COMUnionea artu ondoan, itlico , edo ertlico ditueriac gorputzeco bere bi beguiac , eta animaco bere beguiequin beguiratuco dio , bere barrenera sartu zaion , JESUS maita-garriari.

ECUfiric guero eri berac , JESUsec bere etortze onetan eguiten dion , ontart arrigarria , eguinen diozca JESUfi bihotzez , ta animaz , al dituen , agur , muñ-eguite , ta esquerrezco siñu guciac ; eta errain dio , hordu berean , MARIA EGYPTziaca deritzan , Santac , SURIOC dionaz , JESUS berati erran izandu ciona , edo , orain Jaina , orain , utzi nazu zuc cere baquez beteric , eta , zuc cerorrec adiracia ceneducan , eran : bada ecusi dute gaur mere beguiac , eta nerequin darducat orain nic , hordu onetan uste nuen , nere JESUS maita-garria. BA daguiquezu nitaz gaurguero zuc , zuc cerorrec nai dezuna ; ta eraman nazaquezu zuc , cerorrec nai dezunean cere gloriara. ARA nalez nago , bai , ta eternidade gucian-an zuri esquerrac esquerren gain emateco , ustean ; ala guerta

ta

ta dedilla , bada ; bai arren, bai.  
 AGUERtuko diozca guero JESUfi eri berac bere flaquiac , ta bere behar-erac, ta gabe guciac; eta errain dio:BA-daculazu zuc , nere JESUS maita-garria , cer eratan arquitzen nazan ni , orain nagoen horduan.

HITZ bat ateratzeco, indarric bague arquitzen naz ni, zuc cerorrec daculazun bezala. BULAR guztiz galdua-requin nago , ta buru erdi nastuarequin. ILLUNduric arquitzen da gaur nere adimentua; ta nere bihotz hau gucia , tristura , ta tristura baicic ez dela !

GUZtiz izugarriac dira gaurco nere etsaiac , eta emen dabilza guciac , ni galdu naiez! LAGUN zaquizquit, bada, nere JESUS maita-garria ; ta errain dut gaur nic , len DAVI-dec cion gauza bati edo, zurequin batean , ni ez nazala bat ere nere etsaien beldur. *Domini nus mihi adiutor , & ego despiciam inimicos meos. Pl. 117. 7.*

BAÑA , Jauna (erran dezoque guero) ; ez daquit cer guerra lequiquedan niri, emen ni luzaro vicitzera , edo fendatzen ba-nintz ni. NIC zu bertiz galtzeco , ez dut nai bat ere fendatu ; emen bertatic igan bai dut nic zure errefumara,edo

zure Cerura , an ni beti , ta beti zu maitatzen egotera. Eta zori gaitoan ez naz ni onetan beti haritu izandu, ni zu ezagutzen asi nintzanetic ! ORRE-tan ni hordutic beti haritzera, ez nintzan ni , ez, orain arqui-tuco , arquitzen nazan bezain, zordun , ta becat-arrastoz bstea!

NERE becat-arrasto, edo nere becatu barcatueta zorrae escatzen dute PURga-torioco anitz su-ta neque , zu nitaz ez urricaltzera. GUZtiz urricaltia zara zu, nere JESUS maita-garria , ta nere urricariz ambat, eta ambat neque eram-cenituen, Jangoico-guizona. ZUC cere neque oriequina irabaci cenuena nere oneraco da , ta nere zorren alde , ni nor banaz , ta nic eguitera , orretaraco zue escatzen dezuna.

ZUC orretaraco nai dezuna , ta nic gaur daguiquedana da , nic zuri humilqui escatzea ; ta escatzen dizut cere urricaltasuna, ta niri, ni nagoen eran eman dezaquedazunas; ta , ba-dut uste , hartatic zue bat ere ucatico ez didazula.

ALA ere, guelditzen diran , zorren alde izan ditezela oraingo nere nequeac, eta emenac nere eriotzeco horduraño eraman behar ditudanac, eta guero ere guelditzen.

zen ba-dira cembait nere be-  
cat-arrasto , edo zor , emen  
nago ni zuc nai dezuna zure  
PURgatorioan eramateco ; ta  
nago an ongui-ongui ni garbitu-  
ric , lembaitlen Ceruan fartu  
naiez ongui betea.

ESQUERRac zuri nere  
JESUS maïta-garria , ceren ecar-  
ri ninduziun zuc cere Legue  
garbira.

SÎNSten ditut nic zu-  
re Legue garbi onec eracusten  
dizquidan , gauza guciac : eta  
damuz nago ni , nic len zucen  
eguin bagueaz , Legue onec ni-  
ri eracutiac : baña dembora  
berean nago , barcatu dizquida-  
tzulaco uftean , ta berriric ez  
eguin nai andia-requin.

MAITE zaitut nic zu,  
nere JESUS maïta-garria; ta mai-  
te zaitut nic munduco beste  
gauza gucién gain; ta beste gau-  
za guci-guciác galduco ni-  
tuque (ta pozic al-ere) nic, ne-  
re maitatze , hau ez galtzea  
gatic. MAItatze berean irauñ nai  
dut nic , vici nazaño ; bai-ta fe-  
cula gucián ere. ALA guerra  
dedilla , nere JESUS maïta-gar-  
ria , bai arren , bai.

I.

*BONA , ET MALA VITA , ET  
mors , paupertas , & honestas à  
Deo sunt. Exod. II.*

**G**AItzac , eta nequeac , gauz  
onac , eta leunac bezala , gu-

re Jaunaren escutic datocen,  
gauzac dira ; ta guci-guciác di-  
ra gure gucién oneraco dato-  
cen , gauzac , guc oriec artze-  
ra , artu behar diran , eran ; ba-  
da munduco gauz on guciác  
dira , oriequin guc gueren bu-  
ruac obetzeco : ta mundu be-  
reco gaizquiác , eta neque go-  
gorrac ere dira , oriec guci ar-  
tzen ditugula gueren obenen  
alde , edo gure JESUsec gu-  
gatic eramán zuenaren icenean,  
izan ditecen gure animen one-  
raco.

AH nic guciác , onac,  
eta gaitzac , edo leunac , eta  
gogorrac artu izandu ba-nitu  
beti-beti nere' on one--taraco!  
CEMbat ondafun ecarrico ci-  
daten niri egungo egun-eraco!

AR ba-nitza nic gaur-  
guero ba-dere , nere ill-arteco  
demboran ! NERE Jangoicoac  
orretaraco niri emanac dira gu-  
ciác ; eta ez , nic oriec gaizqui  
artzeco ; ez eta oriec nic mai-  
tatzeo ere.

NERE behar--etaraco,  
ta behartsu gaitoei nic lagun-  
tzeco , niri nere Jangoico , onac  
emanac dira , nic ditudan , on-  
dafunac , eta gauza guciác . ZO-  
ri oneco humea ni , nic oriec  
orretan erabiltzera , bada egui-  
ten dut nic horduan , nere Jan-  
goico emalleac ni gandic nai

Vv

duc-

duena, ta nere gauzac nere oneraco dira.

ETA behartu ni viciatic noiz-bait, ez dut nic galduco, ez, nere zori on hau, nic horduan eguitera nere JESUS onarena, edo nic horduan eme-emequi, ta nere Jaunaren icenean artzera nere gabea, beharra, ta premia.

NERE Jangoico berarean ecutic dotoz nere vicitza, ta eriotza. ILTZEco jaioc gara mundura gatocenoc; eta gure eriotza da eternidade baten eztatia.

GU ongui iltzera, fartuco gara gu atseguin-pozezco eternidadean; ta egon beharrac gara gueroz gu Aingueru gucien artean, ta gure Jaunaren glorian. ZORI oneco! humeac gu, azquenean gu arazten ba-gara!

ARA naiez ote zaude zu nere anima? UTZI, bada, bertatic zuc cere gaizquiatic, eta gaitz--vide macurrac. EGUIN gaur-guero zuc gauz onac, eta contuzco lanac; eta, gaizquitzen zaranean zu, erne, ta contu, aldi hartaco cere gauzac ongui zucenzeco, ta beharden, eran, ta horduz Elizaco gauzac artzeco.

HAU zuc ez eguitera, era gaitoan artuco zaitu zu

cere erioac, eta galduco zaita zu secula guciraco,

ZORI gaitoan jaioc, era onetan, berac bere burua galdu nai duena! ETZA itecelazan zu zori orretaco-etatic: ez arren, ez.

2.

OCULI OMNIUM IN TE SPERANT Domine, & tu das esciam illorum in tempore oportuno. Ps.

144.

CEIN maitaria zaran zu, gure Jangoicoa, ta dembora berean zu cein maitagarria! ZURE beguira gaudegu, edo zure behar-ecin andiagoan, munduan garan, gucioc! ZU-gatic ez-izatera, ez guenuque guc mundu gucian deus-ere; eta, zuc ez iduquitzera gu, gu bertan illac guentzazque, ta bat ere atfic bague.

BAÑA viciric gaduzcartzu zuc, zuc cerorrec daquitzun, horduraño; ta ematen diguzu guri zuc, guc artaraco beharco duguna, edo beharco dugunaren irabaz vide; ta ematen diguzu guri ori gucia, guri ongui naiez.

EZ gara gu, ez illarterañoocoac, centzuric bagueco ganadu-arrai-egaztiatic bezala. ILLtzen ez dena da gure Anima; ta, bein illa gatic, viztucoda

da

da guero gure gorputza; ta gorputz, eta Anima vici beharrac gara gu eternidade guci-gucian, edo beti, ta beti.

GUEROco vicitz on bat irabazten, laguntzen diguzu zuc, gure Jangoico maitagarria, guc guero nai dugula. EMAten dizquigutzu guri zuc, guc behar ditugun demboran, cere gogarguiac, eta gure bihotzen uqui-erac, eta, guc nai dugunean, cere SACRAMentu-etaco jan edanac; bai ta, gucien gucieni beintzat, azqueneco eritasunean ere; bada guti dira, ELIZacoac bague iltzen diran, Christioac.

ECUSten dezu, guztiz on maita-garria dela gure JESUS, gurequin berac gure vicitzan eguiten duen, gucia gatic; eta ez gutiago azqueneco bere etortze-one gatic.

GAUZA arri-garria! Jangoico guizon, Aita eternoaren escoi-aldean gloriac beteric dagoena edocin eri-char galduren echera, guelara, ahora, ta bular ciquinera bere SACRAMentuan, eri gaifoari bere nequeac emequi eramaten laguntzera, eri berari bere gracia, ta doaiac ematera, illunduric daducan, bere bihotzarrintzera, beraren etsaiei indar-

rac quentzera, ta penatzen duten, bere pasioneac escuratzerara? EGUIN lezaque JESUsec onen laurdenic ere, JESUsec berac eri gaifoai guztiz ongui ez-nai izatera?

AH gure JESUS maita-garria, ta nola prestatu oi dira eri gucienac, aldi orretan gu artzeco?

EZ nosqui, ez, behar den bezala! ANITZ eri icaratzten dira, aditu horduco, artzeco daudela zu.

CER gatic, ori orrela?

CEREN ezagutzen duten, ez vide dela urrun orien eriotza; ta aguitz beldur diran, emen gaizqui ill ondoan, galduco dirala eternidade guciraco.

HORDU hartan ongui prestatzen diranac, izan oi dira, len maiz, eta behar cen, eran comuniatzen ciranac. ORIDA, nic hartaraco gaur-guero eguin uste dudana. ALA guerta dedilla, bada; bai arren, bai.

3.

HEU MIHI, *QUIA INCOLATUS  
meus prolongatus est!* Pf. 119.5.

AY ene! erraten zuen DAVIden erian, emengo ezer-eza, ta Ceruco gauzen ona, ta edertasuna eza-

gu-

gutzen dutenac : AY ene! ta cein lucea den, emengo nere ego-era, ta nequezco vicitza! NOIZ bucatu beharrac ote dira emengo nere egunac? NOIZ artean irauin behar ote dute, emengo nere nequeac, emengo nere quezcac, eta emengo nere nai-gabeac?

GOGOra datoz-quidanean niri Ceru hartaco atieguin-pozac, ango AINgueruac, eta an zuc, nere Jangoico alfüru-maita-garriac, cereei aguertzen diezun, zure edertafuna, beguitan ematen didate niri emengo gauza guciac; eta ara naiez-ta-naiez nago ni, nere gogoracio hau aitu arte gucian!

EGUIA da, bai ditudala noicean-bein nic nere gogamberrac, nere quezcac, eta nere naigabeac ere, nere ill beharra niri gogoratzen zaidanean; baña ez datoz oriec, ez, nere emen guelditu-naieric; eriotzaren ondorengo contu-etatic datoz oriec; ez daquit alabaña nic nola arqurizen garan orietan zu ta ni bioc.

NIC orain daquidan gucia da, damaturic nagoela ni orain--dañoco nere utiez, ta becatu guciez; ta becatu ber-

ritic ez eguiteco, almoan, zu bezain Jaun on maita-garriari atsecaberit ez eman naiez; ta era orretan arqurizen denari barcatu oi diozcatzula zuc bere leneco becatu guciac.

BA-daquit befteric-erenic, bai, nere JESUS maita-garria; bada ba-daquit, etorri zarala zu, ni nagoen guelara, ta nere bular berera, egonic ni, nagoen eran, eni, ta era char ecin galduago onetan.


ETA certara etorri behar centuen zuc onara, ez-pazzen, beguitan nic arturic neduzcan, nere culpac barcatzera, cere graci anitz niri ematera, ta cere Ceruraco ni emen marcaturic uztera?

USTE orretan vicico naz ni, vici nazaño, ta beti zu gannaco nai andia-requin.

NERE nai hau ere zuc cerrorec niri gaur emanicao da nere JESUS maita-garria, ta ni zuc ceretzat naducazulaco siñua.

INDAzu zuc, ni nere siñu onequin iltzeco gracia, ta orain-dañoco nere uts guciac beguitan arturic, vicitzecoa. ORI orain nic erditü naiez, erratera noa, al dadan damugiciarequin: NERE JESU-CHRISTO, &c.





## LXXXV. OTOITZ-GAIA.

## COMUNIONE GAISTOAREN ITSUS-TASUNA.

**C**OMUnionera gu zuten-  
erazteco dira, orain-da-  
ñocoan gac ecusi ditugun, co-  
munione bereco gauz andiac,  
eta comunione on-etic gac ate-  
ra ditzaquegun, graciaç, do-  
iac, virtuteac, indarrac, eta  
ondafun andiac: eta oriec gac  
galtzen ditugula fulececo izur-  
tiz, edo becatuaren pozoiez

beteac gu gueldi ez gaitecen,  
gu comuniatzen garan aldie-  
tan, orain gac ecusi behar di-  
tugu comunione gaistoco itufu-  
tasuna, ta gaizqui comuniatzen  
diranen calteac, calte orien bel-  
durrac, eta comunione oneco  
ondafunac eraman gaitzaten gu  
gure comunione oneco presta-  
ciora.

§. I.

GAIZQUI COMUNIATZEN DENAC EMATEN DIOZCA.

JESUſi prefontegui bat, eta cate guztiz gaistoac.

I.

**C**OMUnione gaistoa da,  
ALDareco SACRAMen-  
tua zue gaizqui artzea; edo  
zue hau artzea, becatuaren ba-  
tzuec, edo edocein becatu lar-  
ri confeslatu bague, edo hura  
zue confeslatua gatic, confes-  
latzea, naiez, ta go goz uzten  
ez dezula.

BA-daquizu zue, nor  
ote den becatua bere gogoan,  
edo bihotzean dadacala, co-  
muniatzen den, guizona, edo  
emaztequia?

III.

ORI da, hartarutzen  
den, edocein, bere becatua  
beguitan artzen ez duela, izan-  
nic haren lan itufu hau gure  
Jangoico maita-garrinari eguin  
daquiqueon videgaberie andie-  
na: ta vide gabe, seculaco fu-  
lecea zor zatona: ori da alaba-  
ña hura comuniatzea, becatu  
berriic berriz ez eguiteco af-  
moric bague, becatu berrien  
videtic hanc bere burua atera  
nai ez duela, edo hanc bere az-  
tura gaistoc garatzeco, ta be-

Xx

re.



re pasioneac escuratzeco, eguin behar duenic eguin-gogo ez du-ela ; ta era orretau bat comuni-  
 atzea da , harc berac gure Jangoico maita--garriaz hita, ta irri eguitea , edo , oguizco Jaun bat bailiz baño , guciago harc bere Jangoicoari ez be-  
 guiratzea ; ta eguin dezaquen, gauzaric itfusien-etatic bat harc eguitea.

CER gatic ufte dezu ?

CEREN fartzen duen edertafun utla loi-teguiric an-  
 dienean , edo munduan den, lecuric ciquin-enean ; ta ceren dembora berean lotzen dioz-  
 can , bazterric bagueco JESUS-  
 en amoreari bere escuac , on-  
 guiric ez eguiteco,comuniatzen den , lotzalle becatariari.

SARTzen du beraz gaizqui comuniatzen den , becatariac edertafun utfa , loi-tegui , ta lecu orren ciquinean ?

BAI, nere anima ; bai eguiaqui , bai !

CER edertafun ote da comunia-tzalle becatariac , era itfusi onetan dacarren , edertafun uts hau ?

ALDARECO SACRAMen-tuan gorderic arquitzen den, eder-tafuna , edo gure Jangoi-co guizon JESUS maita-garria-  
 rena.

GURE JESUSEn guiza-

tafuna da , aguertu den , gui-zatafunic ederrena : ba-du ala-baña , bere edertafunaren gain, dituen , graci andiac , eta Ce-ruco douac eman dezaquen, edertafun guci-gucia ; bai, ta neurric ez duen , JESUS be-raren Jangoico-tafunaren edertafuna-ere.

ECUfi zazu , andia den, ta uts utfa , edo utfic bague-coa , comuniatzen denac artzen duen , edertafuna !

NORAtzen ote dut nic, ni comuniatzen nazanetan (gaizgui comuniatzen ba-naz ni) gure JESUS maita-garria-  
 rea edertafun hau gucia ?

BECATu loiez nic ci-  
 quindua daducadan , nere bar-  
 ren onetara.

CER lecu, edo cer to-  
 qui ote da nere barreneco to-  
 qui, edo lecu char hau ?

GURE Jangoico guizo-  
 naren beguic-taraco , ta onen eder-tafuna-rentzat , ori da , ar-  
 quitzen den , ta afma ditequen, toguiric itfusiena , ta gaistoena.

HEREge batzuec eman  
 cioten bein comunionea , edo  
 hosti contagratu bat zapo-tzar  
 itfusi ciquin andi bati. NOLA  
 egoin ote cen zapo itfusi ha-  
 ren fabel loi lizon ustelean gu-  
 re JESUS maita-garria ? NOLA?

ZUREán baño, milletan obequia-  
 go,

go, cumunionetic becatara, ta becatutic comunionera dabil-tzan-etatic, edo guzqui co-muniatzen diranetatic bat ba-za-ra zu.

ERA orretaco zapo-tzarren, BEHEMOTH animali izugarriaren, LEVIATAN deri-tzan, arrai arri-garriaren, edo den ciquiñen-ciquiñenaren ta-belean pozic tartuco lizaque gure JESUS maita-garria, be-catu larri bacar bat equin ar-quitzen denaren mihia ez uqui-tzea gatic. BAI, ta INFERnu berearen ere, INFERnutic be-catuac quendu ezquero : *aprior planè locus Deo esset Infernus, si culpe non essent, quam domus pec-catrix* Paul. Pelag. in Matth.

HAU onela da, zuc, guec baño, milletan obequi da-quizun bezala, gure JESUS maita-garria; ta comuniatu naz ni, nic neronec daquidan adi-ñetan, nere aztura gaitoac nic utzi bague, becatu berriac be-catuen gain nic eguiten ni-tuela, ta behar bezalaco da-muric beintzat, edo on-zeco-gogoric eriamaten ez dutenen-eran!

ETA ala ere ez nintzan lotfáz, beldurrez, ta icaraz erd-illa erori ni zu artzeracoan? GAUZ arrigarria!

ITSU! beltza ba-cegoen

len nere anima, beltz-itonia-go, ta agutz al ere guelditu cen nere anima bera, nic zu, ne-re JESUS maita-garria gaizqui artu ondoan: bada guelditu cen, len baño becatu, gueciagorequin; ta, cembat becatu gueciago da-ducen animac, ambat andiagoa da, anima beraren beltztafun itfusial!

CER eguin ote nezaque nic, nere JESUS maita garria, nere beltztafun hau utzi, ta ani-ma garbi-ederra-requin artze-co nic zu, gaur guero nere co-munione-etan?

DAMUZco confesione oso, edo general bat, vicitza berri zucen-zucen bat, eta con-fessari on jaquintzu batec adi-razten dizquitzun, gauzac.

NAI dut, bada, nic hau gucia zure icenean, nere JE-SUS maita-garria; ta pozic egui-ñen dut, ez egurea gatic gaur-guero nic, comunione gaitoac bat bezain gauz itfusi galgar-riac.

## II.

ONGUI eguiñen dezu zuc, bai nere anima; bada ba-du comunione gaitoac beste itfustafun bat ere.

CEIN ote?

GURE JESUSen amo-reari bere escuac lotzetic da-torquiona.

Xx2

BAI

BAI, comunione gaiftoac lotzen diozca, gure amorez beteric dagoen, gure JESUS maita-garriari bere escuac, bere ontart andi-etatic bacar bat ere ez eguiteco, gaizqui comuniatzzen den, animari.

GURE JESUS maita-garria guelditu cen ALDARECO bere SACRAMENTUAN, bere Aitari atseguin eguitea gatic gure comunione oa-equin, ta videnabar gu bere ondafunez bete naiez; eta, gaizqui comuniatzzen den, becatariac ez dio beinic-bein atseguinic eguiten bat ere Aita eternoari, ta, hari ori eguin beharrean, atsecabe-videtac ematen diozca orren horduco comunioneac: eta becatari berac, JESUSEN ondafunac artu lecuac, JESUS bera gaudic artzen du bere calte guttiz izu-garri bat; bada bere comunione berean eguiten du becatu berri bat; eta bere becatuz uzten du aguitz galdua bere burua; ta dembora berean uzten ditu gure JESUSEN escuac, cate batequin lotnac bezala; ta uzten du JESUS maita-garria naigabezco videan; bada guttiz maitaria da JESUS maita-garria, comuniatzzen dena maitatu, ta ondafunez bere naiez dago ALDARECO bere SACRAMENTUAN, ta becatariac be-

re comunione gaiftoa--requin eragozten diozca JESUti bata, ta bestea; ta, beharturic uzten du JESUS, becatari bera beguitan arturic, haren barren ciquin itlusian, beraren comunioneCO demboran gueldi-gueldiric egotera.

GURE JESUS maita-garria; ta zure onegui! ORREN gaizqui zaduzcatzien, becatari esquer-gabe ciquin baten barrenean egoin cinaque zu, SACRAMENTUAC diraua adina demboraz?

BOTA bequio cerbait ur, goritua dagoen, burdia, edo metal bati, ta, cein ere astuna den, jauquico da, bera datzan toquitic, edo gutienean asico da cijzca, ta cijzca, edo erriertan bezala, ta azque-nean gueldituco da irañez, edo iraz betea dirudiela; ta asarra dariola: ta zu, gure JESUS maita-garria, bazterric bagueco amorez futuric zaude ALDARECO cere SACRAMENTUAN: gaizqui comuniatzzen denac ematen dizu zuri, bere barreneratzean, bere becatuen ur loa-requin; ta ala ere ifsillifsillie zaude zu, ta or gueldi-gueldia?

ORI da gure JESUS onac eguin oi duena; baña noiz edo noiz eguiten du be-

teric ere, edo eguiten du lurpeco aiceac cembait aldiz eguiten duena.

LURpeco lecéac, edo urez, edo aicez beteac dau-de. GUELdiric dago ango aice hau, an bere lecuán, guel-diric uzten dutenean; baña gueisè-eguiertitzen, edo estutzè dutenean, aferretzen da lurpeco aice gucia, ta bere gañetic aienatzen ditu, an arquitzen diran, echeac, aitzac, edo mendiac, eta billatzen du nombait bere aisa egon toquia.

MENDI-peco aice estutua baño, aguitz gaizquia-go arquitzen da gure JESUS maita-garria, gaizqui comuniatzen denaren barrenean arquitzen denean; ta cembait aldiz eguin ditu, aicearenac bezain, gauz arrigarriac.

ORIEtatic da AMIAN deritzan, erico San REMI-gioren Elizan guertatua. Emen bat onela comuniatu ceneco, arquitu cen bere errai-etaco oñace ecin-andiago-equin, odolez benericaco afarra ceriola; ta, guizon amurratu baten eran iraulca cebillela, anitz bere odolen artean aurtiqui zuen Hosti-Santua. Apud. Daurout. v. Euch.

ECUSten dezu? EZ da bai-ta-ez gauz itfusi galgarria,

onelaco lanac JESUS maita-garriari eraguin diozcan, comunionea?

ECIN eguin lezaque JESUSec, zurequin ere orrelaco gauzaren bat, edo beste, zuc cère JESUS gaizqui artzera? ZU ez ongui comuniatzera? ETA eguiten ba-du?

AY ene! galdua ni eternidade guciraco.

BAÑA, ez, nere JESUS maita-garria, ez: ez dizut nic eman ufte era orretaco videric bat ere. NI prestatuco naz, bai; ta alic onguien-onguiena nere comunione-etaraco. NIC eguinen dut lembaitlen confesione general-oso bat, edo CONFESari on jaquintfuiac niri adirazten didana. NIC utzico ditut orain-dañoco nere galvideac; eguinen ditut nic, comunioneeco prestatze on batec escatzen dituen, gauzac; eta ni ganatzen zaranean zu, nic utzico diot zure bihotz maitariari, maitatzen ni, zuc ni adaña, ta ni zuc cere ondafunez betetzen. ALA guerra dedilla; bai arren, bai.



## §. II.

JESUSEN NEQUE TORMENTUAC berritze bat bezala da becataria gaizqui comuniatzea.

## I.

**G**AIZqui comuniatzen denac eguiten ditu, len JESUSEC eramian cituen, neque tormentuen idurico, edo aintzuraco gauzac: eta gure JESUSEN horduco PASsionea dirudi becatariaren oraingo comunione gaiftoac.

EDOcein becatu larric berriz berez gurutze-ratzen du gure JESUS maita-garria, dio SAN PABLO: *rursum crucifigemes... I lum Dei* (Hebr. 6. 6.); ta beste edocin becatuc bezain, zucen, edo zucenago eguiten ditu ori, ta beste anitz JESUS ona requico lan gaifto, gaizqui comuniatzen denaren becatuac.

ORI orain guc ecusteco, ecus dezagun, bere PASsioneco demboran JESUSi eguin ciotena, ta gaizqui comuniatzen den, becatariac gure JESUSi eguiten diona.

GETSEmanico baratzean lotu zutenetic, ill arteco bere dembora gucian eguin eozcaten JESUS maita-garriari Judatar gogotrac, eta orien BORREroac, norc daqui, cem-

bat hista, ta burla. ARRIGarriac izandu ciran guciac; eta lembicicoen artean Borrero be-rac PILATofen Echean eguin ciozcatenac, ERREGue erotaco artzen zutela.

EMAN cioten an oricgure JESUS maita-garriari soneco tzar gorri guttiz zartu bat. EZARri cioten bere buruan arantzezco Coroa, ta escuetan cañebera utfa. LOTU ciozcaten, ta esali bere beguiac; eta JESUSEN Borrero beretatic bein bata, ta bein bestea belaunicatzen cirala, erran izandu cioten, bein AGUR ERREGUE ANDIA, ta guero beren mihira cetorquien charqueri guci-gucia; ta bete cioten vide-nabar, litzuz, ta escu-caldiz arpegui gucia, ta cañabera-golpez bere burua.

ECUSten dezu? BADA orren iduricoa da, gaizqui comuniatzen denac, bera confesfatzean JESUSi eguin oi diona.

CONFESTariaren onetaratzean, eguiten dio JESUS maita-garriari, gaizqui comuniatzen denac bere agur-era; erraten dio NI BECATARIA; ta erraten ditu guero bere becatuac; baña ez guciac, edo ez behar bezala, edo ez, behar den, damua-requin, edo ez arturic, becatuac, eta becatu

videac uzteco asmoa ; ta orre gatic orren confelsionea , listu ciquinez gure JESUS loitzea da ; ta bere bihotzari bular gāñetic ematen diozcan , elcucaldiac , edo golpeac bistazco , ta irrizco gauzac dira ; ta JESUS onaren-daco atsecabe-videac , eta golpe char , edo ucal-di galduac.

AH cer asiera , gaizqui comunitarzen denaren , asiera char hau ! ETA ez ote da cem-bait aldiz beintzat izandu gui-ta berecoa nerea ?

II.

OSTEgun Santuco JESUSen afarira cen JUDAS gaif-toa , gañeraco APOSTOLU-equin batean ; ta hura an ecuf-teac nastu ciozcan JESUñi be-re errai gūciac ; eta , ONA , ona , erran zuten , naigabez be-tericaco baten eran ; ONA , zu-etic bat ni faltzeco asmoan , ta ala ere nerequin , nere ma-ian ! *turbatus est spiritus , & pro-teritus est... quia unus ex vobis tradet me* ( Joan. 13. 21 ).

ETA ontzeco asmorric bague , ca gaizqui confeslatu den , bat nola urbiltzen ote da comunio-reguira ?

NOLA , baicic amo-rioz doanaren eran ; baña Ju-dasen bihotz gogorra-requin ; ta gure Jaunaren LEGUEac

diona zuten eguiteco , edo be-re pasioneac elcuratzeco , ta eraguin behar diezten , nequez-co lan gūciac eraguiteco , asmo-sonic artu-gabe.

ALA urbildu oi dira , comunitatu ondoan , len beza-la , ta len , ta guero gaizqui vici diranac ; bada orien ontze-co asmoac , asmo-iduriac izan oi dira , ez cinzeco asmoac ; eta , asmo-iduri utla-requin ur-biltzen diranac JESUSen AL-DARECO maira , beren ustez , on-gui urbildua gatic , urbiltzen dira , JUDAsen eran , ta JESUSen atsecabezco videac berritzera.

ECUñi zazu , izandu za-ran ori-etic bat zu ere ; eta beguira etorquizunean.

ETA era orretan co-munioneco maira urbiltzea bat orren gauz icara-garria ba-da gure JESUS onarentzat , cer izain ote da , era orretan ur-biltzen denaren comunione bera ?

ALDAmenean , edo be-re gandic ez urruti JUDAS eculleac nastu ba-cituen gure JESUSen erraiac , nola nastu-co ote ciozcan JUDAsen tripa ciquin becatarian egoteac ?

ETA aldi ohea ote du gure JESUsec , zure barrenera-tzen denean , era berean arquit-zen ba-zara zu , edo JUDA-

sec

lec FARISEO-tzarrei bezala, zuc cere pasione galgariei, ta-naicunde macur ciquinei JESUS faltzeco alimoan?

ORRA cer lana horduco zure lan ori ere ! ORRA cer gure JESUSEn nequeen berritzea ! LENAC baño.ere , aguitz gaistoagoa ! BAI segurqui , bai!

III.

CERTaco faldu ote cien gure JESUS maita-garria JUDALec ESCRIBA-tzar , ta FARISEO arroei ?

AZOT-ucaldiz, ta golpez urratu , ta gurutze batean joliric uzteco.

ETA certaco faltzen ote die JESUS bera gaizqui comunitatzen denac bere pasione atseguin-zale-futuei ?

JESUSEn neque-vide berac berritzeco. BAI; beinicbein berritzen du , gaizqui comunitatzen denac JESUSEn azot-ucaldizco neque. videa , bere gorputzari eguiten diozcan , bere atseguin loiequin; ta , loi ori-equin arkitzen dela , eguiten duen , comunione galdu ciquina-requin.

HAU guri adiraztea gatic aguertu da JESUS , bein baño , gueiagotan CORPUS-Christuz , gorpuz guztia zauriz , zuloz , ta odolez betea cecarrela , arantzezco Coro bat be-

re buruan zuela , bere bituritic odola ceriola , ta oial-tzar gorri batez erdi estalia.

DOÑA Sancha Carrillo ceritzan, emacume-on-JESUSEn maitatzalleari , onelaco eran aguerturic , erran izandu cion bein gure JESUS maita-garriac : „ Ona, nere Alaba ; ona , „ certaco diran anitzen comu- „ nioneac , eta dembora one- „ taco orien festac ! NERE ne- „ que-videac berritzeco , ta ni era onetan uzteco !

ECUSTen dezu gaizqui comunitatzen denaren lan gogor hau ? EZ da , bada , bat ere ohea , onen ondoren comunitatzalle gaisto berac eguiten duena.

CER ote ?

BERE JESUS berriz ere bere eran gurutz-eratzeca.

s. III.

BERRIZ GURUTZERATZEN du JESUS gaizqui comuniatzen den, ania.

I.

**B**AI( erraten digu Aposto-luac ) : bai berriz ere gurutzera darama becatari gaistoa bere JESUS maita-garria : *rursum crucifigentes,*

BAÑA cer gurutze-tara?

BERE barrenecora , dio San PABLOC : *crucifigentes sibi-met ipsi filium Dei.* BERE bar-

renean daduca , bai , gaizqui  
comuniatzen den, becatariac be-  
re JESUS maita-garriarentzat  
gututze gogor ardigari bats  
eta, bere gututze oactan gu-  
re JESUS ezartzeco, ta jolte-  
co , beharco duen , gucia.

GURUtzte onen zur  
zucena da bere becatuen co-  
ropilluz beteric arquitzen den,  
anima. GURUtztearen bi be-  
soac dira anima beraren adi-  
mentu itfua , ta nai vide , bi-  
hotz , edo vorondate aguitz  
gogortua.

JESUSen escu-oñe-eta-  
raco iltzeac dira , gaizqui co-  
muniatzen denac , bere escu-  
eiquiñez , ta sartu-atera , edo  
ibillera galduz , eguin izandu  
dituen , gaizquiac.

JESUSen borreroac, ala  
comuniatzen denaren pafsione  
afaldatuac dira. ILTZEac sar-  
tzeco mallua da becatari bera-  
ren gogor-era.

ETA JESUSen bular-  
eraco lantz , edo burdin urra-  
rzallea da becatariaren naicun-  
de vide-gabecoa.

ORRA , bada , non,  
APOSToluac adirazten duen,  
eran uzten duen , gurutzetu-  
ric bezala , bere JESUS maita-  
garia , gaizqui comuniatzen  
den, becatari galdu-gal-garriac.

III

ETA orra non eguiten alien  
becatari berac , Judatar gogor-  
rac len eguin zurena baño , lu  
gaillago bat , dio San AGUS-  
tinec . *mitius peccaverunt Judai  
crucifigentes in terra ambulantes,  
quam qui contemunt in Caelo se-  
dentem* (in pf. 68.)

CER gatic uste dezu ?

CEREN Judatar go-  
gorrac ezagutzen etzuten gu-  
re JESUS maita-garia , era or-  
retaco becatari char onec adi-  
ña ; bada , Judatarrac JESUS,  
orrec bezain ongui ezagutzer-  
a, etzuten , ez gurutzeraco , dio  
San PABLOC : *si enim cognovif-  
sent , nunquam Domini gloria cru-  
cifixissent* ( 1. Cor. 2. 8. ).

JESUSen gurutzeco ne-  
que tormentuac izandu citan,  
zuc cerorrec dacufazun bezala,  
JESUSen tormentu , ta neque-  
ric andienac.

ECUSren dezu, JESUS-  
en horduco neque tormentu-  
berac berritzen dituela gaizqui  
comuniatzen den , becatariac;  
eta berritzen dituela , Judatar  
gogorrac baño; aguitz obequia-  
go JESUS ezeguti ezquero;  
ta orre gatic uzten dituela guz-  
tiz mingarriac JESUSen hordu-  
co neque-tormentu guciac.

ANITZ da , bai , ta  
gutziz andia , JESUSen aldi

Yy . . . . . one-



onetaco necaguiro hau , zuc ce-  
rorrec ecusten dezun bezala;  
baña ba da oraindic becataria-  
rea lan-guiro macur onetan  
besteric ere.

JUDAtar gogorrac et-  
zuten gure JESUS gurutzera-  
tu bein baicic : baña gaizqui co-  
munitarzen diranac bere guru-  
tzeratzen dute JESUSbera bein  
baño , gueiagotan ere , ta,gaiz-  
qui comunitarzen diran,aldi oro.

ESCU ciquiñac ! dio  
TERTULianoc; eseu autsi , edo  
ebaqui beharrac , lan hau , be-  
zain lan arri-garri bat , bein , ta  
gueiagotan gure JESUS ona-re-  
quin eguiten duten , escuac!  
*Prsh scelas ! semel Judæi manus  
Christo intulerunt : ipsi quotidie cor-  
pus eius laceffunt . O manus præsün-  
denda . Lib. de Idol. c. 7.*

## II.

BA da comunione gaif-  
toco JESUSen gurutzeratze  
onetan gueiago , ta gueiago e.e.

GURUtzerazuten gure JE-  
SUS Judatar gogorrac , beguira  
cegozcala JESUS necatu maita-  
garriari JERUfalen-darrac , IS-  
RAELdarrac,ERROMAtarrac,  
eta beste anitz aldetaco gen-  
deac.

HORduan an JESUfi  
beguira egondu ciran , ori-eta-  
tic gueienac , ezagutu zuten,  
andic anitz luzatu bague , JE-

SUS, bérac hari gaizqui naiez  
gurutzera zutela Judatar gogor-  
rac; eta, JESUSez urricalduric,  
negariez egondu ciran batanec,  
eta beste anitz joan izandu ci-  
ran damuz beteac , eta beren  
balarrac galanqui golpatzen ci-  
tuztela.

ANDIC lister banatu  
zuten Munduaren anitz bazter-  
retan JESUSen Apostoluac , eta  
orien ondorengoac anitz gue-  
iagotan Judatar gogorren JE-  
SUS on-arequico vide-gabea,  
edo JESUS amaita-garriaren  
obenic bagueco gurutzeco erio-  
tza; ta guerozco milla zazpi-  
eun , ta gueiago urtetan izan-  
du dira millaca , ta milloica  
JESUSen urricaltiac , edo gure  
JESUSen horduco nequeac ga-  
tic negar , ta negar egondu di-  
ranac , edo ongui damuturic  
yicitu diranac; eta berebat guer-  
tataco da datocen demboretan,  
ta Mundua mundu den ar-  
tean , edo azquen juicioco  
egunerañoco gucian : izain di-  
ra alabaña horduraño Christau  
onac , izain dira Christio JE-  
SUSen maitaiac ; eta Christau,  
edo Christio, JESUSen guru-  
tzeco penaz aguitz penaturic  
vicico diranac.

BAÑA berebat guerta-  
tzen ore zaio gure JESUS maj-  
ta-garriari zure comunione gaif-

toco

róco gurutzeratzea--requin?  
ANITZ ote dira, daquitenac,  
noiz zu gaizqui comunitzen  
zaran, ta noiz zuc beritzen  
dituzun cere comunione gait-  
toan gure JESUSen gutuzeco  
neque-tormentuac? ETA anitz-  
anitz gure JESUSen neque-  
tormentuen beritze-gogor or-  
reraz damuturic negar, ta ne-  
gar egon oi diranac?

CER anitz? EZ nosqui,  
ta bat ere! ZU cere comunio-  
nean ecusten zaituztenac, ufte-  
co dute, orgui comunitzen  
zarala zu, ta cere Jaunaren  
gracia, ta adisquide-taluna ce-  
requin dituzula; ta zu cerori  
ere artan egon zara; ta, cere  
uftez, leneco cere gaizqui  
gucien dumuz guztiz beteá, ta  
gaizqui berriac ez eguiteco af-  
moan, orreláco afmoríc zuc  
cere comunione-etan ez izan-  
arren, cerorrec guero eculico  
dezun bezala.

ORREquin ez gañerá-  
coac, eta ez za urricaltzen za-  
razte gure JESUSen zure co-  
munione--eraco gutitze--ra-  
tzeaz; edo zuc cere comunio-  
ne gaitoa-requin eguten de-  
zun, JESUSen gututzeco neque-  
tormentuen berrieraz.

ETA orra non ematen  
díozun zuc cere comunione  
gaitoa--requin JESUS maita-

garran, aintzalleric bagueco  
gurutzeratze bat; eta lembierico  
bere gurutzeratze gogoraren  
beritze guztiz gogor bat.

AY! nere JESUS maita-  
ta-garra; ta cein guti obac-  
tzen diran, eta onetaco zure  
gurutzeratze orretara, urtean  
bein, berandatic berandara, ta  
beren becatuac urzi bague, co-  
munitzen diranac!

NIC ez daquit, nere  
JESUS maita garrá, norañ-  
coa ote den zure berataluna;  
baña ba-daquit nic, bai, naita  
ez andia dela, ta bazterric  
baguecoa; bada izanic zu, za-  
ran bezalácoa, edo illen arte-  
tic vizturic atera ciñan ezquero  
ecin ill zaitetzquena, ta len be-  
zala niore ecin gururzean josi  
zaitzaquen, Jangoico guizona,  
necatzen zaituzte zu, S. BÉR-  
NARDoc díonaz, ta beren aña-  
ma gaitoico guti etaten zai-  
tuzte, gauzoni comunitzen za-  
ranac: *ambrosiolum rutilum, et as-  
trucifigillum crucifigum, sup. tal-  
tis crucis*). gordian eguita  
cizute zuri hau, gaizqui co-  
munitzen diranac; ez da manu-  
dun garenz, ta urricaltze ba-  
da eic laguntzen dituric bat  
ere; ta ala ere isilic zande  
zu gauzoni comunitzen dena-  
ren balat jifian ciquia guztiz  
arri-garran.

Yyz:

ERA:

ERA onetan gurutzeturic iduquitzen zaituzten, gaifto-etatic izandu ote naz nere, nere JESUS maita-garria?

BELdur naz, baietz, beiatzat ni nere comunione-etatic nere gaizqui-etara, ta nere gaizqui-etatic nere comunione gaifto-etara nembillen demban.

AH cer eguitecoac, eta cer lanac, horduco nere laneguiteco ciquin char gogorgalgarriac! EZ al naz ni berriez, zuen atzapar loidun-gogor ori-etaraco.

### III.

JUDAtar gogorrac len, etsai-tzar amurratu batzuen eran iutzi zuten gurutzetua, edo gurutze barean iltze fendorrez guztiz josta gare JESUS maita garria; baña gaizqui comuniatzen den, becatariac bere gurutzeratzen du gare JESUS bera, adisquide lana dirudien ichura oneco lana-requin, edo agur andi bat berac JESUti eguin ondoan, bere mihian poliqui artuz, ta bere bihotz aldaraño far-erazten duela: ta ba-daquizu zuc, aguitz damugarriagoa dela, etsai ezagun batena baño, adisquide faltzallearen charqueria, ta videgabea.

ORRE gatic etzien gure JESUSEc hitzic erran izan-

du, gurutzean josiric ill eraci zuten Borreroei; baña aguertu cion bere naigabea JUDAS galgarriari, adisquid-idurian onec, eta apatuz JESUS bera saldu zuenean, esaten ciola; Adisquidea, ta certara etorri zara zu onara? JUDAS, apaz, ta mañuz faltzen diezu zuc, eta beren escuetaratzen diezu bere etsai erreei onáco Jangoico-guizon, cere mañu hau? *Amice, ad quid venisti... Juda, osculo filium hominis tradis?* Luc. 22.

CEMBati, ta cembati erran ote liezaque, berac comuniatzen, diran aldi-etan gure Mañu zucen JESUS maita-garri berac hau beratu, edo: atozca; ta onetara zatoz zu ALDARECO nere mañra, ta cere comunionera? APA, edo muñeguite humil baten idurian ni faltzera zatoz zu; ta ni zuc faltzera cere mañunde lizuneci, araguitaren cere atsegun loiei, cere escuca, ta ezpainca ciquinaei, plazaco ibillera mañuei, zuc daquizquitzun, cere sartu-atera gaiftoei, jan-edan beroei, ebañte galgarrieci, hitzqueta baretsu, marmariazco, ta etsaiezcoari, edo bein ere, behar bezala, uzten ez dezun cere aztura gaiftoari?

EZ daquizu zuc, nola bucatu cituen zori gaiftozco be-

re egunac, lembicico nere saltalle Judafec? EZ daquizu zuc, bucatu cituela harc oriec bere escuz bere burua urcatu ondooa, eztanda eguiten zuela, ta bere tripac lertuac utziric? ETA era bereco cerbait zuri guertatzera?

ORI niri guertatzera, guertatuco zait, nere JESUS maita-garria, alcotan, ta ongui nic irabacia daducadan, bucaera gaisto bat!

EZ arren, nere JESUS maita-garria, ez orrelacoric ez! BARCAta niri zuc orain-daño-co nere zu-saltzeac, eta gurutzeratzeac, eta befteric izain da nere aitziaño comunione-etan! NI prestatuco naz, bai, datocen, nere comunione-etara, orain-daño-coan ez bezala, ta alic ongnien onguiena.

GURE JESUSen lengo gurutzeratzea, JESUSec berac nai zuela, guertatu-ricaco gurutzeratzea cen; cen alabaña, ango bere eriotza-requin Aita eternoa palacatzeco, guri gueren becatuen barcamentua erdisteco, guri bere Ceruraco far-vidca zabaltzeco, ta Ceruco gucien atsegun, ta contentu andiraco, ta gure gucien oneraco: baña comunione gaistoco JESUSen gurutze ratzea, on bat bagueco gurutze-ratzea

da, becatu utsezco gurutze-ratzea da, ta JESUS onarentzat naigabe-vidc gogor-izu-garribat, beste videric ez dacarren, gurutzeratzea da, ta, leneco gurutzeratzea baño, gurutzeratze aguitz eta aguitz gaistoa-goa.

ECUSen dezu, nola berritzea dituen, gaizqui comuniatzen denac, JESUSen leneco neque-vidc, ta tormentu gaciac? ECUSen dezu, nola den, gaizqui comuniatzen dea becataria, JESUSen lengo Borrero gogorrac baño, Borrero gogor-gaistoangoa?

ECUSen dezu, cein latz, min, gogorra den gure JESUS onarentzat, eta gauza cein itfusu-arrigarria becatari beraren, gaizqui eguñicaco comunione bat?

ETA oraingo zure ecufete hau ez ote da alquico, beguitan zuc artzeco comunione gaisto bat, bezain gauz itfufu arrigarria; ta era onetaco comunione-raco videc ematen duten, zure aztura macurrac, pafsiöoneen afaldacioac, eta naicunde loiac?

BAI nere JESUS maita-garria, bai alqui, ta sobera da, orretaraco, ori zuc nai izatea, nai dezun bezala. NAI dut, ori nic; eta nai dut gaur ber-

tatic, eta bat ere luzatu bague.

BAÑA orain--dañocoan bezala. Iñececoac, mandu ero-coac, eta nere buru-galgarriac, itiu nazaten beldur andia-requin nago ni, nere JESUS maita-garria, zuc niri bortizqui ez laguntzera! LAGUN zaquizquit, bada, emen bertatic, eta bat ere luzatu bague. Bai arren, bai.

#### §. IV.

LEN TA GUERO ALDARECO gure SACRAMentaaren alde gure Jangoicoac eguin due-nac adirazten du cein gauz itufi arrigaria den comunio-ne gaiftoa..

f.

**G**URE JESUS ALDArera: baño,, aguitz lenagotic, adiracia ceducan gure Jangoico maita-garriac, cein contuz, ta cembat beldur-equin urbildu beharco zuten comunioneco maira, ongui comuniatu naico zutenac.

ANITZ aldetara eguitiña ceducan gure Jangoicoac bere adirazte hau, baña,, era oneraco adirazte gucién artean guztiz ecustecoa da, bere TESTamentuco ARCA-requin, edo euhachoa-requin maiz alqui eguin oi zuen bat.

ARCA, edo Cucha onetan arquitzen cen. MANA

zati bat, len guc ecusi dugun bezala; ta orre gatic cen Testamentuco Cucha, edo ARCA hau gure JESUSen ALDARECO SACRAMentuaren itzala, aintzura, edo Imagina; ta, ceren cen gure SACRAMentu andi onen Imagina, aintzura, ta itzal bat bezala, eman behar cioten ISRAELDarrac, beren Jaunaren manuz, ecusi dezun, traturic onena; ta, hau eman etzietenac, ecusi zuten beren gain guztiz gogor-piua beren Jaunaren escua.

TESTAMENTuco Cucha hau eraguin zuen MOYSEfec, bere Jaunaren manuz; ta eraguin zuen, bere ISRAELDarequin EGIPTotic atera ondoan; ta berequin eraman zuten ISRAELDarrac, guerozco vidigucian, edo, eguin cen, toquitic así, ta beren Jaunac, ongui naiez, bereci ciezen, PROMISIONeco bazter onetara-ñocoan.

BAÑA nola, uste dezur, eramain oi zutela?

HORduco Apezten, edo Sacerdore Jaunen forbal-dan, edo soñean; ta ISRAELDar berac bi mila befoz, Cucha hau cegoen, toquitira ubiltzen etzirala: etzuen gure Jangoico andiac nai, alderagotic beguira cezoten ISRAELDarrac TESTAMENTuco ARCA, edo

UCHC.

**CUCH** oni: *sitque inter vos, & Arcam spatium cubitorum duorum millium.* Josue 3. 4.

**CER** gatic, uste dezu?

**ZOR** citzaion beguitarte, ta errespetu andia gatic, dio **LYRAC**, *propter reverentiam arce.* Ibid.

**BERE** toquian, edo bere Elizan arkitzen cenean **ARCA** chiqui, edo **TESTAMENTU**CO **CUCH** hau, cortinez ongui gorderic arkitzen cen, **CHE**RUBIN bic zaitzen zutela, cegoen, ta inore ecin ecus cezaquen eran; ta, **APEZ**-nagusia, edo **horduco AITA**---Santua baicic, ecin sar citequen, hura arkitzen cen, lecura; ta hau ere ez, guztiz bacan, ta ecin bestez bezala baicic.

**ETA** non-nai-arqui cedilla **TESTAMENTU**CO **ARCA**, edo **cucha** chiqui hau, ecin ecusi zuen bere aldean, ongui etzegocan gauzaric bat ere. **ETA** laur gauza oietatic edo ceinetan utleguin zutenac, ecusi cituzten beren gain gauz arriarniac. **AD**izazu orain uts bacoitzari dagocan bat.

**ISRAEL** dairen etsai-artean egondu cen cembait illabetez **TESTAMENTU**CO **ARCA**, edo **CUCH** hau. **ANDIC** itzuli ondoan, arkitzen cen **ABI**NABAD ceritzan, **ELIZ**-guizon

on baten echean, ta, toqui obean idnqui natez, cegocan, eraco **ELIZ** bat **JERUSA**lenen eguin artean, joan cen **DAVID** **TESTAMENTU**CO **ARCA** onen etque oguei ta amar milla **ISRAEL**dar, ta, behar ciran, Levita guciac berequin cituela.

**APEZ** Levitac artzen dute, cegoen toquitic **TESTAMENTU**CO **ARCA**, edo **CUCH** hau, baña ez beren soñez eramateco, eraman behar zuten bezala; ta ezartzen dute gurdi berri batean, **AD**iz an eramateco.

**ASAL**datzen dira laster **Idiac**; iraultzen afitzen da gurdi bera; ta, **ARCA** soñean eraman lecuan, itzai eguinic cegoen, **OZA** Levitac, luzatzen du bere befoa; ta, erori etzedin, eguiten du **ARCARI** itfastera.

**BAÑA** aferretunic egon **horduco** gure **Jangoico** maita-garria **Levit** onen **horduco** utla gatic, eta centzaraci natez gañeraco **Levitac**, eta icas cezaten orien ondoren etortzeco ceuden, guciac, an bertan harc bere escuz **ARCA** uquitzean, uzten du ill otza **Levita** bera, ta uzten ditu **DAVID** Erregue, ta, **DAVID**-equin arkitzen ciran, guciac ongui icaratnac. ( 2. Reg. 6. ) **ORKA** **OZA**rena; ta orra gauza

za bat aguitz arrigarria!

GAÑERaco irurac, gauz arri-gurri hau baño, len guertatuac dira. ORI-etatic bara aguitua, edo guertatua da, TESTAMENTUCO. CUCH hau bere Jaunaren manuz eraguin zuén, MOYSES oraindic vici cela; ta gueroz guertatuac bertze biac.

MOYSESen demboran MOYSES beraren Anai-ARON cen Aita Santu. ORI ecin-eramanenez cebiltzan CORE, ta beste bi guizon. BILDU ciran orien alde bertze berreun, ta berroguei, ta amar: ISRAEL-dar.

BERREUN, ta berroguei, ta amarrac eguin nai dute TESTAMENTUCO. ARCAren ALDAREan, ARONec eguiten duena: baña, orretaraco prestatzen hari dirala beren incensariac, lenago cegoen, bertze ALDARE bateco sua--requin, guelditzen dira illac, ALDARE berenic atera cen, edo Jaunac bidaldu, edo tiratu cien sua--requin.

DEMBORA berean, uzratzen zaio bere oin-pees lurra, ta erortzen da Infernutaño CORE; ta berebat guertatu cequien DATHANI, ta ABIRON, CORE beraren, lagun gaitso-ci. ETA berreun, ta berrogucci

ta amarren aufardiaren, ta bracaera gaitsoaren berriac irauñ cezan, ondorengoac izutzeço, aguindu, edo manatu zuen Jangoico berac, orien incensariac, planch eguiñic, josi citzatela TESTAMENTUCO. ARCAren ALDARE bera--requin. Alapide in num. 16.

ORRA beste gauza bat, lenecoa baño ere arrigarriagoa.

## II.

JAQUIN zutenean ISRAELdarrac, itzuli ciela beren etsaiac, arrapaturic eramand izandu cien, beren CUCHA, edo TESTAMENTUCO-ARC hau, bildu izandu ciran anitz, hura ecuster a; eta, ceren gueiegui urbildu ciran. TESTAMENTUCO-ARCA gana, ta ceren andic arinqui beguiratu cioten, bertan illac guelditu ciran irurrogucci, ta amar, ango zaldun-etatic, eta gueñeraco etatic berrogucci ta amar millaraño. ( 1. Reg. 6. )

ECUSTen deza cein gauz--arrigarria, gure Jaunaren aldi onetaco castigu hau?

ISRAeldarrei ARC hau arrapatu cien etsaiac, FILISTeoac ciran. ERAMAN zuten orieci beren cucha, edo ARC arrapatua, DAGON ceritzan, beren Jangoico, edo Idolo ciquin baten. ELIZARA, ta utzi

zu.

zuten an TESTAMENTUCO ARCHAU DAGONen ondoan ; ta joan ciran guero berac beren eche-etara.

BA-doaz bigaramunen beren Elizara ; ta arkitzen dute TESTAMENTUCO ARCHAU, an berac vezperatic iutzizuten toquian ; ta beren Idolo DAGON ARC onen onetan , ta larrera eroria.

GORaturic , ezartzen dute bere lecuari beren Idolo DAGON , ta ba-doaz berriz beren eche-etara urrango goizcraño.

URRENGO goizean ere arkitzen dute DAGON , len bezala , eroria , ta len ere baño , aguitz gaizquiago ; bada aurfiac , eta eroriac ceduzcan DAGONec bere bi escuac , baita bere burua ere ; ta bere buru-escuac ceduzcan , bera cetzan toquitic aguitz urrunduac.

ARRItzen dira , gauz hau ecuftean , ecusten daten Filisteo guciac. ETA andic orieci beren beguiac quendu horduco , ecusten diruzte , berriro berac arritzeco guztiz onac ciran beste gauzac ere ; bada ecusten dituzte beren celai-alorrac sagu galgarriz guztiz beteac ; eta beren goiputzac eritasun aguitz ciquiñez , ta minoñace izu-garriz erdi lertuac.

III

EZAgutzen dute , nondic zuten beren neque andi , ta calte izu garrri hau. ATERatzen dute DAGONen Elizatic gure Jangoicoaren TESTAMENTUCO ARCA ; ta ba-daramate erri-erri ; baña erri gucietan eguiren du gure Jangoico altiuac castigu ber-bera. ¶LTzen dira , ecin conta al adina bazter guci-etaco eii-etatic ; eta ez dira fendatzen gañeracoac , beren gaizqui eguinaz damaturic , eta ondalunez beterie TESTAMENTUCO ARCA bere lecuari , edo ISRAEL-darren artera itzuliar-tean. 1. Reg. 5.

ECUsten dezu cein gauz arrigarria FILISTEOen TESTAMENTUCO ARCA-requia guer-tatua? CER gatic , hau onela?

CEREN sartu zuten gure Jangoicoaren TESTAMENTUCO ARCA hau beren Idolo char bat ceducaten , ELIZAN.

ORREMBat aferretzen du gure Jangoicoa Idolo char batec? DENA gatic ote , edo adirazten duena gatic?

BIAC gatic ; baña ez nosqui gutiena adirazten duena gatic.

CER adirazten ote du Filisteoen idolo char Dagon orrec?

COMUnione gaistoan JESUgi eguiten zaion gaista-que-ria. Zz CER



CER gaista-queri ote da, comunione gaistoco gaista-queria?

TESTAmentuco ARCA vici ALDARECO SACRAMĕntu, ta SACRAMentuco MANA gure Jangoico-guizona Idolo baten bazterrean, edo aintz idoloren, edo becatu larriren artean ezartzea. ORI da, gaizqui comuniatzen denac gure Jangoicoari eguiten dion, lan gaistoa; ta lan, FILISTeoz-tzar-rac AZOton (hau cen Filisteoen erriaren icena) eguin zuten beren lana-requin adirazten zaicuna; ta FILISTeoen horduco lan hura baño, lan aguitz, eta aguitz gaistoagoa: bada Idoloa becatuaren aintzura, edo imagina da, ta ALDARECO SACRAMentua-aren aintzura, edo Imagina TESTAmentuco ARCA; ta aintzura, edo Imagina imaginaren alderatzea baño, gueiago da gauza gauzaren alderatzea; ta, alderatze hau alderatze gaistoa ba-da, aguitz, eta aguitz gaistoagoa.

GURE Jangoicoac ez du ematen bein ere, gure gauza gaistoc escatzen duen, castigua baño, castigu andiagoric. BADA izanic, ecusi dugun, bezain arrigarria, Filistoei aldi onetan eman cien, ceren eraman zuten DAGOnen aldera

Jangoico beraren TESTAmentuco CUCHA, andia cen nom-bait orretan onec eguin izan-du zuten becatua.

ETA baldin becatu ori ba-cen, cen bezala, comunione gaisto baten itzala, edo aintzura, ta imagina, cein gauz arrigarri-itfusia izain ote da comunione gaistoa? ECUS ten de-zu.

### III.

ITSUS tasan arrigarri hau bera aguetzen digute, le-nago ecusi ditugun, bertze irur castiguac ere. OZAC, erori cedin beldurrez, urbidu cion ecua gure Jangoicoaren TESTAmentuco ARCARI; ta gaizqui comuniatzen denac, artzen du bere mihian JESUSen ALDARECO SACRAMentua, bular ciquin, becatuz loitu batera aurtiquizceco, edo botatzeco. ECUS ten dezu, cembat doan OZAREN lanetic comunione gaistoco beste lan onetara, ta, OZARENA baño, cein gaistoagoa den gaizqui comuniatzen denaren languiro galgarri hau!

COREC nai zuquean ARONen lecu, TESTAmentuco ARCARI cegozcan, gauzac eguiteco; beraren eun ta berroguei ta amar lagunac incen-loz eman nai izandu cioten TESTAmentuco ARCARI, edo

CU-

**CUCHARI**, berac orietaracoac etzirala ; ta orre gatic ecusi zuten , guc arastian ecusi dugun , lan arrigarria .

**ETA** atozca , gaizqui comuniatzen denac faitzen ez du gure **JESUSen CUCHI**, edo **ARC** eder **ALDA**reco **SACRAMENTUA** becatuen quez , ta quez **beretic** daducan , bere barrerean , ufai gaifoz , ta quez an hura ito naiez bezala ?

**BADA** cer du cer ecusi comuniatzalle gaitoren lan onequin , len **COREC** , eta **CORE**ren lagunac eguin naizandu zutenac ?

**BEREN** lan gaifoa eguiteco gogoa gatic orieci vicie erreac ? **CER** da , bada , zuri cere comunione ciquina gatic dagoquizuna ?

**BER** roguei ta amar milla **BETHSAME**tar , ta gueiango illac , **TESTAMENTU** zarreco **CUCHARI** beguiratze bate gatic ?

**BAI** eguiatzqui !!

**BADA** cer da , zorzationa , beguiratze hizunac hitzqueta ez garbiac , efencia loiac , eta gauza macur ciquinaac eguin ondoan , **TESTAMENTU** berri-co **SACRAMENTUA** begui goriz ecusien , ta , garbitu bagueco , bere bularrean faitzen dutenari ?

**EZ** da erraz , ez oii zuc erdizca ere ezagutzea !

**BECA**tutic comunione-ra , ta comunione tic becatu- etara zabiltzan , becatari gaiftoa ; antz comunione eguin ondoan , lembieran baño , gaizquiago arquitzen zarana , ta , animaz itinturic vici zaran , ta ondu-nai cifezconic bague comuniatzen zaran , galdu cere galgarria , beretic zuri iduria gatic , zu comunio tequiratzen zaranean , aratzen ba hiz , laur- oñecoic itifusi-ciquin-loi galduea , ta gald-eguiten ba-cenio **JESUSi** , nora naiago duen , orren sabel itintira , edo zure- ra , **JESU**sec erantzutera , errain liquezu , milletan , ta milletan zurea baño , gogozago fartuco lizaquelà laur-oñecoa- renera . **ECUSI** zazu cer ecuste- coa , era orietan zuc eguiten dezun , comunionea !

**GUEROZCO CASTIGUAC .**

**I .**

**TESTAMENTU** berri-co **LE- GUFAN** ere anitz alde- ra aditari du gure **JESUS** maita- garriac combat bere usi ga- be-requin faitzen den , gaiz- qui vici diranen bularrera bere comunionean orieci an iareratzè duenean .

**VILDEKIN**do certizan ,

**Zzz- SAXO-**

SAXOniaco Duque bat sartu cen bein , anitz comuniatzten ciran Eliza batera. ECUsi zuen an comunionece hostian , aur eder baten aintzuran , edo idurian , gure JESUS maita-garria ; ta ecusi zuen , sartzen cела atseguin-poz andia-requin cembaiten ahoan ( oriec ciran gure Jaunaren gracian , ta ongui prestaturic comuniatzten ciranae ) ; baña Apezac ceramanean bertze cembaiten ezpañetara , ecusi zuen , icararzen cела JESUS aurchoa , ta bere escu-oiñequin , bere beguiequin , ta gorpuzcho gucia-requin eracusten zuela ara ez nai andi gutzizeco bat. ORIEC ciran berea uftez , ongui prestatuac egona gatic , confessatu baciran ere , ondu etziran , becatariac. Apud Daurout. v. Euch. tit. 2. ex 5.

GUizon gaisto bat urbildu cen bein , SYRO MILAN-go Obispoaren escutic bere comunionea artzera ; ta artu ere zuen. BAÑA cembat bere afer-rerequin an sartzen cen JESUS-ec adirazteco , guelditzen zaio hostia ahoaren erdi erdian , aho-co gauzaric uquitzen ez duela ; ta guizon bera guelditu cen bere ahoa ecin bilduz , oñacez cena betea , ta bazterrac orroz urratzen cituela. Ibid.

tit. 11.

SARTu cen hostia con-sagratua barrenaiseago PAZcoz , bein beste guizon gaisto bat comuniatu cenean ; baña sartu cen artzallearen calte arri-garriraco : bada an bertatic galdu zuen bere iduria ; iduri itfusira cen andic laster ; eritu cen gueroiseago ; ta eritu cen , ez lëndatzeco.

ERRAN cioten oni , hau ala ecusi zutenac , ar citzala lembait-len Elizacoac ; eta ezetz erantzun izandu zuen.

CER gatic , ufte dezu?

CEREN betac cionaz , bere eztarrian ceducan oraindic , eta bere oiñace andiequin , azquen comunionece hostia.

ERAcutsi ciotela ( efan zuen guero ) fulecean , eternidade guciraco bereci cioren , bere necatoquia ; ta bere necatoqui onetan egon beharra cела erretzen-ta erretzen beti , an arkitzen cen , beraren lagun gaisto baten bazterrean.

HAU harc efacean , quēdu zuen bere escuz urbiltzen cioten gurutze Santu bat , eta illic guelditu cen , an bertan , ta beti--betico galdua. Sylva hist. tom. 2. lib. 8. cap. 2. tit. 10. ex 8.

EMFquiago ba cen ere , adiraci cion JESUsec bere afer-  
era,

era, gaizqui comuniatu cen, beste guizon gazte bati ere. FILIPInac erraten zaien, Isla, edo bazter batzuetacoa cen guizon gazte hau.

GUIZON gazte hau cebillen, beraren adiñetaco anitz, eta anitz bezala, comunione-etic arinqueri-etara, ta aztura gaisfo-etara, ta audic comunionera, gogoac ifuturic beti, ta bein ere, bere confesione-etan behar bezalaco atmorice artzen etzuela.

CENTzaraci naiez hau gure JESUS maita-garriac, comuniatu cen batean, hosti confagrata haren barrenera ceneco, eman izandu cion Sabelmin arrigarizco batec.

BERE min onequin vidaltzen du JESUSec guiza char hau; ta ciquin-queriz beteric arquirzen cen bertaco zoco batera ceneco, aſi cen eztulca, ta bere Sabeleco-equin batean, bota zuen an hostia Santa; ta, hau harc an botatzean quendu citzaion Sabeleco bere min gucia; ta an hari guertatu onequin adiraci zuen gure JESUS maita garriac, gaizqui vici denaren Sabelean baño, naiago duela egon zocoric loienear ere. In Ann. Soc.

HAU berau adiraci zuten, baña gogorquiago, ta San CY-

PRIAnoc dion, eran, gaizqui comuniatu cen, emacume, edo emaztequi bati guertatuarequin. ONI guertatu cequion, JUDAsi guertatu-ricacoa.

JUDAsi sartu citzaion JESUSen bocaduaren ondoren fulececoa; *post bucellam introivit in eo Satan* (Joan. 13. 27.):<sup>2</sup> bai-ta emaztequi oni ere bere comunionea artu zueneco.

JUDAséquin eguin zuen guero fulececo etſaiac, lenguc adiracitic daducaguna; ta gaizqui comuniatu cen, emaztequi-onequin, Santuac berac diona.

SUTU zuen Andre gaisfo hau: ta futu zuen ecin gueiago-raño fulececo amurratuac; eta bere ortzequin zatic-eraci cion Andre berari bere mihia; ceren harc hau gaizqui luzatu zuen, bere Jaun andia comunione gaisfoan artzeco; ta, bere milla neque, ta oñaceren artean, ta bere erraiac, eta bere barren gucia igartzen cequiozcala, ill cen gaisfoa, zacur amurratu baten eran. Sermon. 5. de laps.

## II.

NOIZEan bein eguin izandu ditu gure Jangoico maita-garriac, era onetaco gauzaren batzuec. CHIqui ac diudite oraingo andienac ere LE-

GUE

GUE zarreco arrigarien aldean; baña, horduco andiac, bezain ederqui adirazten. dute comunione gaistoaren itxustalun arrigaria, ta orrec gure JESUS maita-garriari ematen dion, aferre-videa: gogorra cenalabaña horduco. LEGUEA, ta amoriozcoa da. guc duguna; ta, gure LEGUE onetan eguiten diran, utfac, ez daramate emen. leneco utfac adifia neque, ta castigu: beste munduraco daduzca gure Jangoicoac, orieidagozten castigu andiac; eta, nai ta ez izan behar dute orieicgutz andi arrigariac: ceren. ERREGUEEI eguiten zaizten, gaizqui ac diran, gaizquiric andienac, eta Erregueric andienari eguiten zaizcanac aguitz andingoac; eta gaizqui comuniatz denac eguiten dio guztiz andi bat, Erregueen Erregue, IESUS maita-garriari bada loitzen diozca, ciquintzen diozca, ta oin-peratzem diozca bere gorpurz-odolac.

BAI, dio San PABLOc, era orretan comuniatz den, becatariac, bere gain ditur gure JESUSen gorputza, ta beraren odol guci-gucia: *reus erit Corporis, & Sanguinis Domini* (1. Cor. 11. 27.); bai, ta bere condenacioco sententia ere, bere utfac berac emen garai onez

ez ateratzera: *qui enim manducat, & bibit indigne, iudicium sibi manducat, & bibit. v. 29.*

ETA ateraco ote ditur bere comunione gaistoco utfac, gaizqui comuniatz den, becatari-tzarrac?

ATEra ditzaque beintzat, dio San LORENZO Justinianoc; baña, edocin beste bere uts baño, aguitz nequezago.

CER gatic uste dezur?

CEREN gañeraco becatari beraren utfac, eta obenculpac baño, aguitz gueiagoc gogortzen duten becataria bere comunione gaistoco utfac, eta vide-nabar uzten duten aguitz naguiagoc gauz on etaraco, ta bere egoera gal-garritic jiquitzeco, edo ateratzeco: *sumentes indignè pertinaciores in malo, & ad emendationem vitæ sunt tardiores.* Serm. de Euch.

Ba-da orretaraco bai, befteric ere. GALZQUI comuniatz denac, bere izurri, edo bere pozoi eguiten du janariac onena, Judas gaistoac egian zuen bezala, San AGUSTINEc dionaz: *bu. ella Dominica venenam fuit Jude.*

ETA nore sendaraco du, becatariaren izurria quentzeco, ta feculaco vicitza emateco den, janari, ta sendagai

on-eratic (alacoa da, gure Jangoicoaren Martyre andi San IGNACIOc dionaz ALDARECO SACRAMENTUA : *pharmacum immortalitatis*) bere izurria, ta pozoi gaiftoa ateratzen duen, becataria? EDO nola fendatuco du Medicuac eri bat, eriac josten ba-du gurutze batean bere Medicua, gaizqui comunitatzen denac josten duen bezala bere fendatzalle andi Medicu on, gure JESUS maita-garria?

GUERTATZEN dena da, gaiftoa denean, comunitatzaile eriaran, edo becatariaren comunionea, fendatu beharrean hau, errazago galtzea: *remedium nostrum fit Diaboli triumphus.*

ORRE gatic dio San BASILIOc, gaitz gucien artean ez dela, comunione gaiftoaren aldera ditequen gaitzic: *hoc solum inter omnia malum nihil habet, cui possit comparari.*

ECUSTEN dezu cein itzusi arrigaria den becatari gargarriaren comunione gaiftoa? EZ diote ori, edo ez digute guri hau adirazten (ta hitzic atera gabe) gure Jaunaren leuagoco castiguac? EZ diote ori bera guerozcoac ere; bai, ta Apostoluac, eta Santuac ere?

BEGUIra, bada, nola zoacen zu, comunitatzen zara-

netan! BEGUIra, ez dezazula sartu zuc cere erraietan, cere Jauna-requin batean, Sacrilégio baten ezpata; bada hau sartzen dute, dio San JUAN CHRISOStomoc, gaizqui comunitatzen diranac: *acutum sibi enssem in praecordia conduunt.*

BEGUIra; ez dezazula zuc cerrorec galdu (ta zuc cerrorec nai dezula) cere anima ezpata zorrozec, ta izurri, edo pozoi hgarritz. EROen lana da, edo burutic irautciarena, era orretaco languiro char ori, zuc cerrorec ecufico dezun bezala; ta ecufico dezu eternidadeco damua arrigarria-requin, comunione gaiftoa-requin galtzera zuc cere anima. BEGUIra, bada, beguira, nola zabiltzan zu, ta ongui ongui beguira.

1.

ET ECO COINQUINABAR IN medio eorum. Ezech. 22. 26.

ONA, erraten cion bein gure Jangoicoac EZECHIEL Profetari: ona; eguin diranere ISRAELDarrac, cillarrac, sutan garbitzean, uzten duen, erdoia, edo ciquinqueria bezala. LOITUAC arquitzen dira, ta guztiz galduac orien bihoztzac; eta ni nerau ere, ceren arquitzen nazan orien artean, utzi naute gaur, loituaren eran, ta ciquindua dirudidala.

CER

CER da, bada, nic orain daguikedana? EZ dut arquitezen nic gaur, ni palaca nazaqueu guizonic bat ere; ta nere aferrearen sua prest-prest arquitezen da oriec guciac bertan erretzeco; ta beti-ta betiraco galduac uzteco.

ORRA gure Jaunaren aldi artaco hizqueta, ta mintzo-era.

ETA, gaur JESU Sec bere ALDARECO SACRAMENTUTIC hitz eguitera, cer hitzqueta aditu ufte cenuque? Era bereco?

ANITZEN gain, beldur naz, baietz.

ATOZEA ezperen, ta nola vici oi dira mundu onetan comunitatzen diran, genderic gueienac, edo beintzat anitz, eta anitz? CILLAR garbi ederra bezala? BECATUEN erdoiric, edo ciquin-queriric bague, ta virtutez ederqui beteac?

ALA behar luquee; baña ez dira ala vici, ez anitz, eta afco beintzat. ALA vici behar-rean oriec gucioc, vici oi dira beren becatu loiez ciquinduc, eta aztura gaiftoz guztiz beteac.

ETA oriec comunitatzen diranetan, ta orien bular-eratzzen denean gure JESUS maita-garria, nola arquitezen dela, ufte dezu zuc, edo cer asmo-requin?

NOLA, nai dezu zuc arqui dedin or gure JESUS SACRAMENTATUA?

ORIEN ciquinqueriz ingurutua, ta bere nai-gabevidez gaizqui betea; ta dembora berean bere escuac lotuac daduzcala, comunitatzen den becatariari cembait on, edo ongui eguitero: ta bere escu bertan bat-ere locarriac bague, becatari beraren obenac esca-tzen duten, castigu guciac berari emateco.

EMATEN ba-diozca beraren comunione gaifto utfari zor zaizcanac?

GALDU-galdua gaifoa eternidade guciraco, ta futan, beti beti erretzen egon beharra!

CASTIGUAREN arrigarria!

BAI; baña comunione gaifto bati ederqui dagocana!

ECUSI zazu, cein itfusia; cein beltz izugarria becatariaren comunione gaiftoa!

2.

*SUPER DORSUM MEUM FABRICAVERUNT PECCATORES: PROLONGAVERUNT INIQUITATEM SUAM. Psalm.*

128. 3.

**G**AISTOAC gaifto dira beti, becatuz becatu dabiltzan demboran; baña gaifto berac, beren becatuac ongui confesatu bague, edo beren becatu-

zar-

zarrac confessatu arren, hau oriet eguiten ba-dute, becatu berririe ez eguiteco alno on bat artzen ez dutela; ta artzen ba-dute guero gure JESUS maita-garria beren comunionean, beritzen dituzte gure JESUSEn nequeac, sendortzen dituzte beren becatu zarrac, eta eguiten dute azquenean, leneco beren gauza gaitoac baño, gaito ciquin-itfusi izugarriago den, gauza bat.

AH cer lama zure lan ciquin galgari hau, era onetan comunitatzen zaran anima!

ETZiran asqui, ta sobera len zuc, leneco cere becatu-equin JESUgi ar-eraci caniozcan, neque izu-garriac? CERE becatuec orain zuc beritza-requin berritu nai diozcatzu cere JESUS maita-garriari leneco bere neque guciar, eta eman nai diozcatzu orain zuc cere JESUS berari neca-vide berri gogorrac; eta neca-vida, comunione gaitoarenac, bezain arrigariac?

AGUITZ gaizqui nai diozu non-bait zuc cere JESUS maita-garriari! CER gatic ote? CEREN gueiegai nai dizun zuri cere JESUsec berac? CEREN bere ontart andiz, ta Ceruco bere graciaz beterie utzi nai-cinduzquen zu cere JE-

III

SUS maita-garriac? ETA ceren orretaraco, ta alde-ragotic zu maitatu naiez, sartzen zaitzun zuri JESUS bera cere barren-eraino? EZ dizu JESUsec beste gaitzie eguia beintzat orain dañocoan. EZ da ala?

ALA da, bai, nere JESUS maita-garria; ala da; ta nere alque andia-requin ba-dere, aitortzen dut nic gaur nere egui hau! ETA, berriz nere alque-vide berririe izan ez dezadan, gaurdanic aituco dut nic beste videric. NIC gaurdanic zucenduco ditut orain-dañoco nere comunione macur galgariac, eta gaur-guero nic comunitatu nite dut, zure nequeac berriz berritu gabe; ta zuri atsequin eguinen dizudan eran. Ala guerta dedilla, nere JESUS maita-garria. Bai arren, bai.

3.

FILIUS HOMINIS TRAHETUR,  
*ut crucifigatur.* Matth. 26. 2.

**G**AIZqui arkitzen cengu re JESUS maita-garria bere etñaien atzapparretan, etñai oriet bera bere gurutzean jarrie ceducarenean.

BAÑA obequi arkitzen ote da gaur, gaizqui comunitatzen denaren bulatrecan? EZ daducate gure JESUS bera emen ere beren atzapar-etan,

Aaa

gaiz:



gaizqui comuniatzten denaren pasione futuac, aztura gaistocac, becatu ciqñiñac, adimentu-illanac, bihotz gogorrac, eta anima galduac?

EMEN ez diote, ez odolico isfur-erazten gure JESUS maita-garriari; baña ecin daguique emen, gure JESUS maita-garriac, era onetan daducanaren alde onic bat ere; ta ecin adiraz-al adiña on eguin izandi zuen gure JESUsec, leneco bere odol isfuztea-requin; ta beste onembeste on guri eguita gatic, eta bere burua ez ecustea gatic, ecusten duen, eran, bere burua ecusten duenean, gaizqui comuniatzten denaren atzaparretan, pozic isfuzico luque berriz, ta berriz ere gure JESUS maita-garriac, len isfuzi zuen, ta orain bere gan, edo bere baitan daducan, odol gucia; ainandia da, gure JESUSi guc zor diogun, amorea.

GAIZqui comuniatzten denaren cētzu gabea, ta esqueric ez duena! ONEMbat amore-requin bera gana JESUS; ta bera JESUSen Borrero eguiñic, eta bere barrenean JESUS bera gurutze gaistoan josiaren eran uzten duela!

ORREtaraco dira zure-comunioneac, gazte gaistoa, zartzen aña, zarra, edo zara-

na? BEGUIra, nola zoazen, ta beguira certara, zu aratzen zarran aldietan, edo cere comunione-etan.

4.

FIAT MENSA EORUM CORAM ipsis in laqueum, & in tribulationes, & in scandalum. Psalm.

68. 23.

GAIZqui comuniatzten diranac dira, TROGLOdua gogorren eraco gendeac, TROGLOdita gogorrac, beren gurafo bat, edo ERREGuea illic ecusi horduco, ingurutzen zuten elorritz, ta arantzez, ta ematen cioten arrica, ta arrica; ta gaizqui comuniatzten denac, sartzen du bere barrenean JESUSen ALDARECO SACRAMentua, ta ingurutzen du, bere Aita, ta Erregue JESUS maita-garria becatuen arantzez, ta aztura gaistoen elorritz; ta, an hare hura daducan artean, eguiten duen, gucia da, histaca bezala, ta bere gogoz, edo asmo galduz arrican JESUSi ematea.

TROGLOditen Erregueac, edo GURAFoac cer eguinen ote luquee, cerbait eguin al-ba-lezate, arrican ematen dien, beren hume-equin, edo eritar-equin?

BEREN atzaparretan oric ill, edo cerbait orrela-

co: ORI lizaque beintzar orien horduco lan gaitoari ederqui legocan, castigua.

ETA vicirie dagoen gure JESUS maita-garniac cer eguiten ote dio, gaizqui comuniatzan den, becatariari?


EMEN bertan eman batzuetan castigu: arri-garriren bat; era azquenean bere becatuaren focaz urcatu fulecean, ta an iutzi eternidade gucico neque-tormentuetan, demboraz urri-quituric, ez erdistera comu-nia-tzalle gaitoac bere Jauna-ren barcamentua.

ECUSten dezu? ETA comuniatzan ote zara zu, TRO-GLOditen eran, ta centzuric bague, edo guttiz gati begui-

ratzen dezula, nola zauden zu, ta nora daramazun, comuniatzan zaran aldietan cere Jan-goico-guizon Sacramentatua?

IDIQUI zatzu cere be-guiac, orain-dañoco cere co-munioneac zue ongui ecuste-co. EGUIzu zuc, erdistea gatic cere comunione orietaco utfen barcamentua: bai, ta cere al eguiña ere, uts berriric berniz ez eguiteco.

ORR Etan nago ni, bai, nere JESUS maita-garnia; ta le-nago hau ez eguiñaz, ta eguiñaditudan, becats gacien danuz beteric arquitzen naz ni gaur; ta orre gatic diot orain, al dudan, cin gucia-requin, ta bihotz oioz: NERE JESU-CHRITO, &c.



## LXXXVI. OTOITZ-GAIA.

### COMUNIATU ONDOKACO.

COMUniatu ondoan arqui-tzen dira anitz comuniatzalle, horduan JESUSi cer er-ran ez daquitela: necatzen dira laster, matuturic. Elizan egotez, ta andie ateratzen dira, anitz lizatubague; ta gure JESUS maita-garnia bere hitza-requin an, JESUsec adiraci nai-

lequen, gauzaric aditzen ez dutela.

EZ diote orieci onem-bar charqueri eguiñen beren JESUS maita-garniari, guc orain-dañoco otoitz-gaietan ecusi ditugan, ganz-etatic bat, edo beste aldi orietan orieci beren gogoratzera. ETA, izan deza-

Aaaz: teni.

ten gueiagò , ta gueiago çertan egon beren hordu ecin-obe orietan , uquituz bezala , orain ecusi behar ditugu beste cem-bait otoitz-gai labur , ta esquer-vide zucen , ta Ceruco onda-fun-dun ere , ar ditzatzun zuc, aldian, nai dituzunac , edo gue-ienic zuri orretan laguntzen dizutenac.

ONGUI COMUMIATU DE-naren lembicico esquer-  
videa.

**E**Squer--vide hau artzen da, JESUsec guizon eguiteman, ta dembora berean onen Amac eguin zuteneic.

CER eguin ote zuen gure JESUS maita-garriac, be-ra guizon eguin cenean?

BERE Virgin-AMAreñ baitan artu egon-toquia ; ta, ceren toqui hau eman cion be-re AMA-Virguinac, bere AMA-Virgina utzi ondalunez , gra-ciaz , ta Ceruco doajiez guztiz beteä.

NOLA etorri ote cen gure JESUS maita-garria bere AMAreñ baitara?

AMAC berac nai zuela.

ETA cer eguin ote zuen orretaraco gure JESUSeñ Amac, eta cer guero bere Seme JESUS bere baitan ceducan demboran?

ARTU izandu zuen hu-miltaşun ecin obee-requin be-

re JESUS, ta egondu cen JESUS bera-requin esquer utsez , ta amorez ongui beteä.

AINGUERu batec erran cionean JESUSeñ Ama maita-garriari, haren baitan guizon eguitemo cegoela TRINItateco bigarren Persona, arritu beza-la cen, cen gucia , ta gueldi-tu cen, cer guertatzen zaion, ez daquien, baten eran ; ta az-quenean Aingueruari erantzun ciona cen : ni naz nere Jauna-ren seruitzaritic ecer-ezana ; ni ez naz orrembat ontarteraco diña ; baña ori nere Jaunac ni-ri eguin nai didan ezquero, eguin dezala , berac ongui deri-tzana: *ecce ancilla Domini , fiat mihi secundum verbum tuum.* Luc.1. 38.

ONTART andi , edo bere Jaunaren favore hau ar-tua gatic , etzen arrotu , ez gu-re JESUSeñ Ama maita-garria ; ta bere Jangoicoa bere baitan guizon eguitemo ecusi zuenean, errain zuen , guero , era berean cegoela,arquitzen cenean S. SA-BELen echean erran izandu zu-na: ecer-eza, ta humiltaşuna da nere Jangoicoac nere baitan ecusi izandu duena ; ta , cein ona , cein esca-dana , edo al-tişna , ta cein onguillea den, aguertu naiez , eguin ditugaur berac nerequin , Jangoico be-rac baicic , cein adiraci ditza-queen

Queen ongniac, gauz andiac, eta ontarreac, edo Ceruco favoreac. BERE servitzari humill beldurtientzat, ditu gure Jangoico maita-gariac bere ondafunac.

GUZTIZ urricaltia da gure Jangoico bera; ta ongui eguitez ez da necatzen bein ere: ar gatic hanc niri eguiñac dira, nic bera gantic atuac darduzcadar, ontart andiac. ORien alde gaur-danic nic eguin dezaquedana, ta eguin uste dudana da, emen vicitzen nazan demboran, ta guero eternidade guci-gucian nere Jaun, orien beren emalle-maita-garriari esquer onac esquer bero-garbien gain hitzez, gogoz, ta bihoitzez, nic ematea: *Magnificat anima mea Dominum*. Ibid. v. 46.

ECUSTen dezu, gure JESUS maita-garriac bere Ama-requin, ta Ama maita-garri berac JESUS bera-requin eguiten dutena, JESUS maita-garria bere Ama ganatzen denean?

ORRA, bada zu comuniatzen zaran aldian, zuc artu dezaquezun, lembicico esquer-vide zucen garbi-ondafundura. HAU zuc artzera, esan dezaquezu zuc JESUSen Amaren cran, al dezuna; eta beneric ez-pa-da-quizu, emen arquitzen dezun, hau: ONA nic

nere barren onetan gaur, Ama-Virginac bere baitan len guizon eguimic iduquiazandu zuen, nere Jangoico-guizon ber-bera!

AMA Virgina cen, gure Jaunaren escu-etatic atera den, gauzaric ederrena, Andre-ric virtutesuena, ta Jaun beraren maitariric andiena; ta ala ere arrituric ceducan Virgen Ama Andre--eder--virtutesu maitari hau Jangoico guizonaren bere baitaco arquiteac.

BAZterric bagueco gure Jaun hau bera ote da, ni comuniatzen nazan aldietan nere baitan, edo nere bularrean arquitzen den, Jaun andi maita-garria?

BAI, bada: hau ber bera.

ETA cer ote naz ni nere Jaun andi onen beguietan?

ETA cer JESUSen Amaren ondoan?

AR char ustel ciquin bat adiaña, edo ar char bat Ceruco EGUZquiaren aldean baño, milletan, ta ecin conta al adiañetan charragoa, ta charragoa.

ETA al-ere ez naz ni ill-arritua guelditzen nere Jaun on andi maitagarri hau nic, era onetaco nere toquian ecusten dudan, aldian?

NOLA sartu izandu ote da nere bular onetaraño nere Jaun

Jaun andi bazterric bagueco hau?

NIC neronec bera bi-llatuz, ta bera nic emen bertan far-erazten dudala.

AUSARdiaren andia!

ERA onetaco Jaun bat far-eraci nic nere barrenera; ta nere barren hau nic obequi prefatu bague! BARCA zadazu arren, nere JESUS maita-garria, oraindano nere centza gabe-queria. BEsteric izain da datocen aldietan, zuc cerorrec hartan niri lagutzen didazula.

BAÑA certara etorri ote da nere baitara, gure JESUS maita-garria?

BERE ondafinez ni, bere graciaz, ta Ceruco bere doiez ni beteric uztera, ta bere Ama maita-garria bezala, virturez virtute ibilli nadin ni nere ill artean, niri lagutzera.

ETA, hau gucia daquidan ezquero nic, orain daquidan bezala, ez ote naz ni nere Jaun on maita-garri onen amorez urturic guelditu beharra? EZ ote dira nere zain, muin, ezur, ta zati guciac, aho, ta bihotz eguinen, oni ni bere onembat ontatteren alde esquerrac, eta esquerrac emanen egoteco?

ZOR zaitzu beiatzu

zuri, bai, nere JESUS maita-garria, ori gucia, ta beste nic eguin ala. EGUIN nai nuque, bada, nic ere hau, zure Amaren; ta eguin nai nuque nic hau orain ta beti, ta eremidade guci-gucian. ALA guerra dedilla, nere JESUS maita-garria; bai arren, bai.

BIGARREN ESQUER-VIDEA.

**G**Ueren comunione ondoraco eracuti cigun gure JESUS maita-garriac bigarren esquer-vida, bera San JOAN BAUTISTA gana cen, lembicico aldian guertatu izan du cen, gauza on arrigarrizco batequin.

BERA: jaior baño, lena adiraci cion JESUS maita-garriac bere Ama maiteari joan behar zutela San JOAN BAUTISTA ecustera.

HAU argandic icasit horduco, artzen da JESUSEn Ama Virginac araco vide. Etzen horduan oraindano jaiora S. JOAN BAUTISTA, ta al ere, beraren echean sartu, ta JESUSEn Amac Santa ISABEL ecuti horduco, ezagutu zuten bere Ama Santa ISABELen fabuletic San JUAN BAUTISTAC, Ama Virginaren fabulean arkitzen cen bere Jangotico guison JESUS maita-garria; ta, ateguin con-

tenz

tentuz beteric, asi cen an faltoca bezala, ta, al zuen eran, bere agur humillac, eta onguitorri onac eguiten; *ut audivit salutatiem Maria Elisabeth, exultavit infans in utero eius.* Luc. 1.41.

**HORDUAN** San JUAN Bautista bezala, zu ecufiera dator zure JESUS maita-garia, zu comuniatzen zaran aldiean; baña zu ecufiera, San JUAN Bautista baño, aguitz alderagotic; bada gure JESUSec ecufi zuen San JUAN Bautista, bera gana bague, ta Ama Virginnaren baitatic bere Ama Sant-ISABELen baitara; ta, zu comuniatzen zaranean, ecufien zaitu cere JESUS maita-garriac cere bular-barrumbetic, eta cere bihotzaren ondo-ondotic.

**ONA**, erran dezaque-zu zuc horduan, edo zu comuniatze zaranean, esquer-videnonéz zucen, ta viciro zuc ibilli nai izatera: ONA non arquitzen den nerequin gaur nere JESUS--Jangoico guizon maita-garia; ta ona, omen arquitzen da niri ongui naiez, ta ni ecufiera pozic etorria.

**URRUTICACO** ecufite bat baicic, etzion len nere JESUS maita-garriac eguin izandu San JUAN Bautistari: JAIO bagueco aurre cen alabaña oraindic horduan San JUAN Bautista; ta

ala cie, ceren aitzinatu izanducion gure JESUS maita-garriac bere ezagu--era, ta ezagutu zuen, certara zoazquion JESUS maita-garia, ta gure JESUSec bere joate hartan eguiten cion ontartea, edo favorerea, atleguin pozez ecuragon cen, cegoen toquan, ta cegoen toquitic eguin cion JESUS maita-garriari al zuen gucia.

**NIRI** eguin dit gaur JESUSec berac nere gaurco comunionean aguitz alderagotic beste bere ecufite bat; bada ona omen daducat orain nic nere barren barranean nere JESUS, ni ecufiera etorria. ETA ez dut nic, San JUANEN eran guel-ditu behar atleguin pozez urtua?

**ETA** San JOAN beraren eran, ez ote dut utzi behar nic, orain-dañoconere egon-toqui otz-epela, edo vici-era virtute gutizco hau, nere JESUSen amorioz beteric, JESUS bera ganatzeco? ETA artuco ez ote dut, nic gure JESUSec niri eracuti-ricaco viciera, edo nequezco, hildurazco, ta Ceruco irabacizco ibillera zucen bat?

**CER** ote da S. JOAN BAUTISTAC eguin izandu zuena, JESUSen ontarte oni bere alde, tic erantzuteco, edo jaio bañolenagoco JESUSec eguin izandu

du cion, bere ecufte onen alde?

CEER? AL, bezain laster uztea bere jait-echea; fãfi batean, edo eremu batean sartu; ta an jan char laburequin bere gorpatzari quendu bere gaitz indarrac; eta, an bera vicitu cen artean otoitzez, ta gogoz Ceruan vici, bere demboran guero eracufteco nai zuten guciei Ceruco vide zucena, ta, hartaraco hordua etorri cenean, eman bere vicirza, edo bere burua; ta hau eman harc bere jaunaren LEGUEaren alde, ta munduco gucien amorez iltzeco, cegoen, gure JESUS maita-garriaren amoreac gatic.

ORRA horduan S.JOAN BAUTistac eguin izandua.

ETA cer ote da, nere JESUS maita-garria zure comunione-etaco ni ganatze onen alde nic daguique-dana? MUNDU croaren jostaquetac, eta galvide guciac iuztea? AL dudan, demboretan ni zure Elizartzea, edo nere guelan sarturic, zuri cere onembat ontarteren ejuerrac nic ematea, zucan horduan niri adirazten didazuna, jaquin behar dutenei guero nic adiraztea; edo, besteric ecin dudanean, nere viciera ona-requin, ecufsten nautz-

nac zu gana nic zucentzea?

ORI gucia, ta anitz, eta anitz gueiago ere zor ditzut nic zuri, aldi orietaco, ta oraingo zure ecufte, ta nigantze onen alde; eta, gutienean, ni, hau eguitemco, afimongan nago, zuc hartan niri lagantzen didazula. LAGUN zaquizquit, bada, dezaquezunac bezala; bai arren, bai.

IRUR-GARREN ESQUER--  
videa.

ESQUER-vide hau aguertu cion gure JESUS maita-garriac ongui comuniatzan denari bere jait-egunean.

JAIO cen gure JESUS maita-garria, BELEN ceritzan, JUDAtarren Erri batean. BELEN da ogui-teguia; ta ogui-regui onetan, edo BELENEN jaio-horduco, utzi zuen Anna Virginac bere Some JESUS, biganada arquitzen ciran, estalbi batean, guri adirazteco, ganaduen era, edo animaliac bezala, vicitu ciran, guizonen janari izatera cecorrela JESUS guiz-artera.

HORDURaco an ciran Ceruco Aingueruac, nor cen JESUS, hitzez, ta ionu-cantaz adiraztera etorriac.

ADITU zuten, Aingueru orieci cotena, andic ez uruti.

ruti arquitzen seiran, eciñoa it Artzalec; eta bertate joan izandu ciran gure JESUÏ beren agur andiac, eta ongü-torri onac eguitera; ta JESUS arquitu, ta ecüñi zutenean, egüin dela Aingueru onac ciotena, egüin ere ciozaten; ta egüin ciozaten humiltasin, ta amore guztiz andia-requin.

ETA beren lan lhu egüin ondoan, irzuli ciran Artzalec, ecüñi zutela, JESUS maita-garriac beren amanttan emanicaco ondafun-eguin, ta beren Janjoico maita-garria gloriac, ta laudarioz betetzen zutela: & *reversi sunt Pastores glorificantes, & laudantes Deum.* Luc. 2. 20.

ORRA eela zucena al-di onetaco zure etper-vida.

BEGÜira zagozu zue, zu comuniata-horduce cere buruari, edo leneco cere vici-erari, ta ecüñico dezu nosqui, vicitu zarala len zu animalien eran, edo cere gorputzari nai cituea, edo al centuen, jan-edanac, eta atibeguin gudiac ematen ceniozcala, edo orieci orri emateco, emen ba ceun-de bezala.

ECÜñico dezu nosqui, cere adimentuz vicitu zarala zu emen lurrean, edo lurreco gauzetan, animalia bere baz-

can, edo belarrean bezain tar-tua; ta ecüñico dezu nosqui, zure almo gogo, gucieneac beintzat, izandu ez dirala ez Cerucoac, edo behar bezalicoac: eta vicitu zarala zu, animalien eran, lurreraco jalo bacia bezala zu, ta ez Ceruco.

HAU zue ecüñi ondoan, beguiratuce diozu, cere estal-bian, edo cere baren orretan zue dadiuezan, Aingueruen ogüi on, cere JESUS maita-garrian, ta ecüñico dezu: nore eman ote diran ori zuri?

HOkeñan zue ongüi beguiratzero, ecüñico dezu, eman dizula zuri ogüi on gucia, JESUS beraren Aita eterroac; eta eman dizula, bere Aita Virginaren eteuz, ta videdez?

BEGÜira zazu guero, nola arquitzen ote den orzurre JESUS maita-garri. Sacramentatua, ta ezagutuce dezu, or arquitzen dela, bere Aingueruz figuraua, zue ez ecüñi arien; bada, bere ALDAtan zaitzen zutenac, etzuten utzico bacario zu gana cetotren aldian, ta zurequin or arquitzen den demboran. ETA or dago, oriequin batean, zu zaitzen zaituen, Ainguerua ere; ta or dago, zuri adinacinaiez, len JESUSon jalo arrat-



tlean beste Aingueru barec Artzai onci erran izandu ciená.

CER ote ?

ORRA orain comuniatu zaran, anima; orta atseguin andızco berri bat : orra non jaio zaitzun, edo orra non aguerru zaitzun cere baitan Jangoico-guizon cere salvatzailica : *ecce evangelizo vobis gaudium magnum... quia natus est vobis hodie Salvator, qui est Christus Dominus.* Luc. 2. 11.

BEGUIra (essan nai dizun) bere Aingueru zaitzailica, bere ta kein humill-maitari bere zure JESUS! EZER berez estalquiz jauntziaric, era ogu zatiño baten aintzuran, clo idarian etorri zaitzu or bere SACRAMentuan cere JESUS maita-garria. BECUira zagozu ongui-ongui. ORRA non daducazu ori zuc or cere bihotzaren aldamenean : ta or daducazu, aur-eguiñic jaio cenean ere baño, iduri aguitz labor meagoan.

CERE animaco janari eguiñic fartu zaitzu or cere barren orretan; ta fartu zaitzu, utzi naiez, zuri bere graciz guztiz edertua cere anima bera, bere gogarguiz ongui beta cere adimentua; ta asmo, ta gogo onez aguitz berotua cere nai-vida, edo cere votondatea.

NOR den, ta nola dagoen or gure JESUS ecuftea befteric ez dezu behar zuc, hau gucia bertan siñisteco : ta, hau zuc siñistu ondoan, behar den, eran zuc escatzera, escatzen diozun, guci-gucia emain dizu zuri cere JESUS maita-garriac; bada ori gucia zuri, ta, zuc ar dezaquezun, on gucia eguitea gatic, sartua dezu or zuc bere SACRAMentuan gure JESUS maita-garria.

ORRA zuri zure Aingueru onac, zu comuniatzen zaran aldi oro aditaci nai liquezun gucia, ta gauza; ta orra gauza, ta eguia oraingo videz cere Aingueru berac zuri horduraco adiraztea dizuna.

JUDAtar Artzai onac arquitu zuten gau hartan gure JESUS maita-garria, bere Ama maitari ona, ta San JOSEPH beguira cegozquiola : *& invenerunt Mariam, & Joseph, & Infantem* (ibid. v. 16.); ta zuc arquitzera or cere JESUS bera orien bien artean, edo oriec biac zuc cere arteco dituzula; ta egotera zu or, cere adimentuco beguiac, era bihotzaren nai-gogoac bera gandic quentzen ez dituzula, artuco dituzu zuc cere comunione onean Ceruco anitz ondafun, ta zu guel-dituco zara ateguñ contentuz ongui

ongui berea, ta nulla esquer, ta JESUSEn laudatio cere ezpañeratic datiz-quitzula. ORREtaraco da, aldi onetaco esquer-vida: ta beguira nola zabilzan zu, or bein sartu ezquero.

COMUNIONECO LAUGARren: esquer videa.

**B**ESTE esquer-gai eder bat ematen digu guri gueren comunione-eraraco gure JESUS maita-garri berea auratuneco bere EGYPTO-ratzean.

EGYPTORA cen gure JESUS maita-garria, bera jnio, ta anitz luzatu bague; ta EGYPTORA cen bere Amaren beloe-tan, ta HERODESEN igueti.

JESUS aratzean, galduco zutela, cion ISAIAS Profetac, angō idolo galgarrac, lēneco beren toquia:  *ecce Dominus ascendet super nubem levem, & ingredietur Egyptum, & commovebuntur omnia simulacra à facie eius. cap. 19. v. 1. ETA ala guertatu cela, diote EUSEBIOC, eta San GERONIMOC. 1. 6. dema-erang. c. 20: & lib. 1. c. 4.*

CER eracuftea ote digu gure JESUS maita-garriac: EGYPTOCO bere sartu-era onetan, edo bere sartzean, angō idolo-tzar oriequin eguin izandū zuena-requin?

COMUNIONECO bere:

sartu aldietan eguin oi duena.

CER da aldi orietan JESUSEc eguin oi duena?

BECAtuac eraguiteco egoquiac diran, idolo charrac, ongui comuniatzen den, animatic quentzea. CER idolo ote dira idolo oriec?

BECAtuac animan uzten dituzten, illarrafenac, eta gaitzeraco maiz-erac.

BALs omec quentzeco da,  *deo Somo. III. MAIec, et, orie, orie, orie, becatuac eraguneco, LAUGARCO SACRAMENTUA: con. in hoc infirmum est Corpus Christi in damentum, tenetaz ignorantia infirmitas, morbum conscientia sustinens, & mortem utrobique. In 1. Petri cap. 2. v. 2.*

ZORI oneco etor-era, nere JESUS maita-garria, gaur zue nere comunionean ni gaur eguin dezun etor-era, eñan dezaquet nic, ni gaurzen deneco nere JESUS SACRAMENTUA.

OCUI utlaren idurico: odei-pean, edo ogui atuzuran sartu zara zu gaur ni ongui maiez, nere barreneño, ta sartu zara zu, nere JESUS maita-garria, adiuntz, edo garai guztiz ederrean.

ORAIN-dañoco nere becatuac laño-pean nenduca-

Bbb2 ren

ten ni ; ta laño-pe guztiz illun ari-garrían. Nere illumbec beltz lañozco onetan , ecuti bague nengoen ni , nic ecuti beharrac diran , nere zorrac , nere beharrac , eta zure ontarte andi-ecuf-tecoac : eta orre gatic nengoen ni , zuri nic nere eiquerrac emateco , nere zorrac ateratzeco , ta nic behar nuena billatzeco , eguin behar nuenic niola ez nequiela. ETA dembora berean negoen ni lister eritzeco , ta becatuz iltzeco vide guztiz egoquian. NERE baitan daduzcat nic , languiro caltetí oneraco eguñac diran , nere oicura gaisfoac , eta gaitzeco nere macur-erac. **OR** Iec afeotan lea eraguin dizquidate niri , norc daqui combat gaizqui , ta becatu.

**ORRE** mbat aldiz oriecc ni garaitzen nindutela , guztiz azpiratua menducaten ; ta nola nic oriecc orain garaituco nituen , zu emen ez aguertzerá , oriecc garaitzen niri laguntzeco ?

**ONGUI** etorri , bada , nere **JESUS** maita--garría ; ta milletan ongui-etorria zu , ni gana zatozen ezquero , orrembat nere oneraco.

**AI**Ena zazu gaur zuc nere adimentuco illintafuna , ezagu ditzadan nic gaur , dirau

bezala , emengo gauzac.

**AUTS**-eguizquitzu zuc orain-dañozco nere aztura gaitzeco ; quen egui-dazu zuc , gaitzeco nere macur-era , ta , tirria , gaitzac utzine , ari nadin ni , bat-ere luzatu bague , zure gauz onetan , ta nic zu bihotz on garbiz emen cñez maitatzen , guero ni zu maitatzen , ta maitatzen egoteco eternidade batez an cere Ceruan. Ala guerra dedilla , nere **JESUS** maita-garría ; bai arren , bai.

**BOST-GARREN ESQUER** :  
videa.

**ZU** comuniatu ondoan gogora dezaquezu , **ZACHEO** centzan , guizon aberats , eguiteco aguitz nats-garri barzuetan cebillen batequin gure **JESUS** maita-garriac eguin izanduz uena ere , ongui egon nabi ba-dezu horduan zuc , eta Ceruraco irabaci andiac eguten dituzula.

**ZACHEO** hau gure **JESUS** ecuti naiez ibilli cen **JESUS** bera **JERICOCO** erian cebillen aldi batean.

**AN**itzen artean cebillen an aldi artan , gure **JESUS** maita-garría , ta guizon chiquia cen **ZACHEO** bera ; ta , lurreic ecin ecutiz airziñatu cen , ibi-

liz

Iliz viciro, ta igan cen, JESU Sec ceraman, videco arbolaba-tera.

ARATzean beguiratu cion JESU Sec, ZACHEORI, eta ots-eguin cion: JAITSI zaitetz laster, ZACHEO; bada conveni da gaur ni zure echean sartzea, ta egotea.

JAISTen da bertan ZACHEO, ta ba-darama JESUS maita-garria, bere atseguin andia-reqin bere echera.

HAU ecustean, marmarioz asl ciran gañeraco guciac, eta gaizquica JESUS en gain, ceren sartu cen guizon becatari baten Echean. BAÑA ZACHEOC erran cion JESUS i; ona, Jauna, niri gaur zuc eguiten didazun, ontartea gatic, behartsuen daco, nic ditudan, ondafunen erdia; ta, eguin ba-diot norbaiti nic calteren bat, ematen diot bacoitzari, zor diodana bezalaco laur.

ECUSTen du JESU Sec, cñez diola ZACHEOC, aldi hartan an erraten duena.

ONTZAT artzen dio, hau erran-erazten dion, bere becatuen damua. Barcatzen diozca bere becatu guciac, eta ematen dio Ceruco bere gracia.

HAU hari JESU Sec adirazten dio, erraten dionean, bai; ondu da gaur eche hau

gucia: *quia hodie salus domus huic facta est.* Luc. 19. 9.

ONGUI prestaturic urbildu behar dezu zuc cere comunione co maira; ta ecustien dezunean zuc an cere JESUS maita-garria zu ganaco videan asia, aitzinatuco zara, cere bi-hotza nai andiz, ta amore onez apaintzera, cere bularbarreneco guelaratzen zaitzunean, hari agur humillac, eta ongui-tori ederrac eguiteco.

HAU zuc eguin, ta, al dituzun, esqueric onenac cere JESUS SACRA-mentuari emã ondoan, adiracico diozu bertan berari cein behartsua uzten zaituen zu, berac nai duen, guci-guciraco, bere etortze orretan eguiten dizun, ontarte, ta favore andia gatic; eta, nola ere-bait cere zor onj erantzun naiez, errain diozu horduan zuc, berari atseguin emateco den, gauzaten bat, edo beste.

ORI-ETATIC dira: ONA, nere JESUS maita-garria; ona, zuc niri emanac dira nere adimentua, nere nai-vidia, edo vorondatea, nere hitzac, eta gañeraco nic ditudan, nere gauza guciac.

GUCIAC eman cenezquidan zuc niri cere gauz on-etaraco, ta nere lagun urcoen alde. EZ naz orain dañocoanni

384

### *Jesusen amore-nequeei*

ez gauz ori-etan haritu izandu, gueianean beintzat; eta nic behar baño, gueiagotan haritu izandu naz, bai, behar erziran, gauza galgarri-etan. HARTaz ditut oram. damu; ta ciñez al-ere!

GAUR-guero nere gauza guciac eguin uste ditut nic, eguin behar diran, eran, ta zuc nai bezala.

ORAIN dañocoan nere vici-era galgarria-requin caltear utzi izandu ditut nic, ni ecufiten nindutenac. NIC orain ondu uste diet ori gucia; ta ondu uste diet, nere vicitza berri ona-requin; ta hitzez nic, eta al-dudan eran eracufiten die-dala berei beren gauza guciac zucen eguiteco videa.

ZUREA da, bai, nere JESUS maita-garria oraingo nere almo, ta gogo garbi zucen hau ere. HAU bezala, eman behar dituzu zuc, nere anima, nere adimentua, nere bihotza, ta ni nazan guci hau onduric guelditzeco behar. dudan, guci-gucia ere:

ETZARA zu fartu, ez nere eche char onetan, utfic ni, ta gabe zuc uztera. EZ dira orretaraco eguiñac, ez, emengo ERREgueac; eta ERREgueac ERREgue. zara zu, gure JESUS maita-garria. EGUI-

zu, bada, dagoquizuna; ta, beste anitz cere gauzaren artean, indazu niri, nic orain zuri, efcartzen dizudan, guci-gucia. Bai arren, bai.

### SEIGARREN ESQUER VIDEA.

GORputz: erien alde eguiñ-ten cituen gure JESUS; maita-garriac, emen vici cen demboran, anitz onguiti, ontarte, ta on; ta guciac ciran, JESUSec berac animen alde eguina nai dituenen siñuac.

ORIFatic da (ta onat al-ere) San PEDROren echean eguin izandu zuen bat; eta da, comuniatu: ondoraco esquer- vide guztiz zucena.

SAN PDDROren echean charqui arquitzen cen, ta fucar andia-requin, edo calentura gaiftoa-requin, San PEDRO beraren Ama-guiarava, gure JESUS maita-garria an fartu cen, aldi batean. ALA JESUSec hura ecufi horduco, uquitu izandu cion bere efcua; ta hau, befteric bague, asqui izandu cen - eri fucartian bere fucarra quentzeco, ta berari bertan emateco bere ofafuna.

ARTZEN ditu bertan bere soñecoac eri fendatuac; eta, jaiquiric, ematen dio bere efcuz gure JESUS, bere senda-

tza

tzalleari, bere barazcaria (Matth. 8. 14.).

ORRA aldi onetan JESUsec eguiña! ETA orra orrecguri adirazten diguna, edo comunione bere uquitzez JESUsec berac gure animan eguin dezaquena!

BA-Ditu, bai, gure animac ere bere fucarrac, dio San AMBROSIOC (1. 4. in 4. Luc), eta, goiputzaren fucarrac baño, fucar aguitz gaitsoagoac!

ANimaren fucarra da, dio Santuac, ondafun alderaco gure macur-eraz animaren fucarra da araguiaren atseguin char-etaraco, limurtafuna, ta tirricacioa; animaren fucarra da lecu andietan, ta eguiteco ederren artean egon naiaz bai, ta naigabe hordu-etaco ira, edo iraña ere. ORRA animaren fucarrac, San AMBROSIOC diomaz.

ETA orra dio San CYPRIANOC, oriec, eta gañeraco animaren eritasunac quentzeco ALDARECO SACRAMENTUA: *meduamentum ad sanandas infirmitates.*

ORRA, bada, zu comuniatu ondoraco bertze esquer-vide eder bat ere. BA Ditzu nosqui zuc ere, besteen eran cere fucarrac, eta animaco eritasunac?

AGUERTU behar diozcatzu, bada, zuc cere JESUS maita-garriari, JESUS bera cere eche-  
ra datorquitzunean, edo zu comuniatu ondoan eslaten diozula: zori onean aguertu zara zu, nere JESUS maita-garria, oraingo cere aguer aldian; bada aguertu zara zu gaur nere beharrac, eta premiaco guztiz escatzen cinduzten aldian! ONA, bada, ni nere JESUS maita-garria; ona ni eritasun gaitsoz, ta nere animaco fucarez guztiz betea!

ONGUI arkitzen nazi la ni, nic uste dudanean, ta nic gutien gutiena uste dudanean, etortzen dira, ta, emen dabilzquit nere buru char arin onetan, ta nere bihotz gaitz-aldera guztiz macurtuan, ni ongui necatzen nauten, cembait gogoracio, ta gaitzeraco asino.

ORIEC nic, edo garaitu, edo aienatu-horduco, edo oriec nic aienatu, ta laster ba-datozquit niri guifa bereco beste cembait; eta ascoran beintzat lengoac baño ere, aguitz gaitsoagoac; eta guciac, goicetic arrati eraño, narabilte, ecin burutuz bezala, ta anitz uts eguiteco videtan sartzen nautela, cembait aldiz beintzat; eta cembait uts eraguiten dizquidatela.

ZU



ZU zara, zu, nere JESUS maita-garria, nere animaco fucar galgarrri hau queneraci dezaquezuna; ta gorputzaren fucarrac bezain, aisa: ta, onara zaran ezquero, eguizu nerequin zuc bette orrembeffe; ta indazu, niri gaur nere gauza guciac zucen eguifeco, ta, behar bezala nic zu ferveitatzeco, beharco dudan, zure laguntza ta gracia.

ZUC orain hau nerequin eguitera, bertatic utzico aut nic, bai, nere utfen oharzea: bertatic artuco ditut nic, bai, Cenuco virtuteen loñecoac; eta bertatic nic zuri prestatuco dizut esquer onczco, ta amoriozco janaria.

ORI da zuri atseguin andi bat eguiten dizun, barazcaria; ta ori, nic orain, ta betti, ta eternidade guci-gucian emain nai ni quezun, barazcane. Ala guerra deñilla, nere JESUS maita-garria: bai arren, bai.

ZAZPIGARREN ES-  
quer-vidca.

COMUnione ondoan gure JESUti esquer zucenac emateco, vide ona da NAZARECO ISRAELDarrac aguerttu zutena.

SARTZEN da bein gure JESUS maita-garria, NA-

ZArer-darren Elizan, edo Sinagogan; ta asten da an eguiten, bette bazterretan eguin oi zuena, edo asten da eracasten, NAZAREth-darrac jaquin behar zutena: eta bere lan onetan asti cenetic lan bera berac batatu artean guciac ceuden JESUti beguira, hitzie galtzen etziotela: & *omnium in Sinagoga oculi erant intendentes in eum.* Luc. 4. 20.

JESUS maita-garri beraren Eliza zara zu, San PABLOCC dionaz: *templum Dei estis* 1. Cor. 3. 16. Bere Elizara dator gure JESUS maita-garria, gu gana datorren al-dian; ta onara dator, len ISRAELDarren Eliz etan hitzez eguin oi zuena, emen isillic eguitera, edo ongui comuniatzen den animari bertan adiraztera, berac jaquin behar duena; ta adarico dio horduan, bai hau guci-gucia, anima berac horduan eguitera NAZAREthco ISRAELDarrac bere al-dian eguin izandu zutens, edo anima comunia-tzalleac bere gogo-beguia, behar ez diran, gauz-etatic quentzen otuela, aditu nai ba-ditu JESUS SACRAMentatuaren hitz mee ederrac.

„AH! ta cein gogoz  
„aguertuco niezten nic animaci  
„nere asmoac, eta nere gau-

„za

„za gordeac ( eran cion bein  
JESUsec Santa THERefari );  
„baña lurreco gauzac escain-  
„billandia darabilte, orien bí-  
„hozrac , nereac bezain hitz  
„mercaditzeco ! UTZ ba-li-  
„tzate , noizean bein bad-ere,  
„onietarraco!

ETA nioz uztecotan ,  
nitzi behar hituzquee , berac co-  
maniatu ondoan ; horduan ala-  
baña hitz-eguiten digu gure  
JESUS maita garriac , ecia alde-  
ragotic ; eta , aldi aitaco hor-  
dua da , guc arqui dezaquegun,  
horduric onena ; bada hordu-  
an gaude gu , diran , ondafun,  
ta virtute gucien emallea-re-  
quin ; ta emalle , guc ar al ga-  
cia eman naiez arquitzen de-  
na-requin.

ZAUDE , bada , hordu-  
an zu , NAZAethco ISRA-  
eldarren eran ; ta zaude zu ,  
cere JESUS maita-garria gana,  
bai , ta bestetara beguiratzen  
ez dezula. AIENA zatzu zuc  
orretaraco lurreco cere gogo-  
etac , eta oroitzapen guciac ; eta  
erriaiozu zuc cere JESUS mai-  
ta-garriari : *loquere , Domine , qui  
audit servus tuus* : hitz-eguizu zuc  
gure JESUS maita-garria , ta  
adiraci zadazu , orain ni gan-  
dic , zuc nai dezuna.

ICAFI naiez nago ni  
gaur , gaur-danic zuc nitaz nai

III

dezuna ; ta icafi naiez , nic icaf-  
ten dudana bertatic eguiteco.

VIDE zucenez eraman  
naico nazu zuc ni , eta cere  
ondoren , bein ere nic uts-eguin  
bague. ZORI onecoa ni , ta  
mill-etan al-ere , hau nic gaur-  
danic zucen eguitera ; bada far-  
tucac naz laster ni , zu zandea  
lecuan , edo zure Ceruan ; ta  
fartuco naz ni an , an nic eter-  
nidade bareco ategitin conten-  
tu oioac izatera.

BA-daquit nic , bai , ne-  
re JESUS maita-garria cer egui-  
teco den zure ondorea ni zu-  
zen ibiltzea. ZURE ondoren  
zucen dabilenac , escura be-  
harco ditu bere asfal-aldieran  
bere pafioneac ; ito beharco  
ditu bere barreneco naicunde  
lizunac , verdecu--naiac , eta,  
behar ez diran , hitz-etaraco , ta  
gauza gauto-etaraco bere tir-  
riac.

ZURE ondoren zucen  
dabilenac , nere JESUS maita-  
garria , ompeta beharco ditu  
bere antusteac , eta mandu ero-  
aren errate galgarriac ; eta ez  
du eguin beharco , fulececo gal-  
garriac eraguin nai liquezcon,  
bere gauza gaisto-etatic bat ere.

HAU gucia eguiteco  
afmoan nago ni , nere JESUS  
maita-garria ; bai ta , gañeraco  
zuc adirazten didazun , guci-

Ccc

gu-



gucia ere, hartan zuc cerorrec laguntzen didazula. dazu zuc cerorrec nai dezuna. EZ dut nic izan nai, ez, orain-

LAGUN zaquizquit, bada, bortizqui zu : ta adiraci za- dañocoan bezain, elquer-gabea, ta nere galgarri gaiftoa.



## LXXXVII. OTOITZ-GAIA.

### GOGOZCO COMUNIONEA.

**G**URE JESUS maita-garria joan oi cen aldiren batzuetan, eriac arquitzen ciran, toquira, eriac fendatzeco ; bafia beste batzuetan fendatzen cituen eri berac, ara bague, ta orien fenda-era oriefcatzten cioten toquitic.

CER gatic eguiten 'ote zuen, edo certaco bere azquen fenda-er hau gure JESUS maita-garriac?

GURi adiratzeco, gu gana comunioz farturic eguiten dituen, anim-etaco fenda-

erac, eguin ditzaquela berac, gu gana bague, ta bere ALDAREtic ere.

NOLA da ori?

GUC gueroc efcatzen diogula JESUS maita-garriari, gu gana comunioz etortzen ba-liz, efcatuco gueniqueon, eran.

ESCAer hau da GOGOZCO COMUNIONEA. Hau ere ondafun andizco COMUNIONEa da ; ta orre gatic guc orain ecusi beharra.

### §. I.

### CEIN ESCAER ONA DEN GOGOZCO COMUNIONEA.

**E**SCAER guztiz ona da gogozco comunionea, eguiten ba-da, CAFARnaun ceritzan, erri bateco Soldaduen Nagufiac eguin zuen otoitz, eta efca-eraren eran.

GAIZQUI ceducan Soldaduen-Nagufi onec, eta perlesiaz elbarrituric bere mutil-etatic bata.

ADITU zuen nombait, fendatzen citucla gure JESUS mai-

maita-garriac gaizqui ceuden, gaifoac beren eri-tafun-eratic; eta, naiez, fenda cezan beraren mutill hau ere, vidaldu ciozcan onetaraco Arteco onac: *misit ad eum señores Judaeorum* (Luc. 7. 3.).

BIARTeocoeñ otoitza aditu horduco, artzen du JESUsec eri bera ganaco videa. BAÑA, ara ciojalaco orla aditu zuenean eri beraren Nagusi Soldadu-dunac, igorri ciozcan JESUfi bere adisquideac, beraren icenean hari erratera: JAU-na, ez dezuzula orrembat neque, ta enoiu ar. NI ez naz nere ichean zu artzeco diña; ez, eta zure beguetan aguer tzeco diña ere; ta orre gatic escatu dizut Artecoz nere mutillaren ofafuna. HAU oni zuc emateco, ez dezu behar zuc, zauden lecutic hitz bat erratea baicic: *dic verbo, & sanabitur puer meus* (v. 7.).

SOLDADu-dun Nagusiaren mandatu hau JESUsec aditzean: Ez dut arquitu (erran izandu zuen), onembat ufte, ta sifuste ISRAELdar gucien artean; ta guero; ALA GUERTA DED-LLA: eta hordu berean guertatu cen gucia; ta mutil elbarria guelditu cen ofafuna-requin: *& reversi, qui missi fuerant, domum, inve-*

*nerunt servum, qui languerat, sanum. v. 10.*

ECUSten dezu Soldadu-Nagusi gentil batec erdisten duena? BAÑA ohartu ote zara zu hau harc erdisteco eguin izandu zuenera?

SINistu zuen harc beinic-bein gure JESUfen efena, ta ahl gucia, edo bai ceguique-la gure JESUS maita-garriac, escatzen ciotena.

ESCATu cion guero, Arteco onac billauric, JESUS bera gandic erditu nai zuena.

ETA azquenean, eza-guturic harc beiac bere ecer-eza, erzen trebe izandu, bere echean JESUS arzera; ta escatu cion JESUS maita-garriac, ceguiquen ezquefo, eman cezola, cegoen toquitic, eta bat ere iguitu bague, escatzen ciona.

ORRA Soldadu-Nagusi onen escacia; ta orra cein ona.

BADA eia berecoa da, gogoz ongui comuniatzende-narena.

BA-I tra cembait anima, berec nai aditeran, JESUS comunionean artzera trebe ez diranac.

EZ daquite beraz cembat diran, comunione oneco ondafunac?

EZ da orre gatic; ez...

CER gatic, bada?

Cccz

CE-

**CEREN** ezagutzen duten, batetic JESUSEn izate andi-eder-arrigarria; ta bestetic beren cirtzilleria, ta ecer-ez, utfez dena betea: ta bi gauz orien ezagumentuac ematen dien, beren comunionean izate oriee biac elcar ganatzeco beldurra.

**BELdur** one gatic, bada, edo, **APEZ**afunac daraman adifietan, comuniatzeco beldurrez, etziran **APEZ** eguin izandu, beste anitzen artean, **S. BENito**, ta **San FRANcisco**.

**BESTE** cembait, **APEZ**ac izana gatic, egun-oroco berē comunioneac beldurtzen dituela, ez dute egun-oro **MEZA** eman oi, edo urtearen buruan cembait egunez uzten dute (ta ez nagui-tafunez, edo beste aitzagui eroz, baicic humiltafunez, ta errespetuz) **MEZA** ematea.

**VIDE** berez dabilitza beste anitz ez-Elizaco-etatic ere; ta, nai andiac dituztela, maiz, eta maiz comuniatzeco, ez dira comuniatzen, comunia litezqueen, egun gucietan. **ETA**, comuniatzen diran-etan ere, comuniatzen dira, icara, ta beldur andia-requin.

**ANITZ** damu, ta negar-equin erran oi ciozcan **Santa THERe**fac confesariari bere uts chiquiac; eta al ere, hura

comuniatzean, icaraz arrotzen ciran haren buruco ille-ondoac. **ERA** berean, edo aguitz icuratutic comuniatzen dira, cembait aldiz beintzat, beste anitz anima garbi-virtutesfu ere.

**ANIMA** oriee utzi oi dituzte urtearen buruan cembait comunione; baña beren ahozco comunione orien orde eguiten dituzte naiez, ta gogoz, beste cembait; eta beren gogozco comunione orietatic ateratzen dute, ahozco-etatic atera lezaquen adina atseguin, ta ondafun, edo beintzat anitz.

**BERE**bat eguin dezaquee egun oro, ta egunean alcotan ere, egun gucietan comuniatzen ez diranac; bada naiez, ta gogoz, ta siñiste vici garbia-requin Ceruco janari eder hau jaten dutenac, irabazten dute, ta erditzen, dio **TRENToco** Concilioac, anitz on, ta ondafun: *oro...caelestem panem edentes fide viva... fructum... Caritatem sentiunt.* fest. 13. c. 8.

**BAña** nola eguiten otz da gogozco comunionea?

**CAPAR**naungo Soldadu-Nagusiac eracutsi digun eran **ATO**zea, nere anima: ta ez dago aguitz nagui zure gorputza bere gauz onetaraco? **BAI?** **ETA** ez da zure gorputz

ori

Ori zure mutil, ta servitzari bat bezala, edo zuri cere lan. eran laguntzen dizun, cere erdia? OKI ere bai? ORRA, bada, non eri daducazun zuc ere, cere servitzaria, edo cere zati-etatic bat.

ATOZ oraindic: eta ecin quen dezaque gure JESUSec, zure gorputzac bere gauz on-ctaraco duen eri-era, edo nagui-tafuna?

BAI, ta errazqui, edo aisa asqui alere.

NOLA ote?

COMUnionez guztiz ederqui.

ETA beste videren batez?

BAI, ta beitez ere, bada ba-daguique JESUSec, bere Sagrariatic atera bague, gu gana sartu, ta eguin oi duena; eta eguiñen ere du, ori guc ongui ta behar den eran escatu ezquero.

ETA ecin daguiquegu guc escaera on hau?

CER gatic ez, oraindic gentil cen Soldadu batec eguin izandu ba-zuen, guc ecufi dugua, bezain ederqui, ta zucen.

BILLA zarzu, bada, zuc, cere MEZAc enzutean, edo cere Jangoico SACRAMentatua ecutera Elizaratzen zaraa aldietan cere ofafuna, ta

nai dezun beste gauza gucia, ta billa zazu, cere Artecotzat arturic bein gure JESUS maitagarriaren Ama maitaria; guero Aman onen Esposo, ta JESUS beraren Ait-orde San JOSEPH; ta bi-eguin batean, zu zaitzen zaituen cere Aingueru ona, ta cere iceneco Santua.

ORIEC laurac, eta nai dituzun, beste Santu guciac arteco arturic aguer eguiozu JESUSi orien escuz, edo orien itzalletic cere eritafuna, cere beharra, ta premia; ta erraiozu cere uste, ta humiltafun alic andiena-requin.

ONA nere JESUS maita-garria; ona ni, zuc orain dacufazun eran! ERItafunez beteric arquitzen naz ni nere burutic onetaraño! ECUS ten dezu cer antustec, cer gogoetac, eta cer naspillac, nic beti gau, ta egun emen darabiltzidanac!

GAUZ on bat nicnere gogoan artu-horduce, aienatu, edo gal-eraci didate niri, norc daqui cembat asmo eroc, eta oroitzapen lizun charloi galgarric: eta, eternidaderaco nere gauzac zucendu-nai bat datorqui-daneco, emen datorz nere gogo berera, nere eguireco, ta lan char cirtzillac, eta gal-erazten didate, edo naf-

ten,

ten, nic beharren-beharren nu-  
cuenena.

**BURU**Aren eran ar-  
quitzen da , nere **JESUS** mai-  
ta-garria , nere bihotz hau ere;  
bada arkitzen da gauza gaif-  
to-etara oitu--eguia , aztura  
charrez guztiz betea , gaiz-al-  
dera erdi eroria , edo guztiz  
macurtua , ta gauz on-etaraco  
naigabez , ta illun-tafunez be-  
te-betea. **ORRA** cein eria ne-  
re barren alde! **ECU**Sten de-  
zu zuc hau , nere **JESUS** mai-  
ta-garria?

**BADA** ez da batere  
obequi arkitzen , ez , agueri  
den , nere zatia. **CEIN** ecusle  
cañac ( ecusten dezu ) nere  
beguiac! Behar ez diran , gauz-  
etan dira biac , nic nere bete-  
zalac zabaldu-horduco ; ta gau-  
za char galgarri ori-etatic oriec  
nic quentzeco , zuc daquizun  
lana , ta nequea da horduan  
niri oriec ematen didatena.

**ETA** beharriac? **PRF**-  
dicuen , ta hitz onen ignesi , al-  
dutenean ; ta , eleac , laufen-  
gac , hitz arñiac , marmariac,  
eta canta , ta foñu liquitfac  
aditzeco , beti zabalduac.

**NERE** ahoa , edo nere  
españac?

**ARRO**farioac, eta ototz  
onac eriteco , gutienean erdi  
m. cartunac ; eta , behar ez di-

ran , etauli--etaraco , guztiz  
hitz-ontziac.

**ETA** nere escu-oñac,  
eta gorputz gucia?

**ATSE**guin zaleac , jof-  
taqueten billaleac , jan-edanez,  
ta loz ase , ta alpertu-naiac , eta  
dembora berean gure Legue-  
co gurutzaren etñaiac.

**HAU** onela , edo la-  
burquiago zuc hari aguertu-on-  
doan , errain diozu **JESUS**  
**SACRA** mentattuari cere Bitar-  
tecoen artetic ; ona nere Jan-  
goico maita-garria , ona cein  
eri arkitzen den gaur nere mu-  
till , edo nere lagun gorputz  
nagui-tzar hau ! **ZUC** ba-dezu ,  
bai , hau bezalaco eriac fen-  
datzeco , behar den , jaquitun-  
dea , escua , ta indar gucia. **SEN**-  
da dezaquezu zuc nere gor-  
putzaren eritafun hau oraingo  
nere comunionean , edo ne-  
re comuniatu nai on hau ecu-  
si horduco.

**ONTAR**te andi bat li-  
zaque neretaco comunione on  
batean , zu nic artzea ; ta po-  
zic artuco cinduzquet , bertat-  
tic nic , ni artara prestatuac ar-  
quitzera. Ay ! nic artaraco bal-  
din ba--neduca Ainguenen  
edertafuna , ta zere Amaren,  
ta gañeraco Santu-Santa guciaen  
virtutea !

**BAÑA** ecusten dezu zuc  
nere

nere JESUS maita-garria, cein gabe nagoen ni; ta bestela ere ecin ar zaitzaquedala nic edo cein horduz, ta gogoac niri ematen didanean.

ZU cere SACRAMentuan ni gana ez etorria gatic, ar dezaquet nic escatzen dizudan, ondafuna, ta nic behar-co dudan, Ceruco zure gracia; bada zuc cere hitz batequin ba-daguiquezu, ori gucigucia, ta zuc cerorrec deritzazuna.

EGUIItzu, bada, nere JESUS maita-garria, cere Ama Virginia gatic; eguizu cere Aitorde maite San JOSEPH gatic: eguizu, ni zaitzeco, eman cendidan, cere Ainguerua gatic, eta nere iceneco, ta devocioco Santuac gatic; eta eguizu cere bihotzeco amore andia gatic.

ZU cerori nic obequi maitatzeco, ta nere gauzac nic ongu, ta zucen eguin naiez da, orain nic zuri escatzen dizudan, ofafuna, ta gracia. ETA nola zuc ucatuco didazu niri, gauza zucen ori-etaraco escatzen dizudan, gauzaric bat ere? EZ da erraz ez; ecinda-guiquezu ori zuc, ez nere JESUS maita-garria.

ERA onetaco escaera da gogozco comunionea: ta ori da, gure JESUfi atseguin

andi bat eguiten dion, comunionea, edo escaera.

ECUsten dezu cein erraz den ori eguitea. ETA bertatic oitu zaitetzen orrelacotara, aguertu nai dizut nic, era orretaco comunione bacoitzean zuc irabaz dezaquezuna.

§. II.

CEIN ONDASUN DUNA DEN gogozco comunionea.

**A**R dezazula zuc cere JESUS zure commnionean, edo dagoela JESUS ALDAreco bere SACRAMentuan, JESUS beti da JESUS; beti da Jangoico-guizona gure JESUS; ta beti-beti ondafun gucien Jau-na, ta Jabea.

ETA arqui dedilla bat bere comunionean gure JESUS ona-requin, edo bere comunionean JESUS artzeco gogoa-requin, beti ar dezaque anitz, JESUS ona gandic; bada nonnai eman dezaque gure JESUS maita-garriac berac nai duena; ta ematen ere digu, dagoquiguna, behar den, eran escatu ezquero: ta orre gatic da ondafun-duna gogo onezco comunionea.

BAÑA cein ondafunduna?

BE-

BEREZ bazterric, eta neurriic baguecoa; baña aldi-an, eguiten duenaren, gracia, ta gogoa diñacoa.

GRACIAN egon behar du, ta ongui bere Jangoicoa-requin, gogozco comunioetic ondaiunac ateraco dituen animac; eta, gracia gueiago duen, animac, guri duena bezain ongui prelatu ezquero, ondafun gueiago ateraco du-gogozco bere comunioetic; eta aldi hartan, onen-daco ondafundunagoa da, edo beñeari baño, ondafun gueiago uzten diozcana beraren gogozco comunioetic.

ETA guerra liteque noitzbait, gogozco comunio-ne bar eguiten duen animac, ahozcoa eguiten duenac baño, gueiago irabaztea, bere prelatze, ta eñeera ohea gatic. ALA irabaci zuela bein Santa GETRUDISEC, dio, Santa onec gauzen berria ematen digun, berri-lari on batec.

ERI cegoen bein Santa GETRUDIS, ta eñin comunia citiquen eran, gañeraco Seroreac, edo Conventuco Monjac comuniatu behar zuten, egun batean. BERE eñin-comuniatu hau hanc eñusi zuenean, itzuli cituen bere begui-gogoa bere Jauna gana, ta errai izan-

du cion hitzez, edo bihotzez: ONA Jauna, ni ez bein ere zu artzeco diña, ta gaur, artaco ba-nengo ere, eñin ar zaitza-quedan eran! ECUSTEN dezu zuec eñin andia den nere zu artzeco, prelatu naia; ta prelatu ondoan, zu comunioean artu-gogoa. ORAINGO nere nai gogo hau guerta dedilla comunione ondafun-dun, edo oraingo nere nai gogoa diñula zuri, comunione berac adiañ atseguin, ta gloria; ta niri nic orain behar dudana.

ALA guertatu ere cenzta, Seroreac comuniatu ondoan, adiraci cion gure Jangoico maita-garriac Santari, Conventuco Seroreac beren comunioea-requin baño, gueiago irabaci zuela Santac bere gogo utsezcocomunioea---requin Haut. n. 915.

BEREZ ez dñi orrenbar eguiten gogozco comunio-neac; eta, gogozco comunio-neac baño, ondafun gueiago uzten du Animac ahozco comunione osoac. ALA ere urtearen burrian atera dezaquezu gogozco cere comunione-etatic, beñe-etatic adiaña, ta gueiago ere.

CER gatic ote?

CEREN ahozcoac, edo comunione osoac baño, gueiago-



gotan , ta guciagotan eguin ditezquen gogozco comunioneac ; eta aldian ambat ondasun ez artua gatic , era orretan ar ditezquen azqueneraco anitz eta anitz guciago : bada egunean bein gucienean ahoz bat comunia diteque ; ta gogoz anitz , eta anitz guciagotan , ta , berac nai duen , aldi oro.

AGUEda de la Cruz, edo Guretzecoa ceritzan , Santo Domingoco Serore virtuterfubat beti cegoen comuniatu-nai andi baten sua-requin ; ta , bere su onec buca etzezan hura egun gutiren buruan , erran izandu cion bere confessariac, eguin citzala noizean-bein bere gogozco comunioneac ; eta eguin oi cituen egunaz eun aldiz , ta bertze ambesteran gau-oro. Apud P. Parra com. espir. plat. 12.

CEMbat irabacico otezuen onec urtearen buruan gogozco onembat bere comunione requin ?

GUC ez daquigu ; baña anitz , eta anitz , egunen batean aguerico den bezala : bada ba daquigu guc era orretaco comunione bacoitzac atseguin eguiten diola gure JESUS maita-garriari , ta eman erazten diozcala JESUgi bere ondasun-etatic , JESUsec be-

III

rac S. GETRUDIGi erran izandu cionaz.

ETA ba-daquigu besteric ere ; bada ba-daquigu , beretzen duela gogoz , ta naiez comuniatzten den , animac gure JESUS maita-garria.

ALA adiraci cion JESUsec berac Sta MATHILDari.

Sta MATHILDA , beste Seroreac comuniatu ciran batean , comuniatu narandi batequia arquitu izandu cen ; baña , eri cegoen , ta etzen comuniatu.

SEROreac comuniatzetan , aguertu cequion JESUS Santari Cathadera , edo Tronu eder batean ; ta , arturic , beraren icenean DAVIDec erranac daduz can hitz barzuec ( hitzac dia : gabe arguitzen diranen crimel-queua gatic , eta behartfien negarac adituric , urzico dit oran nic nere egon--toquia : *propter miseriam inopum , & gentium pauperum nunc exurgam.* Plal.

11. 6. ) Jaqui cen JESUS bein , cegoen lequitic , urbildu cen Santa eria gana , ta erran izandu cion : izan dedilla , den circuzillena , lurreco gauza bat , izan dedilla pits bat , edo lasto zatia , ez du hura batec erditfico nai urfa-requin ; baña , izaric ni , nazana , beretuco nau ni , nai uts , negar malco, edo suspicio bateguin ( Haut. num.

Ddd

914.



1914.) ECUSTen dezu ?

ANITZ Languilleren artean hari cen bat , S. FRANCISCOREN Eliz bat-eguiten. ERO-ri cen gañeco zur andi bat, eta eman izandu cion guizon languille oni , ta utzi zuen erdiler-  
tuetua , ta eriotzeo trancean.

CHRISTIO onac bezala escatu cituen Languilleac Elizaco gauzac , eta berezqui comunioa. LUGUnac , ustez, etzuela irauten gure Jaun SACRAMentatua hari ecarri artean , NAIEZ , TA GOGOZ COMUNIA ZAITEZQUE, erran cioten San AGUSTinen hitzequin , TA COMUNIATU ZARA ; ez da orain besteric behar ; *crede , & manducasti.*

EGUIN zuen Languille eriac , erran ciotena , ta besteric ez. AGUERtzen zaio urrengo arratlean San FRANCISCO , bildots baten antzan JESUS cecarquiola ; ta erraten dio ; ONA zuc ahoz artu nai cenueu , ta gogoz , ta naiez artu dezun bildotfa. HAU zuc , cere naiez , ta gogoz artzea-requin artu dezu Animaco ofasuna , edo gracia ; ta orain artuco dezu cere gorputzarena ere : ta artuic , joan cen urrengo egu-  
nean bere lanera , ecer izandu ez-pa-lu bezala. *In eius vita.*

ECUSTEN dezu , nola-

coac diran , ta norañocoac , gogozco comunione-etatic batec ateta dirzaquen , ondasunac. ETA ecusten dezu , cein aisa , ta erraz atera ditezqueen , ondasunac diran ondasun oriec. NAIZ zaudela gueldiric zu naiz lanean arqui zaitecela, naiz eri , naiz ofasuna-requin, naiz bacarric , naiz lagun artean , nondic nai , ta edocein horduz doazque zure naia , ta gogoa ALDARECO zure Jauna gana , ta eguin dezaquezu zuc cere comunione ondasun dun hau : ta cembat-ere cibezeagoa , cembat-ere beroagoa , aldico zure comuniatu-nai , ta gogo hau , ambat andiagoa , ambat gracia gueiagozcoa zure gogozco , ta naiezco comunioea.

EROA ni nere JESUS maita-garria , ta milletan , ta milletan eroa , eguiten ez-paditut nic ( eta maiz al-ere ) comunione onen ondasun-dunac ! bada alacoa lizaque , INDIEtaco ondasunac , nai utfez , ta gogoz irabaz litzaquela , irabazten ez-lituena ; ta , INDIEtaco ondasun guciac baño , gueiago , ta gueiago valio du , onelaco comunione-etan irabazten den , graciaren edocein zatic.

GUEIAGO irabaz deza-zun , gogozco comunione ba-coitzean , hau eguin baño , len

artu

artu behar dezu zuc cere go-  
goan, ALDARECO SACRAMEN-  
tuaren gain emen arquitzen di-  
tuzun, orotz-gaietaco gauza-  
ren bat, edo beste; edo, or-  
ren lecuari, comuniatu ondo-  
raco agueritu ditugun, esquer-  
vide-etatic deritzazuna.

ORI zuc eguitera, eza-  
gutuco dezu gure JESUSEN  
izate andi ederra; ezagutuco  
dezu cere ecer-eza; ezagutuco  
dezu JESUÏ zuc zor diozun,  
ongui naia, ta bazterric bague-  
co amorean.

ORI gucia: zuc ezagu-  
tzeac berotuco du bera ganaco  
amorez zure bihotza, ta fartuco  
dizu cere bihoz berean comu-  
niatu nai andiagoa; ta nai ta  
gogo irabaci andiagoa.

ORI zuc eguiten ba-  
dezu, Elizaratzen zararetan,  
goiz arratsetan, ta egunaz noi-  
zean bein, irabaci andiequin ar-  
quituco dezu cere Anima emē-  
dic ateratzean, ta eternidade  
guci-gucian.

EGUÏnen al dezu zuc  
hau gutienean bofi aldiz, zu  
jaiquitzen zararetic etzin hor-  
duraco, edo dela Eliza berean,  
edo Elizara beguira zaudela,  
edo gura JESUS SACRAMEN-  
tatua arquitzen den Aldarera it-  
zultzen zarala? Ez da ori gueie  
gui izain, ez, JESUÏ zuc zor

diozunaren alde, gueiagotan,  
ta gueiagotan eguiten ba-dezu  
ere.

§. III.

GOGOZCO COMUNIONE-  
ac ez dira ahozcoac eragoz-  
teco, edo gal-eraz-  
teco.

**N**AI du JESUÏSec, bai, na-  
iez, ta gogoz guc ar de-  
zagun bera gueren comunio-  
nean, edo nai du, deguizqui-  
gun guc gogozco gueren co-  
munioneac; eta onetan comu-  
ten digu bere ondafun-etatic  
anitz; baña naiago ditu  
ahozco, ta izatezco comunio-  
neac, huanqui onec guc egui-  
ten ba-ditugu, ta behar den,  
etan; ta gogozco comunione-  
etan baño, ondafun guetago  
eman: oi du era orretacotan:  
ta ez dira cer utzi comunione  
guiez, lembicicoac gatic.

EGUITZ-quitzu, bada,  
lëmbicico-etatic, al dituzun  
guciac; eta alic onguenagu-  
ci-guciac; baña ez dezazula utzi  
bat ere bigarren ori etatic: ori  
da JESUÏ artequin gueiago egui-  
teco videa; bai ta zuc gueiago,  
ta gueiago irabaztecoa ere.

BAI: beinic-bein atfe-  
quin gueiago artzen du gure  
JESUS maita-garniac gure bu-

Dddz: lar-

larrera dacarren , comunione onean , gogo utfezcoan baño ; bada JESUSEn atseguinac dira gurequin egotea , ta gurequin bihotzez bihotz jarduirizea ; ta , cembat ere alderagotic hau eguiten duen , ambat beréz andiagoa da gure JESUSEn atseguina .

ETA ecusten dezu , gogozco comunionean baño , ahozcoan , ta izatezcoan , alderagotic diarducala gure JESUSEc comuniatzten dena-requin .

ATSEguin gueiago due-la alderagozco , edo izatezco comunionean , gogozcoan baño , adiraciric da-duca JESUSEc berac bein baño gueiagotan ere .

SENaco Santa CATHalina etzen bein garaiez Elizara , nai zuea bezala , confessatu , ta comuniatzeco . JARRI cen , afia cegoen , Meza enzuten , bere comuniatu-nai andia-requin .

COMUniatu cen an naiez , ta gogoz ; ta ala ere JESUSEc orain gac diogan , hau guri adiraci-naiez , eguin izandu zuen Santac berac nai zuen ; bada nola , etzequiela , arqui-tu cen Mezaco hosti zaria aho-an zuela , ta artu zuen bere JESUS SACRAMentatu , ta comunionea . Raymund. de Ca-u. II. 213. Vita .

STANISLao KOSKA de-ritzan , JESUSEn Compañiaco Santu gazte batec , JESUSEn compañiara baño , len nai izan-du zuen bi aldiz comuniatu , ascotan eguin oi zuen bezala ; baña bieran Heregeen artean arquirzen cen , ta ez zuela norc eman comuniatzera . ALA ere guertatu cen harc berac nai zuena .

NOLA ote ?

AINGUERuen esctz ; ba-da , bere bi aldietan eman cioten AINGUERuac comunionea , Elizaren batetic eramaten ciote-la hosti confagrata . In eius vita .

BEREBat guertatu zaie beste cembaiti ere ; ta orien artean , BUENAventura derit-zan , Santu , ta Doctore andi bati .

MEZAcua cen Doctore Santu-hau ; ta ecularic ALDA-rec SACRAMentuaeren izu-garri-tafuna , ta guizonaren ecer-eza , iduritu cequin , obe izain cela , MEZA , ta MEZA-co comunioneac utzi , ta gogozco comunioneac eguitea , ta JESUfi erratea : „ Jauna po- „ zic ni comuniaticu nintzaque „ ta atseguin andi bat nuque nic „ oretansbaña ez naz ni ez arta- „ tico diña ; ta eguizu zue cere „ Aldaretic ni ganatzen ba-ciña , „ egui-

„ eguiñen cenuquen gucia , ta  
 „ indazu cere lagunza , ta gra-  
 „ cia.

HAU eguin zuen San-  
 tu Docto-reac , MEZA enzu-  
 ten cegoen batean.

BAÑA JESUsec dembo-  
 ra berean adiraci cion , naiago  
 zuela , urbil cequion-humilqui,  
 MEZ-ematera , ta comuniatze-  
 ra. CER videz ? MEZAcO hof-  
 ti-zaticho bat ahoan sartu , ta  
 comunionea ematen ciola.

ZU etziñaque , cere vi-  
 citza gucian hartan haria gatic,  
 prestatuco bein ere , behar liza-  
 quen,bezain ongui comuniatze-  
 co. EGUIZU aleguiña , cere  
 bihotza zuc confesione humil  
 batean ongui garbitzeco. QUEN  
 zaitez guero becatu vide-gaif-  
 to-etatic. ERAgotz izquitzu, al  
 dezun eran cere becatu , ta uts  
 chiquiac ere.

EGUIZU zuc eguin ala  
 cere pasione galgariac escu-  
 ratzeco , ta lurreco guci-equin  
 ongui etortzea gatic.

EMAIozu zuc beti nori  
 berea , ta cere Jaunari , zor  
 diozun cere bihotza ; ta hau  
 ere , bere amorioz , ta ongui-  
 naiez,ederqui berea. ETA , hau  
 zuc eguiteco , gogoa-requin  
 arquitzen ba-zara zu , noizean  
 bein zuc cere utlac eguiña ga-  
 tic , ez da cer iutzi maiz comu-  
 niatzea.


COMUnia zaitez , bada,  
 cere confessari on jaquintsuac  
 adirazten dizun , gucietan. OR-  
 REtan atleguin guciago egui-  
 ñen diozu zuc JESUS maita-gar-  
 rian gogozco comunione-eran  
 baño : ta guciago irabacico ere  
 dezu.\*

BAI ; gogozco comu-  
 nioneac baño , guciago , ta gue-  
 iago dacar berez gogozco , ta  
 ahozco comunioneac ; ba-da-  
 car alabaña gogozcoac dacar-  
 ren gucia ; ta orrequin batean  
 dacar Sacramentuarena ere ; ba-  
 da SACRAMentuac *ex opere ope-  
 rato* , edo berez ematen dio  
 gracian comuniatzen denari  
 graci berria ; ta orren gain be-  
 re nai-gogo , ta presta-era ona-  
 ri dagocana ; ta azqueneco gra-  
 ci hau baicic , artzen ez du,  
 gogozco comunionea baicic  
 eguiten ez duenac.

AR dezazun, bada , zuc  
 hau , ta beste gucia ; ta ar de-  
 zazun alic gucienetan , comu-  
 nia zaitez zu maiz maiz , edo  
 confessari onac adirazten dizun  
 adin alditan ; ta gañeraco dem-  
 boran eguizquitzu zuc Elizara-  
 tzen zaranetan , ta al dezun  
 gucietan cere gogozco comu-  
 nione on beroac.

EGUITen ba-dituzu zuc  
 bata , ta bestea ; ta cembait  
 demboraz emen zu, vicitzera,  
 ongui

ongui ondasun-dun , ta aberats ruan. Ala guerta dedilla , bada ,  
fartuco zara zu , bai cere Ce- bai arren , bai.



## LXXXVIII. OTOITZ-GAIA.

## M E Z A.

**A**LDAreco SACRÁmen- tugu MEZArenac ere , oriéc,  
tuaren ondasunac , eta jaquin baguez , gal-ez-dizagun  
ondasun orien irabaz---videac aisa , ta erraz irabaz-ditzaque-  
ecusi-ondoan , ecusi behar di- gula. ASI gaitecen ondasun-  
etatic.

## §. I.

CEIN ANDIAC DIRAN , TA NOLA ATERA DITEZQUEN  
MEZACO ondasunac ?

**N**ORAñocoan diran ME-  
ZAREN ondasunac ecusico  
dugu , ecusi ezquero CER den  
MEZA , ta CERTaco den. ECUS  
ditzagun , bada , bata , ta ber-  
rzea banaca ; ta lembicico le-  
guan cer den MEZA.

MEZA da , gure Jan-  
goicoari eguiten zaion , SACRI-  
ficio , ofrendi , edo present andi-  
bat ; baña present , Elizac ar-  
taraco bereci dituen , soñeco-  
ceremonia-ta. otoitz behar be-  
zaleco equin , eguiten zaiona.

JANGOicoari , ceren gure  
gucien Jauna den , zor zaizca  
bere presentac ; eta izandu ere  
ba diru guizonen dembora. gu-

cietan era bateco , edo besteco  
presentac , eta Legue zarream  
nioiz ere baño , gueiago , ta  
andiagoac.

LEGUE zarreco , ta le-  
nagoco ofrendac , edo present-  
tac , MEZACO presentaren al-  
dean , present guztic laburrac  
ciran ; bada guciac ciran , edo  
GARIZeac , edo oguizcoac ,  
edo ardozcoac , edo BILDots,  
ARI , IDI , CEGEN ill-errec,  
edo beste cem bait onrelaco gau-  
za , ta , lurrac cecarrena baño ,  
andingoric ez bein ere ; baña  
MEZACO presenta , Cerutic da-  
torquigun , presenta da , ta  
Ceru-lurrac baño , gueiago va-  
lio,

ño duen, gauzazco presenta; bada da Jangoico guizon JESUS maitezco presenta; MEZAN alabaña ematen zaio gure Jangoicoari, Jangoico beraren ohoretan, ta gure oneraco iltzez jofiric len Judatarac gurutze batean illic iutzi zuten, Jangoico-guizon SACRAMentatu bat, edo gure JESUS maita-garria. ETA hau bacarric jaquitea asqui da, jaquiteco certfu den, MEZA, ta cein andi ondasunduna.

ALA ere agueria-goan, ta obequi ecusico dituzu MEZAREN izate andia, ta ondasunac, bigarren gauza, edo MEZA certaco den, ecusten dezula.

MEZA da, Santo Thomassec dionaz (1. 2. q. 102. art. 3. ad 10.) laur gauz-eraco, edo gure Jangoicoaren OHOREtaco, gure ZORren alde, Jangoico berac eguin dizquigun, ontarteei guc ERANTzuteco, ta beraren ontarte bertiac guc IRABAZteco: ta, laur gauz oriec izanic, ecusten dezun bezalacoac, MEZAN bada gucien difnaco ondasunac, eta gueiago-ta-gueiago ere: ta orre gatic dira guztiz andiac. GOAcenicufiz.

I.

MEZA da beinic-bein,

gure Jangoicoaren. OHOREtan eguiten den, presenta.

BEREA du Jangoicoac, eta beticoa du, duen izatea; ta Jangoicoaren elcucoa da guc duguna; bada, Jangoicoac gu gueren ecer-ecetic ez ateratzerata, ecer-ezean egoin guñan gu gaur, ta beti, eternidade gucian egondu garan bezala.

JANGOICoa, berezco, ta beticoa ez-ecic, ecin-andiagoo, ecin ahaltzuagoo, ecin aberati-agoo, ecin jaquintzuagoo da, ta ecin obea: ta gu gara guerez ecin charragoac, ecin-ecerez-agoac, eta Jangoicoaren ecin-behartiagoo; bada hera bague deus bat ecin daguiquegu guc bein ere, ta gucia gatic zor diogu guc gueren Jangoicoari bihotz-buruzco agur alic andiena, ta present bazterric bagueco bat.

ECUSIric LEGUE zarrecoac beren zor andi hau, ta etzutela nondic atera, zor onec escatzen zuen, presenta, nairgabez betetzen ciran, batzuec beintzat, eta esquez cegozcan gure Jangoicoari, igor cezala lembaitlen present onengai.

Jangoico berari esquerac, ba-dugu guc, oriec erditfi etzuten present andi hau; bada, berac igorri cigun, guc behar horduco, ta anitz lenago ere,

Sceme-

Seme-Jangoicoa guizon eguin, ta ALDARECO SACRAMENTUAN guelditu cenic.

GUEROZtic Aita eternoari eguin daquioque MEZORO, zor zaion diñaco presenta, edo present bazterric bagueco bats bada bazterric baguecoa da MEZACO presentaren, edo JESUS maita-gariaren izate-valioa; ta orre gatic da MEZACO presenta, present ecin ardiagoa, ecin ederragoa, ecin opea; ta videnabat da, Ait-eternoari ecin gueiagoraño atseguin eguren dion, presenta; ez da alabaña Ait-eternoa-rentzat bere Seme Jangoico-guizon JESUS maita-garria bezalaco gauzaric.

ECUSTEN dezu cein andia den, MEZAN, alde ontatic gue beguiratzen diogunean, aguertzen zaicun ondafuna?

## II.

ONDAfin hau obequino ezagutzeco zoaz MEZABARI beguiratuz bertze alde-etic ere; eta oraingo aldian beguir egiozu cere zorren alde.

BECATUratzen denean bat, facten da, berez ecin atera ditzaqueen zorretan; irabazten ditu, fulecean arquitzen diran, betico neque arrigariac;

eta iuzten du guztiz aserretua, gaistoac fuleceratzen dituen, bere Jangoicoa.

CER eguin dezaque, bada, aserre daducan, bere Jangoicoa palacatzeco, bere burua becatuaren zor-petic ateratzeco, fulececo vide gaistoa galtzeco, ta bere Jauna-requin bat, edo adisquide eguñic guelditzeco? JESUSEN Amaz, Virguina, Martyre, ta Cerugucico Santuz, Santaz, ta Aingueruz valiatu, Artecoz bezala, orieci beren irabaciac, edo merecinaentua aguertzen dituztela, ta al dituzten escatze, ta otoitz guciequin daguiten harren alde, dezaquen gucia? | |

VIDE ona da ori aritaraco; bada Ceruzo guciac, eta gañeraco-equin batean, JESUSEN Amac, artu ezquero beren gain eguiteco andi har, anitz daguiquee becatariaren alde, ta Jangoicoac dion becatari gaifoan, edo eman dezon, aitor-men, edo confessio zucen bat eguiteco, ta, dagoen toqui gaistotic ateratzeco, beharico, quen laguitza, ta gracia: Baña, onien izate, irabaci, ta otoitz guciac baño, aguitz, eta aguitz gueiago valio du orretaraco, ta Aita eternoa becatariac urrica duric iuzteco, MEZAN, edo cein Apezen escuz egui

eguiten zaion, presentac; bada present onetan arqutzen dira, Jangoico-guizon, JESUS-en izatea, beraren bazterric bagneco irabaciac, edo merecimentuac, eta becatariaren, ta Aita eternoaren ARTLEco taluna; ta ecusten dezu, ez dutela cer ecusi aiec oiequin.

MEZAcO presentari, edo MEZAN JESUSee gu gatic eguiten diuenari zor dio noalqui Munduac, Munduan ez guertatzea, len guertatu oi ciran, gauz arrigarri-etatic combait, edo aguian andiangoac.

LEN ubelde batec utzi cituen itoac Munduan ciran, guci-etatic, zortzi ez, beste guciac: *pauca, id est octo anime salua facte sunt per aquam.* 1. Petr. 3. 20. LAN hau eraguin cioten gure Jangoicoari horducon becatuac; MEZA denetic onarañoco urte--etan ba-dira Mundu berean becatuac, eta behar bada horduan adiña, edo gueiago, ta andiangoac; eta alere ez dator ubelderic.

LEN BENJamin-darren erri batean ciquindu zuten guiza char barzuec befteren viciguide bat; eta orien ciquinqueria gatic ezpatez illac guelditu ciran oguei ta bofi milla BENJAmindar. BI milla urte-tara doa, MEZA-requin arqui-

III

tzen dela Mundua. NORCaflma, gueroztic guertatu diran, efconduen era bereco ciquintzac, eta utsiangoac ere; ta ala-ere noiz iculi dugu, horduan bezalaco odol-iturtzenic?

BECAtu chiquiangoac gatic ere eguin izandu cituen len gure Jangoicoac beitzec iculcari izugarriac, edo arrigarrizco castiguac; eta MEZA dugunetic, ecusten ditu gure Jangoicoac Sacrilegio arrigarriac ere, orrelacorric eguin bague. CER gatic uste dezu? MEZA gatic, dirudi; edo ceren instante oro Munduaren bazterren batean, edo bestean Apezac eguiten dioten Aita eternoari Jangoico guizon, gure Bitarteco-Salvatzallearen MEZAcO presenta. NAI ba-dugu, bada, digun guti gure Jangoicoac gure becatuei dagozten, nequeac ez ecusteco, ta becatu berac damuz, ta behar den eran urratzeco, ta oriec urratu, edo barcatu, ta ere guelditzen, diran zor-cutsuac quentzeco, behar duguna, ez dugu, MEZAZ valiatzea baicic; bada MEZAcO presentan arqutzen dira, orretaraco behar diran, ondaluñac, eta gueiago.

III.

BAI; GUEiago; arqui-  
Ecc tzen



tzen dira alabaña , gure Jaunari zor zaican , ontarteei , edo favoreei erantzuteko behar diranac ere. ORIEC nolacoac diran ecusteco , beguiratu behar diogu bazter onetatic ere gueren MEZARI.

ANITZ da , dugun iza-tearen gain guc gueren Jauna gandic artu izandu duguna ; bada bataioan berean eman dizquigu bere gracia , ta , adifquidetafuna ; bai , ta gracia dcartzien virtuteac , eta ESPliritu Santitaren doaiac ere.

ECUli nai ba--dezu , emate oactan gure Jangoicoari guc zor diogun , ontartea , eculi zazu , ori zuretzat irabazteco , JESUsec eguin , eraman , ta eculi zuena .

EGUIN zuen JESUsec orretaraco , daquizun bezala , gofez , ta egarriz betericaco vicitza luce bat .

ERAMAN cituen , burutic onetaraño urratu zuten , nequeac , eta tormentuac ; eta eculi zuen zure , ta nere , ta gañeraco gucien esquergabea ; bai , ta gurutzeco bere odolifurtzea , ta eriotz-ecin-gogoragoa ere .

ONEMbat costa citzation gure Jangoico--guizonari bere bataioan zuri eguin-icaco ontartea . ECUSTen dezu cein andia ?

ONTart onen eracoac dira beste SACRAMentu--etan , ta , SACRAMenturic bague ere , zure Jangoicoac zuri eguin dizquitzunac .

SACRAMentu-etaco ontartea agueriac dira ; bada confesiocoan (becatua requin confesitzen ba zara zu ) itzultzen dizquitzu cere Jangoicoac , becatuz galdu dituzun , bataiocon ondafunac , eta , gueroztic cerorrec eguñicaco , Ceruco irabaciac ; eta oriequin batean ematen dizquitzu gracia zati berriac , virtuteen acitzea , doaien anditzea ; ta , becatu berriac ez eguiteco , behar dezun , Jaun beraren laguntza , ta gracia .

ETA , len barcatuac dau den becatuac , edo becatu chiquiac baicic , ez daramazuan cere confesionera , atetzen dituzu zuc cere Jauna gandic , dezun graci guciaren luzatze , uirtuteen acitze , ta , doaien anditze andiangoac , eta videnabar ateratzen dituzu cere behar-horduetaraco , cere Jangoico beraren anitz laguntza , ta gracia .

ALDARECO SACRAMentuan , edo ceren comunienan ( comuniatzen zarala behar den eran , edo garbiro , ta ongui prestaturic ) ematen ditzqui-

quitzu zuri cere Jangoicoac ANimaco jan-dan ederac, edo JESUSen gorputz odol Jangoi-cotuac; eta, horduco zure ani-miren toquiac, egoerac, edo dispolicioneac ar dezaquea, gracia, ta indar guciac; ta guei-ago, ta guciago ematen ez pa-dizu, zue toquinc izan baguez da, edo ceren prestatu bague zoacen zu, guciago aitzeco.

BERRIZ, ta berriz ere comunitatzen ba-zara zu, ber-diz ta berniz ematen dizu cere Jan-goico maiteac, zue aldian ar-tu ala; ta gau, ta egun, ta be-ti prest dago gure Jangoicoa, zuri emateco, len emanen ga-in, aldi oroco zure toquiac, edo etor-etac efcatzen duen, animaco indarra, sustentoa, ta gracia.

GAñERaco SACRAMen-tu-etan (orietaratzen ba-zara zu) era berean dabil zurequin zure Jangoico maitea garria; ta SACRAMentu bacoitzean egui-ten dizquitzu, zure urbil era-ri dagozcan, ontarte guciac; eta, anitz, eta andiac an zuri harc eguiña gatic, beti guel-ditzen da, guciago zuri, ta an-diagoac eguin-naiez.

ANDIAC dira, ta anitz, dacufazun bezala, cere Jan-goicoac zuri bere SACRA-mentuz eguiten dizquitzun, on-

taiteac, onguiac, eta favore-ac; baña ez dira oniec, ez, eguin dizquitzun guciac; egui-ten ditzquitzu, beste anitz, eta anitz ere, SACRAMentunc ba-gne; ta eguiten dizquitzu (da-gozquitzunac ba-dira), efcatzen diozun gucietan: ta, zure oneracoac ez diranean, zue efcat-zen dituzunac, orien ordez ematen dizquitza cere efc-al-dietan, zure oneraco dirala, berac daquienac.

ETA efcatzen ba-diozu, oberie bague vicitzeco, fule-cco cere erriaci garaitzeco, eguin beharco dituzun, cere lan on-etaraco, behar dezun la-guntza, ta gracia, ematen di-zu beti beti, ta usfic bague; ta, noiz-bait zue cere lanetan utfen bat eguiten ba-dezu, izaten da, hartan zu ciñez jarri gabez, edo ceren zue cere Jauna gan-dic erdisten ez dezun, efcat-ze usla-requin erditfi cenez-a-quen, Jaun beraren laguntza; ta laguntza, len Jaun berac eman dizuna baño, indartsu-agoa.

BESTE anitz ontarteren artean zor diozcazu zue cere Jangoicoari orain uquituz be-zala adiraci ditugunac.

ETA non idiroco de-zu zue, orien-beren zorrari erantzuteco, asquico den, onda-  
 suna? Eeez Non?

NON? MEZA batean: bada, MEZAN dago, ontart oriec ez-ecic, Jangoicoac guri eman alac irabaci cituen, Jangoico guizon JESUS maitagarria; ta MEZAN dago, guc, nai dugun, guciren alde present izateco; ta, guc ori MEZAN Jangoicoari presentzat eman ezquero, erantzuten diogu ederqui, ta gure Jangoico berac nai bezala, eguin dizqui-gun, ontarte gucien zorrari.

## IV.

ETA ona non, onetarako diran, MEZAREN ondafunac ecustean, ecusi ditugun, MEZA berac dituenac, Santo THOMAsEC aguertu cigun, laurgarren gauzaraco. OROItzen zara cer gauza den gauza hau.

HAU da ontarte berriac guc gure Jangoico bera gaudic artzea.

JANGOICOAREN--behargarra gu gau-ta-egun, egunaren laordu gucietan, ta horduaren zati oro. MEZAN arkitzen den, Jangoico-guizonac irabacia daduca, gure beharrac estaltzeco, behar dugun gucia: gure JESUSEN irabazte hau aguertzen dugula, ta MEZACO presenta--requin bagozque gu Aita-eternoA gana, gure animaren oneraco den

edocein gauzaren esque: ta bagozque, ucatuco ez-digulaco uste osoan, elcatu ezquero guc, gure Jangoico berac nai duen, ta behar den eran; ba-daquigu alabaña, nai adiña guc hari ecattua gatic, ez diogula guc ecattuco, MEZACO gure presentac valio duenaren laurdenic ere.

ECUSTEN dezu, cein andiac diran MEZAREN ondafunac? ECUSTEN dezu, asqui, ta sobera dirala gu gueren zorren azpitic ateratzeco, ta CERURACO aberats eguifac uzteco?

OTE daquizu zuc, cer ondafunac diran, MEZACO ondafun andi orieg?

MEZACO ondafun chiquienac valio du, INDIETACO urre-cillarrac, itasfoco perlac, eta coralac, lurpeco diamante, ta arri eder guciac, ta Ceu lurretaco gauzac baño, gueiago, ta gueiago; ta al-ere MEZACO ondafunac, aifã, ta erraz irabazten diran, ondafunac dira; bada irabazten dira, MEZAN egonez ONGUI oharturic, DEVOTQUI, ta behar den ERAN.

ETA, hau onela dela, den bezala, MEZARI gaur guero beguiratuco ote diozu zuc, orain-dañoocoan bezain, begui otzequin? UTZICO ote dezu zuc, len bezala, anitz egunez ecusi

ecusi ere bague , erraz ecusi, ta entzun dezaquezula ? ENzute labur baten neque arin bat ez artu-naiez, galdu naico ote dituzu zuc orrembat ondafian , ta irabazte ?

EZ dituzu ecusten zuc , itfasoz itfaso guizonac, eta mill eguitecoren azpian , ta ambat arazoren artean sartuac, lurreco cembait gauza char irabaci naiez , irabacico dituzten, edo ez, ez daquitela ; ta jaquiñaren gañean , irabazten badiutze ere , urbil dutela beren eriotza ; ta eriotzaren escueteran utzi biharco dituztela beren irabaci , ta ondafun guciac ?

ETA zuc , egun oro, edo maiz irabaz ditzaquetzula, ta utseguin bague ; irabaz ditzaquetzula , anitz necatzen etzarala ; ta videnabar ateratzen dituzula cere Jaunari zuc diozcatzun , cere zor andiac , galdu naico dituzu lafai-queriz , ta deuf-ez batean bezala iduquiz zuc , cere Jangoicoac MEZAN zuri eguiten dizquitzun, ontarteac , MEZAN aguertzen dizquitzun , ondafun andiac , eta berari diozcatzun , zorren ateravideac ?

ECUSIac ecusiric , ori zuc eguitera , beti bildots den, ardi charraren antzan guelditzen zarasta ez daquit non guet-

dituco zaran zu azquenean !

EZ arren , nere Jangoico maiza-garria , ez niri, lau onelacoric eguiten iutzi! EZA-gutu dut , berandu bad-ere, MEZA berean zuri nic zor dizudan , amorea ; ta amore oniamorez erantzuteco , nere zorren alde al-dudana eguitemo , ta Ceruraco ondafun-dun guelditzea gatic, oitu nai dut nic MEZAC entzutera ; ta enzuten dudan , bacoitzetic atera nai dut nic atera dezaquedan , ondafun gucia.

NIC nai bezala , guerra dedin hau , indazu zuc artaraco behar den, cere laguntza, ta gracia. Bai arren , nere Jangoico maitea , bai.

I.

LAUDATE EUM SECUNDBM  
*multitudinem magnitudinis eius.*  
Pfal. 150. 2.

JANGOICoa da , eternidade gucian bacar-bacarric egonda den , IZATE , ta gauza bati ; baña gauza , ta izate ecin obee ; gauza , ta izate eguin-garri gucien berria zuena ; nai cituen, gauza guciac ceguizquena ; baten ere beharric etzuena ; ta beti beti atseguin-contentuz , ta gloriac beteric arquitzen cena. ZUEN, onafuñaren ber-

na eman nãiez, orren , ta bertzeren bearric gabe , eguin cituen noiz--bait guizonarentzat , Ceruaren erpiñetic lurraren ondorañoco gauza guciac ; eta onen ondoren eguin zuen lembicico guizona , ta eguin gaitu guero garan gucioc.

BADA cer ez diogu zor guc onembat bere ontarte gatic gueren Jaun eguilleari?

SALMARIac dionaz , zor diogu , duen IZATE andiari , ta izatearen edertafun , ta perfecione guciei dagoten , presentata , ta laudarioa.

BAÑA non ori guc arquiku?

MEZan,urrutirago joan bague ; ta ez bestetan : bada MEZACO JESUSEn izatea , ta laudarioac dira Jangoico guizonaren IZATE laudarioac ; era orre gatic dira Jangoicoari dagocan , presenta ; ta present , MEZAN baicic , arquitzen ez dena.

EGUIN uste dut , bada , nic nere Jaun eguille ecin-andiangoa , MEZ-enzun aldi gucietan. ZURE ohoretan entzun al-ba-nitza nic Munduan ematen diran , guciac ! INDAZU egun orocoa bad-ere enzuteco , behar den , ofafuna , ta devocionea. Bai arren , nere Jangoico maitea , bai.

2.

UT FINEN ACCIPIAT PECCATUM , & deleatur iniquitas... occidetur Christus. Dan. 9. 24. & 26.

**B**A daquit nic , bai , nere Jangoico maita--garría , cembat diran , orain dañocoan nic eguin-icaco , becatuac ; eta otien urratzeco deuf- ez bat bezala dirala nere eguin-al guciac , eta mundu guciarenac , zuc jaguntzen ez pa-didazu nere lan cnetan ; andia da alabaña nere becatuen zorra , ta ecer- ez bat dirudien , gauza , nic nerez orien alde daguiquedana , ta emen arquitzen den , gucia.

EZ ematera , bada zuc , dezaquezunac bezala , orien alde behar den OFRENDA , ta PRESENTa , ez dira nere Animatic quenduco beinere nere becatuac , edo nere obenac , eta gaizquiac.

JESUSEn eriotza celiacion DANIEL Profetac , onetaraco presenta. Present hau artu ceuuen zuc bein CALVAIICO gurutzean. ARTU dezaquezu berriz , ta berriz ere edo cein ALDARECO MEZAN.

BETOR , bada , bein bad-ere gure JESUS , horduco bere izate , irabaci , ta neque guciequin , orain-dañoco nere gaizquien alde ; ta hau nic zuri

APEZA

APEZaren escuiz aguertzean, edo nic nere MEZA enzuten dudanean, eman behar didazu, nere becatuac zucen confeslatzeco, ciñezco damuz urratzeco, ta orien zor guciac eimen ateratzeco, behar dudan, cere laguntza, ta gracia. Bai arren, nere Jangoico maitea, bai.

3.

QUID RETRIBUAM DOMINO  
pro omnibus, qua retribuit mihi?  
Calicem salutaris accipiam, & no-  
men Domini invocabo. Ps. 115. 12.

CERTaz erantzun nic (erran dezaquet nic ere, SAL-mari esquerdun onac adina eguia-requin): certaz erantzun nic, nere Jangoicoac niri eguin dizquidan, ontart andi atseguin-garrieci? EGUIN ninduenetic, orain dañoco gucian haritu da beti nere Jangoico maite-garria, onguiac onguien gain niri-eguiten-ta-eguiten, instante batez ere bere escutic uzten ez navela ni.

NERE beharrean egon ba-liz ere, eguin cezaquen nere-requin nere Jangoicoac, eguin duena baño anitz guciago? ETA eguin duen ezquero, niri ongui eguin nai uttez; ta betico ni galdu lecuana, beti vici nadin ni beraren beguietan, ta

beti atseguin-gloriez betea, ez diot nic, esquerdun onaren eran, eguin behar cerbait presenta, noizean bein bada ere; ta eguin aldian alic onguiena?

BAI, baño cer present eguin dezoquet nic nere Jangoicoa bezalaco Jaunari; ta Jaun, eguin dizquidan diñaco, ontarteac, eta gauzac eguin dizquidanari?

CEER? EDERqui dagocan, bat; eta, berac eguin-icaco ontart guciac baño, ascotan gueiago valio duena; MEZACO CALiza; ta CALIZ JESUSec, ontart oriec, eta Jangoicoac eman-al guciac guretzat irabazteco, isuri zuen odol-la-requin, ta odol oni dichezcon, gauza guciequin, arquitzten dena.

MEZACO CALIZ hau, bada, ta MEZA gucia, guerta dedilla, nere Jangoico emalle maite-garria, zure icenean, ta niri zuc eguin-icaco ontart guciac alde. Bai arren, bai.

4.

HIC... SEMPITERNUM HABET  
Sacerdotium... semper vivens ad  
interpellandum pro nobis. Hebr.  
cap. 7. v. 24.

AH! nere Jangoico maite-garria! EGUIN gatic nic zuri

zuri zure ontarteen, ta nere zorren alde nere presenta; eguin ez dur, eguin behar dudangucia; bada ori eguin, ta ere, badur oraindic nic best-eguiteco bar.

CER ote?

CONtuz billatzea nic, etorquitzun dagoen, nere vicitz onac escatzen duena.

NON? ZURE escu emalle-etan nere Jaun andia.


CER vitez? MEZAZ, ta JESUSez, edo MEZAN JESUSez; bada JESUS APEZAREN hitzez MEZAratzen da; ta MEZAN berac APEZAREN es-cuz eguiten dizu, betico APEZ-tasuna duenac bezala, bere buruaren, ta berac zure icenean, ta gure alde, eguin, ta eramian zuen guciaren OFRENda, edo PRESENta; ta, ori eguitean, es-

catzen dizu, guc, zucen ibiltzeco, ta zureac izateco, beharco duguna; ta escatzen dizu, escatzen dizuna baño, gue-iagocoa den, PRESENTa eguiten dizula.

JESUSez, bada, MEZAN eguiten dizun, atseguin andiaren icenean, ta JESUSen horduco escaerac gatic, ez arren ucatu niri, nere Jangoico-ecinemalleagoa, nere eguitecoac, nere lanac, eta nere zucen vici beharrac escatzen duten, zure laguntza, ta gracia.

ETA hau niri gal-eraci ez dezadaten nere oben itusü galgariac, indazu lembicico lecuian orien damu, ta urriqui vici bat; eta lagun zaquizquit hehar bezala orain erraten: *NE RE JESU-CHRISTO, &c.*

L A U S D E O.





# ARQUI-VIDEA.

## LXI. OTOITZ-GAIA.

- P**ILATOfen sentenciatic Calvarioco Mendirañocoa. 07.
- §. I. PILATOfen garbiera ciquiña; ta JESUSen soñecoen aldaera nequezcoa. 07.
- §. II. Bere gurutzeta-requin JESUSi Jerusalem guertatua. 10.
- §. III. Urricarrizco negarrez terrazcon, cembait emacumeri JESUSec adiracia. 14.

## LXII. OTOITZ-GAIA.

- JESUSen Galvarioco lembicico nequeac, eta gurutzeratzea.
- §. I. JESUSi eman cioten edari miña, ta soñecoac quentzea. 21.
- §. II. Ilrtez josten diozcate Borreroac JESUSi bere bi esiuac Gurutzetaren bi besoetan. 24.
- §. III. Oñac josi ondoan uzten dute JESUS Borrerroz ecin adiraci ala oñace-requin. 27.

## LXIII. OTOITZ-GAIA.

- JESUSec gurutzetic ecusi, ta aditu zuena.
- §. I. Eusten ditu JESUSec bere neque gozorretan cembait gauza guztiz neca-garriac. 35.
- §. II. Ecusi cituen JESUSec bere tormentuzco Gurutzetic anitz gauza neca-garri. 38.

## LXIV. OTOITZ-GAIA.

- JESUSen Gurutzeco eracustea.
- §. I. JESUSen Gurutzeco hitz-aldi, ta eracuste bi. 48.
- §. II. JESUSen beste bost hitz-aldi, ta eracuste. 53.

## LXV. OTOITZ-GAIA.

Gurutzean cegoencan JESUS, Aira Eternoac onen alde eguiña.

III

¶

§. I. Ce-



- §. I. *Ceruan Aita Eternoac eguiña.* 62.
- §. II. *JESUSEn alde Ait eternoac Jerusalemgo Elizan eguiña.* 63.
- §. III. *Lurrean , ta Arrietan JESUSEn alde Aita eternoac eguiña; ta Judatar gaisfoen gogortasuna.* 65.
- §. IV. *Ondu nai dutenac ezquin behar dutena.* 67.

### LXVI. OTOITZ-GAIA.

*Galvarioco Mendian JESUSEn Amac izandu cituen, neque arrigarriac.*

- §. I. *Bere Seme JESUS Garuzcan josi ciotenetic, hau illarteco Amaren nequeac.* 75.
- §. II. *JESUS ill cenetico Gurutzetic quendu arteco Ama Virginaren nequeac.* 78.
- §. III. *JESUSEn Gorputza Gurutzetic quendu , ta Vizitu arterañooco Amaren neque penac.* 81.

### BOSGARREN LIBRUA.

*Aldarean JESUSEc digun , ongui naia , ta amorec.*

### LXVII. OTOITZ-GAIA.

**E**Z gaitu JESUSEc illa gatic uszi, gurequin guelditu da, viztu ondoan ; ta laguntzen digu anitz aldetara Elizaco bere Sacramentu equin. 89.

- §. I. *Lembecico bere iur Sacramentu-etan gure Jaunari zor diozcagu anitz laguntza.* 90.
- §. II. *Gañeraco Sacramentuetan gure Jaunari zor diogun ondasuna.* 94.

### LXIII. OTOIT-GAIA.

*Cembat den JESUSEc ALDARECO SACRAMENTUAN ematen diguna? Nola ematen digun ; ta cembatetan?*

- §. I. *Anitz da JESUSEc ALDARECO SACRAMENTUAN ematen diguna.* 103.
- §. II. *ALDARECO bere SACRAMENTUAN JESUSEc ematen digun , guia ematen digu amore andiarequin.* 108.
- §. III. *ALDARECO SACRAMENTUAN JESUSEc ematen diguna , ematen digu asco lecitan , ta anitz aldiz.* 111.

### LXIX. OTOIZ-GAIA.

*JESUSEn Gorputzaren ALDARECO egoera.*

- §. I. *Nolacotsua den JESUSEn Gorputzac ALDARECO SACRAMENTUAN duen, edertasuna.* 117.
- §. II.

- §. II. JESUSEn Gorpatzaren cembait aldetaco argui bereciac, ta edertafuna. 121.
- §. III. JESUSEn Gorputzac ALDAreca dacartzien, doaiac. 123.

### LXX. OTOIZ-GAIA.

- ALDAreca dago JESUSEn Odol garbi, Animen garbizallea. 129.
- §. I. Non, nola, ta certaco issuri zuen, JESUSEc ALDAreco bere SACRAMentuan ematen digun, bere Odola. 130.
- §. II. ALDAreco bere Odolein JESUSEc aguertzen dezquigan, ontasuna, ta amorea. 134.

### LXXI. OTOITZ-GAIA.

- JESUSEn Animaren ALDAreco Egoera 142.
- §. I. JESUSEn Animaren ALDAreco Vicitza, ta edertafuna. 143.
- §. II. JESUSEn Animaren Adimentua, ta ezaguera 146.
- §. III. JESUSEn Animaren ALDAreco Naia, edo vorondatea. 149.

### LXXII.

- JESUSEn Seme-tafuna, Seme-tafunari dichezcon, gauzac, eta ALDAreca JESUSEc docartzien, bere irabaci guciac. 154.
- §. I. JESUSEn Seme-tafunaren, ta Seme-tafun oni dichezcon ALDAreco gauzen Egoera. 155.
- §. II. JESUSEc guretaco Aldarera dacartzien, irabaci andiac. 159.
- §. III. JESUSEc Aldareco Sacramentuan guelditzea gatic eguin ci-tuen, irabaciac. 163.

### LXXIII.

- JESUSEn Aldareratzen, ta beraren Aldareco Eche-Guelac, eta Soñecoa. 169.
- §. I. JESUSEn Aldareratzea. 169.
- §. II. Jესusec, Aldareratzen denean, izan oi dituen Echeac, Echeen Apaintzac, eta Guelac. 174.
- §. III. Jесusec Aldareco soñecoac. 178.

### LXXIV.

- Jесusec, ongui comunitatzen denaren alde eguin oi dituen, cembait gauza. 185.
- §. I. Aienatzen du Jесusec Sulececoa, ongui comunitatzen dena gandic. 185.
- §. II. Ateratzen du Jесusec ongui comunitatzen dena Mundu gaisfoaren atzapar-etatic. 190.
- §. III. Ateratzen du Jесusec araguiaren atzapar-etatic ongui comunitatzen denaren Anima. 194.

### LXXV.

- Becaturaco bere beldurra-requin-uzten du Jesussec, ongui comunitatzen dena.** 208.
- §. I. Ongui comunitatzen dena beldur-erazteco, adiratzten diozca comunitatzen denean gure Jesussec bere hirtzac. 201.
- §. II. Ongui comunitatzen denari eracusten diozca Jesussec anitz gauza izugarri, 205.
- §. III. Beldurtzen du Jesussec ongui comunitatzen denaren bihorza. 209.

### LXXVI.

- Ongui comunitatzen denari laguntzen dio Jesussec barrengo bere etsaiac garaitzen. 215.
- §. I. Bere pasione beldurtiac escuratzen laguntzen dio Jesussec ongui comunitatzen den, edoceñi. 216.
- §. II. Laguntzen du Jesussec comunionean pasione sutuac escuratzen. 218.
- §. III. Laguntzen du Jesussec comunionean pasione char loiac escuratzen. 222.

### LXXVII.

- Ongui comunitatzen denari laguntzen dio Jesussec bere etsaien lan gaitzaco urratzen. 230.
- §. I. Ongui comunitatzen denari laguntzen dio Jesussec becatuaren zauriac fendatzen. 230.
- §. II. Becatariaren ezcabi izugarria fendatzeco da, ongui, ta maiz comunitatzea. 235.
- §. III. Ongui comunitatzen denaren flaquiac quentzera dator Jesus Aldareco bere Sacramentura. 238.

### LXXVIII. OTOITZ-GAIA.

- Ongui comunitatzen denari laguntzen dio Jesussec virtuteac irabazten. 245.
- §. I. Lirio zuri-ederraren eraco virtutea irabazten laguntzen dio Jesussec, ongui comunitatzen den, animari. 245.
- §. II. Arrofa gorri-ederraren eraco virtutea, ta gaitzacoac irabazten laguntzen dio Jesussec, ongui comunitatzen den, animari. 250.

### LXXIX.

- JESUSsec ALDAREratzean, guri ongui naitez, eguiten dena. 259.
- §. I. Laur gauz on arrigarri Jesussec ALDAREratzean gure oneraco eguiten dituenac. 260.
- §. II. Sacramentu bereco beste bi gauz andi, ta milagro. 266.

### LXXX.

- ALDARECO bere SACRAMENTUAN Jesussec aguertzen digun, ongui naia.** 272.
- §. I. Alda-

- §. I. Aldareco Sacramentu berac aguertzen digu ongui asqui, andia dela JESUfi guc emen zor diogun, ongui naia, ta amorea. 272<sup>1</sup>
- §. II. Bere Sacramentutic JESUsec eguiten duenac aguertzen digu, guztiz andia dela emen berac guri digun, amorea. 280<sup>4</sup>
- §. III. Aldareco bera Sacramentsuan JESUsec eguiten duenac aguertzen digu, guztiz andia dela berac guri digun, amore ondasunduna. 283<sup>4</sup>

LXXXI.

- Cer gatic ez duten anitzec ateratzen beren comunione-etatic atera lezaqueenaren laurdenic ere? 290<sup>4</sup>
- §. I. Bacan comuniatzen diranac galdu oi dituzte comunioneco ondasun guciac, edo beintzat anitz. 290<sup>4</sup>
- §. II. Behar den eran eguiten ez diran comunioneetatic datocen calteac. 296<sup>4</sup>

LXXXII.

- Comunioneco ondasun andien irabaz videa. 305<sup>4</sup>
- §. I. Comunioraco prestatzeac escatzen duen, lembicico gauza da Animaren garbitasuna. 305<sup>4</sup>
- §. II. Comunioraco prestatzeac escatzen duen, bi-garren gauza da gure Jangoicoaren baldur andi bat. 308<sup>1</sup>
- §. III. Comunioneco prestatzeac escatzen duen, bi-garren gauza da batec bere burua esuratzea. 311<sup>1</sup>

LXXXIII.

- Comunioneco ondasunac escatzen dituzten Animaco apaintzac, eta esquerrac. 319<sup>1</sup>
- §. I. Comunioneco ondasunac escatzen dute adimentu argui onez betericaco bat. 319<sup>1</sup>
- §. II. Comunioneco ondasunac escatzen dute bihotz amore garbiz betericaco bat. 323<sup>1</sup>
- §. III. Comunioneco ondasunac escatzen dute bihotz esquerdun escale bat. 326

LXXXIV.

- Nola eguin behar den azquen cocomunionea. 333
- §. I. Azquen aldiac comuniatzeco dagoenac utzi behar ditu gogoz, ta bihotzez lurreco gauzac, eta asmoac. 334<sup>1</sup>
- §. II. Azquen aldiac comuniatzeco dagoenac eguin behar dituen, gañeracog gauzac. 337<sup>1</sup>
- §. III. Ilizen dagoenaren comunione ondaco esquerrac. 341<sup>1</sup>

LXXXV.

LXXXV.

Comunione gaistoaren irus-tafina.

- §. I. Gaizqui comuniarzen denac ematen diozca Jesusi presonaegui bat, eta cate guztiz gaistoac. 347.
- §. II. Jesusen neque tormentuac berritze bat bezala da becataria gaizqui comuniarzea. 353.
- §. III. Berriz gurutzeratzen du Jesus gaizqui comuniarzen den, Animac. 354.
- §. VI. Len, ta guero gure Janzoicoac Aldareco Sacramentuaren alde eguin duenac adirazten du, cein gauz irusfi arrigarria den comunione gaistoa. 360.

LXXXVI.

- Comnniatu onderaco zarpi esquer-vide. 373.

LXXXVII.

- §. I. Gogozco comunionea cein escaer ona? 388.
- §. II. Cein ondasun-duna? 393.

LXXXVIII.

MEZA.

- §. I. Cein andiac diran, ta nola atera ditezpuen Mezaco ondasunac. 400.

